

Antonio Zavala

Euskal errromantzeak
Romancero Vasco

Euskal erromantzeak

Romancero Vasco

Auspoa Liburutegia

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tel. 943 493 551 - 943 493 552 - 943 493 553

Fax 943 493 548

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Antonio Zavala

Euskal erromantzeak

Romancero Vasco

Auspoa Liburutegia
(1998)



EUSKALTZAINDIA
AZKUE BIBLIOTEKA

© SENDOA ARGITALDARIA
Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz
ISBN: 84-89080-68-2
Legezko Gordailua: S.S. 775/98

Itzaurrea

Prólogo

Itzaurrea

Prólogo

Liburu au gure erri-poesiaren esparru edo jenero berezi baten bilduma da. Berezia ez-ezik, naiko ezezagauna eta urte askoan baztertua egon dana ere bai.

Nik, beintzat, bertso zaarrak bilten asi nintzanean, beraren berri batere ez nekian. Bertsolariren batek moldatutako bertsoak norbaitek esan eta nik idatzi egiten nituan; edo garai bateko inprenta edo moldiztegiren batetik argitara emandako bertso-paperen bat jasotzen nuan. *Bertso berriak* esaten zaion jeneroa eskuratu, alegia. Baiña ortaz gaiñera besterik izan zitekeanik, etzitzaidan burutik pasa ere egiten.

Ala, Billabonan, 1989-V-26-an, kontapoesia zaarrari buruzko jardunaldietan emandako itzaldian, onela esan nuan:

“...nere kideko euskaltzaleei etzigun iñork esan kontapoesi zaar ori gure erri-poesiaren jenero berezi bat zanik. Oartu ere ez dakit zenbateraino egin ziran ortaz gure aurrekoak”.

Eta aurreraxeago:

“Orain, erri-literatura ezagutu nai duan gazteak, eremu orren mapa naiko egiñik arkituko du eta berau eskuan duala sartuko da lurralde ortan. Gure adiñekoak ez gen duan olakorik izan. Bilduma eta azterketa gutxi zegoan, eta zeudenak ere billatzentzilak. Maparik gabe abiatu bear, beraz. Onekin zera esan nai nuke: autodidaktarik izan bada, gure gizaldiko euskaltzaleak izan gerala. Onek bazuan, ala ere, bere alderdi ona:

Este libro pretende ser la recopilación de un género muy peculiar de la poesía popular vasca; género que ha permanecido desconocido y arrinconado durante muchos años.

Yo, al menos, cuando me di a la tarea de recoger dicha poesía, nada sabía de su existencia. Si alguien me recibía estrofas de algún bertsolari (versificador popular), las transcribía; o si llevaba a mis manos un bertso-papera, una hoja de poesía popular, editada por alguna imprenta, la archivaba. Coleccionaba ese género denominado Bertso berriak (Estrofas nuevas). Pero no se me ocurría pensar que, aparte de ello, pudiera haber algo diferente.

Fue por eso que en 26-V-1989, en una conferencia leída en Villabona, en un Cursillo acerca de la vieja poesía narrativa, dijo:

“...a los vascólogos de mi generación nadie nos informó de que la tal vieja poesía narrativa fuera un género peculiar de nuestra poesía popular. Ni sabría decir hasta qué punto se dieron cuenta de ello los que nos precedieron”.

Y más adelante:

“Ahora, el joven que desee conocer nuestra literatura popular halla suficientemente trazado el mapa de esa región, y con él en la mano se adentrará en ella. Pero los hombres de nuestra edad no dispusimos de nada de eso. Había pocas recopilaciones y estudios, y aun ellos eran difíciles de encontrar. Quiero decir que, si ha habido autodidactas, lo hemos sido los vascólogos de nuestro tiempo. Esta situación tenía, así y to-

bide-ebakitzaille edo *exploradore* biurtzen ginduan".

Baiña gure jakiñ-eza uxatuko zuen aizeak laster asi ziran andik eta emendik jotzen:

"Ni, beintzat, bertsso zaarrak biltzen asitakoan, bertsso-sail ezezagun bat eskuratzetan nuan bakoitzean, arkiketa berri bat egin banu bezela potztutzen nintzan. Baita liburu zaarren bat billatzean ere. Une gogoangarriak ziran alek benetan. Bertsolarien emaitzak izan oiziran geienbat jasotzen nituanak: Xenpelar, Txirrita, Bilintx, Otaño eta abar. Baiña noizean bein arrituta gelditzen nintzan, eta beste euskalktzaile askori ere berdin gertatuko zitzaiela uste det. Bildutakoa beste poesi-mota bat baitzan. Oso errikoia bera ere; baiña egitura oso ezberdiña zuana. Zer zan ura?"

Nere begietara leenengo iritxi ziran erromantzeak, R. M. Azkuek bere *Cancionero popular vasco* kantutegian dakarzkianak izan ziran. Baita Polikarpo Larrañaga jaunak 1926-an Donostian emandako itzaldian eskeiñi zuan Arrateko kanta ere. Ondoren etorri ziran Manuel Lekuona jaunak bere *Literatura oral euskérica* liburuaren sartu zituanak; Sallaberry-ren kanta-bildumarenak; Mariya eta Kan-tuz kantutegienak, eta abar.

Pixkabana, beraz, ura beste poesi-mota bat zala konturatu eta jabetu nintzan. Bertsolarien emaitzekin, *Bertso berriak* izeneko jeneroarekin zer ikusirik etzuana.

Xuxen ezin esan, ordea, poesi-mota oni karpeta berria noiz iriki nion, naiz eta orrek bere esan-naia bazeukan. Leku berezia ematea jenero berritzat artzea baitzan.

* * *

Baiña landare berri oiei nola dei-tu? Ortarako ez du euskerak itzik; eta orrek poesi-mota ori gure artean jene-

do, su lado bueno: nos convertía en exploradores o abridores de rutas.

Pero comenzaron pronto a soplar los aires que disiparían nuestra ignorancia:

"Yo, al menos, cuando emprendí la recopilación de la poesía popular, cada vez que llegaba a mis manos una composición desconocida, me alegraba como si hubiera hecho un descubrimiento... Aquellos eran momentos memorables. Lo que preferentemente recogía eran producciones de bertsolaris: Xenpelar, Txirrita, Bilintx, Otaño... Pero de vez en cuando me llevaba una sorpresa, y creo que a otros vascólogos les sucedería lo mismo. Y era que lo cosechado pertenecía a otro género de poesía; muy popular, desde luego, pero de una textura del todo diferente. ¿Qué podía ser aquello?"

Los primeros romances vascos con que tropezaron mis ojos fueron los contenidos en el *Cancionero popular vasco* de R. M. Azkue. O, también, el cantar de Arrate, ofrecido por don Polikarpo Larrañaga en su conferencia de San Sebastián, en 1926. Después llegarían los que incluyó don Manuel Lecuona en su libro *Literatura oral euskérica*; los de Sallaberry en su libro *Chants populaires du Pays Basque*; los de los *cancioneros* Mariya y Kan-tuz, etc.

Poco a poco fui dándome cuenta de que se trataba de un tipo distinto de poesía, que tenía poco que ver con el género denominado *Bertso berriak*.

Lo que no sabría decir es en qué momento abrí para esta poesía una carpeta nueva; gesto no carente de significado, pues equivalía a reconocerla como género nuevo.

* * *

Pero ¿cómo denominarla? El vasconce carece de palabra para ello, lo

rotzat artua izan etzala salatzen du. Aintzakotzat leenago artu izan bagendu, kanta geiago jasoko ziran. Aitorpen ori ain berandu emana, gure kalterako izan da, beraz.

Poesi-mota oni erantsi zaizkion izenak beste izkuntzetatik artuak izan dira. Ala, oker ez banago beintzat, *erromantzea* esan izan zan gure artean leenengo. Ori arkitzen degu Sallaberry, Azkue eta Manuel Lekuona naren idazkietan. Guk ere tradizio orri jarraitzen diogu.

Aurkako arrazoia badirala esan bearrik ez da. Alde batetik, *lengua romance*, latiñetik datozen izkuntzengatik esan oi degu; euskerarekin zer ikusirik ez dutenak, beraz.

Bestetik, berriz, itz-neurtu berezi baten metrikagatik esan oi da *romance*: zortzina silabako lerroak –gutxiagokoak ere badiran arren– eta binaka rima edo pauta, alegia. Euskal kanta zaar auetan, berriz, bestelako bertso-mota asko arkituko ditugu.

Baiña ori azalari dagokiona da. Erromantze oiek, metrika ortan mol-datuak izateaz gain, gertaeraren bat kontatua bear dute. Danok ere ori ulertzen degu leenengo, itz ori entzundakoan. Berdin da gertaera ori benetakoa ala asmatua izatea.

Ala, esan-nai onekin gure kanta zaar auei *erromantze* esatea, neurri-neurriko jantzia ematea da. Oni begiratu diogu, itz ori aukeratzerakoan.

Leen aitatutako Billabonako jardunaldiatarako, *kontapoesi* itza asmatu zan. Itz berri orrek bi alderdi eskatzen zituan idazki batean: batetik, itz-neurtu edo poesia izatea; eta bestetik, kontakizuna. Poesi-mota onek bere muiña orixe duala adierazi nai da. Ala, liburu ontan biltzen diran

que revela que esa poesía no era estimada y tenida como género distinto. Si se hubiera tomado antes en consideración, se habrían recogido más composiciones. Ha sido para nuestro mal que tal reconocimiento llegara tan tardío.

Los nombres que se han aplicado a este tipo de poesía proceden de otras lenguas. Creo, si no me equivoco, que primeramente se les llamó romances. Es la palabra que encontramos en los escritos de Sallaberry, Azkue, Lekuona y otros. También nosotros seguimos esa tradición.

Es obvio que existen razones en contra. Por un lado, al decir lengua romance, estamos aludiendo a cualquiera de las que proceden del latín, excluyendo por tanto al vascuence.

Por otro lado, se entiende como romance una composición de versos octosílabos –aunque también los hay de menos–, en la que riman los pares. En estos viejos cantares vascos, en cambio, encontraremos gran variedad de estrofas.

Pero todo eso se refiere al envoltorio. En los romances, aparte de estar compuestos en cierta determinada forma métrica, se narra una historia. Es lo primero que entendemos al oír esa palabra. Nada importa que la anécdota sea sucedida o inventada

En este sentido, la palabra romance les viene a estos viejos cantares muy a la medida. Es lo que hemos tenido en cuenta al escoger tal palabra.

Con vistas al ya citado cursillo de Villabona, se creó la palabra *kontapoesi* (poesía narrativa); término que exigía dos aspectos en un texto: que esté redactado en verso y que se trate de una narración. Se declaraba así la esencia de este tipo de poesía. De ese

kantak, gure kontapoesi zaarra osatzen dute.

Baiña itz onek ere baditu bere akats nabarmenak: eremu zabalegia artzen du. Zerbait kontatzen duten itz-neurtu guziak kontapoesia baidira. Eta bertsolariak beren bertsoen bidez zenbat gertakari kontatu dituzten esaterik ez dago.

Adibide batzuk jartzeko, Iturrinoren *Markesaren alaba*, Bilintxen *Bein batian Loiolan*, Xenpelarren *Balentín Berriotxoaren bizitza* eta abar eta abar, kontapoesi ditugu. Baiña sail auek *Bertso berriak* jenerokoak izango dira beti.

Balada itza, ez dakit berak era-biltzen asi ziran, baiña indar aundia eman zioten Joseba Lakarrak, Koldo Bigurik eta Blanka Urgell-ek, beren *Euskal baladak, antología eta azterketa* (Donostia, 1984) bi liburuak argitaratu zituztenean. Baiña itz orrek tradiziorik ez du gure artean. Guretzat, gaztelerazko literatura geiago ezagutzen degun ezkerro, esan-nai aundiago du erromantze itzak. Ortaz gaiñera, *balada* itza, gure belarrieta-rako beintzat, lirika utsarekin ere uztartuta egon diteke; ez kontakizuna-rekin bakarrik.

Ikusten danez, jenero onentzat ez degu jakin itz berezirik sortzen; eta onezkerro berandu izango dala derizkiot.

Baiña ez, dago or zer arriturik. Ainbeste bertso moldatu dituan erri txiki au ez da gauza izan ain gogozkoa duan langintza orrentzat itz egokirik sortzeko. *Bertso* itza erabili degu beti; eta *kanta* itza ere ortxe dago. Oiek biak etxeko umeak etzirala, edo-ta etorkiñak zirala oartutakoan, *itz-neurtu*, olerki eta *abesti* itz berriak asmatu genituan. Baiña ezin izan dituz-

modo, los cantares recogidos en este libro constituyen nuestra vieja poesía narrativa.

Pero esta palabra tiene sus defectos. El primero, que abarca demasiado. Formarían parte de tal grupo todas las composiciones en verso que narran algo. Y ¿cómo precisar cuántos acontecimientos han narrado los bertsolaris por medio de sus estrofas?

Serían, por ejemplo, poesía narrativa La hija de la marquesa, de Iturrino; Una vez en Loyola, de Bilintx; La vida de Valentín Berriochoa, de Xenpelar, etc. Pero estas composiciones pertenecerán siempre al género de los Bertso berriak.

No sé si fueron ellos los que lanzaron la palabra balada, pero le dieron gran impulso Joseba Lakarra, Koldo Biguri y Blanca Urgell, cuando publicaron su obra *Euskal Baladak, antología eta azterketa* (Las baladas vascas, antología y estudio), Donostia, 1984. Pero esa palabra no tiene aquí tradición. Para nosotros, que conocemos más la literatura en castellano, la palabra romance es de más significado. Aparte de ello, la palabra balada, a nuestro entender al menos, podría estar ligada con sólo la lírica; no exclusivamente con la narrativa.

No hemos sabido, por tanto, crear un término para este género; y considero que será ya tarde para ello.

Mas no debe sorprendernos. Este pequeño pueblo, autor de tantas estrofas, no ha sabido dar con una palabra para ese quehacer tan de su agrado. Hemos usado siempre la palabra bertso con la acepción de estrofa; y decidimos también kanta. Al advertir que esos términos no eran hijos de la casa, sino advenedizos, inventamos los de *itz-neurtu*, *olerki* y *abesti*, que no han

te leendik gure artean zebiltzanak baztertu.

* * *

Bilduma itzak garbi adierazten du liburu onek zer izan nai duan: erromantzeen biltoki, gordeleku, kutxa...

Iturrieta arkitu degun bezela eskeiñiko ditugu kanta guziak. Bakoitza bere doinuarekin, noski. Bertso-mota asko erabili dituzte erromantzeak. Baiña mota oiek ez dira beti era berdiñean idatzi. Ori ere, biltzaille bakoitzak papereratu zuan bezela utzi degu.

Baita ere hatxe letraren kontua. Iparraldean beti idatzi izan da eta orauzirik ez dago. Baiña Egoaldean, leen gabe bezela, azken urte auetan egille batzuek erabili egiten dute, baiña beste batzuek ez. Ori ere biltzaille bakoitzak idatzi bezela utzi degu guk.

Beste auzi bat Zuberoako “ü” letra sortu digu. Ori folklorezale batzuek zintzo eta leialki gordetzen dute kanta auetan, batez ere bertakoak. Beste batzuek, berriz, ez dute erabiltzen. Guk bakoitzarena errespetatu bearra zegoala pentsatu degu.

Bestetik, berritz, aal danik eta bildenmarik osoena egin nai izan degu, noski. Ortan jo ta ke saiatu gera, ordupilla aundia eginkizun ortan emanez.

Baiña sobra eta geiegi dakigu osoa izango ez dana. Erromantze zaarren batzuk agertuko dirala oraindik ere, alegia, andik edo emendik; denbora asko baiño leen, gaiñera. Baiña ori bilduma guziekin gertatzen dana iza-nik, ez degu or zertaz arriturik.

Orain urtebetet, adibidez, Karlisten bigarren gerrateko bertsoak izeneko

podido arrinconar a los que anteriormente circulaban entre nosotros.

* * *

La palabra recopilación define lo que este libro quiere ser: depósito, refugio, arca del romancero vasco.

Ofreceremos estos cantares tal y como los hemos encontrado en las fuentes. Cada uno con su melodía. Los romances han utilizado muchas variedades de estrofas, que no siempre se han transcritto de la misma manera. Nosotros las ofreceremos tal y como cada recopilador las confió al papel..

Está también el tema de la hache. En la parte norte del país se ha utilizado siempre y no hay problema. Pero en la zona sur, así como antes se prescindía de ella, en estos últimos años unos la escriben y otros no. También en este punto nos ajustaremos nosotros al criterio de cada recopilador.

Otro problema es del de la “ü” de Zuberoa. Hay folkloristas, sobre todo si son de la tierra, que la escriben así en estos cantares; y otros que no. Es nuestro parecer que debe respetarse la grafía de cada uno.

Por otro lado, hemos puesto el mayor empeño en que la recopilación sea lo más completa posible, dedicando a esta labor todo nuestro tiempo y esfuerzo.

Pero sabemos que no será exhaustiva; que aparecerán romances viejos donde menos se piensa y antes de mucho. Pero eso es algo que sucede con todas las recopilaciones y no nos debe extrañar.

Hace un año, por ejemplo, publicamos el libro Karlisten bigarren gerra-

liburua eman genduan argitara. Bilduma bat da bera ere: guda orri buruz guda-denboran jarritako bertsoena. Osoa egiterik ez dagoala jakiñaren gaiñean egon arren, aal dan osoena prestatzen saiatu giñan. Baiña geroztik, urtebetea pasa ez dan arren, gai ortako bi edo iru kanta edo bertso-sail baditugu eskuratuak, berez liburu ortan bear zutenak.

Bilduma guzietan ori ala bada ere, are geiago bearbada erromantzeetan. Sarritan, izan ere, zoko baten miaketak beste zoko baten berri ematen zigun, eta zera pentsa arazten: eskuetan genduan lana bukaerarik gabeko kate bat zala.

Baiña denbora aurrera zijoan, gure bilduma au beti ere zerbaiten faltan zegoan eta beste nere lan guziak beren apaletik oiuka ari zitzazkigula iruditzen zitzaidan. Makiña bat adiskide galdezka ere bai: "Noizko?". Noizko itz ori bildurgarria da sarritan, eta nik gorrotoa artu diodana, bolara ontan beintzat.

Ala, erabaki bat artu bearrean arritu nintzan: azterketa-lan ori iritxi dan ortan geldi araztea. Ortik aurrerakoa beste aldi baterako edo beste norbaitentzat utzi, alegia. Bestela, denborarekin batera gu ere aurrera goazen ezkerro, gure aalmenak ere gutxitu edo aitu zitezkean. Gureak egin baiño leen, ainbeste urtetan bildutako uulta argitara eman bearra zeoan. Orixe da, bada, liburu onek eskeintzen duana.

Aztertu bearrok ziran, adibidez, bilduma au osoa izatekotan, Bidasoaz iparraldeko kaierrak edo kuadernoak. Andik eta emendik eskuratutako bertso eta kantak antxe kopiatzen zituzten ango bertsozaleak. Aietan erromantzeen aldaera asko izango di-

teko bertsoak (Estrofas de la segunda(1) guerra carlista), recopilación de la poesía popular vasca compuesta con motivo de tal contienda durante los años que duró. Aun sabiendo que era imposible fuera exhaustiva, nos esforzamos por alcanzar esa meta. Pero posteriormente, antes de cumplirse el año, nos han llegado tres composiciones que deberían haber figurado en dicha obra.

Si tal ocurre con todas las recopilaciones, más acaso con ésta de los romances. Muchas veces, al escudriñar un rincón, descubríamos otra pista y no podíamos menos de pensar que lo que llevábamos entre manos era el cuento de nunca acabar.

Pero pasaban los días, a esta recopilación siempre le faltaba algo y a mí me parecía ya que todos mis otros trabajos me daban voces desde su estante. Entre tanto, muchos amigos me decían: "¿Para cuándo?". Esta pregunta es a veces temible, y yo he llegado a odiarla en estos últimos meses.

Me vi, pues, precisado a tomar una decisión: a dar por terminado mi trabajo de investigación. Lo que aún falta quede para otra ocasión o para otro estudioso. Si no, dado que el tiempo nos arrastra implacable consigo, nuestra capacidad puede venir pronto a menos o aun a agotarse. Había, pues, que sacar a la luz los materiales acumulados durante tantos años. Eso es lo que este libro ofrece.

Serían campos de investigación, por ejemplo, los cuadernos de la zona al norte del Bidasoa. Los aficionados a la poesía copiaban en ellos las composiciones que llegaban a sus manos. No hay duda de que contendrán muchas variantes de estos romances. Más aún: guardarán algunos que no

rala, dudarik ez dago. Are geiago: bese-te iñun agertu ez diran erromantzeak ere gordeko dituzte. Ale bakarra diranak, alegia. Kaier oietan agertu arte, guretzat ezezagunak. Baiña zenbat denbora bearko litzake, ikerketa ori burutzeko?

Eskualduna eta Herria astekariak ere arretaz aztertu bearko lirake. Liburu ontan badaude bigarrengo ortan agertutako erromantze-aldaerak. Baita ere, arestian esan bezela, ale bakarra diranak; ordurarte ezezagunak alegia. Orrelako geiago ere an izatea ia segurutzat jotzen degu. Baiña zenbat egun bearko genituzke orrenbeste urteko aleak orriz orri pasatzeko?

Argia astekaria bestea. Aren zenbakietan ere erromantzeren bat edo beste izatea ere ditekeana da. Bidassaz arunzko eta onunzko beste aldi-zkariak eta egunkariak ere aztertu bearko lirake. Baita ere beste ainbat argitalpen, liburu, artxibo, liburutegi eta abar. Baiña lan ori dana burutze-ko, zenbat urte bearko genituzke?

Esan bezela, beste aldi baterako edo beste norbaitentzat geldi dedilla egiteko ori. Bestela ere, naiko berandu gabiltza.

* * *

Bada beste zerbait oso agerian utzi nai gendukeana: ez degula bilduma egitea beste asmorik izan. Ez teoriarik, ez komentariorik, ez sistematizaziorik, ez iñolako konparaketarik ere. Berdin egin oi degu bertsso zaaren bildumetan ere. Orretxegatik, ain zuzen, gure liburu au bilduma besterik ez dalako, ez gera poesi-mota oni buruzko teoria-lan oietan sartuko. Testuak eta doinuak eskeintzearekin gure egitekoa bete degulakoan gaude.

se han detectado aún en ninguna otra fuente. Es decir, versiones únicas y desconocidas para nosotros hasta hoy. Pero ¿cuánto tiempo se necesitaría para llevar a cabo esa labor?

También habrían de ser revisados los semanarios *Eskualduna* y *Herria*, de Bayona. Ofrecemos algunas variantes de romances, aparecidas en este último. Incluso algunas versiones únicas, que no se conocían. Podría darse por seguro que quedarán aún más. Pero ¿cuántos días serían necesarios para revisar hoja por hoja los números de tantos años?

Y luego el semanario *Argia*, de San Sebastián. Es posible que también en sus números se oculte algún que otro romance. Habrían de revisarse asimismo las demás revistas y periódicos de ambas orillas del Bidasoa, así como tantas otras publicaciones, libros, archivos, bibliotecas... Pero ¿cuántos años se necesitarían para llevar a cabo esa tarea?

Como he dicho, hemos optado por dejarlo para otra ocasión o para otro estudioso. Aun sin eso, esta edición se ha demorado demasiado.

* * *

Hay otro aspecto que desearíamos dejar claro; y es nuestra intención de limitarnos a hacer una recopilación, sin nada de teorías, comentarios, sistematizaciones o estudios comparativos. Es el método que seguimos en las recopilaciones de las producciones de los bertsolaris. Por eso, porque este libro no pretende ser sino una recopilación, no daremos un paso fuera de ella. Estimamos que con ofrecer los textos y las melodías hemos cumplido.

Baiña gu berandutu izanak, bitxikeri bat ekarri du. Geien-geienetan, teoria-lan oiek jenero baten bilduma osatu ondoren egin oi dira. Aldi ontan, berriz, esan bezela gu berandu ibili geralako, aurrea artu dute. Gurdia idien aurretik, alegia, atzetik joan bearrean. Ezagutzen ziran erromantzeekin, libururik egin ez-ezik, eskolak ere eman dira, aiei buruzko zer esan guziak erabiliz.

Ori orrela gertatuaaren errua iñori eranstekotan, neronen buruari itsatsiko nioke, aringarri batekin, ordea: astirik eza eta eziña. Bitarte ontan ez baigera eskuak patrikan sartuta egon. Galtzak bete lan izan degu, gure atea jotzen zuten beste eskakizun guziei erantzun bearrez.

Baiña urte oietan kezka bizia eta mingarria izan da gure barruan bilduma au ez egiña eta argitaratua. Au plazatzeko eguna iritxi da orratik, noizbait bada ere eta ederki kostata. Guretzat zer poza dan ez dago esaterik: alde batetik, aspaldian Euskal Erriari genion zorra kitatu egiten degu; eta, bestetik, gure lepoa zama astun ortatik libratu egin da.

Bertsolari zaar askoren bertso-bildumak osatu eta argitaratuak ditugu, aien emaitzak andik eta emendik bilduz, erderaz *trabajo de campo* esaten zaiona egiñik. Egille bakoitzaren bizi-tza edo biografia ere eskeintzen degu. Baita istoria aldetik-eta bertso-sail bakoitza aal ditugun argibide guziekin jantzi eta argitu ere, irakurleak ango esanak errezago eta obeto ulertu ditzan. Baiña bertsolaritzaren teoriaz eta barne-egituraz ez degu bein ere ezer ere esaten.

Zergatik ote? Ortarako bi arrazoi ditugu. Bata, arlo ontan leendabiziko egin bearra materialak eskeintza da-

Pero el que nos hayamos retrasado ha producido una anormalidad. Por regla general, los estudios teóricos son posteriores a la recopilación de un género. Pero en este caso la preceden. Es decir; se ha puesto el carro delante de los bueyes, y no al revés. Con los romances conocidos se han editado libros y se han impartido clases, haciendo todos los comentarios pertinentes.

De atribuir a alguno la culpa de que así haya sucedido, me la echaría a mí mismo, aunque con un atenuante: mi falta de tiempo. Porque no es que haya estado, entre tanto, con los brazos cruzados, sino abrumado por otras muchas urgencias que reclamaban mi atención.

Durante años, el no haber sacado a la luz esta recopilación ha sido para mí una inquietud constante. Pero ha llegado el momento de presentarla al lector, aunque sea algo tarde y a costa de tanto trabajo. No sabría explicar el gozo que ello me produce. Por un lado, cancelo una vieja deuda con el país; y, por otro, quedo libre de tan pesada carga.

He publicado la recopilación de las estrofas de muchos bertsolaris, tras recoger sus producciones gracias a esa labor que ahora se ha dado en llamar trabajo de campo. También he ofrecido la biografía de cada uno de esos poetas populares, así como los datos históricos que acerca de cada composición he podido obtener, a fin de que la intelección sea más fácil y completa. Pero he evitado siempre decir nada sobre la teoría y técnica de dicha poesía.

Y ello por dos motivos. El primero, porque el ofrecer los materiales es en esta labor la primera meta. O sea, po-

lako. Irakurleari auxe esan, alegia: "Bertsolari onen bertsoak auetxek dira". Objetitibaterik aundiiena eskatzen duan lana da. Eta errespetu eta seriotasun oiek guziz bearrezkoak dira. Ez bertso oiei gure interpretaziorik emanez, irakurlea bide ontatik edo artatik bultzatu nai izatea. Onen askatasuna aintzat artu, alegia, bertsolari bakoitzaren bertsoen aurrean derizkion epaia eman dezan.

Bigarren arrazoia, berriz, bi lan oso ezberdiñak dirala. Batean, nik egiten dedan ortan, begiak txorrotx eta belarriak tente jarri bear dira, arrastorik edo otsik xumeenaz jabetu eta ari jarraitzeo. Eizarekin antz aundia duan jarduera da, beraz. Baiña eiztaria, mendian egin dituan pausoekin eta ekarri dituan eiza oiekin, pozik eta gustora dago. Beste egitekorik ez eskatu ari. Agian, aren etxera gizon eskolaturen bat etorriko zaio gero, pizti oiek zer diran arretaz aztertzeko.

Era berean, nik andik eta emendik bildutako bertsoak azertuko dituan jakintsurik bada. Oiek, bestek egindako eta izerditutako lanez baliatu oi dira; leendik bestek argitaratutako idazkietan egin oi dituzte beren ikerketak, zein iturritan edan duten esatea noizbeinka aaztutzen bazaie ere. Lan mesegegarria eta bearrezkoa burutu oi dute, eta jarrai dezatela ortan.

Zer egin ori nik neronek ere nere kontu ar nezakeala dudarik ez da. Gauzaren batzuk esan naiak ere tentatu izan nau bein baiño geiagotan. Baiña ia-ia pentsamentu txarrak balaria bezela uxatu izan ditut burutazio oiek. Leenengo, beste ikerlari oiek egin oi duten langintza ortan asi bearko nukealako; baiña nun eta neronen liburuetan. Emen esana azpimarratu; angoa, berriz, fitxa batean ida-

der decir: "Éstas son las estrofas de este poeta". Es un trabajo que exige la mayor objetividad, y en el que todo el respeto y seriedad son pocos, sin empujar a nadie por éste o aquel camino, con el pretexto de dar nuestra interpretación. Es decir, no se ha de atentar contra la libertad del lector, sino que ha de ser él mismo quien, ante la producción de cada poeta popular, dé su veredicto.

El segundo motivo es que se trata de dos labores muy diferentes. En uno, en el que un servidor realiza, se ha de proceder con los ojos y oídos muy despiertos, para detectar y seguir la más leve pista. Requiere así un proceder muy semejante al del cazador. Pero éste se contenta con seguir los rastros y cobrar algunas piezas. No se le debe exigir más. Pero, a lo mejor, algún estudioso irá después a su casa, para examinar con atención la caza que aquél haya traído.

Del mismo modo, no faltan estudiosos que analicen las estrofas que un servidor ha recopilado aquí y allí. Se valen del esfuerzo ajeno; basan sus trabajos en publicaciones ajenas, aunque a veces se les olvide señalar en qué fuentes han bebido. Es la suya una labor provechosa y necesaria, y les deseo que continúen en ella.

No cabe duda de que también un servidor podría ayudar en esa labor. Más de una vez me han tentado las ganas de exponer algunas ideas e impresiones. Pero las he rechazado casi como si se tratara de malos pensamientos. Primero, porque debería realizar la misma labor que los tales estudiosos llevan a cabo, pero investigando en mis libros: subrayar esta frase o párrafo, hacer una ficha, guardarla,

tzi eta gorde; eta abar eta abar. Eiztariak botatako piztiei labana sartu eta anatomia estudiatu, alegría.

Baiña eginkizun orrek ere ordu asko eskatzen ditu. Denbora berean, ordea, beste bertso edo kontakizun-libururen bat argitara eman nezake. Bide-gurutze bat, beraz; baiña neri bein ere zalantzak sortu ez didana. Garbi zegoan nundik jo bear nuan eta nere eginkizuna zer zan: leengo bideari segi; illunpeko material ezezagunak argitar atera. Orixé da presa duan lana; gaur egin ditekeana eta biar ez. Bestea, berriz, berdin egin di-teke emen eun urtera ere, orduan gai auetaz iñor arduratzen baldin bada noski.

* * *

Leen esan degunez, erromantzeen jenero oni izen berria eman bearrez, *kontapoesi zaarra* asmatu zuan norbaitek. Baiña ez dirudi landare berri orrek lur artu duanik. Gutxi erabil-tzen dala esan nai nuke. Ez naiz arri-tzen, izen berria baiño geiago definizioa baita.

Naiko definizio ona gainera, nere ustez beintzat. Poesia izan bear baitu; baiña gertakariren bat kontatzen duana; eta, ortaz gainera, zaarra.

Iru baldintza oiek zuzen eta za-lantzak gabe betetzen dituzten kanta asko dago. Adibidez, *Atarratze jauregian, Berterretxe, Brodatzen ari nin* tzen eta abar eta abar.

Baiña beste batzuk, eta ez oso gutxi, oso dudakoak ditugu. Zaar iza-tea edo zerbait kontatzea, bi alderdi oiek argaldu edo lausotu egiten dira. Ni beintzat zalantzak sarritan egona naiz, kantaren bat liburu ontan sartu

etc., etc. Es decir, abrir con el bisturí la pieza cobrada por el cazador y estudiar su anatomía.

Pero también esa tarea exige muchas horas. Y en el mismo tiempo puedo preparar otro libro de poesía o de narraciones populares. Se trata, pues, de una encrucijada; pero ante ella nunca he sentido la menor vacilación. Estaba claro por dónde debía tomar y cuál había de ser mi labor: sacar a la luz los materiales desconocidos. Ésa es la tarea urgente; la que hoy puede realizarse y mañana será tarde. La otra, en cambio, lo mismo podrá realizarse dentro de cien años, si es que entonces hay quienes se interesen por estos temas.

* * *

Como ya he dicho, con el afán de buscar para los romances vascos un término nuevo, alguien creó el de *kontapoesi zaarra* (vieja poesía narrativa). Pero no parece que esa nueva planta haya echado raíces. Quiero decir que se usa poco. No me extraña, porque viene a ser más una definición que un nombre.

Aunque definición bastante acerta-da, a mí juicio al menos: ha de ser poesía; pero que narre algún hecho; y, además, antigua.

Hay cantares que cumplen perfectamente esas tres condiciones. Por ejemplo: En el palacio de Atarratze, Berterretxe, Estaba bordando y otros muchos.

Pero otros, y no pocos, nos dejan en duda. Su carácter de antiguos o de narrativos empieza a desvanecerse. Yo, por lo menos, he vacilado con frecuencia, sin poder decidir si un can-

bearra zan ala ez ezin erabakirik, kontakizunik etzualako edo berri sa-marra zirudialako.

Alderdi oiek ez baitira ez metroz, ez erlojuz eta ez pisuz juzkatzen eta sailkatzen. Ala, bi jeneroren arteko muga oso badeazpadakoa izaten da sarritan arlo ontan, eta bai beste astokan ere.

Ori dala-ta, nik liburu ontan es-keiñitako kantaren batzuk besteren batek baztertu egingo lituzke. Eta al-de-rantziz ere berdintsu: beste orrek sartuko lituzkean batzuk, nik taldekit kanpora utzi ditut.

Adibide bat jarri bearrez, orra or Gernika aldean urtero Gabon eguna-ren aurretik kalez kale kantatu oi di-ran *Marijesiak* izeneko kantak. Libu-ru ontan ez diegu, bada, sarrerarik eman, gure adiskide batzuek epai orren aurkako iritziak izango dituzte-la jakiñaren gaiñean egon arren.

* * *

* * *

Erri-poesia, bai Euskal Errian eta bai emendik kampo ere, kantatu egi-ten da; ez irakurri, ez errexitatu. Orregatik, literaturari ez-ezik, musikari ere aberastasun aundiak erantsi diz-kiona degu.

Liburu ontako poesia auek ere doiñuren baten laguntzarekin egiten zuten egan, Gaztelako erromantzeak eta Europako baladak bezelaxe.

Ori jakitea naikoa degu jenero onek doiñutan bakarrik altxor ber-dingabea gure eskuetan jartzen duala pentsatzeko. Bainha zenbat eta altxor baliotsuagoa, ainbat eta bigurriagoa papereratzen.

Zaitasun ori dala-ta, erromantze auek doiñurik gabe argitaratu dira

tar determinado debería o no incluirse en este libro, o bien porque carecía de narración o bien porque no parecía viejo.

Son aspectos que no pueden medirse ni con metro, ni con reloj, ni con un peso. Es por lo que el límite entre dos géneros suele ser muy difícil de trazar, tanto en este terreno como en otros muchos.

Siendo esio así, algunos de los cantares incluidos por mí en esta recopilación, otro estudioso los habría dejado de lado. Y al revés: algunos de los que él hubiera insertado, yo no los he admitido.

Por poner un ejemplo, citaremos los cantares llamados Marijesiak, con los que en la zona de Guernica se ronda de calle en calle los días anteriores a Nochebuena. Nosotros los hemos excluido, aun a sabiendas de que algunos discreparán de esa decisión.

La poesía popular, tanto del País Vasco como de fuera de él, no se lee o recita, sino que se canta. De ahí que sea muy estimable su aportación no sólo a la literatura, sino también a la música.

También las poesías de este libro se transmitían en alas de alguna melodía, al igual que los romances castellanos o las baladas europeas.

Basta con ese dato para pensar que este género pone en nuestras manos un verdadero tesoro de melodías. Pero cuanto mayor era su riqueza, tanto más complicada se nos ha hecho su publicación.

Por causa de tal dificultad, los romances vascos han visto la luz des-

bein baiño geiagotan. Ain lan aldrebea eta gaiztoa baitzan doiñu edo airea argitara ematea.

Baiña gauzak asko erreztu dira azken urte auetan. Ordenagailu berri oiek programa egokiak badituzte lan ori nekerik gabe eta txukun egiteko.

Ortaz gaiñera, guk laguntzaille trebea arkitu degu, egiteko ori bere gain artu diguna. Bai garbi eta egoki eta gogotsu saiatu ere. Iñaki Karkamo adiskidea degu bera, zer mesede egin digun berak asko pentsatzen ez duana, baiña guk biotzez eskertzen deguna.

* * *

Zerbait bada, erromantze auei buruz altxa ditezkean teoria guzien gaiñetik guk beintzat argitu nai gendukeana: kanta auek noizkoak ditugun; poesi-mota au zein garaitako lorea degun.

Galdera orri zuzen erantzuten ez da erreza izango, bilketa-lanak gure artean berandu asi ziran ezkerro. Bestetik, berriz, Garibay eta abarrek jasotako Erdi Aroko kantak ez dute erromantze auekin berdintasun edo aaidetasun geiegirik.

Ala ere, erromantzeak Erdi Aroko kutsua eta usaia dakarzkigutela nik beintzat ez det dudarik egiten. Beren leenengo sustraiak eta iturriak garai aietatik datozkigula, alegría.

Onek, besterik gabe, mesede aundi egiten dio gure literaturari. Au, izan ere, 1545 urtean asten da, Dethxeparenen *Linguae Vasconum Primitiae* liburuarekin. Jaun orrek baze-kian bide berri bati ekiten ziola. Besteala, etzion bere lanari izenburu ori jarriko.

provistos muchas veces de su melodía. Tan arduo era el lograr que ésta les acompañara.

Pero las cosas han cambiado mucho en los últimos años. Los ordenadores tienen buenos programas para realizar esa labor con facilidad y limpieza.

Aparte de eso, hemos podido contar con un colaborador que ha tomado por su cuenta ese cometido y lo ha sabido cumplir con dedicación y competencia. Me refiero al amigo Iñaki Karkamo, que acaso no dará importancia al favor que nos ha hecho, pero que nosotros se lo agradecemos de corazón.

* * *

Hay algo que, por encima de todas las teorías que puedan elaborarse, nosotros, al menos, quisiéramos poder dilucidar: de cuándo datan estos cantares; en qué época floreció este tipo de poesía.

No es fácil responder a tal pregunta, dado que los trabajos de recopilación se iniciaron entre nosotros en fecha tardía. Por otro lado, los cantares medievales que Garibay y otros autores recogieron no ofrecen demasiada similitud con estos romances.

A pesar de ello, yo, al menos, no pongo en duda que éstos nos han llegado rezumando Edad Media. Es decir, que las primeras raíces o fuentes de estos cantares pertenecen a esa época.

Sólo con eso es grande el favor que se le hace a nuestra literatura. Ésta comienza a imprimirse en 1545, con el libro *Linguae Vasconum Primitiae*, de Bernart Dethxepare. Éste era consciente de que iniciaba un camino nuevo. De otro modo, no hubiera elegido tal título para su obra.

Orain, beriz, Erdi Aroko usaia eta kutsua berekin duten kanta auek kendu egiten diote, esate baterako, *primitia* izate ori. Erromantze zaar auei dagokie emendik aurrera titulu aintzagarri ori.

Dtxepareran liburua euskeraz egin diran onenetako bat dala ao batetx aitortzen da. Bilduma onek ere goieneko merituak berekin ditu, alako loreak eskeintzen dizkigun ezkero. Alde ortatik ere ez du bigarren tokirik merezi.

* * *

Beste illunune bat bada gai ontan: erromantze zaar auen eta *Bertso berriak* esaten zaion erri-poesiaren arteko artu-emanak.

Bi jenero ezberdiñak dirala gauza nabarmena da, leen esan degunez. Leenengoak gaztelerazko erromantze-ekin konpara ditezke. Besteak, beriz, antz geiago du mester de clerecía ize-nekoarekin; Berceo-k eta abarrek moldatu zitzuten bertsoekin, alegia.

Baiña euskal erromantzea izan ote zan aurrena loratu zana, eta gero *Bertso berriak* sortu? Eta sortu berri onek leenagoko zaarra baztertu ote zuan? Edo urteetan biak alkarrrekin bizi izanik, ondoren erromantzea bee-raka asi ote zan, besteak gora zijoan bitartean?

Gure erri-poesia XIX mendean-edo asi giñan biltzen, berandu samar galdera oiei xuxen erantzun aal izateko.

Nik esan bearko banu, erroman-tzeak leenagokoak dirudite; eta *Bertso berriak* geroagokoak izango dira.

Jenero oni erantsi zitzaison *berria* itzak poesia-mota berria zala adierazi naiko ote du? Diketeana da ori ere,

Ahora, en cambio, puede decirse que estos cantares le despojan de su carácter de primicia; que es a estos viejos romances a quienes corresponde desde este momento tan honroso título.

El libro de *Detxepare* está considerado como uno de los mejores que se hayan escrito en vascuence. Grande es también el mérito literario del conjunto de estos romances, por lo que tampoco bajo ese concepto merece el segundo puesto.

* * *

Hay otro punto oscuro en esta materia: las relaciones entre estos viejos romances y la poesía popular denominada *Bertso berriak* (*Estrofas nuevas*).

Es evidente, como hemos dicho antes, que son dos géneros distintos. El primero admite ser comparado con los romances castellanos. El otro, en cambio, se asemeja más al mester de clerecía; a las composiciones de Berceo, por ejemplo.

Pero ¿existió primero el romance y surgieron después los *Bertso Berriak*? ¿Este género recién nacido arrinconó después al viejo? O ¿habiendo convivido durante años, el romance empezó después a decaer y el otro a prosperar?

Nuestra poesía popular comenzó a recogerse en el siglo XIX, fecha un poco tardía para poder responder adecuadamente a esas preguntas.

A mi juicio, los romances parecen ser más antiguos; y los *Bertso Berriak* habrían nacido más tarde.

Precisamente, el que a este género se le haya aplicado el epíteto de *berria* (nuevo) ¿no indicará que surgió más tar-

baiña gauza segurua ez, iñola ere. Itxura geiago du bertso-sail moldatu berria zala esan naiko duala, erosle geiago biltzeko orixe komeniko zi-tzaien bertso-saltzailleei eta.

Bestetik, berriz, Gipuzkoa izan da *Bertso berriak* jeneroaren iturririk emankorrena. Eta probintzi orren barruan, Beterria, sagardoaren lurradea. Baiña alderdi oietan besteetan baiño erromantze gutxiago bildu dira.

Zer atera dezakegu ortik? Seguru asko, toki oietan *Bertso berriak* alako indarrez loratutakoan, ugalmen orrek antziñako erromantze zaarrak estali egin zituztela.

Ori orrela gertatzeko bada motibo berezi bat ere. *Bertso berriak*, leen aoz-ao ibiltzen ziranak, bide berri bat arkitu zutela: bertso-papera. Moldiztegiren batean inprintatutako orriak, alegia. Ori egitearekin indar berria artu zutela esan bearrik ez dago. Erromantzeak, berriz, etzuten pauso ori eman; eta beren kalterako, noski.

Ona gai ontaz zer esan nuan Dostian, 1980-ko ilbeltzean, emanda-ko itzaldi batean:

“...bertso berriak paperetan zabaltzen asi ziranean, zenbat eta zenbat erromantze ez ote zan ibiliko jendearen aotan? Asko, dudarik gabe.

Ala ere, oietakorik etzan bakar bat ere paperetan argitaratu, Gordeleku zaurretik gordeleku berrira pasa gabe, jendearen gogoan gelditu ziran erromantzeak, eta jendearekin batera betiko joan ere bai asko eta asko. Zergatik ez ote zuan poesia-mota onek pauso ori eman? Bearbada, zaartzat zeukan ordurako ere jende-ak, eta bazterrera utzi zuan.

Erromantzeak etzuan, beraz, bide berririk artu; bañan *Bertso berriak* bai. Besterik gabe, bat auldu eta bestea indartu egingo ziran leen-naz gaiñera. Bat beera eta bestea gora asi. Bat ondamendira eta bestea bere egunik argitsuenak ikustera abiatu”.

de? Es posible, pero no es posible asegurarlo. Parece más verosímil que solamente quisiera expresarse que se trataba de estrofas recién compuestas, pues eso vendría bien a los vendedores de pliegos para atraer a los compradores.

Por otra parte, Guipúzcoa ha sido la fuente más copiosa de *Bertso berriak*. Y dentro de esta provincia, la tierra baja, la tierra de la sidra. Pero también es esa zona la más pobre en romances.

¿Qué se puede deducir de ello? Con toda seguridad, que, al florecer los *Bertso berriak* con fuerza, esa misma abundancia cubriría y sepultaría los antiguos romances.

Hubo también otro motivo para que sucediera así: que los *Bertso berriak*, que se transmitían antes oralmente, habían encontrado un nuevo camino: el bertso-papera (la hoja volante). Es decir, los pliegos impresos en alguna imprenta, con lo que este género adquirió nueva fuerza. Los romances, en cambio, no dieron ese paso; y desde luego que para su mal.

He aquí cómo lo decía un servidor en una conferencia dada en San Sebastián, en enero de 1980:

“...cuando los *Bertso berriak* comenzaron a difundirse en hojas, ¿cuántos romances andarían aún de boca en boca? Muchos, sin duda ninguna.

Pero ninguno de ellos fue publicado en hojas. Sin pasar del viejo camino de transmisión al nuevo, quedaron en la memoria de las gentes, y a una con éstas desaparecieron muchos de ellos. ¿Por qué no dio ese paso este género de poesía? Quizás porque ya entonces estaba considerado viejo, y fue sin más arrinconado.

Los romances no entraron, pues, por el nuevo camino. Pero sí los *Bertso berriak*. Sin más, uno de los géneros se debilita aún más, mientras el otro cobraba nuevas fuerzas. El uno comenzaba a decaer y el otro a prosperar. El uno se precipitaba a su ruina y el otro se preparaba a ver sus días más gloriosos”.

* * *

* * *

Bilduma au nolabait ere sailkatu bearra zegoan, itxurari gabe pillatuta eskeiñi gabe. Orretarako gai nagusi batzuk somatu ditugu, kanta bakoitza bere kideekin bildu eta alkartzeko.

Ala, leenengo saillari *Istorikoak* izena erantsi diogu. Erromantze oiek, izan ere, pertsona eta toki-izenak ematen dizkigute. Gertaera batetik sortutako kantak ditugula dirudi, beraz, naiz eta gizon eta emakume oiek nor izan ziran ezin erabaki ditekean, eta gertakizun arek beste oiartzunik utzi ez badu ere. Erromantzerik zaurrenak sail ontan dirala esango genduke.

Bigarren sailla, iñoren izen ona edo oorea arriskuan jartzen duan auziren bat azaltzen diguten kantak osatzen dute. Gai onek liburu asko idatz arazi ditu izkuntz eta literatur guzietan; antziñako denboretan batez ere. Bai gure artean zenbait erromantze zaar ere.

Urrengo saillari *Itzulera ezarri* diogu izena. Gaurko aurrerapenak dirala-ta, aitaren batean egiten ditugu guk gure ibilalдиak munduan barrena. Bai nunaitik etxera gure berriak errez eta noiznai bialdu ere. Garai batean, berriz, etxetik noiz irten bazekiten gerarra zijoazen arma-gizonak edo belaontzi batera igo eta itxasoetara abiatzen ziran mariñelak. Baiña atzera noiz etorriko ziran nork esan? Suerte ori zutenak, andik urteetara azalduko ziran. Ezagutu eziñezko itxuran etorri ere sarritan. Orra or, besterik gabe, literatur-gai berezi bat, *Odisea* liburuau edo bearbada leenago asi zana, eta prosaz eta itz-neurtuz ainbeste orrialde bete arazi dituana: munduan

Era preciso clasificar de algún modo esta recopilación, para no ofrecerla como un centón desordenado. Hemos buscado para ello unos temas claves, con el fin de crear de esa manera algo así como familias de cantares.

Al primero de éstos grupos le hemos dado el título de Históricos. Es que esos romances nos ofrecen nombres de personas y sitios concretos. Parece, pues, que se compusieron con motivo de algún hecho real, por más que no pueda dilucidarse qué pudo suceder o quiénes fueron esos hombres y mujeres. No hay duda de que los romances más viejos se encuentran en este conjunto.

El segundo grupo lo integran los que de una manera u otra plantean alguna cuestión de honor. Éste es un tema que ha producido gran número de obras en todas las lenguas y literaturas, sobre todo en épocas pasadas. Y también, entre nosotros, algunos viejos romances.

Un tercer apartado nos ofrece los cantares que hemos llamado Romanes del retorno. Gracias a los adelantos modernos, viajamos a través del mundo con la mayor rapidez. Y desde los puntos más lejanos comunicamos nuestras nuevas con toda facilidad. En otros tiempos, en cambio, los caballeros que partían a la guerra y los marineros que se adentraban en el mar a bordo de un velero, sabían cuándo salían de casa. Pero ¿quién podía decirles cuándo volverían? Los que tenían esa suerte se dejaban ver al cabo de los años. Pero con un aspecto irreconocible, en muchos de los casos. He ahí, sin más, un tema literario, que comenzó con la Odisea y quizás antes, que

zear ibili ondoko etxeratzea edo itzuleria, gure erromantzeetan ere bein eta berriro modu batera edo bestera agertzen dana.

Amodiozko erromantzeak osatzen dute urrengo sailla. Sentimentu orrek, jendearen biotzak ez-ezik, poeta askoren mingaiñak eta lumak mugitu arazi ditu, izkuntza eta literatur guzien onerako. Bai euskeraz ere. Erromantzeak ere frutu ederrik eman dute alor ontan. Baiña gero, gertakariren bat konta bear ori alde bat uzten asten dira, eta bi maitaleren alkarrizketa soilla eskeintzen digute. Ainbat kanta zoragarri eman dituan beste jenero batera pasa, alegia. Aldaketa au ez da bat-batean gertatzeten, pixkabana baizik. Orregatik, leen esan degunez, jeneroen arteko muga nun dan jakiten beti ere zailla baldin bada, aldi ontan areagoa dala esango nuke.

Urrengo saillari *Iputiak* izena ipini diogu. Batzuk kontu zaarrak dira. Badira oietan bertsoekin batera prosazko kontakizuna bear dutenak ere. Beste batzuk, judu ibilkariarena bezela, *leienda* zaar bat adierazten digute. Baiña ez emen bakarrik, baizik-eta mundu guzian ezagutzen dana. Onako au ez da oso sail ugaria.

Beranduko kantak izeneko mordak betetzen ditu urrengo orrialdeak. Gauza nabarmena da berri samarrak dirala; erromantze zaarrekin antz gutxi dutela. Are geiago: erromantzetzat artu bear diran ala ez, oso dudazkoa da. Baiña alakotzat jo dituzte zenbait idazle, eta guri ere etzaigu iruditu erabat baztertu bear ziranik. Oiek danak guk mordo berezi ortan sartu ditugu.

Beste talde batean, erlijio-gairen bat erabiltzen duten erromantzeak bildu ditugu, baiña auek ere beren sailkapena dutela.

ha inspirado miles de páginas tanto en prosa como en verso y que de una manera u otra asoma en estos romances vascos repetidamente.

El tema del amor aglutina el grupo siguiente. Ese sentimiento ha afectado no sólo a los corazones, sino también a la lengua y la pluma de muchos poetas, para bien de todos los idiomas y literaturas, incluido el vasco. También los romances nos han legado muestras de gran calidad en este campo. Pero luego dan en descuidar el lado narrativo y se limitan a ofrecer un diálogo entre amantes. Derivan así a otro género que ha producido, a su vez, deliciosos cantares. Tal cambio no se produce de repente, sino poco a poco. Por eso, si el límite entre diversos géneros es siempre, según hemos dicho, difícil de precisar, resulta aún más arduo en este caso.

Le sigue otro grupo con la denominación de Cuentos. Los hay muy viejos; y los hay que requieren, además de las estrofas, un complemento explicatorio en prosa. Otros, como el del Judío Errante, nos cuentan una vieja leyenda, conocida no sólo entre nosotros, sino en todo el mundo. Pero éste de los cuentos no constituye un tema demasiado copioso.

Llenan las siguientes páginas los Romances tardíos. Parece indudable que son bastante recientes; y que su semejanza con los romances más antiguos es escasa. Más aún: se hace muy dudoso que se deban tomar como romances. Pero por tales los han juzgado algunos estudiosos, y no nos ha parecido que debíamos eliminarlos.

Forman otro grupo los romances religiosos, a los que encuadramos a su vez según temas.

Leendabiziko, *Eguberria* izenarekin, Jesusen jaiotzaren berri ematen dutenak. Urrena, *Pasio* izenarekin, aren eriotza eta piztuera azaltzen digutenak. *Kristau fedea* edo aren egiaren bat zer dan adierazten digute urrengo kantak.

Ama Birjiñaren bi santutegi dira Euskal Errian, erromantze-iturri izan diranak: Arrate eta batez ere Arantza zu. Oiekin lotuta dauden kantak osatzen dute urrengo taldea.

Santu batzuk ere badira beren bitztaz erromantzeren bat edo beste sorrarazi dutenak: San Juan Bataiatzailea, San Pedro, Santa María Magdalena, Santa Klara eta San Inazio.

Urrengo mordo batean, *erromantze-puskak* bildu ditugu. Kanta-zati batzuk, alegia, beren egituraz erromantzeak diruditenak. Noizbait ere osorik agertuko al dira! Bitartean leen esan deguna egiztatzen digute: liburu ontan eskeintzen diran erromantzeek gaiñera, beste asko kantatuko zirala gure artean garai batean; eta bearbada oietako batzuk agertuko dirala oraindik ere.

Erdi Aroko kantak du izena urrengo sallak. Esteban Garibay eta beste istorilari zaar batzuek, irakurleak dakiniez, beren idazkietan *Erdi Aroko* zenbait euskal kanta gorde eta salbatu zituzten. Oien bilduma Juan Carlos Guerra eta Koldo Mitxelenak eginga zeukan. Guk jaun oien lanaz baliatu gera liburu ontarako. Aspaldiko kanta oiek ere emen bear zuten, izan ere, irakurleak erromantzeekin konpara ditzan.

* * *

Aldaera itzarekin erderazko variante adierazi nai genduke. Ez nuke

Vienen primero los navideños, los que anuncian el nacimiento de Jesús. A continuación, los que se refieren a su Pasión, con el relato de su muerte y resurrección. Siguen los cantares que declaran la fe cristiana o alguno de sus artículos.

Dos santuarios marianos hay en el País Vasco que han sido fuente de romances: Arrate y, sobre todo, Aránazu. Con ellos hemos integrado otro lote.

Algunos otros romances ensalzan las virtudes de algunos santos: San Juan Bautista, San Pedro, Santa María Magdalena, Santa Clara y San Ignacio.

Ofrecemos luego en un bloque lo que consideramos trozos de romances; es decir, fragmentos que tienen toda la traza de ser romances. Quiera Dios que algún día aparezcan enteros. Entre tanto, servirán de confirmación de algo que ya hemos indicado: que en tiempos se cantarían entre nosotros otros muchos de estos cantares y que es posible que algunos de ellos vuelvan a salir a la luz.

El último lote lo forman los Cantares de la Edad Media. Fueron Esteban de Garibay y otros historiadores quienes salvaron en sus obras algunos de ellos. Su recopilación la realizaron Juan Carlos Guerra y Koldo Micheleña, principalmente. Y de su labor nos hemos servido nosotros para este libro. Pero es que se hacía preciso incluir tales viejos cantares en esta obra, para que el lector pueda compararlos con los que hemos llamado romances vascos.

* * *

Con la palabra aldaera se ha querido traducir la castellana variante. No

esango nor asi zan gure artean esan-nai orrekin erabiltzen; baiña naiko sartuta dagoala uste det.

Aldaera bakarra duten erromantzeak badira. Baiña aldaera asko dituztenak ere bai. Oso ezagunak izan diranak, alegia, eta biltzaille-askok an edo emen jaso dituztenak. Adibidez, *Berterretxe, Atarratzeko jauregian eta abar.*

Aldi auetan, aldaerarik osoena edo osoenetako bat eskeintzen degu daren aurretik. Eta urrena gaiñontzeko aldaerak, beren doiñuekin, olakorik baldin badute. Baita aldaera bakotzak izan dituan argitalpenak ere.

* * *

* * *

Leen esan dedanez, erromantzerik geiago izango da oraindik ere illunpean. Denborarekin oietako batzuk agertu egingo dirala nik ez det dudarrik egiten. Nere gogoa ere orixe da, izan ere, gure erri-literaturaren altxor au gero eta aberatsagoa izan dedin.

Nik, gure erri-literatura jasotzen bota dedan urte-mordo ontan, arreta bizia jarri izan det beti erromantzeengana, eskuratzentzu nituanak artxibatuz eta gordez. Oraindik ere besteren batzuk billatu nezazkeala uste det.

Baiña, leen esan bezela, gure denbora ere aurrera dijoa, eta bai gu ere arekin batera. Lanerako gauza noiz arte izango geran ere ez dakigu. Ala, bolara ontan burutazio bat sarri zutitzen zait nere gogoan: billa ibiltzeko garaia pasatuxea izango dedala; eta billatutako oiek, bai erromantzeak eta bai bertso zaarrak, jendeari eskeintzeko ordua iritxia dala. Baiña, esan bezela, dauden-daudenean, geiagoren billa saiatu gabe. Zera esan, alegia:

sabría decir quién empezó a usarla entre nosotros; pero creo que se ha generalizado bastante.

Hay romances que no tienen más que una variante y los hay que cuentan con muchas. Éstos, como es natural, son los más conocidos y los que han sido recogidos aquí y allí por muchos recopiladores. Por ejemplo, Berterretxe, En el palacio de Atarratze, y otros.

En estos casos, ofrecemos en primer lugar la variante más completa o una de las más completas. Y las demás a continuación, con sus melodías, si es que las tienen, así como las ediciones que conocemos de cada una.

Como ya he dicho, quedarán aún romances por descubrir. No dudo de que algunos de ellos aparecerán con el tiempo. Ése es precisamente mi deseo, a fin de que este tesoro de nuestra literatura popular sea cada vez más valioso.

Durante los años que he dedicado a recopilar esta literatura popular, siempre he puesto un cuidado especial para con los romances, guardando y archivando los que encontraba. Y creo que aún podría encontrar algunos más.

Pero, como ya he dicho, el tiempo no se detiene y nos arrastra consigo. Ignoramos hasta cuándo podremos seguir trabajando. Así es que últimamente va en mí cobrando fuerza el pensamiento de que se me estará acabando el tiempo para investigar; y de que habrá llegado la hora de ofrecer al público los materiales hallados, tal y como están. Pero repito: en su estado actual, y sin afanarme por cosechar más, como diciendo:

- Ni oneraíño iritxi naiz; emendik aurrerakoa bestek egin dezala.

Bertso zaarrekin ere aurrerantzean ori bera egiteko asmoa daukat, erromantzeekin gaur egiten dedan bezelaxe.

Irakurleak ez dezala pentsa alperkeriak menderatu nauenik. Nekeak bai, bearbada; eta, batez ere, arestian esan dedan bezela, zaar-kanpaia joka asi zaigula, onezkero mundu ontan luzarorako ez gaudela adieraziz.

Baiña itz goibel oiek alde batera utzita, ez naiz lotsatzen une ontan pozez gaiñezka nagoala aitortzeko. Euskal Herriarekin aspalditik nuan zorría gaur kitatu det. Azken urte auetan beti zirika ari zitzaidan kezka mikatza ixil arazi det, eta aren tokian alaipide gozo bat jarri.

Berdin gerta dakiola liburu au zabaldu eta bere orrialdeak irakurtzen asten danari.

- Hasta aquí he llegado; de lo que quede por hacer que se encargue otro.

Es lo que me propongo hacer en adelante con las estrofas de los poetas populares, tal y como lo hago hoy con los romances.

No piense el lector que la pereza ha llamado a mi puerta. Puede que el cansancio sí; y sobre todo, como decía hace poco, que oigo las campanadas de la vejez, anunciando que ya no estaremos en este mundo por mucho tiempo.

Pero dejando de lado estas tristes consideraciones, no tengo empacho ninguno en reconocer que me siento satisfecho y contento. Acabo de cancelar una deuda que hacía tiempo tenía contraída con el País Vasco. He acallado una molesta inquietud que no cesaba de importunarme, y la he sustituido por una satisfacción que me acompañará siempre.

Deseo de todo corazón que también para ti, lector, lo sea.

(1) La segunda guerra según el cómputo en el País Vasco, donde sólo hubo dos. En otras regiones sería la tercera.

Istorikoak

(Romances históricos)

Sail ontan bildu ditugun erromantzeak gertakari batek sortu araziak dira, gure iritzirako beintzat. Aditzera ala ematen dute kanta oietan aitatzen diran toki eta giza-izenak, naiz eta sarritan toki eta izen oiek zein izan ziran ezin garbitu dezakegun. Ezta ere noizko gertaera degun.

Ikerlariak gogotik saiatu dira txeetasun oiek argitzen. Batzuetan lortu dute beren naia. Baiña beste zenbait aldiz eziñezkoa egin zaie; edo-ta aiek beren azterketatik atera dituzten ondorioak ez gaituzte gu gogobetzen.

Baiña zera pentsa dezakegu: gertakari oiek benetakoak dirala, naiz eta gure istoria-liburuetan oiartzunik utzi ez duten. Ezta ziur aski artxiboetan ere. Bai, ordea, gure kanta zaar auetan.

Los romances que hemos reunido en este apartado han surgido, a nuestro parecer al menos, con motivo de algún acontecimiento. Así lo dan a entender los nombres de persona y lugar que en ellos se citan, por más que muchas de las veces no se haya podido determinar a qué personas o lugares concretos se refieran.

Los investigadores se han afanado con ahínco para aclarar tales detalles. En algunos casos han logrado su propósito. Pero en otros les ha resultado imposible; o, también, las consecuencias a que han llegado no satisfacen a todos.

Pero podemos pensar que esos acontecimientos han sido reales, a pesar de que no dejaran eco ni en los libros de historia ni en los archivos, aunque sí en estos viejos cantares.

“Anaiai gaztigatu nion...”

I

The musical score consists of three staves of music. The first staff starts with a 2/4 time signature, followed by a bar line, then a 3/4 time signature. The lyrics are: "A-nai-ai gaz-ti-ga-tu ni-on i-si-lik kar-ta ba-te - A-nai-ai gaz-ti-ga-tu ni-on i-si-lik kar-ta ba-te -". The second staff continues with the same lyrics: "an e - a la-gun-du-ko zi-da-nez gi - zo - na or-tzi-tzen lu - rre-an, e - an e - a gi - zo - nik gal - du ze-nez o E - rre - ge-ren gor - te - an, e -". The third staff concludes with the lyrics: "a la-gun-du-ko zi - da-nez gi - zo - na or-tzi-tzen lu - rre-an. a gi - zo - nik gal - du ze-nez o E - rre - ge-ren gor - te - an." The score ends with a bar line and the number 5.

Anaiai gaztigatu nion
isilik karta batean,
ea lagunduko zidanez
gizona ortzitzen lurrean.

Anaiai gaztigatu nion
isilik karta batean
ea falta zen gizonik bai ala ez,(1)
o!, erregeren gortean.

– Bai, falta da don Juan de Flores(2)
yoan dan zazpi urtean;
zu bezalako dama batek
idukiko du etxean.

– Nere aitak, ai!, balaki
nik zer daukaten etxean,
aitak ni ilen ninduke eta(3)
amak egosi bertzean.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 384 zenbakian, 480 orrialdean: Naparroako Ezteribarren, Eugiko Mikaela(?) Mendizabali jasoa.

Baita ere, doiñurik gabe, Azkueren *Euskalerriaren Yakintza* bilduman, IV tomoan.

Bertsoen ondoren onela dio Azkuek: “*Está en el Cancionero Selecto, pág. 352.*

“*Obra de alguna importancia para nuestra literatura sería el completar poemas que, como éste, figuran en el Cancionero. Si alguien quisiera emprenderla, tendría yo sumo gusto en facilitarle cuantos datos pudiera acarrear*”.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak*, bigarren tomoan, 113 orrialdean.

I

*Le avisé a mi hermano, en secreto, en una carta,
a ver si me ayudaría a dar tierra a un hombre.*

*Le avisé a mi hermano, en secreto, en una carta,
a ver si algún hombre faltaba o no en la corte del rey.*

– Sí; falta don Juan de Flores en los últimos siete años;
alguna dama como tú lo tendrá en casa.

– Si mi padre, ¡ay!, supiera lo que tengo yo en casa,
él me mataría y mi madre me cocería en un caldero.

(1) Azkuek *galdu* idazten du; *ez falta*. Baiña oar batean onela dio: “*El original decía ea falta zen gizonik bai ala ez*”.

(2) Emen ere oar batean onela dio Azkuek: “*El original: bai falta da don Juan de Flores*”.

(3) Irugarren lerro au Azkuek beste onela idazten du: *aitak ni ilen ninduke*. Alegia, *eta itza lau-garren lerrorako utzi*, oar batean irugarren lerroagatik onela esanez: “*Este tercer verso consta así en el original, sin alargarlo como los terceros de las estrofas precedentes*”. Bai; berak idatzituan bezela motx gelditzen da lerro au; eta, ezertxo gaztigatzen ez badu ere, urrengo lerroa luze. Baiña *eta* irugarren lerrora igota, bi lerroak ondo daude.

“Andre Emili, andre gora...”

I

Andr'Emili'andre gora,
ezin diro ogirik ora,
artorik jorra hain guti,
bihoa mairu herrin gora.

Saldu nind (...) saritan,
aski s..... (*irakur eziña*)
asko sari... handitan,
(hogei) ehun p'izu urretan eta
(laurogei) berrehun dup'a eztitan.

Aita nuen saltzale,
ama diru hartzale,
anaierik txipiena
mairuetarik (k'entzale) guentzale.

Arnaud Oihenarte (1592-1667): *L'art poétique basque*, illunpean zegoan lan eta P. Laffite-k 1967-an *Gure Herria* astekarian argitara emana.

Aurretik argibide au: “*la chanson d'une fille navarroise nommee Emilia, de laquelle un more estant amouraché, il l'achepta a pris d'or...*”.

J. Lakarra, J. Biguri eta B. Urgell: *Euskal Baladak*, II tomoan, 67 orrialdean.

II

R. M. Azkuek, bere *Cancionero popular vasco* kantutegian, 375 zenbakiko kantaren adierazpenak egin bearrez, onela dio:

“Revolviendo este verano (agosto de 1922) los manuscritos de Humboldt en la Biblioteca Nacional de Berlín, me encontré, entre otras curiosidades, con esta canción. Humboldt encabeza el poema con estas palabras de su puño y letra: Lieder deren sich der 81 jährige Harambillet in Itsasou aus seiner Jügend erinnerte. Aus der zeit der Maurer Herrschaft, also sehr alt. Im ersten Vers redet der Dichter; die anderen sind die Antwort des Mädchens. Canciones de las cuales se acordaba desde su juventud el octogenario Harambillet, en Itsasu, del tiempo de la dominación de los moros, de consiguiente muy antiguas. En el primer verso habla el poeta; los otros son respuesta de la muchacha”.

Ondoren bertsoak:

- | | |
|--|---|
| – Andre Emili, andre gora,
orai ez arto-jorra,
ogirik orra hain guti;
zoaz Mairu herrin gora. | – Saldu nintzen dirutan,
asko sari handitan:
ehun pizu dirutan ta
berrehun dupa eztitan. |
|--|---|

Aita nuen saltzaile,
ama diru hartzale,
anaiarik txipiena
mairutarik kentzaile.

R. M. Azkue: *Curiosos documentos copiados en la Biblioteca Imperial de Berlín, de los manuscritos de Guillermo Humboldt, a 5 de agosto de 1922*; Euskera aldizkarian, 1925, II, 60-66 orrialdeetan.

Milagros Bidegain: “Crónica (sobre textos vascos antiguos), Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”, I (1967), 180-195 orrialdeetan.

Jorge Riezu: *Material Folklórico de la Collectánea Linguística de Humboldt. Canción del vino*, Boletín de la Institución “Sancho el Sabio” aldizkarian, XV, 1971, 91-115 orrialdeetan.

L. Michelena: *Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos, Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian, 1971, 149-169 orrialdeetan.

Jorge Riezu: *Nafarroako Euskal-kantu zaharrak kanta-bilduman*, 1073-an, 54 orrialdean.

J. Lakarra, K. Biguri eta B. Urgell: *Euskal Baladak*, II tomoan, 68 orrialdean.

P. Donostia: *Cancionero Vasco*, III, Donostia, 1994, 1553 orrialdean.

III

A musical score consisting of four staves of music. The first staff starts with a treble clef, a key signature of one sharp, and a common time signature (indicated by a '6'). The lyrics are: "Ai - ta nu - en sal - tzai - le, A - ma di - ru - en". The second staff continues with the same key and time signature: "ar - tzai - le, neu - re a - nai - a Ber - nar - do mo - ru e - rri - ra". The third staff begins with a change in time signature to 3/4: "en - tre - ga - tzai - le; neu - re a - nai - a Ber - nar - do". The fourth staff concludes the section with another change in time signature to 3/4: "mo - ru - e - rri - ra en - tre - ga - tzai - le."

– Aita nuen saltzaile,
ama diruen artzaile;
nere anaia Bernardo
moru-errira entregatzale.

Saldu nenduen dirutan,
dirutan ere aunitzetan;
neunek pisa-ala urretan,
bi ezti.kupeletan.

– Neure alaba Miarrez,
zer dun orrela nigarrez?
Ire yauntziak egiñik tziauden
urrearekin zilarrez.

R. M. Azkuek, bere *Cancionero popular vasco* kantutegian, 375 zenbakian, 471 orrialdean, Etxalarko Juan Ramon Arburuari jasoa.

Baita ere doiñurik gabe bere *Euskalerriaren Yakintza-n*, laugarren tomoan, 150 orrialdean.

Aldaketak: 1/4: mairu-errira eskuemaile; 2/4: eztitako bi kupeletan; 3/4: urregorriz ta zilla-rez.

IV

Ama alaba-saltzallia,
aita diruen artzallia,
moro-errira saldu emen dute
diruangaiti alaba.

Dirutan da gauza guztitan:
zazpi kantaro eztiyetan.
Dirutan da gauza guztitan:
zazpi kantaro eztiyetan.

– Aurra, egizak lo ta lo,
morua loak artzeraño;
morua loak artu ezkeroz
naiz izak eta naiz ago.

– Chica, ¿qué dices? ¿Qué dices?
– Zer qué dices, qué dices?
Gure errian aur txikiari
olaxe kantatzen zaiek.

Nere anaia don Fernando
atarietan or dago.
Zaldiari're kontra botata
sarri gerade juango.

Manuel Lekuona apaiz jauna zanaren bildumatik, eskuz idatzitako orri batetik. Bialtzaillearen izena ere badu: *Gorrotxategi'tar E.* Baita erria ere: *Lazcano.*

Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduman ere arkitu degu kanta au; Lazkaoko Gorrotxategitar Eulojik bialdua. Eta bertsoak batere aldaketarik gabe. Iturri bera, beraz. Baiña oar jakingarri au ere badu: “*Nere ama (g. b.) zanari ikasiak Nabarra'ko Urdiainen*”.

J. Lakarra, K. Biguri eta B. Urgell: *Euskal Baladak*, II tomoan, 69 orrialdean. J. M. Lekuonak bialduta eta laugarren bertsoa falta dutela.

II

Señora Emilia, señora de alcurnia,
no escardes ahora el maíz,
y menos aún amases pan:
vete por la Morería adentro.

– Fui vendida por dinero,
a un precio muy elevado:
cien pesos en dinero y
doscientos toneles de miel.

*Mi padre fue quien me vendió,
mi madre la que recibió el dinero;
y mi hermano el más pequeño
el que me rescató de los moros.*

III

*- Mi padre fue quien me vendió,
mi madre la que recibió el dinero;
mi hermano Bernardo
quien me entregó a la morería.*

*Me vendieron por dinero,
y aun por mucho dinero:
mi peso en oro
y dos barricas de miel.*

*- Hija mía, Miarrez,
¿por qué lloras así?
Tus vestidos están hechos
de oro y plata.*

“Atarratze jauregian...”

I

Kanta onen leenengo aitamena frantzes liburu batek egiten omen du: *Instructions relatives aux poésies populaires de la France* (Paris, 1753).

Aitamen orren berri Francisque Michel-ek ematen du, bere *Le Pays Basque liburuan*, 1857-an: “*M. de Quatrefages l'y a recueillie, ou plutôt une traduction lui en a été dictée par une vieille femme de Biarritz*”.

Itzulpen ori J. Lakarra, K. Biguri eta B. Urgell-ek ere eskeintzen digute beren *Euskal Baladak* bilduman, bigarren tomoan, 78 orrialdean:

“*Dans Ataratz, les cloches de l'église ont sonné tristement d'elles mêmes. La jeune Santa Clara part demain. Les grands et les petits prennent le deuil: Santa Clara part demain. On dore la selle de son cheval et sa valise d'argent.*

Mon père, vous m'avez vendue comme une vache à un Espagnol. Si j'avais encore ma mère vivant comme vous, mon père, je ne serais pas allée en Espagne, mais je serais mariée au château d'Ataratz.

Au château d'Ataratz, deux oranges ont fleuri; nombreuses sont les personnes qui les ont demandées: on a toujours répondu qu'elles n'étaient pas mûres.

Mon père, partons gaîment: vous reviendrez les yeux pleurants et le cœur triste, et vous retournerez souvent pour regarder votre fille sous sa pierre de tombe.

Orissou, la longue montagne, je l'ai passée à jeun. En arrivant de l'autre côté, je trouvais une pomme et je l'ai mangée; elle a touchée tout mon cœur.

Ma soeur, va à la chambre du troisième étage pour voir s'il fait Egua ou Iparra. Si Iparra souffle, tu le chargeras de compliments pour Sala, et si c'est Egua, tu lui diras qu'il vienne chercher mon corps.

Ma soeur, va chercher maintenant ma robe blanche; va chercher la robe noire. Elle s'habille en blanc, et sa soeur en noir. Elle monte à la croisée pour voir si elle

peut apercevoir Sala. Elle le voit arriver de loin: elle se précipite et tombe morte. Personne n'a pu enlever le corps. Sala seul a pu la relever".

Itzulpen ontan, urrengo aldaeretan agertzen diran zenbait bertso aixa eza-gutu ditezke. Baiña geroztik galdu diran beste batzuk ere bai.

II

Atarratze jauregian
bi zitroñ loratü,
Hongariako erregek
batño du galtatü;
arraposta üken dü
ezteiela huntü,
huntü diratinian
batño ükenen dü.

– Aita, saldü naizü
idi bat bezala,
bai eta desterratü
ezpanintzan bezala;
ama bizi üken banü,
aita, zü bezala,
ni ezkontüren nintzan
Atarratze Salala.

– Ahizpa, jauntz ezazü
saia berdia,
nik ere jauntziren düt
satina xuria.
Ingoiti hor heltü da
zure senar geia,
botzez ützi ezazü
zure sort etxia.

– Aita, juanen gira
oro algarrekin,
etxerat jinen zira
xangrin handirekin,
bihotza tristetürik,
begiak bustirik,
eta zure alaba
tunban ezarririk.

– Ahizpa, zuaza orai
salako leihora,
ipar ala hegua
zer den jakitera;
iparra balin bada
goraintzi Salari,
et'aldizene txerka
jin dadila sarri.

Atarratzeko zeñiak
tristerik du joiten,
Andere Santa Klara
bihar da partitzen;
haren peko zaldia
urrez da zelatzen,
hanko txipi handiak
beltzez dira beztitzen.

Augustin Chaho-ren (1810-1858) bildumatik. Bilduma ori, gaur Telesforo Monzon zanaren alargunak gordetzen du.

Saietsean, bertsoak idatzi zituan esku beraz erantsita, aldaketa auek: 2/2: antxu bat, axuri bat, biga bat; 2/4: Hongarian behera; 2/7: nintzan ni ezkonturen; 6/2: berak arrapikatzen; 6/4: herritik partitzen; 6/6: da xuriz estaltzen; 6/8: dira beltzez beztitzen.

Doiñua ere badu, baiña kopiatzeko astirik ez genduan izan.

III

Atarratze jauregian bi zitroin doratü,
Ongriagarai horrek batto du galdatü.
Errepostu eman deie eztirela ontü,
ontzen direnian batto ukenen dü.

– Aita, saldü naizü migia bat bezala,
bai eta desterratü España barnara.
Ama bizi izan banü, aita, zü bezala,
nintzan ni ezkontüren Atarratze Salala.

– Ahizpa, jauntz ezazü arroba perdia,
nik ere jauntziren dut satina xuria.
Ingoitik hor heldü da zure senar geia,
botzez utz ezazü zure sort etxia.

– Aita, juanen gira oro elgarrekin,
etxerat jinen zira xagrin handirekin,
bihotza kargatüa, begiak bustirik,
eta zure alaba tonban ezarririk.

– Ahizpa, zoazi orai salako leihora,
ipar ala hegoa zer den jakitera.
Iparra balin bada, goraintzi Salari,
eta aldiz ene txerka jin dadila sarri.

Atarratzeko zeiniak tristerik dü joiten,
Andere Santa Klara bihar da partitzen.
Haren peko zaldia urrez da zelatzen,
hanko txipi handiak beltzez dira beztitzen.

Aldaera au ere Augustin Chahoren bildumatik artua degu.

IV

Atarratze jauregian
zitroña loratü,
Hongriako erregek
batño dü galdatü;
üken dü arrapostia
eztirela huntü,
huntü diratinian
batño ükenen dü.

– Aita, saldü nüzü
idi bat bezala,
bai abandonatü
ezpanintzan bezala.
Ama bizi üken banü,
aita zü bezala,
enündüzün, ez, juanen
Hongrian behera,
bainan bai ezkondüren
Atarratze Salala.

Atarratzeko zeñiak
berak arrapikatzen,
Andere Santa Klara
herritik partitzen.
Hanko txipi handiak
dira beltzez beztitzen,
haren peko zaldia
da xuriz estaltzen.

Beste aldaera au ere Augustin Chaho-ren bildumatik artua degu. Doiñua ere badu. Baiña, denboraren faltaz, au ere kopiatu gabe utzi genduan.

Beste orri batean onako oar au irakurtzen da: "Complainte de la fille du Comte de Luxe mariée contre son gré au Roi de Hongrie. Il a, sur un monticule, près de Tardets, les ruines du château qu'elle habitait".

V

Atarratz jauregian bi zitroin doratü,
Ongriagarai horrek bat dü galdatü
Errepostu izan dü ez direla ontü,
ontzen direnian batño izanen dü.

– Aita, saldü naüzü miga bat bezala,
bai eta desterratü, oil!, Espanara.
Ama bizi izan banü, aita, zü bezala,
ez nintzan ezkondüren Atarratz Salala

– Ahizpa, jantz ezazü erroba perdia
nik ere jantziren düt satina xuria.
Ingoitik hor heldü da zure jaun geia.
Botzez gita zazü zure sor-etxia.

– Aita, juanen gira oro elkarrekin;
etxerat jinen zira xangrin handirekin,
bihotza kargatüa, begiak bustirik,
eta zure alaba tonban ehortzirik.

– Ahizpa, zohazi orai salako leihora.
iparra ala hegua den emazü guardia.
Iparra baldin bada, goraintzi Salari,
ene gorpützaren xerka jin dadila sarri.

Atarratzeko ezkilek bere motüz joten,
andere Santa Klara bihar da partitzen.
Haren peko zaldia ürrez da zelatzen,
hangó txipi handiak beltzez dira beztitzen.


Francisque Michel: *Le Pays Basque* liburua (Paris, 1857), 265 orrialdean, aurretik onela esanez:

“Nous allons voir une véritable romance du vieux temps; malheureusement elle est incomplète.

Dans le premier couplet, qui sert d'introduction, le poète nous montre deux jeunes filles sous l'emblème de deux citrons, dont l'un est promis. Le temps enfin a mûri le fruit, un Espagnol est là réclamant sa fiancée, qu'il va conduire de l'autre côté des monts. Celle-ci, au moment du départ, donne carrière à son désespoir, et s'adresse successivement à son père et à son soeur de la façon la plus touchante; le vent du nord, s'il vient à souffler, est chargé de porter au bien-aimé les derniers adieux de son amante, qui ne survivra point au malheur d'être arrachée à celui qu'elle eût seul voulu pour époux...”.

VI

A - tha - rratz jau - re - gi - an bi zi - truiñ- do - ra tü On -



Atarratze jauregian bi zitroin doratü;
Ongriako Erregeek batto dü galtatü;
arrapostü üken du eztirela huntü,
huntü direnian batto ükenen dü.

Atarratzeko hiria hiri ordoki,
hur handi bat badizü alde bateti;
Errege bidia erdi-erditi,
Maria-Maidalena beste aldeti.

– Aita, saldü naizü idi bat bezala;
ama bizi üken banü, aita, zü bezala,
enündüzün ez juanen Ongrian behera.
bena bai ezkontüren Atarratze Salala.

– Ahizpa, juan zaite portaliala,
ingoiti horra düzü Ongriako Erregia;
hari erran izozü ni eri nizala,
zazpi urte huntan ohian nizala.

– Ahizpa, enükezü ez sinetsia,
zazpi urte huntan ohian zirela;
zazpi urte huntan ohian zirela;
bera nahi dükezü jin zü zien lekila.

Ahizpa, jauntz ezazü arrauba berdia,
nik ere jauntziren dit ene xuria;
ingoiti horra düzü Ongriako Erregia;
botzik kita ezazü zure sor etxia.

– Aita, zü izan zira ene saltzale,
anaie gehiena dihariren hartzale,
anaie artekua zamariz igaraile,
anaie xipiena ene lagüntzale.

Aita, juanen gira oro alkarreki;
etxerat jinen zira xangri handireki,
bihotza kargatürik, begiak bustirik,
eta zure alaba tunban ehortzirik.

Ahizpa, zuza orai salako leihora,
iparra ala hegua denez jakitera;
iparra baldin bada goraintzi Salari.
Ene koritzaren xerka jin dadila sarri.

Atarratzeko zeñiak berak arrapikatzen;
hanko jente gazteriak beltzez beztitzen,
andere Santa-Klara hantik partitzen;
haren peko zamaria ürrez da zelatzen.

J.-D.-J. Sallaberry: *Chants populaires du Pays Basque* liburuan (Baiona, 1870), 194 orrialdean.

Liburuaren bukaeran oar luze eta jakingarri au egiten du:

“(Voir au sujet de cette légende le chapitre intitulé: Tardets, Santa Clara, dans l’ouvrage de Chaho: Biarritz, etc., 1^{re} partie, pages 125 et suivantes.)

La version que je donne de cette poésie est plus conforme à l’hypothèse admise par ce linguiste, que la version publiée par M. Francisque Michel, dans son volume: Le Pays Basque.

Le savant professeur parle d’un certain Ongriagaray qui aurait été l’époux de Santa-Klara. Dans notre version, il s’agirait d’un roi de Hongrie, ce qui concorde mieux avec le luxe de ce mariage, où la fiancée montait un cheval sellé d’or.

D’ailleurs il n’existe pas et il n’est pas vraisemblable qu’il ait existé, dans le Pays Basque, de famille du nom de Ongriagaray.

Atarratze, *nom basque de Tardets.*

Sala, *ancienne maison de Tardets*”.

Sala itza iru aldiz agertzen da kanta ontan, eta aldaera guztieta maiuskulaz idazten da. Nere iritzirako, bitan orrela egin bear da; baiña bestean ez. Iru-garren bertsoan maiuskulaz, Atarratzeko etxe bat dalako, Sallaberry-k adierazten digunez. Bederatzigarrenean, berriz, leenengo aldiz minuskulaz, etxeko gela bat izanik. Eta urrena maiuskulaz, Atarratzeko etxe ortako nagusia-edo

aitatzen da eta. Guk orrela idatzi degu. Bereizketa ori egiñez kanta au errezago ulertzen baita.

* * *

Sallaberry-ri kopiatu diote kanta au argitara eman duten geien-geienak:

Eskualdun Kantaria, Eskualdun Kantuak, Eskualduna astekaria 1910-VIII-26-an; Kantuz leendabizikoa eta Kantuz bigarrena; Mariya, Kantu kanta kantore, Chansons Basques 1976 eta abar.

Kantu kanta kantore bildumak onela esaten du: 5/3: ez eta ere hañ eri gaitz zirela. Geroxeago ikusiko degunez, Ch. Bordes-i artua da aldaketa ori.

J. Lakarra, K. Biguri eta B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1984) bilduman, bigarren tomoan, 72 orrialdean. Emen ere Sallaberry-k bezela; baiña 5, 6, 7 eta 8-garren bertsoak falta dira.

* * *

Charles Bordes-ek ere, *La musique populaire des basques idazlanean, La Tradition au Pays Basque* (Paris, 1899) liburuan, 318 orrialdean, kanta au Sallaberry-k bezelatsu eskeintzen du, onako aldaketa auek izan ezik:

2/1: Atarratzen den hiria, hiri ordoki; 2/3: Erregeren bidia erd'erditik; 3/2: ama bizi uken banu zu bezala; 4/3: erran ezozu, otoi, ni eri nizala; 5/3: ez eta ere hañ eri gaitz zirela; 6/4: botzik kita ezazu zure aitaren etxia; 8/2: hunat jinen zira bihotzmin handireki; 8/4: eta zur'alaba hobian ehortzirik; 9/1: Ahizpa, zoaz'orai salako leihora; 9/4: ene korritzaren bila jin dadila sarri; 10/4: haren zaldia urrez da zelatzen.

Doiñua ere badakar. Onako au:

At - ha - rra - tze jao - re - gi - an, bi zi - trou do - ra -

tu: Hon - gri - a - ko er - re - gek ba - tto du gal - tha -

tu: A - rra - pos - tu u - khen - du ez - ti - re - la houn -

tu. Houn - tu di - re - ni - an ba - tto u - khe-nen du.

* * *

Louis Dassance zanaren bilduman, kanta au eskuz idatzita arkitu degu, ia Sallaberry'k bezela, onako aldaketa auek izan ezik:

1/2: Ongriako Erregiak batto du galtatu; 2/1: Atarratzeko herria herri ordoki; 2/3: Erregeren bidia erdi erditik; 3/2: ama uken banu bizi, aita, zu bezala; 3/3: emintzan ez juanen Ongrian behera; 4/1: Ahizpa, juan zite orai portaliala; 4/2: ingoiti horra beita Ongriako Erregia; 4/3: harri erran izozu ohian eri nizala; 4/4: zapzi urte huntan eri nizala; 6/4: botzik kita ezazu zure sor lekia; 7/1: Aita, izan zira ene saltzale; 8/2: etxerat utzulien zira xangri handieki; 9/1: Ahizpa, juan zaite salako leihula; 9/2: iparra ala hegua den jakitera; 9/4: ene korpitzen xerkara jin dadin sarrí; 10/1: Atarratzeko zefiak bere tonez mintzatzen; 10/2: hanko jente gaztiak oro beltzez beztitzen.

VII

Atarratz jauregian bi zitroin doratu,
Ongriogarai horrek bat du galdu;
errepstu izan du ez direla ondu,
ontzen direnian batño izanen du.

- Aita, saldu nauzu miga bat bezala,
bai eta desterratu, ai!, Espanara;
ama bizi izan banu, aita, zu bezala,
ez nintzan ezkonduren Atarratz Salala.
- Ahizpa, jantz ezazu erroba perdia,
nik ere jantziren dut satina xuria;
ingoitik hor heldu da zure jaun geia,
botzez gita zazu zure sor etxia.
- Aita, juanen gira oro elkarrekin,
etxerat jinen zira xangrin handirekin,
bihotza kargatua, begiak bustirik,
eta zure alaba tonban ehortzirik.
- Ahizpa, zoazi orai salako leihora,
iparra ala hegua den emazu guardia;
iparra baldin bada, goraintzi Salari,
ene gorputzaren xerka jin dadila sarrí.
- Atarratzeko ezkilek bere motuz joten,
andere Santa Klara bihar da partitzen;
haren peko zaldia urrez da zelatzen,
hango xipi handiak beltzez dira beztitzen.

Blanc Saint-Hilaire: *Les Euskarien ou Basques liburuan* (Paris, 1888), 412 orrialdean.

VIII

Ozaze Jaurgaiñian bi zitroñ doratü,
Atarratzeko jaonak bata dü galtatü.
Uken dü arrapostü eztirela huntü,
huntürik direnian batto ükenen dü.

– Portaliala juan zite, ahizpa maitia,
ingoiti horra düzü Atarratzeko jaona;
otoi, erran izozü ni eri nizala,
zazpi egün hoietan ohian nizala.

– Bai, bena enükezü hortan sinetsia,
hari erraiten badot zü eri zirela,
zazpi egün hoietan ohian zirela,
bera nahi dükezü jin zü ziren lekila.

Ahizpa, jauntz ezazü arrauba xuria,
nik ere jauntziren dit ene zaia berdia,
ingoitik horra düzü zure senar geia,
botzik kita ezazü zure sor etxia.

– Klara, zuaza orai salako leihora,
iparr'ala hegua denez jakitera;
iparra balinbada, goraintzi Salari,
ene korritzaren xerka jin dadila sarri.

Ama, juanen gira oro alkarreki.
Etxerat jinen zira xangri handireki,
bihotza kargatürik, begiak bustirik,
eta zure alaba tunban ehortzirik.

Ozazeko zeñiak dü arrapikatzen.
Jaurgaiñek'anderia herritik partitzen.
Haren peko zaldia ürrez da zelatzen,
hanko txipi handiak beltzez dira beztitzen.

Atarratzeko hiria hiri ordoki,
hur handi bat badizü alde bateti;
errege bidia erdi erditii,
Maria-Maidalena beste aldeti.

– Ama, saldū naizü biga bat bezala,
bai eta desterratü, oi!, Espaniala.
Aita bizi üken banü, ama, zü bezala,
enündüzün ezkontüren Atarratze salala.

Jean de Jaurgain: *Quelques légendes poétiques du Pays de Soule* idazlanean, *La Tradition au Pays Basque* liburuan, Baiona, 1899.

Jaurgain-ek, istoria-azterketa luze bat egiñez. kanta ontan aitaten diranak alako eta alako jaun-andreak dirala erabakitzentzu du. Ortara irixteko, istoria eta kanta iru txeetasunetan bat datozela dio: Espaiñiara joan bearra; senar-emazte-gaiak Atarratzera ezkontzen dirala; eta andregai gogoz kontra ezkontzen dala.

Baiña Jaurgain jaunaren arrazoiak astiro aztertu bearko lirake. Berak one-
la dio:

“La persistance des deux vers: Bai eta desterratü, oil, Espaniala –Oui, et exiliée, hélas, en Espagne– et Enündüzün ezkontüren Atarratze Salala –Je ne serais pas mariée au château de Tardets– dans toutes les versions que j’ai recueillies moi-même en Soule et en Basse-Navarre, comme dans ce publiée par M. Francisque-Michel, prouve jusqu’à l’évidence qu’il s’agit d’un jeune fille mariée contre son gré au seigneur de Tardets, puis exilée en Espagne”.

Tamalez, Jaurgain-ek ez ditu berak jasotako beste aldaera oiek azaltzen. Ez dakigu zergatik. Esaten dituanak, izan ere, indar geiago artuko luteke, ori egin izan balu.

Espaiñiara joan bear ori ez da aldaera guzietan ageri. Batzuk “Hongrian behera” esaten baitute. Ezin dezakegu, beraz, segurutzat artu.

Ezkongaiak Atarratzera ezkontzen dirala, Michel-ek, Saint-Hilaire-k eta Jaurgain-ek esaten dute. Besteak, berriz, andregaiaren gustoa ara ezkontzea litzakela.

Andregai gogoz kontra ezkontzen dala, ori danak esaten dute. Orix da, ain zuzen, kantaren sustraia eta ardatza.

Ori kantaren aldetik.

Istoriaren aldetik, berriz, Jaurgain-ek bere azkerketatik atera dituanak auek dira: 1584-an onako ezkongai auek uztartzen dirala: Maria de Jaurgain, Ozazekoa, amazazpi urteko neskatxa, eta Charles de Luxe (Lukuze), berrogei ta bederatzi urtekoa, alarguna, Lukuze eta Atarratzeko nagusia (*baron*).

Senar-emazte auek, 1587-ko otsaillaren 2-an, berak bizi ziran Mauleko gaztelua utzi bearra izan zuten, Naparroako errege zeritzan Enrike laugarrenak erasota. Espaiñiara igaro eta Otsagin bizi izan ziran, 1593 urterako arte.

Espaiñiara joan bearra kantaren aldaeretan gauza segurua ez da, beraz; baiña bai senar-emazte auen bizitzan. Atarratzera ezkondu zirala, ori ere ez da segurua kantaren aldaeretan; bai jaun-andre oien bizitzan. Zenbait kantetan, andregaiak Atarratzera ezkondu nai luke; baiña ez da olakorik gertatzen. Eta andregaiak gogoz kontra ezkondu zala, segurua da kantaren aldaeretan; baiña iduripen bat Maria orren bizitzan.

Are geiago: istoriak dionez, andregaiak Klara izeneko aizpa bat zuan. Baiña, kantak dionez, andregaiak bera da Klara, eta ez beraren aizpa: "andere Santa Klara" alegia.

Bederetzigarren bertsoan, "Klara, zuaza orai salako leihora" esaten du Jaurgain-ek. Beste guziak, ordea, "ahizpa" diote. Bi aizpa oien alkarrizketan, izan ere, itz orrekin asten dira bertso guziak: 4, 5, 6 eta 9-garrena.

Orregatik, "Klara" aizpa ori eta "andere Santa Klara" bat bera izatea ditekena da noski, baiña ez iñondik ere gauza segurua. Gaiñera, bada "andere Santa Juana" dionik ere.

Ala ere, kanta zaar au an eta emen ikututzeko eta aldatzeko naiko oiñarri eta eskubide baduala uste du Jaurgain-ek; eta, besterik gabe, berari komeni zaion moduan jartzen du. ortarako toki-izenak aldatuz, berak bere azterketa oietan arkitu dituan izenak ezartzeko.

Jaurgain-en beste aldaketa bat: kantak "aita" esaten duanean, berak "ama" ipiñi, eta alderantziz. Irugarren bertsoan, izan ere, "ama bizi uken banu, aita, zu bezala" esaten da. Baiña Jaurgain-ek bere azterketan arkitu duanez, 1584 urtean ere bizi zan Maria orren ama. Baita 1599-an ere. Orregatik, kanta aldatu egin bear...

Gure iritzirako, beraz, ez da kanta zaar au ikutu bear; baizik-eta erriak kantatzen duan bezelaxe utzi eta "Ongriagarai" edo "Hungriako errege" esan, jaun oiek nor izan ziran ezin somatu baldin badegu ere.

* * *

Juan Karlos Gerra-k, bere *Los Cantares antiguos del Euskera* liburuan (Donostia, 1924), kanta au Jaurgain'i kopiatzen dio, eta aren istoria-azterketaren laburpen bat eskeintzen du.

Juan Gorostiaga: *Antología de Poesía Popular Vasca*, San Sebastián, 1955, 59 orrialdean.

Kanta oni buruzko azterketa: Luis M. Mujika: *Euskal lirika tradizionala (II)*, Donostia 1984, 243 orrialdean.

IX

Atarratze xauregian zitroina da loratzen,
Dongaraieko primiak batño du galdetzen;
respostia izan emen du eztirela ondu,
ontzen direnian batño izanen du.

- Aita, zuk saldu nuzu idi bat bezala,
baita abandonatu ez izanik bezala;
ama bizi uken banu, aita, zu bezala,
eninduzu, ez, juanen Espanian barna,
baño bai ezkonduren Atarratze Salala.
- Ahizpa, xantzi dezan, xantzi xarpa berdea,
nik ere xantziren diñat mosolin xuria,
engoitik una duken *gure* jaun geia.
- Abil eta erran izozu eri nizala,
zazpi urte untan oiean nizala.
- Nik errenagatik eri zinala,
bera xinen duzu, bai, zu ziren lekura.
- Jinko onak dagizula egun on, nere Klara maitea.
– Bai eta zuri ere, Dongaraieko primia.
– Bidean entzun dizit eri zirela;
eri izateko sobera eder zira.
- Aita, goazen, goazen alegerarik,
etxera jinen zira begiak bustirik,
begiak bustirik eta ni tonban sarturik.

Atarratzeko ezkilak beren doñez soñatzen,
eta andere Santa Klara erritik partitzen,
ango txiki-andiak beltzez dira beztitzen.

- Aizpa, goazen, goazen goien goien salala,
andik so eginen iagun den iparra ala egoa;
iparra baldin bada, Salari goraintzi,
ta egoa baldin bada, Dongaraieko primiari.

Aldaera au Aingeru Irigaray jauna zanak *Revista Internacional de Estudios Vascos* aldizkarian agertu zuan, 1928 urtean, 230 orrialdean, Otxagiko Ramona Landa Rekalderi jasota.

Seigarren bertsoan ez du Irigaray-k puntuazioaz markatzen nork zer dion. Orain daukana gerok ezarria da.

J. Lakarra, K. Biguri eta B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1983), bigarren tomoan, 74 orrialdean, Irigaray-ren aldaera au kopiatzen da.

Luis M. Mujika: *Euskal lirika tradicionala (II)*, 249 orrialdean.

* * *

Irigaray jaunak, bere *Noticias y viejos textos de la lingua navarrorum* liburuau (Donostia, 1971), 29 orrialdean, Otxagin bildutako aldaera ori berriz argitaratzen du, bukaeran onela esanez:

"Aún queda una versión de Erro, que Riezú me comunica; pero está tan mutilada que sólo se pueden anotar versos sueltos, como:

negarrez urtua...
Atarratzeko menda...
zer mendi luzia...
Barurik pasatu nin...
di-kun-guzia...".

X

Ai-ta sal-dü nai - zü i - di bat be - za - la e - ta a - ban-do-na-tü
ez - pa-nin - du-zün be - za - la, ez - pa-nin - du-zün be - za - la.

- Aita, saldü naizü idi bat bezala,
eta abandonatü ezpanindüzün bezala,
ezpanindüzün bezala.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 376 zenbakian, Zuberoako Larrainen J. Algorriren aotik jasoa.

Ondotik onela dio: “*No he recibido el resto del poema, que se comprometieron a enviarme*”.

XI

Ai - ta, sal - du nau - zu i - di bat be - za - la, bai e - ta des - ti - na - tu Oi! Es - pai - ni - a - ra. A - ma bi - zi_i - zan ba - nu, Ai - ta, zu be - za - la, e - nin - du - zun ez sal - . du - ko sal - du nau - zun be - za - la.

– Aita, saldu nauzu idi bat bezala,
bai eta destinatu, oi!, Spainiala.
Ama bizi izan banu, aita, zu bezala,
ez ninduzun, ez, salduko saldu nauzun bezala.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 377 zenbakian. Nori eta non jaso zuan adierazteko, onela dio: “*Lo aprendí en Arizcun (Baztán, AN), no sé si de Francisca Irigoyen*”.

XII

Atarratz yaulegian bi zitroin duratu,
Hongriako erregek batto du galdu.
Errespuesta izan du eztirela ontu,
onturen direnean batto izanen du.

– Aita, zuk saldu nazu iri bat bezela,
ama bizi izan banu, aita, zu bezela,
ez ninduzun juanen Hongrian behera,
bañan bai ezkonduren Atarratz Salara.

Aita, zu izan zera neure saltzalle,
anaie zarrena diruen artzalle,
anaie artekoa zamariz iragalle,
anaie txikiiena nere laguntzalle.

Aita, juanen gera guztiok alegeraki,
etxera jiñen zera xangriñ aundiarekiñ,
biotza kargaturik, begiak bustirik,
eta zure alaba tonban egortzirik.

Atarratzko iria iri ordoki,
ur andi bat badizu alde batetik,
errege-bidea berriz erdi-erditik,
Maria Madalena beste aldetik.

– Aizpa, zorazi portaletara,
gaur goitik or dukezu Hongriako erregea,
ari erran zaiozu ni eri naizela,
eta zazpi urte ontan ohian naizela.

Aizpa, zorazi salako leiora,
egoa ala iparra danez jakitera;
iparra baldiñ bada, goraintzi Salari,
nere korputzaren billa jin dariñ sarri.

Atarratzko ezkillak bere baitaik dute jotzen,
andere Santa Klara orañ da partitzen;
aren azpiko zaldia urrez da zelatzen,
urrez zelatzen eta zillarrez bridatzen.

Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduman, “Kanta errikoia, 1935’ngo udan Joakin Dorronsoro’k bilduak” deritzaion mordoan. Nori jasoa dan itz auekin adierazten da: “Jose Joakin kamineroari entzuna”.

XIII

L. Dassance zanaren paperetan kanta zaar onen bertso bakar au agertu da, Ona emen:

Atarratze jauregian bi zitroin doratu,
Hongriagarai horrek baño du galdu;
arraostua izan du eztirela ontu,
ontzen direnian baño izanen du.

XIV

Atarratze jauregian bi filan doratü,
Hongriako erregek batto dü galtatü;
Errepostu üken dü eztirela huntü,
huntü direnian batto ükenen dü.

Atarratzeko herria herri ordoki,
ur handi bat badizü alde bateti;
errege bidia erdi-erditi,
Maria Madalena beste aldeti.

– Aita, saldü naizü idi bat bezala,
ama bizi üken banü, aita, zü bezala,
ez nintzan, ez, juanen Hongrian behera.
bena bai ezkontüren Atarratze Salala.

Aita, zü izan zira ene saltzale,
anaie gehiena sosaren hartzale,
anaie artekua zamariala igaile,
anaie txipienetan ene lagüntzale.

– Ahizpa, juan zite galeriala,
iparra ala hegua den jakitera;
iparra baldin bada goraintzi Salari,
ene korpitzaren xerka jin dakidan sarri.

Ahizpa, juan zite Salako leihora,
ingoiti horra beita Hongriako erregia;
hari erran ezozü ni eri nizala,
zazpi urte hontan ohian nizala.

– Ahizpa, enükezü, ez, ni sinetsia,
zazpi urte hontan ohian zirela,
zazpi urte hontan ohian zirela,
bera nahi dükezü jin zü ziren lekila.

Ahizpa, jantz ezazü arropa xuria,
nik ere jantziren dit ene berdia;
ingoiti horra beita Hongriako erregia,
bozik kita ezazü zure sor lekia.

Atarratzeko zeñiak beren manüz joiten,
andere Santa Klara herriti partitzen;
haren peko zaldia ürrez zelatzen,
ürrez zelatzen eta diamantez bridatzen.

– Aita, juanen gira oro algarreki,
gibel ützüliren zira xangri handiki,
bihotza triste eta begiak bustirik,
eta zure alaba tonban ehortzirik.

Aldaera au ere Dassance zanaren paperetan arkitu degu, eskuz idatzita. Salaberry-k agertu zuanarekin konparatu ezkerro, ez da oso ezberdiña; baiña bertsoak aldaketa ugariak dituzte eta beste ordena batean jarrita daude

XV


A - tha - rra - tze jau - re - gi - an bi zi - troin lo - ra -
tu; On - gri - a - ko e - rre - gek ba - tto du gal - da -
tu. A - rra - pos-tu u - kan du ez - ti - re - la un -
tu; un - tzen di - re - ni - an, ba - tto u - ka-nen du.

Atarratze jauregian bi zitroin loratu;
Ongriako erregek batto du galdatu.
Arrapostu ukana eztirela untu;
untzen direnian, batto ukana du.

P. Donostia: *Cancionero vasco, I*, Donostia, 1994, 204 zenbakian, 292 orrialdean, argibide auekin: "Inform. Mme Espil. Loc. rec.: Hazparne. Fecha: 5 de setiembre de 1922. Clas.: narrativa".

XVII

Ai - ta, sal - du nau - zu i - di bat be - za - la; bai
e - ta kon - de - na - tu Es - pai - ni - an bar - na. A - ma
bi - zi u - khen ba - nu, ai - ta, zu be - za - la, ez



- Aita, saldu nauzu idi bat bezala;
bai eta kondenatu Spainian barna.
Ama bizi uken banu, aita, zu bezala,
ez nuen gan beharko Hongrian behera,
bainan bai ezkonduren Atarratze Salala.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, I*, Donostia, 199, 204 zenbakian, 293 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: Jean Dithurbide. Loc. rec.: Sara. Fecha: 16 de julio de 1937. Clas.: narrativa".

XVIII

The musical notation consists of four staves of music. The first staff starts with a dotted quarter note followed by eighth notes. The second staff begins with a dotted quarter note followed by eighth notes. The third staff starts with a dotted quarter note followed by eighth notes. The fourth staff starts with a dotted quarter note followed by eighth notes. The lyrics are written below the notes:

A - tha - rra - tze jau - re - gi - an bi me - loin do - ra -
tu. Hon - gri - a - ko e - rre - gek bat - ño du gal - da -
tu. A - rra - pos - tu - a i - zan du ez di - re - la on -
tu; on - tu - tzen di - re - ni - an, bat - ño i - za - nen du.

Atarratze jauregin
bi meloin doratu,
Hongriako erregek
batño du galdu.
Arrapostua izan du
ez direla ontu;
ontutzen direnian,
batño izanen du.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, I*, Donostia, 1994, 205 zenbakian, 294 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: Fr. Emile de Itsasu, convento de capuchinos de Toulouse. Loc. rec.: Toulouse. Fecha: 28 de diciembre de 1936. Clas.: narrativa".

Ref.: La melodía es una ligera variante de la conocida serenata del Vizconde Belzunce "Ene izar maitia". Texto en p. 284 de la misma obra".

XIX

Azkenik beste doiñu au ere bai, gure paperetan azaldu dana, baiña nundik etorri zaigun adierazten duan itzik gabe:

A - ta - rra - tze jao - re - gi - an, bi zi - trou do - ra - tu: Hon - gri -
a - ko e - rre - gek ba - tto du gal - ta - tu. A -rra - pos - tu u - ken -
du ez - ti - re - la houn - tu Houn - tu di - re - ni - an ba - tto u - ke - nen - du.

Atarratze jaoregian bi zitrou doratu:
Hongriako erregek batto du galtatu.
Arrapostu uken du eztirela huntu,
huntu direnian batto ukenen du.

VI

*En el palacio de Tardets hay dos limones dorados,
el rey de Hungría ha pedido uno;
se le ha respondido que no han madurado;
que, cuando maduren, tendrá uno.*

*El pueblo de Tardets es un pueblo llano,
una abundosa agua (río) pasa por un lado,
el camino real por el centro,
(la ermita de) María Magdalena en el otro lado.*

*– Padre, me has vendido igual que a un buey;
si madre viviera, padre, como tú,
no me llevarías Hungría adelante,
sino que me casaría a Sala de Tardets.*

*– Hermana, vete al portal,
tienes ya ahí al rey de Hungría;
dile que estoy enferma,
que en estos siete años he guardado cama.*

*– Hermana, no se me creería
que en estos siete años has guardado cama;
que en estos siete años has guardado cama;
él querrá venir a donde estás tú.*

*– Hermana, viste la ropa verde,
yo vestiré la mía blanca;
ya tienes ahí al rey de Hungría,
abandona gozosa la casa donde naciste.*

*– Padre, tú has sido el que me vendió,
mi hermano mayor el que recibió el dinero,
el hermano de en medio el que me levantó a la cabalgadura,
mi hermano pequeño el que me ayudó.*

*– Padre, partiremos todos juntos,
tú volverás a casa con gran pena,
con el corazón cargado y los ojos humedecidos,
habiendo dejado a tu hija en la tumba.*

*— Hermana, vete ahora a la ventana de la sala,
para saber si sopla el norte o el sur;
si sopla el norte, da saludos a Sala,
(y) que venga pronto en busca de mi cuerpo.*

*Las campanas de Tardets repican solas,
los jóvenes de allí se visten de negro,
al partir de allí la señora Santa Clara;
la cabalgadura que monta se enjaeza de oro.*

"Behin batez yoan ninduzun..."

I

Be-hin ba-tez yoan nin-du-zun Is-tu-ri-tze - ko pla-za-lat,
an-dre_e-der bat i-ku-si nu-en dan-tza bu-ru-an zu-ha-la.
A-tso_ñó ba-ti gal-de-gin ni-on nun-goa da andre e-der hori?
Mur-de Bel-zunz, o-ri du-zu A - ge-rrre-ko a-la-ba.

Behin batez yoan ninduzun
Isturitzeko plazalat,
andre eder bat ikusi nuen
dantza-buruan zuhala.

Atsoño bati galde egin nion:
– Nongoa da andre eder hori?
– Murde Belzunze, hori duzu
Agerreko alaba.

- Agerreko anderea, hitz batez adi nezazu: zure alaba Kattaliñaño emaztetako indazu.
- Ene alaba Kattaliñaño hitz emanikan dagozu; haren ondoko pupuñañoa, jauna, plazer baduzu.
- Ai-ei ai-ei penaz eta ai-ei ai-ei ai dolorez; eiherala yoan bear eta Murde Beltzunzen beldurrez.
- Habil hortik, ergel xarra! Ez dun Beltzunzen perilik... ihizira yoana ziagon goizean goiztto yeikirik; goizean goiz yeikirik eta bere orak harturik.
- Kattaliñaño, norat xoaxi xuhaur hola bakarrik?
- Eiherala, Murde Beltzuntz, nihaur honela bakarrik.
- Kattaliñaño, nai duxuia nik emanikan lagunik?
- Nik eztut lagun beharrik. Lagunak nik ukaitekotz neure aitamek emanik.
- Kattaliñaño, baldin banaki nor duxun eskolatzailia, paga ere nezakexu xure eskolasaria.
- Ene eskolatzaillea da herriko jaun bikaria, ene aitamez pagatuia da ene eskolasaria.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 828 zenbakian, 959 orrialdean, Izturitzen Graziosa Zabaloren aotik jasoa.

Seigarren bertsoan, bigarren lerroan, oar au egiten du Azkuek: ‘Ez dun murde Beltzunzen perilik *décia la cantora, destruyendo el ritmo de la canción*.

Bertso berean, bostgarren lerroan beste onela esan bearko lukela uste de-gu: *goizean goiztto yeikirik eta*. Laugarrenean bezela, alegría.

Bere *Euskalerriaren Yakintza*-n ere argitaratu zuan Azkuek kanta au, lau-garren tomoan, bainha doiñurik gabe.

A. Apat-Etxebarnek ere azaldu zuan bere *Noticia y viejos textos de la “lingua navarrorum”*, Donostia, 1971.

Kanta oni buruzko azterketa: Luis M. Mujika: *Euskal lirika tradizionala (II)*, 287 orrialdean.

II

Behin batez joan ninduzun
Isturitzeko plazala,
andere eder bat ikusi nuen
dantza-buruan zohala.

Atsoño bati galdegin nion:
– Nungo da andre hori?
– Murde Belzunz, hori duzu
Agerreko alaba.

– Agerreko alaba,
hitz batez adi nezazu.
Zure alaba Kataliñaño
emaztetako indazu.

– Ene alaba Kataliñaño
hitz-emanikan dagozu;
haren ondoko pupuñañoa,
jauna, plazer baduzu.

– Ai, ei, ai, ei, penaz eta
ai, ei, ai, ei, ai, dolorez:
eiherala joan behar eta
Murde Belzunzen beldurrez!

– Habil hortik, ergel txarra!
Ez dun Belzunzen perilik;
ihizira joana ziagon
goizean goizto jeikirik.

Goizean goiz jeikirik eta
bere orak harturik.
Hor gaindi denbora pasa,
ez baitu hire beharrik.

– Kataliñaño, nora xoaxi
xuhaur horrela bakarrik?
– Eiherala, Murde Belzunze,
nihaur honela bakarrik!

– Kataliñaño, nahi duzuia
nik emanikan lagunik?
– Nik ez dut nahi lagunik
ez bainiz urrun etxetik.

– Halere ez duxu zeren
hola eskapa ni ganik.
– Nik ez dut nahi lagunik
aitamen eskutik baizik!

– Kataliñaño, banaki
nor duxun eskolatzailea,
paga ere nezakezu
zure eskola-saria.

– Ene eskolatzailea da
herriko jaun bikaria.
Ene aitamek pagatuia da
ene eskola-saria.

Herria astekarian, 1964-ko azaroaren 19-an.

Gure iritzirako, ez da erriaren aotik jasotako aldaera berria, Azkueri kopiatua baizik; eta gero, lau lerroko bertso edo kopletan sar dedin, lerro batzuk asmatuak.

I

*En cierta ocasión me dirigí a la plaza de Izturitz,
vi una hermosa señora a la cabeza de la danza.*

A una ancianita le pregunté: ¿De dónde es esa hermosa señora?

– Señor de Belzunce, ésa es la hija de (la casa de) Agerre.

*– Señora de Agerre, oidme una palabra:
vuestra hija Catalinita dádmela por esposa.*

*– Mi hija Catalinita ha dado su palabra;
(os daré) la prenda que le sigue, si os place, señor.*

*– Ay, ey, ay, ey, de pena y ay, ey, ay, ey, de dolor:
tengo que ir al molino y (voy) de miedo del señor de Belzunce.*

*– Descuida, tonta, que no hay peligro de Belzunce;
se ha ido de caza, levantándose tempranito,
levantándose tempranito y llevando a los perros.*

– Catalinita, ¿a dónde vas tú, tan solita?

– Al molino, señor de Belzunce, yo, tan solita.

– Catalinita, ¿quieres que te dé yo un compañero?

– Yo no necesito compañero.

De tener alguno, el que mis padres me dieran.

*– Catalinita, si supiera quién es vuestra maestro,
le podría pagar yo los gastos de la escuela.*

*– Mi maestro es el señor coadjutor del pueblo;
está pagado por mis padres el gasto de la escuela.*

"Erranplanpan atabala joiten dute herrian..."

Erranplanpan atabala
joiten dute herrian;
jaun kondeak bai ote du
hatz berrik buruan?

Manadu du andereak
haren gana bil diten;
bat ikusi dueneko
hartaz duzu amosten.

– Salagoiti, badakika
nor den horgo panpina?
– Jaun kondea, hori duzu
ene espos laguna.

– Nik ez diat, hik bezala,
hain emazte ederrik,
utz bahezat, zer fortuna
andre horrek eta hik!

– Jauna, konde ez bazine
jal nezake ezpata;
nausi baten aintzinean
nola egin dakita?

– Salagoiti, ehadila
gisa hortan hasarra;
baroin berri eginen haut
eskualdeko bakarra.

I

– Mari-Eder, beztizite
ahal bezain ederki;
urre-joia eta denak,
usain onak ausarki...

Mari-Eder, ikus arte,
adio ene izarra!
Jauregira behar duzu
kondearen manura...

Kondesaren kara tzarra
lore berri berexten;
gobernantza berriari
baitiozka emaiten.

– Mari-Eder, Mari-Eder,
ez har, otoi, buketa!
Kondearen oihu mina
debaldetan izan da.

Mari-Eder erori da
aldirixartuz bezala;
Jaungoikoak hil gaixoa
urrikari duala.

– Salagoiti, oroit hadi
hire tratu zikinaz;
jaun kondeak eta biek
kordokatu arimaz.

Gure Herria aldizkarian, 1958 urtean, 230 orrialdean. Berak Herria astekariari kopiatu diola esaten du: “vers parus dans “Herria”...”. Baiña zein egunean ez du adierazten.

Baita Gure Almanaka-n ere, 1980 urtean, 19 orrialdean.

I

*Suena el tambor en el pueblo: erramplanplan...
¿El señor conde tiene algún nuevo picor en la cabeza?*

*Ha ordenado que todas las señoras se reúnan ante él;
en cuanto ha visto a una, se ha enamorado de ella.*

– Salagoiti, ¿sabes quién es esa muñeca de ahí?
– Señor conde, ésa es mi esposa y compañera.

– Yo no tengo una esposa tan hermosa como la tuya.
Si me la dejaras, ¡qué fortuna la de esa señora y la tuya!

– Señor, si no fuerais conde, desenvainaría la espada.
¿Sé yo cómo hay que comportarse ante un señor?

– Salagoiti, no te enfades de esa manera;
te nombraré barón, el único de esta zona.

– Mari-Eder (María Hermosa), vestíos tan elegantemente como podáis,
con las joyas de oro y todas las demás, con abundantes perfumes...

*¡Mari-Eder, hasta la vista! ¡Adiós, estrella mía!
Has de ir al palacio, (a ponerte) a disposición del conde.*

*Mala cara la de la condesa, mientras elige flores;
se las va dando a la nueva ama de llaves.*

– Mari-Eder, Mari-Eder, no cojas, por favor, ese florero!
El dolorido grito del conde ha sido inútil.

*Mari-Eder ha caído como si hubiera enfermado;
Dios tenga piedad de la pobre fallecida.*

– Salagoiti, acuérdate de tu infame trato;
del alma que el señor conde y tú habéis puesto en peligro.

"Etxe eder leio bage onetan..."

I

– Etxe eder leio bage onetan
ez naiz sartu zazpi urte aubetan;
eta zortzigarrenian,
neretzat zorigaitzian,
aita Beltranen iltzian.
Amandria neria nizaz
bi erdi egin zanian,
milla ollo ill-eta
eskaratzian,
zazpi zezen korritu ere
enparantzian;
ni ere banenguen
lumatxo artian,
eta nere ama andria
urre-gortiña artian.
Gero Bidania guztian
bat zan erorik eta zororik;
aita jauna neriak aura
senartzat eman dit,
baña ez nuke trukatuko
obiagoagatik.
Aita jauna neriak
niri eman zidan
imiñan dotia;
ama andriak ere ixillik
bere partia.
Lenen gabian

begiak biotzak luen mendian,
baita berriz ere bigarrenian;
irugarreña igaro baño len,
ondo poztu ziñan, Alos-torria,
eldu zalako neregan semia.
Alos-torria, bai, Alos-torria,
Alos-torreko
eskallera luzia!
Alos-torrian
nenguianian
bela beltzak *kua kua*
leiuetan.
Andik jaiki eta
urre-goruz jo nuan;
baña andik laster
berri gaiztuak jo ninduan.
Zaldunak esan zion: – Ixi, ixi,
ama dollorkumia!
Ez da, bada, ori zure
esateria.
– Ixi, ixi, zaldun odol
txarreko gaztia!
Ala ere gutxiago zan
zure eginpidea.
Aizpa ederrak or daude
ederrik eta galantik,

atz ederrak eraztunez
beterik,
ez daukatela mantubetan
zulorik,
ala ere gutxiyago
begiyan negarrik.
Ama andriari ere bai
poza dariyo.
Nere biotzari bakarrik
mindura jariyo!
Aita jauna nerria
Gaztelan zanian,
ixil askorik jaio zan
Alos-torrian semia;

eta ala ere ixillagorik
dago bakian
azitzen Zarautz aldian,
gure jatorriaren loitukerian.
Ai au mindura beltza!
Ai nere lotsa!
Alabak negarra ta
aitak lur otza!
Zeñek loitu zaitu zu,
Alos-torria?
Ai nere aita maite,
aita maitia!
Iltzia ondo egin dezu,
aita jaun maitia.

Kanta au Juan V. Araquistain jaunaren *Tradiciones Vasco-cántabras liburu*an (Tolosa, 1866) azaldu zan, *Gau-illa* izeneko atalean.

Gure iritzirako, *ama dollorkumia* dion lerro ortan, *dama dollorkumia* bearko luke.

Arakistainek esaten duanez, berak atal ortan esaten dituanak erriaren aotik jaso zituan. Laburpen bat eskeiñiko diogu irakurleari.

Beltran Lopez de Alos, Debako Alos-torreko etxekojauna zan. Bere emazte eta alaba bakarrarekin bizi zan. Onen izena: Alos-Usua. Aita alargundu eta berriro ezkondu zan. Bigarren emazteak bi alaba eman zizkion.

Beltran jaunak moroetara gerrara joan bear izan zuan. Ura an zalarik, andrea, senarrari zor zion leialtadeaz aaztuta, beste batekin konpondu zan: multil koxkorretan etxera jaso zuten umezurtz batekin.

Beltran jaunak, gerratik etorri zanean, bere alaba Alos-Usua Bidaniko maiorazko batekin ezkondu arazi zuan.

Beltranek giro txarra nabaitzen zuan etxearen. Misterio edo izkituren bat baza, alegia; baiña zer ote zan ezin sumatu.

Orduan il-papera egin zuan. Urrengoa gauan, etxekoak-eta *gau-illa* ospatzea bildu ziran; eta, garai artan oitura zanez, illaren goralpenak txandaka egiten asi. Alos-Usuak, or goien ezarri degun olerkia kantatu omen zuan.

Beltran jaunaren emaztearekin konpontzen zan mutilla, bere billaukeria agerian jarrita ikusi zuanean, Alos-Usua iltzera abiatu zan. Baiña Beltran jaunak, bat-batean zutitu eta bera il zuan; mutilla, alegia.

Alos-torreko puskak 1844 urtera arte zutik iraun omen zuten. Urte ortan etxe berri bat egin zan toki artan.

* * *

Arakistain jaunak ez du esaten kanta au noren aotik jaso zuan. Baiña Juan Karlos Guerra jauna zanak, 1921 urtean argitaratu zuan *Los cantares antiguos del euskera liburuan*, 53 orrialdean, onela dio:

"El insigne leyendista Araquistain me decía en carta de 18 de Marzo de 1901: "...Los versos publicados por mí son tomados literalmente de labios de una mujer, que en 1865 contaba ochenta y ocho años bien cumplidos; mujer extraordinaria por su memoria, y quien me dio también noticia de las tradiciones Las tres olas y La Hilandera de la Capilla de Zubelzu. Lo que puedo asegurar a usted es que aquella mujer tenía más fe en esas leyendas que en todas las historias del mundo, pues le señalaba los lugares, los peñascos y los puntos de todas las escenas".

Arrinda-dar Anes-ek ere jorratu zuan gai au, *Alos-Torre-ko usua (Deba-ko eresia)* idazlanean, Saski-naski aldizkarian, 1980-ko azaroan.

Prosa eta bertsoa alkarrekin uztartuz moldatutako lana da. Bertsoak Arakistainek bezela ematen ditu; bere prosaz, berriaz, gertakizuna kontatzen du.

Asieran Alos-torreaz mintzatzen da: nun zegoan, aren kondarrik bai ote dan eta abar.

* * *

Zinzarri izenordeaz izenpetzen zuan batek, kanta au *La Voz de España* egunkarian argitaratu zuan, 1977-ko garagarrillean –egunik ez nuan apuntatu–, *Las endechas de la guerra de los bandos (y IV) Alostorrea, lamentación funeral que reparó con sangre una deshonra* idazlanean.

Beste argitalpen bat, Arakistainen liburutik artuta berau ere: J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak*, bigarren tomoan (Donostia, 1983), 47 orrialdean.

Kanta oni buruzko azterketa: Luis M. Mujika: *Euskal lirika tradicionala (II)*, Donostia 1985, 232 orrialdean; eta (II), 282 orrialdean.

II

ze - a! A - los - to - rre - an nen - go - a - ne - an go - ru - e-
tan, Be - la bel - tza kua kua kua kua leio - e - tan.

Alostorrea, bai, Alostorrea,
Alostorreko eskallera luzea!
Alostorrean nengoanean goruetan,
bela beltzak kua kua kua kua leioetan!

R. M. Azkue: *La música popular bascongada* (1901) itzaldian, Bilbon argitarra emana; *Imprenta y Litografía de Gregorio Astoreca. - Calle de Santa María, núm. 15.*

Kantaren lau lerro oiek bakarrik ematen ditu, eta doiñua.

Azkueren itzaldi au, eta kanta-asiera au ere bai noski, Donostiako *Euskal-Erria* aldizkarian ere agertu ziran, 1903 urtean.

Kantaeraren asiera ori eskeiñi ondoren, Arakistainen kontaeraren laburpena egiten du Azkuek, eta urrena onela dio:

“El sacerdote que me enseñó esta melodía conoció en Elgoibar a una anciana que la cantaba. Yo mismo conocí en Lequeitio a otra anciana que cantaba esto mismo, pero bastante modificado aun en su letra. Ésta decía:

*Alostorrean nengoanean
irra goruetan,
etorri iatan erroitzarra drauetan.*

Irra itzari buruz onela dio Azkuek: “Es onomatopeya del hilo que se forma al salir de la rueda”.

Bere *Euskalerriaren Yakintza-n* ere, IV tomoan, argitaratu zuan Azkuek kanta au. Baiña doiñurik gabe eta, euskera garbitzearen-edo, zenbait itz al-daturik.

* * *

Azkuek berak, *Euskalerriaren Yakintza-n*, bigarren tomoan, *Ipuin eta Ira-kurgaiak* izenekoan alegia, 30 orrialdean, Alostorreko gertaera au'prosaz kontatzen du:

"Deba inguruko etxe entzutetsu baten izena zan au (Alostorrea). Yabearena, Beltrán López de Alós. Bi aldiz ezkondu zan. Lenengo emaztearengandik alaba bat izan zuen: ederra, galanta ta ona. Alos-Usoa izentzat ematen zioten. Bigarren alabak bi alaba eman zizkion Beltrani. Gaizki artzen zuen Usoa bere amordeak.

Beltranek, alaba maitea atsekabe aien artetik ateratzearen, beretzat senargai bat begiz yo zuen. Ezta-egunetan Beltran, Alos utzita, mauruen gudaldi batera yoan zan eta zazpi urte anditan egon zan etxeratu gabe.

Aloseratu zanean, berri izugarri batek mindu zion Beltrani biotza: bera mauru ilten ibili zan urte aietan uriko seme bat Alosen yaio zala; ta aur berri onen ama bere emaztea ote zan, bere alaba Usoa ote zan. Usoaren amordeak zabaldu zuen bigarren uste gezurrezko au.

Egia garbi-garbi ezagutzeko, burutasun bat izan zuen Beltranek: bere burua iltzat egitea. Alostorreko zaldunaren eriotzea laxter zabaldu zan inguru aietan. Gaubeilara, aide ta adiskide, lagun asko batu ziran.

Aldi artan iletak yoten zituzten, ez bakarrik gorputza lurpera eramatean, bai gaubela-bitartean ere.

Beltranen lenengo alabari bere aldia eldu zitzaionean, zegoan lekutik yaiki, zerraldora urreratu ta bere aita maiteari bekokian muñ eman ta gero, itz aue-zaz kantatu zuen bere ileta:

Alostorrea bai, Alostorrea,
Alostorreko eskallera luzea!
Alostorean nengoanean goruetan
Bela beltza *kua kua kua kua* leioetan.

Bela Beltz sasiko mutilaren aitak zuen ezizena ta bera ere sasikoa edo urikoa zan, Beltranen lengusu baten semea.

Usoa luzaroago ari zan ileta yoten, eta bere ezpainerako itzak argi-argi agertu zuten Alosko mutil gaizki yaioa etxeko andrearena zala.

Orduan yaiki zan au, ta, berak zinu eginda, bere senar-orde *Bela Beltz* ere bai; ta bien artean Usoa ilteko zeukatela, zerraldotik atera zan Beltran ta bere-alaxe *Bela Beltz-i* bizia kendu zion".

Ondoren erderaz jarraitzen du Azkuek:

"Muy parecida a ésta es una leyenda que se lee en Tradiciones vascocántabras, de Araquistain,

Me la dio a conocer el sacerdote don Toribio Iriondo, de Elgoibar, junto con una hermosa melodía, que publiqué, provista de acompañamiento de piano, en el folleto La música popular baskongada, Conferencia dada en los salones de la Sociedad “Centro Vasco”, de Bilbao, el día 15 de febrero de 1901”.

III

Etxe aundi, eder, galant onetan,
zazpi urte dira ni sartu ez naizela.
Zortzigarrenian, ala esker gaiztotan,
nere aita Ronen-Ronen illetan.

Erri guzian ero aundi bat izanik,
aita nerriak bera senar eman dit.
Atorratxua jantzi dezala esanik,
ero neuriak dinbi-danba eman dit.

Esku-musubak garbi ditzala esanik,
ero neuriak dinbi-danba eman dit.
Oñetakuak jantzi ditzala esanik,
ero neuriak dinbi-danba eman dit.

- Ago ixilik, ama zikiñen umia,
ago ixilik, andra lotsa gabia.
- Nere aita Valladolid-en zanian.
ixil jaio zan seme-paria etxian.
Etziran bataiatu elizako pontian,
baizik bat pertzian ta bestia azpillian.
- Asko don gaurko, nere alaba Maria,
asko don gaurko, nere alaba maitia;
len irea zanen Baionaren erdia,
len erdia ta orain berriz guzia.

Euloji Gorrotxategik, Bilboko *Euzkadi* egunkarian, 1932-VIII-17-an argitaratua. Ondoren egunkariaren oarau:

“Amaren abotik ikasijak dituzu abesti oneik, ezta? Nabarra-ko Urdiain erri txikijan zeure amamea jayo bazan, andikuak ixango dira oneik. Uste dot olerki luzeren baten ataltxubak baño eztirala zati oneik. Iñok osotuten badau, ederto.- Lauaxeta”.

Euloji Gorrotxategi onek berak, 1933 urtean, *Aitzol-en* bildumara bialdu zuan kanta au, aldaketa auekin: 2/1: Balladurrian ero aundi bat izanik; 3/1-2: bi lerro auek falta ditu; 6/1: ago ixilik, nere alaba maitia; 6/2: ago ixilik, nere alaba maitia.

Oar au ere egiten du: "Nere ama (G. B.) zanari ikasiak, Nabarrako Urdiainen".

Eta argibide luze au ere bai:

"Aurreko abesti onen kondaira nere aurrekoai entzuna:

Abestian dion alaba Maria au, Ron jaunak lenengo emazteangandik izana zan; au gaztetxoa zala, alargundurik aita, bigarren emaztea artu zuan; onek lenengo emaztearen alaba begi onez ikusi eziñik, aitaren buruan sartu zion Balladurrian zan ero batekin alaba ori ezkondu erazotzea.

Aldi luze bat kanpoan igarota aita etxeratu zanian, emazteari galdeturik alaba onen berri, ubazama onek, betiko eran, alaba onen aitaganako biotz-gortasuna agirian jarri naian, gaizki itz egin zion alabagatik.

Aitak ezaguturik emaztearen ziputzkeria, apustu egin zion emazteari, aita ill zala berri artzen bazuan alabak, etorri baietz illetara.

Abestiak agertzen digu nola gertatu zan, eta ubazama-alabaren artean zer itz-trukaketa izan zuten, eta gero aitaren erabakia".

Manuel Lekuona apaiz jauna zanaren bilduman kanta onen beste kopia bat agertu da, *E. Gorrotxategi-k* bialduta eta *Aitzol-en* bilduman dagoanaren berdinña, batere aldaketarik gabea alegia. Baiña irugarren bertsoa falta du, eta aren tokian oar bat egiten du: "*Continúa en la misma forma mencionando varias prendas de vestir que no recuerdo*".

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell-ek ere argitaratu zuten Euloji Gorrotxategi-ren aldaera au, *Euzkadi egunkarian* bezela, beren *Euskal Baladak* bilduman, bigarren tomoan (Donostia, 1983), 49 orrialdean.

IV

Alostoria, bai, Alostoria,
Alostorreko zulubi luzia.
Alostorrian nenguanian
goruetan
belarantza
kua kua kua kua leioetan.

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Baladak / Antologia* (Bilbo, 1995), argibide auekin:

Iturria: Labayru Ikastegiko MZIM artxiboa. Lekukoa: Pakita Ugarte, 72 urte, Markinakoa. Biltzailea: Maitasun Aretxabaleta. Biltze-data: 1982'ko abendua"

Belarantza itzagatik oar au egiten du: "Bela-beltza izen-adjetiboen forma ilundua".

V

Al-daz to-rre-an nen go-a-ne-an i-rra go-ru e - tan, e-to-ri da-tan e-rooi za-tra

grau- e-tan 1. grau- e-tan. 2. E-rooi za-rra zer da-ka-zu al-bis-te?

A - la mar - ke - a gal - du da - la di - no - e. Gal - du - naz ba - da

a - la - ba di - txa ba - ge - a. An - txe ne ba - zan o - ge - ta bat len - gu - su ta

ne - be - a, a - rek bai - ño be - ar - rra - go - a ai - ta neu - re -

a. A - rek guz - ti - ak bai - no az - ka - rri - a - go

jau - be - a. Zer di - ño - na, ur - dan - ga lo - tsa ba - ge - a?

az - ke - nen - go e - san do - na yau - be - a? E - san be - ba - nan

36

le - nen-go - ta - tik yau - be - a, i - zan-go eba - nan.

39

Al - daz-to - rre - an par - te - a. Nik neu-re - a dot

42

goi - an da - go - an ka - xe - a, ta - pez ta - pe - rai - ño di - ruz be te di - ruz

47

1. 2.

be - te - a be - te - a I - mi - ne - a - gaz ne - ban u - rre

51

go - rri - a, a - ne - ge - a - gaz ne - ban u - rre zu - ri - a.

55

Mi - la du - kat ne - ban i - sil pol - tse - an a be - re ba - zan

59

a - la - ba _ on ba - ten do - te - a. Al - daz-to - rre - ak

62

a-te - ak di - tuz le - tu - ez, an - go pla - ter pi - txe - ru - ak zi - da - trez.

67

Yo - an a - la e - gon ein - got, a - ma neu - re - a? Yo - an,

72

yo - an, neu - re - a - la - ba mai - te - a. Aur - txo txi - ki - nak

75
sa - ba - le - an deust os - ti - ko, Yaun ze - ru - ko - ak al dau se - me - a
79 sor - tu - ko. Nai dan se - me nai dan a - la - ba. Al - daz - to - rre - an
83 1. 2.
par - te - a i - zan - go do - na. go do - na.

Erraiñak:

Aldaztorrean nengoanean irra goruetan,
etorri ddatan erroi zarra grauetan.
– Erroi zarra, zer dakazu albiste?

Erroi zarrak:

– Ala markea galdu dala dinoe.

Erraiñak:

- Galdu naz, bada, alaba ditxa bagea.
Antxe nebazan ogetabat lengusu ta nebea,
arek baiño bearragoa aita neurea.
Arek guztiak baiño azkarriago jaubea.

Amagiarrebak:

– Zer diñona, puerka lotsa bagea?
Azkenengo esan dona yaubea?
Esan b'ebanan lenengotatik yaubea,
izango ebanan Aldaztorrean partea.

Erraiñak:

– Nik neurea dot goian dagoan kaxea,
tapez taperaino diruz betea.
Imineagaz neban urre gorria,
anegeagaz neban urre zuria.
Mila dukat neban isil-poltsea,

a bere bazan alaba on baten dotea!
Aldaztorreak ateak dituz letuez,
ango plater pitxeruak zidarrez.
Yoanala egon eingo't, ama neurea?

Amagiarrebak:

– Yoan, yoan, neure alaba maitea.

Erraiñak:

– Aurtxo txikinak sabelean deust ostiko,
Yaun Zerukoak al dau semea sortuko!

Amagiarrebak:

– Nai dan seme, nai dan alaba,
Aldaztorrean partea izango dona.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco kantutegian*, 812 zenbakian, 932 orrialdean. Lekeitioko Gillerma Akarregiri jasoa.

Oar au egiten du Azkuek:

"Para mejor inteligencia del texto, advierta el lector:

1.- *Que Aldaztorre fue una casa armera situada a unos cuatrocientos metros de la muralla que rodeaba la villa de Lekeitio, en la cumbre de una cuesta. El folklorista ha conocido sus cimientos.*

2.- *Que los ventiún primos y hermano de la protagonista que tripulaban la marka (barca) tal vez no fuese número exagerado, pues se sabe que siglos atrás marineros había en nuestra costa que mandaban construir bergantines y quetchamarines que solían ser capitaneados por el dueño y tripulados con preferencia por varones de su familia y parientes".*

R. M. Azkue: *Euskalerriaren Yakintza*, IV, Madrid, 1971, 169 orialdean.

Kanta onen beste argitaraldi bat, berau ere Azkuerenetik artuta: Juan Gorostiaga: *Antología de Poesía Popular Vasca*, San Sebastián, 1955, 79 orrialdean.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak*, bigarren tomoan (Donostia, 1983), 44 orrialdean.

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendabaldeko Euskal Baladak / Antología* (Bilbao, 1995).

I

*En esta casa hermosa y sin ventanas
no he entrado en estos siete años;
y en el octavo,
para desdicha mía,
(he entrado) a la muerte de mi padre Beltrán.
Cuando mi señora madre
me parió,
se mataron mil gallinas
en el zaguán;
se corrieron siete toros
en la plaza.
(Mientras,) yo me estaba
entre plumas,
y mi señora madre
entre cortinas de oro.
Después, en todo Bidania
había uno loco y tonto:
mi señor padre
me lo ha dado por esposo,
pero no lo cambiaría
por otro mejor.
Mi señor padre
me dio a mí
como dote un celemín (de monedas);
también mi señora madre, en secreto,
su parte.
En la primera noche,
(tuve) los ojos y el corazón rendidos de sueño,
y lo mismo también en la segunda;
antes de que pasara la tercera,
bien que te alegraste, torre de Alós,
porque se anunciaba en mí un hijo.
Torre de Alós, sí, torre de Alós,
de la torre de Alós
la larga escalera!
Cuando en la torre de Alós
me hallaba hilando,
el negro cuervo graznaba
en las ventanas.*

*Me levanté y
le golpeé con la rueca de oro;
pero, al poco tiempo,
una mala noticia me estremeció.
El caballero le dijo: - Calla, calla,
madre (o dama) vil,
pues no es eso lo que
tú debes decir.
- Calla, calla, joven caballero
de infame sangre!
Menos era
lo que tú debías hacer.
(Mis) hermosas hermanas ahí están,
tan hermosas y elegantes,
con los delicados dedos
llenos de anillos,
sin que en los mantos tengan
un agujero,
y menos aún
llanto en el ojo.
También mi señora madre (madrastra)
rebosa de gozo.
Sólo mi corazón
destila amargura.
Cuando mi señor padre
se hallaba en Castilla,
nació con mucho secreto
un hijo en la torre de Alós;
y, así y todo, con más secreto aún
está en paz,
criándose en la parte de Zarautz,
para deshonra de nuestro linaje.
¡Oh negra amargura!"
¡Oh vergüenza mía!
La hija llora y
el padre yace bajo la fría tierra.
¿Quién te ha deshonrado a ti,
torre de Alós?
¡Ay padre mío querido,
padre querido!
Has hecho bien en morirte,
querido señor padre.*



Este cantar está tomado del libro Tradiciones Vasco-cántabras (Tolosa, 1866), de Juan V. Araquistain, que dice haber recogido de labios del pueblo esta leyenda. Ofreceremos de ella un resumen, para mejor comprensión de la balada o romance.

Beltrán López de Alós era el señor de la torre de Alós, donde vivía con su esposa e hija única, llamada Alos-Usua. Enviudó el padre y volvió a casarse. De su segunda esposa tuvo dos hijas.

El señor Beltrán se vio precisado a marchar a la guerra con los moros. Mientras él se hallaba lejos, su esposa se buscó un amante, un joven huérfano al que habían recogido de niño.

El señor Beltrán, al volver de la guerra, hizo que su hija Alos-Usua se casara con el mayorazgo de una casa de Bidania.

Beltrán percibía un ambiente raro en su casa. Intuía en ello un misterio, pero no podía descifrarlo.

Se fingió entonces muerto. A la noche siguiente, se juntaron los familiares a hacer la velada mortuoria; y, según costumbre de aquel tiempo, empezaron a cantar en verso las alabanzas del difunto. Alos-Usúa entonó el cantar que hemos ofrecido.

El joven que era amante de la esposa del señor Beltrán, cuando vio descubierta su villanía, se abalanzó para matar a Alos-Usúa. Pero Beltrán se levantó y mató él al traidor.

Dice Araquistain que las ruinas de la torre de Alós se conservaban aún en 1844; pero aquel año se edificó en ese solar una casa.

IV

*En esta casa grande, bella y galana
hace siete años que no entro.
En el octavo, para desgracia,
en las exequias de mi padre Ronen.*

*Habiendo en el pueblo un gran loco,
me padre me lo dio como marido.
Diciéndole que se vista la camisa,
mi loco, dirbi-danba, me ha zurrado.*

*Diciéndole que se lave las manos y la cara,
mi loco, dirbi-danba, me ha zurrado.
Diciéndole que se calce los zapatos,
mi loco, dirbi-danba, me ha zurrado.*

– Callate, hija de sucia madre;
cállate, señora desvergonzada.

– Cuando mi padre se hallaba en Valladolid,
dos gemelos nacieron secretamente en casa.
No fueron bautizados en la pila parroquial,
sino el uno en un caldero y el otro en un plato.

– Te basta por hoy, mi hija María,
te basta por hoy, mi amada hija;
antes era tuya la mitad de Bayona,
antes la mitad y ahora toda.

V

La nuera:

– Estando en la torre de Aldaz hilando,
se me presentó un cuervo graznando.
– Viejo cuervo, ¿qué noticias traes?

El viejo cuervo:

– Dicen que ha naufragado la barca.

La nuera:

– Pues entonces me he perdido, hija sin ventura.
Yo tenía en ella a ventiún primos y a mi hermano;
más necesario que ellos, a mi padre;
y, más imprescindible que todos ellos, al dueño.

La suegra:

¿Qué es lo que dices, puerca desvergonzada?
¿Nombras el último al dueño?
Si hubieras nombrado entre los primeros al dueño,
tendrías parte en la torre de Aldaz.

La nuera:

Mía es la caja que está arriba,
llena de dinero hasta la tapa.
Un celemín de rojo oro me correspondió,
y una fanega de plata.

*Mil ducados tenía en una bolsa secreta,
que era también la dote de una buena hija.
La torre de Aldaz tiene puertas de latón,
de plata los platos y vajilla.
¿Me iré o me quedaré, madre mía?*

La suegra:

– *Vete, vete, amada hija mía.*

La nuera:

– *Mi criatura me ha dado una patada en el vientre.
¡Quiera Dios que nazca un hijo!*

La suegra:

*Sea hijo o sea hija,
tendrá parte en la torre de Aldaz.*

"Gainkoak deizula egun on..."

I

- Gainkoak deizula egun hon, erregeren portal-zaina.
- Baita zuri ere, andere gazte ederra;
eta nongo zira horren andere gazte ederra?
- Ni niz Urtubiako alaba eta Donapetriko madama.
Erregeren portal-zaina, aditu baldin plazer baduzu,
erregeren mintzatzeko lizentzia indazu.
- Eta zuk nondik dakizu ni erregeren portal-zaina naizala?
- Irakurri dut zure mantoaren hegala.
Hor ikusi dut zazpi urte hontan erregeren portal-zaina zirela.
- Erregina jeloskor bat diguzu; hari parte emozu;
erregeri mintzatzeko lizentzia izanen duzu.
- Gainkoak deizula egun hon, erregina Frantziakoa.
- Baita zuri ere, andere gazte ederra;
eta zu nongo alaba zira, andere gazte ederra?
- Ni niz Urtubiako alaba eta Donapetriko madama.
Erregina Frantziakoa, otoi, aditu baldin plazer baduzu
erregiari mintzatzeko lizentzia indazu.
- Erregiari mintzatzeko lizentzia izanen duzu;
diskusa segur, epea labur emozu.
- Gainkoak deizula egun on, errege Frantziakoa,
nobletan pare gabekoa.
- Baita zuri ere, andere gazte ederra;
eta zu nongo zire horren andere gazte ederra?
- Ni niz Urtubiako alaba eta Donapetriko madama.
- Entzutia banuen bazela Urtubian alaba ederra:
bainan jakin banu zela horren ederra,
etzen izanen Frantziar besterik erregina.
- Jauna, otoi, indazu amaren bizia;
amaren biziarekin aitaren libertatia.
- Izanen duzu amaren bizia,

baita aitaren libertatia,
ematen badautazu nik dudan nahia;
zure bihotza eta zure lilia.

– Ene bihotza, jauna, ez da enia;
emadazu ama ta aitaren bizia;
gero menturazene lilia
izanen da zuria.

– Orai emanen dautan hik hire lilia,
bertzenaz hire aita-amek dikenen urkabia.

– Frantziako errege hola da mintzatzen!
Uzten ezpalinbanau oihu dut eginen,
bai ta horren hitzak erreginari salatzen.

– Habil, aita-amen bizia eztun hik izanen;
urkatiak dituken hik etzi ikusiren.

Urtubiako alaba, bihotza tristerik,
joan zan etxerat begiak bustirik,
portal-zainak ere agur handi eginik.

Etxera heldu denian
hasten da lanian,
opil bat ohaturik
ongi pozointaturik,
opila errerazirik,
gorrinkoz estalirik;
badoa gaztelura
ait-amen ikustera,
adio esatera.

– Gainkoak deizula egun hon, aita-ama maitia.

– Baita zuri ere, alaba karioa;
eta zuk zer berri ekar ait-amari?

Erregek zer esan du? Zer gira ari
gaztelu beltz hontan, katea azpietan?
Hemen gaude, alaba maitia, aspaldietan.
Hobe da, hobe, hiltzea,
eziz hemen egotea,
urkaturik ere izatea.

– Etzirrate urkatuak izanen,
ohorea dugu begiraturen,
eta zuek, gaixoak, bizia galduren.
Opil hontan da ziren hiltzea.
Hau da, hau, tristezia handia!
Etzi aldiz urkabiak
igurikatzen tu ene ait-amak!

Barka, otoi, ama maitia,
barka zuk ere, aita maitia:
zuen ganik dutene bizia,
ni ganik duzu zure hiltzia!

Parisko Liburutegi Nazionalean, eskuz idatzita, *Nouvelles acquisitions* sotan, 3342 zenbakian.

Bertsoen atzetik onako izen-abizen auek irakurtzen dira: *Eugène Garay de Monglave*. Baita beste txeetasun auek ere: *Paris, le 18 Décembre 1852, 41 rue Cassette*.

Garay de Monglave dalako ori izan zan Altabizkarko kantua frantzesez moldatu zuana. Ezpeletako Luis Duhalderi euskeratu arazi eta antziñakoa balitz bezela argitaratu zuana. Sinistu ere bai jendeak urte-mordo batean, aren as-makizun bat zala ikusi zan artean. Orregatik, bein gezurretan ibili izanak kolokan jartzen du bigarren kantu onen sinisgarritasuna. Zalantzangelditzen gera, alegia, kanta au ere beraren burutik sortua izango ote dan.

Bereitzasun bat badu, izan ere, kanta onek. Liburu ontako kanta zaar guziak. Alostorrekoaren aldaera bat-edo izan ezik, neurriaren legea betetzen dutela moldatuak dira. Onek, berriz, neurri libreategi egiña da.

Dana dala, esku-idazkiak beste adierazpen luze au ere egiten du:

"Ce récit, si tragique et si lugubre à la fois, a été recueilli par moi, il y a plus de vingt ans sous le dictée de Mademoiselle d'Aphal, alors octogénaire. Elle le tenait de ses ancêtres.

La tradition fait remonter ce drama à une époque fort reculée et le clarge parmi les plus vieilles histoires du Pays Basque.

Mais quel est ce roi de France au cœur dur et disfolu?

Est-ce Charles VII qui, en 1442, parfa dans la Gascogne et s'empara de la ville de Dax?

Est-ce Louis XI qui, au dos de Mezeray, eut une entrevue avec Henry IV de Castille au château de Urtubie en 1462?

Le Français s'indignait, dit Mezeray, de l'arrogance Castillane et du faste du Comte du Lodème, favori d'Henry. Mais il est vrai que ce roi déferant, comme il devait, à la Majesté de la France, parfa non seulement la rivière de Bidassoa qui sépare les deux Royaumes pour venir trouver le roi, mais entra deux lieux avant dans ses terres et vint jusqu'au château d'Urtubie où ils confererent ensemble".

I

- Que Dios os dé buen día, portero del rey.
– También a vos, joven y hermosa señora;
y ¿de dónde sois, joven y hermosa señora?
– Yo soy hija de Urtubia y señora de Donapetri.
Portero del rey, si tenéis el gusto de escucharme,
concededme licencia para hablar con el rey.
– Y vos ¿de dónde sabéis que yo soy el portero del rey?
– Lo he leído en la orla de vuestro manto.
Ahí he visto que en estos siete años sois el portero del rey.
– Tenemos una reina celosa. Comunicádselo a ella.
Tendréis licencia para hablar con el rey.
– Que Dios os dé buen día, reina de Francia.
– También a vos, joven y hermosa señora.
Y vos ¿de dónde sois, joven y hermosa señora?
– Yo soy hija de Urtubia y señora de Donapetri.
Reina de Francia, por favor, si tenéis el gusto de escucharme,
dadme licencia para hablar con el rey.
– Tendréis licencia para hablar con el rey:
dirigidle un discurso preciso y breve.
– Que Dios os dé buen día, rey de Francia,
sin igual entre los nobles.
– También a ti, joven y hermosa señora;
y tú ¿de dónde eres tú, dama tan joven y hermosa?
– Yo soy hija de Urtubia y señora de Donapetri.
– Había oído que en Urtubia había una hermosa hija;
pero si hubiera sabido que era tan bella,
ninguna otra hubiera sido reina de Francia.
– Señor, por favor, concededme la vida de mi madre;
y con la vida de mi madre, la libertad de mi padre.
– Tendréis la vida de vuestra madre,
y también la libertad de vuestro padre,
si me concedéis lo que yo deseo:
vuestro corazón y vuestra flor.
– Mi corazón, señor, no es mío.
Concededme la vida de mi padre y de mi madre.
Después, a lo mejor, mi flor será vuestra.
– Me darás ahora tu flor;
si no, tu padre y tu madre irán al cadalso.
– ¡Así habla el rey de Francia!

*Si no me deja, gritaré;
y estas palabras se las delataré a la reina.
- Vete. No tendrás la vida de tus padres;
pasado mañana los verás ahorcados.*
*La hija de Urtubia, con el corazón apenado.
se fue a casa con los ojos mojados,
habiéndole hecho el portero un gran adiós.*
*Cuando llega a casa
empieza a trabajar
amasando un pan
bien lleno de veneno;
haciendo cocer el bollo,
cubierto de yema de huevo.*
*Va al castillo
a ver a sus padres,
a decirles adiós.*
- Que Dios os dé buen día, padres queridos.
- También a ti, amada hija.
Y tú ¿qué noticias traes para tus padres?
¿Qué ha dicho el rey? ¿Qué hacemos
en este negro castillo bajo cadenas?
Aquí yacemos, amada hija, hace tiempo.
Mejor es, mejor, morir
que no estar aquí:
o incluso ser ahorcado.
- No seréis ahorcados.
Guardaremos nuestro honor,
y vosotros, desgraciados, perderéis la vida.
En este bollo está vuestra muerte.
¡Qué gran tristeza es ésta!
Pasado mañana, en cambio, el cadalso
espera a mis padres.
Perdona, por favor, madre querida;
perdona también tú, padre querido:
de vosotros he recibido yo la vida,
de mí recibís vosotros la muerte.

“Goizian goizik jeiki nündüzün...”

I

Goi - zi - an goi - zik jei - ki nün du - zün es - pu - sa nin - tzan
gói - zí - an; bai e - ta ze - taz e - re bez - ti - tü
e - khi - a jei - khi ze - ni - an, e - txe - k`an - de - re
za - bal nün - dü - zün e - gu - er - di er - di - tan; bai e - ta
al - har - güntsa - gaz - te e - khi - a sar - thü ze - ni - an.

- Goizian goizik jeiki nündüzün espusa nintzan goizian,
bai eta zetaz ere beztitü ekia jelki zenian;
etxek'andere zabal nündüzün egüerdi erditan,
bai eta ere alargüntsa gazte ekia sartü zenian.

- Musde Irigarai, ene jaona, altxa izadazüt büría;
ala dolütü ote zaizü eneki espusatzia?
- Ez, ez, etzitadazü dolütü zureki espusatzia,
ez eta ere dolütüren bizi nizano lürrian.

Nik banizün maitetto bat mündü ororen ixilik,
mündü ororen ixilik eta Jainko Jaonari ageririk;
buket bat igorri ditadazüt lili arraroz eginik,
lili arraroz eginik eta erdia pozuatürik.

- Zazpi urtez etxeki dizüt gizon hila kanberan;
egünaz lür hotzian eta gaiaz bi besuen artian.
Zitru urez üküzten nizün astian egün batian,
astian egün batian eta ostirale goizian.

J. D. J. Sallaberry: *Chants populaires du Pays Basque, Bayonne, 1870* liburuau, 130 orrialdean.

Kanta au sarritan argitaratu da; eta beti, edo geienetan beintzat, Sallaberry-ren liburutik artuta. Ona argitalpen batzuk:

Eskualdun Kantuak kantutegia, Buenos Aires, 1904.

Gure Herria aldizkaria, 1927.

Kantuz kantutegia, 9, rue Thiers, Bayonne.

Kantuz kantutegia, Editions "Eskual-herria", Bayonne.

Mariya kantutegia, Imprimerie M. Mendiburu, Bordeaux.

Charamela kantutegia, Imprimerie Darracq, Bayonne, 1951.

Kantu kanta kantore kantutegia, Baionan, 1967, Kordelieren irarkolan.

J. Lakarra, K. Biguri. B. Urgell: *Euskal Baladak*, bigarren tomoan, Donostia, 1983, 79 orrialdean.

* * *

Jean de Jaurgain-ek, bere *Quelques légendes poétiques du Pays de Soule* idazlanean -*La tradition au Pays Basque, Paris 1899* liburuan agertu zan-, kanta au ere eskeintzen digu.

Baiña aldaketa auek ditu: 1/1: ezkundu nintzan goizian; 1/2: bai eta ere zetaz beztitu...; 2/2: ala dolutzen ote zaitzu enekila espusatzia; 2/3: ez, ez, etzitadazu dolutzen zuren espusatzia; 2/4: bizi nizano, maitia.

Jaurgain jaunaren iritzirako, kanta ontan agertzen dan andrea Gabrielle de Loitegi da, Bernard de Loitegiren alaba. Bernard au, Zaro, Aintzile, Ipartze eta

Larzabaleko nagusia zan. Musde Irigarai ori, berriz, Irigarai, Altzai eta Mendikotako nagusia zan. Pierre Irigarai, izen-abizenak. Pierre eta Gabrielle auek 1633-ko uztailaren 8-an ezkondu ziran.

Jaurgain-ek, kanta ontan azaltzen diran senar-emazteak Pierre eta Gabrielle oiek dirala esateko, 1635-eko garagarrillaren 9-ko agiri edo idazki batean arkitzen du oiñarri. Agiri ortan esaten danez, Gabrielle orren aitak, Bernard de Loitegi dalako orrek alegia, 1633-ko uztailaren 8-an pagatu zuan dotearen partea, Irigarai, Altzai eta Mendikotako nagusiei eskatzen die; korrituak eta guzi eskatu ere. Korrituak, ordea, egun beretik kontatu bearrekoak dira.

Pierre de Irigarai dalako ori, ezkondu zan egun berean il zala ateratzen du ortik Jaurgain-ek.

Gabrielle, berriz, amabost urte alargun bizi ondoren, 1648-an berriro ezkondu omen zan. Senargaia, Henry d'Ahetze, Ordiñarbe, Ahetze eta Muskuld-Erbisko nagusia zan.

Ezkontza ontatik iru seme-alaba jaio omen ziran: Jean, 1649-an; Martine, 1651-n; eta Catherine, 1652-an.

Gabrielle, Ahetzeko jauregi ortan il omen zan, laroiei ta sei urterekin.

Juan Gorostiaga: *Antología de Poesía Popular Vasca, San Sebastián*, 1955, 73 orrialdean. Onek Jaurgain jaunari kopiatzen dio.

* * *

Kanta oni buruzko beste azterketa: Luis M. Mujika: *Euskal lirika tradicionala (II)*, Donostia 1985), 267 orrialdean.

* * *

Juan Karlos Guerra jauna zanak, bere *Los Cantares antiguos del Euskera* liburuan (Donostia, 1924), 133 orrialdean, bertso auek Jaurgain-ek dituan bezela azaltzen ditu, jaun onek ematen dizkigun argibideen laburpena egilñez.

Ondoren, kanta zaar onek Kataluniako beste batekin zer ikusirik baduala esaten digu:

“La tercera estrofa da al episodio un rasgo novelesco y la cuarta le transforma en legendario. Es interesante este último aspecto del cantar, que le relaciona con el Romancero. Entre los romances castellanos tradicionales en Cataluña, se encuentra uno que indudablemente hace alusión a la misma leyenda. Está salpicado de voces catalanas, lo que indica ya un antiguo arraigo en aquella tierra y le da un tinte local....”

La guardadora de un muerto

Siete años que lo tinch muerto
y tancat dins da ma chambra.
Yo li mudo la camisa
todas las festas del año,
yo li n'rentaba su rostro
con rosas y vino blanco...

II

The musical score consists of six staves of music in 2/4 time, treble clef, and a key signature of two flats. The lyrics are written below each staff, corresponding to the musical notes. Measure numbers 1 through 10 are indicated above the staves.

1. Goi-zi-an goi - zik jei-ki nin-du-zun e - ki - a jel - ki ze - ni -

2. an, bai e - ta ze - taz bez - ti - tu

3. es - pus - nin - tzan goi - zi - an.

4. E - txe - an - dre - za - bal nin - du - zun e - guer -

5. di - ren gai - ni - an, bai

6. — e - ta gaz - te, a - lar - gun - tsa - gaz - te, a - lar -

7. guntsa - gaz - te, e - ki - a sar - tu ze - ni - an.

Goizman goizik jeiki ninduzun
ekia jelki zenian,
bai eta zetaz beztitu
espus nitzan goizian.
Etxe andre zabal ninduzun
eguerdiren gainian,
baita gazte, alarguntsa gazte,
ekia sartu zenian.

Zazpi urtez atxiki nuien
senarra hillik kanberan,
egunaz kofre batian eta
gauaz besuen artean.
Bainan dolatu izan zauzu
eneki espusatzia?
Apal, apal, apal burua,
Irrunberriko maitena.

Mme, de Villéhélio; *Souvenir des Pyrénées*. Ondoren, onako oar au egiten du;

"Je ne donne que le premier et le dernier Couplet de cette étrange et très ancienne chanson, qui est le récit d'un évènement vrai ou faux, je n'ai pu malgré un an de recherches m'en procurer que quelques fragments d'après lesquels j'ai compris qu'un d'Irrumberry mourut empisonné le jour de ses noces; une maîtresse abandonné lui fit remettre un bouquet dont le parfum le tua. Il est probable qu'une partie de ce récit doit être vrai, car les évènements de ce genre sont, même actuellement, presque toujours mis en complainte".

III

Goi-ze-an goi- zik yei - kinin - du-zun e - maz-te - nin-tzen

goi - ze - an, bai e - ta e - re se - - daz bez -

ti - tu i - guz - ki - a ate - ra - tze - an.

E - txe-koan - de - re aun - di nin - du-zun e - guer-di -



Goizean goizik ieiki ninduzun
espos nintzen goizean,
bai eta ere sedaz beztitu
iguzkia ateratzean.

Etxeko andre haundi ninduzun
eguberdiren gaiñean,
bai eta ere alargun gazte
iguzkiaren sartzean.

Senar illa atxiki nuen
zazpi urtez etxean,
egunaz lasto pixka batean,
gabaz bi beso artean.

Laranya-urez garbitzen nuen
astean egun batean,
astean egun batean eta
ortzirale goizean.

Azkubiako baratze. . . .
usaiñ onikan badute,
buketa heien usaindatzean
iltzea gogoan ahal dagoke.

Euskalzale aldizkarian, 1897, Agorrilan 26-an, aurretik adierazpen auek dituala:

"Lapurdi ta Zuberoa ta Beeko Naparroan eresi edo musika zaar asko dagoz: euretatik geienak dira goibel edo tristeak. Bizkai ta Gipuzkoako eresi zaarrak aren aldean alai edo alegreak edo bizkorragoak dira.

Zaar-antz geiago dauke lenengoak.

Guk emen darakuskuzan koblak edo eresia, irurogei urte-inguruko emakuma argi baten aotik entzun doguz",

Alboan, bertso auek berak bizkaieraz eskeintzen ditu aldizkari orrek.

Bertsoen atzetik, berriz, beste oar auek:

"Beste kobla batzuk bere baeidira. Azkubia da Donibane-Lohitzun edo *San Juan de Luz*-tik urreko basetxe bat, Azkain deritxon baserri politekoa.

Atzenengo kobla onek lenengo neurtitzean zer edo zer bear dabela esan leike.

Gure irakurleak *h-ri* iguin andia izanarren, iakin beie Bidasoatik arantz *h-k* berarizko aots edo soiñua daukala, erderazko *j-ren* antzekoa, askozaz bigunagoa bada bere”.

Kanta au jaso eta lerro auek nork idatzi ote zituan? *Euskalzale* aldizkariak ez du ori esaten. Baiña Azkue dala nik beintzat ez nuke dudarik egingo.

Aldaera au bera, izan ere, bere *Cancionero popular vasco* kantutegian ere agertu zuan Azkuek, 406 zenbakian, 505 orrialdean, argibide auekin:

“Lo aprendí en San Juan de Luz, en 1895, de María X., natural de Hasparren.

*Esta lindísima canción fue por primera vez publicada en la revista Euskalza-
le, de Bilbao, tomo I, pág. 275; luego en la Tradition au pays basque, página
309. La parte de la melodía comprendida en las palabras etxeko andere haundi
ninduzun eguerdiaren gainean es de una asilada de Hasparren, que también fi-
gura en la Tradition”.*

Eta ondoren:

*“Jaurgain, diligente escudriñador de leyendas y tradiciones de aquella co-
marca, asienta que la heroína de esta precoz y trágica viudez fue hija del noble
suletino Bernard de Loitegui. Según mi cantora, ocurrió el suceso en Azkubia, ca-
sa noble del lindo pueblo labortano Azkain, como parece dar a entender esta es-
trofa suya: Azkubiako baratze...”.*

Euskalzale aldizkarian bostgarren agertzen dan laukoa, alegría.

Doiñua, Azkueren *Cancionero popular vasco* kantutegitik kopiatu degu.

Aldaera au bere *Euskalerriaren Yakintza-n* ere argitaratu zuan Azkuek, lau-
garren tomoan, doiñurik gabe ordea.

IV

- Goizian goizik jaiki ninduzun esposa nintzan goizian,
bai eta ere zetaz beztitu iguzkia ateratzian.
Etxek'andere handi ninduzun eguerdi gainian,
alargun gazte gelditu nintzen iguzkia sartu zenian.

- Musde Hirigaray, ene jauna, altxa dautazu buria,
ala dolutu ote zuzu enekin esposatzia?
- Ez, ez, etzizautazu dolutu zurekin esposatzia,
ez eta ere doluturen bizi nizeno munduian.

Nik banizun maiteño bat grazia ederrez beterik,
mundu ororen ixilik eta Jinko Jaonari jakinik;
buket eder bat igorri zautan, lili arraroz eginik,
lili arraroz eginik eta barnean pozoaturik.

- Zazpi urtez atxiki dizut senarra hila etxian,
egunaz arrosa pian eta gauaz bi besoen artian,
zitroin urez berekatuz astian egun batian,
astian egun batian eta ortzirale goizian.

Charles Bordes: *La Musique Populaire des Basques* idazlana, *La Tradition au Pays Basque* liburuan (Baiona, 1899) argitaratua, 309 orrialdean.

Doiñua ere badu, baiña Sallaberry-ri kopiatua.

V

The musical score consists of four staves of music. The first staff starts with a treble clef, a key signature of one sharp, and a 2/4 time signature. It contains the lyrics "Goi-ze-an goi-zik". The second staff continues with a treble clef, one sharp, and 2/4 time, ending with a 3/4 time signature. It contains the lyrics "yey - kinin - du-zun e - maz-te - nin-tzen". The third staff begins with a treble clef, one sharp, and 3/4 time, followed by a 2/4 time signature. It contains the lyrics "goy - ze - an, bai e - ta e - re se - daz bez -". The fourth staff starts with a treble clef, one sharp, and 3/4 time, followed by a 2/4 time signature. It contains the lyrics "ti - tu i - guz - ki - a ate - ra - tze - an.". The fifth staff continues with a treble clef, one sharp, and 3/4 time, followed by a 2/4 time signature. It contains the lyrics "E - txe-koan - de - re aun - di nin - du-zun e - guer- di -". The music includes various dynamics like forte and piano, and articulations like accents and slurs.

Goizean goizik yeiki ninduzun
oi espus nintzen goizean,
bai eta ere sedaz beztitu
iruzkia ateratzean.

Etxeko andre audi yarri nintzen
eguberdiaren gainean,
alargun gazte ni yarria nengoen
iruzkia sartu zenean.

Senar hila atxiki nuen
nik zazpi urtez etxean,
egunaz lasto-piska batean,
gabaz bi beso artean.

Laranja-urez garbitzen nuen
astean egun batean,
astean egun batean eta
oi! ortzirale-goizean.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco*, 406 zenbakaren bigarren doiñua,
507 orrialdean, Baztanen, Bozateko Graziosa Eleujarenaren aotik jasota.

VI

Bart amarretan dontzella nintzan,
amaiketako senarra,
gaubeko amabi santuetako
gelditu nintzan bakarra.

Sentimentua, sentimentua,
andiagoa penea,
ordu beteko senarragaitik
alargun izan bearra.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco*, 389 zenbakian, 486 orrialdean, Ara-maion, Olaetako Engrazia Lazkanori jasoa.

Baita ere, doiñurik gabe, *Euskalerriaren Yakintza-n*, laugarren tomoan.

Bostgarren eta seigarren lerroak beste onela idazten ditu Azkuek: "atsekabea, atsekabea, andiago naigabea". Baiña emalearen aotik guk or goien ezarri degun bezela jaso zizkiola aitortzen du.

Edozein moduz, seigarren lerro ortan oso itxusi ematen du punturako *penea* itz orrek. Ez al da *negarra* izango?

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Bal-dak / Antología*, (Bilbo, 1995), 27 orrialdean. Auek onela idazten dute azken le-rroa: alargun gelditurea.

VII

Bart amarretan dontzella nintzan,
amabietan ezkondu,
ordu bi santu goxekuetan
gelditu nintzan alargun,
ordu bi santu goxekuetan
gelditu nintzan alargun.

Auxe da pena eta tristura,
gañera pesadunbria,
ordu bateko senarragatik
alargun gelditutia,
ordu bateko senarragatik
alargun gelditutia.

Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduma, Bilboko Manuel Ziar-solo Abeletxe zanak Ermuan bildu eta 1936 urtean bialdua.

VIII

The musical score consists of five staves of music. The lyrics are written below each staff:

Goi- zi-an goi- zik jei - ki nin - du - zun ar - gi - a ha - si ze - ne -
 ko, es - pos a - rro - pez bez - ti - tu e - re e - gu -
 er - di i - ri - ko. Bai e - ta e - re a - lar-gun
 gaz - te i - lun na - ba - rra or - du - ko, bai e - ta
 e - re a - lar-gun gaz - te i - lun-na - ba - rra or - du - ko.

Goizian goizik jeiki ninduzun
 argia hasi zeneko,
 esplos-arropez beztitu ere
 eguerdi iriko;
 bai eta ere alargun gazte
 ilun-abarra orduko,
 bai eta ere alargun gazte
 ilun-abarra orduko.

Rodney Gallop: *Collectanea Vasca: VI, Quelques airs de Sallaberry notés au nouveau. Gure Herria aldizkaria, 1931, 352 orrialdean.*

Bertso orren azpian oar au egiten du: "...variante de Goizian goizik (cf. p. 95 de Sallaberry) que j'ai copiée à Mme. Jeanne Darruzpe d'Ascaïn".

IX

Espusa dolorusa

Goizian goizik jeiki nindutzun
espusa nintzan goizian,
bai eta ere zetaz beztitu
ekia jeiki zenian.
Etxekandere zabal nindutzun
eguerdi erditan,
bai eta alarguntsa gazte
ekia sartu zenian.

- Musde Irigarai gaztia,
eraik ezazu buria;
ala aments dolutu zaizu
eneki espusatzia.
- Ez; etzitadazut dolutu
zureki espusatzia,
ez eta ere doluturen
bizi nizano, maitia.

Bena banian maitetto bat
mundu ororen ixilik,
mundu ororen ixilik eta
Jinkuaren ageri.
Harek eni egin buketto bat
lili arraroz eginiak,
lili arraroz eginiak eta
erdia pozuaturik.

- Zazpi urtez eduki nian
senarra hilik kanberan,
egunaz lur pian eta gaiaz
bi besuen artian.
Zitru urian ukuzten nian
astean egun batian,
astean egun batian eta
ostirale goizian.

Uztaritzeko Luis Dassance jauna zanaren bildumatik, eskuz idatzitako orri batetik. Izenburuaren ondoan onela dio: (*Etchaoun*). Ez dakigu zer esan naiko duan. Bearbada, Dassance jaunak Etxahun-Iruri zanaren aotik jasoa zuala.

X

Bart amarretan dontzeilla nintzan,
amaiketakoz ezkondu,
amabi santu gabekuetan
gelditu nintzan alargun.
Aii!, zelako sentimentua,
ai!, zer pena biotzean,
amabi santu gabekuetan
alargun gelditutzean.

Juan San Martin: "Bart amarretan" eta "Goizian goizik" kanta zaharrak, Ze-ruko Argia astekarian, 1973-VIII-19 eta 26. Kanta au Eibarren jaso omen zuan.

XI

Bart amarretan dontzella nintzan,
amaiketako senartu,
ordubirako senarragaitik
alargun nintzan gelditu.

Goiko Jaun onak emon baleusta
zeru altuko giltxa bi,
aizken orduan jakingo neban
zeñi atia eregi.

Gorka Knör: *Arabako kanta zaharretaz ohar batzuk*, Zeruko Argia aldizkaria, 1974-VIII-4 eta 11. Kanta au nundik eta nola bildu zuan esateko, argibide auek ematen ditu:

“Duela illabete bat edo, anaia bat eta lagun baten bidez jasotako berria azalduko dizuet lehenengo. 1961 eta 1962 urteetan. Echebarria Bravo izeneko musikologo bat (*Academia de Artes de San Fernando* delakoaren kidea bera) Araban barrena ibili zen kantuak eta biltzen. Guztira jota, erderazkoak zein euskerazkoak, 725 bat bildu zituen. Euskerazkoak 31 bat. Baiñan 1962 urteko sortan sartu zituenak, arestian aitatu dugun Uruñuelaren itzalditik aldatu zituen. Halaz ere, Echebarria Bravok bildutako kantu artean badira kanta batzuk, guretzako oraiño ezezagun zirenak. Bestaldetik Echebarria Bravoren kantutegi hortan dantza-kantu mordo bat badago; guztira jota, 50 bat, eta, horien artean, batzuk abestuak, euskeraz.

Lan egin beharko dut Echebarria Bravoren lana aztertzen. Bainan zilegi bekit Echebarria Bravoren bildutako kanta baten itzak hona aldatzea: “Bart amarretan” du izena kanta horrek. Nik aspaldian abesten dudan kantua, bestalde; baiñan desberdiña, bai itzen, bai musikaren aldetik ere. Bigarren ahalaldiak “Salamankara” kanta ezaguna gogoratuko digu”.

XII

– Goizian goiz jaiki ninduzun
ni espes nintzen goizian,
bai eta ere sedaz beztitu
iguzkia jali aintzinean.

Espes berri egin ninduzun
oi eguerdi gaineko,
bai eta ere alargun gazte
iguzkia sartu deneko.

– Ene esposo Musiu Etxegarai,
altxa zazu buruia;
ala urrukita zaitzu
enekin espusatzia.

– Nik banuien maiteño bat
jende guzien ixilik,
nik eta bertzek baizik
nihork jakin gaberik.

Buket eder bat igorri izan daut
lili ederrezz eginik,
hari usai egin diot eta
harek nerama mundutik.

– Zazpi urtez atxiki izan dut
senarra hila kanberan,
egunaz luraren gainean eta
gauaz bi besuan artean.

Zitroin urez fretatzen nuen
astian egun batian,
astian egun batian eta
oi ortzirala goizian.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1983), bigarren tomoan, 85 orrialdean, argibide onekin: "Donostiak bildutako aldaera; ez du leku ez berriemaile xehetasunik eta Lekarozko konbentuan gordetzen da". Esan bearrik ez dago, *Donostia* dalako ori aita Jose Antonio Donostia zana dala.

XIII

Bart a - ma - rre - tan ez - kon - gai nin - tzan a - ma - bi - e - tan ez - kon -
du or - du bi san - tu goi - ze - ku - e - tan gel - di - tu nin - tzan a - lar - gun.

Bart amarretan ezkongai nintzan
amabietan ezkondu,
ordu bi santu goizekuetan
gelditu nintzan alargun.

Auxen da pena eta tristura,
pesadunbria ganera,
ordubeteko senarragaiti(k)
alargun gelditutzia.

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Baladak / Antología* (Bilbo, 1995), 28 orrialdean, argibide auekin:

"Iturria: Labayru Ikastegiko MZIM artxiboa. Lekukoa: Rosario Onaindia, 78 urte, Markinakoa. Biltzaileak: Ibone Azpiri, Izaskun Biteri eta Irune Erkiaga. Biltze-data: 1984ean".

XIV

A- ma - bi - e- tan se- nar- gei nin-tzan, or- du ba - te-tan ez-kon-du, goi-ze-
 ko or- du bi san-tu-e-tan a-lar - gun nin-tzan gel-di-tu. Nauk ar- tunauen sentimentua, naukar-
 tu nau-en lo-tsi-a... Or-du be- te-ko se-na-fra-gai-tik a-lar - gun gel-di - tu- tzi- a.

Bart amarretan ezkongai nintzan,
 ordu batetan ezkondu,
 goizeko ordu bi santuetan
 alargun nintzan gelditu.

Jaun zerukuak emongo balust
 zeru altuko giltzia,
 orduan nik be jakingo neuke
 nori zabaldu atia.

Nauk artu nauen sentimentua,
 nauk artu nauen lotsia...
 Ordubeteko senarragaitik
 alargun gelditutzia.

Neure aiteri, neure amari,
 neure anai-arrebari,
 eta gaineko sekretotxo bat
 neure kutun maiteari.

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Bala-dak / Antologia* (Bilbo, 1995), 28 orrialdean, argibide auekin:

“Iturria: Labayru Ikastegiko MZIM artxiboa. Lekukoa: Eduarda Bilbao, 70 urte, Diman jaio eta Arantzazun bizi. Biltzailea: Ziortza Intxaurreaga. Biltze-data: 1986ko ekainean”.

Irugarren eta laugarren bertsoak amodio-kanta ezagun batenak dira.

xv

The musical score consists of six staves of music in 2/4 time, treble clef, and G major. The lyrics are in Spanish and Mayan, with some words in parentheses. The lyrics are as follows:

 Goi - zi - an goi - zik jei - ki nün - dü - zün, es - pu - sa nin - tzan

 goi - zi - an. Bai e - ta e - re ze - taz bez - ti - tü

 e - kхи - a jel - kхи ze - ni - an. E - txek' an - de - re za -

 bal nün - dü - zün e - gü - er - di hel - tzi - an;

 bai e - ta e - re al - har - gün - tsa gaz - te

 e - kхи - a - ren i - tzal - tzi - an.

Goizian gozik jeiki nündüzün,
espusa nintzan goizian.
Bai eta ere zetaz beztitü
ekia jelki zenian.
Etxek'andere zabal nündüzün
egüerdi heltzian;
bai eta ere alargüntsa gazte
ekiaren itzaltzian.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 518 zenbakian, 721 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.; François Piérou, el joven. Loc. rec.; Liginaga. Fecha: 18 de octubre de 1927. Clas.: narrativa.

Ref. Ofrecemos a continuación la versión laburdina (literaria) que le comunicó Manexon Laborde en Sara, el 12 de Octubre de 1935, con tres estrofas (falta la tercera de Sallaberry). La comunicante reduce a tres las cuatro estrofas, de todas conocidas, de la leyenda (V. Sallaberry, p. 131), fundiendo en una la 2^a y la 3^a, en las cuales está la clave del trágico suceso, el engañoso ramo de flores empotroñado: terrible venganza de los celos".

Goizean gozik jeiki nitzen,
oil!, espos nintzen goizian,
bai eta ere sedaz beztitu
iduzki atera artian.
Etxeko andere handi ninduzun
eguerdiren gainean:
bai eta ere alargun gazte
iduzkia sartu zenian.

– Ene esposa, moziu Etxegaray.
altxa zazu buru hori;
ala nerekin esposatziaz
zaut urrikiturik?
Buketaño batigorri deraut
lili xuriz eginik:
Hari usain egin dut eta
harek nerama mundutik.

Zazpi urtez iduki dut
esposa hila etxian,
egunaz kutxa barnan eta
gauaz bi besoen artean.
Zitroin urez gantzuten nuen
astian egun batean,
astian egun batean eta
hoi ortzirale goizean.

XVI

Goi - zi - an goi - zik jei - ki nün - dü - zün, es - pu - sa nin - tzan

goi - zi - an. Bai e - ta e - re ze - taz bez - ti - tü

e - khi - a jel - khi ze - ni - an. E - txek' an - de - re za -

bal nün - dü - zün e - gü - er - di er - di - an;
 bai e - ta e - re al - har - gün - tsa gaz - te
 e - khi - a - ren i - tzal - tzi - an.

Goizian goizik jeiki nündüzün
 espusa nintzan goizian,
 bai eta ere zetaz beztitü
 ekia jelki zenian.
 Etxek'andere zabal nündüzün
 eguerdi erdian,
 bai eta ere alargüntsa gazte
 ekiaren itzaltzian.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 518 zenbakian, 723 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: François Piérou, el joven. Loc. rec.: Atharratze. Fecha: 18 de setiembre de 1927. Clas.: narrativa".

XVII

Goi - zi - an goi - zik jei - ki nin - du - zun, oi, es - pos nin - tzan
 goi - zi - an. Bai e - ta e - re ze - taz bez - ti - tu
 i - guz - ki - a ia - li ze - ni - an. E - txek' an - de - re

han - di nin - du - zun e - gu - er - di er - di - tan;
 bai e - ta e - re al - har - gun - tsa gaz - te
 il - hun - zei - nu - a joi - ti - an.

Goizian gozik jeiki ninduzun,
 oi, espos nintzan goizian,
 bai eta ere zetaz beztitu
 iguzkia jali zenian,
 Etxek'andere handi ninduzun
 eguerdi erditan,
 bai eta ere alarguntsa gazte
 ilun zeinua joitian.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 518 zentbakian, 724 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: Mme. Espil. Loc. rec.: Hazparne. Fecha: 1 de setiembre de 1922. Clas.: narrativa".

XVIII

Goi - zi - an goiz - jai - ki nin - du - zun oi, es - pos nin - tzen
 goi - zi - an. Bai e - ta e - re se - daz bez - ti - tu

i - guz - ki - a ja - li_ain - tzi - ni - an. Es - pos be - rri
 e - gin nin - du - zun oi, e - gu - er - di gai - ne - ko,
 bai e - ta e - re a - lar - gun gaz - te
 i - guz - ki - a sar - tu de - ne - ko.

Goizian goiz jaiki ninduzun,
 oi, espos nintzen goizian.
 Bai eta ere sedaz beztitu,
 iguzkia jali aintzinian.
 Espos berri egin ninduzun,
 oi, eguerdi gaineko,
 baita eta ere alargun gazte
 iguzkia sartu deneko.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 518 zenbakian, 725 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: Philippe Laffitte, 76 años. Loc. rec.: Uztaritz. Fecha: 13 de setiembre de 1949. Clas.: narrativa".

XIX

Goi - zi - an goi - zik jai - ki nin - du - zun, ar - gi - a hu - rren
 ze - ne - ko. Bai e - ta e - re se - daz jaun - tzi,

E - li - za - ra juai - te - ko. E - txe - ko - an - dre
e - gin nin - du - zun e - gu - er - di - ren ga - ñe - ko;
bai e - ta e - re a - lar - gun gaz - te
i - guz - ki - a sar - tu ze - ne - ko.

Goizian gozik jaiki ninduzun,
argia hurren zeneko.

Bai eta ere sedaz jauntzi
elizara juaiteko.

Etxeko-andre egin ninduzun
eguerdiren gañeko,
bai eta ere alargun gazte
iguzkia sartu zeneko.

Zazpi urtez atxiki dut
senar hillala etxian:
egunaz arrosa-pian eta
gauaz bi besoen artian.
Zidroin urez frotatzen nuen
astian egun batian;
astian egun batian eta
larunbate guzian.

P. Donostia: *Cancionero popular vasco, II*, Donostia, 1994, 518 zenbakian,
726 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: Agustina Lakarra, del caserío "Putxuko". Loc. rec.: Azkaine. Fecha: 2 de agosto de 1940. Clas.: narrativa".

XX



A musical score for section XX. The music is in 2/4 time, G major. It consists of three staves of music with lyrics underneath. The lyrics are in Spanish and Basque.

Goi - ze - an goiz jei-ki nin - du-zun; es-pos nin-tzan goi-zi - an. Bai e-ta e-re se-daz bes-
ti-tu, i-guz-ki-a ja - li ar - ti - an. E-txe-ko - an-dre haun-di nin - du-zun e-gu-er - di-ren gai-ne -
ko; bai e-ta e-re a-lar-gun-tsa gaz - te i-duz-ki-a sar-tu ze-ne - ko.

Goizean goiz jeiki ninduzun
espos nintzan goizian,
bai eta ere sedaz beztitu
iguzkia jali artian.
Etxekoandre haundi ninduzun
eguerdiren gaineko,
bai eta ere alarguntsa gazte
iduzkia sartu zeneko.

P: Donostia: *Cancionero vasco, II*, Donostia, 1994, 518 zenbakian, 727 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: Jean Dithurbide. Loc. rec.: Sara. Fecha: 16 de julio de 1937. Clas.: narrativa".

XXI



A musical score for section XXI. The music is in 2/4 time, F major. It consists of two staves of music with lyrics underneath.

Zaz - pi ur - tez i - du - ki_i - zan dut se - na - rra hi - lla
e - txi - an, e - gu - naz ku - txa ba - ti - an e - ta

gau - az - bi be - soen er - di - an. Zi - troin u - ri - nez
gan - tzu - ten nu - yen as - ti - an e - gun ba - ti - an,
as - ti - an e - gun ba - ti - an e - ta
hu - ra or - tzi - ra - le goi - zi - an.

Zazpi urtez iduki izan dut
senarra hilla etxian,
egunaz kutxa batian eta
gauaz bi besoen erdian.
Zitroin urinez gantzuten nuyen
astian egun batian,
astian egun batian eta
hura ortzirale goizian.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 518 zenbakian, 728 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: Fr. Ramón de Zugarramurdi, del Colegio de Lecároz. Loc. rec.: Zugarramurdi. Clas.: narrativa".

XXII

Amabidxetan dontzella nintzan ordu batetan eskondu,
ordu bi santu goisekuetan geldittu nintzan alargun.

Nik artu neban sentimentue, nik artu neban lotzie,
ordu beteko senarragaitik alargun geldituttie.

Jaun zerukuak egingo banu zeruetako giltzari,
azken orduan dxakingo nuke atia nori iriki.

Lenengo aitari ta gero amari gero anai arrebari,
asken orduan ixilik neure maite politari.

Iñaki Gaminde: *Bart hamarretan*” baladaren bertsino bi, *Idatz eta mintz al-dizkarian*, 22 zenbakian, 1996, 22 orrialdean.

Nun eta noren aotik jasoa dan, onela adierazten du: "...Otxandion 1990.eko abenduaren 22an 56 urteko Pilar Olasok kantatu zidan".

Eta ondoren oar jakingarri au: "Grafiari dagokionez, esan behar dut eze, kantatuko era berean transkribatuta emoten ditudala".

XXIII

Bart amarretan dontzella nintzan, amabietan senartu,
ordu bi santu goisekoetan alargu(n) nintzan gelditu.

Nik artu neban sentimentua, nik artu neban penia,
bi orduteko senarragaikit alargun gelditutia.

Zeruko Aitak egin balitu seruko atian giltzari,
asken orduan yakingo neunke nori atia ideki.

Lenengo aitari eta yamari gero anayarrebari,
baña lenengo sekretotxu bat neure maite politari.

Iñaki Gaminde: *Bart hamarretan*” baladaren bertsino bi, *Idatz eta mintz al-dizkarian*, 22 zenbakian, 1996, 22 orrialdean.

Nun eta noren aotik jasoa dan, onela adierazten du: "...Larrabetzuko Goikolexea auzoan 1992.eko garagarrilaren 7an 48 urteko Begoña Arteagak kantatukoa da".

Eta ondoren oar jakingarri au: "Grafiari dagokionez, esan behar dut eze, kantatuko era berean transkribatuta emoten ditudala".

I

– Por la mañana temprano me levanté el dia de mi boda,
y de seda me vestí cuando salía el sol;
era una gran señora al filo del mediodía,
y una joven viuda cuando el sol se puso.

– Señor Irigaray, mi señor, levanta la cabeza.
¿Es que te ha pesado el haberte casado conmigo?
– No, no, no me ha pesado el haberme casado contigo,
ni me pesará nunca mientras viva en este mundo.

Yo tenía una amante a escondidas de todo el mundo;
a escondidas de todo el mundo, pero a sabiendas de Dios:
me envió un ramo hecho de extrañas flores,
hecho de extrañas flores y con veneno en su interior.

– Durante siete años he guardado en la habitación a mi marido muerto,
de día en la fría tierra y de noche entre mis dos brazos.
Con agua de limón lo lavaba una vez a la semana,
una vez a la semana y el viernes por la mañana.

“Hala bada etxe noblia...”

I

(Urzo xuriaren airian)

– Hala bada etxe noblia
Itxason Elizaldia,
hango jaun egin beharra zinin, Mulineneko primuia,
kontrebandan galdu izan ezpazindu zuk zure libertatia.

– Malurik aski badut nik
neure buriari emanik,
libertatia gal dut eta izaiteko ez moienik;
Anglatarre ikusi behar dut, itsasuetan juanik.

Elizaldeko andregeiak
jakin duenian berria,
itxasuetan juan behar zela Mulineneko primuia,
dirutan galduz izan du jaun haren libertatia.

Izan du arrapostia,
bainan ez anitz eztia:
izanik ere urrez betia Elizaldeko etxia,
etzuuela harek, ez, izanen jaun haren libertatia.

Elizaldeko andregeiak
izan duenian arrapostia,
zortzi gau-egunez egon omen da ohian, eri jarria,
bildurrez eta etzien izanen jaun haren libertatia.

Baratzian eder arrosa,
harek balaki frantsesa,
anperadoriaren mintzatzeko berak baluke irrisa,
Baionako hirian eros bailezake harat juateko errosa.

Kartuxak eder zaikuian
beren balak barnian;
ezagutu izan ezpalakote Larresoroko portuian,
Mulin bezain gizon urosik etzen izan Frantzian.

Untziak eder dik bela,
zaldiak ere bai zela,
Mulin primu ibili behar zen kabalier bat bezala,
portemantuan izkribaturik Elizaldeko jaun zela.

Luis Dassance zanaren paperetatik, esku-idazki batetik kopiatua. Bertsoen ondoren oar au: "Urzo txuriaren airian".

Leenengo bertsoak dionez, kontrabandoan arrapatuta galdu du *Mulineneko primu* dalako orrek bere libertadea. Seigarrenean, berriz, *anperadoria* aitatzen da. Napoleon aundia izango ote da? Bigarrenean, berriz, *Anglatarre* irakurtzen da. Ara eramango ote duten bildur da *Mulineneko* premu ori. Itxas-armadara kondenatua, alegia. Bolara batean Inglaterrari erasoko ote zion asmoak erabili zituan, izan ere, Napoleonek.

Onen garaikoa izango ote da, beraz, kanta au? Ditekena da. Baiña, ala balitz, beste ondoren bat ere atera bearko genduke: erromantze edo baladen garaia guk uste baiño beranduago itzali zala; kanta auek egiteari etziola gure erriak ain aspaldi utzi; erromantzeak eta bertsolaritza alkarrekin bizi izan zirala bolara batean.

Kanta onek kontatzen digun gertaera Napoleonen denborakoa balitz, agiri edo paperen bat egongo da bearbada artxiboren batean, Baionan edo Paben edo beste nimbait. Agertuko balitz, garrantzi aundikoa litzake guretzat, bai gertatua argitzeko eta bai gure susmo oiek egiazkoak diran erabakitzeko.

Seigarren bertsoak badu beste txeetasun jakingarri bat: andregaien emperadorearen mintzatzera ere joango litzakela, frantzesak baleki.

II

Untziak eder du bela,
zaldiak ere bai zela;
Mulin premu ibili behar zen
kabalier bat bezala,
portemantaoan izkiriaturik
Elizaldeko jaun zela.

Ala etxe noblia
Itxasun Elizaldia!
Harat jaun egin behar zela
Mulineneko premua,
kontrabandan galdu ez balu,
oi!, bere libertatia.

Kontrabandaren bortitza,
partikulazki kartuxa!
Harrapatu ez balute,
Mulin premuren urusa!
Etzioten, ez, haur guziek
hunkituko kokotza.

Neskatoaren tristia
jakin zuenian berria:
itsasotan partitzen zela
Mulieneko premuia;
dirutan galdegin izan du
jaun horren libertatia.

Izan du arrapostuia,
ez baitzen hanbat eztia:
urrez betea balu ere
Itsasu Elizaldia,
dirutan ezin dezakeiela
jaun horren libertatia.

Elizaldeko arroxak
berak balaki frantsesa,
enperadorearen ikusteko
berak baluke irrisa,
Baionan eros bailio
harat joaiteko karrosa.

Aita Jose Antonio Donostia zanaren artxibotik, *Cuaderno de Argentina de-
ritzaion esku-idatzi batetik.*

I

– Noble casa, si la hay alguna,
Elizalde, de Ichaso.

*Señor de ella ibas a hacerte, mayorazgo de Mulinene,
si en el contrabando no hubieras perdido tu libertad.*

– Muchas desgracias
me he buscado yo a mí mismo.
*He perdido la libertad y para recuperarla no tengo medios.
He de ver Inglaterra, cruzando los mares.*

*La futura señora de Elizalde,
cuando ha sabido la noticia
de que ha de cruzar los mares el mayorazgo de Mulinene,
ha pedido a cambio de dinero la libertad de aquel señor.*

*Ha recibido respuesta,
pero no muy agradable:
que aunque tuviera llena de oro la casa de Elizalde,
no obtendría la libertad de aquel señor.*

*Cuando la futura señora de Elizalde
ha recibido la respuesta,
ocho días ha pasado en cama, enferma,
de miedo de que no podrá obtener la libertad de aquel señor.*

*En la huerta es bella la rosa;
si supiera francés,
no le faltaría la voluntad de hablarle al emperador,
pues en la ciudad de Baiona podría comprar la rosa para ir allá.*

*Los cartuchos eran buenos,
cargados por dentro con bala.
Si no le hubieran descubierto en el alto de Larresoro,
no habría en Francia hombre tan feliz como Mulin.*

*Hermosa la vela del barco,
también la silla del caballo.
El mayoralgo de Mulin tenía que haber paseado como un caballero,
escrito en el portamantos que era señor de Elizalde.*

"Haltzak eztü bihotzik..."

I

Hal - tzak ez - tü bi - ho - tzik, ez gaz-tan - be - rak e - zü - rrrik;
E - ni - an us - te e - rrai - ten zi - e - la Ai - tu - nen se - mek ge - zü - rrrik,
e - ni - an us - te e - rrai - ten zi - e - la Ai - tu - nen se - mek ge - zü - rrrik.

Haltzak eztu bihotzik,
ez gaztanberak ezürrik;
enian uste erraiten ziela Aitunen semek gezürrik.

Andozeko ibarra
ala ibar lüzia!
Hiruretan ebaki zaitan armarik gabe bihotza.

Berterretxek oheti
neskatuari eztiki:
- Abil eta so'gin ezan ageri denez gizonik.

Neskatuak berala
ikusi zian bezala:
hirur dozena bazabiltzala leihoa bateti bestera.

Berterretxek leihoti
jaun kuntiari goraintzi:
ehün behi bazereitzola bere zezena ondotik.

Jain kuntiak berala
traidore batek bezala:
– Berterretx, aigü bortala, ützüliren hiz berala.

– Ama, indazüt atorra,
mentüraz sekulakua,
bizi denak ohit ükenen dü Bazkobiharamena.

Mari-Santzen lasterra
Bost-mendietan behera!
Lakarri Büztanobian sartü da bi belaiñak herresta.

– Büztanobi gaztia,
ene anaie maitia,
hitzaz hunik ezpalinbada, ene semia juan da!

– Arreba, ago ixilik,
ez, otoi, egin nigarrik;
hire semia bizi balinbada, mentüraz Mauliala da.

Mari-Santzen lasterra
jaon küntiaren bortala!
– Ai, ei eta, jaona, nun düzie eme seme galanta?

– Hik bahiena semerik
Berterretxez besterik?
Ezpeldo altin dün hilik; abil, eraikan bizirik.

Ezpeldoiko jentiak
ala sentimentü gabia!
Hila hain hüllan üken eta deüs ere etzakienak!

Ezpeldoiko alaba
Margarita deitzen da;
Berterretxen odoletik ahürkaz biltzen ari da.

Ezpeldoiko bukata
ala bukata ederra!
Berterretxen atorretarik hirur dozena ümen da.

J. D. J. Sallaberry: *Chants populaires du Pays Basque*, Baiona, 1870.

Oarretan argibide jakingarri auek ematen ditu:

“Quelle est l'origine vraie de cette légende? A quelle date remonte-t-elle? Le Jaon kunte, probablement un comte de Trois-Villes, lieutenant du roi en son château de Mauléon, avait-il condamné à mort Berterretch pour crime, ou Berterretch était-il l'innocente victime de la jalouse de ce seigneur, amoureux comme lui de la belle Marguerite d'Espeldoy? Il est difficile d'avoir là-dessus une opinion bien arrêtée et basée sur des preuves irrécusables.

Ce qui'il y a de positif, c'est que le pays de Soule, Ziberua, étant un pays de franc-alleu et dont tous les habitants étaient libres de toute ancienneté, le Jaon kunte, représentant du Roi, n'avait, dans ce pays, aucune de ces prérogatives exorbitantes que nombre de seigneurs s'étaient attribuées dans plusieurs autres provinces de la France, par abus du pouvoir féodal.

Berterretch, maison de Larrau, existant encore aujourd'hui.

Andoze, c'est le pays compris entre Licq et Larrau, canton de Tardets, arrondissement de Mauléon.

Aitunen onic Aitorren semek, les fils d'Aitor. On désigne ainsi en basque les enfants des anciennes familles nobles.

* * *

Kanta oni buruzko azterketa: Luis M. Mujika: *Euskal lirika tradizionala (II)*, Donostia 1985, 235 orrialdean.

II

Jean de Jaurgain jaunak, bere *Quelques légendes poétiques du Pays de Soule idazlanean (La Tradition au Pays Basque liburuan, Paris, 1899)*, Sallaberry-k bezelaxe eskeintzen ditu bertso auek, aldaketa bakarra sarturik: *Bereterretx idazten du.*

III

H. Gavel: *Un chant historique du Pays Basque: Berterretsen kantoria (La Chanson de Berterretche)* Baiona, 1924.

Bertsoak Sallaberry-k bezelaxe ditu, aldaketa auekin: 2/2: ala zer ibar luzia; 3/4: gizonik denez ageri; 4/4: borta batetik bestera; 5/4: beren zezena ondoti; 7/4: Bazko-galherdi-ondua; 8/3: bi belañez herresta sartu da; 8/4: Lakarri Buztanobira; 10/3: hire semia bizi ba-da; 10/4: Mau-liala dun juanik; 14/2: Margarita deitzen dena.

Erriaren aotik ere jaso zuan kanta au Gavel jaunak, eta jasoaldi bakoitzaren aldaketak oarre-tan ematen ditu.

Jasoaldi oietako bat Irurin egin zuana da. Ara emen onen aldaketak, berak azaltzen duan aldaerarekin konparatuta: 4/4: leihoa batetik bestera; 7/3: bizi denak ohart uken bezá; 8/3: Lakarri-Buztanobila heltu da; 8/4: bi belañoak herresta; 10/3: hire semia juan ba-da; 13/1: Ezpeldoiko jentia; 13/3: hila huken-eta hañ hulan; 13/4: deusere etzakitena; 14/4: ahurka biltzen ari da; 15/4: hirur dozena badira.

Atarratzten jasotakoaren aldaketak: 7/4: Bazko-mezpera-arratsa; 15/4: hogei dozen han ba-da.

Santa Garazin jasotakoaren aldaketak: 1/2: ez kanaberak ezurrik; 9/3: hitzaz hoberik ezpalin-bada; 9/4: galdu dukene semia; 13/3: hila bottan uken eta; 14/4: ahurretara biltzen ari da; 15/2: ala buketa ederra da.

* * *

Jaurgain-ek, or goien aitatutako lan ortan, istoria-azterketa bat egiten du kanta oni buruz; aitatzen diran gizakiak nortzuk izan ziran, alegia. Gavel, berriaz, aitatzen diran gertaerak argitzen aalegintzen da. Bi ikerketa oien laburpe-na emango degu emen.

Iltzaillea Luis de Beaumont omen da; *conde de Lerín, barón de Guiche y de Curton*, eta *condestable de Navarra* izan zan, eta Mauleko jauna ere bai 1434-tik 1449-ra. Bitarte ortan gertatuko zan, beraz, Berterretren eriotza.

Urte aietan, Luxe eta Granmont-eko etxeen arteko burruak Iparraldeko Euskal Erria odolez gorritu zuten. Luis de Beaumont dalako ori Luxeko jaunaren aldekoa zan, beraren aide izanik.

Berterretx, "jaon kontiari ehun behi beren zezena ondotik" eskeintzen baitzikio, ondasunez ongi zegoana izango zan, eta bearbada Granmont-eko jaunaren aldekoa. Kondeak orregatik begitan artu eta ilko ote zuan pentsatzen du Jaurgain-ek.

Aotik aora datorrenez, Berterretx ori Larrainekoa zan, eta ori bat dator kantaren zenbait txeetasunekin.

Bazko-gauean,edo aurrekoan eta ondokoan, kondea Berterretxen etxera di-joa. Baita preso artu eta eraman ere.

Larrainetik Mauelerako bide zaarra artu zuten. Bide ori Andozeko ibarretik barrena zijoan, ibaiaren ezkerretik Ligiraiño; eta emen mendaruntz artu eta Ez-peldoiko bide-gurutzera igotzen zan.

Berterretx nola il zuten ez digu kantak esaten; baiña bai toki orretan izan zala.

Ezpeldo ortan iru etxe omen ziran Gavel-en denboran. Beraren ustez, baka-rra izango zan garai artan: Ezpeldoipe. Etxe ontakoak etziran ezertaz oartu bia-ramona arte. Uurrengo goizean, bertako alaba Margaritak arkitu zuan gorputza.

Berterretxen ama, Marisantz, bere semea zeramatela ikusi zuanean, anaia-rengana joan zan laguntza eske. Anai ori Lakarri-Buztanobiko etxejauna zan. Arunzkoan, Bostmendieta deitzen dan tokitik igaro bearra zeukan Marisantz gajo orrek.

Anaiak, Maulera joan eta kondeari semearengatik galdezko esaten dio. Marisantzek ala egiten du, eta orduantxe ikasten beraren il-berria.

Gavel-en iritziz, azken bertsoaren esan-naia auxe da: Ezpeldoipekoak iru dozena ator zikindu zituztela, Berterretxen odola txukatu nairik.

Ezpeldo ortan bai omen da, gaur ere, estela bat, orain bosteun urte baiño geiago an gertatu zan eriotzaren oroitarria izan ditekena. Alde batetik gorputz bat ikusten omen da, Berterretxena bearbada. Orren gaiñean *IHS* eta *MA* izkiak. Baita marrazki borobil bat eta arrasto oker bat ere. Auek, M. Colas-en iritzirako, eguzkia eta ilgora dira. Arriaren beste aldetik, berriz, gurutze bat; eta beeán bi uztai, beren geziekin. Arma oiekin ilko zuten bearbada Berterretx.

* * *

J. C. Guerra: *Los cantares antiguos del euskera*, Donostia, 1924. Onek Jaurgaini kopiatzen dio.

Aita Onaindia: *Milla euskal olerki eder*, 1954, Onek ere Jaurgain-ek bezela.

Juan Gorostiaga: *Antología de Poesía Popular Vasca*, San Sebastián, 1955, 81 orrialdean, aitatzerik mirezi duan aldaketarik gabe.

Kantuz, 9, rue Thiers, 9, Bayonne. Onek Gavel-en aldaerari kopiatzen dio, ontan izan ezik: 14/2: Margarita deitzen da.

Kantuz dalako oni kopiatzen diote beste argitalpen auek:

Charabela, P. Arradoy, *Imprimerie Darracq*, Bayonne, 1951.

Mariya, *Imprimerie M. Mendiburu*, Bordeaux, beste aldaketa onekin: 2/2: ala ibar luzia.

Kantuz, *Editions "Eskual-Herria"*, Bayonne, P. Etchemendy eta P. Lafitte-k prestatua.

Herria astekariak ere argitaratu zuan kanta au, zein egunetan ezin esango badegu ere.

Jorge Rieu: *Flor de canciones populares vacas*, Ekin, Buenos Aires, 1948.

Jorge Rieu: *Nafarroa-ko euskal-kantu zaharrak*, Iruñea, 1973.

Zinzarri: *Las endechas de la guerra de los bandos (III)*, La Voz de España egunkarian, 1977-VI-2-an.

Kantu kanta kantore, Baiona, 1967, Kordelieren irarkolan. Onek ere aurreko oiek bezela du testu guzia. Baiña bi bertso berri agertzen ditu, zazpigarraren ondotik, Berterretx bera mintzo balitz bezela:

Heltu nintzan Ligira,
buneta erori lurrera;
buneta erori lurrera eta eskurik ezin behera.

Heltu nintzan Ezpeldoira,
han haritz bati esteki;
han haritz bati esteki eta bizia zeitan idoki.

Kantu kanta kantore dalako orri kopiatzen dio beste argitalpen onek: J. La-karra, K. Biguri. B. Urgell: *Euskal Baladak*, Donostia 1983, II tomoan, 79 orrialdean.

IV

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegia, 393 zenbakian, 491 orrialdean, lau bertso agertzen ditu, 3, 4, 5 eta 6-garrena, aldaketa bakarrarekin: 3/3: eia so ginezan leihotzi.

Eta bi doiñu ere bai, biak Zuberoan jasoak. Bata, Ligin: “*Lo aprendí en Ligi (Zuberoa) el verano que pasé recogiendo léxico. No anoté el nombre del cantor o cantora*”. Eta bigarren doiñua Santa Garazin: “*En Santa Engracia, no lejos de Ligi, aprendí una variante de la canción Berterretxen kantoria, de Sallaberry. Como poema, es el mismo de esta endecha. Como música, son muy distintas esta canción y la de Sallaberry, pág. 211, y esta variante me la enseñó una señora Duc, hermana de J. B. Constantin*”.

Ona emen bi doiñu oiek:

Ber - te - rre-txek o - he - ti nes - ka - to - a - ri ez - ti - ki "ei - a
Ber - te - rre-txek lei - ho - ti Jaun kon te - a - ri go - rain tzi: e - hün

so gi - ne - zan lei - ho - ti a - ge - ri de - nez gi - zon - ik" Nes -
be - hi ba - za - rei - tzo - la be - ren ze - ze - na on - do - ti. Jaun

The musical score consists of three staves of music in G major, with lyrics in Spanish and Basque. The first staff starts with a 2/4 time signature, followed by a 3/4 section, then a 2/4 section, and ends with a 3/4 section. The second staff follows a similar pattern. The third staff begins with a 2/4 section, followed by a 3/4 section, then a 5/8 section, and ends with a 3/4 section.

lyrics:

ka - to - ak ber - ha - la, i - ku - si zi - an be - za - la, hi - tur
 kon - te - ak ber - ha - la, trai - do - re ba - tek be - za - la;, Ber - te -
 do - ze - na ba - za - bil - za - la lei - ho - ba - te - tik bes - te - ra.
 rre - txe: ha - i - gü bor - ta - la, ütz - ül - i - ren hiz ber - ha - la.

Ber - te - rre - txe u - mil - ki Jaun kon - te - a - ri go - rain - tzi:
 e - hün be - hi ba - de - ro - la be - re ze - ze - na - re - ki.

V

Rodney Gallop-ek, bere *Collectanea Vasca: VI, Quelques airs de Sallaberry notés à nouveau idazlanean* (Gure Herria aldzkaria, Baiona, 1931, 353 orrialdean), kanta onen leenengo bertsoa dakar, aurretik onela esanez:

"En dernier lieu je cite deux chansons que je dois à la belle voix de M. Pièrou de Tardets. La première est une version dans le mode mixolydien du fameux Berterretxen kantoria...".

Ona emen doiñu ori:

The musical score consists of two staves of music in G major, with lyrics in Spanish and Basque. The first staff starts with a 6/8 time signature, followed by a 2/4 section, then a 6/8 section, and ends with a 2/4 section. The second staff follows a similar pattern.

lyrics:

Hal - tzak ez - tu bi - ho - tzik, ez - gaz - tan be - rak he - zu - rrik. E -
 ni - an us - te e - rrai - ten zie - la ai - tu - nen se - mek ge - zu - rrik.

VI

Haltzak eztü bihotzik,
ez eta ere ezürrik,
enian uste erraiten ziela aitonen semek gezürrik.

Bereterretxek oheti
neskatuari segürki:
– Jeiki adi leihuala ageri denez gizonik.

Neskatuak berala
ikusi zian bezala:
hirur dozena bazabiltzala leihoa bateti bestera.

Bereterretxek ümilki
jaun kontiari segürki:
ehün behi emanen zerola bere zezena ondoti.

Jaun kontiak berala
traidore batek bezala:
– Bereterretx, aigü eneki, ützülichen berala.

– Ama, indazüt atorra,
bentüraz sekülakua;
min deronak orit düke Bazko gaiherdi ondua.

Andozeko ibarra
ala ibar lüzia!
Hiruretan ebaki zeitan lantzarik gabe bihotza.

Heltü nintzan Ligira,
buneta erori lurrera,
buneta erori lurrera eta eskürrik ezin behera.

Heltü nintzan Ezpeldoira,
han haritz bati esteki;
han haritz bati esteki eta bizia zeitan idoki.

Ama horren zalia
Bostmendietan behera!
Belañak arin heltü omen da Lakarri Buztanobira.

– Buztanobi gaztia,
ene anaie maitia,
hitzaz hoberik ezpalinbada juan dük ene semia.

– Arreba txoa ixilik,
ez otoi egin nigarrik;
Maulera heltzen bada ükenen düzü bizirik.

Ama juan Maulera,
hanti igan torrera.
– Jaunak eta erradazie nun düzien ene semia.

– Badüna hik semerik
Bereterretxez besterik?
Ezpeldo altian dün hilik, or den eraikan bizirik.

Ezpeldoiko alaba
Margarita deitzen da;
Bereterretxen odoletarik bete omen dü ferreta.

Ezpeldoiko bukata
ala bukata lüzia!
Bereterretxen atorretarik hirur dozena han bada.

Luis Dassance jauna zanaren paperetan arkitu degu beste aldaera au. Bi kopia dira, biak eskuz idatziak.

Kopia batek izenburu au du: *Bereterretx Larrañarenak*. Larrain errikoa baitzan, leen esan degunez, Bereterretx gizarajoa.

Besteak izenbururik ez du. Baiña saiets batean itz au irakurtzen da: *Chambray*. Izen ortako norbaiti bertsoren batzuk bildu zizkiola uste det L. Dassance jaunak; eta au oietako bat izango da.

Kopia batetik bestera aldaketarik ez da, kopiatzerakoan oartu gabe egindako okerren bat edo beste izan ezik. Bi kopia oiek iturri beretik datozela esango genduke.

Bestetik, *Kantu kanta kantore liburuak* dituan bi bertso ezezagun oiek ere badituzte bi kopia oiek; eta bai beste bat ere, "Ama, juan Maulera..." asten dan ori, alegia.

I

*El aliso no tiene corazón,
ni el requesón hueso:
no creía que los hijodalgos dijeran mentiras.*

*Valle de Andoz,
¡qué valle tan largo!
Tres veces se me partió, sin (herida de) armas, el corazón.*

*Berterretxe desde la cama
a la criada dulcemente:
– Ve y mira si es que se ven hombres.*

*La criada en seguida
tal como lo vio:
que tres docenas iban de una ventana a otra.*

*Berterretxe desde la cama
(le envía) al señor conde saludos:
que cien vacas pastaban detrás de su toro.*

*El señor conde en seguida
como un traidor:
– Berterretxe, baja a la puerta; volverás en seguida.*

*– Madre, dame la camisa,
quizás la de para siempre;
el que viva recordará el día siguiente de Pascua.*

*¡Qué carrera la de Mari-Santz
por Bost-Mendieta para abajo!
Ha entrado en Lakarri-Buztanobia arrastrando las dos rodillas.*

*– Buztanobi, el joven,
mi hermano querido;
si de ti no hay nada bueno, mi hijo se ha perdido.*

*– Hermana, calla;
por favor, no llores;
si tu hijo vive, acaso estará en Mauleón.*

*¡Qué carrera la de Mari-Santz
hasta la puerta del señor conde!
— ¡Ay, ay, señor, ¿dónde tenéis a mi hermoso hijo?*

*_ ¿Tú tienes algún hijo
además de Berterretxe?
En el alto de Ezpeldoy está muerto; corre, a ver si lo encuentras con vida.*

*Las gentes de Ezpeldoy
¡qué faltas de sentimiento!
Tenían al muerto tan cerca y no lo sabían.*

*La hija de Ezpeldoy
se llama Margarita;
la sangre de Berterretxe la está recogiendo a puñados.*

*La colada de Ezpeldoy
¡qué hermosa colada!
De las camisas de Berterretxe dice que hay tres docenas.*

* * *

He aquí, además, la traducción de las dos estrofas que algunas variantes ponen detrás de la séptima:

*Llegué a Ligi,
el sombrero se me cayó a tierra;
el sombrero se me cayó a tierra y no podía bajar la mano.*

*Llegué a Ezpeldoy,
allí me ataron a un roble;
allí me ataron a un roble y me quitaron la vida.*

“Hauzeko anderia...”

I

Hauzeko anderia
Urrutian korpitzez;
hor du bere buria,
kanpoan da bihotzez.

– Nor du bere maitia?
Nahi nuke egia.
Jinkoak nahi badu,
hiltzia ukenen du.

– Gure jaun Urrutia,
kexian beti zia;
erradazu zertako.
Ni enuzu kanpoko.

– Urrunt zite ni ganik,
eztit zure beharrik.
Bazoaza kanpora
adar ene biltzera.

– Jauna, holako lanak
Hauzeko anderiak
eztititu ikasi;
hen doazu ihesi.

Ele hoiek ahotik
jalkitzen zielarik,
Urrutiak biloti
terresta du ibili.

– Jinkoa, zer bizia!
O, jaun Urrutia,
ni Hauzeko etxian
ninduzun, bai, bakian.

Hunat jin behar nizun,
ene zortia zuzun,
bihotz min ukeiteko,
zure kexerazteko.

Ogen gabe, zu beti
mintzo zitzaitz gogorki.
Otoi, zure begiak
utz ditzala kexiak.

– Goizian goiz jaikirik,
goiz opilak eginik,
Hauzeko anderia,
lehia dun handia.

Zareta bat burian,
kanporat jalkitzian,
Mus d'Urrutiak zian
baratu bai bidian.

– Nun zabiltza hain goizik
jauregia huxturik?
Galdatzen du Urrutik,
begiak oldarturik.

– Jauna, ikusten duzu,
nahi balin baduzu,
noat orai nabilan
zareta hau burian.

Jente eskaliari
emaiteko sokorri,
madama Urrutiak
hartu zutien bidiak.

Opilez zaria beitzen
beterik jente proben.
Urrutiak zarian
eskia ezarri zian.

Opilak ordu harten
jin zirien haillikotan.
Urrutiak behala
uste tronpatu zela.

– Ehuleko etxera
zoaza bilberazter?
– Jauna, ikusten duzu...
Orai zuk badakizu...

– Parka izadazut, arren,
bekaitz enuzu izanen;
emazte hun zirela
orai badit nik proba.

Francisque Michel: *Le Pays Basque*, Paris, 1857, 399 orrialdean.

* * *

Jean de Jaurgain-ek, bere *Quelques légendes poétiques du Pays de Soule idazlanean* (*La Tradition au Pays Basque* liburuan, Paris, 1899), Michel-en liburutik artzen du kanta au, aldaketa auek sartuz:

1/1: Ahetzeko anderia; 3/3: erradazut zertako; 4/4: adar eni biltzera; 5/1: Jauna, holako gai-zak; 5/2: Ahetzeko anderiak; 6/4: terrestu du ebili; 7/3: ni Ahetzeko etxian; 8/4: zure kexarazteko; 10/1: Goizian goiz jeikirik; 10/3: Ahetzeko anderia; 13/1: Jauna, ikusiren duzu; 13/3: nurat orai nabilan; 16/2: jin ziren haillikotan.

Ortaz gainiera, azterketa bat egiten du Hauze (*Haux*), Urrutia (*Ruthie*) eta Ahetzeko etxeetako buruz. Hauzeko eta Urrutiako etxeekoen arteko ezkontzarik ez du arkitzen, Bai, ordea, Urrutia eta Ahetzeko etxeekoen artean; 1422 urtean, ogei urte egin berriak zituan Menauton de Ruthie (Urrutia) Domenge d'Ahetze-rekin ezkontzen da.

Auek dira, Jaurgain'en ustez, kanta ontako senar-emazteak. Orregatik, Michel-ek Hauze dion tokietan, berak Ahetze idazten du. Baiña naiko arrazoi alda ori testua aldatzeko?

* * *

Edozein moduz, Jaurgain-ek uste bezela kanta au senar-emazte oientzat moldatua izanik ere, gertaera erantsia izango da dudarik gabe, bestetan ere kontatzen dan *leyenda* da eta.

Santa Kasilda izeneko santutegia, adibidez, Gaztelan dago, Burgos probintzian, La Bureba deritzaion lurraldean. Santa orren gorputza an gordetzen da. Toledoko moro errege baten alaba omen zan bera. Biotz onekoa izanik, sarritan gazteluko kartzeletara joaten zan, ogi-puskak eta olakoak mantalean artuta, an katibu zeuden kristauei banatzera. Zertan zebillen batenbatek salatu zion erregeari, eta au egun batean zeletan jarri zan. Oi zuan bezela, alaba an agertu zan, mantalean bilduta zerbait zekarrela.

– Zer den or? Ea, erakutsi” – aitak.

Alabak mantala zabaldu zuan eta arrosa-pilla ikusgarria antxe.

Naparroan ere berdintsu kontatzen dute Santa Feliziagatik. Onen santutegia Labianon dago. Iruñetik dozena bat kilometrora.

Ori, guk dakiguna. Baiña Gaztelan eta Naparroan prosaz eta emen bertso-tan bezela, beste erri eta izkuntza askotan ere kontatuko da *leyenda* ori bera, erri-kontaera auek mugarik ez dute eta.

* * *

Juan Karlos Guerra zanak, bere *Los cantares antiguos del euskera* liburuan (Donostia, 1924), Jaurgain-en azterketaren laburpena eskeintzen du, bertsoak berari kopiatuz.

Michel-en liburuan Aingeru Irigaray zanaren ardurapean bigarren aldiz argitaratu zan (Donostia, 1962), eta ontan ere *Ahetze* idazten da, *Hauze* jarri bearean.

Donostiako *La Voz de España* egunkarian ere agertu zan kanta au 1976-X-10-ean, Irigaray zanak prestatutako Michel-en liburuaren argitalpenari kopiatuta, oker ez bagaude beintzat.

J. Lakarra, K. Biguri eta B. Urgell-ek ere argitara eman zuten kanta au beren *Euskal Baladak* liburuan (Donostia, 1983). Baiña auek Michel-i kopiatzen diote, *Hauze* idatziz.

Kanta oni buruzko azterketa: Luis M. Mujika: Euskal lirika tradizionala (I), Donostia 1985, 221 orrialdean.

I

*La señora de Hauze (está) en Urrutia corporalmente;
ahí tiene a su persona; de corazón está fuera.*

– ¿Quién es su amante? Quisiera (saber) la verdad.
Si Dios quiere, encontrará la muerte.

– Nuestro señor Urrutia, siempre estáis enfadado.
Decidme por qué. Yo no soy de fuera.

– Aléjate de mí; no te necesito.
Vete a fuera a ponerme los cuernos.

– Señor, tales trabajos la señora de Hauze
no los ha aprendido; huye de ellos.

*En tanto esas palabras de la boca le brotaban,
Urrutia la ha arrastrado de los pelos por el suelo.*

– ¡Qué vida, Dios mío! Oh señor Urrutia,
yo en la casa de Hauze vivía ciertamente en paz.

*Hube de venir aquí; ése fue mi destino
para que mi corazón sufriera; para hacer que os encolericéis.*

*Sin daros motivo, vos siempre me habláis con aspereza.
Que la ira, por favor, se retire de vuestros ojos.*

*Levantándose temprano y haciendo los panes por la mañana
la señora de Hauze tiene una gran porfía.*

*Al salir para afuera con un cesto en la cabeza,
el señor de Urrutia la ha detenido en el camino.*

– ¿Dónde andáis tan de mañana, abandonando el palacio?
Le pregunta Urrutia con los ojos hechos ascuas.

– Señor, podéis verlo, si así lo deseáis,
a dónde me dirijo ahora con este cesto en la cabeza.

*Para socorrer a la gente pordiosera
la señora de Urrutia se ha puesto en camino.*

*De panes para la gente pobre estaba lleno el cesto.
Urrutia ha metido la mano en él.*

*Los panes en aquel momento se convirtieron en ovillos.
Urrutia pensó en seguida que se había engañado.*

- ¿Vais a casa del tejedor a hacerlos tramar?*
- Señor, lo veis... Ahora ya lo sabéis...*

- Perdonadme, por favor; no volveré a ser celoso.
Ahora tengo la prueba de que sois una buena esposa.*

"Hegaburu Eskiula..."

I

Hegaburu Eskiula atzaman die Garaian.
Izan balitz gizon galant bere denboran,
etzatekien, ez, etxezain gaztelian.

- Barkoxeko burgian, begiak nutien lurrian;
akusatu nundien hanko kortian
eia zer ebatsi nin hil-herrian.
- Alo, gizonak, koraje! Paubeak behar duzie;
hanko justizierak haiduru daude,
justo puni zitzaden, ogen baduzie.
- Zazpi haurren aita niz, eta niz gaztelian,
ogen handi egin beitut orori mundian.
Parkamentu galto nago Jainkoari, zelian.

F. Michel: *Le Pays Basque*, Paris, 1857, 424 orrialdean. Ez du argibiderik ematen.

I

*A Hegaburu-Eskiula lo han detenido en Garaia.
Si hubiera sido en su vida un hombre honrado,
no estaría en el castillo guardando la casa.*

*- En el pueblo de Barkox tenía yo los ojos en el suelo;
me acusaron en aquella corte
a ver qué había robado en el cementerio.*

*- ¡Ea, hombres, coraje! Necesitáis...(1)
los jueces de allí están esperando;
os darán una sentencia justa, si habéis cometido delito.*

*- Soy padre de siete hijos, y estoy en el castillo,
pues grandes delitos he cometido contra todos en el mundo.
Pido perdón a Dios en el cielo.*

(1) Esta frase, quizás no recogida debidamente, es de difícil traducción. Es probable que haga alusión a los jueces de Pau.

“Jundane Juhane goizian...”

I

Jundane Juhane goizian,
Bidarraiko zubian,
pistolet bat kargatu nian
ene kolera gaitzian.

Bai eta ere deskargatu
ehun gizonen artian,
ehun gizonen artian eta
apez beltzaren burian.

Jaun prebostaren zaldia
lau hatzeten xuria,
lau hatzeten xuria eta
gizon isuki zalia.

Harek pasa erazi dereit
zazpi brasako lezia,
zazpi brasako lezia eta
giza beteko hesia.

Aldi bat nenguelarik
sagardoい hegin behera,
zazpi amore ikusi nutian
dantzan ari zirela.

Batek irri, bestek keñu,
joan nendila dantzara.
– Dantza, dantza, ene maitiak,
nik orai eztut aitzina.

– Bortirigarai, arrest adi
erregeren ordriari,
erregeren ordriari eta
jaun prebostizar gorriari.

– Jaun prebosta, arristatzen nuk
erregeren ordriari;
hire behorrik atzaman benai
emotzak eskerrak horri.

– Bortirigarai gaztia,
amaren uda lilia,
amaren uda lilia eta
aitaren seme maitia.

– Ene emazte maitia,
maxela orraze luzia,
en'ikustera jiten delarik
Uztaritzen da erdia.

Nik etxen badit arreba bat
xuritsu eta tenderrik,
hobekiago belizate
labe gorrian sarturik.

– Ene aita, zer berri da
Orzaizeko aldetik,
Orzaizeko aldetik eta
gure etxe tristetik?

– Ene semia, berri txarrak
Orzaizeko aldetik,
hire urkatzeko kordak
Baionan direla berririk.

– Aita, zaude ixilik,
ez, otoi, egin nigarrik;
Baionan ezta urkatuko
zure beste semerik.

– Bortirigarai Orzaizeko,
Bortiri Ezpeletako,
hi Bordelen, ni Baionan
zer bi gizonak galduko!

– Ene semia Erremuntto,
dolu dereiat, gaxoa,
zeren entzun behar dia
“ait’urkatiaren semia”.

Lehen, lehen errailiari
ideki ezok bizia,
bizia idok eta ez sufri
holakorik erraitia.

Augustin Chaho zanaren (1810-1858) bilduma, gaur Telesforo Monzon-Ola-soren alargunaren mendean.

II

Bortagaray Orzaizeko,
Bortagaray Ezpeltako,
hi Bordelen, ni Baionan,
oi, zer gizonak galduko!

Halzak eztu ekarten ezkurrik,
ez gaztanberak ezurrik;
ez nien uste bazela
Jinko semetan gezurrik.

Xispa nuen kargatu
Urkaraiko lepoan,
bai eta deskargatu
Hozta plaza erdian,
apez beltxaren gainian.

Apez beltxaren arreba,
ala neskatxa adreta!
Ni galeraziko, baina
etzaun pizturen anaia.

Ehun behi baditut
bere zezenareki;
nik guziak emanen ditut
bizia ukaitiareki.

– Aita, zoazi etxerat,
ene arropak harturik,
eta haurrer emozkozute
bere neurrian josirik.

- Ez, ez nuk, ez, joanen
hire arropak harturik;
nik Baionan utziren diat
arropak bino minagorik.

- Ene seme Erremutto,
aita ikusi gabia,
aita ikusi gabia eta
aita urkatu semia,
hargatik eztuk adituko
"aita ohoinaren semia".

Urteak zenbat egun tu?
Hemezortzitan hogoi baditu.
Bortagaray gazte horrek
hauk ditu konponditu.

Francisque Michel: *Le Pays Basque*, Paris, 1857, 401 orrialdean.

Michel jaunaren liburua berriro eman zuan argitara Aingeru Irigaray zanak: *Poesías populares de los vascos*, Colección Auñamendi 22, San Sebastián, 1962. Argitalpen ontan aldaketa batzuk sartzen dira. Aldaketa oiek, guk uste, *Nehor eta Dufau-k* 1924 urtean *Gure Herria* aldizkarian agertu zuten aldaera-tik artuak dira. Ez ditugu ezarriko, *Gure Herria*-ren beste argitalpen ori orain urrena eskeiñiko degu eta.

III

The musical score consists of three staves of music in common time, treble clef, and a key signature of one flat. The first staff begins with a melodic line: I - gan - de me - zak e - rrai - ti - an, Ha - rri - txu - ri - ko gai - ni - an, es - ko - pe - ta kar - ga - tu nu - en, neu - re - tzat zo - ri - gai - tzi - an. The second staff continues the melody. The third staff concludes the piece with the lyrics: Bai e - ta e - re des - kar - ga - tu A - pez bel - txa - ren gai - ni - an.

Igande-mezak erraitian,
Harrixuriko gainian,
eskopeta kargatu nuen
neuretzat zorigaitzian,
bai eta ere deskargatu
apez beltxaren gainian.

Haltzak eztu'maiten ezkurrik,
ez gaztanberak hezurrik,
ez nian nik uste bazela
Jainko-semetan gezurrik,
ez nian nik uste bazela
Jainko-semetan gezurrik.

– Apez beltxaren arreba,
serora begi-ñabarra,
ni galeraziren nun, bainan
ez zain pizturen anaia,
ni galeraziren nun, bainan
ez zain pizturen anaia.

Ehun behi nik baditut,
bai, beren zezenarekin;
nik guziak emanen ditut
bizia ukaitiarekin,
nik guziak emanen ditut
bizia ukaitiarekin.

– Ene seme Erramuntto,
Erramu goizian sortia,
damurik aditu behar duk
“Ait’urkatiaren semial!”.
“Ait’urkatiaren semial” bainan
ez “Ait’ohoinaren semial!”.

– Aita, zoazi, bai, etxerat,
ene arropak harturik,
ene haurrer emazkotzute
beren neurrian josirik,
ene haurrer emakotzute
beren neurrian josirik.

– Ez, ez, ez nuk, ez, joanen
hire arropak harturik;
nik Baionan utziren diat
arropak baino hoberik,
nik Baionan utziren diat
arropak baino hoberik!

– Bortegarai Ortzaizeko,
Bortairu Ezpeletako,
hi Bordelen, ni hor Baionan,
a zer gizonak galduko!
Hi Bordelen, ni hor Baionan,
a zer gizonak galduko!

Antzarak doazi karrankaz
Donibaneleko karrikan;
Bortegaray hori badoa
semiaren minez marraskan,
Bortegaray hori badoa
semiaren minez marraskan.

Urtiak zonbat egun ditu?
Hemezortzitan hogoi tu...
Bortegaray gazteño horrek
persuak hemen eman ditu,
Bortegaray gazteño horrek
persuak hemen eman ditu.

Gure Herria aldizkarian, Baiona, 1924, Suplemento Musica, Nehor eta Dufau-k jaso eta bialdua, oar onekin:

“Cette chanson –à la mélodie prenante– que nous tenons de Me. D. , originale d’Itxassou, est évidemment postérieure à la Chanson de Berterretche (Haltzak ez du bihotzik) qu’elle copie au 2e. couplet.

A quand remonte-t-elle? Quel crime passionnel célèbre-t-elle? Quel est ce Prêtre noir? Quelle, cette soeur religieuse qui, probablement, a dénoncé le meurtrier? Et ce meurtrier, possesseur de cent vaches et de leur taureau, est-ce -comme il est probable- Bortheagarai d'Ossès, ou Borthairu d'Espelette? Ils sont complices tous les deux, car tous les deux ils vont mourir. Et ce Erramoun, né au matin de Rameaux, n'est-il pas le même que le jeune Bortheagarai, l'auteur même de la complainte douloureuse?

Elle est très belle, dans tous les cas, cette complainte, et bien faite pour frapper l'imagination, avec son dialogue pathétique, si prestement enlevé. Et ce couplet donc sur le passage, dans les rues de St. Jean(?), du criminel que l'on voit aller vers l'expiation, pleurant et gémisant au souvenir de son fils, tandis que les oies fuient en poussant les hauts cris, parceque bousculés par les gens de justice!...

*En résumé, c'est une belle chanson à garder, et combien typique! Cf. Francisque Michel (*Le Pays Basque*, p. 401), inexact, incomplet; et aussi P. Donostia (*Euskel Eres Sorta*, p. 162, num. 330 et son unique couplet, vraiment incompréhensible".*

* * *

Errepikcan bilduman (Baiona, 1944), *Gure Herria-n bezelaxe dago kanta au, aldaketa auek izan ezik:*

4/2: oi beren zezenarekin; 4/3: guziak eman bainitzazke; 10/4: pertsu hauk oro eman tu.

Juan Gorostiaga: *Antología de Poesía Popular Vasca*, San Sebastián, 1955, 85 orrialdean.

Kantu kanta kantore bilduman ere Gure Herria-n bezelaxe, aldaketa auek izan ezik:

2/3: ez nian uste bazela; 4/2: oi beren zezenarekin; 4/3: guziak eman bainitzazke; 10/1: Ur-tiak zenbat egun tu?; 104: hainbertze pertsu eman tu.

J. Lakarra. K. Biguri. B. Urgell: *Euskal Baladak*, bigarren tomoan, 210 orrialdean, *Kantu kanta kantore bezelaxe.*

IV

Fr. Michel-en aldaera or goien du irakurleak. Aita Donostiarena, berriz, aude da:

Ur - ti - ak zen-bat e-gu n du e - me - zor-tzi o-gei du. Gor-ta - ru -
ga - rai gaz - ti o - rrek ain - ber - tze ber - tso e - man du.

Urtiak zenbat egun tu?
Emezortzi ogei tu:
Gortarugarai gazti orrek
ainbertze bertso eman tu.

Zuzenketa batzuk egin ditugu. Leenengo lerroan *urtian eta du idazten du aita Donostia*. Bigarrenean eta laugarrenean ere *du*. Eta irugarrenean *gortaru garai*.

Esan bezela, aita Donostia bere *Euskel Eres Sorta* bilduman argitaratu zuan kanta au, 330 zenbakian, 162 orrialdean.

Baita ere: *P. Donostia: Cancionero Vasco, III*, Donostia, 1994, 1020 zenbakian, 1406 orrialdean, argibide auekin:

"Loc. rec.: Lekarotz. Fecha: 9 de noviembre de 1913".

V

A - ma el - du naiz do-lo - rez es - ku - a be-te o-do - lez a-pez gaz -
te bat il - ik el - du naiz oi neu-re es - ku trai - do - rez.

Ur - te - ak zoin - bat e - gun tu he -

The musical score consists of three staves of music in common time, treble clef, and a key signature of one flat. The lyrics are written below the notes. Measure 1: men zor - tzi - e - tan or - hoi - tu Bor - te hi - . Measure 2: ru - ren se - me ho - rrek hain - ber - tze fer - so eman - di - . Measure 3: tu. Bor - te hi - ru - ren se - me ho - rrek hain - ber - tze fer - so eman - di - tu. Measure 4: hain - ber - tze fer - so eman - di - tu.

- Ama, eldu naiz dolorez,
eskua bete odolez,
apez gazte bat ilik eldu naiz
oi! neure esku traidez.

Urteak zeinbat egun tu,
hemen zortzietan oroitu.
Borte hiruren seme horrek
hainbertze ferso eman ditu.

Aita yin zaundan gaztelurat
boneta diruz beterik:
- To, seme, nik etzikeiat
dirutan hire bizirik.

- Aita, zaude isilik,
ez, otoi!, egin nigarrik.
Baionan urkaturen ezta
oi! zure beste semerik.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegia, 381 zenbakia, 477 orrialdea.

Leenengo doiñua eta bi bertso, Naparroan, Baztango Bozaten, Graziosa Ele- jaurena-ri jasoak.

Bigarren doiñua eta beste bi bertso, Hazparnen, Battitte Sarhi-ri jasoak.

Bigarren bertsoaren bigarren eta irugarren lerroak gaizki artuta dauzka Az- kuek. Agidanean, etzuan zer esan nai zuten ulertu.

VI

A- ma, el - dunaizdo-lo - rez es - ku-ak be-te o-do - lez, gi-
zonbat i-lik a-mu-rru otzez oi! neure esku zi - ta - lez.

- Ama, eldu naiz dolorez,
eskuak bete odolez,
gizon bat ilik emen eldu naiz
oi! neure esku traidorez.

Gizona balitz, deusik ez,
ezpalitz konsagratura,
konsagratura eta geiago
erriko parroku yauna.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegia, 381 zenbakia, 478 orrialdea, Naparroako Arizkunen, Frantziska Irigoyen andreari jasoa.

Azkuek, doiñuarekin batera jartzen duan letran, itz batzuk aldatu egiten ditu. Bertsoak, emalearen aotik jaso bezela, ondoren eskeintzen ditu.

VII

Ne - gu goi - zal - de ba - te - an, al - ba - ko - a - ren o - tse - an,
es - ko - pe - te - a kar - ga - du ne - ban a - rri o - tza - ren gai - ne - an,
bai e - ta ge - ro des - kar - gau be - re a - paiz jaun o - tren al - de - an.

Negu goizalde batean,
albakoaren otsean,
eskopetea kargadu neban
arri otzaren gainean,
bai eta gero deskargau bere
apaiz jaun orren aldean.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco*, 424 zenbakian, 530 orrialdean, Bizkaian, Mañariako Eladia Zabala andreatsi jasoa.

VIII

Bor - tai - ru - ga - ray Or - tzai - tze - ko, Bor - tai - ru
Ez - pe - le - ta - ko, hi Bor - de - len, ni Ba -
io - nan o zer gi - zo - nak gal - du - ko.

Bortairugarai Ortzaitzeko,
Bortairu Ezpeletako,
hi Bordelen, ni Baionan,
o zer gizonak galduko!

Zortzi gizon hil nituen,
zazpi laborariak,
zortzigarrena apez beltxa,
hark bainerama galtzera.

R. M. Azkueren esku-idazkietatik. Hazparnen bildu omen zituan doiñu eta bertso auek; baiña emalearen izenik ez du esaten. Oker ez bagaude, etzituan iñun argitaratu.

IX

Harma kargatu nian
Uzta soroaren gainian,
bai eta deskargatu
Hortza plazaren erdian.

Urtxoa joan airian,
ihiztaria guardian;
nik tiroa ezarri dut
apez beltxaren gainian.

– Apez beltxaren arreba,
neska begi ñabarra,
ni galerazi nun, bainan
ez dun izanen ere anaia.

– Uztaritze herria,
ehiz izaitez berria;
hitarik jali zautak
ene bi semen sortzia.

– Ene andria Maria,
ezkoa bezain horia,
Uztaritzen omen zaude
bi muttikottoz erdia.

– Ene seme Erramuntto,
Uztaritzen sortua;
zer gizonak adituko duen:
“Hir'aita duk urkatua!”

(Lehen eta azken pertsua:)

Urteak zenbat egun tu?
Hemezortzitan hogoi tu.
Bortagarai jaun gazte horrek
hainbertze bertsu eman du.

Luis Dassance jauna zanaren paperetan, eskuz idatzitako orri batean. Bertsoen aurretik oar jakingarri au: “*De Martin Larre, Auxoxuria, de Macaye, 60 ans, qui les tenait de son grand-père maternel, décédé en 1930, à 89 ans, originaire de Bidarray*”.

* * *

Gure Herria aldizkarian, 1925 urtean, 48 orrialdean, azterketa bat egiten da kanta zaar oni buruz: *Kanta Ber: La Complainte de Borthagaray - Apez beltcharen kantuak*.

Doiñu edo bertso berririk ez du ematen. Baiña oar jakingarri batzuk egin bai. Onako auek bereizten ditugu:

“*Nous préférerons hainbertze ferso eman ditu du dernier vers de cette variante* (Azkuek Hazparnen bildu zuana, alegia) *à persuak hemen eman ditu de la version de Gure Herria.*

Hainbertze confirme d'ailleurs la tradition qui veut que cette complainte compte autant de couplets que de jours dans l'année; Francisque Michel le supposait et avait du l'entendre dire. Un vieillard, que nous interrogions à cet sujet et qui, cela va sans dire, n'a jamais entendu parler du savant folk-loriste, nous dit avoir ouï dans sa jeunesse des couplets extrêmement nombreux de cette complainte et nous confirma spontanément l'hypothèse de Fr. Michel, ajoutant même le détail suivant: Borthagaray mourut juste après qu'il eut fini de chanter ce dernier couplet".

Eta, azkenik, toki-izenei buruz onela esaten du:

"Tous ces noms de personnes, de lieux et de villages ou villes; Borthagaray(1), Borthairu(?), Urcuray, Hozta, Harrichari, Osses, Espelette, St. Jean, Bayonne, Bordeaux, sont précieux et recèlent peut-être la clef de l'enigme de cette obscure tragedie".

I

*En la mañana de San Juan, en el puente de Bidarrai,
cargué una pistola, llevado de mi gran cólera.*

*Y la descargué entre cien hombres,
entre cien hombres y en la cabeza del cura negro.*

*El caballo del señor preboste es blanco en las cuatro patas,
blanco en las cuatro patas y amigo de morder a los hombres.*

*Él me hizo pasar una0 sima de siete brazas,
una sima de siete brazas y una barrera de hombres.*

*Estando una vez debajo de un manzano,
vi a siete damas que estaban danzando.*

*La una se reía, la otra me hacía gestos para que entrara en la danza.
– Danzad, danzad, queridas mías; yo ahora no tengo tiempo.*

*– Bortirigarai, quedas detenido por orden del rey;
por orden del rey y por el señor preboste de roja barba.*

– Señor preboste, me someto a la orden del rey;
puedes estar satisfecho de que tu yegua me haya alcanzado.

– Bortirigarai el joven, flor de verano de tu madre,
flor de verano de tu madre e hijo querido de tu padre.

– Mi esposa María, de mejilla larga,
cuando venía a verme ha dado a luz en Uztaritz.

Yo tengo en casa una hermana blanca y tierna,
que mejor estaría metida en un horno ardiente.

– Padre mío, ¿qué noticias hay por la parte de Osés?
¿Por la parte de Osés y en nuestra triste casa?

– Hijo mío, malas noticias por la parte de Osés;
que en Bayona hay sogas nuevas para ahorcarte.

– Padre, calla; no llores, por favor.
En Bayona no será ahorcado ningún otro hijo tuyo.

– Hijo mío Ramoncito, te tengo lástima, pobre,
porque tendrás que oír: hijo de padre ahorcado.

Al primero que lo diga quítale la vida;
quítale la vida y no sufras que digan tal cosa.

– Bortirigarai de Osés, Bortiri de Ezpeleta,
tú en Burdeos, yo en Bayona, ¡qué dos hombres van a perderse!

III

Al decir las misas del domingo, en el alto de Harrixuri
cargué la escopeta para mi desventura,
y la descargué sobre el cura negro.

El aliso no da bellotas, ni el requesón tiene hueso.
Yo no creía que hubiera mentira entre los hijos de Dios,
yo no creía que hubiera mentira entre los hijos de Dios.

– *Hermana del cura negro, monja de ojos falsos,
a mí me echas a perder, pero no resucitará tu hermano,
a mí me echas a perder, pero no resucitará tu hermano.*

*Yo tengo cien vacas con su toro;
todas te las daré si me concedes la vida,
todas te las daré si me concedes la vida.*

– *Hijo mío Ramoncito, nacido en la mañana del día de Ramos,
habrás de oír, por desgracia: "Hijo de padre ahorcado".
"El hijo del padre ahorcado", pero no: "Hijo de padre ladrón".*

– *Padre vete a casa tomando mis ropas;
dádselas a mis hijos cosidas a su medida,
dádselas a mis hijos cosidas a su medida.*

– *No, no, yo no me iré tomando tus ropas;
yo en Bayona voy a dejar algo mejor que las ropas,
yo en Bayona voy a dejar algo mejor que las ropas.*

– *Bortegarai de Osés, Bortairu de Ezpeleta,
tú en Burdeos y yo en Bayona, ¡qué hombres van a perderse!
Tú en Burdeos y yo en Bayona, ¡qué hombres van a perderse!*

*Los gansos van graznando por la calle de San Juan;
ese Bortegarai va llorando por el dolor de su hijo,
ese Bortegarai va llorando por el dolor de su hijo.*

*¿Cuántos días tiene el año? Tiene dieciocho por veinte.
Ese jovenzuelo Bortegarai ha compuesto aquí estrofas,
ese jovenzuelo Bortegarai ha compuesto aquí estrofas.(2)*

(1) Une maison de Halsou porte le nom de Borthagaraia, privilège que peuvent revendiquer ses doute plus d'une localité du Pays Basque.

(2) En otras variantes: ha compuesto igual número de estrofas.

“Jaun baroinak xedelak...”

I

Ihiziko partida urosa

Jaun baroinak xedelak untsa hedatu zutian,
xori bat hanitx ejerra hetan beharrez atzeman;
orai harekin dago, nahitrik aspaldian.

Xedera balitz halako merkatuetan saltzeko,
Aitoren seme guziek eros litzazkete oro,
xoritto ejer holako zenbaiten hatzemaiteko.

Francisque Michel: *Le Pays Basque*, Paris 1857, 325 orrialdean.

II

Jaon baruak aspaldin
xedera bat hedatü zin,
xori ejer bat atzaman dizü
Paubeko seroren komentin,
orai hareki lotzen düzü
aspaldian desir beitzin.

Xedera balitz halako
merkatietan saltzeko!
Aitoren semiak juan litazke
erostera hentako,
komentietan ezarteko
seroren atzamaiteko.

Revue des Basses Pyreneés et des Landes, I tomoa, 1883-4, oar onekin: "J. Sallaberry Mauletarrak bildurik Ziberuan, eta igorririk".

III

Arbotiko prima ejerra

Jaon baroak aspaldin
xederak hedatü zütin,
xori ejer bat hatzamen dizü Paubeko seroren komentin;
orai harekin biziren düzü, aspaldian gogun betzin.

– Jaon baroa, orai zü
felicitatzen zütüğü,
zerenbeitü Mus de la Plazaren prima ejerra espostü,
andere hori hirus düzü, zuri ezteizüğü dolü.

Xedera baliz halako
merkatietan saltzeko,
Ziberuko aitonen semek eros litzazkie oro,
halako xori ejertto zunbaiten hatzamaiteko!

Jean de Jaurgain: *Quelques légendes poétiques du Pays de Soule* idazlanean, *La Tradition au Pays Basque*, Paris, 1899 liburuan, 409 orrialdean.

Jaurgain jaunaren iritziz, bertso auek, Armand-Jean d'Uhart eta Marie de la Place d'Arbouet ezkondu ziraneko eztai-bazkarian bazkaldarren batek batbatean kantatuak dira.

Senargaiaren aita Gabriel d'Uhart zeritzan eta *barón de Arbouet et de Sorhapuru* omen zan. Etxe oiek Baxenabarrekoak dira.

Beraren bigarren semea izan zan Armand-Jean ori; ezkontzaz *barón d'Arbouet* izan zana.

Ezkontza ortatik seme bakarra jaio zan: Jean-Alexandre Nérée d'Uhart, *barón de Arbouet* bera ere. Baiña ondorengorik gabe il zan.

L. Dassance jaunak ere, bere *Biltzarreko mintzaldiak*, *Eskualzaleen Bilzarren eskerrak herriari* idazlanean (*Gure Herria*, 1960), iru bertso auek argitaratu zituan, Sallaberry-ri kopiatuta.

IV

Jan Ba - ru - ak as - pal - din txe-de - ra bat e - da - tu zin txo-ri ei -
 jer bat a - tza-man di - zu Pa - ue - ko se - ro - ren kon - ben -
 tin. O - rain a - re - kin lo-tzen dü zü as-pal - di - an de-sir bei - tzin.

Yan Baruak aspaldin,
 txedera bat hedatü zin.

Txori ejer bat atzaman dizü Pauko seroren komentin,
 orai harekin lotzen düzü, aspaldian desir beitzin.

– Yauna, entzun düzü,
 felicitatzen zitügü,

Mus de la Plazaren alab'ederra zuk düzüla espostatü
 andere hura hirus düzü, zuri ezteizüğü dolü.

Txedera balitz halako
 merkatietan saltzeko,
 Ziberoko aitunen semek eros litzake oro,
 txori ejer zonbaiten atxemaiteko.

– Igaran Apirilaren bürian,
 Armadaren erdian,
 züntüdan bihotzian, armak oro eskian,
 present espiritian, manka besuan artian.

– Yauna, maite banaizü
 erraiten düzün bezala,
 kita ezazü, kita ezazü Erregeren serbitxia
 eta maite herria, üken dezadan plazera.

– Eztiot kita, maitia,
Erregeren serbitxia,
sortü nüzü uhurezko Erregeren serbitxuko,
maite dit uhuria zügatik, xarmagarria.

J. A. de Donostia: *Apuntes de Folklore vasco, Revista Internacional de Estudios Vascos* aldizkarian, 1927 urtean, 699 orrialdean.

Kanta au noren aotik jaso zuan adierazteko, onela esaten du Aita Donostiarik: "Esta melodía y las estrofas las debo a François Piérou, joven pastor de Laguinge (Soule)".

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, 602 zenbakian, 823 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: François Piérou. Loc. rec.: Atharratze. Fecha: 18 de Setiembre de 1927. Clas.: narrativa".

* * *

Juan Gorostiaga: *Antología de Poesía Popular Vasca, San Sebastián*, 1955, 63 orrialdean. Onek Aita Donostiarri kopiatzen dio, aitatzerik merezi duan al-daketarik sartu gabe.

1984-ko *Herria Astekariaren Almanaka*-n ere agertu ziran sei bertso auek. Baiña leenengo irurak Jaurgain-ek dituan bezela, eta besteak Aita Donostiarak bezela.

J. Lakarra, K. Biguri eta B. Urgell: *Euskal Baladak, II* tomoan, 110 orrialdean. Bertso guziak Aita Donostiarak bezela.

IV

*El señor barón hace tiempo
que tendió un lazo.
Un hermoso pájaro ha cazado en el convento de monjas de Pau,
Ahora se une con él, según su antiguo deseo.*

– Señor, lo has oído,
te felicitamos;
con la hermosa hija del señor de la Plaza te has casado;
esa señora es feliz, a ti no te pesará.

*Si lazos de esa clase
se vendieran en los mercados,
los hidalgos de Zuberoa los comprarían todos,
para cazar a unos cuantos hermosos pájaros.*

– *A finales del pasado abril,
en medio del ejército,
te tenía en el corazón, con todas las armas en la mano,
presente en el espíritu, pero ausente de entre mis brazos.*

– *Señor, si me amáis
tal como decís,
abandonad, abandonad el servicio del rey,
y ama al pueblo, para que yo tenga ese gusto.*

– *No puedo abandonar, querida,
el servicio del rey;
nací con honor para el servicio del rey;
amo el honor por ti, encantadora.*

“Salinasgoa konde...”

I

Salinasgo konde
guztien da jabe,
Gipuzkoa herrian
on guztien burua.
Guztioek digoe
borondatez segitzen,
ganboarrakin
oñaztarrok konforme.
Bizkaitikan bere
akonpañatzen debe,
bretoe gaitoen
bekatuak kastigatzen.
Konde andi orrek
juntadu ditu laster
Donostiaiko irian,
Pasajen enbarkatu.
Ontzi andiak txipiakin
flota andia atera,
Frantziaren bistan
ziudadea dirudi.
Donostiaiko murruan,
islaren goienean,
abade guztiok
daode prozisioan,
mila bendizio

egozen digoela.
Dontzella guztiak
daode belauriko,
Jaungoikoa debeela
herregueten
degiola eman
conde laztanari
bitoria handia
gaiztoen kontra;
biteztea debala
onrarekin seguru,
Bretaña guztia
bentziturik datorren
conde galant ori
Gipuzkoa herrira,
non izango baita
beti bezela buru,
nobleza guztiaren
anitz estimatua.
Pobluaren honra
danak bezela,
guztiak daduzka
bere agintean.
Guztiok dioe
amar bider amen.

Kanta au Alfonso Otazuk Madrilako Liburutegi Nazionalean arkitu zuan. 1626 urteko bi eskutitzetan, eta *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian, 1975 urtean, argitara eman, izenburu onekin: “*El cantar de Bretaña (Un poema iné-*

dito de fines del siglo XV en la lengua vasca) “Bretañaako jornadaren bertsoak” (1491 inguru).

Azterketa jakingarri eta sakona egiten du Alfonso Otazuk kanta oni buruz, beraren istori-ingurua eta abar argituz. Baiña oso luzea da eta ez daukagu onera aldatzerik.

Luis M. Mujikak ere, bere *Euskal lirika tradizionala (II)* liburuan ere, 240 orrialdean, kanta oni buruz mintzatzen da.

Epika-giroa dakar kanta onek. Baiña rimaz eta neurria oso gutxi edo bate-re ez da arduratu egillea. Alde ortatik oso librea zala esan bear. Ala, testu au zenbateraiño kanta dan ere zalantza sortzen digu guri beintzat.

I

*El de Salinas es señor de todos los condes,
cabeza de todos los buenos en el país de Guipúzcoa.
Todos le siguen de buen grado,
a una los oñacinos con los gamboinos.
También de Vizcaya le acompañan
a castigar los pecados de los malvados bretones.
Ese gran conde pronto ha juntado en la ciudad de San Sebastián,
y embarcado en Pasajes,
grandes y pequeñas naves, organizando una gran flota,
(que) a la vista de Francia parece una ciudad.
En la muralla de San Sebastián,
en lo más alto de la isla, todos los curas van en procesión,
impartiéndole mil bendiciones;
todas las doncellas están arrodilladas,
pidiéndole a Dios
que al amado conde le conceda una gran victoria sobre los malos,
que tenga asegurada vida con honra,
que, vencida toda Bretaña,
regrese ese apuesto conde al país de Guipúzcoa,
donde será, como siempre,
cabeza altamente estimada de toda la nobleza.
Como quien es la honra del pueblo, a todos tiene bajo su mando.
Todos responden amén diez veces.*

"Sortu nintzan Etxauzian..."

I

Sortu nintzan Etxauzian,
hazi Garatian Agerrian,
eskolatu Baiunian,
madamatu Urrutian.

Altzuruku Urrutia,
ala leku famatia,
enetako ja izan duzu
penaz hiltzeko lekia.

Musde Urrutia bilua holli,
jaun erretorak hortzak xuri;
haiet biek ni narabila
Urrutian eztetari.

Kozinatik kanberala,
kanberatik kozinala,
hiruretan ungurarazi zeitan
bilo adatsa eskietan.

Musde Urrutia etzen lotzen
bere tela mihiestan,
arauxe nahiago beitzen
amuriaren kapitetan.

Abenduko gau luzetan,
izotz eta karroñetan,
Murde d'Urrutia etzen ageri
ene tela mihiestan,
nahixago baitzuan
amuren kapitetan,

A, Baigorri, Baigorri maite,
nik hilik ere hara nahi nuke,
han harriak ere alte nituzke.

Etxauzeko bizkundia,
bildurra duzu ahalkia?
Uzten duzu penaz hiltzera
zure arreba anderia.

Etxauzeko bizkundia,
non da zure ohoria?
Zure arreba anderia
xangrinez hiltzen ari da.

Bizkundiak mitilari:
– Zela bedi zaldi hori,
erra bedi urzo hori,
jar gitian bide horri.

Bizkundia armaturik,
zaldi urdina zelaturik,
Urrutian sartu züzün,
Urrutia eskapi leihotik.

Augustin Chahoren bilduman, 99-garren kantu.

Baigorriko zombait kantu (Biltzalea, Jean Haritschelhar) Gure Herria aldizkarian, 1963, Urria.

J. M. Leizaola: *El refranero vasco antiguo y la poesía euskérica, Obras Completas II*, 825 orrialdean.

J. Lakarra, K. Biguri. B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1984), bigarren tomoan, 175 orrialdean.

Etxaus irakurtzen da Chahoren esku-idatzian zenbait aldiz; besteetan, beiriz, *Etxauz*. Guk onela idatzi degu beti.

I

*Yo nací en Etxauz, me crié en Garate-Agerre,
estudié en Baiona, me hice señora en Urrutia.*

*Altzuruku-Urrutia, lugar muy afamado,
para mí casi has sido lugar para morir de pena.*

*El señor de Urrutia tiene el pelo rubio,
el señor párroco tiene blancos los dientes,
ellos dos me han tratado en Urrutia cruelmente.*

*De la cocina a la habitación y de la habitación a la cocina
me ha llevado tres veces agarrándome del cabello con las manos.*

*El señor de Urrutia no se acostaba entre sus sábanas;
prefería ciertamente los antros de amorios.*

*En las largas noches de diciembre, con escharchas y hielos,
el señor de Urrutia no se dejaba ver entre mis sábanas,
pues prefería los antros de amorios.*

*Ah, Baigorri, mi querido Baigorri!
Yo quisiera que, aun muerta, me lleven allí;
allí aun las piedras están a mi favor.*

– Vizconde de Etxahuz, ¿tienes miedo y temor?
Dejas morir de pena a tu señora hermana.

*Vizconde de Etxauz, ¿dónde está tu honor?
A tu señora hermana la están matando los disgustos.*

*El vizconde a su criado: - Que se ensille ese caballo,
que se yerre esa paloma, emprendamos ese camino.*

*El vizconde, él armado y el caballo azul ensillado,
entran en Urrutia. (El señor de) Urrutia escapa por la ventana.*

“Txori batek behin batez...”

I

Txori batek behin batez erran zeitan egia:

Baiunan ukenen niala, oi!, ene malura.

– Txoria, ago ixilik, ez egin nigarrik,
ez eman bihotzari holako trixturarik.

Gure jaun komendanta jin zeikigun herrialia,
bai eta deklaratu ni desertur nintzala.

– Zeluko Jinko Jaunak eman dizazula
zuk eni bezalako miserikordia.

Hamazortzi grenadierra jin zeitadan etxiala,
bai eta estekatu kriminel bat bezala,
erraiten zielarik: – Oi! Hau da malura,
soldado gazte baten gal erazitia!

– Adio diot erraiten orain Sohutari,
eta partikularein ama maitiari;
orai nik hil behar dut dudarik gaberik,
ene haurride maitiak ikusi nahirik.

Luis Dassance zenaren paperetatik, esku-idatzi batetik.

Grenadier izeneko soldaduak aitatzen dira emen irugarren bertsoan. Itz orrek bertso auek Frantziako Iraultzak denborakoak edo Napoleonen garaikoak izango ote diran susmoa sortu arazten digu. Orduko gerraren batean moldatuak, alegia. Ori egia balitz, erromantze edo baladen aroa ez dala gure artean oso itzali zaarra pentsatu bearko genduke.

I

*Un pájaro me dijo en cierta ocasión la verdad:
que en Baiona encontraría yo mi desventura.*

*- Guarda silencio, pájaro, no llores,
no des al corazón semejante tristeza.*

*Nuestro señor comandante se nos vino al pueblo,
y declaró que yo era desertor.*

*- Que Dios, señor del cielo, te conceda
la misericordia que tú me has concedido a mí.*

*Dieciocho granaderos se me han venido a casa,
y me han esposado como a un criminal.*

*diciendo: "¡Oh, qué desgracia
echar a perder un soldado joven!"*

*- Adiós le digo a Sohuta,
y particularmente a mi querida madre;
yo ahora tengo sin duda que morir
sin ver a mis queridos hermanos.*

“Urteak zonbat egun tu?...”

1

A musical score for 'Urteak' featuring three staves of music with lyrics in Indonesian. The first staff uses a treble clef, the second a bass clef, and the third a treble clef. The key signature is one sharp, and the time signature varies between common time and 3/4. The lyrics are: Ur-te-ak zen-bat e-gun tu? So-rak kain bat zin-ta- (repeated), tu: er-di-ak di-tu Pro-bi-do-re-a-nak, bes-te er-di-ak, Ur-tik e-ma-nak A-ma-e-

Urteak zonbat egun tu?
Sorak kainbat zinta tu:
erdiak ditu Probidoreanak,
beste erdiak Urttik emanak.

- Ama, edazu atorra, benturaz sekulakoa; bizi denak orit izanen du Bazkoako oilaritea.

Pedro Karlos Mendi, aur gazte,
ogei eta bi urte;
irurgarrena bete gabe
Iruñara preso daramate.

Iruñako kartzela
Nafarroan den andiena,
Ezkarotzeko irur mutil gaztek
ongi gozatu dutena.

Gozatu, bai, gozatu,
seira ilabete pasatu,
seira ilabete pasatu eta
berrogeira otxin pagatu.

Bornas eta Algarra,
Atxiri eta Sandua,
aiek laurek dirabilaie
Ezkarotzeko erria.

Orraxeа ezpelez,
ortzak ditik exurrez,
Fandrontzeneko nausi makurrak
irakitzent du gezurrez.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco*, 417 zenbakian, 518 orrialdean. Neparroan, Saraitzuko Ezkarotzen, Jabiera Gorriri jasoa. Bertsoen ondoren oneila dio:

"La segunda estrofa de esta endecha es como la séptima de la leyenda sultana de Berterretxe, tal como figura en el Cancionero de Sallaberry, pág. 214:

Ama, indazüt atorra,
menturaz sekulakoa;
bizi denak ohit izanen du
Bazka-biharamena.

Esa t final de indazüt no la habría recogido Sallaberry del pueblo. Es indazu o edazu, como dijo la cantora de Ezcaroz".

Bostgarren bertsoa beste onela idazten du Azkuek:

Gozatu bai gozatu
seira ilabete pasatu
eta berrogeira otxin pagatu.

Lerro bat falta du, beraz. Kanta zaar auek ainbeste aldiz egiten duten bezela, bigarren lerroa errepikatu egin bear dala dudarik ez da.

A. Apart-Etchebarne: *Noticias y viejos textos de la lingua navarrorum*, Donostia, 1971, 83 orrialdean.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1984), bigarren tomoan, 241 orrialdean.

I

*¿Cuántos días tiene el año? Sora tiene otras tantas cintas,
la mitad (son) del Provisor, las demás, regaladas por Urtti.*

*- Madre, dame la camisa, quizás la de para siempre;
el que viva recordará el alba del día de Pascua.*

*A Pedro Carlos Mendi, joven muchacho de ventidós años,
sin haber cumplido los ventitrés, lo llevan preso a Pamplona.*

*La cárcel de Pamplona (es) la mayor de Navarra,
de la que bien han disfrutado tres muchachos de Ezcarroz.*

*Han disfrutado, sí, han disfrutado, han pasado (en ella) seis meses;
han pasado (en ella) seis meses y han pagado cuarenta monedas.*

*Bornas y Algarra, Achiri y Sandua,
esos cuatro manejan el pueblo de Ezcarroz.*

*El peine es de boj, los dientes los tiene de hueso;
el malvado amo de Fandrozene hierve en mentiras.*

"Urtsuak zazpi leio..."

I

Ur-tsu- ak zaz - pi lei-o, zaz-pi-ak le- rro le- rro, Lan tai-na-ko a -
la ba Ur-tsu-an de-fun - tu da-go, Ur-tsu-an de-fun - tu da-go.

Urtsuak zazpi leio,
zazpiak lerro lerro,
Lantainako alaba
Urtsuan defuntu dago.

Urtsuan defuntua
Santa Anan kausitua,
adios erran gabe
etxetik partitua.

- Zazpi errota berri,
zortzi jauregi xuri,
orien guzien gatik
nik ez Urtsura nahi.

- Goiti zazu burua,
ene arreba Juana.
- Eztezaket goratu,
anai Batista yauna.

- Izorra omen zara,
ene arreba Juana.
- Zertan ezautzen nauzu,
nere anaia yauna?

- Zaldi zelarekin
zuretzat yarria da.
- Nik iten dudan aurra
zure besokoa izain da.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* bilduman, 908 zenbakian, 1057 orrialdean; Naparroan, Bartzango Gartzainen, Tomasa Urrutiari jasoa.

Urtsuak idazten du Azkuek izenburuan eta pentagramaren azpian; baiña Urtsuan leenengo bertsoaren asieran. *Urtsuak* ezarri degu guk beti, ala bear dualakoan.

Doiñu eta bertsoen artean onela esaten du Azkuek:

“Éstas son las estrofas que pude reunir de este dramático romance. Quizás las tres últimas hayan precedido a las primeras. Se ve que el poema está incompleto”.

Bertsoen ondotik, berriz, beste adierazpen au:

“Las noticias que pude recoger acerca de este horrendo suceso fueron: primera, que una noble francesa de Lantaine se casó con el heredero de Urtsua, castillo sito entre Arizkun y Azpilkueta (Baztán); segunda, que al notar su marido el embarazo de la mujer, pretextó que debían a la noche bajar a orar a la capilla de Santa Ana, situada a unos pasos del palacio, y allí la mató; tercera, que montando un caballo que su criado le tenía prevenido, huyó a Francia el asesino”.

* * *

Bertso auek, batere aldaketarik gabe, bere *Euskalerriaren Yakintza-n* ere argitaratu zituan Azkuek, II tomoan, 346 orrialdean (Madrid, 1942). Aurretik, gertaeraren berri ematen du, esatekoak Bartzango Kruz Goienetxeri jasoak dituala esanez. Ona Azkueren itzak:

“Naparroan, Bartzango ibarrean, Arizkungo lurrean, Urtsu edo Urtsua deritzaion yauregi zagar bat zen. Orain ere bere arresiak zutik daude. Izen andikoa zen aldi batez Naparroan. Ango yaun bat Naparroako Erregeren inguruko izan zen. Bertze bat Frantziako emazteki batekin ezkondu zen. Anai apeza zuen emazteki onek eta Naparroara andiki batekin ezkontzera zetorrela ta agur egitera agertu zitzaion. Apezak, arreba aur egiteko zela igarrita, gurasoen yauregian iduki nai zuen. Arrebak anai apezari, ixileraztearren, ezpata bat aginduz. Ezkontzerakoan emaztegaiak eunka ekarri zituen txikiroak, urrezko eztaiet zeinurrik.

Urtsura iritsi zenean, etxe koandre zagarra, oitura zenez, atarira yetxi zen ta erraingaia besarkatu zuen. Ezkondu ziren ta bereala zagutu zuen senarrak emaztea nola zegoen eta etxeko mutil bati erran zion zaldia ermitaren ondoan gerta zezala, perrak aintzinekoa gibelera zituela. Lotarako zeudela, senarrak emazteari erran zion:

- Eztun ikusi bear etxeko ermita, zerbait erreزالzeko ere?
- Nai baduk, goazin ermitara.

Yetxi ziren ta xixtako batez senarrak emaztea il zuen eta bereala zaldi-gane-raturik lauringoan Frantziara ifes egin zuen".

* * *

Aita Jorje Riezuk, bere *Flor de canciones populares vascas* (Buenos Aires, 1948), 70 zenbakian, 274 orrialdean, doiñua aita Donostiarri kopiatzen dio. Doiñu ori bereala azalduko degu. Bertsoak, berriz, Azkueri, beste ordena ontan ezarririk: 4, 5, 3, 6, 1 eta 2-garrena.

Aita Santi Onaindiak, bere *Milla euskal olerki eder* (1954) bilduman, aita Riezuk bezela ematen ditu bertso auek.

Julio Caro Baroja zanak ere agertzen ditu, bere *Pedro de Ursúa o el caballero idazlanean, El señor inquisidor y otras vidas por oficio liburuan* (Madrid, 1968). Onek ere, aita Riezuk bezela.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak*, II tomoan, 179 orrialdean. Auek, berriz, Azkuek bezela.

Kanta oni buruzko azterketa: Luis M. Mujika: *Euskal lirika tradizionala (II)*, Donostia 1985, 273 zenbakian.

II

U-tsu-an di-fun-tu a San-ta_A-nan kau-si-tu - a, San-ta_A-nan kau-si-tu -
a; a-di-os e-rran-ga - be e-txetik par-ti-tu - a, e-txetik par-ti-tu - a.

Utsuan difuntua,
Santa Anan kausitua,
adios erran gabe
etxetik partitua.

Aita Jose Antonio Donostia, bere *Euskal eres sorta* kantu-bilduman (1921), 266 zenbakian, bertso bakar au, bere doiñuarekin. Amaiurren jasota.

Baita ere: P. Donostia: *Cancionero Vasco, III*, Donostia, 1994, 1031 zenbakian, 1427 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: Antonio Elizalde, txistulari de Arizkun, natural de Amaiur-Maya. Loc. rec.: Amaiur. Fecha: setiembre de 1914. Clas.: narrativa".

Doiñu au bera: J. A. Donostia: *Obras Completas, IV*, 1985, 493 orrialdean, *Ejemplos musicales*.

III

- Kalean zer berri, nere anaia jauna?
- Zu enbraza zarela, nere arreba Juana.

- Zertarik zautu naute, nere anaia jauna?
- Kotilluna laburtu, nere arreba Juana.

- Ez nazazula sala, ez, nere aite-ametara; eta are geiago Utsuko kondetara.

- Zer manen duzu sari, nere arreba Juana?
- Bortzeten egun luis, nere anaia jauna.

- Oiek guziak ez duzu aski, nere arreba Juana.
- Zaldia zelaturik, nere anaia jauna.

- Oriek guziak ez duzu aski, nere arreba Juana.
- Aurra besoetara, nere anaia jauna.

- Zazpi errota berri, zortzi jauregi xuri,
oien guziengatik ez nago Utsure nai (nagi, nari).

Utsuek eder leio, bentana are geiago;
Utsuko etxeko andrea Santanan difuntu dago.

Utsuan difuntua Santanan kausitua,
adios erran gabe etxetik partitua.

Aita J. A. Donostia: *Leyendas navarras, Lecaroz aldizkaria*, 1953, 80-90 orrialdeetan. Doiñua ere badakar, baiña 1921-ean bere *Euskal eres sorta* bilduman agertu zuana.

Gure oar bat; bostgarren eta seigarren bertsoetan *duzu idazten* du Aita Donostiak. Gure iritzirako, *tuzu* bearko luke.

Bertsoen ondoren argibide auek ematen ditu:

"Éste es el texto más completo que he podido recoger. Azkue nos da otro parecido. El mío ha sido dictado a José Tellaetxe, txistulari, en 1934, por María Gamietea, dueña de la casa Perixene, de 59 años de edad".

Ondoren onela jarraitzen du:

"Entre mis notas hay algunas ligeras variantes que transcribo aquí, por escrípulos legítimos de suministrar la mayor cantidad de datos que ayuden a aclarar ciertos puntos oscuros de la canción. No sé si ello es posible, pues si el pueblo guarda en la memoria el fondo de un suceso puesto en verso, no siempre es fiel en la exactitud de los detalles".

Eta lau bertso auek ematen dizkigu:

- Agur, agur, nere arreba, nere arreba Juana.
Arrazoin bat aditu dut, nere arreba Juana.
- Zer aditu *duzu* bada, nere anaia jauna?
Enbraza zarela aditu't, nere arreba Juana.
- Ez nazazula sala nere aitametara.
Ez eta ere geiago Utsuko kalonjetara.
(También:
Are gutiago Utsuko semetara.)

Urtsuak leioak eder, bentanak egiyago;
iru lau egun untan Santa Anan ila dago.

Laugarren bertso ontan, *egiyago* dion ortan, *geiago* bearko luke noski.

Bertsoen ondotik, azterketa luze bat egiten du aita Donostik kanta eta gerera oni buruz.

* * *

P. Donostia: *Cancionero Vasco, III*, Donostia, 1994, 1031 zenbakian, 1428 orrialdean, erromantze onen aldaera au ere eskeintzen da; baiña ondoren geigarri au duala:

"Por dar íntegra la información oral recogida por el P. Donostia, trasladamos aquí las siguientes estrofas. Quizá por ellas logre algún sagaz investigador rastrear el origen de nuestro romance baztanés.

Utsuan eder bertza,
Don Juan de Utsuko Beltza:
nik hoi erranagatik,
enauk hiretzat lotsa.
– Non da arreba Yoana?
– Simplezia baten gatik
ocean etzana,
dena hora ere
senarra(k) emana.
– Nor(k) erran datzu hori,
anai yauna?
– Zure amiarrebak,
arreba Yoana.
– Nere amiarreba,
muskar berdea,
sierpe gaitoz duela
obe burukipia,
edansube gaiztoz
obera bidia".

IV

- Agur, nere arreba,
nere arreba Yoana:
berri bat aditu dut,
nere arreba Yoana.
- Zer aitu duzu bada,
nere anaia yauna?
– Enbraza omen zara,
nere arreba Yoana.
- Zertan ezautzen naute,
nere anaia yauna?
– Gerria loditu ta
laburtu kotilluna.
- Enazazula sala
ene aitametara,
et'are gutiago
Utsuko semetara.

- Zer emain duzu sari,
nere arreba Yoana?
– Txapela plumarekin,
nere anaia yauna.
- Ez da, ez, hori sari,
nere arreba Yoana.
– Bortzetan ehun luis,
nere anaia yauna.
- Hoiek ez tuzu aski,
nere arreba Yoana.
– Zaldia zelaturik,
nere anaia yauna.
- Hoiek ez tuzu aski,
nere arreba Yoana.
– Haurra besoetara,
nere anaia yauna.

– Hori da, hori, sari,
nere arreba Yoana;
haurra besoetara,
nere arreba Yoana.

– Zazpi errota berri,
zortzi yauregi xuri;
hoien guzien gatik
nik ez Utsura nahi.

Utsuak eder leio,
Lantanak ederrago;
Lantanako alaba
Utsuan hila dago.

Utsuan defuntua
Sant'Anan kausitua;
adios erran gabe
etxetik partitua.

Gure Mari Katalin,
emakume fidela,
pesalonbre handitan
gelditua bide da.

– Etzinakien bada
trabatua zinela?
Orduan etzaiteken
ezkontzarikan zerra.

Aita Jorje Riezu: *Nafarroako euskal-kantu zaharrak*, Iruñe, 1973, 83 zenbakian, 188 orrialdean. Doiñua ere badu, baiña aita Donostiak bere *Euskel eres sorta* bilduman eskeiñi zuana. Bertsoen ondoren, oar luze au:

"Esta canción –nos referimos por ahora a la melodía–, fue recogida por el P. Donostia en tres versiones muy poco divergentes. La primera en Elizondo, de Paz Salaburu, el 25 de febrero de 1912. Ha quedado inédita, La segunda en Maya (Amaiur, Baztán, AN), de José Maritorena y Antonio Elizalde, el año 1914. Es la que reproducimos aquí, publicada en el Cancionero Vasco (núm. 266). La tercera en Irurita (Baztán, AN), el 18 de marzo de 1934. Se halla en el artículo Leyendas Navarras que mencionamos luego."

Cuanto al texto, llegan a diez las versiones distintas, más o menos extensas, recogidas por el folklorista donostiarra, todas ellas en el valle de Baztán (AN), la casi totalidad en las inmediaciones del viejo solar de los Ursúa. Con ellas a la vista hemos fijado la versión ecléctica que ofrecemos. En las estrofa 4, verso 4, hemos adaptado la variante Utsuko semetara, que aparece en uno de los textos recogidos, dejando la variante Utsuko kondetara de varias versiones, y otra que también se lee en alguna de ellas, Utsuko kalonjetara.

Es de notar que esta canción no sólo se canta con su letra, sino que en las bodas (Yoyak) se ejecuta (sin canto) con txistu, al servirse el erreki (asado). La damos de suerte que sirva para ambos usos.

Urrena, aita Donostiak bere *Cancionero Vasco, III*, (Donostia, 1894) bilduman, 1031 zenbakian, ematen duan kanta-luzapena kopiatzen du, ondoren onela jarraituz:

"Se ignora cuándo y quiénes fueron los protagonistas, pero el hecho ocurrió en uno de los palacios de más nombradía del valle de Baztán. Un hijo de Ursúa,

el día de la boda, al comprobar el estado de embarazo en que había venido su esposa, le dio muerte, huyendo él mismo de la mansión señorial.

No hay documento ni historia que acredite el trágico suceso; tan sólo el testimonio oral nos ha conservado su memoria en la canción de Ursúa, preservada del olvido por nuestros folkloristas".

V

- Kalean zer berri dago,
nere anaia jauna?
 - Zu enbraza zarela,
nere arreba Juana.
 - Zertaik ezautu naute,
nere anaia jauna?
 - Kotillune lagurtu
nere arreba Juana.
 - Enazazula sala,
nere anaia jauna,
ezene aita-ametara,
ez eta ere Utsuko kondetara.
 - Zer emanen duzu sari,
nere arreba Juana?
 - Bortzeten egun luis,
nere anaia jauna.
- Oriek guziak ez dituzu aski,
nere arreba Juana.
 - Zaldia zelaturik,
nere anaia jauna.
 - Oriek guziak ez dituzu aski,
nere arreba Juana.
 - Aurra besoetara,
nere anaia jauna.
 - Zazpi errota berri,
zortzi jauregi xuri,
oien guziengatik
ez nago Utsure nahi.
 - Utsuan difuntua,
Santa Anan kausitua,
adios erran gabe
etxetik partitua.
- Utsuak eder leio,
bentanak are geiago,
Utsuko etxeandrea
Santa Anan difuntu dago.

Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduman, irugarren zenbakiaz seiñalatutako kuadernoan. Ez da esaten nundik edo zeiñen aotik jasoak diran bertso auek. Baiña biltzaillea baditeke Jose Fagoaga apaiz jauna izatea.

VI

Usuau difuntua,
Santa Anan kausitua,
adios erran gabe
etxetik partitua.

Usuak eder leio,
bentanak are geiago,
Usuko etxeokoandrea
Santa Anan difuntu dago.

Usuak errenta aundi,
zazpi errota berri,
zortzi jauregi xuri;
oien guziengatik
nik ez det Usura nahi.

– Kalean zer berri dago,
nere anaia jauna?
– Zu enbraza zarela,
nere arreba Juana.

– Ez nazula sala
nere aita-ametara,
eta are gutiago
Usuko kondetara.

Frantziara pasa da
gure infantea,
urrena don Fernando,
gure errege gaztea.

Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bilduman, irugarren zenbakiaz seiñalatutako kuadernoan. Biltzaillea, bearbada, Jose Fagoaga apaiz jauna izango da. Bozateko aiton baten aotik jasoa dala esaten da; baiña izenik eman gabe.

Azken bertsoak, dudarik gabe, ez du Urtsuako kanta zaar onekin zer ikusirik izango. Frantzesean jarritako bertso-puskaren bat degu, ziur asko.

VII

.....
.....

– Zertatik ezautzen nauzu,
nere anaia jauna?

– Delantala zaizu lagurtu,
gerria ongi loditu;
ortaik ezautzen zaitut,
nere arreba Juana.

– Ez nazula sala
Usuko kondetara,
ez eta ere nere
aita-ametara.

– Zer emanen datazu sari,
nere arreba Juana?
– Txapela plumarekin,
nere anaia jauna.

– Ezta, ez, ori sari,
nere arreba Juana.
– Aurra besoetara,
nere anaia jauna.

– Orix da, ori, sari,
nere arreba Juana.
– Aurra besoetara,
nere anaia jauna.

Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bilduman, 1934 urtean Jose Fa-goaga apaiz jaunak-edo bialdua, Lekarotzen, laroiei ta bost urteko Juliana Go-ñi itxuaren aotik jasota.

VIII

– Enazazula sala
nere aitametara,
eta are gutiago
Utsuko kondetara.

Utsuak errenta aundi,
zazpi errota berri,
zortzi jauregi berri,
orien guziengatik
ez nago Utsure nahi.

Gure Mari Katalin,
emakume fidela,
pesalunbre aundietan
gelditua bide da.

Deklaratu izan balu
traba gelditua zela,
orduan etzaiteken
ezkontzarik zerra.

Atarratzko ezkilak
ederki soñatzen,
andere Santa Juana
orain da funditzen.

Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bildumatik.

Azken bertsoa, irakurlea oartuko zanez, *Atarratz jauregian* kantarena da.

IX

– Nik bertze erregalorik
ez datzut erregalatuko,
txapela orrelagatikan
antziñako gauzak badauzkit.

– Arreba, zoazi niganik;
bertzela gauz onik
ez duzu aituko.

Aitari ez du kasoa
egitia nahi,
adios erran gabe
juan zaigu gure galaia.

* * *

– Nik bertze erregalorik
ez zaitut erregalatuko;
txapela eta
bertziak badauzkit.

– Arreba, zuazi
nigandikan;
bertzela gauz onik
ez duzu aituko.

ez zaitut erregalatuko;
txapela onelagatikan
aintzinako gauzak badauzkit.

* * *

– Enazazula sala
nere aita-ametara,
eta are gutiago
Utsuko kondetara.

Gure Mari Katalin (aizpa)
emakume fidela,
pesalunbre aundietan
gelditua bide da.

Deklaratu izan balu
traba gelditzen zela,
orduan etzaiteken
ezkontzarik zerra.

Atarrazko ezkilak
ederki du soñatzen,
andere Santa Juana
orai zaigu partitzen.

Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bildumatik. Irugarren zenbakiaz seiñalatuta dagoan eta leen ere aitatu degun kuadernoan, zenbait orri erantsita daude, eta bertso auek orri oietan arkitu ditugu. Batzuek, beintzat,

Urtsuako kantarekin zer ikusirik badute. Azken bertsoa, berriz, leen esan degunez, *Atarratz jauregian* kantarena da.

* * *

Aitzol zanaren bilduma ortan oar luze au ere arkitu degu:

“Ezkonduta arratsean juan ziran nun mezak ematen ziran egunoro: eta, al-dare aurrean jarri zanean, aizkoraz il zuan.

Eztaitako jantziaz jantzita zegoan, eta il baño lenago jantzia autsi egin zion.

Iges egin zuan mandoain perrak aldrebes jarrita, aldrebes jarri zizkan perrak arotzari sari ona emanaz”.

* * *

Segurutzat jo ez baditeke ere, bertso-puska auek ere zer ikusirik izango du-te agian Urtsuako kantarekin. *Aitzol* zanaren bildumatik ditugu:

Lenago bizi giñan aide Usu ederrian.
Orai zer da? Diabruak lotu gaitu
eta gure Usuko bizitzia diabruak eraman du.

Bertziak bertziak direla,
gure familiaak, oi dela medio,
erreka jo biar du.

Amak ikusi zitunian,
bertziak bertze negarra eman zion;
senarra, berriz, oi dela medio,
errekkara sartu bear degu.

X

- Kalian zer berri da,
ene anaia jauna?
- Zu añaña zarela,
ene arreba Joana.
- Zertaik zautu destate,
ene anaia jauna?
- Kotilluna laburtu,
nere arreba Juana.

- Ez nazazula sala
nere aitametara,
eta are gutiago
Utsuko kondetara.
- Zer emain duzu sari,
nere arreba Joana?
- Txapela lumarekin,
nere anaia jauna.

- Hori ez dut aski,
nere arreba Joana.
- Bortzeten ehun luis,
nere anaia jauna.
- Hoiek ez ditut aski,
nere arreba Joana.
- Zaldia zelaturik,
nere anaia jauna.
- Hoik guzik eztuzu aski,
nere arreba Joana.
- Aurra besoetara,
nere anaia jauna.

- Utsuak errenta handi,
zazpi errota berri,
zortzi jauregi zuri.
- Hoien guzien gatik
ez nago Utsura nahi.

Utsuak eder leio,
bentanak are geiago,
Utsuko etxeokoandrea
Santanen defuntu dago.
Utsuan defuntua
Santanen kausitua,
adios erran gabe
etxetik partitua.

Nere arreba Mari Katalin
emakume fidela,
pasalunbre haundiarekin
gelditu bide da.
Denboran aitortu balu
traba gelditu zela,
horregatikan ez daiteke
ezkontzarik zerra.

A. Apat-Etchebarne: *Noticias y viejos textos de la Lingua Navarrorum*, Donostia, 1971.

Leendabiziko bertsoaren irugarren lerroan, onako oar au egiten du: "Variante: embraza... y también izorra zarela".

Bertsoen aurretik, berriz, argibide auek ematen ditu:

"Una versión cuenta que una hermosa dama, hija de la casa Lantaina, del Norte del País, se casó con el heredero del palacio baztanés; y que en el banquete nupcial notó éste que su esposa estaba en cinta; le engaña diciendo que antes de retirarse debían hacer una visita a la ermita del palacio; llegados que fueron al patio, el novio le vitupera y le arranca el vestido de novia. Y después de estrangularle con un pañuelo de seda, toma un caballo que un criado le tenía apostado, huyendo seguidamente a Francia. Algunos añaden que las herraduras del caballo las tenía clavadas de atrás adelante, para confundir la pista de la huída."

Las estrofas que he recogido no concuerdan con las que Azkue da en el tomo X de su Cancionero. Tampoco relatan lo que youento arriba. Mi versión tiene estrofas que faltan en la de Azkue y al contrario; entre ambas cabe componer el estropeado rompecabezas. Relata mi primera estrofa el encuentro de la novia con su hermano, conforme se señala más abajo...; en las últimas, éste le pregunta las grandes rentas de Ursúa, siete molinos nuevos, con ocho palacios blancos, a lo que su hermana Yoana contesta que, con todo, no quiere ir a Ursúa.

Otras estrofas aún, describen los ventanales del palacio, y la aparición del cadáver en la ermita de Santa Ana. Esa Marikattalin de mi cantar es la hermana de la víctima”.

Beste bi bider ere argitaratu zuan Apat-Etchebarne jauna zanak kanta au: *MisCELÁNEA vascónica. Leyendas y folklore de Baztán. El drama de Ursúa, Diario de Navarra*, 1979-XI-18-n, leenengo bi bertsoak; eta *Han-Hemen-kako berriak, Iraileko Musikako “Grande Semaine”, Diario de Navarra*, 1980-X-1.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1984), bigarren liburuan, 180 orrialdean.

XI

Allegretto

U - tsu - ak e - der le - yo Lan - ta - nak
e - de - rra - go. Lan - ta - ña - ko a - la -
ba U - tsu - an di - fun - tu da - go,
U - tsu - an di - fun - tu da - go.

Utsuak eder leio,
Lantanak ederrago,
Lantanak ederrago,
Lantañako alaba
Utsuan difuntu dago,
Utsuan difuntu dago.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, III*, Donostia, 1994, 1031 zenbakian, 1430 orrialdean, argibide auekin:

“Infor.: Paz Salaburu, costurera. Loc. rec.: Elizondo. Fecha: 25 de febrero de 1912. Clas.: narrativa”.

XII

Andantino

U - tsu - an de - fun - tu - a Sant' A - nan kau - si - tu -
ba, Sant' A - nan kau - si - tu - ba. A - di - oa e - rrان ga -
be e - txe - tik par - ti - tu - ba.

Utsuan defuntua
Sant'Anan kausituba,
Santa'Anan kausituba.
Adioa erran gabe
etxetik partituba.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, III*, Donostia, 1994, 1031 zenbakian, 1431 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: Bartolo Garbizu. Loc. rec. Irurita. Fecha: 18 de Marzo de 1934. Clas.: narrativa".

XIII

Urtsuak iru leio,
Santa Anak or geiago,
Urtsuko etxekoandrea
Santa Anan defunta dago.

Itxasoan amar ontzi,
amarraak mariñelekin,
mendian iru artalde
beren artzainorarekin;
oriengatik guziengatik
Urtsura etxekoandre
ez nua ni.

Urtsuan defuntua,
Santa Anan kausitua,
adiosikan erran gabe
etxetik partitua.

Andrea Baigorrikoa omen zan. Ezkondu ziran egunean, bazkal ondoan, se-narrak andrea il zuan.

Kanta-puska auek, gerok Arizkunen jaso genituan, 1964 urteko udaran.

IV

– *Hola, hermana mía, mi hermana Juana.
He oido una noticia, mi hermana Juana.*

– *Pues ¿qué has oido, mi señor hermano?
Que estás embarazada, mi hermana Juana.*

– *¿En qué me han conocido, mí señor hermano?
En que has engordado de cintura y se te ha acortado el cotillón.*

– *No me denuncies a mis padres,
y menos aún a los hijos de la casa de Ursúa.*

– *¿Que recompensa me darás, mi hermana Juana?
Un sombrero con su pluma, mi señor hermano.*

– *Eso no es recompensa, mi hermana Juana.
Quinientos liseses, mi señor hermano.*

– *No son bastante, mi hermana Juana.
Un caballo ensillado, mi señor hermano.*

– *Todo eso no es bastante, mi hermana Juana.
Ser padrino del niño, mi señor hermano.*

– *Eso sí, eso es recompensa, mi hermana Juana:
ser padrino del niño, mi hermana Juana.*

– *Siete nuevos molinos, ocho blancos palacios...
A pesar de todo eso, yo no deseo ir a la casa de Ursúa.*

*La casa de Ursúa tiene hermosas ventanas; más aún la de Lantana;
la hija de la casa de Lantana yace muerta en la casa de Ursúa.*

*Difunta de la casa de Ursúa, encontrada en (la ermita de) Santa Ana;
sin decir adiós abandonó la casa.*

*Nuestra María Catalina, mujer leal,
parece que ha quedado con grande pesadumbre.*

*- ¿Es que no sabías que estabas embarazada?
Pues entonces no se podía haber concertado el matrimonio.*

(Traducción de la versión de Jorge de Riezu, que él llama "versión ecléctica", al recoger de varias fuentes las estrofas. Debe aún así completarse con las explicaciones en prosa de los distintos informantes: que el marido se dio cuenta del estado de su mujer, que le invitó a entrar en la ermita de Santa Ana, y que allí la mató, huyendo inmediatamente en un caballo con las herraduras al revés.)

“Urzo luma gris gaxua...”

I

– Urzo luma gris gaxua,
hore bidajin bahua;
hatzamaiten balin bahai
Musde Sari jaun apetitu hun harek,
begiz ikusten balin bahai,
Petiriñalat bahua.

Urzo gaxuak umilki
diozu Musde Sariri:
egundano eztereiola
egin ogenik jaunari,
igaraitera utzi dezan
usatu dian bideti.

– Auher duk, urzo maitia,
juratu diat buria:
aurten, aurten jin behar duk
eneki Petiriñalat,
nik han emaneko dereiat
arto et'aziz asia.

– Artoz asia hun duzu
libertatia bagunu;
bena guri Oriko ezkurtto
hurak hobe zizkutzu,
anglesa Frantzian sartzen beita
Espagnalat baguatzu.

– Urzo maitia, au'xilik,
Frantzian eztuk anglesik;
Baionara jinak oro
Agaramuntek akaziren tik,
Frantzia lurrian eztuk sarturen
zaragolla luz hetarik.

– Jauna, fida niz zure erraner,
fidago ene hegaler;
guraintzi erraneko derezu,
jiten badie, angleser,
nik ere esaneko dereiet
españul papo gorrier.

– Guraintzi erraitez angleser
ni naika ezarten mezuler?
Orai diat, orai, ekusten
nitzaz hizala trufatzen,
eta beste urte batez
enaik bortin freskerazitzen.

Augustin Chaho zanaren (1810-1858) bildumako esku-idazki batetik; gaur Telesforo Monzón-Olasoren alargunaren mendean.

II

- Urzo luma gris gaixoa,
hore bidajian bahoa;
batzen bazaik Musde Sari, jaun apetitu hun hori,
begiz ikusten balin bahai, Petiriñerat bahoa.

Urzo gaixoak eztiki
derio Musde Sariri:
egundano ezteriola ogenik egin jaun hari,
baratu gabe utzi dezan usatu dien bideti.

- Auher duk, auher, urzoa,
juratu diat fedia;
aurten jin behar duk eneki Petiriñera,
nik han emanen deriat artoz et'azziz asia.

- Artoz asia hon duzu,
libertatia bagunu;
ohiko bago ezkurtto guri hobexe zikuzu,
anglesia Frantzian sartzen eta Espanalat bagoatzu.

- Urzo, ago ixilik,
Frantzian eztuk anglesik;
Baionara jiten bada zagoilla luzetarik,
errege Garamontek oro erhoren zitik.

Fida niz zure erraner,
fidago neure hegaler;
goraintzi erran ezazu angles zaragoilla luzer,
nik erranen español kokoz gorrier.

Musde Sari Lapitzondo
erretor bi herritako;
harek aurten egiten deie urzoer ebanjelio,
hugunturik ezpaitzien Espanalat joan zaitzo.

– Adio, urzoak, adio,
daigun setemer artio;
hume ederrik haz ezazie; jinen girade gu oro,
sare berriak hedaturik zien atzamaiteko.

– Sari, zoatza etxerat,
Mauletik Petiriñerat,
txori edo bilagarro gizen zenbeiten jaterat,
urzo luma azkar hoiek ezkutuk hire bianda.

– Urzo, azai edo eper,
eniz hanbat fida haier;
hegaltorez igaraiten gure punpa handier
hun bide hunik eman biegu gure polbora trager.

Parisko Liburutegi Nazionalean gordetzen dan esku-idazki batetik, *Nouvelles acquisitions* sortan, 3342 zenbakian.

Esku-idazkiaren bukaeran, *Eugène de Monglave* izena agertzen da. Bera izango da, ziur aski, kanta au nunbaitetik edo norbaitengandik jaso zuana.

Bertsoen atzetik, adierazpen jakingarri au irakurtzen da:

“Ce chant allégorique date de 1815, époque de réaction politique. Les partisans du grand homme, à la chute de l’Empire, s’enfuirent du Pays Basque en Espagne pour ne pas tomber entre les mains des royalistes que, à cette époque, firent verser bien de larmes dans les provinces méridionales.

M. de Gramont, envoyé à Hartwel pour annoncer à Louis XVIII la chute de l’Empire, devint dépoussé des Basses Pyrénées”.

Laugarren bertsoaren irugarren lerroan, ohiko irakurtzen dan ortan, Orikobearko luke. Ori mendi baten izena dala ez jakiñik, gaizki kopiatu alegia.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1984), bigarren tomoan, 129 orrialdean.

III

– Ene urzoñi gaixoa,
hore bidian bahoa;
kasu emak, musde Sarri, ihizlari zorrotz hura,
haiduru duk, oi, gaizki, Petiriñalat bahoa.

Urzo gaixoak umilki
erraiten musde Sarriri:
nahi badu den utsian haren saretan erori,
utz dezan iragaitera bere usatu bideti.

– Auher duk, auher, urzoa;
juratu diat fedia.

Aurten behin jin behar duk Petiriñala;
han nik emanen dereiat artoz eta ziz asia.

– Artoz hun duzu asia,
denean libertatia.

Eni Orikor ezkurra janari bat zait hobia;
angleser ihesitzeko uzten dut, uzten, Frantzia.

– Ago, urzoa, ixilik:
Frantzian ez duk anglesik;

Agaramuntek Baionan jinak oro erhaiten tik.
Eztuk Petiriñalako zaragolla luze hetarik.

– Fida niz zure erraner,
fidago nire hegaler.

Goraintzi erran izezu jiten badira angleser;
halaber erranen diet español papo gorrier.

– Mezuler naiza ni uzten?
Ene sariak hola hesten?

Enaik, ez, beste behin bortian hotz eraziren,
ez ere hik beste urtian nire irrigarri emanen.

– Urzo ederra, airian
arin bahoa bortian.

Jaun larru xuriak hiri mintzo auherrian,
hire adin heiñeko gutik lumak garbi hen kaiolan.

Francisque Michel: *Le Pays Basque* (Paris, 1857), 293 orrialdean. Aurretitik oar jakingarri au eskeintzen digu:

"La chanson suivant fut composée pour garder le souvenir d'une petite mésaventure d'un certain seigneur de Sarri, bâtard de Tresville, qui, sous prétexte de chasser la palombe, s'était installé avec ses filets sur un coteau, où il guettait le

passage d'une etcheko-alaba, que la crainte des Anglais chassait vers l'extrême frontière...».

Michel-ek onela du 7/4 lerroan: *hire irigarri emanen*. Guk nire idatzi degu, orrela bear dualakoan.

* * *

Fr. Michel jaunaren liburuko kantak bigarren aldiz agertu zituan *Auñamen-di argitaletxeak*, Aingeru Irigaray zanak prestatuta: *Poesías populares de los vascos*, 1963.

Oar batean onela dio Irigaray jaunak:

“Aparte de las variantes publicadas en los Cancioneros, hay versión suletina con 3 estrofas más, que copiamos a continuación. Hemos corregido erratas y algunos versos de Michel”.

Irigaray-k sartutako aldaketak onako auek dira:

1/2: hire bidian bahoa; 1/3: kasu eman...; 1/4: begiz ikusten bahu Petiriñalat bahoa; 2/3: egundano ezteiala ogenik egin jaun hari; 4/1: artoz hun duzu asea; 4/3: ...bai zait hobia; 4/4: ihe-siteko; 7/3: Mezuler naika...; 7/2: ene sareak hola husten; 7/4: ez ere ni...; 8/4: garbi tun kaiolan.

Irigaray jaunak eskeintzen dizkigun beste iru bertso berri oiek, berriz, onako auek dira:

Jauna zuaza etxerat,
Mauletik Petiriñalat
zori eta biligarro zumaiten jatera
urzoegal azkartto horiek eztira zure bianda.

Musde Nogez Lapitzondo
erretor bi herritako
aurten urzoer egin dereier bortian Ebanjelio
unkunturik ezpaitzien Epañalat juan naiko.

Adios urzoak adio
daigun seteme artino
hume ederrik haz ezazie gure ikustera jiteko
guk ere sareak prestaturen tugu zien batzeko.

Alegia, Parisko Liburutegi Nazionalean gordetzen dan esku-idazkiaren 9, 7 eta 8-garren bertsoak, zenbait aldaketarekin.

IV

Ürzo lu - ma gris ga - chu - a, O - re bi - da - jin ba - hu -
a; Ürzo lu a; Ba - ra-tzen ba - zaik mus - de Sar - ri, jaon a - pe -
ti - tü hun hu - ra, Be - giz i - khus - ten ba - lin ba - hai, Phe - ti - ri -
ña - lat ba - hu - a.

- Ürzo lüma gris gaxua,
Orai bidajin bahua:
baratzen bazaik musde Sarri, jaon apetitü hun hura,
begiz ikusten balin bahai Petiriñalat bahua.

- Ürzo gaxuak umilki
diozü musde Sarri:
egündano eztereiola ogenik egin jaon hari,
utzi dezan igaraitera üsatü dian bideti.

- Auher dük, auher, ürzua,
jüratü diat fedia!
Aurten aurten jin behar dük eneki Petiriñala;
han nik emanen dereiat art'eta zahiz asia.

- Artoz asia hun düzü
libertatia bagünü;
Oriko bago ezkürtto hurak guri hobexe zizkützü,
anglesa Frantzian sartzen bada Espanalat baguatzü.

– Ürzua, ago ixilik,
Frantzian eztük anglesik;
Baiunara jiten badira Agaramuntek hilen tik;
Petiriñalat eztük jinen zaragolla lüzetarik.

– Fida niz zure erraner,
fidago ene hegaler;
goraintzi erran behar derezü jiten badira angleser,
nik ere ber gisan erranen diet español papo gorrier.

– Goraintzi erraile angleser
ni naika ezarten mezuler?
Orai diat orai ikusten nitzaz hizala trüfatzen,
ar'eta enaik beste urte batez bortian freskeraziren.

– Jaona, zuaza etxerat,
Mauletik Petiriñalat;
xori eta bilagarro gizen zunbaiten jatera,
ürzoegal azkartto hoiek ezkira zure bianda.

J. D. J. Sallaberry: *Chants populaires du Pays Basque* (Baiona, 1870), 144 orrialdean.

Leenengo bertsoaren bukaeran oar au egiten du:

“*Petiriña, nom Souletin du village de Beirie, canton de Saint-Palais, arrondissement de Mauléon (Basses-Pyrénées)*”.

Liburuaren *Notes* izeneko saillean, berriz, Agaramunteko familiaren berri ugariak ematen ditu.

* * *

Jean de Jaurgain jaunak, bere *Quelques légendes poétiques du Pays de Soule, La Tradition au Pays Basque* (Paris, 1899) liburuan, 404 orrialdean, Sallaberry-k bezelaxe agertzen ditu bertso guziak, aldaketa auek izan ezik:

1/3: gertatzen bazaik musde Sarri, jaon apetu hun hora; 3/3: aurten aurten jin behar diala eneki Petiriñala; 3/4: han nik emanen dereiat artoz eta ziz asia; 5/3: Baiunara jiten badira Agaramuntek hilen tik; 7/1: Goa'intzi erraile Angleser; 7/2: ni naik'ezarten mezuler? 7/4: bena enaik beste urte batez bortian hotzeraziren; 8/4: urzoegal azkartto hoiek eztira zure bianda.

Ondoren, kanta oni buruz istoria-azterketa bat egiten du, argibide jakingariak emanez.

Jaurgain jaunaren iritzirako, *musde Sarri* ori Zuberoako Iruri erriko Mont-Real etxeko sasikume bat izan zan.

Andurain familiar, leengo zaarretatik aotik aora zetorren gertaera au kontatzen omen zan: Armand-Jean de Mont-Real errege-zaintzaille zan; emezortzi edo emeretzi urte zituan. Egun batez, Iruriko gazteluan, beraren ama zegoan gelan edo salan sartu eta onela esan omen zuan:

– Seme bat izan det, ama. Zer izen ezarri nai zenioke?

Amak onela erantzun zion euskeraz:

– Sarri.

Alegia, ez Bizkaian eta Gipuzkoako zati batean itz orrek daukan esan-naia-rekin: askotan, maiz; baizik-eta Gipuzkoako Errenerteri-Oiartzun aldean, Goi-Naparroan eta Bidasoaz arunzko Euskal Erri guzian daukanarekin: laster, aurki. Xenpelar bertsolariak ere ala erabiltzen zuan itz ori: "mutil zarraren bi-zimodua esango det sarri".

Sarri, ain zuzen, Mont-Real famili orrek Baxenabarren, Juxue errian, zuan etxe edo jauregi baten izena zan.

Armand-Jean errege-zaintzaille gazte orrek, izen-abizen auekin bataiatu zuan bere seme ori: Jean-Pierre de Sarry.

Urteen buruan, apaiz egitera bultzatu zuan aitak. Leenengo, Zuberoako Iruriko (*Trois-Villes*) apaiza izan zan; urrena, Baxenabarreko Petiriñakoa (*Beyrie*).

Sarri apaiz ori teologian *doctor* izateraiño iritxi zan; 1777-ko urriaren 25-ean il zan, irurogei ta sei urterekin. Zuberoan eman zioten lur, Barkoxeko eliz-atarian. Aren il-arria antxe omen zan Jaurgain jaunaren garaian.

Bostgarren bertsoan aitatzen dan *Agaramunte* edo *Agramunte* ori, Jaurgain jaunaren iritzirako, Luis de Gramont omen da. Titulu asko zituan: Bidaxeko jauna, Gramonteko dukea, Frantziako parea, Naparroako *virrey* edo errege ordezko, erregearen soldadu-taldeen buruzagi ordezko, Baionako kapitan-buru. Fontenoy izeneko burukaldian il zan, 1745-eko maiatzaren 11-n.

Eta Luis ori ez bada, beraren seme Antoine-Antonin de Gramont izango da. Aita il zanean, onek artu zituan Naparroako errege ordezko eta Baionako kapitan-buru izeneko karguak.

Leen ikusi degunez, kanta au 1815 urtekoa dala irizten zion Eugene de Monglave dalakoak. Jaurgain-ek, berriz, leenagokoa dala esaten digu. Gu ez gera auzi ortan sartzen; irakurleak, nai duan erabakia ar dezala.

* * *

Juan Karlos Guerra jaunak, bere *Los cantares antiguos del euskera liburuan* (Donostia, 1924), 149 orrialdean, Jaurgainek bezela ditu bertso guziak, eta beraren istoria-azterketaren laburpen bat egiten du.

Juan Gorostiaga: *Antología de Poesía Popular Vasca*, San Sebastián, 1966, 37 orrialdean. Aldaketa batzuk baditu, baiña aitatzerik merezi duanik ez.

A. Jorge Riezu: *Flor de canciones populares vascas* (Buenos Aires, 1948) eta *Nafarroa-ko euskal kanta zaharrak*, Iruñe, 1973.

Onek onela adierazten du kanta onen doiñua eta bertsoak nundik artuak dituan:

“La melodía se ha tomado de Sallaberry; el texto de J. de Jaurgain, pero teniendo a la vista las versiones que se citan luego en la Bibliografía y aprovechando oportunas variantes”.

Eskualdun kantuak, Buenos Aires, 1904. Onek Sallaberry-ri kopiatzen dio.

Kantu kanta kantore liburuan (Baiona, 1967), erromantze au ere badator, Sallaberry-k bezelaxe, aldaketa auek izan ezik:

1/3: gertatzen bazaik musde Sarri; 3/3: aurten, aurten jin behar diala; 3/4: artoz eta ziz asia; 5/3: Agramuntek hilen tik; 5/4: Petiriñalat eztuk helturen zargolla luze hetarik; 7/4: bena enaik beste urte batez bortian hotzeraziren.

V

– Urzo luma gris gaixoa,
ore bidajian bahoa;

haiduru duk musde Sarhi, ihizlari zorrotz hora;
begireik: ikusten bahai, oi!, Petiriñalat bahoa.

Urzo gaixoak umilki
erraiten musde Sarriri:
nahi bada utsian den haren saretan erori,
eitz dezan igaraitera bere usatu bideti.

– Aoher duk, aoher, urzoa;
juratu diat fedia,
aorten behin jin behar hiz eneki Petiriñala.
Han nik emanen dereiat artoz eta ziz asia.

– Bai, hun lukezu asia,
denian libertatia.
Oriko ezkurra zitazut janari bat hobia;
angleser ihes joaiteko, eizten dut, eizten, Frantzia.

– Urzoa, ago ixilik,
Frantzian eztuk anglesik.

Agaramuntek Baiunan jinak oro hilen tik;
eztuk Petiriñalako zaragolla luze hetarik.

– Fida niz zure erraner,
fidagoene hegaler;
goraintzi erran behar ziezua, jiten badira, angleser,
halaber nik ere erranen diet espainul papo gorrier.

– Mezuler naika ni eitzten,
ene sariak hol'esten?
Untsa diat orai ikusten nitzaz hizala trufatzen,
ez, enaik beste urte batez bortian hotzeraziren.

– Urzo ederra, airian
arin bahoa bortian;
jaon larru xuriak hiri mintzo tuk aoherrrian;
hire adin heñeko gutik lumak garbi hen kaiolan.

M. Charles Bordes: *La musique populaire des basques*, 1897. Doiñua ere
badu, baina Sallaberry-ri kopiatua.

VI

The musical score consists of three staves of music in 3/4 time, with a key signature of one sharp (F#). The lyrics are written below the notes. The first staff starts with 'Ür - zo lu - ma _ arr - e' and ends with 'hi - re txan -'. The second staff continues with 'Ür - zo gai - xo - ak' and ends with 'Mus de'. The third staff concludes with 'Sarr - hi - la'.

Ür - zo lu - ma _ arr - e gai - xo - a hi - re txan -
Ür - zo gai - xo - ak a - phal - ki di - o - zü

go - tan ba - ho - a; ba - tzen ba - dük Mus de
mus de Sar - hi - ri e - gun - da no ez - te - rei

Sarr - hi - la jaun - go - se han - di - dun hu -
o - la o - ge - nik e - gin - jaun ha -

ra;
ri,
be - gi - ez
ü - tzi
ik-husten ba - lin ba - hai,
de-zan i - ga - rai - te - ra
Phe - ti - ri - na - lat
oi du - en bi - de ba - ho - a.
ba - re - ti.

Ürzo lüma gris gaixoa,
hire bidajin baha;
batzen badük Mus de Sarhi,
jaun apetitü hun hura,
begiez ikusten balin bahai
Petirinalat baha.

Ürzo gaixoak apalki
diozü mus de Sarhiri:
egündano eztereiola
ogenik egin jaun hari,
ützi dezan igaraitera
oi duen bide bereti.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 81 zenbakian, 137 orrialdean; Zuberoan, Garandainen, Etxeber apaiz jaunari jasoa.

VII

Ürzo lüma gris gaxua,
hire bidajian baha;
batzen bazaik Musde Sari jaun apetitü hun hura,
begiez ikusten balin bahai Petirinalat baha.

Ürzo gaxuak ümilki
errepotü Musde Sariri:
egündano eztereiola ogenik egin jaun horri,
trublatü gabe ützi dezan üsatü dian bideti.

– Auher dük, auher, ürzua,
jüratü diat fedia;
aurten, aurten jin behar dük eneki Bentaberrila,
nik han izanen dereiat artoz et'aziz asia.

– Ase hura hun lükezü,
libertatia baginü;
Oriko bago ezkurtto hurak guri hobexe ziküzü,
anglesa Frantzian sartzen baita Espanalat baguazü.

– Ürzu, ago ixilik,
Frantzian eztük anglesik;

Baionarat jiten badira Agaramontek hilen tik,
Petiriñalat eztük, ez, jinen zaragolla lüzetarik.

– Goaintzi errezu angleser,
gure partez, otoi, jaun haier;

guk ere erraneko deregü español lepo gorrier;
fida niz zure erraner, bena fidago ene hegaler.

– Ni naika ezarten mesajer
erraiteko angleser?

Orai diat, orai, sinesten nizaz hizala trüfatzen,
ez naik, ez, ni daigün urtian bortian hotz eraziren.

– Jauna, zuaza etxerat,
Maulerik Bentaberrilat,

xoxo edo bilagarro gizen zumaiten jatera;
ürzo lüma gogor horik eztira jaunen bianda.

– Musde Bobes Lapitzondo,
erretor bi herritako;

harek aurten egin ümen du ürzuer ebanjelio,
benia inküntürik ezpeizian Españolat juan zaizko.

Luis Dassance jauna zanaren paperetan agertutako esku-idazki batetik.

Azkenik, ona beste doiñu bat, Luis Dassance jaunaren paperetan agertua:

II

– *Amable paloma de plumaje gris,
que sigues tu camino;*

*si te encuentras con el señor de Sarri, de tan buen apetito,
si te pones al alcance de su vista, habrás de ir a Petiriñé.*

*La amable paloma dulcemente
le dice al señor de Sarri:
que nunca le ha faltado a ese señor;
que, sin detenerle, le deje seguir el camino acostumbrado.*

- Es inútil, paloma, es inútil
lo he jurado por mi fe:
este año has de venir conmigo a Petiriñe,
allí te daré yo hartura de maíz y grano.
- Es buena la hartura de maíz,
teniendo libertad;
los hayucos del monte Ori son mejores para nosotros;
el inglés va invadiendo en Francia y nos vamos a España.
- Calla, paloma;
en Francia no hay ingleses:
Si a Bayona llega alguno de esos pantalones largos,
el virrey Gramont acabará con ellos.
- Me fio de tus palabras,
pero más de mis alas;
dales saludos a los ingleses, de pantalón largo;
yo se los daré a los españoles, de cogote colorado.
- El señor Sarri Lapitzondo,
párroco de dos pueblos;
él este año les leería a las palomas el evangelio,
si no se le hubieran ido disgustadas a España.
- Adiós, palomas, adiós,
hasta que llegue setiembre;
criad buenos palominos; todos nosotros vendremos
a cazaros a vosotras, tendiendo redes nuevas.
- Sarri, vuelve a casa,
de Mauleón a Petiriñe,
a comer cebadas aves y còdornices,
pues estas palomas de recio plumaje no somos vianda tuya.
- Paloma, becada o perdiz,
no me fio mucho de ellas;
batiendo sus alas pasan sobre nosotros,
les hemos de enseñar un buen camino con nuestra pólvora.

“Urzo luma gris zuria...”

I

– Urzo luma gris xuria,
jakin zak hire bidea.

Ziloka horiek utzirik, bara zak hemen juaitia,
mendi pareta pollit huntan baduk hiretzat lekia.

– Nahi dut juan erditik,
ez duket hor nik lanjerrik.

Nahi baduzu zukigorri etxerat zure berririk,
airian pasatuko niz laster Donazaharretik.

– Ez dut ikusten, urzua,
Ozkax handiko lepua?

Hango saretan utziko duk, segur, hik heure burua;
nahi baduk eskapatu, jo zak hegalez zerua.

– Hanitz esker zuri, jauna;
hartzen dut zure errana.

Ozkaxeko makil zuriak Duprat nausiaren lana;
utziko ditut erortzerat eta juanen naiz aintzina.

– Urzuetan ederreña,
Jinko Jaunak hak egina;

mendi gorak iragan gabe pasa zak hemen eguna;
Iratiko oihanak ez dik emanen ezkur huna.

– Ezkurrak ez du parerik
hartarikan maite dut nik.

Bainan zure ezkurra zer den goguan iraganik,
botigetan saltzen den draga harman duzula emanik.

– Urzo txar mehe perdela,
bistatik hail berehala!

Indar handirik ez ukanez juaiten hiz apal apala;
agian ez duk pasatuko bizirik Ozkaz hegala.

– Oraixtian nintzun eder,
kanbiatu nuzu laster.

Adio, beraz, jaun Bidarte, bi milaka zuri esker;
nahi baduzu gaur apaldu, habilkiago joka bester.

Luis Dassance jauna zanaren paperetatik, eskuz idatzitako orri batetik.

Errepikan kanta-bilduma, Baiona, 1944.

Kantu kanta kantore bilduma, Baiona, 1967.

* * *

Leenengo bertsoa, itz baten aldaketarik gabe, A. Chaho zanaren bilduman ere arkitu degu. Bilduma ori gaur egun T. Monzón zanaren alargunak gordezen du. Ez genduan geiago kopiatzerik izan. Baiña baditeke L. Dassance jaunak andik kopiatua izatea.

I

– *Paloma de plumaje gris y blanco,
aprende tu camino.*

*Dejando esos agujeros, detén aquí tu marcha,
en esta bonita ladera de montaña hay para tí sitio.*

– *Quiero marchar por el centro,
por ahí no correré peligro.*

*Si deseas enviar a casa noticias tuyas,
pasaré pronto volando sobre St- Jean-le-Vieux.*

– *¿No ves, paloma,
el collado de Ozkax-handi?*

*En las redes de allí dejarás tú, sin duda, tu persona;
si quieres escapar, vuela batiendo tus alas hacia el cielo.*

— *Muchas gracias a vos, señor,
tomo en cuenta tu consejo.*

*Los postes blancos de Oxkax son obra del señor Duprat;
dejaré que se caigan y seguiré para adelante.*

— *Tú, la más hermosa de las palomas,
obra de Dios nuestro Señor,
sin cruzar los altos montes pasa aquí el día;
los bosques del Iراتi no te ofrecerán buena bellota.*

— *La bellota no tiene igual,
por eso la amo yo,
pero considerando en mi mente qué es tu bellota,
que has puesto en tu arma veneno que se vende en las tiendas.*

— *Paloma flacucha, de mala traza,
vete pronto de mi vista.
Al no tener mucha fuerza vuelas muy bajo;
ojalá no pases con vida la ladera del monte Oxkax.*

— *Hace poco era hermosa,
me has cambiado rápidamente.
Adiós, pues, señor Bidarte, dos mil gracias a vos;
si quereis cenar hoy, jugad más hábillmente con las demás.*

“Ürzo xuri bat jin izan zaikü...”

I

The musical score consists of four staves of music in common time (indicated by '2' over a '4') and a key signature of one flat. The lyrics are written below each staff. The first staff starts with 'Ürzo xuri bat jin izan zaikü'. The second staff continues with 'A - rhan - tü - se - ko bor - tün ga - ñan.'. The third staff continues with 'E - erran ge - nei - on khor - te - res - ki'. The fourth staff concludes with 'gaur ba - ra la - din gu - re - ki.'

Ürzo xuri bat jin izan zaikü
Arantzüzeko bortün gañan;
erran geneion kortereski
gaur bara ladin gureki.

– Ürzo xuria, ürxo xuria.
erran izadazüt, otoi, egia:
Nuat hunduen bidajez
sanjatü gabe pasajez?

– Ene herritik partitü nintzan
Españalako deseñian;
heltü niz Arantzützera
ene plazeren galtzera.

Artzain gaztia bortü goretan
oihüz ari da doloretan:
antxü bat diala erosi,
bera dereiela ebatsi.

– Ene antxü, antxü karioa,
bihotzez ungi maitatüa,
nik etzitüt, ez, kitatüren,
lehen dit bizia galduren.

Aita Jose Antonio Donostiak jaso eta Baionako *Gure Herria* aldizkarian agertua, 1928 urtean, 12-garren zenbakian, *Suplemento Musical* zeritzan saillean. Bertsoen ondoren oarau egiten du:

"Copié à Moncayolle à Martin Sallaberry, en 1923. "Arantzutze" est une cabanne pour les bergers, située entre Lacarry et Eskeleak (Pic des Escaliers)".

Baita ere Aita Donostiarren *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 1022 zenbakian, 1408 orrialdean.

Luis Dassance zanaren paperetan ere agertu da kanta au, eskuz idatzita, bainā aldaketarik gabe.

II

Ür - zo chou - ri - a, ür - zo chou - ri - a, _____

E - erran i - za - dak o - thoi e - gi - a: _____

Nou - rat bu - ruz houn - dou - en bi - da - jez, _____

Al - da - tu ga - be pa - sa - jez. _____

– Urzo xuria, urzo xuria,
erran izadak, otoi, egia:
nurat buruz hunduen bidajez
aldatu gabe pasaje?

– Ene herritik partitu nintzan
Españañako deseñian;
heldu nunduzun Ahansusera,
ene plazeren han galtzera.

M. Charles Bordes: *La musique populaire des basques*, 1897.

I

*Una paloma blanca ha venido a lo alto del puerto de Arantzuz;
le dijimos cortésmente que se quedara aquel día con nosotros.*

*– Paloma blanca, paloma blanca, dime, por favor, la verdad:
¿a dónde ibas de viaje, sin cambiar de ruta?*

*– Partí de mi pueblo, con la idea de (ir a) España;
he llegado a Arantzuz para perder mi felicidad.*

*Un pastor joven en lo alto del puerto grita con dolor:
que ha comprado una cordera y se la han robado.*

*– Cordera mía, cordera estimada, amada de todo corazón;
yo no te abandonaré, no; antes perderé la vida.*

Izen ona

(El honor)

*Beren izen ona eta ohoreagatik kezka bizia izan
dute beti gizonak. Gai onek literatur-orrialde asko
bete ditu izkuntza guzietan. Gure erromantze zaa-
rretan ere berdin gertatu da. Ala, beste sail au osa-
tu aal izan degu.*

El honor y la honra han sido una preocupación primordial para el hombre, llegando a constituir un tema literario que ha llenado muchas páginas en todas los idiomas. Entre nosotros ha inspirado asimismo muchos viejos romances, de modo que hemos podido integrar con ellos este apartado.

“Agur, agur, agur, ama neuria...” edo “Etorri nintzianian Frantzia kortetik...”

I

- Agur, agur, agur, ama neuria.
Ongi torri zarela, seme neuria.
Ezkondu edo ezkongai eldu zara, semia?
– Ezkondurik eldu naiz, ama neuria.

- Frantzeska edo española dakartzu, andrea?
– Frantzeska dut bañan soil guziz noblia.
– Nik ez dut amititzen frantzeska erraňaik;
morturat eraman eta il egin bear dik.

Andik gan nitzen anaiaengana,
anaiaengana ta zaarrarengana;
ark ere erran zidan amak bezala:
mortura eraman ta il egin nezala.

Andik gan nitzen anaiaengana,
anaiaengana ta apezarengana;
ark ere erran zidan bertziak bezala:
mortura eraman ta il egin nezala.

Andik gan nitzen arrebarengana,
arrebarengana ta gaztenarengana;
artxek erran zidan biar den bezala:
etxera eraman ta maitatu nezala,
ark iñen nauela kuñata bezala.

Yendiak eldu dire andik-emendik,
nere arreba Yuana ezta ageri iñundik.
– Gaizueu bat urre badut aitetxik emana,
bizik uzten banauena eman daizuet dena.

Neregatik ezpada ere barnekuagatik.
– Ik barrenian zer dun onbor zar bat baizik?
– Onbor zar balin badut egonek emana tuk,
onbor zar balin badut egonek emana tuk.

Andria igan nian zaldian gañera,
mortura eraman ta il egitera.
– Bat au dut senarra ta bertzia apez kuñatua,
oken bien artian zer egin bear da?

Senarrak eman zion lenbiziko kolpia,
apez kuñatuak berela bertzia.
– Ai, ai kanabitaren puntaren xorrotza!
Laster arrapatu dio nere amaren biotza!
Madarika daiela oi in duen arotza!

Jose Ariztimuño Aitzol zanaren bilduman, “Poesías enviadas por Bitori” deritzaien mordoskan.

Bertsoen saiets batean onela esaten da: “Elizondon, 1934-II-6-ean Gar-tzaingo Indatar Inaziari artua. Biltzallea: Etxeberriatar Bitori”.

II

– Agur, agur, ama neuria.
– Ongi etorri zarela, seme neuria.
Ezkondurik edo ezkongai eldu zara, semia?
– Ezkondurik eldu naiz, ama neuria.

– Frantzesca edo española duzu andria?
– Frantzesca dut baño da guziz noblia.
– Mortura guan eta ill egin biar dik.
Nik eztiet kusi nai frantzes erreñarik.

Andikan guan nitzen apezarengana,
apezarengana eta anaicarengana.
Ark ere esan ziran amak bezala:
mortura guan eta ill egin nezala.

Andiken guan nitzen arrebarengana,
arrebarengana eta gaztenarengana.
Aretxek erran zidan biar zen bezala:
etxera karri eta maitatu nezala,
estimatzen zuela koñata bezala.

- Andria, igesi, igesi zaldien gañera,
mortura guan eta ill egin biar dun.
Andriak eldu dira andik eta emendik,
nere arreba Juana ezta ageri iñondik.
- Senarrak eman ziran lenbiziko kolpia,
bereala koñadu apezak aldamenetik bertzia.
- Oi kanabitaren puntaren zorrotza!
Usu arrapatu dio nere amari biotza.

Aita Donostia: *Leyendas navarras* idazlanean, *Lecaroz* aldizkarian, 1953 urtean, 80-90 orrialdean. Berak bertso auek nundik dituan adierazteko, onela esaten du: "He aquí el texto que copié de Sumbilla (Navarra), creo que dictado por Eusebio Grajirena de Labayen.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak*, II liburuan, *Hordago*, Donostia, 1983, 98 orrialdean.

III

Urra, urra, urra, seme nerea!
prantzes edo espanola egin dek andrea?

tzes e do es pa no - la e gin dek an dre -

a, e - gin dek an - dre - a.

– Urra, urra, urra, seme nerea!
Prantzes edo española egin dek andrea?

– Prantzes da baiña txit da noblea,
txit da noblea eta aunitzen yabea.

.....
.....

Andikan yoan nintzan anaiarengana,
anaiarengana eta zarrenarengana.

Anaie zarren orrek, am'orrek bezala:
etxera ekarri gabe deboila nezala.

Andikan yoan nintzan arrebarengana,
arrebarengana eta zarrenarengana.

Arrena zarren orrek, am'orrek bezala:
etxera ekarri gabe deboila nezala.

Andikan yoan nintzan anaiarengana,
anaiarengana eta gaztēnarengana.

Anaie gaztēn orrek, amak ez bezala:
etxera ekarri eta maitatu nezala.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kanta-bilduma, 906 zenbakian, 1055 orrialdean, Naparroako Larraunen, Baraibarko errian, Frantziska Iribarreni jasoa.

Irugarren bertsoa falta da. Itzulpena egitean, onela dio Azkuek: “A juzgar por lo que viene después, aquí la madre aconsejó al hijo se desentendiese de ella”.

IV

E - to - rri nin - tza - ne - an Fran - tzi - a - ko kor - te - tik
a - ma to - pa - du ne - ban a - ma to - pa - du ne - ban e - txe - an ba - ka - rrík.

Etorri nintzanean
Frantziako koretik,
ama topadu neban
etxe an bakarrik.

R. M. Azkueren esku-idazkietan arkitua, eta bere *Cancionero popular vasco* bilduman argitaratu gabea.

Noren aotik artu zuan ez du esaten. Baiña "(B)" izkia irakurtzen da. Bizkaian jaso zuala esan naiko du, ziur asko. Izkera ere angoxea da.

V

A - gur, Biz - kai - ko se - me a - ma - gi - na - rra - ba,
su - ge mus - ker an - di bat, su - ge mus - ker an - di bat sar - tu - ko al ja - ta.

– Agur, Bizkaiko seme,
amaginarreba,
suge musker andi bat,
suge musker andi bat
sartuko al jana.

R. M. Azkueren esku-idazkietatik, Bizkaian, Zugaztietako Juliana Aurreko-
etxeari jasoa, baiña argitara eman gabea.

Ondotik onako oar au: "*La letra es la última estrofa de la composición: Etorri nintzanean Frantziako aldetik...*".

VI

– Zer egite'ozu, ama,
orrelan tristerik?
– Nobedade barriak
jakin ditudaz nik.

Ze nobedade barri
jakin dozu, ama?
– Ezkondu egin zareala,
bai, neure semea.

- Ez eizu ekarri ona
Frantziako andrarik.
– Zer eingo'tsat, ba,
ama, orain nik?
- Urten basamortura ta
il, ene semea.
– Ezin il nei bakarrik,
bai, ama neurea.
- Artu izu laguntzako
zeure anaia,
anaietatik bere
estudiantea.
- Egun on dakarrela,
Frantziako andrea.
– Alan ekarri daiala,
Bizkaiko semea.
- Emen il bear dozu,
Frantziako andrea.
– Zegaitik il biot, ba,
Bizkaiko semea?
- Jesus, Maria ta Jose,
ori da kutxiloaren
puntearen zorrotza!
Ikusi ta beste barik
ilten deust biotza.
- Agur, Bizkaiko seme,
amaginarreba,
suge muskar andi bat
sartuko al jana.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal baladak* (Hordago, Donostia, 1983), II liburua, 97 orrialdea, argibide onekin:

“Mendatan bildua eta orain arte Azkue Bibliotekan argitara gabe zegoena”.

VII

- Etorri nintzanean
Frantzie-kortetik,
ama billatu neban
suitian tristerik.
- Zer egiten dau, ama,
orrelan bakarrik?
– Nobedade barriak
entzun dodaz, bai, nik.
- Zer nobedade barri
entzun dozu, ama?
– Ezkonetan zarela,
bai, seme laztana.
- Nondikoa dakazu
zeure emaztea?
– Frantzie-kortekoa,
bai, ama neurea.

– Ez dot gure prantzesik,
ain gutxi errenik.
– Esan dodan berbiaz
urten biar dot nik.

– Esan dozun berbiaz
urten biar bozu,
urten bidera eta
il ein biar dozu.

– Ain de polita, ba, ze
nire emaztea...
Ez da posible, ama,
nik ori eitea.

– Zuk ezpozu posible
artu anaijia,
anaije gaztea ta
estudiantia.

– Juanita, jatxi zaite
zaldien gañetik,
sar daitzudan puñal au
biotzen erditik.

– Ai orren puñalaren
puntien zorrotza!
Ikusiz beste barik
ilten deust biotza.

Zazpi zaldi deukadaz
ixeraz jantzita:
zortzigarrentxoa barriz
perlaz estalita.

Arek emongo'tzudaz
ixtiarren bizirik.
– Arek neuretzat baña
ez itxi bizirik.

– Orrez gañera dekot
urre-kalizia,
urre-kalizia ta
sobreprelizia.

Arek emongo'tzudaz
ixtiarren bizirik.
– Arek neuretzat baña
ez itxi bizirik.

– Kanpai bat entzuten dot,
ez dakit nongoa;
iguel izango da
agoniekao.

Abadea ekar izu
konfesatu naiten,
animaren okerrak
arteztu daidazen.

– Abadea urrin dago,
eliza urrinago;
oin orretan asteko
asti gitxi dago.

*Anuario de Eusko-Folklore, 1933 urtekarian, 71 orrialdean argitara emana
eta Zeanuriko Undurragan jasoa.*

Manuel Lekuona: *Idaz-lan guztiak, I. Aozko literatura*, 476 orrialdean. Zeanuriko Undurragan jasoa dala esaten du onek ere. Bi argitalpen auek alkarraren artean aldaketarik ez dute. Orregatik, bildualdi bera izango da, biltzaillea nor izan zan esaten ez bada ere.

Manuel Lekuona apaiz jauna zanaren bilduman, eskuz idatzitako orri bat azaldu da kanta zaar onen amaika bertsorekin. Aldaketa txiki batzuk badituzte, baiña aitatzerik merezi duanik ez.

Orriaren saietsetan bi oar auek, bata euskeraz eta bestea erderaz: "Luze au, beste iñon entzun ez dualako idatzi omen du. Txomin". Eta: "N. B. Todavía es más larga, pero yo no recuerdo las demás estrofas". Txomin ori ez dakigu nor izan zan.

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendabaldeko Euskal Balandak / Antología*, Bilbo, 1995, 30 orrialdean.

Kanta oni buruzko azterketa. batez ere Azkueren aldaera au oiñarri artuta: Luis M. Mujika: *Euskal lirika tradicionala (II)*, Donostia 1985, 275 orrialdean.

VIII

Etorri nitzanian
Prantzien kortetik,
ama billatu nuen,
ama billatu nuen
suitian bakarrik.

- Zer egiten deu, ama,
onelan tristerik?
- Nobedade berriak,
nobedade berriak
entzun deudaz bai nik.
- Zer nobedade berri
entzun dezu, ama?
- Ezkontzen zeriela,
ezkontzen zariela,
bai, ene semea.

Nundikoa dakarzu
zeure emaztea?
- Prantzien kortekoa,
Prantzien kortekoa,
bai, ama neurea.

- Ez det gura prantzesik,
ain gutxi erreñik.
- Esan dodan berbiaz,
esan dodan berbiaz
kunplitu biot nik.

Zer egingo jako, ba, ama,
bai, ama neurea?
- Urten bidera eta
urten bidera eta
il, ene semea.

- Ain da polita, ama,
Juanita nerea,
ez da posible, ama,
ez da posible, ama,
nik ori eitea.

- Zu ez bazera kapaz,
artu izu anaia,
anai gaztea eta,
anai gaztea eta
estudiantia.

– Juanita, jetxi zaitez
zaldi orren gañetik,
sartu daitzuen puñal au,
sartu daitzuen puñal au
biotz-biotzetik.

– Oi orren puñal orren
puntearen zorrotza!
Ikusi ez beste barik,
ikusi ez beste barik
iltzen deust biotza.

Zazpi zaldi daukadaz
izaraz jantzita,
zortzigarrentxua be,
zortzigarrentxua be
perlaz estalita.

Areik emango dautzadaz
ixtiarren bizirik.
– Areik neretzat baña,
areik neretzat baña
ez itxi bizirik.

– Orrez gañera dakart
urrez kalizia,
urrez kalizia ta,
urrez kalizia ta
sobrepelizia.

Orreik emango dautzadaz
ixtiarren bizirik.

– Orreik neretzat baña,
orreik neretzat baña
ez itxi bizirik.

– Abadea ekar izue
konpesatu naiten,
zerurako bideaz,
zerurako bideaz
artez jarri naiten.

– Abadea urrin dago,
eliza urriñago,
orain orla asteko,
orain orla asteko
astirik ez dago.

– Kanpai bat entzuten dot,
ez dakit nungoa,
igual izango da,
igual izango da
agoniakoa.

Jose Ariztimuño Aitzol zanaren bilduma, 1935 urtean bialdutako kantak. Paper-zorro baten barruan daude, estalkian onela diolarik: "Dorronsoro'tar Joakin, Ataun, Gasteiz, Apaiztegia".

Beste oar jakingarri au ere bai: "Amazazpigarren gizaldian etorri ziran Atauna zeanuritar senar-emazte batzuek, eta aien ondorenguak badakizkie bertso oek".

Irakurlea oartuko zanez, aldaera au eta onen aurrekoia ia berdiñak dira. Ura Zeanurin jasoa eta au andik datorrena diralako izango da. Ontan euskera gi-puzkoerara geiago jotzen duala.

IX

Etorri nintzanean
Frantzie koretik,
ama billatu neban
suitian bakarrik.

- Zer egiten dozu, ama,
onelan tristerik?
- Nobedade barriek
entzun dodaz, bai, nik.

- Zer nobedade barri
entzun dozuz, ama?
- Ezkontzen zariala,
bai, ene semea.(1)

Nundikua dakazu
zeure emaztia?
– Frantzie kortekua,
bai, ama neuria.

- Ez dot gure frantzesik,
ain gutxi erreñik.
- Esan dodan berbia
kunplitu biot nik.

- Esan dozun berbiaz
kunpli biar bozu...
- Zer egin biotan, ama,
neri esaidazu.

Zer eingo jako, ba, ama,
bai, ama neurea?
– Urten bidera eta
il, ene semea.(2)

- Ain da polita, ba, ze
Juanita nerea,
ez da posible, ama,
nik ori iltea.

– Zeu ezpazera kapaz,
artu izu anaiea,
anaia gaztea eta
estudiantea.

– Juanita, jetxi zaite
zaldi orren ganetik,
sartu daitzudan puñal au
biotzaren erditik.

– Ai, orren puñal orren
puntearen zorrotza!
Ikusi ez beste barik
ilten deust bijotza.

Zazpi zaldi daukadaz
izeraz jantzita,
zortzigarrentxua be
perlaz estalita.(3)

Arek emongo deutzudaz
ixtearren bizirik...
– Arek neuretzat, baña
ez itxi bizirik.

– Orrez gañera dakart
urre-kalizia,
urre-kalizia ta
sobrepelizia.

Aiek emongo deutzudaz
ixtearren bizirik...
– Aiek neretzat, baña
ez itxi bizirik.

– Kanpai bat entzuten dot,
ez dakit nungoa.
Igual izango da
agoniakoa.

Abadie ekar izue
konpesatu naiten,
neure animan okerrak
aztertu daidezen.

– Abadia urrin dago,
eleiza urriñago.
Oin orretan asteko
asti gitxi dago.

Manuel Lekuona apaiz jauna zanaren bildumatik. Aldaera onek antza aunda du *Eusko Folklore* aldizkariarenarekin eta Jokin Dorron sororenarekin. Baiña aldaketarik ere badu, eta orregatik oso-osorik jarri degu emen.

X

E - to - rri nin - tza - ni - an Fran - tzi - e par - te - ti
a - ma to - pa - du ne - ban, a - ma to - pa - du ne - ban e - tzi-an ba - ka - rrik.

Etorri nintzanian
Frantzie parteti,
ama topadu neban,
ama topadu neban
etzian bakarrik.

– Ez dot gure frantzesik,
ain gutxi errenik.
Egin dodan promesau,
egin dodan promesau
konpridu biot nik.

– Zer egiten dau, ama,
orrelan tristerik?
– Nobedade barrieik,
nobedade barrieik
entzun dodaz bai nik.

– Ze promes dauko ba, ama,
konpridu eiteko?
– Joan bidera eta,
joan bidera eta
andria ilteko.

– Zer nobedade entzun dau
bai, ama neuria?
– Ezkonetan zariala,
ezkonetan zariala
bai, ene semia.

– Ez da imposible (*sic*), ama,
nik ori egitia:
joan bidera eta,
joan bidera eta
andria iltia.

– Nondikua al dakazu
zeure emaztia?
– Frantzie partekoa,
Frantzie partekoa,
bai, ama neuria.

Ain de ederra eta
ain de galanta be,
ez da imposible, ama,
ez da imposible, ama,
nik ori egitia.

- Zau ezpazara kapaz artu eizu anajia.
Anajia ezpada kapaz, anajia ezpada kapaz, estudiantia.
- Joanita, jatsi zate zaldi orren ganeti, sartu deitzuden puñela, sartu deitzuden puñela biotzen erditi.
- Ai orren puñelorren puntiaren zorrotza!
Ikusiak beste garik, ikusiak beste barik ilten dust biotza.

Amalau mando dodaz urre gorriz kargaurik, aik emongo'utzudez da, aik emongo'utzudez da ni itxi bizirik.

- Aik artuko'odaz baie ez itxi bizirik, lelengo puñelkadan, lelengo puñelkadan zeartau bagarik.

- Abadea ekarrizu konfesaduteko, neure arima tristia, neure arima tristia konsoladuteko.

- Abadea urrin dago. elexea urrino; orrelan ibilteko, orrelan ibilteko asti gitxi dago.

- Zazpi izera dodaz odolez mantxaurik, zortzigarrentxu onek, zortzigarrentxu onek naroia ni mundutik.

Eleizan kanpaiak dire,
eztakit zegati,
igual izingo dire,
igual izingo dire
neure eriotzeagaitik.

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendabaldeko Euskal Baladak / Antologia* (Bilbo, 1995), 32 orrialdean, oar auekin:

“Iturria: Labayru Ikastegiko MZIM artxiboa. Lekukoa: Bitoria Artetxe, 69 urte, Zeanurikoa. Biltzaileak: Batirtze Manterola eta Maria Luisa Emaldi lehenengo eta Garbiñe Angoitia, Bego Egileor eta Izaskun Sagarna geroago. Biltzdata: 1982ko abenduan eta 1985ean bigarrena”.

Irakurlea oartuko zanez, aldaera au eta Zeanuriko beste aldaerak berdin-tsuaak dira.

XI

Etorri nintzanean
Frantziako turitik, (*sic*)
ama topadu neban,
ama topadu neban
etxeen bakarrik.

- Ama, zer dozu bada
zeuk orren tristerik?
- Nobedade barri batzuk,
nobedade barri batzuk
jakin deutzudaz nik.

Ze nobedade barri
jakin dozu, ama?
– Ezkondu egiten zareala,
ezkondu egiten zareala,
neure seme ona.

- Nundikoa dakazu
zerorrek andrea?
- Frantziako kortekoa,
Frantziako kortekoa
bai, ama neurea.
- Zertarako da emen
Frantziako umea?
- Zer egingo deutset bida,
zer egingo deutset bida,
bai, ama neurea?

– Urten bidera eta
il, ene semea.
– Bainak bakarrik ezin,
bainak bakarrik ezin,
bai, ama, neurea.

– Artuizu lagun eta
zeure arrebea,
zeure arrebea eta,
zeure arrebea eta
estudiantea.

- Egun on dakarrela,
neronen andrea.
- Alan ekarri daiela,
alan ekarri daiela,
Bilbaoko semea.

Ori da kutxiloaren
puntaren zorrotza,
ikusi ta beste barik,
ikusi ta beste barik
ilten daust biotza.

Amalau mando datozi
urrez kargaturik,
arek artuizuz baina,
arek artuizuz baina
itxi idazu bizirik.

Ekarrizu abadea
konpesaduteko,
sakramentu santua,
sakramentu santua
erreuibietako.

– Abadea urrun dago,
eleizea urrunago.
orretan ibilteko,
orretan ibilteko
asti gitxi dago.

– Agur, Bizkaiko seme,
amaginarreba,
suge-musker andi bat,
suge-musker andi bat
sartuko al jana!

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antologia* (Bilbao, 1995), 34 orrialdean, argibide auekin:

“Iturria CVE, Azkue Biblioteka. Lekukoa: Bibiana Gerrikaetxebarria, Gabi-kakoa. Biltzailea: R. M. Azkue”.

XII

Etorri nintzian
Prantzija aldetik,
ama topatu neban
etxian bakarrik.

- Zer egiten dozu, ama,
triste orrek bakarrik?
- Nobedade andijak
entzun ditudaz nik.
- Zer entzun dozu, bada,
amatxu neuria?
- Ezkontzen zariala,
bai, neure semia.

- Nundikua dozu, ba,
zeure emaztegeia?
 - Prantzijako partekua,
bai, ama neuria.
 - Eztogu biar prantzesik,
gutxiago arrorik.
 - Dakardan nobenia
kunplidu biar dot ni.
 - Dakarzun nobenia
kunplitu biar bozu,
ekar ixu abadia,
baita konpesatu.
- Abadia urrin dago,
lexa be urruti,
bijen bitarterako
ez pasio gitxi.

Ederrak bi balijo,
kariñosiak lau,
umilla ixatiak
asko balijo dau.

Ederra ta galantak
daukan bentajia
plazan esaterako:

- Oixe da neuria.

Bertso auek nundik zituan adierazteko, onela esaten du *Mañariko-k*: "Ber-tso oneik Ortuostetar Josebe, Solaguren basetxeko andra zarrak abesten ei ebazan".

XIII

Etorri nintzianian
Frantziako aldetik,
ama topatu nuan
etxean bakarrik.
Bakar-bakarrik eta
triste-tristerik,
burua sillaruntz
ziarketaturik.

- Ezkonduta ala ezkongai
ator, ba, semia?
- Ezkonduta nator, ama,
bai, ama neria.
- Frantzesca ala española
dakak, ba, andria?
- Frantzesca dakat, ama,
bai, ama neria.

Jose Ariztimuño Aitzol zanaren bilduman, Irunen jaio eta Plazentzian bizi
izan zan Andres Ezenarro *Urzelai-k* bialduta, onako oar onekin:

"Biltzailleak geienak ikasi ditu Isabel Kerexeta ta Lasa, 1854-garren Urrilla-
na 24-an Irunen jaiotako andereagandik".

Zuzenketa bat egin degu: bigarren bertsoan "*frantzesca ala euskalduna*" ze-
goan idatzita. "*Frantzesca ala española*" bear du noski, eta orrela ezarri degu.

XIV

Uurrengo doiñu eta bertso auek *Aranzazu* aldizkarian agertu ziran, 1972-ko
maiatzean, Aita Gaudiagak bialduta. Egiten duan oarra aurretik eskeintzea
obe dala derizkiogu:

"Lehenago ere esan nizun Migelentxikiñeko Marijoxepa Zumaldek kantu as-
ko dakiala eta ongi kantatzen duela. Gaur hemen jartzen dizudan hau ez omen
da fraide bati kantaittekoa. Gogorregixa bide da. Gainera ahaztua ere bai ei
dauka ixa. Dana dala, tiraka-biraka atera ahal izan niona ifiniko dizut. Eta
zerbait gehiago: Marijoxepari jaso niona haren aizpa Maxima Txantomaldu-
nakoari kantatzen hasi nintzaion, ea harek nondik jotzen ote zuen. Maximak
zenbait aldakuntzarekin kantatu zidan. Haren kantaera ere ifiniko dizut.
1967-an jaso nun kantu hau eta bertsoak ez-ezik doinua ere oso lastimosoa
zuela esan zidaten bai Marijoxepak eta bai Maximak".

Ona orain doiñua eta bertsoak:

E - to - rri nin - tza - ni - an Fran - tzia - ko kor - te - tik a - ma bi -
 Ba - kar ba - ka - irik e - ta bai tris - te tris - te - rik si - llan ja -

 lla - tu ne - ban e - txi - an ba - ka - rrik.
 za - rri e - ta ai - zi - ak ar - tu - rik.

Marijoxepak Maximak:

- | | |
|-------------------------------|--------------------|
| Etorri nintzianian | |
| Frantziako partetik, | kortetik |
| ama billatu neban | nuan |
| etxian bakarrik. | |
| Bakar-bakarrik eta | |
| bai triste-tristerik, | sillan jazarri eta |
| silliaren espaldan | |
| haiziak harturik. | |
|
 | |
| - Egun on Jainkuak dizula, | Gabon |
| ama ona neuria. | |
| - Halan euki deizula, | daikala |
| bai, seme maitia. | |
| Ezkondua ala ezkongei | |
| zatoz, ba, semia? | ator |
| - Ezkonduta nator, ba, | |
| bai, ama neuria. | |
|
 | |
| - Frantzeska ala española | |
| daukak, ba, andria? | |
| - Frantzeska daukot, ba, nik, | |
| bai, ama neuria. | |
| - Frantzesik etxuau biar | |
| erranik etxian; | |
| hona ekarri gabe | |
| hil zazu bidian. | izak |
|
 | |
| - Guaziok, ba, guaziok, | |
| guaziok, anaia. | |
| - Gauziok, ba, gauziok, | |
| anaia neuria, | |

Hor billatuko xuau
ta hiltseguk andria.

– Egun on Jainkoak dizula,
andra ona neuria.

– Halan euki deizula,
bai, senar neuria.

Hamalau asto hor ditut
urrez kargaturik,
haiiek emungo dizut,
utziazu bizirik.

– Haiiek neuriak dira
zuk emun gaberik.

Hemen hil biarko dezu
dudarik gaberik.

– Utziok, ba, utziok,
utziok, anaia,
etzaiz errukitutzen
holan ikustia?

– Lenago esan biar eban
esan duan berbia,
onezkero eman xat
lenengo golpia.

birian billauko xuau
andria neuria.

– Andria, nora zua z
zaldi horren gañian?
Hemen bil biar dezu
dudarik gabia.

Andria, jetsi zaitez
zaldi horren gañetik:
hemen hil biar dezu
dudarik gaberik.

– Hiru soiñeko hor ditut
urrez bordaturik,
haiiek emungo dizut
utziazu bizirik.

– Haiiek neuriak dira
zuk emun gaberik,
hemen hil biar dezu
dudarik gaberik.

– Hiru anaitxo ditut
soldadu juanik,
harek emen baneuko
ez neuke bildurrik.

– Utziok, ba, utziok,
anaia neuria.

Pena emuten xotak
holan ikustia.

– Lenago esan biar ebian
esan duan berbia,
onezkero hartu xok
erida golpia.

Aita Gandiagak ez du nork zer dion adierazteko puntuaziorik ezartzen. Guk erantsi egin diogu, gure iritzira noski.

1974-ko *Euskera* aldizkarian ere argitara eman zuan Aita Gandiagak erro-mantze au.

Berari artuta: J. Lakarra, K. Biguri eta B- Urgell: *Euskal Baladak*, II liburuaren (Donostia, 1993), 100 orrialdean. Baiña emale baten aldaera bakarrik: Maxima Zumalde, Ttantomalduena-koarena.

XV

Etorri nintzianan
Frantzie Kortatik,(4)
ama topadu naben
etxian bakarrik.

– Zer egiten dozu, ama,
horrelan tristerik?
– Nobedade barriek
entzun dodazela nik.

– Zer entzun dozu, ama,
bai, ama neuria?
– Ezkondu eiten zariala,
bai, ene semia.

Nondikua dakazu,
bai, zeure andria?
– Frantzie Kortakua,(5)
bai, ama neuria.

- Ez dot behar nik frantzesik,
hain gitxi errenik;
bidera urten eta
hil eingo neunke nik.

– Hain da galanta eta
neure emaztia,
lastima emote'ustela
hori egitia.

– Zeu ez bazara kapaz,
eroaixu anajea,
anajea ez bada kapaz,
bai, neure semia.

– Kaixio, konetue,
estudiantia,
hemen dakat zutzako
urre kalizia,
urre kalizia ta
sobrefelizia.

– Juanita, jetsi zaite
zaldi zurin gainetik,
sartu deitzudan puñel hau
bihotzen erditik.

– Ai, horren puñel horren
zorrotzen zorrotza!
Berori ikustiek
hilten dust bihotza.

Hamalau mando dodaz
urrez kargaturik,
hamabostgarrena be
erropaz beterik;
horreik emongo'utzue ta
itxi idazue bizirik.

– Horreik hartu bai, baia
ez itxi bizirik.

– Hil behar banozue
ekarrixu abadia.

– Abadia urrin dago,
eleixeaa urrinago,
horreik guztiok eiteko
asti gitxi dago.

– Hiru anaje dodaz
Frantziako erraien,
ai haiiek balekie
hemen zer dabilen,
zabalduko leukie
Espaine guztien.

Ai, neure amaginerreba,
muskerrez betia,
sugeak egingo al dautzu
arratserako ohia!

Koldo Biguri: "*Maria Goiri*" Mintegia: *Euskal Herriko ahozko literatura tradizionala ikertzen ari, Anaitasuna aldizkaria*, 418 zenbakia, 1982, martxoa.

Koldo Bigurik ere ez du nor zer dion adierazteko puntuaziorik, ez bestelakorik ere, ezartzen. Kanta onek emen daukan geiena, guk erantsia da.

Baita ere: J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1983), II liburuan, 102 orrialdean, argibide onekin: "Arantzazun bizi den 74 urteko Dima Bargundiar Eduarda Bilbaori 1981-8-23an Jesus Antonio Cid, Koldo Biguri, Gabriel Fraile eta Ruper Lekuek bildua".

XVI

Fran - tzie - ra ju - an ni - tzan ni gaz - te gaz - te - rik
d'an - txe pa - ra - tu ni - tzan d'an - txe pa - ra - tu ni - tzan an - dri - e ar - tu - rik.

Frantziera joan nintzan
ni gazte-gazterik,
da antxe paratu nintzan (*bis*)
andrea arturik.

Etorri nintzianian
Frantzie aldetik,
ama topadu neban (*bis*)
etxe an bakarrik.

- Ama, zer eiten dozu
orrela tristerik?
- Nobedade barri batzuk (*bis*)
entzun ditudaz nik.

- Ama, zer nobedade
entzun dituzu gaur?
- Ezkondu ein zariela, (*bis*)
ai neure seme ona.

Ba urten bidera ta
il egin bear dozu.
- Baiña bakarrik ezin, (*bis*)
ai neure ama ona.

- Artuizu lagune
zeure anaijie,
ta zeure anaijie (*bis*) (6)
estudiantie.

- Egunon daukozule,
Bizkaiko semie.
- Alan ekarri deiela, (*bis*)
Frantziko alabie.

Jesus, Maria ta Jose,
ori da kutxilloaren zorrotza!
Ikusi ta beste barik (*bis*)
ilten daust biotza.

– Andrea, jatzo zaite
zu mando ganetik,
amentxe il biar dezu (*bis*)
kulparik bagerik.

– Amalau mando datozi
urrez kargaturik,
arexek, arexek emongotzudaz, (*bis*) (7)
larga neu bizirik.

– Orrek neureak dira
zuk emon bagarik,
andrea, jatzo zaite (*bis*)
zu mando ganetik.

– Zazpi izera ditut
odolez beterik,
zortzigarrena ere (*bis*)
ie estaldurik.

Agur, Bizkaiko seme
da emagiñarreba,
sube-muskar andi bat (*bis*)
tragauko al jana.

Adolfo Arejita: *Frantzie kortekoa erromantzea, Idatz & mintz aldizkaria*, bigarren zenbakia, 29 orrialdea. Aurretik onako adierazpen au: “Ereñon jasoriko bersinoa. Bego Zabaletak jaso deutso Adelaida Bengoetxea Elordieta andreatsi (50 urte). Orain Gernikan bizi arren, Ereñokoa da”.

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antologia* (Bilbo, 1995, 35 orrialdean).

XVII

Etorri nintzanian
Prantzie koretik,
ama topatu neuen
etxeank bakarrik.

– Zer egiten dozu, ama,
orrelan tristerik?
– Nobedade barrieik
entzun dodazala nik.

– Zer entzun dozu, ama,
bai, ama neuria?
– Ezkondu eiten zareala,
bai, ene semia.

– Nondikoa dakazu,
bai, zure andria?
– Prantzie partekoa,
bai, ama neurea.

– Eztot bear nik prantzesik,
ain gitxi erreñik,
bidera urten eta
il egingo neunke nik.

Zu ezpazara kapaz
eroaizu anajea;
anajea ezpada kapaz,
bai, zeu bai, semea.

– Amalau mando dakaz
urrez kargaturik,
amabostgarrena be
erropaz beterik.

– Elizea urrin dago,
abadea urrinago,
onik guziok eiteko
asti gitxi dago.

Baixek emongotsuedaz
eta itxi naizue bizirik.
Arek artu bai, baiña
ez itxi bizirik.

– Ai onen puñalaren
zorrotzan zorrotza!
Berori ikusiek
ilten dost biotza.

– Itxidezue bizirik
konfesadu artian,

– Kaiso, koñetue
estudiantia,
emen dakat zutzako
urre kalizia,
urre kalizia eta
sobrepelizia.

.....
.....

– Ai neure amaginarreba
muskerrez betia,
subiak eingo al detzu
arratserako oia.

Adolfo Arejita: *Frantzie korteakoa erromantzea, Idatz & mintz aldizkaria*, bigarren zenbakia, 30 orrialdean, adierapen onekin: "Arantzazuko bersinoa. Carmen Bernaolak jaso dau Eduarda Bilbao (78 urte) andreagandik. Jaiotzaz Dimaakoa da, eta Arantzazun bizi da".

XVIII

Frantziako koretetik
etorri nintzanian,
ama topadu neuuen
etxeank bakarrik.

– Zer entzun dozu, ama,
bai, ama neuria?
– Ezkondu eiten zariala,
bai, ene semia.

– Zer egiten dozu, ama,
orrelan tristerik?
– Nobedade barriek
entzun dodaz e nik

Nondik eta norakoa
dakazu emaztia?
– Frantziako partetik,
bai, ama neuria.

– Eztot bear nik frantzesik,
aunke gitxi errenik,
bidera urten eta
il eingo neunke nik.

– Ain de galanta eta
neure emaztia,
lastima emoten dostela
ori bear ori eitia.

– Zeu kapaz ezpazara
ekarriku anajea,
anajea kapaz ezpada
estudiantea,
estudiantea kapaz ezpada
arreba mojea.

– Kaixio, koñetue
estudiantea.
zuretzako emen dakat
urre kalizea.

Urre-kalizea ta
sobrepeliza,
zuretzako emen dakat
urre kalizea.

Amalau mando dagoz (dodaz)
urrez kargaturik,
amabosgarrena be
erropaz beterik.

Areik artuixuez eta
itxi eidazue bizirik.
– Areik artu bai, baia
ez itxi bizirik.

Yatxi egin zaite, Juana,
zaldi orren gañetik,
sartu diotzuden puñela
biotzen erditik.

– Iru anaje dodaz
Frantzieko erraien,
ai arek balekie
emen zer dabillen,
zabalduko leukie
Espaňie guztien.

Ai neure amagiñerraba
muskerrez betera,
subeak egingo al dautso
arratseko ogea.

Adolfo Arejita: *Frantzie-kortekoa erromantzea, Idatz & mintz aldizkaria*, bigarren zenbakia, 30 orrialdean. Aurretik onako adierazpen au: “Dimako ber-sisnoa. Idoia Arana eta Itziar Falzesek jaso deutse Dimako Bargondia hauzoko Patxi Bilbaori (80 urte)».

XIX

Etorri nintzanian
Frantziako partetik,
ama tope ninduan
etxian bakarrik.

– Ama, zer egiten deu
orrelan tristerik?
– Nobedade barriak
entzun dodaz bai nik.

– Zer nobedade barri
entzun dozu, ama?
– Ezkondu zeniala
Frantziako partean.

– Ez deu entzun guzurra,
ez, ama neuria,
ortxe atzian dator
neure emaztia.

*– Eztot gure erranik,
gitxiago frantzesik,
dekoten ordenia
kunplidu bagarik.*

Urteixu bidera eta
kend'iozu bizia.
– Ez da, ama, posible
nik ori iltea.

Ain da bera galanta
neure emaztia.

– Zu ezpazara kapaz
artuixu anajea,
da anajea ezpada kapaz
estudiantea.

Estudiantea be
ondiño gaztea,
ogetazazpi urte
kunplidu bagea.

– Baja zaitez, kuñada,
zaldiaren ganetik,
sart'iotsudan puñal au
biotzan erditik.

– Au orren puñal orren
puntearen zorrotza!
Ikusiagaz batera
ilten dost biotza.

Amasei mando dodaz
urrez kargaturik,
arik artuizuz eta
itxi nizu bizirik.

*Zazpi kaballo doiaz
urraz kargaturik,
zortzigarren
urrez dorauturik.*

– Areik artuko'az baña
ez itxi bizirik,
deukodan ordenea
kunplidu bagarik.

*Zazpi nebatxu doiaz
Frantzia partian,
areik balekie
emen zer pasetan dan.*

Zazpi izeratxu dodaz
odolez beterik,
zortzigarrentxu onek
naroa mundutik.

*Zortzi oin luze,
iru oin zabal,
egingostie kaja bat*
.....

*Antxe sartu egin ezkerro
agur munduko gauzari*
.....

*Orain entzuten dodaz
agoniko kantak,
direz nire agonikoak*
.....

Adolfo Arejita: *Frantzie-kortekoa erromantzea, Idatz & mintz aldizkaria, bigarren zenbakia, 31 orrialdea.*

Aldi ontan, bi aldaera artu, biak Galdakaon jasoak, eta aldaera berri bat eskeintzen digu Arejitak, argibide auek emanez:

“Gald. 1 eredua Josu Barcenillak jaso deutso Ramona Ajuria andreari (66 urte), Galdakaoko Olazarreta baserrikoa.

Gald. 2 eredua Txaro Larrazabalek jasoa da Karmen Ariznabarreta andrea-ri (60 urte), Galdakaoko Altamira hauzokoa”.

Erromantzea eman aurretik, berriz, beste argibide au:

“Oinarritzat Gald. 1 eredua artu dogu, osoena dalako, eta Gald. 2 ereduaz osotu. Bigarren bersino hau letra tipo ezbardinaz jarri dogu...”.

Eta azkenik:

“Gald. 2 ereduak dituen forma bereziak honexek: (1. d) *ama topo nindula*; (2. d. e.) *Nobedade barri bat / entzun dodala nik*; (3. d. e.) *Ezkondu ein zareala / onelan, seme a*; (3 bis. a) *Ez dau guzurrik entzun*; (12) *Orreik artu eta / itxitzu bizirik / Dekoten ordenia / kunplidu bagarik*,

XX

Etorri nintzenian
Frantziko erraitik,
ama topatu neban
etxeank bakarrik.

- Zer eiten dozu, ama,
zeuk orren bakarrik?
- Nobedade barrieik
entzun ein dodaz nik.
- Ze nobedade barri
entzun dozu, ba, ama?
- Ezkondu zareala,
bai, ene semea.
- Egia entzun dozu,
bai, ama neuria,
Frantziako erraian dator
neure emaztea.

Orain zer egingo’tzu,
ama, guk orrerri?
– Urten bidera eta
kendu bizi ori.

- Ez da posible; ama,
neuk ori egitea,
ain da polita ze
nire emaztea.
- Zeu kapaz ezpazara
artuuzu anajea,
artuuzu anajea ta
estudiantea.
- Amalau mando datozi
ondourrez kargaurik,
artu aixek eta
itxi neizu bizirik.

– Ez dot bear urrerik,
ez bere perlarik,
amaren esanakaz
kunplidu biot nik.

Adolfo Arejita: *Frantzie-kortekoa erromantzea, Idatz & mintz aldizkaria*, bigarren zenbakia, 32 orrialdea, argibide auek emanez:

"Zamudioko bersinoa (Zam. 1). Iñaki Astorkizak Lorentza Ugalde andreari jaso. 80 urte ditu".

XXI

Etorri nintzianan
Frantziako puntatik,
ama topedu neuan
etxian bakarrik.

– Zer egiten dozu, ama,
orrelan tristerik?
– Ezkondu ein zariela,
ai, entzun dot bai nik.

Ez dozu guzurrik entzun,
ez, ama neuria;
ortxe atzien dator,
bai, neure andria.

Frantzesia ala ingalasia (*sic*)
dozu ba andria?
– Frantzesia da baia
(b)ai ondo noblia.

– Ez dot bear errenik,
gutxiago frantzesik;
neu naz errenik asko
etxian bakarrik.

– Zer egingo'tset, ama,
neure emazteari?
– Urten bidien erdira,
kend'iozu bizia.

– Ez da (dot) bada neuk posible
orixe eitia.
– Ba artu zure anaia
estudiantia.

– Ai, neure emazte Juana
desportunadia,
amentxe itxi biadozu,
ai, zeure bizia.

– Ai neure emazte (*sic*) Jose,
neuri ez orixe,

.....
.....

.....
.....
atzian etorriko'tzu
Frantziako puntatik.

Adolfo Arejita: *Frantzie-kortekoa erromantzea, Idatz & mintz aldizkaria, bigarren zenbakia, 31 orrialdea, argibide auek emanez:*

“Eubako bersinoa (Eub. 1). Sabin Etxebarriak jaso dau Nati Sarrionaindia andreagandik (66 urte). Eubako Tetuan baserrian”.

XXII

Atzo etorri nitzen Frantziako kortetik,
ama topatu nuan etxian bakarrik.

- Zer eiten dozu, ama, orrela tristerik?
 - Nobedade barriak jakin ditudaz nik.
 - Ze nobedade barri jakin dozu, ama?
 - Ezkondu ein ei dala bai neure semia.
 - Ez dozu entzun ori, ain gezur andia,
ortxe atzian dator nire emaztia.
 - Prantzes ala ingles da zure emaztia?
 - Prantzieko kortekua da nire emaztia.
 - Ez dot bier prantzesik, ain gitxi errenik,
artu'otan promesa kunplidu biot nik.
 - Zer eingo deutset bada, ama neuria?
 - Urten bidera eta il, ene semia.
 - Ez da posible ori nik egitia,
ain da eder ta galant nire emaztia!
 - Zeu kapaz ezpazara artu anaixia,
anaxie gaiñera estudiantia.
- Estudiantia ta ondino gaztia,
ogetazazpi urte kunplidu gabia.
- Bat oi zaituet senar ta best oi koiñatu,
nundik nora naroizuen esaidezue klaru.
 - Bajau zaitez, koiñeta, manduorren gaiñetik,
sartu daizudan puñala biotzan erditik!

– Ai orren puñalorren zorrotzen zorrotza,
ikusiaz beste barik ilten deust biotza!

Zazpi aiztatxu dodaz Prantzieko kortien,
arek be balekie ni zelan nabilen.

Zabalduko (leukie) Frantzieko kortien,
Frantzieko kortien da España guztien.

Aita bizi'otan legez bizi banuen ama,
eniñuan salduko España urrunera.

Aitak saldu niñuan idia bezela,
Españañ kenduteko bai neure biotza.

Zazpi zaldi daukadaz urrez doraturik,
orrek artizuz eta itxi naizu bizirik.

– Orrek artu bai baina ez itxi bizirik!

– Zazpi izera dodaz odolez bustirik,
zortzicarrentxu onek naroie mundutik.

Ekarri abadia konfesau naitien,
betiko inpernuan sartu ez naitien.

– Abadie urrun dago, elixie urrunago,
oin ara joateko astirik eztago!

– Neure amaiñerraba, muskertxu berdie,
subiek ein al deutso arratseko oie!

Agur, Ana Juanita, amari gorantzi,
sekule ta betiko ikusi nozu ni.

Adolfo Arejita: *Frantzie-kortekoa. Eredu barri bi, Idatz eta mintz aldizkarian*, 18-19 zenbakian, 1989. Noren aotik eta nun jasoa dan adierazteko, onela dio:

"Balada hau "Mikel Zarate" mintegiko hiru kidek batu eben 1985 urtean: Ibone Azpiri, Izaskun Biteri eta Irune Erkiagak (orduan Derioko OHO Irakasle Eskolan Euskal Filologiako neure ikasleak). Informatzailea, Agustina Meabe Basterretxea (1985ean 83 urte). Milloi auzoko Ikan baserrikoa. Ez eban kanta-tu, ezpada errexitatu".

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Bala-dak, Antologia* (Bilbo, 1995), 36 orrialdean, argibide auekin:

“Iturria: Labayru Ikastegiko MZIM artxiboa. Lekukoa: Agustina Meabasterretxea, 83 urte, Milloikoa (Markina). Biltzaileak: Ibone Azpiri, Izaskun Biteri eta Irune Erkiaga. Biltze-data: 1985”.

* * *

Kanta onen azterketa literarioa: Luis M. Mujika: *Euskal lirika tradizionala (I)*, Donostia, 1985, 126 orrialdean.

XXIII

Etorri nintzianian Frantziko erriti,
ama topatu ninduan suitean tristerik.

- Ene ama, zer pasetan yako egoteko or ain tristerik?
- Ene seme, entzun dodaz notizi barrieik.
- Ene ama, zer entzun egin dau? Ezkontzen naz eta bai ezkontzen naz eta ara emen andrea.
- Ori il egizu eta nik topauko’tzut askoren yaubea.
- Ene ama, ni ez naz kapaz au il egiteko.
- Zau ez bazara kapaz artu egizu anaia.
Anaia estudianteak dinotse oneri:
– Ogeta iru urte barik ezin lai il ori.
- Bajau zaitez, kuñeta, zaldi orren gaiñeti,
sartu daitzudan puñal au biotzaren erditi.
- Iru zaldi datozi xera zurikaz yantzirik,
eta laugarrenraurre gorriz yantzirik.
- Aik artu egizuez eta itxi naizue bizirik.
- Aik artu eging’uz baie zu itxi ez bizirik.
- Agoniko kanpaiak direz elizan,
ekarrizu abadea konfesau naitean.
- Abadea urrin dago eta eleizea urrinago,
orreik bearrok egiteko astirik ez dago.

Adolfo Arejita: *Frantzie-kortekoa. Eredu barri bi, Idatz eta mintz aldizkarian, 18-19 zenbakian, 1989.* Noren aotik eta nun jasoa dan adierazteko, onela dio:

"Balada aldaera hau 1985-eko Urriaren 21ean jaso jakon Zeberioko Esperantza Aretxaga Solaun andereari, 51 urte zituala. Biltzaileak, Nekane Garai-zabal, Bego Rekalde, Mertxe Uriarte eta Maite Urkijo, Derioko OHO Irakasle Eskolako Euskal Filologia adarrean ikasle izan nituan eta Labayru Ikastegiko "Mikel Zarate" Iker Mintegirako egin eben bilketa hau".

XXIV

Etorri nintzianan
Frantziako koretik
ama bilatu nuan
etxian bakarrik.

Bakar bakarrik eta
bai triste tristerik,
silan jazarri eta
haiziak harturik.

– Hiru anaitxo ditut
soldadu juanik,
harek hemen baneuko
ez neuke bildurrik,

– Utziok, ba, utziok,
anaia neuria,
pena emoten xotak
holan ikustia.

– Lehenago esan bihar ebian
esan dudan berbia,
honezkero hartu xok
herida golpia.

Xabier Amuriza: *Bizkaiko bertsogintza, izengabeak, I*, Bilbo, 1995, 255 orrialdean, Araotzen jasotako aldaera.

I

– Salve, salve, salve, madre mía.
– Que seas bien venido, hijo mío.
¿Vienes casado o soltero, hijo?
– Vengo casado, madre mía.

– ¿Traes esposa francesa o española?
– Francesa, pero muy noble.
– Yo no admito nuera francesa.
Llévala a despoblado y mátala.

*De allí fui a donde mi hermano,
a donde mi hermano mayor;
también él me dijo como mi madre:
que la llevara a despoblado y la matara.*

*De allí fui a donde mi hermano,
a donde mi hermano cura;
también él me dijo como los otros:
que la llevara a despoblado y la matara.*

*De allí fui a donde mi hermana,
a donde mi hermana la más joven;
ella me dijo como debe ser:
que la lleve a casa y la quiera,
que ella se portará como cuñada.*

*Las gentes llegan de allí y de aquí;
mi hermana Juana no aparece por ningún sitio.
– Tengo un cuartal de oro regalado por el padrino.
Si me dejáis con vida, os lo entregaré todo.*

*Si no es por mí, por el que llevo dentro.
– ¿Tú qué llevas dentro sino un tronco viejo?
– Aunque sea un tronco, es dado por ti.
Aunque sea un tronco, es dado por ti.*

*Puse a la esposa encima del caballo,
para llevarla a despoblado y matarla.
– Éste es mi marido y el otro el cuñado cura.
¿Qué van a hacer entre éstos dos?*

*El marido le dio el primer golpe,
el cuñado cura en seguida el segundo.
– ¡Oh qué afilada es la punta del cuchillo!
Pronto ha encontrado el corazón de mi madre.
¡Maldito sea el herrero que lo hizo!*

VII

*Cuando vine de la corte de Francia,
triste contra el fuego encontré a mi madre.*

- *¿Que hace, madre, tan sola?*

- *He oido yo algunas novedades recientes, sí.*

- *¿Qué novedades recientes ha oido, madre?*

- *Que te casas, sí, hijo mío.*

¿De dónde es tu esposa?

- *Es de la corte de Francia, sí, madre mía.*

- *Yo no quiero ningún francés, y menos una nuera.*

- *Yo he de cumplir la palabra que he dado.*

- *Si has de salir con la palabra que has dado,
has de salir al camino y matarla.*

- *Es tan bonita mi esposa...*

No es posible, madre, que yo haga eso.

- *Si para ti no es posible, toma al hermano,
al hermano joven, el estudiante.*

- *Juanita, baja de encima del caballo,
para que te meta esta puñal por medio del corazón.*

- *¡Oh qué afilada la punta de ese puñal!*

Con sólo verlo me mata el corazón.

*Tengo siete caballos enjaezados con sábanas,
y el octavo, en cambio, cubierto de perlas.*

Te los daré para que me dejes con vida.

- *Ellos para mí, pero no te dejo con vida.*

- *Además de eso tengo un cáliz de oro;*

un cáliz de oro y una sobrepelliz.

Te los daré para que me dejes con vida.

- *Ellos para mí, pero no te dejo con vida.*

- *Se oye una campana. No sé de dónde.*

A lo mejor toca a agonía.

- *Trae al cura para que me confiese,
para que enderece los yerros del alma.*
- *El cura está lejos y la iglesia más aún:
para empezar con esas cosas hay poco tiempo.*

- (1) Manuel Lekuonaren orrian, alboan, aldaketa bezela: *seme laztana*.
(2) Aldaketa Manuel Lekuonaren orrian:

Esan dodan berbiaz
urten biar badot,
urten bidera eta
il ein biarko dot.

- (3) Manuel Lekuonaren orrian: *perlaz estalduta*.
(4) Emen, dudarik gabe, *Frantzie kortetik bear du*.
(5) Emen, berriz, *Frantzie kortekua bearko luke*.
(6) Gure iritzirako, *zeure anaijie ta bear du emen*.
(7) Bi *arexek* oietako bat sobre dagoala dirudi.

“Brodatzen ari nintzen...”

I

Bro-datzen a - ri nin-tzen, e - ne sa-lan ja - rri - rik;
ai - re bat en-tzun nu - en i - tsa- so - ko al - de - tik,
i - tsa- so - ko al - de - tik, un - tzi - an kan - ta - tu - rik.

Brodatzen ari nintzen, ene salan jaririk;
aire bat entzun nuen itsasoko aldetik,
itsasoko aldetik, untzian kantaturik.

Brodatzea utzirik, gan nintzen ama gana:
hean jaliko nintzen gibeleko leihora,
gibeleko leihora, itsasoko aldera.

– Bai, habil, haurra, habil, erron kapitainari,
jin dadin afaitera, hemen deskantsatzera,
hemen deskantsatzera, salaren ikustera.

– Jaun kapitaina, amak igortzen nau zu gana,
jin zaiten afaitera, hantxet deskantsatzena,
hantxet deskantsatzena, salaren ikustera.

– Andre gazte xarmanta, hoi ezin ditekena...
ipar haizea dugu, gan behar guk aitzina,
ipar haizea dugu, gan behar guk aitzina.

Andre gazte xarmanta, igan zaite untzira,
gurekin afaitera eta deskantsatzena,
hortxet deskantsatzena, salaren ikustera.

Andre gazte xarmanta igaiten da untzian,
han emaiten diote *lo-belarra* papora,
han emaiten diote *lo-belarra* papora.

– Jaun kapitaina, nora deramazu zuk haurra?
zaluxko itzulazu hartu duzun lekura,
hartu duzun lekura, aita-amen gortera!

– Nere mariñel ona, heda zak, heda, bela!
Beti nahi nuena jina zaitak aldera,
beti nahi nuena jina zaitak aldera!

– Jaun kapitaina, nora ekarri nauzu huna?
Zalu itzul nezazu hartu nauzun lekura,
hartu nauzun lekura, aita-amen gortera!

– Andre gazte xarmanta, hoi ezin ditekena...
Hiru ehun lekutan jinak gira aitzina,
hiru ehun lekutan jinak gira aitzina.

Andre gazte xarmantak hor hartzen du ezpata,
bihotzetik sartzen ta hila doa lurrera,
bihotzetik sartzen ta hila doa lurrera!

– Nere mariñel ona, norat aurtiki haurra?
– Norat aurtiki haurra? Hortxet itsas zolara!
Norat aurtiki haurra? Hortxet itsas zolara.

– Oi, ama anderea, so egizu leihora...
Zur'alaba gaixoa uhinak derabila,
zur'alaba gaixoa uhinak derabila.

Gure Herria aldizkarian, Baiona, 1921, Nehor eta C. Dufau-k jaso eta bialdua.

Ondoren onako oar au: "De cette chanson inspirée, comme celle de Anderia, gorarik zaude, des légendes étrangères, on n'a pu recueillir que des versions invraisemblables, ou les vers mesuraient souvent jusqu'à 19 pieds... Des mille pattes, quoi! Deux ou trois couplets ont été supprimés, parce que "Gure Herria" entend respecter tout ses lecteurs. On voudra s'en souvenir pour d'autres chansons également".

Bi edo iru bertso argitaratu gabe utzi zituala, beraz, irakurleen errespetuagatik. Geiago errespetatuko zituala uste degu, kanta eder au oso-osorik eman izan balu. Baiña garaian garaiko pentsamoldeak, eta ortik libratuko danik ez da mundu ontara jaioko.

Gure Herria onek bigarren aldiz ere argitaratu zuan kanta au, 1950 urtean, 61 orrialdean. Puntu egokitu nairik-edo, aldaketa bat egiten du amaikagaren bertsoan: *hoi ezin ditekena* esan bearrean, *hoi ezin egina* idazten du.

* * *

Kanta au argitara eman duten guziak, edo geienak beintzat, *Gure Herria*-n 1921-ean agertu zan aldaera ori kopiatzen dute, onako aldaketa auek sartuz: 5/2: Ipar haizea dugu, gan behar dut aintzina; 5/3: Ezin ilkia baitut, hauxe da ene pena; 6/1: Andre gazte xarmanta, zu sar zaite untzia; 7/1: Andre gazte xarmanta igaiten da untzia; 7/3: eta untzi handian lo dago gaixo haurra; 9/3: Ez duk hain usu jiten zoriona eskura; 11/1: Andre gazte xarmanta, hori ezin egina; 11/2: hiru ehun lekutan juanak gira aintzina; 11/3: Ene meneko zira, orai duzu orena; 12/3: Aldiz haren arima hegaldaka zerura; 13/1: Nere kapitain jauna, hauxe duzu malurra; 13/2: Nere mariñel hona, norat aurtiki haurra? 4/1: Hiru ehun lekutan dago itsas-leihorra; 14/2: Oi Ama Anderea, so egizu leihora.

Guk esan bear bagendu, aldaketa oiek ez dira erriaren aotik jasoak. Eskuren bat ibili da or kanta zaar au ustez itxuratzen.

Dana dala, kanta au orrela eskeiñi dutenak onako auek dira, guk somatu ditugunak beintzat:

Kantuz, 9, rue Thiers, 9, Bayonne.

Charabela, Imprimerie Darracq, Bayonne, 1951.

Mariya, Imprimerie M. Mendiburu, Bordeaux.

Kantu kanta kantore, Baiona, 1967.

Chansons Basques, Euskal Elkargoa, 16 rue de la République, Saint Jean de Luz, 1976.

Adolfo Arejita: *Arantzazure / Erromantze zahar ezezagun bat, Idatz eta mintz* aldizkarian, 3-4-garren alean.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1983), II tomoan, 136 orrialdean.

Jon Kortazar: *Neska ontziratua baladaren inguruan, Euskera*, 900 orrialdean.

Kanta oni buruzko azterketa jakingarri bat: Luis María Mujika: *Euskal lirika tradizionala*, Donostia, 1985, leenengo tomoan, 100 orrialdean; eta bigarrenean, 288 orrialdean.

II

Egun batez ari nintzelarik
sala batean brodatzen,
entzun nuben mariñel bat
itsasuan kantatzen,
itsasuan kantatzen eta
bersu ederren emaiten.

Broderia utzi eta
joaiten naiz amarengana
eian utziren ninduien
itsaso bazterrera,
itsaso bazterrera eta
bersu heien entzuterat.

– Mariñela, mariñela,
zatoz beraz barnerat,
zatoz beraz barnerat eta
gurekin afariterat;
gurekin afaiterat eta
aita-amen mintzatzerat.

– Kapitaina, capitaina,
etzaiziya bekatu,
andere gerri lerden polit ori
behar duziya tronpatu?
Andere gerri lerden polit ori
behar duziya tronpatu?

– Mariñela, mariñela,
emak untziari bela;
orai hemen atzeman dut
desiratzen nubena,
orai hemen atzeman dut
desiratzen nubena.

Itsasuan ura lodi,
zolarik ez du ageri,
ene maitia han dabila
arraina bezain igari,
ene maitia han dabila
arraina bezain igari.

Aita. Donostia: *Euskalduna, abeslari itzaldia, Obras Completas*, IV, 84 orrialdean, argibide auekin:

“Se dio en euskera, Salón Novedades de San Sebastián, el día 7 de Diciembre de 1919. Impresa primera en la revista Euskal-Esnalea, se volvió a imprimir, junto con otras conferencias, en Itzaldiak, de la misma revista, en 1923 (Bigarren Salla, p. 1-34).

Aita Jose Antonio. Donostiak, Baionako *Gure Herria* aldizkarian, 1923 urtean, 216 orrialdean, *Comment chante le basque* izeneko lana argitaratu zuan. Idazlan jakingarri ortan erromantze zaar onen leendabiziko bertsoa eskeintzen digu; eta ondoren bertso orren frantzes itzulpena, eta beste bost bertsorena ere bai.

III

E - gun ba - tez a - ri nin-tze - la - rik sa - la ba - te - an

bro - da - tzen, i - tsa - so - tik a - di - tu

nu - en ma - ri - ñel bat kan - ta - tzen, ma - ri - ñel bat

kan - ta - tzen e - ta per - tsu au - en e - ma - ten.

rit.

Egun batez ari nintzelarik
sala batean brodatzen,
itsasotik aditu nuen
mariñel bat kantatzen,
mariñel bat kantatzen eta
pertsu auen ematen.

Doiñua eta bertso auek, aita Jose Antonio Donostiaren *Euskal Eres Sorta* kantutegitik, 1921, 111 zenbakian. Berak Lapurdin jaso omen zituan, Sarako errian.

IV

Egun batez ari nintzelarik
sala batian brodatzen,
itsasotik aditu nuen
mariñel bat kantatzen,
mariñel bat kantatzen eta
bertsu hauen emaiten.

Utzirik brodatzia eta
juan nintzen amaren ganat,
heian utziko ninduenez
itsaso bazterrerat,
itsaso bazterrerat eta
kantuen entzuterat.

– Nere alaba, abil, abil
itsaso bazterrerat,
bainan oroit hadi hargatik
iluna hurbil dela,
iluna hurbil dela eta
etxerat itzultzia.

– Mariñela, mariñela,
emok utziari bela,
aspaldian desir nuena
jin zautak untzirat bera,
jin zautak untzirat bera eta
parti gaiten bereala.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 400 zenbakian, 555 orrialdean, argibide auekin: Doiñua ere bai, baiñan *Euskal Eres Sorta*-ren 111 zenbakikoa, or goien ezarri deguna, alegia.

“Infor.: Ana Iturriague, de Itsasu, en Lehetchipi. Loc. rec.: Sara. Fecha: 8 de febrero de 1917. Clas.: amorosa.

Ref.: Texto remitido por Adrianne Díharasari”.

Doiñu au bera: J. A. Donostia: *Obras Completas, IV*, 1985, 432 orrialdean, *Ejemplos musicales*.

Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduman ere agertu dira lau bertso auek, eta berdin-berdin agertu ere, *Poesías vascas labortanas* deritzaion sorta batean.

V

The musical score consists of four staves of music in G clef, 2/4 time, with a key signature of one sharp. The lyrics are in Spanish and Basque, with some words underlined. The lyrics are:

Al - di - xe ba-tez nin - da-goe - la - rik, e - ne e-tsari-an
 bir - jos - ten Ai - ton se - me bat au - te-man ni - zun i -
 tsas al - de - tik kan - ta - tzen, i - tsas al - de - tik kan - ta - tzen
 e - ta e - re - si ede - tren e - mai - ten.

Aldixe batez nindagoelarik
 sala baxean brodatzen,
 jaun gazte bat entzun nian
 itsasaldetik kantatzen,
 itsasaldetik kantatzen eta
 kobla edxerrak emaiten.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 3 zenbakian, 56 orrialdean.

Ondoren oar au egiten du: "J. Algorri, carretero recadista (no sé si natural de Lorraine (Zuberoa), cantó la melodía con sólo la primera estrofa. Las otras cinco, así como algunas correcciones de la primera, son del folklorista".

Sei bertso eskeintzen ditu, izan ere, Azkuek. Oietatik bost, berak asmatuak. Eta bestea, leendabizikoa, oso aldatua. Baiña emalearen aotik nola jaso zuan ere esaten du, eta ori da guk eskeintzen deguna. Doiñuarekin dijoan letra, berriz, Azkuek bere ikutuak egin ondokoa da.

Azkueren esku-idazkietan ere agertu dira doiñu au eta leenengo bertsoa. Baiña leen lerroa onela idatzita dago: *Aldixe batez nindagoen*.

VI

A musical score for section VI, featuring four staves of music in G major and common time. The lyrics are written below each staff:

ari nintzalarik behin
sala batean brodatzen,
aditu nian jaun marinel bat
ari zela koblatzen,
ari zela koblatzen.

la - ri nin - tza - la - rik be - hin sa -
la ba - te - an bro - da - tzen, a - di - tu ni - an
jaun ma - ri - nel bat a - ri ze - la ko - bla -
tzen, a - ri ze - la ko - bla - tzen.

Ari nintzalarik behin
sala batean brodatzen,
aditu nian jaun marinel bat
ari zela koblatzen,
ari zela koblatzen.

R. M. Azkueren esku-idazkietan azaldua. Ez det uste argitara eman zuanik.

VII

Eguntto batez nindagolarik
nere aterian bordatzen,
aiton-seme bat atxeman nizun
itxaso aldetik kantatzen,
itxaso aldetik kantatzen eta
eresi ederren ematen.

– Zer nai dezu zuk, ereslari zaldun,
nere etxian zuk egun?
– Otoi, andrea, nai nikezu
zurekentxe mintza lagun,
zurekentxe mintza lagun, izan
bordatzen ere ikastun.

Bi bertso auek Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduman agertu dira, Bitorri Etxeberriak Elizondon 1933 urtean jaso eta bialduak.

1/2 eta 2/6 lerroetan *biryosten* esaten da. Dudarik ez da *bordatzen* bear duala eta orrela idatzi degu; 1/5 lerroan, berriz, *abesten zegoan* eta *kantatzen ezarri* degu; 1/6 lerroan, berriz, *eresi dio*, baiña *kanta*, *kantu*, *kobla* edo *bertso* bearko luke, dudarik gabe. Oietako zein izango dan ezin erabaki, ordea. Orregatik, dagoan bezela utzi degu. Azkenik, 2/1 lerroaren *ereslari itzaren* lekuan, *kantalari*, *kantari*, *bertsolari*, *koblari* edo olako zerbaite bearko luke. Arrazoi beragatik, ez degu aldatu.

VIII

Behin ari nintzalarik brodatzen salan jarirrik,
aire bat entzun nian itxasoko aldetik,
itxasoko aldetik eta untzian kantaturik.

Brodatzia utzirik juran nintzan ama gana,
eia nahi nündianez utzi itxasula juitera,
itxasola juitera eta jaun haren ikustera.

- Bai, abil, haurra, abil! Eta erran izon jaun hari
jin dadin afaitatzera, gureki deskantsatzera,
gureki deskantsatzera, salaren ikustera.

Gaiteros de Pamplona: Caubet Chabuko Arhan: Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra, enero-abril, 1978.

IX

E - gun ba - tez a - ri nin - tze - la - rik sa - la ba - ti - an

bro - da - tzen, en - tzun nu - en ma - ri - ñel bat

i - tsa - su - an kan - ta - tzen,
i - tsa - su - an kan - ta - tzen
e - ta per - tsu_e - de - rren e - mai - ten.

Egun batez ari nintzelarik
sala batian brodatzen,
entzun nuen mariñel bat
itsasuan kantatzen,
itsasuan kantatzen eta
pertsu ederren emaiten.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 400 zenbakian, 556 orrialdean, argibide auekin:

“Infor.: la sirvienta de J. M^a Iraburu. Loc. rec.: Luzaide-Valcarlos. Fecha: 30 de octubre de 1919. Clas.: amorosa”.

X

Bro-da-tzen a - ri nin - tzen e - ne sa-lan ja - rri -
rik, ai - re bat en - tzun nu - en i - tsa- so - ko
al - de - tik, i - tsa- so - ko al -
de - tik, un - tzi - an kan - ta - tu - rik.

Brodatzen ari nintzen
ene salan jarririk,
aire bat entzun nuen
itsasoko aldetik,
isasoko aldetik,
untzian kantaturik.

P. Donostia, *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 400 zenbakian, 557 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: Jose M^a Iraburu. Loc. rec.: Luzaide-Valvarlos. Fecha: 30 de octubre de 1919. Clas.: amorosa. Ref.: Recogida sin letra".

XI

The musical score consists of four staves of music in G major, 2/4 time. The lyrics are written below each staff, corresponding to the notes. The lyrics are:

Be-hin a-ri nin - tze - la - rik sa-la ba-ti-an bro - da -
tzen, ai - re e - der bat en - tzun nu - en i - tsa - so - tik
kan - ta - tzen, (i) - tsa - so -- tik kan -- ta -- tzen -
e - ta ma- ri- ñe - lak ko - bla e - mai - ten.

Behin ari nintzelarik
sala batian brodatzen,
aire eder bat entzun nuen
itsasotik kantatzen,
itsasotik kantatzen eta
mariñelak kobla emaiten.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 400 zenbakian, 558 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: Leon Elissalde, seminarista de Larresoro. Loc. rec. Bayona. Fecha: 10 de junio de 1941. Clas.: amorosa".

XII

Neskatilleak:

– Aitak eta amak bialtzen naube
zeure kantak entzutera,
zeure kantak entzutera eta
etortzeko apaldutera.

Kapitanak:

– Nire kantak entzun nai duenak
salta daiala barrura.

Ordu artantxe lo-bedar artu
linda damatxu maitiak.

Neskatilleak:

– Mariñeltxubek, zenbat legu dauz
nire aman da aitan etxera?
Neure aman da aitan etxera eta
neu jaio nintzan errira?

Mariñelak:

– Kapitan jauna, kapitan jauna,
damiak il dau burube.

Kapitanak:

– Berak il badeu bere buruba,
nok dautso ari errue?

Mariñelak:

– Kapitan jauna, kapitan jauna,
ze ingo jako areri?

Kapitanak:

– Pater noster bat errezeu eta
eman daiogun urari.

Jose Ariztimuño Aitzol zanaren bilduman azaldua; 1936 urtean, Bilboko Manuel Ziarsolo Abeletxe zanak bialdua, berak Bermeoko Felipe Bilbaoren aotrik jasota.

XIII

A - ran - tza - zu - re jo - an be - ar dot ga - be - an e - do e - gu - nez, Bir -
ji - na_A - mo - ni pre - gun - ta - du - ten i - zan - go ba - da e - do ez.

A - ran - tza - zu - re jo - an be - ar dot ga - be - an e - do e - gu - nez,
Bir - ji - na_A - mo - ni pre - gun - ta - du - ten i - zan - go ba - da e - do ez.

Arantzazure joan bear dot gabean edo egunez,
Birjina Amoni pregunaduten izango bada edo ez.

Birjina Amonek baietz dino ta seme jaunonek entzun ez,
bioren borondatea balitz bitartekorik bear ez.

– Grazianatxu naure laztana, zugana biraltzen naude,
gaur asariten etorritia egin bazeinke mesede.

– Neure lagunok bai marinelak, enaz ni afari gure,
afari barik konsoladute dau neure estamangue.

Lobedartxu bat ifini zion bere bularren erdien,
mila legua pasadute be lotan topadu zebien.

Ontzitxo onek jo abenian itxasoa ta mastria,
orduterantxik irintzarri zen Grazianatxu nauria.

– Neure lagunok, eraman neizue aitaren d'amen errire.
– Mila legua eginde dagoz zure aiten da amen errire.

– Grazianatxu neure laztana, berandu akordau zara,
mila legua pasadute dauz zure aiten d'amen errira.

– Neure lagunok bai marinelak, ate au idigi dezu,
mila urtean ezin dodana oraintxe dot nik logratu.

– Deabru gaiztoak eraman deiela dendari onen jostura!
Nonbaisten bere esturik dago neure soineko txamarra.

Eskatu zeituen tijeratxuok askatuteko jostura,
sartu zeituen tijeratxuok biotzetikan barrura.

– Neure lagunok bai marinelak, oin oni zer ein geineio?
Belatxu bati amarradute ureri emon geneio.

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antologia* (Bilbao, 1995), 43 orrialdean, argibide auekin:

“Iturria: Labayru Ikastegiko MZIM artxiboa. Lekukoa: Patxi Bilbao, 80 urte, Dimakoa. Biltzaileak: Itziar Falces lehenengo eta Karmen Bernaola geroago. Biltze-data, 1982, eta 1983ko urtarrilean”.

Baita ere Idatz eta mintz aldizkarian, 3-4 zenbakian, 1982-an, aitatzerik merezi duan aldaketarik gabe.

Baita ere: J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell; *Euskal Baladak* (Donostia, 1984), bigarren tomoan, 130 orrialdean, oar onekin:

"Dima-Bargundian Antonio Cid, Gabriel Fraile, Koldo Biguri eta Ruper Le-kuek 1981-VIII-21 ean Patxi Bilbaori hartua".

Emale berarengana jo zuten, beraz, bai adolfo Arejitak eta bai beste lagun auek ere. Ala ere, bertso guztiak ez dituzte berdin. Baiña aitatzerik merezi duan aldaketarik ere ez.

Jon Kortazar: *Neska ontziratua baladaren inguruan, Euskera*, 902 orrialdean.

XIV

I - sa - be - la-txu, I-sa-be - la-txu, a-rren e - san bat ei - da - zu: a - ti - an
dau - en kan - to - re o - rri e - tor di - la e - sai - o - zu.

– Isabelatxu, Isabelatxu, arren esan bat eidazu:
atian dauen kantore orri etor dila esaiozu.

– Egun on asko euki dizule, ontziko maisu gaztia.
– Alango asko ekar dizule, linde damatxu gaztia.

– Aitek eta amak bialtzen neude au kantatxuau ikasten.
– Au kantatxuau ikis nai bozu erdu nerekin bordera.

– Eskerrik asko mile biderrez, ez dot olango usterik,
aitek eta amak etxian neukie neu ondo estimadarik.

Berbau aotik esan bazuen ze sartu zioen kapapean,
sartu zioen kapapean ta eroen zuen bordera.

Lobedartxu bet ipini neuntsen bular biaren erdian,
linde damia loak daroa bosteun legoa bidian.

Alan ta bere subertia zan untziek alkar jotia,
ordu atantxe itxartu zala linde damatxu gaztia.

- Eroan naizue, eroan naizue aiten d'amaren errire.
- Aiten d'amaren errire joateko bosteun logoak bear dire,
bosteun logoak olan eiteko orren erre札ak eztire.
- Untziko maixu gaztea, badezu kainabetea?
- Ezteukat kainabetarik baina emongo deutzut saflea.

Emon zioten saflea eta sartu zeuen biotzean,
ordu atantxe ilotzitu zen linde damatxu gaztea.

- Ene mutilak, lagunek onak, zer ingo'tsegu oneri?
 - Intzentzoagaz intzentzatu te erainotzagaz lurrendu,
linde damia zazpi astian geurekin erabil daigun.
- Ene mutilek, lagunek onak, zer ingo'tsegu oneri?
- Emon deiogun zazpine mosu ta bota deiogun ureri.
Emon zioten zazpine mosu eta bota zioten ureri.

Adolfo Arejita: *Neska ontziratua baladaren eredu barri bat, Idatz eta mintz al-dizkarian*. 13-14 zenbakian, 1987, 14 orrialdean, aurretik argibide auek emanez:

“Eredu honen biltzailea Jose Migel Larrabeiti, Euskal Filologiako neure ikaslea izan da, eta bilketa 1985-eko Maiatzean eginda dago. Balada beronen Arratiako eredua kantatzen geniharduala konturatu zan berak lehendik be entzunda-edo eukala. Esan eta egin. Bere herrian, Derion, bizi dan Juana Tellaetxe andrea izan da kantatu deutsana. 85 urte zituan grabaketa egiterakan. Jaio Zamudion egin zan, eta bizi be bai, harik eta ezkontzaz biziten Deriora etorri zan arte, 25 urtegaz.

Biltzaileak arazo larriak izan ditu testua osorik eskuratzeko. Erdi-ahaztuta eukan kantua andreak, eta apurka-apurka atera behar izan deutso: lehenengo zati bat erre札itatu, gero beste bat kantatu, gero barriro kantatu azo eta holan. Halandabe, ez dogu uste koplen ordena okerrekoan danik. Baleiteke, zatikako bilketa dala ta, edo ahaztu samar eukiaren erruz, andreorrean antxina ikasi ebana eta orain kantatu dauana guztiz bat ez etortea, baina zer egin: ahozko tradizionaren “jatorrizko” orbana da hori, baina era berean bertsortze-iturri”.

Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antologia* (Bilbo, 1995), 45 orrialdean, argibide aurekin:

“Iturria: Labayru Ikastegiko MZIM artxiboa. Lekukoa: Juana Tellaetxe, 85 urte, Zamudion jaio eta Derion bizi. Biltzailea: Jose Migel Larrabeiti. Biltze-data: 1985ean”.

XV

Neu - re a - la - ba Ma - nu - e - la - txu neu - re e - san bat ei - da -
zu a - tos-teen da - gon kan - ta - ri o - rri da - tor - ki - da - la esai - o -
zu. Bein ba-nen-go-an ka-le - an a - rri o - tza-ren ga-ne - an da-ma po -
lit bat e - to-ri da - tan an zer e - gi - ten nen - go - an.

– Neure alaba Manuelatxu,
neure esan bat eidazu;
atostean dagon kantari orri
datorkidala esaiozu.

– Aitak eta amak biraldu naude
damatxu orri esatera
datorkigula geurera eta
geurekin apaldutera.

Bein banengoan kalean eta
arri otzaren ganean,
dama polit bat etorri jatan
an zer egiten nengoan.

Geurekin apaldu eta gero
kantua irakastera.
– Nire kantua gura dabena
betor neurekin bordera.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 866 zenbakian, 1006 orrialdean, Bizkaian, Foruako Maria Manuela Artetxeri jasoa.

R. M. Azkue: *Euskalerriaren Yakintza*, (Madrid, 1947), IV tomoan, 191 orrialdean.

Aldaketak: 1/2: neure esan bat indazu; 1/3: ateostean dagon kantari orri; 4/4: betor neurekin eztegura.

Cancionero popular vasco kantutegian, *Bein banengoan kalean* irakurtzen da 2/1 lerroan. *Euskalerriaren Yakintza-n*, berriz, eta eransten zaio ondotik. Guk ere orrela idatzi degu, alaxe bear dualakoan.

Era berean, 4/2 lerroan, *kantuz irakastera* irakurtzen da *Cancionero* ortan: *kantuak irakastera*, ordea, *Euskalerraren Yakintza-n*. Guk, berriz, jatorragoa dalakoan, *kantua irakastera* idatzi degu, urrengo lerroan ere *kantua* esaten baita.

Azkueren esku-idatzietan ere azaldu da kanta au, Bizkaian, Foruako Ma-nuela Artetxe orri berari jasoa.

Iru bertso ditu emen, baiña letra jatorragoa iruditzen zaigu. Falta dana bi-garren bertsoa da, Bertso ori, izan ere, alperrik dagoala esango genduke, kon-taeraren aria eten egiten baitu. Bearbada, eraskiñen bat izango da.

Onela diote iru bertso oiek Azkueren esku-idatzietan:

– Neure alaba Manuelatxu,
neure esan bat eidazu:
atostean dagon kantoreari
datorkidala esaiozu.

– Aitak eta amak bialdu naude
datorkidala geurera,
datorkidala geurera eta
geurekin apaldutera.

Geurekin apaldutera eta
gero kantua irakustera.

– Nire kantua gura dabena
betor geurekin bordera.

Gure iritzirako, azken lerro ontan *neurekin* bearko luke.

XVI

J. Lakarra, J. Biguri eta B. Urgell-ek, beren *Euskal Baladak* bilduman (Do-nostia, 1984), bigarren tomoan, 135 orrialdean, kanta onen bertso geiago ema-ten dituzte, ondotik onela diotela:

“Azkuek Foruan Maria Manuela Artetxeri jasoa; CPV 866 zb.an (*Cancionero popular vasco*, 866 zenbakian, alegia) ez zituen lehendabiziko hogeい lerroak bai-no eman. Guk osoan ematen dugu Azkue Bibliotekako paperetarik kopiatuz”.

Ona emen, beraz, kanta osoa:

– Neure alaba Manuelatxu,
neure esan bat eidazu:
atostean dagon kantoreari
datorkidala esaiozu.

Bein banengoan kalean
arri otzaren ganean,
dama polit bat etorri jatan
an zer egiten nengoian.

– Egun on asko euki daiala,
ontziko maisu gaztea.
– Beste ainbeste euki daiala,
linda damatxu neurea.

– Aitak eta amak biraldu nabe
datorkidala geurera,
datorkidala geurera eta
geurekin apaldutera.

Geurekin apaldu eta gero
kantuen irakastera.

– Nire kantua gura dabena
betor neurekin bordera.

– Eskerrik asko mila mesede,
eztot olako usterik,
etxearen nabe aitak eta amak
ni ondo estimaturik.

Egin zuen berba bat eta
sartu zuen kapapean,
sartu zuen kapapean eta
eroan zuen untzian.

Lo-bedar bat ipini zion
bi bularraren erdian,
linda dame au lo joan jatan
bosteun legua bidean.

Portunaz bere suertau jatan
ontzian atia jotia,
ordu atantxe itzartu jatan
linda damatxu neurea.

– Ontziko maisu gaztea,
badezu kainibetea?
– Eztot nik kainibetarik baia
emongo deutzut sablea.

Sable au eskura artuta emen
sartu zuen sabel berean,
ordu atantxe ilotzitu zan
linda damatxu neurea.

– Neure mutilak, lagunak onak,
zer egingo diot oneri?
– Guzti-guztiok laztan bana emon,
bota daiogun urari.

Bertsoak osatu bearrez, lerroak seinaka biltzen dira bi alditan *Euskal Baladak* liburuan, naiz eta puntuak naastu.

Aldera ontan oiñarrituta, azterketa sakona egiten du Jon Kortazarrek: *Neska ontziratua baladaren inguruan, Euskera*, 891 orrialdean.

I

*Estando bordando, sentada en mi sala,
oí una melodía por la parte del mar,
por la parte del mar, cantada en un barco.*

*Dejando de bordar, fui a donde mi madre,
a ver si me asomaría a la ventana trasera,
a la ventana trasera, la que da hacia el mar.*

– Sí, sí, criatura, vete; dile al capitán
que venga a cenar, a descansar aquí;
a descansar aquí, a ver la sala.

– Señor capitán, mi madre me envía a vos,
para que vengáis a cenar, a descansar allí,
a descansar allí, a ver la sala.

– Joven y encantadora señora, eso es imposible.
Tenemos viento norte, debemos seguir para adelante,
tenemos viento norte, debemos seguir para adelante.

Joven y encantadora señora, subid al barco,
a cenar con nosotros y a descansar;
a descansar ahí, a ver la sala.

La joven y encantadora señora sube al barco,
allí le ponen en el pecho una hierba adormecedora,
allí le ponen en el pecho una hierba adormecedora.

– Señor capitán, ¿a dónde lleváis esta criatura?
Devolvedla rápidamente a donde la habéis raptado,
a donde la habéis raptado, a casa de sus padres.

– ¡Mi buen marinero, tiende la vela, tiéndela!
La que siempre deseé ha venido a mí,
la que siempre deseé ha venido a mí.

– Señor capitán, ¿cómo me habéis traído aquí?
Devolvedme rápidamente a donde me habéis raptado,
a donde me habéis raptado, a casa de mis padres.

– Joven y encantadora señora, eso es imposible.
Hemos bogado trescientas leguas,
hemos bogado trescientas leguas.

La joven y encantadora señora he ahí que coge una espada,
se la clava en el corazón y cae muerta a tierra,
se la clava en el corazón y cae muerta a tierra.

– Mi buen marinero, ¿a dónde arrojaremos esta criatura?
– ¿A dónde arrojaremos esta criatura? Ahí, al fondo del mar.
– ¿A dónde arrojaremos esta criatura? Ahí, al fondo del mar.

– Oh señora madre, mirad por la ventana...
Tu pobre hija flota sobre las olas.
tu pobre hija flota sobre las olas.

XII

Muchacha:

– Mi padre y mi madre me envían a escuchar vuestros cantares,
a escuchar vuestros cantares y a que convidaros a cenar.

Capitán:

– Que embarque quien desee escuchar mis cantares.

En ese momento la linda y amada dama toma una hierba adormecedora.

Muchacha:

– Marineros, ¿cuántas leguas hay a la casa de mis padres?
¿A la casa de mis padres y al pueblo en que yo naci?

Marineros:

– Señor capitán, señor capitán, la dama se ha suicidado.

Capitán:

– Si se ha suicidado, ¿quién tiene la culpa de ello?

Marineros:

– Señor capitán, señor capitán, ¿qué vamos a hacer con ella?

Capitán:

– Recemos un padre nuestro y echémosla al agua.

XIII

(Traducción de Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: Mendebaldeko Euskal Baladak / Antología (Bilbo, 1995), página 139)

Tengo de ir a Arantzazu de día o de noche,
para preguntar a la Madre Virgen si será o no.

La Virgen Madre dice que sí y el Señor Hijo no lo ha oido,
si fuera voluntad de ambos no haría falta intermediarios.

– Gracianita, cariño mío, me mandan a ti,
si harías el favor de venir hoy a cenar.

– Mis amigos, sí, marineros, no quiero cena,
sin cena mi estómago está consolado.

*Le puse una adormidera entre sus pechos,
incluso después de pasar mil leguas la encontraron dormida.*

*Cuando este barco tocó el mar y el mástil,
entonces se despertó mi Gracianita.*

– Mis amigos, llevadme al pueblo de mis padres.

– Hemos recorrido mil leguas desde el pueblo de tus padres.

– Gracianita, cariño mío, te has acordado tarde,
ya han pasado mil leguas desde el pueblo de tus padres.

– Mis queridos amigos, sí, marineros, abridme esta puerta,
lo que no puedo en mil años lo he conseguido ahora.

– Que el maldito diablo lleve la costura de este tendero,
en algún lugar está atada la zamarra que llevo encima.

*Pidió unas tijeritas para soltar la costura,
metió las tijeritas dentro de su corazón.*

– Mis amigos, sí, marineros, ¿cómo podemos hacer frente a esto?
Amarrada a una velita podemos darla al agua.

XIV

(Traducción de Adolfo Aregita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: Mendebaldeko Euskal Baladak / Antología (Bilbao, 1995), página 140)

– Isabelita, Isabelita, por favor hazme un recado:
dile a ese cantor que está en la puerta que venga.

– Que tenga muchos buenos días, joven maestro de barco.

– Muchos de éhos que tenga, linda dama joven.

- Mis padres me mandan para que aprenda esta canción.
- Si quieres aprender esta canción ven conmigo a bordo.

*Muchas gracias mil veces, no tengo esa intención;
soy muy estimada en casa de mis padres.*

*Dijo esta palabra de la boca, pero la metió bajo la capa;
la metió bajo la capa y la llevó a bordo.*

*Le puse una adormidera entre sus pechos,
el sueño lleva a la linda dama quinientas leguas de camino.*

*Así y todo fue casualidad que chocaran los barcos
despertándose en ese momento la joven damita.*

- Llevadme, llevadme al pueblo de mis padres.
- Para ir al pueblo de los padres se necesitan quinientas leguas,
quinientas leguas no son tan fáciles de recorrer.
- Joven maestro del barco, ¿tiene usted navaja?
- No tengo navaja, pero te daré el sable.

*Le dieron el sable y se lo introdujo en el corazón,
en aquel momento quedó cadáver la joven damita.*

- ¡Ay, chicos, buenos amigos míos! ¿Qué haremos con ésta?
- Incensarla con incienso y perfumarla con laurel,
llevaremos a la linda dama con nosotros durante siete semanas.
- ¡Ay, chicos, buenos amigos míos! ¿Qué haremos con ésta?
Le daremos cada uno siete besos y la echaremos al agua.
Le dieron siete besos cada uno y la echaron al agua.

XV

- Hija mía Manuelita, hazme un recado:
al cantor que está tras la puerta dile que venga.

*Una vez me encontraba en la calle, sobre la fría piedra;
se me acercó una bonita dama (preguntándome) a ver qué hacía allí.*

- Que tengáis muy buenos días, joven capitán de barco.
- Que otro tanto tengáis vos, mi linda damita.

– Mis padres me han enviado a que venga usted a nuestra casa;
a que venga usted a nuestra casa y a cenar con nosotros.

A cenar con nosotros y después a enseñarnos su canción.

– Quien desee mi canción, que suba conmigo a bordo.

– Muchas gracias por sus favores; pero no creo (que haré) tal cosa.
En casa me tienen mi padre y mi madre en gran estimación.

Dijo alguna palabra y la introdujo bajo la capa;
la introdujo bajo la capa y se la llevó al barco.

Una hierba adormecedora le puso entre sus dos pechos;
esta linda dama recorrió dormida quinientas leguas de camino.

Por casualidad me sucedió que golpeará la puerta en el barco;
en aquella hora se despertó mi linda damita.

– Joven capitán del barco, ¿tenéis una navaja?

– Yo no tengo navaja, pero te daré un sable.

Tomando el sable en la mano se lo clavó en su vientre;
en aquella hora cayó muerta mi linda damita.

– Mis muchachos, buenos compañeros, ¿qué puedo hacerle a ésta?

– Que todos le demos un abrazo y la echemos al agua.

"Arrosa xuriaren artian..." edo "Elorri xuriaren azpian..."

I

Kanta onen leenengo aitamena Augustin Chaho-k egin omen zuan. Onela dio *L. D.-ek –Louis Dassance jauna zanak, alegia, ziur asko- Gure Herria aldizkarian, 1931 urteko IX-X zenbakian, kanta oni buruz argitaratu zuan lan batean:*

"La première mention que nous ayions rencontrée de cette jolie légende se trouve dans le livre d'Augustin Chaho intitulé Biarritz entre les Pyrénées et l'Océan, Itinéraire pittoresque.

Les chapitres 48 et 49 de cet ancêtre des guides touristiques de notre région ont pour objet de donner une idée de la chanson et de la poésie populaires basques.

N'oublions pas que Chaho était souletin et baskophile ardent –eskualzale– et de plus fort bien documenté. Il nous dit lui-même (op. cit., t. II, p. 180): "L'Itinéraire, possesseur d'un recueil de chansons le plus complet peut-être qui existe dans les sept provinces, déclare que lorsque il ne cite pas le texte il traduit toujours à la lettre, mot par mot".

Maintenant que nous connaissons la méthode de Chaho, nous pourrons vérifier l'exactitude de cette assertion en lisant le passage qu'il consacre à notre chanson et en le confrontant avec le texte basque que nous donnons plus loin. Voici comment s'exprime l'écrivain Atharratzar:

"Il n'est pas moins rare que l'amour ou la passion qui usurpe parfois ce titre, amènent chez les Basques le rapt et les enlèvements de vive force ou par trahison. L'histoire de la jeune demoiselle enlevée par trois capitaines ou mousquetaires, a laissé une légende fort touchante: elle a le ton et la couleur de la fin du seizième siècle.

La jeune personne s'est endormie au milieu des roses blanches: elle-même est aussi blanche que le lis et la neige, belle comme un soleil. C'est le barde qui parle. Les mousquetaires qui la guettaient fondent sur elle, l'enveloppent dans un manteau, et l'emportent rapidement à Paris. On la dépose dans un appartement éclairé par cent bougies.

De belles peintures, des dorures éblouissantes et de grands miroirs de Venise qui redoublent cette grande clarté, frappent les regards de la jeune souletine(?). Sur une table couverte de vaisselle plate sont des bouquets de fleurs, des flacons de cristal et tous les apprêts d'un somptueux festin. Mangez et buvez sans crainte lui disent les trois corsaires. La jeune fille, à ce mot, jette un cri d'horreur et tombe morte. Les ravisseurs sortent de l'appartement, les larmes aux yeux, comprenant trop tard le crime abominable qu'ils ont commis.

Hirour egunen burian,
hilak oihu aitari:
– Aita, entzun nezazu,
otoi, sinetsi behar duzu;
bertutia begiratu nahiz
hilik egona nuzu.

Au bout de trois jeurs, la morte fait un cri à son père. Ecoutez-moi, père, de grâce; vous deves le croire; c'est par le vif desir de préserver ma vertu que je suis restée morte (à Paris)".

II

Arrosa xuriaren artian
anderia luak hartü,
elürra bezain xuririk,
ekia bezain xuririk.
Hirur kapitain zaudian
kortez enganatürik.

Kapitain hetarik batek
zaldiala altxatü,
aberrialat altxatü eta
mantuaz ontsa trozatü,
Pariserat partitü,
aitak ez deus jakintü.

Pariserat heltü nintzanian
ostalertsa aitzinian.
Banindüzün salütatü,
bai eta berriak galtatü:
– Bortxaz ala amodioz
jina ziren errazü.

– Ez, ez, ene bihotza,
arras bortxaz jina nüzü:
hirur kapitañek
hartürik jina nüzü.
Hirur kapitañek hori entzünik,
anderia gana laster.

Kapitañak entzün zienian,
kanberan nindien sartü.

– Anderia, jan ezazü
pausüz eta trankilkki;
hirur kapitain bagütüzü
gaur zure zerbitxari.

Anderia, hori entzünik,
hilik lürrerat erori.

Kapitañak ere bai juan
beren ezpatak hartürik,
nigarrez ari zirela
anderiari dolü eginik.

Hirur egünen bütrian
hilak oihü aitari:
– Aita, entzün nezazü;
otoi, sinetsi behar düzü:
bertütia begiratü nahiz
hilik egina nüzü.

Luis Dassance zanaren bildumatik, esku-idazki batetik. Goian, saiets batean, onako oar au: "*Num. 100 de Chaho*". Augustin Chahoren bildumako eun-garren zenbakia duan kanta, alegia. Bilduma ori Telesforo Monzón zanaren alargunaren mendean dago gaur egunean.

Dassance-ren bilduman, beste orri batean eta eskuz idatzita, bertso auek aurreko aldaera ortan bezelaxe daude, aldaketa auek izan ezik: 1/6: kortez inguraturik; 2/6: aitak ez dun jakintu; 3/2: ostalertsa aintzinatu. Eta bukaeran onako oar au: "*Quelques chansons copiées de le manuscrit de Monjogaina*".

III

A- rro-sa xu-ri-a-ren az - pi - an an - de-re - ak lo - khar-

khar - tu, e - lu - rra be - zain xu-ri, i - ruz-ki-a be-

zain e- de - trik, hi - rur - ka - pi - tain - nek

ze - rau - ka - - - ten gor-tez in-gu - ra - tu - rik.
 ez, ez, e - ne bi - ho-tza a - rras bor-txaz ji - na du -
 zu: hi - rur ka - pi-tai - - - nek ga-le - ri -
 a - - - - tik har-tu - rik ji - na - nu - zu.

Arrosa xuriaren azpian anderea lokartu,
elurra bezain xuri, iruzkia bezain ederrik,
hirur kapitaineek zeraukaten gortez inguraturik.

Kapitaineek yoan ziran beren zaldiak harturik,
hartu zuten anderea mantoz ontsa trozaturik,
gero Pariserat ereman zuten aitak yakin gaberik.

Parisen ostaliersak bazuen salutatu,
..... berriak ere galdu:
- Bortxaz ala amodioz jina zara, andrea? Errazu.

- Ez, ez, ene bihotza arras bortxaz jina duzu;
hirur kapitaineek galeriatik harturik jina nuzu.

Kapitaineek hori entzunik jiten dire andereagana:
- Anderea, afal zite eztirik eta trankilik;
hirur kapitain izanen tuzu gaur zure zerbitzari.

Anderea hori entzunik hila zuzun erori,
kapitainak yoan ziren beren zaldiak harturik,
nigar egiten zutelarik andereari dolu eginik.

Handik hirur egunen buruan andereak aitari oihu:

- Ai, aita, ni orai hemen niagozu,
birjinitatearen nahiz begiratu hilaren egon nuzu.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 821 zenbakian, 949 orrialdean, Donazaharreko Dominika Urrutirik jasoa.

Iruigarren bertsoaren bigarren lerroak, Azkuek idazten duanez, erdia falta du. Utsune ori betetzeko, naikoa litzake aurrekoaren puska bat errepikatzea, onela esanez: *bazuen saludatu eta berriak ere galdu*. Orrelaxe bear dualauste degu, gaiñera, kanta zaar auetan ainbat alditan egiten danez.

Zazpigarren bertsoan, oihu itza bigarren lerroan idazten du Azkuek. Leenengoan bear du noski, puntuia egin dezan.

Azkueren esku-idazkietan ere agertu da kanta au, baiña bi aldaketarekin: 2/3: Pariserat ereman zuten aitak jakin gaberik; 8/3: birjinitatea nahiz begiratu hilaren egon nuzu.

Bere *Euskalerriaren Yakintza-n* ere argitaratu zuan Azkuek kanta au, IV tomoan, 175 orrialdean. Doiñurik gabe, ordea.

Kanta oni buruzko azterketa: Luis M. Mujika: *Euskal lirika tradizionala (II)*, Donostia 1985, 270 orrialdean.

IV

A - rro - sa xu - ri a - ren az - pi - an an - de - re -
a lo - kar - tu e - lu - rra be - zain txu - ri, e -
ki - a be - zain e - de - rrrik hi - ru ka - pi - tai - nek ze - rau -
ka - ten gor - tez in - gu - ra - tu - - - - rik.

Arrosa xuriaren azpian anderea lokartu,
elurra bezain txuri, ekia bezain ederrik,
hirur kapitaineek zeraukaten gortez inguraturik.

Kanta onen beste aldaera au Hazparnen bildu zuan Azkuek, eta bere bilduma ortan zenbaki berean argitaratu, 821-garrenean alegia. Baiña emalearen izena etzuan idatzi.

V

A- rro- sa xu - ri- a- ren az - pi - an - an-de-re- a zu - zun
lok - ar - tu hi - ru ka - pi- tai - nek zi - zi- en gor-tez in- gu -
ra - tu a- bre-an har - tu e - ta Pa-ri-sen zu- ten sar - tu.

Arrosa xuriaren azpian anderea zuzun lokartu,
hirur kapitaineek zizien gortez inguratu,
abrean hartu eta Parisen zuten sartu.

Garazin bildu zuan Azkuek kanta onen beste aldaera au. Baiña aldi ontan ere etzuan emalearen izenik artu; ezta erriarenik ere. Argitara eman gabe, bere esku-idazkietan utzi zuan; eta andik artua degu.

VI

Parisen ostalari zar batek
ninduen saludatu,
berriak ere galdetu:
- Bortxan edo amorioz jina nintzan
arren errain nauzu.

- Ez naiz, ez, amorioz jina,
ongi bortxan jin nauzu,
iru kapitaineek, gordean
berenganaturik,
Parisera ekarri ninduten
aitak jakin gaberik.

Lekaroztik, Aita Donostia zanaren paperetatik, esku-idazki batetik.

Iru aldaketa sartu ditugu: *egina nintzan, amorioz egina eta egin nauzu idatzita dago paperean; baiña dudarik ez da jina nintzan, dmorioz jina eta jin nauzu bear duala.*

Leenengo bertsoak bost lerro ditu, sei bear bazituan ere. Gure iritzirako, bigarren lerroa errepikatu egin bearko litzake bearbada, irugarren eta laugaren bertsoak onela esanez: *ninduen saludatu eta / berriak ere galduet.*

VII

E - lo - rri - txu - ri - a - ren az - pi - an an - de - ri -
a da lo - kar - tu, a - rro - sa be - zin go - rri,
dia - man - ta be - zin e - de - rrik; i - ru ka - pi - tai - nek
or - de - ra ma - te txe - naz a - ma - rra - tu - rik.

Elorri txuriaren azpian anderia da lokartu,
arrosa bezin gorri, diamanta bezin ederrik,
iru kapitainek or deramate txenaz amarraturik

Aita Donostia: *Euskel Eres Sorta* kantutegia, 1921, 320 zenbakian, Azkainen bildua.

Baita ere: P. Donostia: *Cancionero vasco, I*, Donostia, 1994, 192 zenbakian, 277 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: Catalin. Loc. rec. Azkaine. Fecha: 1913. Clas.: narrativa".

VIII

Elorri xuriaren azpian anderea lokartu,
arrosa bezen eder, elurra bezen txuririk,
hirur kapitainek hor deramate gortez enganaturik.

Hirur kapitainak jin ziren anderearen xerka;
zamarian ezarri dute mantoaz trozaturik,
Pariserat eraman dute ait'amek jakin gaberik.

Parisen ostalertsa batek ederki salutatu,
ederki salutatu, berriak ere galdu:
– Bortxaz ala amodioz jina ziren, anderea, errazu.

Anderea zen orduian eztiki deklaratu:
– Ez, ez, ene bihotza arras bortxaz jina duzu,
hirur kapitainek galeriatik ebatsirik jina nuzu.

Kapitainek hitz hori entzunik, jin ziren andereagana:
– Anderea, afal zaite eztirik eta trankilik,
hirur kapitain baditzketzu gaur zure zerbitzari.

Anderea, hitz hori entzunik, hil hotza zen erori,
kapitainek ere partitu beren tropak harturik,
ongi nigar egiten zutela andereari dolu emanik.

– Anderea hila da; nun ehortziren dugu?
– Aitaren baratzean, ezpelaren azpian,
liho liliz estalirik eta tunba eder batean.

Handik hirurgarren egunean, hilak aitari oihu:
– Aita, entzun nezazu: ni orain hemen nuzu;
birjinitatea beiratu nahiz hila egona nuzu.

– Hori hola egin baduzu behar bezalakoa zira zu.
Moltsan sartzen tut eskuak zure ezkonarazteko,
jaun gazte aberats batekilan zure kalitateko.

Kanta au, *L. D. firmatzen duan batek – Luis Dassance zanak, ziur asko- Gu-re Herria* aldizkarian eman zuan argitara, 1931 urteko IX-X zenbakian. Berak nundik zuan adierazteko, onela dio:

"Voici maintenant les couplets de cette complainte tels que nous les a chantés un laboureur d'Ustaritz, R. Lafitte, sur une mélodie très voisine de celle recueillie par le R. P. Donostia.

Guk dakigunez, aldaera au kopiatu dute beste argitalpen auek:

Gure Almanaka, 1956, 56 orrialdean.

Herria astekaria, 1965-IV-29. Aldaketak: 3/3: Bortxaz ala amodioz jina ziren errazu; 6/1: Anderea, hitz hok entzunik, hitz hotza zen erori. (*Hil otza berarko lukela dudarik ez da.*)

Kantu kanta kantore bilduma, Baiona, 1967. Aldaketak: 3/3: Bortxaz ala amodioz jina ziren errazu; 6/1: Anderea, hitz hok entzunik, hil hotza zen erori.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak*, (Hordago, Donostia, 1984) II tomoan, 107 orrialdean.

IX

The musical score consists of three staves of music in G major. The first staff starts with a 2/4 time signature, followed by a 3/4 time signature, then a 6/8 time signature, and ends with a 3/4 time signature. The second staff starts with a 3/4 time signature, followed by a 6/8 time signature, and ends with a 3/4 time signature. The third staff starts with a 6/8 time signature and ends with a 3/4 time signature. The lyrics are written below each staff, corresponding to the musical notes. The lyrics are:

A - rro - sa xu-ri-a - ren az - pi - an an- de-ri-ak lo-kar -
tu. E - lu-rra be-zen xu - ri, e-ki-a-be-zen e-de - rrrik Hi -
ru ka-pi-tai-nek de - ra - ma - te gor-kiaz en-ge- ya-tu - rik.

Arrosa zuriaren azpian anderiak lokartu,
elurra bezen xuri, elkia bezen ederrik,
hiru kapitaineik deramate gorkiaz engeiaturik.

Hiru kapitaineik joan ziren anderiaren gana,
Zaldian ezarri zuten mantoz ongi trozaturik,
Pariserat ere eraman, aitak jakin gaberik.

Parisen ostalera batek ongi du saludatu;
ongi du saludatu, berriak ere galdeku:
– Bortxaz ala amodioz jina ziren, anderia, errazu.

Anderiak erreputa nola eman badaki:
– Ez, ez; ene bihotza ongi triste jina duzu.
Hiru kapitainek balkoni batetik harturik jina nuzu.

Kapitainek, hori entzunik, joan ziran anderia gana:
– Anderia, afal zaite eztiki eta trankilki:
hiru kapitain hauk derauzkatzu gaur zure zerbitzari.

Anderia, hori entzunik, hil hotza zen erori.
Kapitainek joan ziren beren tropak harturik,
ongi nigar egiten zutela anderiak dolu eginik.

Gero, hil eta onduan: –Non ehortziren dugu?
– Aitaren baratzian, ezpela baten azpian,
lino liliz inguraturik, tonba baten barnian.

Hiru egunen buruan, hilak aitari oihu:
– Aita, entzun nezazu; orainon hemen niagozu.
Birjinitatea begiratu nahiz hila egona nuzu.

Beste aldaera au Aita Donostia zanak *Yakintza* aldizkarian argitaratu zuan, 1936 urtean, 57-65 orrialdeetan.

Baita ere: *Cancionero vasco* bilduman, 191 zenbakian, 275 orrialdean.

Noren aotik jasoa zuan adierazteko, onela dio *Yakintza* aldizkarian:

“12 de Octubre, a Yana-Mari Bergara, del caserío Iriburua de Sara. La apren-dió en Sempere”.

Ondoren onela jarraitzen du:

“Bella leyenda recogida en un caserío habitado por una familia en que la canción popular se per-petúa de abuelos a nietos.

Mi sorpresa fue grande cuando hace algunos meses, examinando un Cancionero nivernés(1), di con una leyenda exactamente igual a la que acabo de transcribir en su texto literario, aun cuando sus melodías respectivas fueran diferentes. Héla aquí:

Celle que fait la morte pour son honneur garder

I

Dessous les rosiers blancs
la belle se promène,
blanche comme la neige,
belle comme le jour.
Trois jolis capitaines
s'en vont lui faire l'amour.

II

Le plus jeune des trois
la prend par sa main blanche:
- Montez, montez, la belle,
sur mon cheval (e) gris.
A Paris je vous mène,
dans un fort beau logis.

III

Ne fut pas arrivée,
l'hôtesse lui demande:
- Dites-moi donc, la belle,
ditez-moi sans mentir,
et's vous ici par force
ou bien par vos plaisirs?

IV

La belle lui répond
comme une horriète fille:
- Je suis ici par force
et non par mes plaisirs;
au château de mon père
trois capitain's m'ont pris.

V

Quan ce fut au souper,
la bell' ni boit ni mange:
- Buvez, mangez, la belle,
prenez de l'appétit,
avec trois capitaines
vous passerez la nuit.

VI

Le mot ne fut point dit,
la belle est tombée morte:
- Sonnez, sonnez, trompettes,
tambours du régiment,
Puisque ma mie est morte,
j'en ai le coeur dolent.

VII

- Où l'enterrerons-nous,
cette joli' princesse?
- Au jardin de son père,
dessous les fleurs de lys;
nous prierons Dieu pour elle,
qu'elle aille en Paradis.

VIII

Tout au bout de trois jours,
son père se promène:
- Ouvrez, ouvrez ma tombe,
mon pér', si vous m'aimez,
j'ai fait trois jours la morte
pour mon honneur garder.

No es sólo este cancionero nivernés el que me deparó la sorpresa de este hallazgo. Un libro muy interesante de un maestro de estas disciplinas folklóricas, Julien Tiersot(2), vino a confirmarlo, y un tercer cuaderno de canciones, de E. Rolland(3), -que ojeé al azar- confirmó esta penetración pacífica de los pueblos entre sí, pontiéndome a la vista un detalle que la versión de Dassance traía como un estrembote, como un aditamento que, según él, no figuraría en la primera versión. Me refiero a la novena estrofa aparecida en su artículo de Gure Herria. Yo no la he recogido: mi versión es pareja de la nivernesa y de la de Tiersot. También lo es de las cuatro que trae Rolland. Pero éste nos da una cuarta, en la que aparece una última estrofa, la correspondiente a la novena de Dassance. Dice así la francesa:

Quand les rosiers blancs
eurent fleur(e)s nouvelles:
- Allons, ma fille, allons,
il faut vous marier.
Pauvre capitaine,
le duc va l'épouser!

El desenlace feliz de esta historia se da también en la versión de Dassance, pero con la particularidad de que en ésta es un premio a la virtud:

Hori hola egin baduzu, behar bezalakoa zira zu.
Moltsan sartzen tut eskuak zure ezkonarazteko
jaun gazte aberats batekilan zure kalitateko.

El lector verá las pequeñas diferencias que existen entre las dos versiones, la vasca y la que doy francesa. No tengo por qué advertir que hay otras variantes entre los diversos textos, aun franceses. No tiene esto nada de particular, porque la canción es conocidísima en Francia y sujetá, por consiguiente, a cambios frecuentes de detalle al pasar de boca en boca...”.

* * *

Luis M. Mujika: *Euskal lirika tradizionala (I)*, Donostia, 1985, 93 orrialdean.

X

An - de - ri - a, e - rra - zu, bor -
txaz a-la_a - mo - di - oz ji - na za - re - nez zu.
Bai hu - na jí - na nu - zu on - gi bor -
txa - tu - rik; hi - ru ka - pi - tai - nen er -
di - an xe - naz a - ma - rra - tu - rik.

- Anderia, errazu,
bortxaz ala amodioz
jina zarenez zu.
- Bai huna jina nuzu
ongi bortxaturik;
hiru kapitainen erdian
xenaz amarraturik.
-
.....
.....
Aitaren baratzian
aren loren erdian,
aren loren erdian eta
tonba eder batian.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, I*, Donostia, 1994, 192 zenbakian, 278 eta 279 orrialdeetan, argibide auekin:

"Infor.: Dominique Lakarra, 66 años, aprendida de uno de Ezpeleta, en una boda. Loc. rec.: Azkaine. Fecha: 20 de octubre de 1923. Clas.: narrativa".

Aita Donostiaren kantutegi ortan emanaldi au errepikatu egiten da.

XI

An - de - ri - a, e - rra - zu, bor -
txaz a-la_a - mo - di - oz ji - na za - re - nez zu.
Bai hu - na ji - na nu - zu on - gi bor -
txa - tu - rik; hi - ru ka - pi - tai - nen er -
di - an xe - naz a - ma - rra - tu - rik.

- Anderia, errazu,
bortxaz ala amodioz
jina zarenez zu.
- Bai huna jina nuzu
ongi bortxaturik;
hiru kapitainen erdian
xenaz amarraturik.

P. Donostia: *Cancionero vasco, I*, Donostia, 1994, 192 zenbakian, 279 orrialdean, argibibide auekin:

“Infor.: Dominique Lakarra, 66 años. Loc. rec.: Azkaine. Fecha: 20 de octubre de 1923. Clas. narrativa. Ref.: Al igual que la anterior, aprendida de uno de Ezpeleta, en unas bodas”.

Emale berari bi doiñu artu, beraz. Edo doiñu bakarra zenbait aldaketarekin.

XII

Arrosa txuriaren azpian anderea lokarturik,
elurra bezain txuri, eguzkia bezain ederrik,
hirur kapitanek zeraukaten gortez inguraturik.

Kapitainek joan ziren zaldiak harturik,
hartu zuten anderea mantoz ontsa trozaturik
gero Pariserat ereman zuten, aitak eta amak jakin gaberik.

Parisen ostaliertsa batek ninduen salutatu,
ninduen salutatu, berriak ere galdu:
– Bortxaz ala amodioz jina ziran erraidazu.

– Ez naiz amodioz jina, ongi bortxaz ni jina nuzu,
hirur kapitainek, bortxian berenganaturik,
Pariserat ereman ninduten, aitak eta amak jakin gaberik.

Kapitainek hori entzunik jiten dire andereagana:
– Anderea, apal zite eztiki eta trankilkia,
hirur kapitain izanen tuzu gaur zure zerbitzari.

Anderea, hori entzunik, hila zizun erori,
kapitainak joan ziran beren zaldiak harturik,
negar egiten zutelarik andereari dolu eginik.

Handik hirur egunen buruan andereak aitari oihu:

- Ai, aita, ni orai hemen niagozu,
birjinitatearen nahiz begiratu hilaren egon nuzu.

Giartzungo Juan Mari Lekuonak kantatu eta magnetofonoz jasoa.

VIII

*Debajo del espino blanco la señora se ha dormido,
bella como una rosa, blanca como la nieve;
tres capitanes se la llevan engañada.*

*Los tres capitanes vinieron en busca de la señora,
lsobre una caballería la han colocado, envuelta en un manto.
Se la han llevado a París, sin saberlo sus padres.*

*En París una posadera le saluda cumplidamente;
le saluda cumplidamente y le pide detalles:
Dime, señora, si vienes a la fuerza o por amor.*

*La señora entonces se declaró suavemente:
– No, no; mi corazón ha venido muy a la fuerza;
he venido habiéndome robado en la galería tres capitanes.*

*Los capitanes, al oír esa palabra, se acercan a la señora:
– Señora, cena sabrosa y tranquilamente;
hoy tendrás tres capitanes como servidores tuyos.*

*La señora, al oír esas palabras, cae muerta.
Los capitanes parten, juntando sus tropas,
llorando copiosamente por el duelo de la señora.*

*– La señora ha muerto. ¿Dónde la enterraremos?
– En la huerta de (su) padre, debajo de un boj,
cubierta de lirios y en una hermosa tumba.*

*Al tercer día la muerta grita a su padre:
– Padre, óyeme; estoy aquí ahora.
Queriendo guardar la virginidad, me he hecho la muerta.*

– *Si lo has hecho así, eres como debes ser.
Meto las manos en la bolsa para casarte
con un señor joven y rico, de tu calidad.*

- (1) *Recueil de Chants Populaires du Nivernais (Première Serie)*, 1934.
- (2) *La Chanson Populaire et les Ecrivains Romantiques*.
- (3) E, Rolland: *Recueil de Chansons Populaire*, Tomo III, 1887.

"Egun batian ni banenguan..."

I

Egun batian ni banenguan
kostela kostel gañian,
ni enenguan kostel saltzian
ezpabe gari saltzian.

Iru damatxu etorri ziran
bata bestien atzian,
irugarrenak pregunta eustan
gariak zegan zirian.

– Bestientzako dirutan eta
zuretzat laztan-trukian.

– Ez nagizula lotsatu, arren,
onelan plaza betian,
onelan plaza betian eta
ainbeste jende artian.

Orrelan bere esan bazeustan
leku sekretu batian,
gariak eta zeu ta neu bere
an konponduko giñian.

Ama neuria labarako da
goiz edo arratsaldian,
paseito bat emoidakezu
ama laban dan artian.

Ama labatik etorri eta
mutil-usaiña etxian:
– Ana Juanixe, Ana Juanixe,
zein da dauana etxian?

10

20

- Katalinatxu auzokua da
beroi laban dan artian.
– Eztona ori Katalinatxu,
bizarra dau okotzian. 30
Itxagon daizu, mutil, itxagon,
argia piztu artian,
argia piztu artian eta
ikusi zeu nor zarian.
– Ama, beorreki ez dauela nai
neure osasunik etxian;
biyotz illunak egiten jataz
argiya datorrenian.
Urten daik, mutil, urten daik, mutil,
alako bentanarian, 40
ama neuriak urten dagiyan
kanpora sospetxerian.

* * *

- Egun batian ni banenguan
Londresko ziudadian,
maitiarentzat joia erosten
tableru baten gaiñian,
dama bateri galdetu neutsan
joia ok zegan zirian.
– Bestientzako dirutan eta
zeuretzat buru trukian. 50
– Eskerrik asko, dama galanta,
ez dot armarik aldian,
neure arma onak itxi nituan
Motriko erri onian,
Motriko erri onian eta
Ana Juanixen etxian.

* * *

- Txalopatxu bat, txalopatxu bi
Santa Klararen parian,
neure anaia antxe datorke
batian edo bestian. 60
– Neure anaia, zer barri diraz
Mutriko erri onian?

- Barriak onak diradez, baña
jazo da kalte sobria.
– O, neure anaia: ez edo-da il
biyoren aita maitia?
– Biyoren aita ez da il, baña
jazo da kalte sobria.
– O, traidoria! Ez edo-da il
biyoren ama maitia? 70
– Biyoren ama ez da il, baña
jazo da kalte sobria.
– O, neure anaia: ez edo-da il
biyoren arreba maitia?
– Ana Juanixe ezkontzen zala
iñuen atzo kalian,
Ana Juanixe ezkontzen zala
aita ta amaren lotsian.
– Ezin izan lei ori egiya;
neuk dot armia aldian, 80
armia eta gurutza bere
neuk ditudaz bularrian;
neure arma onak tiretuko dau
bizi diraden artian.
– Kapitan jauna, arria bela
txalopa nabegantian,
ainbat ariñen sartu gaitezan
Motriku erri onian,
Motriku erri onian eta
Ana Juanixen etxian. 90

* * *

Ogeitamairu dama lindatxu
Motrikun molla gaiñian,
Ana Juanixe antxe dalarik
arexen danen artian.
Batak "agur" ta bestiak "adios",
Juanixe negar batian.
– Ana Juanixe, zer pasatu da
Motriku erri onian?
– Zaldun gaztia, neuk bere ez dakit
zeu nundikua zarian. 100
– Neuk badakit, ba, Ana Juanixe
zeu nundikua zarian,

zeu nundikua zarian eta
 noren alaba zarian.
 Damatxu baten arma-gurutzak
 daruadaz bularrian;
 Ana Juanixe, ondo dakizu
 biok norenak dirian.
 Ana Juanixe, ez eixu esan
 berbarik banidadian;
 despedidako gabian bere
 neure besuan ziñian:
 zeuk niri laztan, neuk zuri laztan
 an despedidu giñian.
 Joia ok bere banakartzuzan
 zuretzat izan ustian,
 beste damatxuk gozako dituz
 zeuk ezin al dozunian.

110

Kanta luze au bi tokitan arkitu degu: Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduman eta Manuel Lekuonaren *Literatura oral vasca* liburuan (*Colección Auñamendi*, 45, Donostia, 1965), 155 orrialdean. Baita beraren *Idaz-lan guztiak* bilduman ere, leenengo tomoan, 374 orrialdean.

Lekuonak ez du esaten nundik jasoa duan. *Aitzol-en* bilduman, berriz, 1935 urtean *Kardaberaztarrak* izeneko apaizgai-taldeak bildua dala adierazten da.

Lekuonak talde orren zuzendari-edo egiten baitzuan, jasoaldi bera izango da, dudarik gabe. Alegia, iturri bereko ura dutela Lekuonak eta *Aitzol-ek*.

Guk Lekuonari kopiatu diogu, irugarren leroan izan ezik. Lekuonak onela du: *ni banenguan kostel saltzian; Aitzol-ek*, berriz, onela: *ni enenguan kostel saltzian*. Bigarren era ontan idatzi degu, esan-naierako ala bear dualakoan,

Ortaz aparte, *Aitzol-ek* beste aldaketa batzuk ere baditu, eta oietxek agertuko ditugu orain. Ortarako dira kantaren eskubiko saietsean ezarri ditugun zenbakiak. Ona emen aldaketa oiek:

3: ni enenguan kostal saltzian; 9: Bestientzat dirutan eta; 11-14: enaizu lotsatu / onela plaza betian/ eta ainbeste jente artian; 17: gariak zeu ta neu bere; 21: paseito bat emon keidazu; 26: zein da deukana etxian? 28: beorrí laban dan artian; 30/ bizarre dauka okotzian; 31/34: itxagok daik, mutil, / argia biztu artian / eta zeu nor zarian / ikusi artian; 35: Ama, beorreki ez dau nai; 38: Urten daik, mutil, (bein bakarrik; 40: alako bentanatxo batetik; 42: kanpora sospetxatik; 47: dama baterik pregunta neutsan; 4/9: Bestientzat dirutan eta; 61: Neure anaie, zer barri oi dek; 67: Bioren aita ez baña; 71: Bioren ama maitea ez da ill baña; 73-74: Lekuonak ez ditu lerro auek. *Aitzol-en* bildumatik artuak ditugu. Baiña ontan beste onela daude: edo da ill bioren / arreba maitia; 76-77: ziñuen atzo kalian / eta aita ta amaren lotsian; 82: neuk ditut bularrian; 84: bizi diradenen artian; 93: Ana Juanixe antxe dala; 95: Batek "agur", bestiak "adios"; 97/ Ana Juanixe (besterik gabe); 98: zer pasatzen da gaur zeugaz?; 100: zeu nundik noraku zarian; 101: Neu badakit ba (bes-

terik gabe); 104-105: lerro auek salta Aitzol-en bilduman; 115: Lekuonak: *joya asko bere*; *Aitzol-ek: joyak bere*. Guk uste, *joia ok bere* bear du, 48-garren lerroan bezela.

Bukaeran, *Aitzol-ek* beste lau lerro auek ditu, gure iritzirako beintzat kanta onekin zer ikusirik ez dutenak:

Neure ortuan dago madari,
adarrak ditu amabi,
neure maitia begira dago
leio eder batetik.

* * *

K. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak*, (Donostia, 1983), bigarren tomoan, 58 orrialdean. Auek ere Lekuonari kopiatu diote.

Kanta oni buruzko azterketa: Luis M. Mujika: Euskal lirika tradizionala (I), Donostia 1985, 175 orrialdean; eta (II), 279 orrialdean.

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Baladak / Antologia* (Bilbo, 1995), 23 orrialdean, argibide auekin:

"Iturria: LOV. Lekuko: Ondarroakoa. Biltzailea: Augustin Zubikaraik M. Lekuonari eskuratu eutsan".

Leen ikusi degunez, aldaera au *Kardaberaztarrak Aitzol* zanari bialdua da. Emes esaten danez, Zubikaraik Lekuonari eskuratu. Biak izan ditezke. Norbaitek Ondarroan jaso, alegia; Kardaberaztarrak eta Zubikarairen eskuetara etorri; eta auek batek Aitzoli eta besteak Lekuonari bialdu. Penagarria zera da, ordea. emalearen izenik ez digula iñork esaten.

II

The musical score consists of three staves of music in 3/4 time, with a key signature of two sharps. The lyrics are written below the notes in Spanish. The first staff starts with 'U - da - be - rri - an', followed by 'za - rra - e - ra - ra'. The second staff continues with 'Lon - dres - ko - zi -' and 'u - da - de - an'. The third staff concludes with 'mai - te - a - ren - tzat' and 'oi - ak - e - ros -'.

ten
den - da a - be - rats
ba - te - an;

mai - te - a - ren - tzat
oi - ak e - ros - ten
den - da a - be -

rats
ba - te - an.

Udabarrian zarra erara
Londresko ziudadean,
maitearentzat oiak erosten
denda aberats batean.

- Bestearentzat diruetan da
zuretzat biotz-trukean.
- Eskerrik asko, dama galanta,
eztot armarik aldean.

Dama galant bat topadu neban
tablado baten ganean,
kortesiagaz itandu neutsan
oi orrek zegan zirean.

Armak etxean itxi nituzan
Motriku erri onean,
Motriku erri onean eta
Ana Juanaren etxean.

- Txalupatxu bat, txalupatxu bi,
Santa Klararen parean,
neure anaia ara antxe dator
Ana Juanaren legean.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian 904 zenbakian, 1051 orrialdean, Amorebietako Luziana Estankonari jasoa.

Azkuek, 1/3 eta 2/4 lerroetan *oiak* eta *oi* esaten du. Dakigunez, *joiaik* eta *joi* bear du. Beste lerro batean, 2/3-an, *itandu neutsan* irakurtzen da. Bainā beraren esku-idazkietan *pregunta nion* idatzita dago.



III

Ka - pi - tan Jau - na, e - rri - a be - lok Mu - tri-
 kun bis - ta - ra ar - te - an, Mu - tri - kun bis - ta - ra ar - te - an
 e ta ba - rru - ra sar - tu ar - te - an.

- Kapitan jauna, erria belok
 Mutrikun bistara artean.
 Mutrikun bistara artean eta
 barrura sartu artean.

- Neure anaia, ze berri on da
 Mutriku erri onean,
 Mutriku erri onean eta
 Ama Juanisen etxe?n?

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 853 zenbakian, 994 orrialdean, Mutrikun bertan jaso omen zuan, baiña kantariaren izena kontuan artu gabe: "Lo aprendí en Motriko (G), sin haber anotado el nombre del cantor".

IV

Ga - ri - a sal - tzen nen - go - e - la - rik Do - nos - ti - a - ko ka - le -
 an da - ma gaz - te bat e - to - rri zi - tzai - dan, ga - ri - a zen ba - na nu - ke -

an. Bes-te - en - da - ko a- marta- er - di- na, zu - re- tzat
 ez - kon - tzor - de - an. Ez - kon - tzor - de - an ba - lin ba -
 de - zu ja - rri - zai - teez - kon - bi - de - an.

Garia saltzen nengoelarik
 Donostiaiko kalean,
 dama gazte bat etorri zitzaidan
 garia zenbana neukean.
 – Besteendako amar ta erdian,
 zuretzat gorpu trukean.
 – Gorpu trukean balin badezu,
 atoz bada arratsean.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco*, 33 zenbakian, 91 orrialdean, Nappa-roan, Sunbillako Feliziana Arretxeari jasoa.

Oar bat: 6, 7 eta 8-garren lerroak etzituan Azkuek orrela argitaratu. Zergatik aldatu zituan, berak aitortzen du: *En vez de ezkontzordean y yarri zaite ez-konbidean cantó la vieja (y se daba cuenta de ello) una inconveniencia enorme*. Baiña beraren esku-idatzietan Sunbillako amonak kantatu bezelaxe daude itz guziak, eta orrela idatzi ditugu.

V

Pañu saltzian nengoanian
 Donostiaiko kalian,
 etorri jatan zaldun gazte bat
 pañua zegan dodian.

– Beste batzuntzat amazortziyan,
 zeuretzat amabostian;
 amabostian nai ezpadozu
 laztantxu baten trukian.

– Ana Juanatxu, ez exu esan
berbarik banidadian,
despedideko gabian ere
neure besuan ziñian,
zeuk neuri negar, neuk zeuri barre,
an despedidu giñian.

Bilboko *Euzkadi* egunkarian, 1932-eko uztailaren 9-an, *Goxale* izenordeaz
firmatzen duan batek Galdakaon jaso eta bialdua.

VI

"Senar-emaztegeiak ziran Motrikun. Senargaia itxas-gizona zalarik, itxas-ibillaldiak egitera urten zan, emaztegaia ama ixateko bidian laga-ta. Alabea olan aurkitzen zala uartu ebanian amak, beste bategaz ezkondu-azo eban. Gabonetan, senargaia etxeratu zanian, jazo ei zan berago jartzen dodazan olerkiok diñoena:

Senargaiak:

Biajeratik datorrenari
agur egiten usau de;
Ana Juanisa, nire laztana,
neuretzat enojadu de.

Batak agur ta bestiak adios,
Ana Juanisak bat ber'ez;
Ana Juanisa, neure laztana,
neuretzat enojadu de.

Ogetamairu linda damatxu
Mutriku-molla ganien,
beste arrenbeste eta geiago
Ana Juanisen etxien.

Emaztegaiak:

– Galai gaztia, neikua al dezu
Gabonetako koplarik?
Neure senarra entzuten daukat
kuartoko bentanilletik.

Zeure anaie besuan daukat,
senarra aldamenien,
terzio txarra du orain eta
erdu terzio onien.

Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bilduman, Bilboko Manuel Ziar-solo *Abeletxe* zanak bialduta.

Aurreko oarraz gaiñera, beste adierazpen au ere egiten du *Abeletxe* jaunak: “Olerki oneik Bermeoko Bilbaotar Peliperi entzun neutsozan. Eta larogetaz urtiak baño be zarrago ei dira”.

VII

Babia saltzen ari nintzala
Eibarko plaza berrian,
neska gazte bat galdezka neukan:
– Babi ori zenbatian?
– Amazazpian saltzen dot baña
zuretzat amabostian,
amabostian nai ezpadozu
laztantxo baten trukian.

– Aizazu, gizon ganorabako,
gañera lotsik bagia,
babian truke zuk nai zenduke
neure laztana artzia?
Neure laztana aginduta daukat,
bai eta nere onria,
nik zu baño naiago dot
Jose Maria maitia.

– Neska polita, entzun egizu
diñotzudan arrazoia:
lau etxe baditut eta dirutan
gutxienez bai milloia;
pentsatzen b'ozu, neskatz ederra,
nerekin esposatzia,
lenengotikan izango zara
gauza guztien jabia.

– Nik eztot biar zure etxerik,
ez eta ere milloirik,
nik eztot gura mundu onetan
maitetasuna besterik;
ez eizu artu gauza orregaz
batere buru-austerik,
ni ez nijua ukatutzera
bein emondako berbarik.

Lau bertso auek *Eibar* aldizkarian agertu ziran, 1957-ko epailla-apirillean.

Bertan esaten danez, egillea Guillermo Bengoetxea *Txindurri* da. Dakigunez, leenengo bertsoa ez du berea.

Leendabiziko bertsoaren 7 eta 8-garren lerroak ez ditu aldizkari orrek. Juan San Martin adiskideak bialduak ditugu. Bera izango da, bearbada, bertso auek *Txindurri* dalako orren aotik jaso zituana.

VIII

Untzi bi agertu zirian
santa Manterion parian,
nere anajia etorriko da
batian edo bestian.

– Nere anajia, ze barri dezu
Motriku erri onian?
– Berriak onak, berriak txarrak
Ana Juanitan gaiñian.

Ana Juanita ezkondutzen da
amaren da aitaren bozian,
amaren da aitan bozian eta
bere desborondatian.

Despedidako gabien ere
txorruetara giñian,
urragorrizko yoyia bere
imiñi notsan bularrian.

Bateorrekk agur, bestiorrek agur,
alan despedidu giñian,
eguna b'izan seiñaladua:
santa Luzia gabian.

– Galai gaztia, neiku al dezu
gab'onetako koplarik?
Nere senarra daukat entzuten
kuartoko bentanillatik.

Zure semia besuan daukat,
senarra aldamenian,
orain tertzio txarra du eta
erdu tertzio onian.

Orain il bere ein nozu eta
enterra naixu lurrian,
enterra naixu lurrian bere
Birjiña Marian aurrian.

Urragorrizko iru-lau letra
imin idezu sepulturian,
arek letrak esango dio
zegaitik nagon ni lurrian.

Adolfo Arejita: "Ana Juanita" erromantzea, *Idatz eta mintz* aldizkarian, 6-garren zenbakian, argibide auekin:

"Bermeoko Luzia Bilbao, 72 urteko andreari batu eutsan, lehenengo Miren Lutxi Larreategik, eta gero zehatzago Josu Penadesek, "Mikel Zarate" Iker Mintegiaren gomendioz. Bilketa 1981 eta 1982 urteetan egin izan da.

"...Lehen koplan Santa Manterio toki-izena agertzen da. Bermiotarrek ez dakinie zein lekugaitik dinoan. Ondarroan ere ez da ezaguna leku ori..."

"Txorruetara giñian: 4. koplan agertzen dan esakera horrek iturrira edo uraren bila adierazten duala uste dogu: "txorruak" iturria adierazi leuke".

Gure iritzirako, seigarren bertsoan, bigarren lerroan, *gab'onetako koplarik* dion orton, *Gabonetako koplarik* beariko luke, Abeletxe-k Bermeoko Bilbaotar Peliperi jaso zion bezela.

Azken bigarren eta azken bertsoak antz aundia dute *Eguna zala, eguna zala* itzakin asten dan kantaren 2 eta 3-garren bertsoekin.

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendabaldeko Euskal Baladak / Antologia* (Bilbo, 1995), 25 orrialdean.

IX

- Gure anaie, ze barri oi de Mutriku herri noblian?
- Aite zeuriaz neu're bizi nez, ez da barri onik handikan.
- Ezin esanak eta deukaguz, anaje, bion artian?
- Ana Juanitan ezkontzatxuek publikatu die kalian.
- Ana Juanita ezin ezkondu ni bizi nazen artian,urre katia eta medalla neuk dodaz idunieran. Joieri baten sartu ginala joiutxuok zegan zirian:
- Batzuentzako hamazortzian, zeuretzat hamabostian, hamabostian gure ez bauzu zeure gorputzen trukian.
- Eskerrik asko, dama gaztia, Mutrikun deuket firmia, hango firmia ikusi artian ezin emon nei berbia.

Heldu ginanian Mutriku horretan,
Mutriku herri noblian,
batak adios, bestiak agur,
Ana Juanitak baperez.
– Ana Juanita, neure laztana,
gaur hemen zer pasatu de?
Kanpo jentia datorrenian
agur eitia usu de.
– Agur eitia usu bai, baia
neuregandi bajadu de.
Bordegaraien semiak
ai ze fortuna bagiak,
urkamendiko oñian dago
hango laugarren semia.
Bordegaraien zaldie
lau anketan zurie,
zazpi pausotan pasatuten deu
zortzi arkuko zubie.
Bordegaraien alabak
ai ze andra fortunosak,
hamabi urte dituzaneko
garrian hiru kopetak.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak*, bigarren tomoan, 60 orrialdean.

Argibide auek ematen dituzte: “1981eko abuztuaren 23an Jesus Antonio Cidek, Koldo Bigurik, Gabriel Frailek eta Ruper Lekuek Dima-Bargundian jaio eta Bizkaiko Arantzazun bizi den 74 urteko Eduarda Bilbao andereari jasoa”.

Beste lau jasoaldi ere lortu omen zituzten: "Azken urteotako inkestei esker lau aldaera berri ezagutzen ditugu: MGM (Maria Goiri Mindegia) bildu zien Diman Patxi Bilbaori -ipuin bezela baina bertso eta errima batzu mantenduaz- eta Arantzazun (B) bizi zen Eduarda Bilbao horren arrebari; azken honen bukaeran kutsadura bat ikus daiteke *Bordegarai* balada arruntaren bertso batzuekin".

Adolfo Arejita: *Frantzie-kortekoa erromantzea, Idatz & mintz aldizkaria, zazigarren zenbakia, 22 orrialdean*, onek ere Eduarda Bilbao orri berari jasoa, aldaketa txiki batzuekin.

X

Itxes ontzuan nebilenian
Londresgo ziudadian,
neure anaje topatu neban
an ebizenen artian.

- Neure anaje, ze barri andik Motriku erri onetik?
- Aite ta ama osasunegaz, ez da barri onik andik.

Ana Juanita ezkontzen dala
errian publikatu de.
- Ezin ezkondu Ana Juanita,
neugaz dau konformatute.

- Batak agur de besteak adios,
Ana Juanitak bapere.
- Ana Juanita, neure laztana,
errien zer pasatu de?

Errien erbestetik datorrenari
agur eitea usu de.
- Agur eitea usu da baiña
orain usue galdu de.

Zaldun gaztia, kendu zakidez
neure begiaren aurretik,
neure senarra begira dauket
untziko bentaniletik.

- Ana Juanita, neure laztana,
senardun bere bazara?
Lantza zorrotz bat neunken eskuan,
jaurti neuntsen bularrera.

Lantze au bere ain zen zorrotza,
bazan odola lurrera.
- Zaldun gaztia, il nozu eta
enterradu egidazu.

Adolfo Arejita: *Frantzie-kortekoa erromantzea, Idatz & mintz aldizkaria, zazigarren zenbakia, 23 orrialdean*, argibide auekin:

"Susana Petralanda andreari jaso izan deutso 1983-ko urtarilean. Itziar Gallastegi mintegikideak, harek 76 urte zituala. Galdakaon bizi izan dan arren, jaiotzaz Dimakoa zan. (Harrezkero andra hau hil dala jakin izan dogu)".

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendabaldeko Euskal Balandak* (Bilbo, 1995), 26 orrialdean, argibide auekin:

"Iturria: Labayru Ikastegiko MZIM artxiboa. Lekukoa: Susana Petrilanda, 76 urte, Diman jaio eta Galdakaon bizi. Biltzaileak: Arantza Garaizabal eta Itziar Gallastegi. Biltze-data: 1983ko urtarrilean".

XI

Ga - ri - a sal - tzen nin - gu - e - la - rik Do-nos - ti -
a - ko ka - li - an, da - ma e - der bat
e - to - rri zi - tzai - dan ga - ri - a zen - ba - na nu - ki - an.

Garia saltzen ninguelarik
Donostiako kalian,
dama eder bat etorri zitzaidan
garia zenbana nukian.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 484 zenbakian, 667 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: Bolaños, albañil, natural de Aranaz, avecindado en Lecároz. Loc. ref.: Lekaroz. Fecha: 10 de marzo de 1912".

XII

Kapitain jauna, arria bela
txalopa nabegantian
hainbat arinen sartu gaitezan
Mutriku herri onian.

Hogeita hamairu dama lindatxu
Mutrikun moila gainian,
txalopatxu bat, txalopatxu bi
Santa Klararen parian.

Ni banenguan kostel saltzian
ezpabe gari saltzian,
hiru damatxu eterri ziran
bata bestien atzian.

– Ana Juanixe, Ana Juanixe,
zein da dauana etxian?
– Katalinatxu auzokua da
beroi laban dan artian.

Hirugarrenak preguntau eustan
gariak zegan zirian.

– Urten daik, mutil, urten daik, mutil,
halako bentanarian,
ama neuriak urten dagian
kanpora sospetxerian.

– Bestientzat dirutan eta
zuretzat laztan trukian.

Gariak eta zeu ta neu bere
han konponduko ginian.

.....
.....
ez nagizula lotsatu arren
honenan plaza betian.

Ama, berorrek ez dauerla nahi
neure osasunik etxian,
biotz-ilunak egiten jataz
argia datorrenian.

Xabier Amuriza: *Bizkaiko bertsogintza, Izengabeak, I*, 241 orrialdean, argibide onekin: "Joan Aurre sorta. Ez dakar non jasoa".

XIII

Paskoalatxu, polita zara,
garria dozu liraina,
ulia bera modako fina,
ai zeu neuretzat bazina!

Errezoい hori esan bazeustan
leku sekretu batian,
gariak eta zeu ta neu bere
konpondu eingo ginian.

Beste batentzat hamazortzian,
zeuretzat hamabostian,
hamabostian gure ez badozu
laztantxu baten trukian.-

Xabier Amuriza: *Bizkaiko bertsogintza, izengabeak, I*, 246 orrialdean, argibide onekin: "Andres Lejarraga - Lezama. Joan Aurre sorta".

I

Traducción de D. Manuel Lecuona:

*Estábame yo un día sobre unos costales,
mas no vendiendo costales, sino vendiendo trigo.*

*Viniéronseme tres damas, una tras otra;
preguntárame la tercera que a cuánto estaba el trigo.*

- Para las demás por dinero, pero para ti a cambio de un beso.

*- No me avergüences de ese modo en medio de la plaza llena;
en medio de la plaza llena y ante tanta gente.*

*Dijérasme en un lugar secreto,
y el trigo y aun tú y yo allí nos hubiéramos ajustado.*

*Mi madre se ha de ir a cocer el pan por la mañana o por la tarde;
y róndame un poquito, mientras ella está en el horno.*

Cuando la madre se hubo venido del horno, notó olor a hombre en casa.

- Ana Juanita, ¿quién es el que está en casa?

- Catalinita le vecina, mientras estaba Vd. en el horno.

- Mal puede ser Catalinita quien tiene pelos en la barba...

*Espera, muchacho, espérame, mientras enciendo la luz;
mientras enciendo la luz y veo quién eres.*

- Madre, Vd. no cuida de mi salud;

vahídos me dan cuando se enciende la luz.

*Salta, muchacho, salta por tal ventana,
para que mi madre salga de sus sospechas.*

*Estábame yo un día en la ciudad de Londres,
comprando joyas para mi amada.*

A una dama sobre un tablero pregunté que a cuánto estaban estas joyas.

- Para los demás por dinero, pero para ti a cambio de tu persona.

- Muchas gracias, dama elegante. No tengo armas contigo;

*que las dejé muy buenas en Motrico, la honrada villa,
(en Motrico, la honrada villa,) y en la casa de Ana Juanita.*

- Una nave, dos naves a la altura de Santa Clara.

En alguna de ellas vendrá quizás mi hermano...

- Hermano mío: ¿qué nuevas hay en la honrada villa de Motrico?

- Las nuevas son buenas; pero sobrados daños han ocurrido.

- ¡Oh hermano mío! ¿Es que ha muerto acaso nuestro padre amado?

- Nuestro padre amado no ha muerto; pero sobrado daño ha ocurrido.

- ¡Ah traidor! ¿Es que ha muerto nuestra madre amada?

- Nuestra madre amada no ha muerto; pero sobrado daño ha ocurrido.
(- ¡Oh hermano mío! Es que ha muerto nuestra amada hermana?)
- Ayer se decía por la calle que se casaba Ana Juanita;
(que se casaba Ana Juanita) para baldón de su padre y de su madre.
- Eso no puede ser verdad; tengo yo en mi poder el arma;
el arma y la cruz tengo yo en mi pecho;
y mi arma tirará mientras vivan.
- Señor Capitán, arriad la vela en la chalupa navegante,
para que entremos cuanto antes en la honrada villa de Motrico;
en la honrada villa de Motrico y en la casa de Ana Juanita.

*Treinta y tres lindas damitas en el muelle de Motrico,
y entre ellas Ana Juanita.*

La una que le dice "agur" y la otra que le dice "adiós" y Juanita estaba en un sollozo.

- Ana Juanita, ¿qué ha ocurrido en la honrada villa de Motrico?

- Joven caballero, tampoco yo sé de dónde sois vos.

- Pues yo sí que sé muy bien de dónde eres tú, Ana Juanita,
(de dónde eres tú) y quién es tu madre.

Llevo yo en mi pecho el arma y la cruz de una damita.

Ana Juanita, bien sabes de quién son el uno y la otra...

Ana Juanita, no digas vanas palabras;

*la noche de nuestra despedida estabas en mis brazos;
me besabas y te besaba; así nos despedimos...*

Muchas joyas traía yo, pensando que fueran para ti.

Otra dama las lucirá, al no poder lucirlas tú.

VIII

(Traducción tomada del libro Mendebaldeko Euskal Baladak, Antología, La-bayru Ikastegia, Bilbao, 1995)

Aparecieron dos naves a la altura de Santamantxerio.

- Mi hermano vendrá en la una o en la otra.

- Hermano mío, ¿qué nuevas traes de la noble villa de Motriko?

- Nuevas buenas, nuevas malas, acerca de Ana Juanita.

*Se casa Ana Juanita a la voz de su padre y de su madre,
a la voz de su padre y de su madre y en contra de su voluntad.*

– Incluso la noche de la despedida fuimos juntos a la fuente
y le puse una joya de oro colgada del cuello.

El uno “agur”, la otra “agur”, así nos despedimos.
El día incluso era señalado: la noche de Santa Lucía.

– Joven galán, ya basta esta noche de coplas.
Tengo a mi marido escuchando desde la ventanilla del cuarto.

Tengo a tu hijo en brazos, al marido junto a mí.
Ahora es mal momento y ven en mejor ocasión.

Ahora que me has matado entiérrame en la tierra;
entiérrame en la tierra, pero ante la Virgen María.

Tres o cuatro letras de oro pondrás en mi sepultura.
Esas letras dirán por qué estoy yo bajo tierra.

"Andere esposa, beha zure ama nigarrez..."

I

– Andere esposa, beha zure ama nigarrez,
bere alaba maitea joan dain ezin jasanez.
Eta zuk begia idor ezkont goiza izanez.

Andere esposa, entzun ama nigar auhenka;
kontsola zazu, kontsola, eta tinki besarka.

– Ez badut nigar egiten, ama maitea, barka!

– Ez duzu bada bihotzik nigar ez egiteko,
etxea uzteko kenkan behin betiereko?

Zer duzu: ala arrotza eroki nahiago?

– Zertako dute neskatxa etxetikan igortzen?

– Ez dute igortzen bainan elizalat laguntzen,
senar baten zerbitzuko horra nun den emaiten.

– Andere esposa, huna partitzeko minuta,
zure bizia bi zati egun egiten baita,
hartuz etxekandre griñak, utziz hemen josteta!

– Andere esposa, nola nigarrik egin gabe
diozute aita-amer emanen bana lore?
Etzaitzula bihotz hori kordokatzen batere?

Andereak ate-petik kitatu du egoitza,
burua makurtuz eta eratxikiz bihotza;
zapetak busti zitzaizkion: nun zen bada izotza?

Goiz harten etzen izotzik, nigarra zen erori.
Etzen andere esposa xoilik nigarrez ari...
Etxe guzia ari zen: jende, zur eta harri...

Murru, paret, gapirio, sukalde edo gela,
gauzek berek dirudite dolantuak direla,
partitzen zaiotelarik etxeko lore-perla!

- Andere esposa, agur! Pasa aitarekilan!
- Agur, andere esposa! Pasa amarekilan!
- Ezteiliarrak heldu dira guziak zurekilan!

Herria astekarian, 857 zenbakian, 1967-I-5-ean. Bertsoen gaiñetik oar au_ Kantu xahar. Eta ondotik, egilreak izenpetu bearko luken tokian: X. X. X.

Kanta au, dudarik gabe, Piarres Lafitte zanak bialduko zuan aldizkari orta-
ra, berak nundik eskuratu zuan adierazi gabe ordea.

I

– Señora espesa, mira a tu llorosa madre,
que no puede sufrir que su querida hija se le vaya.
Y tú tienes los ojos secos, aun siendo la mañana de tu boda.

Señora espesa, oye a tu madre que suspira y llora;
consuélala, consuélala y abrázala fuertemente.
– Si no lloro, madre querida, perdóname.

– ¿Es que no tienes corazón, para no llorar
en el momento que dejas tu casa para siempre?
¿Qué te pasa? ¿O es que prefieres neciamente una (casa) extraña?

– ¿Por qué expulsan de casa a una muchacha?
– No la expulsan, sino que la acompañan a la iglesia.
Es ahí donde se pondrá al servicio de un marido.

– Señora esposa, éste es el momento de la partida.
Vuestra vida se dividirá hoy en dos,
tomando los cuidados de ama de casa y dejando los juegos.

– Señora esposa, cómo sin llorar
le daréis a tus padres una flor a cada uno?
¿No se te commueve el corazón?

La señora ha abandonado por la puerta su morada,
con la cabeza gacha y el corazón abatido.
Se le han mojado los zapatos. ¿Pues dónde había rocío?

Aquella mañana no había rocío; habían caído lágrimas.
No era la señora esposa la única que derramaba llanto.
Toda la gente de casa lloraba, aturdida y asombrada.

Los muros, las paredes, los cabrios, la cocina o las habitaciones,
aun las cosas parecía que estaban apenadas,
porque se les marchaba la flor y perla de la casa.

– Salve, señora esposa. Pasa con tu padre.
– Salve, señora esposa. Pasa con tu madre.
– Los invitados han venido todos contigo.

“Bazko eta Salbatore...”

I

The musical notation consists of two staves. The top staff uses a treble clef and a common time signature (indicated by a 'C'). The lyrics for this staff are: Baz-ko e - ta Sal - ba - to - re, hü - llan - en - a Men - de - kos - te e - ta ni-. The bottom staff also uses a treble clef but switches to a 9/8 time signature (indicated by a '9/8'). The lyrics for this staff are: gai - xo au tris - te, xu - tik e - re ez - pei - nai - te!.

Bazko eta Salbatore,
hüllanena Mendekoste,
eta ni gaixo au triste,
xutik ere ezpeinaite!

Franko gazte nintzalarik
eritarzün bat sartürik,
sobre gai-beilatürik
badit ondorio hunik.

Hogoi eta lau urtetan
eri bat ofe batetan,
ene lagünak plazetan
eta ni gaixoa penetan!

Mendigarai medizia,
ene kontsolatzailea,
lüze zadazü bizia,
pena düt hola hiltzea.

Ni hiltzen baniz huntarik,
ez egin, otoi, nigarrik;
ez yauntzi oial beltzik,
ezpeitüt sino beharrik.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 391 zenbakian, 489 orrialdean. Ondoren onela dio Azkuek: "La aprendí en Zuberoa, no sé si de J. Algorri".

Baita bere *Euskalerriaren Yakintza*-n ere, IV tomoan, doiñurik gabe.

Kantu kanta kantore bilduman ere agertu zan kanta au, Azkuek dakarren bezelaxe, aldaketa auek izan ezik:

1/2: hurbilago Mendekoste; 1/3: eta ni gaixoa triste; 2/2: eritasun bat sarturik; 2/3: gau sobera beilaturik; 4/1: Mendigarai mirikuia; 4/3: luza zadazu bizia.

II

Azkuek, toki berean, aurreko doiñu eta bertso oiek jarri ondoren, onela dio: "Otra versión hay de esta endecha, con idéntica letra y distinta melodía. La aprendí en Orabarre (BN), de J. B. Pagadoy".

Beste doiñu eta letra oiek auetxek dira:

Baz-ko e - ta Sal - ba - to - re, o - rai el - du Men - de - kos - te,
e - ta ni o - he - an tris - te, xu - tik e - re ez bai nau - ke!

Bazko eta Salbatore,
orai heldu Mendekoste,
eta ni ohean triste,
xutik ere ez bainauke!

III

Pazko eta Salbatore,
handik fite Mendekoste,
eta ni gaixua triste,
xutik ere ez bainagoke.

Hogoi eta bi urtetan
eria ohe batetan,
gazte lagunak plazetan
eta ni pena handitan.

Oin gaztia nintzalarik,
errefria bat sarturik,
sobera gau beilaturik,
badut ondorio onik.

Monsieur Harriague merikua,
eri konsolatzailia,
luza diedazu bizia,
pena da ni hola hiltzia.

Ni hiltzen baniz huntarik,
ez, otoi, egin nigarrik;
ez emaitekotz mezarik,
ez dut nik sino beharrik.

L. Dassance jauna zanaren paperetatik, esku-idazki batetik. Goien oar au:
Cahier Jatsou.

IV



Aste Saindu, Salbatore,
ondar egun Pentekoste,
eta ni gaixoa tristerik
xutik egon ez naiteke.

.....
.....
nere lagun gazteak plazetan
ta ni gaixoa penetan.

– Bidegaray medikua,
nere konsolatzailia,
luze zadazu bizia,
triste da ola hiltzia.

– Ago, mutikoa trankilki,
utz zak gogua laxoki,
sendatuko aiz segurki,
baina gobern'ai obeki.

Doiñu eta bertso auek Iruñen jaso genituan, Mezkiritzko Perpetua Zarague-taren aotik.

I

*Día de Pascua y de la Ascensión,
el más cercano el de Pentecostés,
y yo enfermo, triste de mí,
que no puedo ni tenerme de pie.*

*Siendo muy joven,
contraje una enfermedad;
habiendo velado muchas noches
he sacado buenas consecuencias.*

*A los venticuatro años,
enfermo en una cama;
mis compañeros en las plazas
y yo, pobre de mí, penando.*

*Doctor Mendigaray,
mi consolador,
alargadme la vida,
me apena el morir así.*

*Si muero de ésta,
no lloréis, por favor;
no vistáis ropas negras,
pues no necesito de tales muestras.*

“Egun onak Jaungoikuak...”

I

- Egun onak Jaungoikuak emonda, arreba Juana.
- Alan ekarri daizula, neba zaldun ona.

- Txifle bat emon arren ogean zagozana. Txiflia bera bere senar onak emona.

- Nok esan dotzu ori, neba zaldun ona?
- Zeure senarrak esan dost, arreba Juana.

- Altzatu egidazu ganeko tapie, erakutsi daizudan gorpuztxu neurie.

Zazpi puñalada dodaz neure gorputzian, zortzigarrena daraukat biotzaren erdian.

- Nok egin dautzu ori, arreba Juana?
- Neure senarrak egin daust, neba zaldun ona.

- Non dozu senar ori, arreba Juana?
- Kalian pasiatzen, neba zaldun ona.

- Zu olan ipini eta kalian pasiatu? Pagatuko dituz ongi, bizi banaiz belu.

Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduman, 1936 urtean Bilboko Manuel Ziarsolo Abeletxe-k bialdua, Bermeoko Felipe Bilbaori jasota.

Bigarren laukoan azaltzen dan *txifle* itza ez degu iztegietan arktitu. Abel Muniategi adiskideari galdetu genion, bera Bermeon bizi dan ezkerro. Onela erantzun zigun:

- *Txiflea ez; txiplie esaten da Bermeon. Txiplie emon, alegia. Belarrendokoa edo masaillekoa emon esan nai du. Txipli-txapla ere esaten da. Baiña gaur egun plastazue emon geiago entzuten da.*

Kanta onek zer ikusirik badu, gure iritzirako beintzat, *Urtsuak zazpi leio asten da kantarekin.*

I

- *Buenos días nos dé Dios, hermana Juana.*

- *Así te lo dé a ti, hermano y buen caballero.*

- *A pesar de que te han dado un cachete estás en la cama.*

Ese cachete te ha sido dado por tu buen esposo.

- *¿Quién te ha dicho eso, mi hermano y buen caballero?*

- *Me lo ha dicho tu marido, hermana Juana.*

- *Levántame la manta de arriba,
para que te muestre mi cuerpecito.*

*Tengo siete puñaladas en mi cuerpo,
(y) la octava en medio del corazón.*

- *¿Quién te ha hecho eso, hermana Juana?*


- *Me lo ha hecho mi marido, hermano y buen caballero.*

- *¿Dónde está ese marido, hermana Juana?*

- *Paseando por la calle, hermano y buen caballero.*

- *¿Te deja a tí así y pasea por la calle?*

Lo pagará bien, si vivo lo suficiente.



Itzulera

(*El retorno*)

Gaur egunean, munduaren azken muturreraiño joan danak ere, egunero emango dizkie bere berrriak etxekoei. Erromantzeen garaian etzan orrelakorik. Gerrara joandako arma-gizonak eta itxasan zebiltzan mariñelak, adibidez, urteak eta urtek pasatzen zituzten beren familietara albisterik bialdu gabe. Orregatik, gaur ez bezela, aien itzulera literatur-bide biurtu zan, Ulisesengandik asita. Gai ori erabiltzen duten erromantzeak sail ontan bildu ditugu.

Hoy día, aun los que se encuentren en el último rincón del mundo pueden comunicarse diariamente con su familia. No sucedía así en tiempo de los romances. Los caballeros que partían para la guerra y los marineros que embarcaban, por ejemplo, pasaban a lo mejor años sin que les fuera dado hacer llegar la menor noticia a los suyos. Por eso, cosa que ya no ocurre, su retorno vino a ser un motivo literario, comenzando desde Ulises. En este apartado hemos reunido los romances que tratan este tema.

“Kanzuriano, Kanzuriano...”

I

- Kanzuriano, Kanzuriano,
lo bazagoz iratzarri.
 - Enago ni lo, enago ni lo,
moru-erriko moru ori.
Nok esan deutzu neure izena,
truko-erriko truko ori?
 - Enaz ni moru-errikoa,
gitxiago truko-errikoa,
obetuago izango naz ni
zeruetako aingerua.
Jaun Zerukoak bialtzen nau ni
gaur zugana mandatari:
zure espouse doñe Errose
biyar da espouse barri,
biyar da espouse barri eta
biyar goizerako eldu bedi.
 - Emetik eta ene etxera
bosteun legua da bide,
bosteun legua da bide eta (1)
nik arek zelan ebagi?
 - Orieak ebagitiarren zer
emongo zeunkio zuk ari?
 - Berreun kanaurre-zintxa
Ama Graziakuari,
amalau libra argiziritzu
Andra Santa Ursulari.
 - Orra oi goian zazpi zaldia,
euretariko bategaz(2)
gau eta egun ebagi.

* * *

- Oles. oles, *Dios te salve*,
nik ostatua nai neuke.
 - Emen ez dago ostatutik eta
beijue pobre ori aurrera.
 - Oles, oles, *Dios te salve*,
nik ostatua nai neuke.
 - Emen ez dago ostatutik eta
beijue pobre ori aurrera.
 - Oles, oles, *Dios te salve*,
nik ostatua nai neuke.
 - Egun okupaue daukogu te
beijue pobre ori aurrera.
 - Kanzuriano bizi zanean
pobreak emen baeben ostatua.
 - Kanzuriano aittetu dau ta
betor pobre ori aurrera.

..... .(3)

Sillan jezarri erromes ori,
oiñak garbitu,
pañua artun da sikatu.(4)

..... .(4)

 - Begiak begi badirudi,
miñak guzurra esan ezpaledi,
gaurko gure erromes onek
Kanzuriano dirudi.
 - Ixilik ôn adi, batxiller ori.
antxina il da enterraute daukon
Kanzuriano eure ori.(5)

-

 - Ortxe kaxan dago ezpatie
 Kanzurianok itxie.

 - Gaurko ezkongai orrek
 ataraten badeu ezpatie.

Juan da ezkongai ori,
 ez dau atara ezpatie.
 - Ia gaurko erromes orrek
 ataraten badeu ezpatie.
 Juan da erromesa ta
 atara dau ezpatie.
 Pozez beterik doña Errosek:
 - Zu zara senar neurie.

Kanta au Jose Ariztimuño Aitzol jauna zanaren bilduman agertu da, Bari-nagako Jose Maria Arriaga Zuazok Ibarrangeluan, 1936 urtean, irurogei ta bost urteko Petra Uribarrenari jasoa.

Irakurlea oartuko zanez, Ulises-en etxeratzea degu emen. Izenak aldatzen dirala eta gezi-uztaiaren ordez, ezpata jartzen dala. Beste aldaketarik ez dago.

II

Jaun Zu - ria-no Jaun Zu - ria-no lo-tan za - go-za? I-zar-tu zeu-re es -
 po - sa do - ña_E-rra - sa bi - ar da - la es - po - sa ba - rri, zeu-re es -
 po - sa do - ña E-rra - sa bi - ar da - la es - po - sa ba - rri.

- Jaun Zuriano, Jaun Zuriano,
 lotan zagoza? Izartu.
 zeure esposa doña Errosa
 biar dala esposa barri. (*bis*)

- Nor da ori Manbruori,
 Manbru erriko trukuori,
 Manbru erriko trukuori,
 trukukumian semiori? (*bis*)

– Ni neu ez naiz Manbrukua
da gitxiago trukukua,
ziertuago izan neinteko
aingeru zeruetakua.

– Emendik ara erauteatxik
zer emongo daustazu sari?

– Mila libra argizari
neure Amabirjiñari,
beste edo geiago
San Migel aingeruari.

– Gortan dekodaz zazpi zaldi
zein onena dan artu bedi.
Jaun Zurianok artu dau eta
arin doa erriz erri.

– Oles, oles, Dios te salve,
gaur ostatua gura neuke.

– Emen eztago gaur ostaturik,
Jauna lagun bekizu zeuri.

– Jaun Zuriano bizi zanian
pobriak emen eben ostatua.
Jaun Zuriano bizi zanian
pobriak eben ostatua.

– Nor da ori pobriori,
pobre inkietaduori?
Jaun Zuriano atxitu dau-te
betor barrure erromesori.

Berton daukat ezpada bat
Jaun Zurianok neuri itxia:
aixe gora altzatzen dabena
izingo da neure gizon geia.

Gortan daukat ezpata bat
Jaun Zurianok neuri itxia;
axe altzatzen dabena
izango da gizon-geia.

Or da gazte brabu ori, da asi de, baia ezin deu altza ezpatie, da:

– Ia bigarrenak...

Eta ezin.

– Ia orrek pobre inkietadu orrek.

Orrek begiz ondo adituten dotso.

– Asi zeitez ba, pobria.

Asten da, eta gora daroa ezpatia.

– Au da neure Jaun Zuriano.

– Au izingo da neure emaztia.

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antologia* (Bilbo, 1995), 54 orrialdean, argibide auekin:

"Iturria: Labayru Ikastegiko MZIM artxiboa. Lekukoa: Elisa Barrenetxea Badiola, Elantxoben jaio eta Sopelanan bizi. Biltzailea: Eukene Markaida. Bilte-data: 1990eko maiatza".

I

- Kanzuriano, Kanzuriano, si estás dormido, despertad.
– No estoy dormido, no estoy dormido, moro de la morería.
¿Quién te ha dicho mi nombre, turco de la “turquería”?
No soy yo de la morería, y menos de la turquería;
más bien seré un ángel de los cielos.
*El Señor del cielo me envía hoy a ti como mensajero:
que tu esposa doña Rosa mañana será nueva esposa;
será nueva esposa y venga usted para mañana a la mañana.*
– De aquí a mi casa hay quinientas leguas de camino;
hay quinientas leguas de camino y ¿cómo las recorreré?
– ¿Qué darías tú por recorrerlas?
– Doscientas varas de cinta de oro para la Madre de la Gracia;
catorce libras de cera para la señora Santa Úrsula.
– He ahí arriba siete caballos,
con uno de ellos recorre (el camino) día y noche.

* * *

- Hola, hola. Dios te salve, yo desearía hospedaje.
– Aquí no hay hospedaje y que siga ese pobre para adelante.
– Hola, hola, Dios te salve, yo desearía hospedaje.-
– Aquí no hay hospedaje y que siga ese pobre para adelante.
– Hola, hola, Dios te salve. yo desearía hospedaje.
– Hoy está todo ocupado y que siga ese pobre para adelante.
– Cuando vivía Kanzuriano, los pobres tenían aquí hospedaje.
– Ha nombrado a Kanzuriano y que pase ese pobre para adentro.

.....
Se sienta en una silla ese romero, se lava los pies,
toma un paño y se los seca.

.....
– En los ojos se parece, si la lengua no miente,
este nuestro romero de hoy se parece a Kanzuriano.
– Calle, bachiller, que hace mucho tiempo
que murió y está enterrado ese tu Kanzuriano.
.....
– Ahí en la caja está la espada dejada por Kanzuriano.
.....

- *A ver si este pretendiente de hoy saca la espada.*
- Ha ido ese pretendiente, (pero) no ha sacado la espada.*
- *A ver si ese romero de hoy saca la espada.*
- Ha ido el romero y ha sacado la espada.*
- Llena de alegría, doña Rosa: - Tú eres mi marido.*

(1) Lerro au ez dago *Aitzol*-en bilduman. Baiña lerro bat ortxe bear duala dudarik ez da; eta falta dana olakoren bat izango dalakoan, orrekin osatu degu.

(2) Emen ere lerroren bat edo beste falta dira noski. Baiña zer izan diteken ezin antzeman guk beintzat.

(3) Puntuz idatzitako lerro edo utsune auek, *Aitzol* zanaren bilduman ere alaxe daude, dudarik gabe or zerbait falta dala adierazteko.

(4) Emen ere zerbait falta da. Bearbada onela bearko luke:

Sillan jezarri erromes ori,
uragaz oiñak garbitu,
uragaz oiñak garbitu eta
pañua artun da sikatu.

(5) Emen ere zerbait falta da edo okerren bat badago. Osatzen eta zuzentzen zailla, ordea.

“Ene ama, otoi, errazu...”

I

E-ne a - ma, o-toi e - rra - zu Mi - til o - ri - ek.
 zer du - ten. E - ne a - ma, o-toi e - rra - zu
 Mi - til ho - ri - ek zer du - ten. E - ne a -
 la - ba deü - se-rik ez za - ma - ri bel - tza gal -
 du - ri - ken za - ma - ri bel - tza gal - du - ri - ken.

- Ene ama, otoi, errazu
mitil horiek zer duten.
- Ene alaba, deuserik ez,
zamari beltza galduriken.

- Ene ama, otoi, errazu
neskato horiek zer duten.
- Ene alaba, deuserik ez,
zilar untzi bat hautse duten.

– Ene ama, ez, otoi,
ez, otoi, egin nigarrik.
Errege jaunak ekarriko du
urre eta zilar armaretik.

– Ene ama, otoi, errazu
kantu horiek zer diren haiñ gora.
– Ene alaba, deuserik ez,
prozesionia da juaiten.

– Ene ama, otoi, errazu,
zer zaia ezar behar duden:
zaia xuri edo gorria?
– Ederkiago da beltza.

– Ene ama, otoi, errazu
tonba hori zer da haiñ gora?
– En'erreina, ezin deit gorda:
errege jauna ehortzia.

– Ene ama, ori urre,
urre eta zilarren giltza;
ene semea untsa haz zazie
eztitarzunekila.

– Lur santia erdira bedi
ni ere barnen sar nadin.
Lur santia zen erdiratu
ni ere barnen sartu,
espus jauna besarkatu,
Jinko Jauna dela laudatu!

Mme. Villéhélion: *Souvenir des Pirénées kanta-bilduman*.

Aita Donostia: *Euskalduna, abeslari itzaldia, Obras Completas*, IV, 75 orrialdean, argibide auekin:

"Se dio en euskera, Salón Novedades de San Sebastián, el día 7 de Diciembre de 1919. Impresa primero en la revista Euskal-Esnalea, se volvió a imprimir, junto con otras conferencias, en Itzaldiak, de la misma revista, en 1923 (Bigarren Salla, p. 1-34).

Aita J. A. Donostia: *Comme chante le Basque, Gure Herria aldizkarian*, 1923 urtean, 300 orrialdean.

J- Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak*, II tomoan (Donostia, 1983), 92 orrialdean.

Ala bear dualakoan, aldaketa bat sartu degu. Seigarren bertsoan, irugarren lerroan, onela dago Villéhélion andrearen bilduman: *Ene rena ezindeit gorda*. Guk, berriz, *en'erreina ezin deit gorda* ezarri degu, amagiarrebak erreinari itzegenit baitio.

Kanta oni buruzko azterketa: Luis M. Mujika: *Euskal lirika tradizionala (I)*, Donosti 1985, 158 orrialdean.

II



Errege Jan, zaoriturik,
jin izan da armadetarik:
– Am'anderia, baratu ziozu
etxian alagerarik.

– Errege Jan, kontsola zite,
korajereki sar zite:
zur'emaztiak errege txipi bat
barda sortu uken dizu.

Ez ene emaztia gatik,
ez errege txipi bat gatik,
ni enaiteke kontsola:
haiet biek jakin gabe,
ama, hiltzeko ohe bat.

– Am'anderia, zer die mitil hoiek,
hainbeste nigar marrasketan?
– Ene alaba, ezin begira,
galdu diñe zaldi gris bat.

– Am'anderia, zer die neskato hoiek,
hainbeste nigar marrasketan?
– Ene alaba, ezin begira,
haotse diñe urr'untzi bat.

– Ez zaldi gris baten gatik,
ez urr'untzi baten gatik,
ez otoi egin nigarrik:
Errege Janek ekarriko dizu
urre eta zilar armadetarik.

– Ene ama, otoi, errazu,
kantu hoiek zer diren hain gora.
– Ene alaba, deuserik ez,
prozesionia dun joaiten.

– Am'anderia, zer zaia behar dut jaontzi,
ohe hontarik jalkiteko?
– Ene alaba, xuria, gorria,
ederrena duken beltza.

– Am'anderia, zer du lur saintu hunek,
hain gora dagoenian?
– Ene alaba, ezin begira,
errege Jan dun ehortzirik!

– Am'anderia, oritzu giltz hoiek,
urre eta zilarren hoiek,
eta errege txipitto hori
arta handieki eraik.

– Lur saintia, erdir'adi,
ni barnen bara ahal nadin!...
Lur saintia erdiratu,
eta nik errege Jan besarkatu!

Lur saintia, zerra'adi.
ni barnen bara ahal nadin!...
Lur saintia da zerratu,
ni errege Janeki baratu.

Charles Bordes: *La Musique Populaire des Basques*, 1897, *La Tradition au Pays Basque liburuan*, 1899, 316 orrialdean.

Aurretik oar au egiten du Bordes jaunak: "Parmi les très rares légendes chantées que nous avons pu recueillir, figurent la chanson Errege Jan, qui n'est autre que la version basque de la célèbre chanson française de Jean Renaud..."

Kantu kanta kantore bilduman ere (Baiona, 1867) agertu zan kanta au, ezen aldaketarik gabe.

Baita ere: J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak*, II tomoan (Donostia, 1983), 93 orrialdean.

* * *

Kanta zaar onek antz aundia du *La muerte ocultada* deritzaion gaztel erromantzearekin. Ikus: Ramón Menéndez Pidal: *Flor nueva de romances viejos*. Erromantzea eskeiñi ondoren, onela dio Menéndez Pidal jaunak:

"Canciones semejantes a éstas existen en Francia, Italia, Escandinavia, Alemania; sus relaciones mutuas son muy difíciles de establecer. En España existe una forma antigua de hacia fines del siglo XV, compuesta en versos de seis sílabas y en variedad de asonancias; se conserva hoy en Extremadura, Salamanca, Cataluña y Marruecos; su protagonista se llama don Bueso; en su muerte se mezcla un elemento misterioso y sobrenatural. Posteriores en fecha son otra versión, también de seis sílabas, y la de ocho, que es la que aquí publicamos y es muy tardía, acaso de fines del siglo XVII. En estas versiones posteriores el elemento fantástico está o ateriado o eliminado totalmente, suponiendo la mayoría de ellas que el protagonista vuelve herido de la guerra".

II

El rey Juan ha vuelto herido de la guerra.

- Señora madre, ¿le habéis preparado en casa alojamiento?

- Rey Juan, consolaos; entrad con coraje:

vuestra esposa ha dado a luz esta noche a un pequeño rey.

- Ni por mi esposa,

ni por un pequeño rey puedo yo consolarme.

Sin que ellos lo sepan, (prepárame), madre, una cama para morir.

- Señora madre, ¿qué tienen esos muchachos con tantos lloros y gemidos?

- Hija mía, no te lo puedo ocultar. Han perdido un caballo gris.

- Señora madre, qué tienen esas muchachas con tantos lloros y gemidos?
- Hija mía, no te lo puedo ocultar. Han roto un cuenco de oro.

- Ni por un caballo gris,
ni por un cuenco de oro lloréis, por favor.
El rey Juan traerá de la guerra oro y plata.

- Madre mía, por favor, dime qué son esos cantos tan sonoros.
- Hija mía, no es nada: la procesión que sigue su camino.

- Señora madre, ¿qué saya debo vestir para salir de esta cama?
- Hija mía, la blanca, la roja, pero para tí la más hermosa será la negra.

- Señora madre, ¿qué tiene esta santa tierra para estar tan levantada?
- Hija mía, no te lo puedo ocultar. Ahí yace enterrado el rey Juan.

- Señora madre, tomad esas llaves, las del oro y la plata,
y a ese pequeño rey educadlo con gran cuidado.

- Santa tierra, ábrete para que yo me pueda meter dentro.
La santa tierra se abre y yo abrazo al Rey Juan.

Santa tierra, ciérrate para que yo pueda quedar dentro.
La santa tierra se ha cerrado y yo me he quedado con el rey Juan.

“Andere ederra, gorarik zaude leihoa...”

I

Andere ederra, gora zaude leihoa,
zure senarra behera dago Frantzian;
hura handik jin dateken artian,
eskutari nahi nuzia etxean?

Francisque Michel: *Le Pays Basque*, Paris, 1857, 425 orrialdean.

Bertso bakarra eskeintzen badu ere, bera izan diteke, oker ez bagaude
beintzat, kanta zaar onenleenengo aitamena.

Fr. Michel-en iritzirako, Donibane-Lohizune aldean gertatua da kanta onek
kontatzen duana: “...j'aurais pu ajouter un dialogue que a dû prendre naissance
das les environs de Saint-Jean-de-Luz. Il est relatif à la femme d'un marin,
peu vertueuse à ce qu'il paraît...”. Baiña ez du esaten argibide oiek nundik
dituan.

Izenburua ez degu aldaera ontatik artu, naiz eta, esan bezela, ustez beintzat
zaurrena bera izan. Beste guziak, edo geienak beiñepein, asten diran bezela
ezarri degu.

II

An - de - ri - a go - ra - rik zau - de lei - o - an. Zu - re



– Anderia, gorarik zaude leihoa,
zure senarra behera dago Frantzian;
hura handik jin daiteken artian,
eskutari ni har nezazu etxian.

– Ene senarra behera deia Frantzian?
Hura hantik jin daiteken artian,
beskotari nihaur aski niz etxian,
hauzoak hurbil utzi derauzkitan juaitian.

– Izan niz Espaiñian eta Frantzian,
bai eta ere Anglaterra orotan;
andere ederrik ikusi dizit heietan,
zure parerik ez zen ene begietan.

– Mutil gaztia, ederki zira mintzatu,
zure ganako ostattu gure etxian baduzu;
ohia xuri, ganbarak garbi diaudetzu,
ni ere aldian hurbil izanen nuzu.

– Zure senarra ni baino gizon hobia:
zazpi urtez harek eman deraut ogia,
zortzigarrenian Frantziarako bidia,
eta harekin bere peko zaldia.

– Uri haizia, ura duienian uherlo,
andretto hok girare guziak parlero;
hitzño hori juan zerautazu laxero.
Ene senarra zutan truka ez niro.

– Anderia, hirain zautzu denbora,
eskeintu tuzu ohia eta ganbara,
eta haietan zure gorputz propria.
Ezteia, bada, errazu, hori egia?

– Beskotari bilo urdin faltsuia,
hi ote hizene lehen semia?
Altxa zadak ezkerreko begia,
ene semiak han dik sor seiñalia.

M. Charles Bordes: *La musique populaire des Basques*, 1897.

Francisque Michel - Angel Irigaray: *Poesías populares de los vascos* bilduman, bigarren tomoan (*Colección Auñamendi*, 29, Donostia, 1962) 201 orrialdean. Leenengo bertsoa Michel-ek bezela idazten du Irigaray jaunak, *eskutari* bearrean *ogipeko* idatziz. Eta beste bertso guziak, Charles Bordes-ek dituanak, eta dituan bezela gaiñera, aldaketa xixtrin bat edo beste izen ezik.

Iruñeko *Diario de Navarra* egunkarian ere argitaratu zuan Irigaray jaunak kanta au, 1967-II-5-ean; eta *Auñamendi* saillean bezela argitaratu ere, baiña bigarren eta bostgarren bertsoak falta dituala, eta aitatzerik mereziz ez duten aldaketa batzuekin.

J. Lakarra, K. Biguri eta B. Urgell: *Euskal Baladak*, bigarren tomoan (*Hordago*, Donostia, 1983) 63 orrialdean.

Charles Bordes-ek onela dio bere aldaera ori eman ondoren:

"Cette dernière légende se chante également sur un autre air: nous l'avons entendue sous cette nouvelle forme à Saint-Esteban près de Hasparren, pendant une veillée où l'on écossait le maïs. Un Basque me l'a chantée en égrenant sus épis sur une vieille épée rouillée. Cette version est incontestablement plus belle que celle citée plus haut, mais elle paraît avoir été adaptée après coup à la chanson".

Ona aldaera onen doiñua:

An - de - ri - a go - ra - rik zau - de lei - ho - an; zu - re
 sen - ha - rra be - he - ra da - go Fran - tzi - an: Hu - ra

III

An - de - ri - a, go - ra - rik zau - de lei - ho - an zu - re
 sen - a - rra u - rrurun da - go Fran - tzi - an; hu - ra han - dik i - tzul dai -
 te - ken ar - ti - an, es - ku - ta - ri ni har ne - za - zu e - txi - an.

– Anderia, gorarik zaude leihoa,
 zure senarra urrun dago Frantzian;
 hura handik itzul daiteken artian,
 eskutari ni har nezazu etxian.

– Ene senarra urrun dea Frantzian?
 Hura handik itzul daiteken artian,
 eskutari nihaur aski niz etxian,
 hauzoak hurbil utzi dauzkit juaitian.

– Izan niz Frantzian eta Spainian,
 bai eta ere Angleterra guzian;
 andere ederrik ikusi dut hetan...
 Zure parerik ez zen ene beginan.

– Eskutaria, ongi zira mintzatu,
gaurko ostatu en'etxian baduzu;
ganbera garbi, ohe xuri dukezu,
deusen eskas, jauna, izanen ez duzu.

– Zure senarra da ni baino hobia,
zazpi urtez hak deraut eman ogia,
zortzigarrenian azpiko zaldia...
Anderia, beira fidelitati!

– Uri-haize, ura denean uberlo...
Andretto hok girare oro parlero!
Hitzño hori juan zerautazu laxero...
Ene senarra zutan truka ez niro!

.....
.....
.....
.....

– Eskutari, jaun bilo urdin falsia!
Hi ote hiz nihauren lehen semia?
Altxa zak, altxa, ezkerreko begia,
ene semiak han dik sor-seinalia.

– Iratzea bete denian udarez,
zezena erditzen denian xaalez,
labea betetzen denian elurrez,
errain dautzut zuria nizan bai al'ez.

– Ur gainian eginen diat zubia,
han ereinen ogizko haziz gorria.
Han jin arte ogizko opil xuria,
ez duk izain amaren barkamendia!

Baionako *Gure Herria* aldizkarian, 1921, Nehor eta C. Dufau-k argitara emana.

Seigarren eta zazpigarren bertsoen tartean puntu-lerro batzuk ikusi ditu irakurleak. Nehor eta Dufau-ren aldaeran orrelaxe daude. Orri buruz onela esaten du L. Dassance jauna zanak, *Gure Herria* aldizkarian, 1963-ko azaroan:

“Le premier texte, recueilli par Nehor et Dufau, a paru en avril 1921; il comporte neuf couplets avec une ligne de points entre le sixième et le septième, ce qui

donne à penser qu'on a préféré passer sous silence un couplet jugé peut-être trop suggestif: ce couplet est vraisemblablement l'un de ceux du texte de Ch. Bordes; on le retrouve aussi, légèrement différent, parmi les neuf couplets de la variante recueillie en 1919 à Luzaide (Valcarlos) par le R. P. Donostia et que ce dernier a publiée en 1934 dans Gure Herria".

IV

An-de - ri - a, go - ra - rik zau-de le - io - an. Zu-re se -
 na - rra be - he - ra da - go Pran-tzi - an. Hu - ra
 han - tik yin di - te - ke-nen ar - ti - an, es - ku - ta -
 ri - tzat har ne - za - zu sa - he - tsi - an.

– Anderia, gorarik zaude leihoa,
 zure senarra behera dago Prantzian;
 hura hantik yin ditekenen artian,
 eskutaritzat har nezazu saetsian.

– Ene senarra behera bada Prantzian,
 auzuak urbil utzi derauzkit yuati;
 hura hantik yin ditekenen artian,
 eskutari beharrik ez dut etxian.

– Izan nuzu Prantzian eta Spainian,
 bai eta ere Anglaterra guzian;
 andere ederrik ikusi izan dut heietan,
 zure parerik etzen ene begietan.

- Eskutaria, ederki mintzo zira zu,
zure etxian beharko duzu istatu;
ganbera garbi, ohia xuri dukezu;
nihaur ere aldian hurbil nukezu.
- Eskerrik aski dautzut, etxekanderia,
zure senarra duzu ni baino gizon hobia;
zazpi urtez harek eman deraut ogia,
zortzigarrenian bere azpiko zaldia.
- Euri ondoan hura nahiz den uherlo,
andre hok ere oro girade parlero;
hitz hoietan bat zeraut laxero,
ene senarra zutan truka ez niro.
- Arbadola betetzen denian udarez,
idi xuri erditzen denian xahalez,
idi xuri erditzen denian xahalez,
erranen deauzut zuria naizen ala ez.
- Iragan duzu, ai!, bada denbora,
eskeini duzu ganbera eta ofia,
eta harekin zure gorputz propia.
Ez dea bada hori egia?
- Eskutari, oi!, begi urdin faltzia,
altxa zak, altxa, oi!, ezkerreko begia,
altxa zak, altxa, oi!, ezkerreko begia,
hi ote haizen, oi!, ene lehen semia.

Aita Donostiak jaso eta *Gure Herria* aldizkarian, 1934 urtean, argitaratua, adierazpen luze onekin:

"Cette légende est bien connue dans les trois provinces basques-françaises:

Je l'ai recueillie en 1919 à Valcarlos (Luzaire en basque) dans la Navarre. La version musicale diffère très peu de celles données par Nehor et Dufau (Gure Herria, Avril 1921) et Ch. Bordès dans "La Musique populaire des basques". (Cfr. La Tradition au Pays basque, pag. 319 à 321.

Il y a aussi des variantes dans les paroles publiées par ces deux auteurs et celles que je viens de donner. Nehor et Dufau sont arrivés à trouver une strophe (leur neuvième) que nous (Bordès et moi) n'avons pu découvrir et qui semble clore la légende.

Voici encore deux autres variantes que j'ai recueillies:

– Euri ondoan hura nahiz den uherlo;
emazteño hok nola bagira parlero,
hitz erdiño bat juan zaitazu lasoño.
Ene senarra deusetan truka ez niro.

– Anderia, ez da orai tenoria
hitz eman duzu ganbera eta ohia,
hitz eman duzu ganbera eta ohia,
heiekilan, oi!, zure gorputz tendria.

Ondoren, or goien agertu degunez, Fr. Michel-ek leendabiziko bertsoa bakanrik eskeintzen duala dio Aita Donostiak; eta bertso ori berak beste onela ere jaso duala:

– Anderia, gorarik zaude leihoan,
zure senarra bai arte hortan Frantzian;
hura hantik yin ditekenen artian
eskutaritzat har nezazu etxian.

* * *

Aldaera au bera: P. Donostia: *Cancionero vasco, I*, Donostia, 1985, 126 zenbakian, 179 orrialdean, doiñu berarekin:

Beste argitalpen bat: P. Donostia: *Cancionero vasco, I*, Donostia, 1994, 126 zenbakian, 181 orrialdean. doiñu berarekin eta argibide auekin:

“Infor.: Jose M^a Iraburu. Loc. rec.: Luzaide-Valcarlos. Fecha: 1 de noviembre de 1919. Clas. amorosa”.

V

Toki berean, kantutegi orren 126 zenbakian, kanta onen beste doiñu bat eskeintzen du Aita Donostiak, au ere Luzaiden jasoa, baiña letrarik gabe:



VI

Da-ma e - de - rra go - ra - rik zau-de e-txe - an zu- re se -
na - rra a - pa - lik da - go Fran - tzi - an. Hu - ra han - tik
yin ar - ti - no - ko al - di - an o - gi -
pe - ko har ne - za - zu e - txe - an.

– Dama ederra, gorarik zaude etxean,
zure senarra apalik dago Frantzian.
Hura hantik yin-artinoko aldian
ogipeko har nezazu etxean.

– Ene senarra apalik deia Frantzian?
ta hura hantik yina daiteken artean
beskotari nihaur aski niz etxean:
hauzoak hurbil utzi derauzkit joaitean.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 23 zenbakian, 81 orrialdean. Ez du esaten noren aotik jaso zuan.

VII

– Dama ederra, gorarik zaude leihoa,
zure senarra apalik dago Frantzian;
hura hantik jin artinoko denboran
serbütxari har nezazü etxian.

– Ene senarra apalik deia Frantzian?
Hura hantik jin daiten artian,
beskotari nihaur aski niz etxian,
hauzoak hurbil utzi derauzkit joaitian.

– Izan niz Espaiñian eta Frantzian,
bai eta ere Anglaterra orotan;
andre ederrik ikusi dizit heietan,
zure parerik etzenene begietan.

R. M. Azkueren esku-idatzietan azalduak iru bertso auek. Atarratzen jaso omen zituan, Bederakatz J.-ren aotik.

Doiñua, emalearen izenik gabeko aurreko aldaerarena da. Orregatik, aldaera ura eta onako au bat bera izan ditezke. Baiña an bi bertso ditu, eta emen iru. Ango leenengo bertsoak *aldian* eta *ogipeko* dio. Onek, berriz, *denboran* eta *serbütxari*. Azkueren eskua ibili ote zan, bada, or euskera *garbitzen*?

VIII

– Anderea, gorarik zaude leihoa, zure senarra behera(1) dago Frantzian; hura handik itzul(2) daiteken artean, eskutari har nezazu ni etxeana(3).

– Ene senarra behera deia Frantzian?
Hura handik itzul daiteken artean, eskutari nihaur aski niz etxeana, hauzoak hurbil utzi derauzkit juaitean.

– Izan nuzu Frantzian et'Espanian,(4)
bai eta ere Engeleterra guzian;
ander'ederrik ikusi badut heietan, zure parerik ez zenene begietan!

– Mutil gaztea(5), ederki zira mintzatu, gaurko ostatu gure etxeana baduzu: ganbera garbi, ohea xuri dukezu, nihaur ere aldean hurbil nukezu.(6)

- Zure senarra ni baino gizon hobea,
zazpi urtez hak eman deraut ogia;
zortzigarrenean bere azpiko zaldia,(7)
andarea, beira fidelitatea!
- Uri haize ura denean uherlo...(8)
Andretto hauk oro girare parlero;
hitzño hori juan zerautazu lachero,
ene senarra nik zutan truka ez niro.(9)
- Anderea, iragan zautzu denbora...(10)
Eskeini tutzu ohea eta ganbara;
heiekilan, oi!, zure gorputz propia,
ez deia, bada, errazu, hori egia?
- Eskutari, jaun bilo urdin faltsuia,(11)
hi ote hiz nihauren lehen semia?
Altxa zak, altxa(12), ezker aldeko(13) begia,
ene semeak han baitik sor-seinalea.
- Iratzea(14) beteko denean udarez,
zezen xuria(15) erditzen denean xahalez,
labe gorria(16) betetzen denean elurrez,
erranen dautzut zure nizen bai ala ez.(17)
- Ur gainean eginen diat zubia,
han ereinen ogitto hazi gorria;
han jin arte ogizko opil xuria,
ez duk izanen amaren barkamendua!

L. Dassance: *Chronique de la Chanson basque / Anderea gorarik, Gure Herria* aldizkarian, 1963, azaroa.

Doñua ere badakar, baiña Nehor eta Dufau-k *Gure Herria* aldizkarian eskeintzen dutena.

Irakurleak ikusi duanez, bertsoak oar-mordo bat dute, onela esanez: (1) urrun; (2) jin, *dans beaucoup de versions; on entend aussi* etor; (3) sahetsean; (4) Espanian eta Frantzian; (5) Eskutaria; (6) (a) Deusen eskas, jauna, izanen ez duzu; (b) Gero ni ere aldean plazer baduzu; (c) Et'anderea aldean izanen duzu; (7) Zortzigarrenean, Frantziarako bidea, eta harekin bere peko zaldia; (8) uri ondoan ura nahiz den uherlo; (9) ene senarra deusetan truka ez niro; (10) an-

derea, iraun zeraitzu denbora; (11) oi jaun gazte, xapeldun bilo horia; (12) altxa zadak; (13) ezkerreko; (14) Arbadola; (15) Idi xuria; (16) Eta labea; (17) Errain dautzut zure semea naizen al'ez.

Kanta oni buruz azterketa sakon bat egiten du L. Dassance jauna zanak *Gure Herria* aldizkarian, 1963-ko azaroan, beste zenbait kantarekin egin oi zuan bezela, *Chronique de la Chanson basque* izenburuarekin.

Kanta au nun eta nola sortua dan aztertzen saiatzen da. Ez du ortarako arribiderik aski somatzen. Onela dio:

“Francisque Michel et Charles Bordes, on l'a vu, n'ont pas hésité à situer l'aventure en Pays Basque. Bien que la chose n'ait rien d'impossible en soi, nous observerons simplement que, dans tous les textes que nous connaissons, rien n'existe qui permette la moindre localisation: pas un nom de lieu, ou de personne, contrairement à ce que l'on voit dans d'autres chansons du même genre, telles que Bereterretchen khantoria ou Atharratze Jauregian, si bien commentées par Gavel et par Jaurgain, ou même dans la belle complainte de Borthagaray qui comptait autant de couplets que de jour dans l'année, dont nous ne possédons plus que des fragments, et qui attend toujours son commentateur...”

“Ne faut-il pas, dans ces conditions, voir plutôt dans Anderea gorarik une adaptation de quelque vieille chanson de France probablement, comme c'est le cas pour Errege Jan, Elhorri churiaren azpian ou Balduimeko oihana?”

IX

- Anderia, gorarik zaude leihoa,
zure senarra behera dago Frantzian;
hura handik jin ditaken artian,
eskutari har nezazu etxian.
- Ene senarra behera dago Frantzian,
auzoak hurbil utzi derauzkit aldian;
hura handik jin ditaken artian,
eskutari beharrik ez dut etxian.
- Ibili nuzu Spainian eta Frantzian,
bai eta ere Angletarre guzian;
ikusi dizit andere ederrik heietan,
zure parerik ez dut ikusi orotan.

- Jaun gaztia, ederki zira mintzatu,
gure etxian baduzu gaurko ostatu;
ganbera eder, ohia xuri dukezu,
gero heiekin ni ere, plazer baduzu.
- Emaztiak nola baitira lazero,
arrazoi bat eskapatu zaut parlero;
gogoetak egin izan ditut gero,
neure senarra zutan truka ez niro.
- Anderia, iragan zauzu denbora,
hitzeman duzu ohia eta ganbera;
gero heiekin zure gorputz ederra,
zure hitza ez zazula desterra.
- Eginen diot uraren gainian zubia,
han ereinen ogi hazi gorria,
han jin artian ogi opil xuria,
ez duk izanen amaren barkamendua.
- Elorri beltza estaltzen denian arrosez,
sagar-ondua betetzen denian zitroinez,
zezen xuria erditzen denian xahalez,
jakinen duzu suria naizen bai al'ez.

Aldaera au L. Dassance jauna zanaren bilduman agertu da, makinaz idatzi-tako orri batean. Berak nundik eskuratu zuan ez du esaten.

X

- Anderia, gorarik zaude leihuau,
zure senarra apalik dago Frantzian;
hura hanti jin-artinoko denboran,
zerbütxari har banenzazu etxian...
- Ene senarra izana-gati Frantzian,
zerbütxari beharrik eztit etxian;
bera hanti jin-artinoko denboran,
aizuak hunik ützi deitzazüt kantian.

- Izan nüzü Frantzian eta Espaiñan,
bai eta ere Anglaterra-herrian,
andere ederrik ikusi dizüt bai nik han;
bena, madama, zure parerik etzen han.

- Jaun gaztia, gorati zira mintzattü,
Frantzia, Espaiña, Anglaterra aipatü;
gaur gure etxian hartzen badüzü ostatü,
ohia xuri, kanbera garbi dükезü,
eta ni ere nunbeit han-gainti nükezü.

- Anderia, etzituala, otoi, flata!
Zure senarra ni beno gizon hobia da;
zazpi urtez jan dit hareki ogia,
leialitatez begir'ezozü fedia.

- Oi, jaun gazte ejer, faltzia,
txapelian düzü ürre-kürkürü hollia;
leialki mintzazet erran ezadazüt egia,
zü zirenez ene lehen semia.

Huren gaiñen egizü lastoz zübia,
hartan ereiñ ogiaren lilia,
hartarik egin ogi-opil moflia,
hura jan onduan jakinen düzü egia.

L. Dassance: *Chronique de la Chanson Basque / Anderea gorarik, Gure Herria* aldizkarian, 1963, azaroa.

Oso kanta ezaguna dala esaten du: “*Bien entendu, en dehors des textes publiés que nous venons d’indiquer, il en existe beaucoup d’autres, oraux ou manuscrits, conservés soigneusement par les chanteurs et amateurs des vieilles chansons. On y trouverait à coup sûr des variantes intéressantes, telles que celles que nous ont fournies des cahiers provenant de Jatxou, de Saint-Pée, des Aldudes, et celui, très précieux, du vieux chanteur de Sainte-Engrâce, Dominique Bordachar, dit Chambra, mort il ya a une dizaine d’années*”.

Dominique Bordachar edo *Chambra* dalako orren aldaera da or goien eazarri deguna.

Dassance-ren iritziz, aldaera danetan onena eta osoena, Nehor eta Dufau-k 1921-an, *Gure Herria* aldizkarian, argitaratu zutena da. *Chambra*-ren aldaera-gatik, berriz, onela dio:

"Pour ce qui est du texte de Chambra, qui malheureusement ne compte que sept couplets, nous le reproduisons intégralement, à la suite, à l'intention de nos lecteurs souletins qui ne seront certainement pas les seuls à y prendre plaisir".

Oxobi olerkaria zanari ere bertso auek oso atsegin zitzazkiola esaten du Dassance-k ondoren; eta sail ontako bi bertso euskeraren gorazarrerako moldatu eta argitara eman omen zituan arek (*Haur elhe haurrentzat, Editions Aintzina, 1944*), era ontan aldatuta:

Iratzea mertxikaz bete jarriko,
zezen beltza zazpi xahalez erdiko,
labettoa elur xuriz gorrituko,
eskualdunek eskuara dute galduko.

Ur-gainean ezarri dute zubia,
hartan erein ogiko hazi garbia,
han jin arte irin opilño xuria,
eskuarak ez, ez du galduko mihia.

XI

- Anderia, gorarik zaude leihoa,
zure senarra behera dago Frantzian;
hura handik jin daiteken artian,
eskutari har nezazu etxian.
- Neure senarra behera bada Frantzian,
hauzoak hurbil utzi dauzkit etxian,
hauzoak hurbil utzi dauzkit etxian,
eskutari beharrik ez dut etxian.
- Izatu nauzu EspaÑan eta Frantzian,
bai eta ere Angeletarre guzian;
andere ederrik ikusi derait heietan,
zure parerik etzen neure begietan.
- Eskutaria, ederki zira mintzatu,
gaurko ostatu neure etxeán baduzu:
ganbera berri, ohea xuri dukezu,
gero ni ere aldean, plazer baduzu.

- Zure senarra ni bainon gizon hobea,
zazpi urtez fornitu deraut ogia,
zortzigarrenian bere azpiko zaldia;
anderia, beira fidelitatia.
- Oi, jaun gazte, xapeldun bilo horia,
altxa zak, altxa, ezkerreko begia;
altxa zak, altxa, ezkerreko begia,
heian hi haizen neure lehen semia.
- Iratzeñua betetzen denian udarez,
zezen xuria erditzen denian xahalez,
zezen xuria erditzen denian xahalez,
erranen dautzut zuria naizen bai ala ez.
- Uraren gainean eginen diat zubia,
han erainenogi hazi gorria,
han jin artianogi opil xuria,
ez duk izanen amaren barkamendua.

L. Dassance zanaren bilduman arkitu degu aldaera au, eskuz idatzita eta saiets batean oar au duala: “*Version de St. Péé*”.

Aldaera berdin-berdiña agertu da Jose Migel Barandiaran apaiz jauna zanaren bilduman.

XII

- Anderea, gorarik zaude leihoa,
zure senarra behera dago Frantzian;
hura handik itzul daiteken artean,
eskutari har nezazu ni etxeana.
- Ene senarra behera deia Frantzian?
Hura handik itzul daiteken artean,
eskutari nihaur aski niz etxeana,
hauzoak hurbil utzi derauzkit juaitean.

- Izan nuzu Frantzian et'Espanian,
bai eta ere Engeleterra guzian:
andre ederrik ikusi badut heietan,
zure parerik ez zen ene begietan.
- Mutil gaztea, ederkí zira mintzatu,
gaurko ostatu gure etxeán baduzu:
ganbera garbi, ohea xuri dukezu,
nihaur ere aldean hurbil nukezu.
- Zure senarra ni baino gizon hobea,
zazpi urtez hak eman deraut ogia;
zortzigarrenean bere azpiko zaldia,
anderea, beira fidelitatea.
- Uri haize ura denean uherlo...
Andretto hauk oro girare parlero;
hitzño hori juan zerautazu laxero,
ene senarra nik zutan truka ez niro.
- Anderea, iragan zautzu denbora...
Eskeini tutzu ohea eta ganbara;
heiekilan, oi, zure gorputz propia.
Ez deia bada, errazu, hori egia?
- Eskutari, jaun bilo urdin faltsuia,
hi ote hiz nihauren lehen semea?
Altxa zak, altxa, ezker aldeko begia,
ene semeak han baitik sor seinalea.
- Iratzea beteko denean udarez,
zezen xuria erditzen denean xahalez,
labe gorria betetzen denean elurrez,
erranen dautzut zurea nizen bai ala ez.
- Urgainean eginen diat zubia,
han ereinen ogitto hazi gorria;
han jin arte ogizko opil xuria,
ez duk izanen amaren barkamendua!

Kantu kanta kantore bildumatik, Baiona, 1967.

Ez du ematen, gure iritzirako beintzat, aldaera au erriaren aotik ol-ola ate-ra eta norbaitek jasoa danik; baizik-eta bilduma orren prestatzailleak -Lafitte,

Dassance eta abarrek-, aldaera guzietatik au eta ura artuz aldaera berri eta eredugarri bat egiten saiatu dirala.

J. Lakarra, K. Biguri eta B. Urgell: *Euskal baladak*, (Hordago, Donostia, 1983), bigarren tomoan, 64 orrialdean.

L. Dassance zanaren bilduman, eskuz idatzitako orri batean, ia *Kantu kanta kantore liburuan* bezela agertu da kanta zaar au, aldaketa auetan izan ezik:

1/3 hora handik jin ditaikenen artian: 1/4: eskutari ni har nezazu etxian; 2/1: Ene senarra urrun deia Frantzian; 3/3: andre ederrik ikusi dut hetan; 4/1: Mutil gaztia, ongi zira mintzatu; 4/3: ganbera garbi, ohe xuria dukezu; 4/4: ni ere aldian hurbil izanen nuzu; 5/2: zazpi urtez hak deraut eman ogia; 5/3: zortzigarrenian azpiko zaldia; 6/2: andretto hauk girare oro parlero; 6/4: ene senarra zutan truka ez niro; 7/1: anderia, hirain zautzu denbora; 7/2: eskeint tutzu ohia eta ganbara; 7/3: eta hiaekin zure gorputz propria; 8/3: altxa zak, altxa, ezkerreko begia; 8/4: ene semiaik han dilk sor seinalia; 9/1: Iratzea bete denian udarez; 9/2: zezena erditzen denian xahalez; 9/3: eta labea betetzen denian elurrez; 10/2: han erainen ogizko hazi gorria.

XIII

- Anderia, gorarik zaude leihoa, zure jauna behera dago Frantzian:
hora handik etor daiteken artean,
eskutari ni har nezazu etxeana!
- Ene jauna behera dela Frantzian?
Hauzoak hurbil utzi zauzkitan joaitean;
hora handik etor daiteken artean,
eskutari nihaur aski naiz etxeana.
- Ibili nailz Espanan eta Frantzian,
bai eta ere Englater hortan guzian;
andre ederrik ikusi baitut orotan,
zure parerik ez da kaustu ene bixtan.
- Mutil gaztea, ederki zira mintzatu,
zuretako baduzu hemen ostatu;
ohea xuri, ganbarak garbi diaudetzu,
ni aldean hurbilik izanen nauzu...
- Zure jauna ni baino gizon hobea,
zazpi urtez harek eman daut ogia;
igorri nau, erakutsirik bidea;
huna hemen haren azpiko zaldia,

Uri-haizeak derauntsanean uherlo,
emazteki hauk girare oro parlero;
aixtiko hitza joan zeraitzazu laxero,
ene senarra zutan nik truka ez niro!

– Anderia, iraun zeraitzu denbora,
eskaini tutzu ohea eta ganbara;
heiekilan zure presuna propia,
uri-haizeak ez du histuko egia.

– Eskutari bilo urdin gezurtia,
ehiza hi ene zaharren semea?
Altxa zadak ezker aldeko begia,
ene semeak han baitu sor-seinalea.

– Elorri beltza estaltzen denean arrosez,
sagar-ondoa betetzen denean zitroinez,
zezen xuria erditzen denean xahalez,
jakinen duzu zurea naizen bai al'ez.

– Eginen diat uraren gainean zubia,
handik ereinen urean ogi-hazia;
han jin artean, han, ogi-opil xuria,
ez duk izanen amaren barkamendua.

Herria astekarian, ez dakigu zein egunetako zenbakian. Goien onela dio: Kantu xaharra. Eta beeaa, egilleararen firmaren tokian, X. X. X. Beste argibiderik ez du.

XIV

Oadolaren mintzoa liburuan, 297 orrialdean, ageri danez, doiñu ontaz baliatu zan Xalbador zana Haur batek bere amari bertso-sailla moldatzeko.

Onela dio berak: "Aidea: Ezkotariarena edo Anderea, gorarik zaude leihoa-ena, puxka bat goiti beheiti".

Ona emen doiñu ori ere, Xalbadorrek berak kantatu, magnetofoz jaso eta solfeoz papereratua:



XV

- Anderia, gorarik zaude leihoa,
zure senarra behera dago Frantzian;
hura handik jin laiteken artian,
eskotari ni har nezazu etxian.
- Ene senarra behera dago Frantzian,
hauzuak hurbil utzi derauzkit aldian;
hura handik jin laiteken artian,
eskotaririk nik ez dut nahi etxian.
- Kurritu ditut Spainia ta Frantzia,
harekin batian Angeleterra guzia;
ikusi ditut andere ederrak hoietañ,
zure parerik ez zen ene begietan.
- Eskotaria, ederki zira mintzatu,
gaur gure etxeán behar zira aloiatu;
ganbara garbi, ofe xuria dukezu,
gero ni ere zurekilako nukezu.

- Zure senarra ni baino gizon hobia,
haren baitan da zilarra eta urrea;
hark eman deraut zazpi urtez ogia,
zortzigarrenian bere azpiko zaldia.
- Eskotari, begi urdin faltsuia,
hi ote haiz oi ene lehen semia?
Altxa ezak ezkerreko begia,
hartan badik sortziak eman seinalia.
- Idi xuria erditzen denian xahalez,
arbadola betetzen denian udarez,
ordiantxe, oi, anderia hitz batez
erranen dautzut zurea naizen bai al'ez.
- Itsasoan egiten denian zubia,
haren gainean eraiten denian ogia,
hartarikan biltzen dudanian garia,
izanen duk amaren barkamendua.

Urepeleko Mixel Monako zanaren aotik jasoa, 1973-I-7-an.

XI

- *Señora, alta estás en la ventana.
Tu marido (está) lejos en Francia.
Mientras él vuelve de allí,
recíbeme como escudero en casa.*
- *¿Que mi marido está lejos en Francia?
Mientras él vuelve de allí,
me basta yo como escudero en casa.
Los vecinos me los dejó cerca al marcharse.*
- *He recorrido Francia y España,
y también toda Inglaterra;
hermosas mujeres he visto en esos (países),
pero ninguna, a mis ojos, que te iguale.*

- *Joven galán, hermosamente has hablado;
hoy tienes hospedaje en nuestra casa;
encontrarás una habitación limpia y una blanca cama,
y a mí misma me tendrás al lado.*
- *Tu marido es mejor hombre que yo;
durante siete años él me ha dado el pan;
y al octavo la caballería que montaba;
señora, guarda la fidelidad.*
- *El viento de lluvia, cuando viene con agua, es hosco;
las mujeres somos todas charlatanas;
esa palabra se me escapó sin darme cuenta.
Yo no cambiaría a mi marido por ti.*
- *Señora, se te ha pasado el tiempo...
Has ofrecido cama y habitación,
y con ellos, ¡ay!, tu propio cuerpo.
¿No es ésa, dime, la verdad?*
- *Escudero, señor de pelo gris, falso,
¿eres tu mi hijo mayor?
Levanta, levanta el ojo izquierdo,
mi hijo tiene ahí una señal de nacimiento.*
- *Cuando el helecho se llene de peras,
cuando el toro blanco para terneros,
cuando el horno ardiente se llene de nieve,
entonces te diré si soy tuyo o no.*
- *Sobre el agua construiré un puente,
y allí sembraré la roja simiente del trigo;
hasta que allí nos venga un blanco bollo de pan,
no tendrás el perdón de (tu) madre.*

"Arrats batez Yolanda..."

I

Arrats batez Yolanda paseun zabilan.

Bidean iru arrotz irria beginan:

– Gau on, nexka pollita, zato guirekilan!

– Jaunak, ni ez naiz nexka, bainan senarduna,
aitak hamortz urtetan ezkontzaz emana;
sei urte luze huntan gerlan dut gizona!

– Gau huntako, Yolanda, iguzu ostatu.

– Ez dezaket nehor har; jaun onak, barkatu!
Ez dut nahi fedea neholaz ukatu.

– Erraguzu, Yolanda, nun kausi ostatu.

– Hango etxe xurian baditake leku,
Han zen ene senarra denboretan sortu!

– Etxe huntan, andrea, badea ostatu?

– Ba, jaunak, nahi bada jan eta jostatu.
Neskak ere beharrez fornitzten ditugu!

– Jakin zazu, andrea, ez dugula janen,
ez janen, ez edanen, ez bertzerik hemen,
ez baduzu Yolanda hunat erakartzen.

– Yolanda, hiru gizon baditugu etxen,
ez baitute deus janen ez eta edanen,
ez bazitut heientzat harat erakartzen.

– Zu, amaginarreba, ez zira ahalke!
Semea adar dadin onhar zinezake?
Putzuan botatzea merexi zinuke!

Atsoa itzuli da etxerat nigarrez:
– Jaunak, Yolanda horrek erran deraut ezetz;
nehor ez da herrian hain gogor bihotzez!

– Yolanda, idek, otoi, borta senarrari.
– Zuk gure lehen gauaz aipa zerbait berri,
hortik juia dezadan fida naiten zuri!

– Oroit zira, Yolanda, tinkatuz erhia,
egin zela bi zati zure ereztuna.
Nik zati bat hemen dut, zuk hor bigarrena.

Oi zer alegrantzia, jeiki berehala!
Senarrari atea idek dadiela!
Etxean zoin den goxo emazte fidela!

Kanta au *Herria* astekarian agertu zan, 782 zenbakian, 1965-eko uztailaren 22-an.

Bertsoen atzetik, firmaren modura: X. X. X. Alegia, kanta onek egille ezagunik ez duala. Ta ondoren urte bat: 1868. Urte orretzaz, zer esan nai zuan alegría, argibideren bat emango ote zidan, Piarres Lafitte apaiz jaunari idatzi nion; 1965-ean bera baitzan astekari orren zuzendaria. Eta kanta zaar ori argitara eman zuana ere bera izango zala guk beintzat dudarik egiten ez genduan. Txartel baten bidez erantzun zidan, itz auekin: “*Yolanda 1868-ko kopia Lafitte*”.

Urte hortan kopiatura, beraz. Bidasoaz iparraldean oitura aundia izan zan gusoko bertsoak kaier edo kuadernotan idazteko. Bearbada, oietako batean arkitua izango da kanta au: 1868 urtekoa kaierra edo kuadernoa, baiña kanta zaarragoa.

I

Una noche andaba Yolanda paseando.

(Se encontró) en el camino con tres forasteros, con la sonrisa en los ojos.

– Buenos noches, hermosa muchacha. Ven con nosotros.

– Señores, yo no soy muchacha, sino que tengo marido.

Me lo dio mi padre por casamiento a los quince años.

En estos largos seis años tengo al esposo en la guerra.

- Para esta noche, Yolanda, danos hospedaje.
- No puedo recibir a nadie. Buenos señores, perdonadme.
No quiero por nada faltar a mi fidelidad.

- Dinos, Yolanda, dónde encontraremos hospedaje.
- En aquella casa blanca puede que haya sitio.
Allí nació hace tiempo mi marido.

- ¿En esta casa, señora, hay hospedaje?
- Sí, señores, si se desea comer y divertirse.
También proporcionamos muchachas, si hace falta.

- Sepa, señora, que no comeremos,
que ni comeremos ni beberemos ni haremos aquí nada,
si no trae aquí a Yolanda.

- Yolanda, tenemos tres hombres en casa.
No comerán ni beberán nada,
si no consigo que vayas allá para ellos.

- ¡Tú, suegra, no tienes vergüenza!
¿Te puede parecer bien que pongan los cuernos a tu marido?
Merecerías que te arrojaran a un pozo.

La vieja ha vuelto a casa llorando.
- Señores, esa Yolanda me ha dicho que no.
No hay en el pueblo nadie tan duro de corazón.

- Yolanda, abre, por favor, la puerta a tu marido.
- Dame tú algún detalle de nuestra primera noche,
para que de ahí juzgue si puedo fíarme de ti.

- Te acordarás, Yolanda, que, al apretar el dedo,
se rompió en dos pedazos tu anillo.
Yo tengo aquí un trozo; tú ahí el otro.

¡Oh qué alegría! Se levanta enseguida.
¡Que se le abra al marido la puerta!
¡Qué dulce es en casa la esposa fiel!

“Agur, etxeekoak, nahi duzueia...”

I

– Agur, etxeekoak, nahi duzueia
soldado bat etxian aloia?
– Bai, jauna; sar zaite barnian
eta jar zaite kadiran.
Etzanen zirade ohian,
gure seme armadetakoarenian. (*bis*)

– Zoin armadetan da zuen semia?
Nortian ala Italietan da?
– Ai, jauna! Hori ez dakit;
menturaz hila da engoitik.
Badizu denbora luzia ez dugula izan berririk,
are gutiago letrarik. (*bis*)

Ohera baino lehen afaiten da.
Zatoz; egizu guk bezala.
Iduritzen zaut zu zarela gure semia;
hor duzu fisonomia guzia.
Otoi, ez gaitzatzula tronpa,
pena hautarik gaitzatzu libra. (*bis*)

– Agur, aita eta ama!
Heldu naiz zuen besarkatzen.
Sofritu dut pena frango
gerletan eta piraietan;
heldu naiz konjitarekin,
jeneralak sinatuarekin.

– Adios, ene lagun armadetakoak!
Banoha, izan dut konjita.
Eginez geroz amar kanpaina,
etxera erretira ordu da.
Egizue orai nik bezala.
Biba, biba gure errege jauna!

Aita Donostia zanaren artxibotik, eskuz idatzita dagoan eta *Cuaderno de la Argentina* deritzaion batetik.

Soldadu ori "Nortian ala Italietan ibilia izan diteke. Napoleon izan zan frantzes soldaduak alderdi oietara biali zituana. Ordukoak, beraz, bertso auek?

II

– Agur, agur, etxekoak! Plazer duzuia
soldadu bat aloia?
– Bai, jauna, bai; sar zaite, sar, barnera,
jar zaite kaderan.
Etzanen zira ohean,
gure seme armadetakoarenean.

– Eta zoin armadetan zinuten:
Norten ala italianoetan?
– Ai, jauna! Hori ez dakigu,
menturaz hila da engoitik,
zeren baitu denbora ainitz
ez dugula izan berririk.

Ama horrek behatzearekin:
– Beldur naiz tronpatzen ez naizen.
Zu zare gure semea,
hor duzu filonia guzia.
Ez gaitzazula, otoi, tronpa,
pena hortarik gaitzazula libra.

– Agur, agur, aita eta ama!
Heldu naiz zuer besoen hedatzera.
Sofritu izan dut ainitz
gerlan eta bidaietan.
Heldu naiz konjitarekin,
jaun erregek emanarekin.

Pako Miangolarra zanak eta Iñaki Beobidek magnetofonoz Bidarrain bildua. Aurretik oar au egin zuan kantariak: “Soldadu batek kantuak dira. Eta egona ainitz denbora, aitamek ez dute ezagutu etxerat arribatzean”.

I

– Salve, los de casa. ¿Queréis alojar en casa a un soldado?

– Sí, señor. Pasa adentro
y siéntate en una silla.
Te acostarás en la cama
de nuestro hijo, el del ejército.

– ¿En qué ejército está vuestro hijo?
¿Está en el norte o en Italia?

– ¡Ay, señor! Eso no lo sé;
a lo mejor ha muerto ya.
Hace mucho tiempo que no recibimos noticias,
y menos aún cartas.

Antes de ir a la cama se cena.
Ven. Harás como nosotros.
Me parece que tú eres nuestro hijo;
tienes su misma fisonomía.
Por favor, no nos engañes;
librános de estas penas.

– ¡Salve, padre y madre!
He venido a abrazaros.
He sufrido muchas penas
en las guerras y en los viajes;
vengo con permiso
firmado por el general.

– ¡Adiós, mis camaradas de los ejércitos!
Me voy, tengo el permiso.
Después de haber hecho diez campañas,
es hora de retirarse a casa.
Haced como lo hago yo ahora.
¡Viva, viva nuestro rey y señor!

"Hiru soldado gazte..."

I

Hiru soldadoen kantua

(Airea: Argizari ederra)

Hiru soldado gazte gerlan ibilirik,
etxerat heldu ziren su-tokietarik:
arin zuten gogoa, bihotza berorik,
ahoa dena kantu, oi alegerarik.

- Bai, gure beha daude gure izarñoak.
- Kattalin duk neurea -erran du lehenak.
- Madalen duk neurea -dio bigarrenak.
- Neurea Jana-Mari -aitor du azkenak.

Gizon bat hor ageri bide-kurutzean:
Mattin zeinu-joilea heldu urratsean...
- Agur, adixkidea, zer berri herrian?
- Hemen denak berdintsu aspaldi handian!

- Eta zertan da gure auzoko Kattalin?
- Etxetik joana hura, nigar gutirekin;
haren botu sainduak nik jaz jo nituin;
urte huntan Angelun da serora urdin!
- Madalen ba ahal da egon beti prestu?
- Ezkilak haren famak bietan jo ditu:
lehenik Manexekin zenean ezkondu,
eta haurra berritan zaiolarik sortu.

Hirugarrenak aldiz galdez gizonari:
– Eta dohatsu dea beti Jana-Mari?
– Gaixoa, segur ere, zeruan da hori!
Nik nuen Eguberriz hil-kutxan ezarri.

– Mattin, Angelu-alde joaiten bazira,
zoazi ene partez otoi komentura:
Kattalini goraintzi, agur, *etcetera...*
Norbaitekin noala laster ezkontzera!

– Mattin, atxeman zazu lehen baino lehen
bere etxe berrian Portuko Madalen;
errozu ihizian naizela ibiltzen,
usatua naizela otso tirokatzen.

– Mattin, gero zoazi ene aintzineko.
Errozu amattori goraintzi, adio!
Gerlan ari naizela erregerendako,
ez naizela gerlatik nihoiz itzuliko.

Errepikan kanta-bilduma, Baiona, 1944.

Kantu kanta kantore bilduma, Baiona, 1967.

* * *

Bertso auek ere kantatu zizkigun bein batez Xalbador pertsularia zanak; eta guk magnetofonoz jaso. Baiña orain ez degu zinta ori arkitu.

* * *

Baiña kanta au erriaren aotik jasoa ote da? Guk beintzat duda egiten degu. Baditeke idazle eskolaturen batek asmatua izatea, aren izenik ez badakigu ere.

I

*Tres jóvenes soldados, veteranos de guerra,
volvían a casa desde el frente.
Tenían el ánimo sin cuidados, fogoso el corazón,
la boca llena de cantos, llenos de alegría.*

- Sí; nos están esperando nuestras estrellitas.
- Catalina es la mía -dice el primero.
- Magdalena es la mía -dice el segundo.
- Juana Mari la mía -confiesa el tercero.

*Un hombre se deja ver en el cruce de caminos:
es Martín, el campanero, que viene andando.*

- Hola, amigo, ¿qué noticias hay en el pueblo?
- Aquí todo sigue igual desde hace mucho.

*- Y ¿cómo está Catalina, la de nuestra vecindad?
- Aquella se marchó de casa con poco llanto.
En sus santos votos yo repiqué el año pasado.
Lleva un año de monja en Anglet.*

- ¿Magdalena sigue tan lozana como siempre?
- La campana ha repicado por ella dos veces:
la primera, cuando se casó con Manex;
y hace poco cuando nació su hijo.

*- El tercero le pregunta al buen hombre:
- Y es feliz Juana Mari?
- La pobrecita es seguro que está en el cielo.
Yo la metí en el ataúd en Navidad.*

*- Martín, si te diriges hacia Anglet,
por favor, vete de mi parte al convento:
a Catalina recuerdos y saludos y demás.
Y que voy a casarme pronto con alguna.*

*- Martín, encuentra cuanto antes
en su nueva casa a Magdalena, la de Portu.
Dile que suelo andar cazando;
que soy práctico en disparar a los lobos.*

*- Martín, vete luego como mi embajador.
Dale a mi madre recuerdos y adioses;
que combato en la guerra sirviendo al rey;
que nunca jamás volveré de la guerra.*

“Leisibatxu zuria dozu...”

I

Lei - xe - ba-txu-a zu-ri-a do - zu, an-dra gaz-te - a on -
do - txu e - go - si - ta, ai - ta prai - le - a.

- Leisibatsu zuria dozu, andra gaztea.
- Ondotxu egosita, aita praillea.
- Eskutxu zuria dozu, andra gaztea.
- Guantepean erabilita, aita praillea.
- Semerik edo badozu, andra gaztea?
- Semetxu bi daukadaz, aita praillea.
- Semeak nun dituzu, andra gaztea?
- Eskolak erakusten, aita praillea.
- Senarrik edo badozu, andra gaztea?
- Senarra biajean, aita praillea.
- Ezagutuko ete zenduke, senar zeurea?
- Lengo erropakin baletor bai, aita praillea.

- Laztan bat emongo neuskizu, andra gaztea.
- Ibaia dago bitarte, aita praillea.

- Berton itoko al zara, andrea gaztea.
- Berori txalupa dala, aita praillea.

- Suak erreko al zaitu, andra gaztea.
- Berori egurra dala, aita praillea.

- Agur, agur, agur, andra gaztea.
- Beyoa ondo ondo, aita praillea.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco*, 842 zenbakian, 980 orrialdean, Bizkaian, Gabikako Dominga Aboitiz andreari jasoa. Bertsoen ondoren oar au egiten du:

"Dice la leyenda que un día un hombre que estuvo ausente de su domicilio mucho tiempo se presentó disfrazado de fraile a su mujer con objeto de probar su fidelidad, y entablaron este diálogo".

Bukaeran, azken bertsoaren ondotik, oar au egiten du Azkuek: "Parece un pegote esta última estrofa".

Kanta oni buruzko azterketa: Luis M. Mujikak: *Euskal lirika tradizionala (I)*, Donostia, 1985, 112 orrialdean; eta (II), 285 orrialdean.

II



Goi - ze - ze - ti ya - gi za - ra, o an - dra gaz - te - a. Lei - xi -
ba - txo - a e - gi - te - a - rrren, Jau - na neu - re - a.

- Goizeti yagi zara, o andra gaztea.
- Leixibatxua egitearren, jauna neurea.

- Leixibatxu zuria dozu, o andra gaztea.
- Ondotxo jabonauta, jauna neurea.

- Senarrik-edo bozu, o andra gaztea?
- Biaje urrunean da, jauna neurea.

- Umerik-edo bozu, o andra gaztea?
- Jaungoikoak emonda bi, jauna neurea.

- Ze opizio emon deutsazue, o andra gaztea?
- Madrilgo estudioan dabilz, jauna neurea.

- Berton itoko al zara, o andra gaztea.
- Berori txalupa dala, jauna neurea.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 842 zenbakian, 978 orrialdean, Bizkaian, Lunoko Bizenta Aurreri jasoa. Bukaeran oar au egiten du Azkuek:

“Es posible que por pudor no haya la cantora querido referir la razón de por qué dijo aquel señor: “ojalá os ahoguéis”.

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antología* (Bilbo, 1995), 39 orrialdean.

III

E - gun on Jain-koak di - zu - la, an - dra-txo gaz-te - a. Bai -
ta ze - ro - rri be - re, ga - lai - txo mai - te - a ja - jai; bai -
ta ze - ro - rri be - re, ga - lai - txo mai - te - a.

- Egun on Jainkoak dizula, andratxo gaztea.
- Baita zeurorri ere, galaitxo maitea.

- Senarrik-eta ba al dozu, andratxo gaztea?
- Indietara yoan zan, galaitxo maitea.

- Umerik-eta badozu, andratxo gaztea?
- Bi seme ta alaba, jauna, or dira.

- Umeok nundik dábizuz, andratxo gaztea?
- Eskolak ikastera, jauna, joan dira.

- Zanko ederra dozu, andratxo gaztea.
- Nik alan gobernatu, galaitxo maitea.

- Kopeta ederra dozu, andratxo maitea.
- Nik alan orraztuta, galaitxo maitea.

- Surtan erreko al zara, andratxo gaztea.
- Zeu ilinti zareala, galaitxo maitea.

- Urak eroango al zaitu. andratxo maitea.
- Zeu aurreti zareala, galaitxo maitea.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco kantutegian*, 832 zenbakian, 965 orrialdean, Bizkaian, Arrazolako Franziska Urizar andreari jasoa.

Baita ere doiñurik gabe bere *Euskalerriaren Yakintza-n*, IV tomoan.

IV

Xin-koak di - zu - la e-gu on an-de re - au - re-na. Bai e - ta
zu - ri e - re, ga-lai-a zal - du - na. Bo - ka - ta la - tsan a - ri zi -
ra an-dere au - re-na. E - ku - si ba-du-ke-zu, ga-lai-a zal-du - na.

- Xinkoak dizula egun on, andere aurena.
- Bai eta zuri ere, galaia zalduna.

- Bokata latsan ari zira, andere aurena.
- Ekusi badukezu, galaia zalduna.

- Eskuak gorri-gorri tuzu, andere aurena.
- Urain barnean inik, galaia zalduna.

- Orai non duzu senarra, andere aurena?
- Erregeren serbitzuan, galaia zalduna.

- Zonbat denbora fan zela, andere aurena?
- Orai zortzi urte, galaia zalduna.

- Eztuzie familiarik, andere aurena?
- Bi alabatto tit, galaia zalduna.

- Aurrak non tuzu goizean, andere aurena?
- Eskolan tit biak, galaia zalduna.

- Senarrari, fan zanean, zer eman zinakon?
- Seta-mokanes bat nik eman niozun.

- So egizu ean au denez, andere aurena.
- Iduria dukezu hora bera dela.

- Hura ta bera duzu kau, o Margarita.
-

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 852 zenbakian, 992 orrialdean, Naparroan, Saraitzuko Otxagin, Simona Ibañez andreari jasoa. Oar au egiten du asieran Azkuek:

“La cantora decía siempre jaunaia zalduna, sin duda porque al importar la canción no comprendían la voz galaia. También el vocablo aurena parece el lindísimo urena ‘principal, noble’, desfigurado en la importación”.

Bukaeran, berriaz, beste oar au:

“Lástima no haber tomado más notas; pues veo en mi borrador, después de las palabras yaiki zaite, yaiki, la advertencia de que el cuento es más largo”.

Baiña itz oiek nun ditu kanta onek?

Bere *Euskalerriaren Yakintza*-n ere argitaratu zuan Azkuek kanta au, IV tomoan, baiña doiñurik gabe.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell-ek ere argitara eman zuten kanta au, beren *Euskal Baladak* bilduman, bigarren tomoan, 124 orrialdean.

* * *

Aldaera ontan, eta ontan bakarrik, ageri danez, "erregeren serbitzuan" zebillen senarra da eterri eta bere emaztearekin alkarrizketa au egiten duana, onek "seta-mokanes" baten bidez ezagutzen duan arte. Ala, kanta au etxera datozen arma-gizonen kanten artean sartu bearra zegoan.

Gaiñontzeko aldaerak senarraren txeetasun garrantzitsu au galdu egin dute, eta kantaren kalterako galdu ere noski.

Ala ere, aldaera batean zera esan digu Azkuek: Andrearekin alkarrizketa egiten duana beraren senarra dala, praila-itxura artuta.

V

Li - xi - ba ede - rra dau - ka - zu o - an - dra neu - re - a! On -
do - txo e - goi - si - ta, Jau - na neu - re - a.

- Lisiba ederra daukazu, o andra neurea.
- Ondotxo egosita, jauna neurea.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 842 zenbakian, 981 orrialdean. Ez du esaten noren aotik jaso zuan. Baiña argibide ori beraren esku-idatzietan agertu da. Bizkaian, Gabikan, Klara Astarloari bildua da.

VI

Li - xi - ba zu - ri e - de - rra dau - ka - zu an - dra gaz - te - a
on - do - txu go - ber - na - tu - ta Jau - na mai - te - a.

- Lixiba zuri ederra daukazu, andra gaztea.
- Ondotxu gobernatura, jauna maitea.

R. M. Azkueren esku-idatzietatik, Bizkaian, Murelagan, Matias Zelaiaren aotik jasoa eta, uste degunez, argitaratu gabea.

VII

- Egun on Jainkoak dizula, andratxo maitia.
- Baita berorri ere, jauna maitia, *ja jai*,
baita berorri ere, jauna maitia.

- Illetxo ederra dezu, andratxo maitia.
- Sarritan orraztuta, jauna maitia, *ja jai*,
sarritan orraztuta, jauna maitia.

- Arpegi ederra dezu, andratxo maitia.
- Jaungoikuari eskerrak, jauna maitia, *ja jai*,
Jaungoikuari eskerrak, jauna maitia.

- Senarrik-eta badezu, andratxo maitia?
- India urriñetan, jauna maitia, *ja jai*,
India urriñetan,.. jauna maitia.

- Beste bat artuko al zenduke, andratxo maitia?
- Bera etorriko da, jauna maitia, *ja jai*,
bera etorriko da, jauna maitia.

- Suak erreko al zaitu, andratxo maitia!
- Berorri aurreti dala, jauna maitia, *ja jai*,
berorri aurreti dala, jauna maitia.

- Urak eramango al zaitu, andratxo maitia!
- Berorri aurreti dala, jauna maitia, *ja jai*,
berorri aurreti dala, jauna maitia.

Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduman, Lazkaoko Gorrotxategitar Eulojik bialdua.

Bertsoen ondoren oar au egiten du: “Azkoitiako neska bati orain 25 urte ikasia”. Gutxienez 1936-tik asi bear dira kontatzen ogei ta bost urte oiek.

VIII

- Leisiba zuria daukazu, andra gaztia.
- Ondotxu egosita, aita praillia.

- Eskutxu zuriak dozuz, andra gaztia.
- Guantepian ibillita, aita praillia.

- Gizonik bai al dozu, andra gaztia?
- Indietara joan zan, aita praillia.

- Zenbat ume daukazuz, aita praillia.
- Semetxu bi daukadaz, aita praillia.

- Ze opezio daukoe zure semiak?
- Eskolak ikastia, aita praillia.

- Suak erreko al zaitu, andra gaztia.
- Berori illunti dala, aita praillia.

- Urak eroango al zaitu, andra gaztia!
- Berori txalupa dala, aita praillia.

Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bilduman, 1936 urtean Bizkaiko Barinagako Jose Maria Arriaga Zuazok bialdua.

IX

- Goizetik jegi zara, andratxo gaztea.
- Egune zabaldute, bai, jauna maitea.

- Letxura zuri dezu, andratxo gaztea.
- Ondotxo garbituta, bai, jauna maitea.

- Ullea lisu dozu, andratxo gaztea.
- Ondotxo orraztuta, bai, jauna maitea.

- Umerik bai al dozu, andratxo gaztea.
- Bi seme ta alaba, bai, jauna maitea.

—
—

- Urek eroango al zaitu, andratxo gaztea!
- Berori aurretik dala, bai, jauna, maitea.

- Suek erreko al zaitu, andratxo gaztea!
- Berori ilinti dala, bai, jauna maitea.

Manuel Lekuona apaiz jauna zanaren paperetatik, eskuz idatzitako orritxo batetik. Puntuz idatzitako lerro oiek berak ere ala ditu. Ez du esaten kanta au nork bildua edo nundik etorria dan.

X

- Goizetik jagi zara, andra gaztia.
- Lexibia jotzeko, jauna neuria.

- Esku zuriak dozuz, andra gaztia.
- Zabal-zabal egonda, jauna neuria.

- Umerik ba al dezu, andra gaztia?
- Semetxu bi ditudaz, jauna neuria.

- Non dozuz ba semiok, andra gaztia?
- Estudioak ikasten, jauna neuria.

- Urak eroango al dau, andra neuria!
- Berori batel dala, jauna neuria.

- Suak erreko al dau, andra neuria!
- Berori egur dala, jauna neuria.

Gernikako Alejandra Zubizarretak 1959 urtean bertako Julio Bareño jau-nari esana, eta onek guri bialdua, oar onekin: “Gizonak etxetik iges egin eta ge-ro atzera emaztiagana etorri zanekoak”.

XI

- Leixibitxu zuria dezu, andratxu gaztia.
- Ondo gobernatuta, bai, aita frailia.

- Eskutxu zuriak dozuz, andratxu gaztia.
- Guantepien ibilite, bai, aita frailia.

- Familiarik-edo bozu, andratxu gaztia?
- Seme bi ditudaz, bai, aita frailia.

- Senarrik-edo bozu, andratxu gaztia?
- Amerike urrunetan, bai, aita frailia.

- Ezeutuko zenduke, andratxu gaztia?
- Lengo erropakin bada, bai, aita frailia.

- Laztan bat emon bear detzut, andratxu gaztia.
- Ibia dau bitarte, bai, aita frailia.

- Bi saltuan pasatuko'ot, andratxu gaztia.
- Ez jat komenidetan, bai, aita frailia.

- Urek eroango al zaitu, andratxu gaztia.
- Zeu txalupa zariela, bai, aita frailia.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1984), bigarren tomoan, 125 orrialdean, oar onekin: "Maria Urrutxuari Muxikan J. A. Cid, J. Joaristi. J. Ormazabal eta J. A. Lakarrak 1981-IX-19an bildua".

XII

- Egun on dezula, andratxu gaztea.
- Baita bedorreki bere, bai, jauna maitea, *ja jai*.

- Uletxu polita dezu, andratxu gaztea.
- Nik olan orrazturik, bai, jauna maitea, *ja jai*.

- Gizonik-eta badezu, andratxu gaztea?
- India urriñetan, bai, jauna maitea, *ja jai*.

- Barririk artu dezu, andratxu gaztea?
- Bera be etorriko da, bai, jauna maitea, *ja jai*.

- Umerik-eta badezu, andratxu gaztea?
- Bi seme ta alaba bat, bai, jauna maitea, *ja jai*.

- Nundik eta nora dezuz, andratxu gaztea?
- Eskolara juan dira, bai, jauna maitea, *ja jai*.

- Ekarriko al destezuz, andratxu gaztea?
- Eurak be etorko dira, bai, jauna maitea, *ja jai*.

- Urak eroango al zaitu, andratxu gaztea.
- Bedori aurreti dala, bai, jauna maitea, *ja jai*.

- Suak erreko al zaitu, andratxu gaztea.
- Bedori ilunti dala, bai, jauna maitea, *ja jai*.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia 1984), II tomoan, 126 orrialdean, oar onekin: “Delfina Andrinuak Joseba Andoni Lakarrari izkribuz bidalia 1983-8-15ean; orain Canal de Carriedon (Santanderren) bizi arren, berriemaile hau Muxikan jaio eta hazitakoa da”.

XIII

- Egun on dakoela, andra gaztie.
- Alan ekarri deiela, aite prailie.

- Lexibetxu zurie dozu, andra gaztie.
- Ondo-ondo egosite. aite prailie.

- Senarrik edo bozu, andra gaztie?
- Indietan dadukat, aite prailie.

- Famelirik badozu, andra gaztie?
- Umetxu bi ditudaz, aite prailie.

- Ezagutuko zeunke senar zeurie?
- Lengo trajiaz baletor bai, aita prailie.

- Laztan bat emongo neuskizu, andra gaztie.
- Ibaie dau bitarte, aite prailie.

- Laster igaroko neuke, andra gaztie.
- Etxatela konbeni, aite prailie.

- Agur, agur, agur, andra gaztie.
- Beiuela ondo-ondo, aite prailie.

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antologia* (Bilbo, 1995), 40 orrialdean, argibide auekin:

"Iturria: Labayru Ikastegiko MZIM artxiboa. Lekukoa: Adelaida Bengoetxea, 50 urte, Ereñokoa. Biltzaile: Bego Zabaleta. Biltze-data: 1983ko urtarrilean".

XIV

The musical score consists of two staves of music in common time (indicated by 'c') and G major (indicated by a 'G'). The first staff begins with a melodic line starting on the note 'G'. The lyrics 'E - gu - non dau - ke - zue - la' are written below the notes, with a bracket over the first four notes and a circled '3' above the first note. The second staff continues the melody, with lyrics 'an - dra gaz - ti - a.' written below the notes. The lyrics 'A - lan e - ka - rri be - di ai - ta fria - li - a.' are also provided for the second staff.

- Egun on daukezuela, andra gaztia.
- Alan ekarri bedi, aita frailia.

- Lexibatxu zuria dezu, andra gaztia.
- Ondo-ondo irazita, aita frailia.

- Senarrik edo badezu, andra gaztia?
- Indietan dodala, aita frailia.

- Famelirik edo badozu, andra gaztia?
- Semetxu bi dodaz, aita frailia.

- Ze ofezio dauke, andra gaztia?
- Eskolak ikastera, aita frailia.

- Laztan bat emongo neuskitzu, andra gaztia.
- Ibaie dau bitartez, aita frailia.

- Ibai ori pasauko neuke, andra gaztia.
- Etxatela komeni, aita frailia.

- Suak erreko al zaituz, andra gaztia.
- Berori illunti dala, aita frailia.

- Urak eroango al zaituz, andra gaztia.
- Berori txalupa dala, aita frailia.

- Agur, agur, andra gaztia.
- Ondo ondo beiuela, aita frailia.

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antologia* (Bilbo, 1995), 41 orrialdean, argibide auekin:

"Iturria: Labayru Ikastegiko MZIM artxiboa. Lekukoa: Iluminada Elorrieta, 78 urte, Arteagakoa. Biltzailea: Marije Bilbao. Biltze-data: 1988".

XV

- Goizeti jagi zara, o andra gaztea.
- Leixibatxua egitearren, jauna neurea.

- Leixibatxu zuria dozu, o andra gaztea.
- Ondotxu egosita, aita prailea.

- Senarrik edo bozu, o andra gaztea?
- Biaje urrunean da, jauna neurea.

- Ezagutuko ete zenduke, o andra gaztea?
- Lehengo erropakin baletor bai, aita praillea.

- Laztan bat emongo neuskizu, o andra gaztea.
- Ibaia dago bitarte, aita prailea.

- Berton itoko ahal zara, o andra gaztea!
- Berori txalupa dala, aita prailea.

- Suak erreko ahal zaitu, o andra gaztea!
- Berori egurra dala, aita prailea.

- Agur, agur, agur, o andra gaztea.
- Beihoa ondo ondo, aita prailea.

Xabier Amuriza: *Bizkaiko bertsogintza, I, Izengabeak*, Bilbo, 1995, 219 orrialdean, argibide onekin: "Maria Astobiza - Orozko. Jon Aurre sorta".

I

- Tienes una blanca colada, joven señora.
- Por haberla cocido bien, padre fraile.

- Tienes blanca mano, joven señora.
- Por llevarla enguantada, padre fraile.

- ¿Tienes algún hijo, joven señora?
- Tengo dos hijitos, padre fraile.

- ¿Dónde tienes a los hijos, joven señora?
- Estudiando en la escuela, padre fraile.

- ¿Tienes marido, joven señora?
- Mi marido está de viaje, padre fraile.

- ¿Reconocerías a tu marido, joven señora?
- Sí viniera con la ropa de antes, sí, padre fraile.

- Te daría un abrazo, joven señora.
- El río está de por medio, padre fraile.

- Ahí mismo te ahogues, joven señora.
- Siendo usted la barca, padre fraile.

- Ojalá te abrases en el fuego, joven señora.
- Siendo usted la leña, padre fraile.

- Adiós, adiós, adiós, joven señora.
- Váyase en buena hora, padre fraile.

IV

Traducción de Resurrección María Azkue:

- *Que Dios os dé (un) buen día, noble señora.*
- *También a vos, caballero galán.*

- *¿Estáis haciendo la colada, noble señora?*
- *Ya lo podéis ver, caballero galán.*

- *Las manos las tenéis rojas, noble señora.*
- *Dentro del agua se han enrojecido, caballero galán.*

- *¿Dónde tenéis ahora el marido, noble señora?*
- *Al servicio del rey, caballero galán.*

- *¿Cuánto tiempo que se fué, noble señora?*
- *Hace ya ocho años, caballero galán.*

- *¿No tenéis familia, noble señora?*
- *Tengo dos hijitas, caballero galán.*

- *¿Dónde tenéis esta mañana las niñas, noble señora?*
- *Las dos las tengo en la escuela, caballero galán.*

- *Al marido, cuando se fué, ¿qué le disteis?*
- *Un pañuelo de seda le dí yo.*

- *Mirad si acaso es éste, noble señora?*
- *Parece como que es el mismo.*

- *Es, sí, el mismo oh Margarita.*
-

"Nere seme ttipiena..."

I

The musical score consists of three staves of music. The first staff starts with a treble clef, the second with a bass clef, and the third with a treble clef. The music is in 3/4 time with a key signature of one sharp. The lyrics are written below the notes.

Ne-re se - me tti-pi-e - na, ik e-mai - ten dau-tak pe - na. A-bil a -
rat, a - bil o - ne - rat, mas - ta gai - na - ren pun - ta - rat, e - an a -
ge - ri den un - tzi -rik e - do ber - tze - naz lei - o - rrik.

- Nere seme ttipiena,
ik emaiten dautak pena.
Abil arat, abil onerat
masta gainaren puntarat,
ean ageri den untzirik
edo bertzenaz leiorrik.

- Ai, aita, heldu nuzu
biotza arras tristerik:
eztut ikusi ez untzirik,
ez eta ere leiorrik;
yoan behar balin baduzue
il nazazue leenik.

- Nere seme ttipiena,
ik emaiten dautak pena.
Abil arat, abil onerat
masta gainaren puntarat,
ean ageri den untzirik
edo bertzenaz leiorrik.

- Ai, aita, eldu nuzu
biotza alegerarik:
ikusi dut orain untzia
bai eta ere leiorrik;
zure alaba Maria
leioan yosten yarririk.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 865 zenbakian. 1005 orrialdean; Lapurdin, Ziburuko Jeanne Zerziat-en aotik jasoa.

Laugarren bertsoaren puntuak onela ditu Azkuek: *alegerarik, leihorra, yarria*. Dendarik ez da *alegerarik, leihorrik, yarririk* bear dutela, eta orrela idatzi ditugu.

Bigarren bertsoaren bostgarren lerroan *yoan* idazten du Azkuek. Dendarik ez da *yan* bear duala.

Bere *Euskalerriaren Yakintza-n* ere argitaratu zuan Azkuek kanta au, IV tomoan, baiña doiñurik gabe.

Kanta oni buruzko azterketa: Luis M. Mujika: *Euskal lirika tradizionala (I)*, Donostia, 1985, 152 orrialdean.

II

Ba - di - tu zaz - pi ur - te u - ra - ren gai - ñean gi - re - la,
 sei ur-te-ren bi - ta - lla bai - zik gu - re - kin e - man du - gu - la, zaz - pi - ga - re - ne - an jan
 di - tu - gu ga - tu - a e - ta xa - ku - rra. E - ne
 mu - ti - lik tti - pi - e - na, e - ne mu - ti - lik mai - te - na,
 a - bil a - rat ta a - bil hu - nat, mas - ta - ño ho - rren gai - ñe - ra, mas - ta - ño ho -
 rren gai - ñe - ra e - ta a - ge - ri de - nez lei - o - rra.

Baditu zazpi urte
uraren gainean girela,
sei urteren bitalla baizik
gurekin eman dugula,
zazpigarrenean yan ditugu
gatua eta xakurra.

- Ene mutilik ttipiena,
ene mutilik maitena.
habil hara ta habil hunat
mastaño horren gainera,
mastaño horren gainerat eta
ageri denez leihorra.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 827 zenbakian, 958 orrialdean, Baxenabarren, Orabarreko J. B. Pagadoiri jasoa. Bertsoen ondoren onako oar au: "Me dijeron que este romance se refiere al primer viaje de Colón".

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1984), II tomoan, 88 orrialdean.

III

Hi - rur ur-the ba-di - tu - tzu u - ra - ren gai-nean gi- ne -
la, bi ur - the-ren bi-tan txa bai-zik gu-re-kin ez-ki- nu- e - la hi -
rur - ga - rre-nean yan gi - ti - tzun xa - khu - rrak e - ta ga-tu - ak.

Hirur urte baditutzu
uraren gainean ginela,
bi urteren bitantxa baizik
gurekin ezkinuela,
hirurgarrenean yan gititzun
xakurra eta gatuak.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 410 zenbakian, 512 orrialdean. Noren aotik jaso zuan adierazteko, onela dio: "De Casenave, zapatero de Muguerre (L)".

IV

E - ne mu - ti - lik tti - pi - e - na, e - ne mu - ti - lik mai - -
 na. Ha - bil ha - rat, ha - bil hu - nat mas - ta - ño - a - ren pun - ta - lat,
 mas - ta - ño - a - ren pun - ta - lat e - ta a - ge - ri de - nez lei - ho - rra.

– Ene mutillik tipiena,
 ene mutillik maitena,
 habil harat, habil hunat
 mastañoaren puntalat,
 mastañoaren puntalat eta
 ageri denez leihorra.

– Ene nagusi maitea,
 heldu naiz ongi tristerik:
 ez dut ikusi leihorrik,
 ez eta ere belarik.
 Norbait jan behar baduzie
 hil nezazie lehenik.

– Ene mutillik tipiena,
 ene mutillik maitena,
 habil harat, habil hunat,
 mastañoaren puntalat,
 mastañoaren puntalat eta
 ageri denez leihorra.

– Ene nagusi maitea,
 heldu naiz alegerarak:
 ikusi dizut leihorra,
 Angeletarreko hiriak.
 Zure arreba Mariena
 galerian josten ari da.

Aita Jose Antonio Donostia: *Quelques caractéristiques de la Chanson Basque, Gure Herria* aldzikarian, 1924 urtean, 231 orrialdean.

Bertsoekin batera argibide au ematen du aita Donostiak:

“Je viens de vous indiquer l’absence ou l’extrême rareté des chansons de métiers de notre folklore. Mais encore on est plus étonné quand on pense que le peuple basque, peuple de marins, qui a donné au monde un Elkano ou un Pellot, n’a pas de chansons que aient pour sujet la mer ou la vie marine. Serait-ce que les marins n’aiment pas à chanter quand il se voient loin de leur famille, exposés aux périls des tempêtes? Un des ces périls, pire que les tempêtes, est cité dans une des mélodies que j’ai recueillies l’année dernière à Hasparren. Un bateau, labourdin peut-être, qui se dirigeait vers l’Angleterre (ou vers la Spitzberg pour chasser la baleine?), se trouve en panne en pleine mer sans pouvoir avancer. Les

marins ont épousé toutes les provisions. Le moment arrive où le sort décidera qui va être sacrifié pour que les autres continuent à vivre. Le sort désigne le mousse, le plus jeune garçon de l'équipage. Avant d'être sacrifié le capitaine lui dit:

Ene mutilik ttipiena...

Et le mousse fut sauvé de la mort. Il donnait de tels détails sur le rivage qu'il avait aperçu que le doute était impossible. Et ce stratagème lui valut la vie".

* * *

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 417 zenbakian, 582 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: Mme. Espil, hermana de Choribit. Loc. rec.: Hazparne. Fecha: 1 de setiembre de 1922. Clas. narrativa".

Doïñu au bera: J. A. Donostia: *Obras Completas, IV*, 1985, 417 orrialdean, *Ejemplos musicales*.

* * *

Rodney Gallop-ek, bere *A Book of the Basques* liburuan, 114 orrialdean, bertso auen itzulprena eskeintzen digu, *Gure Herria* aldizkaritik artuta. Ondoren esaten duanez, kanta onen gaia eta Inglaterrako *Little Billee* kantarena berdintsuak dira.

V

- Ene mutilik ttipiena.
hik emaiten deraut pena.
Habil harat, habil hunat
mustainoaren puntalat,
ageri denez untzirik edo
ageri denez leihorra.

- Nagusia, heldu nuzu
bihotza arras tristerik:
ez dut ikusi untzirik,
ez eta ere leihorrik.
Jan behar balin banauzue
hil nazazue lehenik.

- Ene mutilik ttipiena,
hik emaiten deraut pena.
Habil harat, habil hunat
mustainoaren puntalat,
ageri denez untzirik edo
ageri denez leihorra.

- Nagusia, heldu nazu
alegerarik bihotza.
Ikusi dut leihorra,
Kataloniako hiria.
Zure arreba Santa Klara
leihuau josten ari da.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1984), II tomoan, 89 orrialdean, argibide onekin:

"Donostiak Dominique Lakarrari Donibane Lohitzunen 1923-10-20an jasoa".

Aita Donostiak bildua, beraz; eta geroztik argitara emana: P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, 417 zenbakian, 581 orrialdean, doiñu onekin:

Ene - ne mu - thi-lik tti - pi - e - na, hik e - ma -
ten de - raut pe - na. Ha-bil ha - rat, ha - bil hu -
nat, mas-tai - no - a - ren pun-ta - lat, a - ge - ri de - nez
un - tzi - tik, e - do a - ge - ri de - nez lei - ho - rra.

Ortaz gaiñera, argibide auek ematen ditu:

*"Infor.: Dominique Lakarra. Loc. rec.: Azkaine. Fecha: 20 de octubre de 1923.
Clas.: narrativa.*

Ref.: Casi idéntico es el texto suletino que damos a continuación, copiado en Zalgize (Zuberoa), el día 4 de Setiembre de 1923, de Margarita, la criada de la casa del P. Pierre Lhande.

Ene mitilik txipiena,
ene mitilik maiteena:
abil harat, abil hunat,
masta horren püntalat;
abil eta so'(y)egin ezak
ageri denez lür idorra.

– Ene bürüzagi maite-maitea,
horra niz arras tristerik:
eztit ikusi belarik,
eta eta ere lür idorrik.
Gero jan behar banaizie,
jan nezazie lehenik.

– Ene mitilik txipiena,
ene mitilik maiteena:
abil harat, abil hunat
masta horren püntalat;
abil eta so'(y)egin ezak
ageri denez lür idorra.

Ene bürüzagi maite-maitea,
horra niz alagerarik:
ikusi dit lür idorra,
Tolona'ko torria;
zure arreba Mariana
leihoan josten ari da.

¿Será esta canción un trasunto de la conocida leyenda inglesa "Little Billee"? El grumete se salva de ser sacrificado para alimentar al resto de la tripulación, al dar pruebas de la proximidad de la costa".

(Gure iritzi bat: bigarren bertsoaren azken bertsoak jan nezazie lehenik esaten da. Dudarik ez da hil nezazie lehenik bear duala.)

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 417 zenbakian, 582 orrialdean, argbide auekin:

"Infor.: Mme. Espil, hermana de Choribit. Loc. rec.: Hazparne. Fecha: 1 de setiembre de 1922. Clas. narrativa".

Doiñu au bera: J. A. Donostia: *Obras Completas, IV*, 1985, 417 orrialdean, *Ejemplos musicales*.

VI

The musical score consists of three staves of music in common time (indicated by 'C') and a key signature of one flat (indicated by a 'B' with a flat symbol). The first staff begins with a treble clef. The lyrics are written below the notes. The music features various note values including eighth and sixteenth notes, with some notes having stems pointing up and others down. The lyrics describe a scene of a drowning sailor being rescued by a whale.

Ne - re mu - thil tti- pi- e - na, hik e- mai- ten nauk bi- ho- tzi- an pe -
na. Ha- bil ha - rat, ha - bil hu - nat, ha - bil mas - ta- ren pun- ta-
rat, a - ge - ri de- nez un- tzi - rik, e- do ber - tze- naz lei- ho - rrik.

- Nere mutil ttipiena,
hik emaiten nauk bihotzian pena.
Habil harat, habil hunat,
habil mastaren puntarat,
ageri denez untzirik
edo bertzenaz leihorrik.

- Nere nausi maitea,
heldu nauzu tristerik:
ezta ageri untzirik
ez eta ere leihorrik.
Zu yan beharra balin bazare,
ni yan nazazue lehenik.

- Nere mutil ttipiena,
hik emaiten nauk bihotzian pena.
Habil harat, habil hunat,
habil mastaren puntarat,
ageri denez untzirik
edo bertzenaz leihorrik.

- Nere nausi maitea,
heldu naiz alegerarik:
ikusi dut untzia
bai eta ere leihorra;
zure arreba Maria
leihoan yosten ari da.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 418 zenbakian, 583 orrialdean, argibide auekin:

“Infor.: Laramendi, marinero de Azkaine, residente en Bayona; recogida en casa de Dufau. Loc. rec.: Bayona. Fecha: 5 de setiembre de 1922. Clas.: narrativa. Ref.: Variante melódica de “Aitak et’amak” (NC)”.

VII

Palogañeko, Palogañeko,
palogañeko puntara,
an dago Karmen lutoz beterik
almuedazala bordatzen.

Lau bertso-lerro auek *Kardaberaztarrak* izeneko apaizgai-taldeak bildu zituan Ondarroan, 1935 urtean; eta *Aitzol* zanaren bildumara bialdu. Zalantzak gabe, *Nere seme ttipiena* kanta onen puska bat da.

IV

– *El menor de mis muchachos, el más querido de mis muchachos,
ve allá, ven acá hasta la punta del mástil,
hasta la punta del mástil y a ver si se divisa tierra.*

– *Mi querido amo, vuelvo muy triste:
no he divisado tierra, ni tampoco una vela.
Si habéis de comer a alguien, matadme a mí el primero.*

– *El menor de mis muchachos, el más querido de mis muchachos,
ve allá, ven acá hasta la punta del mástil,
hasta la punta del mástil y a ver si se divisa tierra.*

– *Mi querido amo, vuelvo muy alegre:
he divisado tierra, las ciudades de Inglaterra.
Tu hermana Mariana está cosiendo en la galería.*

Amodioa

(El amor)

Amodioak kanta asko sor arazi ditu izkuntza guzietan. Gure artean, berriz, zer esanik ez, bai bertso berrietañ eta bai erromantzeetan ere. Ala, onako sail berezi au osatu degu gai ori darabilkitenekin.

Muchos cantares ha suscitado el amor en todos los idiomas. También entre nosotros, tanto en el género de los Bertso berriak (estrofas nuevas) como en el de los romances. Hemos agrupado en este apartado a los que se inspiran en este sentimiento.

"Adios orain, dama gaztia..."

I

– Adios orain, dama gaztia,
Arantzazura arteko,
antxen ongo naiz besoak zabalik
zatozenian artzeko.

Urdiña bera zelosa eta
berdiak esperantzia,
gorri ederrak siñifikatzen
biotz kariñoz betia.

Arantzazura erromerian
nai dozunian eterri,
amoriozko begi ederrak
erakutsiaz alkarrí.

Au da, yentia, kanta bat
daukana bakarrik falta bat:
bertso gutxitxo daruzka eta
geitu bear zaio pare bat.

Panplonan bera banua eta
zer gura dozun esaizu.
– Zinta eder bat biali ezazu
borondaterik badezu.

Arantzazura nijuanian
ez neban besterik goguan:
nola juan da nola eterri
kristau fidelen moduan.

Kanta au Arantzazuko artxibotik degu, *Romances euskéricos de Aranzazu*
izeneko kuaderno batetik.

Goronaeta-Koruetako Maria Azkoitiari jasoa omen da.

Aita Biktoriano Gandiagak *Euskera* aldizkarian argitaratu zuan, 1975-ean.

I

– *Adiós ahora, joven dama, hasta Aránzazu,
allí estaré con los brazos abiertos, para recibirte cuando llegues.*

*A Aránzazu en romería ven cuando quieras,
a enseñarnos mutuamente los hermosos ojos de amor.*

*Voy a Pamplona y dime quéquieres que te traiga.
– Una hermosa cinta envíame, si tienes voluntad (para ello).*

*El color azul indica celos y el verde esperanza;
el hermoso rojo significa corazón lleno de cariño.*

*Éste es, oyentes, un cantar que tiene un solo defecto:
que se compone de pocas estrofas y hay que añadirle un par.*

*Cuando caminaba hacia Aránzazu, no tenía otra cosa en la cabeza:
cómo ir y cómo volver a la manera de los fieles cristianos.*

"Aita konfesoria, konfesatu naizu..."

I

Dama gaztearen konpesiñue

– Aita konfesoria,
konfesatu naizu;
amodiozko pena
zer dan badakizu.

Aita, akusatzen naiz
neu lenenguagaz:
nere Jaungoiko ona
amadu ezagaz.

Akusatzen naiz, aita,
neu bigarrenean:
egin dot juramentu
guzurren gañean.

Juramentu ok dira
bost milla eta bost;
ez da pekatu grabia,
egiaz badiñot.

Irugarrenekuan
meza entzutie;
ez dot parterik izan
meza entzutien,
juan tenplora eta
galak ikustien.

Laugarrenekuan
ez neban obeitu,
zeren ez daustelako
gustora kunplitu.

Bosgarrenekua da,
bai, ez igotzie,(1)
neure projimuagaz
ein jodian guztie.

– Aita, zeren zegozen
zeu arren ingrato,
enaz akusatzen
neu seigarreneko.

Zazpigarrenekoan,
ostu dot neuk asko,
.....
.....

Zortzigarrenekoan
guzurra esati;(2)
neure projimoagaz
ein jodian guzti.

Bederatzigarrena
bai desioetan:
sekula desioa
ez det palta izan.

Amargarrenekua
– ai neure noblie!–,
neutzat gura izan dodaz
ondasun guztiek.

Aita prailea dago
bai asustadurik,
ikusirik dama bat
bere oñetan illik,
ezpañ koral ederrak
lur biurturik,
begi kristal argiak
ondo illundurik.

– Adios, aita, adios,
egin dau niriek,
prestatu egidazu
neretzat aundie,
baita edeki ere,
ai!, sepulturie.

Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduma, Ataungo Jokin Dorronsorok 1934 urtean Elantxoben Amutxategitar Andoniri jasoa.

II

Ba - ka - rrik aur - ki - tzen naz neu - re an-pa-ru - an, neu - re kon-pe - si
Prai - le san - tu - a da - go guz - tiz a - rri-tu - rik da - ma i - kusten_zu -

noi - a e - gi - te - ra no - a. Ai - ta, a - ku - sa - tzen naiz neu
e - la be - lau - ne - tan i - llik. Ez - pan ko - ral e - de - rrak on -

le-nen-go-a - gaz geu - re Jaun-goi-ko o - na a - ma-du e - za - gaz.
do lur e - gi - nik be - gi zu - ri e - de-rrak guz - tiz e - zain-du - rik.

– Bakarrik aurkitzen naz
neure anparoan,
neure konpesinoa
egitera noa.

Aita, akusatzen naz
neu lenengoagaz:
geure Jaungoiko ona
amadu ezagaz.

Aita, akusatzen naz
neu bigarrenean:
egin dot juramentu
guzurren ganean.

Joaten naiz elizara
mezea entzuten,
tenplura joaten naz
galaiak ikusten.

Agur, aita praillea,
egin dau nereak;
izio kandelea,
prestau bei andea.

Praile santua dago
guztiz arriturik,
dama ikusten zuela
belaunetan ilik.

Ezpan koral ederrak
ondo lur eginik,
begi zuri ederrak
guztiz ezaindurik.

R. M. Azkue *Cancionero popular vasco* kantutegian, 387 zenbakian, 484 orrialdean, Izpazterren Juana Urteagari jasoa.

Azkuek etxituan bertso guziak kopiatu, berak aitortzen duanez: "No quise tomar nota de toda la confesión, por larga y sosa. Ignoro si el poema refiera algún suceso o es una escena ficticia".

I

— *Padre confesor, confesadme;*
ya sabéis lo que son las penas de amor

Padre, me acuso, en el primero,
de no haber amado a mi buen Dios.

Me acuso, padre, en el segundo:
he jurado en falso.

Estos juramentos son mil cinco;
no es pecado grave si los he hecho con verdad.

En el tercero oír misa;
no participo en el oír misa;
voy al templo y (me entretengo) viendo las galas.

En el cuarto no he obedecido (a los padres),
porque no han hecho mi gusto.

El quinto es no matar,
(que es) todo lo que he hecho con mi prójimo.

Padre, porque sois tan ingrato,
no me acuso en el sexto.

En el séptimo, he robado yo mucho,

.....
En el octavo, no decir mentiras;
(que es) todo lo que he hecho con mi prójimo.

El noveno, sí, en los deseos.
Jamás me ha faltado el deseo.

El décimo -¡ay, mi noble...!-(3)
para mí he querido todas las riquezas.

El padre fraile está asustado
viendo a sus pies a una dama muerta,
los hermosos labios de coral convertidos en tierra,
los claros ojos de cristal oscurecidos.

- Adiós, padre, adiós, me ha llegado la hora.
Prepara para mí un gran...(4)
y abre también ¡ay!, la sepultura.

(1) Bearbada, *bai, ez eriotzie edo bai, ez iltzie* bearko luke emen.

(2) Lerro au, gure iritzirako, beste onela bearko luke: *guzurra ez esati*.

(3) No sabriámos decir a qué sustantivo pueda referirse este adjetivo: ¿caballero? ¿galán?

(4) También aquí falta el sustantivo, que bien podría ser *ataúd*.

"Aita San Migel Idurretako..."

I

The musical score consists of three staves of music in G major, 4/8 time. The first staff starts with a rest followed by a melodic line. The second staff begins with a quarter note. The third staff starts with a half note. The lyrics are written below each staff, corresponding to the musical notes.

Ai - ta San Mi - gel I - du - rre - ta - ko ze - ru
al - tu - ko lo - re - a. A - gu - ra za - rrak dan - tzan i - ku - si - ta ak_e-
gi - ten dok ba - rre - a! A - gu - ra za - rrak dan - tzan i - ku - si - ta ak_e-
gi - ten dok ba - rre - a! 1 a 2 !

Aita San Migel Idurretako,
zeru altuko lorea,
agura zarrak dantzan ikusita
ak egiten jok barrea!

Garaiko plazan otea lore,
Ermuan Asentzioa,
dantzan ikasi gura dabena
Barruetara beioa.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco kantutegia*, 192 zenbakia, 275
orrialdea, Berrizko Luis Ugarteri jasoa.

Azken lerroan agertzen dan Barrueta orretzat onela dio Azkuek: “En vez de Barruetara, citó él un caserío de nombre algo mas largo, que destruía el ritmo de la melodía”.

II

Ai - ta San Mi - gel I - u - irre - ta - ko, ze - ru al - tu - ko lo - re -
 a. a - gu - re za - rrak dan - tzan i - ku - si ta _ ak e - gi - ten jok ba - rre -
 a, a - gu - re za - rrak dan - tzan i - ku - si ta _ ak e - gi - ten jok ba - rre -
 a. Rai ta rai la - ra la - ra la - ra la - lai. —

Aita San Migel Iurretako,
 zeru altuko lorea,
 agure zarrak dantzan ikusita
 ak egiten jok barrea.

Perretxikotan nenbilenean
 Mendiolako basoan,
 dama gazte bat jarri zitzaidan
 elorri baten ondoan.

Gaztea nintzan, zoroa nintzan,
 jarri nintzakon alboan,
 amantaltxua zabaldu eta
 artu ninduan altzoan.

R. M. Azkueren esku-idazkietan azaldua, or goiko doiñuarekin.

Bigarren eta irugarren bertsoak “Perretxikotan nenbilenean...” kantarenak dira.

Aurretik bi oar auek egiten ditu: “Dantza cantada del Duranguesado” eta “Enviada al P. Otaño”.

Ondotik, berriz, beste au: "Ritmo muy difícil para quien no está familiarizado con él. Gracias a los ezpatadantzaris de esta comarca bizkaina, se han popularizado las cinco o seis melodías (todas de aire de baile), que el pueblo bizkaino guarda de tiempo inmemorial".

III

Aita San Migel Iurreta,
zeru altuko lorea,
agure zarrak dantzan ikusita
ak egiten jok barrea.

- Aita Juaniko, seme Periko,
zer dogu aparitako?
- Orio-aza gozo-gozoa
arto beroaz jateko.

Kazuelatxuan intxaур-saltsea,
txarra morkoan txunpletin,
eragin eta beti eragin
atso zarrok bajaukek zer egin.

- Garaiko plazan otea lore,
Ermuan Aszentsioa,
.....
.....

R. M. Azkueren esku-idazkietan azaldua eta, uste degunez, argitara eman gabea. Bizkaian, Garaiko errian, jaso zuan.

IV

Aita San Migel Ixurreta,
zeru altuko lorie,
agure zarra dantzan ikusite
arek eiten jok barrie.

Basorik baso ni juan nintzan
perretxikoak topetan,
Aita San Migel Ixurreta
antxe topatu naiuan.

- Aita San Migel Ixurreta,
zer dogu apariteko?
- Orio-aza gozo-gozua,
arto beroaz jateko.

- Aita Juaniko, ama Periko,
zer dogu apariteko?
- Orio-aza gozo-gozua,
arto beroaz jateko.

Mari Kataliñ kolore gorri,
kapitan baten alaba,
aitek doterik emon ez arren
billatuko nik senarra.

Astelenien ezkondu eta
martitzenien basora,
eguaztenien orbelak batzen,
eguenien etxera.

Bariyekuen bedarra ebaten,
sapatuen laietara,
domeka-goizian apaindu eta
amarretako mezara.

Gernikako Julio Bareño zanak jaso eta bialdua. Bearbada, bi kanta naastu dira emen. Bigarren bertsoak, izan ere, badu zer ikusirik “Perretxikotan nebilienan” asten danarekin ; eta azken bi bertsoak, “Ipiñeburu leku altuen” asten danarekin.

V

Aita San Migel Ixurretako,
zeruetako glorie,
agure zarrak dantzán ikusita
ark egiten dik barrie.(1)

Jose Ariztimuño Aitzol zanaren bilduma; Irunen jaio eta Plazentzian bizi zan Andres Ezenarro Urzelai zanak bialdua.

Jaun onek puntuak beste onela idatzita zeuzkan: *gloriye eta barria*.

I

*Padre San Miguel de Idurreta, flor del alto cielo,
al ver a los viejos abuelos bailando ¡cómo se ríe él!*

*En la plaza de Garay la argoma está en flor;
quien desee a aprender a bailar que vaya a Barrueta.*

II

*Padre San Miguel de Iurreta, flor del alto cielo,
al ver a los viejos abuelos bailando ¡cómo se ríe él!*

*Cuando buscaba setas en el bosque de Mendiola,
una joven dama se me presentó junto a un espino.*

*Era yo joven, era yo loco, me puse a su lado;
ella extendió el delantalito y me acogió en su regazo.*

IV

*Padre San Miguel de Ixurreta, flor del alto cielo,
al ver al viejo abuelo bailando ¡cómo se ríe él!*

*Yo anduve de bosque en bosque buscando setas;
al padre San Miguel de Ixurreta allí me lo encontré.*

- *Padre San Miguel de Ixurreta, ¿qué tenemos para cenar?*
- *Berzas con aceite muy sabrosas, para comerlas con borona caliente.*

Padre Juanico, madre Perico, ¿qué tenemos para cenar?

- *Berzas con aceite muy sabrosas para comerlas con borona caliente.*

*María Catalina, la de colores sonrosados, hija de un capitán;
aunque el padre no te conceda dote, yo te buscaré marido.*

*Me casé el lunes y el martes me fui al bosque;
el miércoles recogiendo hojarasca, el jueves a casa.*

*El viernes segando hierba, el sábado a layar;
el domingo por la mañana a acicalarse y a la misa de diez.*



“Artzai nindagoenian...”

I

Artzain nindagoenian
mendi gorenian,
gogoeta jartzen nintzen
nihaur nintzenian.

Artzaina gogoeta
denbora joan eta,
antxurik ederrena
bordatik gal eta.

Joaiten naiz elizara
mezaren entzutera,
ene maitea ikusi
niri so zagola.

So eiten diot hari,
hark ere bai niri,
gero biek irri;
nik neure buruari
– Marka ona duk hori.

Aitak alabari:
– Zer deurru dun hori?
Niganat ekarri(1)
arima galgarri.

Artzainak alferrak dituk,
ase eta ongi nahi,
hobe dun bertzetarik
edozein-nahi.

Lekarotzen, Aita J. A. Donostia zanaren paperetan arkitua, *Cuaderno de Argentina* deritzaion batean.

I

*Cuando yo estaba de pastor en el alto monte,
me dedicaba a pensar cuando estaba solo.*

*El pastor pensaba después de pasado el tiempo:
después de perder la mejor cordera.*

*Voy a la iglesia a oír misa;
veo que mi querida me está mirando.*

*Yo le miro a ella, ella me mira a mí,
después nos reímos los dos;
yo digo para mí: "Ésa es buena señal".*

*El padre le dice a la hija: "¿Quién diablos es ése?
Vas a traerme a un pierdealmas.*

*Los pastores son vagos; quieren hartarse y pasarlo bien.
Es mejor cualquiera de otro oficio".*

(1) Dendarik gabe, emen beste onela bearko luke: *ez niganat ekarri*.

“Asentsio-eguna da señaletaturik...”

I

A-sen-tsi-o e-gu-na da se-ñala - tu-rik, Kris-to ze-ru - ra doi-a be-so-ak za-ba-lik;
be-re di - si - pu - lo - ai a - di-os e - gi - ñik, be-re di - szí - pu - lo - ai
a-di-os e - gi - ñik. Na - par i - rar - gi bai, na - par i - rar - gi,
a-lar-gun di - ru - du - nok ez - kon - gei aun - di, a-lar-gun di - ru - du - nok
ez - kon - gei - aun - di, di - ru - rik ez tau - ke - nok or - doi - az i - ge - si.

Asentsio-eguna da señaletaturik,
Kristo zerura doia besoak zabalik,
bere disipuluai adios eginik. (*bis*)

Napar-irargi bai, Napar-irargi,
alargun dirudunok ezkongei aundi, (*bis*)
dirurik eztaukenok or doaz igesi.

Agura zar bat daukat oian gaixorik,
oilo bat bere il dotsat, eztau ka obekuntzarik,
beste bat ilgo neuskio, urten ezpalekit.

Agura zar zar batek ni barko gabean
dantzan erabili nau belaunen gainean,
belaunen gainean da beretzat ustean. (*bis*)

Agura zar zar orrek ama neureari
mandatu egin deutso bear nabela ni;
ama gureak badaki, zoroa dan arren,
enaizela ni gura agura zar orren.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 822 zenbakian, Gipuzkoan, Gatzagako Teresa Pagoagari jasoa.

Doiñuaren atzetik onako oar au egiten du Azkuek: "Al terminar cada una de estas dos estrofas y cualquiera de las siguientes, estalla un relinchido (santzo, irrintzi, lekaio, etc.).

Iruigarren bertsoan *obekuntzarik* irakurtzen degu. Itz ori erriaren aotik ate-rea izango al da?

I

*Es señaladamente el día de la Ascensión.
Cristo sube al cielo con los brazos extendidos,
dando la despedida a sus discípulos.*

*Luna de Navarra, sí, luna de Navarra;
las viudas ricas son buenos partidos;
las que no tienen dinero se escapan.*

*Tengo enfermo en la cama a un abuelo;
he matado para él una gallina, (pero) no mejora;
mataría otra, para que de ésta no saliera.*

*Un abuelo viejísimo, a mí, la noche pasada,
me anduve bailando sobre las rodillas.,.
sobre las rodillas y creyendo que soy para él.*

*Ese viejísimo abuelo a mi madre
le ha hecho la proposición de que me necesita;
nuestra madre ya sabe, aunque tonta,
que yo no estoy por ese viejo abuelo.*

"Atia kis-kos jo nion baña..."

I

Mutillak ataritik:

Atia kis-kos jo nion baña
ez eustan korresponditzen,
bigarrenian jo nionian

.....

Neskak barrutik:

- Galaia, zer nai zenduke?
- Zeorren borondatia balitz
biok lo egitia nai nuke.
- Ama guria dispara dago,
sentitu egingo ginduzke.
- Ama zuria lotara arte
atarian egongo giñake.
- Gure atarian aizia presko,
otzitu egingo giñake.

- Nire kapia magala zabal,
biok batuko giñake.
- Batak tira ta bestiak tira,
urratu egingo genduke.
- Gure errian oiala merke,
berri bat egingo genduke.
- Atiak ere karraxi eta
txakurrak ere salatu.
- Atia ere konjuratu ta
txakurra ogiaz ixildu.
- Gure txakurrak ixilduteko
eper bizia bear du,
eper bizia arrapatzeko
mutil mantsua zera zu.
- Dama gaztia, atxekiosa,
atzeki asko badezu,
atxeki asko badezu ere
nik eramango zaitut zu.

Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bilduman, 1935 urtean *Kardaberaztarrak* izenekoak Markinan jaso eta bialdua.

20 eta 21-garren lerroak beste onela zeuden *Aitzol* zanaren bilduman: "Atiak ere karraxi ta karrau / eta txakurrak ere zaletu". Eta azken bigarren leirroa onela: "atxeki asko badezu".

Manuel Lekuona aizpa jauna zanaren bilduman ere arkitu degu kanta au, aldaketa auekin: 13-garren lerroa: Nire kapian magala zabal; 19-garrena: Atia ere kirrin ta karran; eta 20-garrena: eta txakurrak ere salatu.

Orriaren goiko aldean toki-izen bat irakurtzen da: Barinaga. Markinako auzo bat da ori.

Aitzol-en aldaera eta Lekuonarena iturri beretik datoz, dudarik gabe. Karaberaztarrak, izan ere, apaigai-talde baten izena zan, eta Lekuona jauna beraren buru edo gidari egiten zuana.

II

- Dama gaztea, zure ataian gaur arratsean itxoegin nai nizuke.
- Ama nerea lotara ez ta sentitu egingo ginduzke.
- Ama zurea lotara artean ataian egongo gerade.
- Nere ataian iparra presko, oztu egingo gerade.
- Nere kapia aundia da ta biok bilduko gerade.

- Bat onek tira, beste orrek tira, ausi egingo genduke.
- Nere erriyan oiala merke, berriya egingo genduke.
- Lena bezela, berriya ere ausi egingo genduke.
- Adiyo, dama aitzakiosa, adiyo beste bat arte.

Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bilduman, Antonio Lizaso Arangurenek nimbait ere jaso eta bialdua.

III

1. Gau-txu ba-ten a-bi-a-tu nin-tzan da-ma gaz - te bat bi-la -

tzen 2. Kox-kox yo ne-ban a-te-a bai-na ez os-ten ba-yetz e-sa - ten.

Gautxu baten abiatu nintzan
dama gazte bat bilatzen,
kox-kox yo neban atea baina
ez osten korresponditzen.

Alako baten bentanatikan:

- Eztost niri amak itxiten.
- Bioren borondatea bada
biok lo egitea nai nuke.

Zure aita lotara yoan arte
ateondoan gengokez.

- Atera yoan, aizea presko:
otzitu eingo gindekez.

- Nire kapeak magala zabal,
biok tapauko gendukez.

- Andik tira eta ortik tira,
apurtu eingo genduke.

- Atan-orretan gengokezala
aita zurea letorke.

Ak bat esan ta guk bi erantzun,
okasinoa legoke.

- Nire ateak otsa dau zoli,
txakurrak bere salatu.

Nire txakurra isilduteko
eper bizia biozu.

Eper bizia koyiduteko
mutil mantsoa zagoz zu.

- Neska txiki ta graziosea,
atxakiosa zagoz zu.

Atxakiosa zagoz zu baina
neuk eroango zaitut zu.

- Zubi txikitxu bat pasadu eta
da nire etxera-bidea.
Borondatea dabentzako
eztago bide luzea.
Eta borondaterik ezpadozu
agur, neure maitea.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 34 zenbakian, 91 orrialdean.

Bizkaian jaso omen zuan berak, Etxano errian, Dominika Uriarte andrearen aotik.

Azkuek zuzenketa batzuk egiten ditu, emalearen aotik nola jaso zuan gero esanez. Guik emalearena jarri degu beti.

Azkue jaunak bigarren bertsoaren laugarren lerroa "zatoz ona puska baten" idatzita utzi zuan, "*en lugar de una inconveniencia*". Baiña beraren esku-idazkietan lerro ori emaleak eman bezela arkitu degu, eta or goien orrelaxe idatzi degu.

Gure iritzirako beintzat, bostgarren bertsoaren bigarren lerroa onela idatzi beariko litzake: *aita gurea letorke*. Neskatxa baita zailtasunak jartzen dituana.

IV

A - te - a di - zut ki - rrin - ka - ri
 e - ta po - tzo - a xan - pa - rri.
 A - te - a
 es - kuz u - rin - da e - ta e - man po - tzo - a -
 ri o - gi, e - man po - tzo - a -
 1. 2.
 ri o - gi.

- Atea dizut kirrinkari
 eta potzoa xanpari.
 - Atea eskuz urinda eta
 eman potzoari ogi,
 eman potzoari ogi.

- Gure potzoak eztizu nahi
 bertzek emanez ogirik.
 - Kaillak dirade landetan eta
 eperrak mendi gainetan,
 eperrak mendi gainetan.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 14 zenbakian, 69 orrialdean.

Ondoren, oar luze au: "Lo aprendí en Amikuze (BN), no sé de quién, si del maestro B. Primorena o de quién otro, tal vez de la misma anciana que me enseñó en Ligi (Zuberoa) su variedad dialectal.

Este diálogo de amor se canta también con melodías muy distintas de la expuesta; como son Bortan ttal-ttal, de Lekorne (BN); gautxu baten, de Etxano (B) y Neskatxu gazte de Oyarzun (G). Ésta última quedará inédita por trivial.

A las palabras de la muchacha atea dizut kirrinkari "tengo la puerta rechinchadora", precedieron sin duda otras del mancebo, que no pude recoger. El original, en la segunda parte, dice kaillak dirade ("hay codornices") del francés caille, en vez de usoak dire "hay palomas", y añade una estrofa insulsa.

V

A - te - a ttan ttan yo ni- zun e -, ta e - tzaun-dan
e - res - pon - di - tu. E - ne mai - te - a,
na - hi ni - ke - zu zu - re hitz bat be - ha - rri - ra -
tu zu - re hitz bat be - ha - rri - ra - tu.

- Borta *ttan-ttan* yo nizun eta etzaundan erresponditu.

Berriki ere yo nizun eta zer nahi nuen galddatu.

- Ene maitea, nahi nikezu zure hitz bat beharriratu.

- Xakurra xaingalari dizugu, harek salaturen gaitu.

- Ogia sakelan dizut eta hartarik emanen diogu. (*bis*)

- Gure xakurra eztizu nahi bertzek emanez ogirik.

- Urzo ta eper emanen diogu ezpalin bada bertzerik. (*bis*)

- Atea ere karrankari dugu, harek salaturen gaitu.

- Olio sakelan dut eta hartarik emanen diogu. (*bis*)

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 15 zenbakian, 70 orrialdean, Hazparneko Battitze Sarhi-ren aotik jasoa.

Leendabiziko bertsoan bi aldaketa egiten ditu Azkuek, berak aitortzen duanez: "El cantor me dio Borta *ttan ttan*, que además de incorrecto por el lenguaje lo es por el ritmo, por atea *ttan ttan*, y por zure hitz bat beharriratu dijo una inconveniencia".

(*Ina conveniencia* ori zer dan badakigu, kanta onen irugarren aldaeran agertu danez: “biok lo egitea nai nuke” edo antzekoren bat.)

Battite Sarhi dalako orrek esan bezela idatzi degu leendabizikoa. Bigarrena ezin, ordea, itzak ez dakizkigun ezkerio.

VI

Ogi saltzalearen amodiaoa

Ogi saltzen ari nintzelarik
Donostiako kalean,
dama xarmant bat jin izan zeraudan
zonbana nuen ogia. (*Berriz*)

- Bertzendako hamar et-erdira,
zuretzat gorputz trukian.
- Horiek hola balin badira
zato sarri arratsian.

Borta *ttan-ttan* jo nion eta
ez zaundan erresponditu;
berriz ere jo nion eta
zer plazer nuen galdu.

- Dama ejerra, dama galanta,
nahi zinduzket mintzatu.
- Bainan, maitia, ene aita-amak
ez dira'orainko lokartu.

. . . beraz gaua're juan da,
ez edo baia emazu.

- Ez edo baia nahi baduzu
Jainkoak dautzula gau ona.

Borta ere kurrinkalaria da,
hark ere sala gintazke.
– Sakelan badut olioia eta
hartarik eman nezake.

- Xakurra ere saingalaria da,
hark ere salaturen du.
- Sakelan badut ogia eta
hartarik emanen diogu.

– Gure potxuak ez du jaten
nehork emanik ogirik;
zonbeit eper edo uso
ihiztariek emanik.

- Dama gaztia, zuk badakizu
ez naizela ihiztari;
ihiztariak larrian dabiltza
eta ni hirian bizi.

Aldaera au Uztaritzeko L. Dassance zanaren paperetan arkitu degu. Leenengo bi bertsoak ez dira kanta onenak, “Egun batian ni banenguan...” asten danarenak baizik; *Ana Juanixe* kantarenak alegia.

VII

Ilunabarrian saiatu nintzan
dama gazte bat bilatzen,
atia kix-kix jo nion baina
inork ez korresponditzen.

Bigarrenian jo nonian:

- Galaia, zer nahi zenduke?
- Bioren borondatia dala
zeugaz lo egin nahi neuke.

- Ai gure aite kanpotik da ta
hasarratu eingo litzate.
- Ai zeure ama lokartun arte
atian egongo gerade.

- Gure atian haizia fresko
da hotzitu egingo gerade.
- Nire kapie zabala da ta
biok batungo gerade.

- Bat honek tire, beste honek tire
urratu eingo litzake.
- Nire tiendan painua merke
barria eingo genduke.

Atiak ere kurrinke dagoz,
txakurre ere ze lori,
gure txakurra isildutzeko
eper bizi bat bihar det nik.

Eper bizia harrapatzeko
mutil mantsua dirudizu
.....
.....

- Damatxu gazte atxekiosa,
atxeiki asko daukazu,
atxeikiakin da guztiakin be
zeuk neugaz biharko dezu.

Xabier Amuriza: *Bizkaiko bertsogintza, I, Izengabeak*, Bilbo, 1995, 211 orrialdean, argibide onekin: "...aldaera hau nondik jasoa dudan ez dut aurkitzen".

I

- *Llamé kis-kos a la puerta, pero no me respondió.*
Cuando le llamé por segunda vez,...
- *Galán, ¿qué es lo que quieres?*
- *Si tal fuera tu voluntad, quisiera que durmiéramos los dos juntos.*
- *Nuestra madre está despierta y nos sentiría.*
- *Hasta que tu madre se vaya a dormir, nos quedaremos junto a la puerta.*
- *Junto a la puerta corre aire fresco y nos enfriaríamos.*
- *Mi capa ez ancha y nos cubrirá a los dos.*
- *Entre que tira uno y tira el otro, la romperíamos.*
- *En nuestro pueblo el paño es barato; haríamos otra nueva.*
- *Está también que la puerta rechinaría y el perro nos denunciaría.*

- A la puerta le echaremos un conjuro y acallaremos con pan al perro.
- Para acallar al perro hace falta una perdiz viva;
para coger una perdiz viva eres un muchacho lento.
- Joven dama, excusona, tienes muchos pretextos.
Tienes muchos pretextos, pero yo te llevaré.

III

*Una noche me eché a andar en busca de una joven dama:
kox-kox llamé a su puerta, pero no me respondían.*

En esto, desde la ventana: – No me deja mi madre.

- Si tal fuera la voluntad de ambos, quisiera que durmiéramos juntos.

Hasta que tu padre se vaya a dormir, nos quedaríamos junto a la puerta.

- Si vamos a la puerta, con el fresco aire nos enfriaremos.

– Mi capa es ancha y nos cubrirá a los dos.

- Entre que uno tira de allí y el otro de aquí, la romperemos.

– Estando en eso, podría venir tu padre.

Entre que él dice una cosa y nosotros dos, podría armarse un escándalo.

Mi puerta mete un ruido fuerte y también el perro nos denunciaría.

Para acallar a mi perro necesitas una perdiz viva;

para coger una perdiz viva eres un muchacho lento.

*– Muchacha pequeña y graciosilla, te veo muy excusona;
te veo muy excusona, pero te llevaré yo a ti.*

– Pasado un puente pequeño, está el camino a mi casa.

Para los que tienen voluntad no es camino largo;

y, si no tienes voluntad, adiós, amada mía.

"Eguna zala, eguna zala..."

I

The musical notation consists of three staves of music. The first staff starts with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a common time (indicated by a 'C'). It changes to a 2/4 time signature for the second half. The second staff starts with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a common time (indicated by a 'C'). It changes to a 2/4 time signature for the second half. The third staff starts with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a common time (indicated by a 'C'). It changes to a 2/4 time signature for the second half.

E - gu - na za - la, e - gu - na za - la, bart i - rar - gi - a za - ne - an,
e - gun e - ra - ko yo - an nin - tzan ni zaz - pi - le - gu - a bi - de - an,
zaz - pi le - gu - a bi - de - an, e - ta neu - re mai - te - an ka - le - an.

Eguna zala, eguna zala,
bart irargia zanean,
egunerako yoan nintzan ni
zazpi legua bidean,
zazpi leguan bidean eta
neure maitean kalean.

Neure maiteak bota egin eustan
lantzea bentanarean.
– Orain il bere banozu eta
enterrau bere naikezu,
Maria Madalenean aurrean eta
Jesukristoren oinean.

Iru letratxo bearko ditu
sepultureak ganean,
neure maiteak irakurteko
Madrildik datorrenean.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 398 zenbakian, 498 orrialdean, oar onekin: “*De María Juana Altzibar, de Ajangiz (B), que tenía noventa y cuatro años de edad al comunicar esta lindísima canción*”.

Baita ere doiñurik gabe bere *Euskalerriaren Yakintza-n*, IV tomoan.

J. Lakarra, J. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak*, bigarren tomoan, 122 orialdean.

I

*Que parecía de día, que parecía de día, anoche, cuando lucía la luna.
Para cuando se hizo de día caminé yo siete leguas,
caminé siete leguas hasta la casa de mi amada.*

*Mi amada me lanzó desde la ventana una lanza.
– Ahora hasta me has matado y podrás enterrarme
delante de María Magdalena y a los pies de Jesucristo.*

*Mi sepultura requerirá encima tres letras,
para que mi amada las lea al volver de Madrid.*

"Goizean goiz jeikirik..."

I

Iturrira goizean

Goi - ze - an goiz jei - ki - rik, ar - gi - a bai - ño len U -
re - ra joan nin - du - zun pe - ga - rra har - tu - rik Tra-le -
ra la la ra tra - le - fa la ra la la ra tra - le - ra - le ra le ra! U -
re - ra joan nin - du - zun pe - ga - rra har - tu - rik.

Goizean goiz jeikirik, argia gaberik,
urera joan ninduzun, pegarra harturik.
Tra lera, la la...

Jaun xapeldun gazte bat jin zautan ondotik:
heia nahi nuenez urera lagunik?

Nik: – Ez nuela nahi urera lagunik,
aita beha zagola salako leihotik.

Aita beha zagola, ezetz erran gatik,
pegarra joan zerautan, besotik harturik.

Urrera ginenian, ez ginen egartsu;
galdegin zautan ere: – Zonbat urte tutzu?

– Hamasei... Hamazazpi orain'ez kunplitu;
zurekin ezkontzeko gazteegi nuzu.

– Etxerat itzultzeko nik dutan beldurra!
Ez jakin nola pentsa amari gezurra!

– Arreba, nahi duzu nik erakuts zuri
etxerat etortzean zer erran amari?

“Urtxo xuri pollit bat, gabaz dabilana,
hark ura zikindurik, egotu naiz, ama!

Dakigunaz geroztik zer erran amari,
dugun pegarra pauza, oneski liberti!

Gure Herria aldizkaria, 1923, Nehor eta Dufau-k bialduta.

Kantuz. 9, rue Thiers, Baionne. Aldaketa bakarra: 10/2: dugun pegarra pauza, gaitezen liberti.

Onek bezelaxe beste auek ere:

Jorge Rieu: *Flor de canciones populares vascas*, Ekin, Buenos Aires, 1948.

Arradoi: *Charamela liburuxka*, 1951.

Santi Onaindia: *Milla euskal olerki eder*, 1954.

Kantuz, Editions Eskual-Herria, Bayonne.

Kantu kanta kantore, Baiona, 1967.

Santi Onaindia: *Las cien mejores poesías de amor de la lengua vasca*, Bilbao, 1975.

Santiago Aizarna: *Olerki bat, La Voz de España* egunkaria, 1976-VIII-8.

Vingt-Cinq Chansons Populaires d'Eskual Herria recueillies et harmonisées par Rodney A. Gallop, Aux Editions du Musée Basque, 1 Rue Marengo, Bayonne, 1928.

Bertso guziak aurrekoak bezelaxe ditu, aldaketa au izan ezik: 5/1: Urera gi-nenian, biak musuz musu.

II

The musical score consists of four staves of music for voice and piano. The lyrics are as follows:

Goiz batetza goiz jei - ki - rik, ar - gi - a ga - be -

rik, u - re - ra joan nin - du - zun zun pe - a rra har - tu -

rik. La ra - la la

la u - re - ra joan nin - du - zun pe - a rra har - tu - rik.

Goiz batez goiz jeikirik argia gaberik,
urera joan ninduzun pearra harturik.
Lara la la la la la la la la lara la la
urera joan ninduzun pearra harturik.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco kantutegia*, 840 zenbakian, 976 orrialdean. Baxenabarren jaso omen zuan. Ez du beste argibiderik ematen.

III

I - ga - ran e - bia - koi - tze - an, goi - ze - an goi - zik, u - re - ra jo - an
 nin - tzen, pe - ga - rra har - tu - rik; la ra la la u - re - ra jo - an
 nin - tzan, pe - ga - rra har - tu - rik.

Igaran iakoitzean, goizean goizik,
urera joan nintzan, pellarra harturik:
lara la la
urera joan nintzan, pellarra harturik.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco*, 42 zenbakian, 100 orrialdean, Zuberoako Larrainen, Jose Algorriren aotik jasoa.

IV



Goi - zi - an goiz jai - ki - rik ar - gi - a ga - be -
rik i - tu - rri - ra joan nin - du - zun fe - rra - da ar - tu -
rik tra - ra rai i - tu -
rra - ra joan nin - du - zun fe - rra - da ar - tu - rik.

Goizian goiz jaikirik argia gaberik,
iturrira joan ninduzun ferrada arturik,
trararai...
iturrira joan ninduzun ferrada arturik.

Aita J. A. Donostia: *Euskel Eres Sorta* kantutegia, 173 zenbakia, Naparroan, Labainen jasoa.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 511 zenbakian, 711 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: Concepción Grajirena, natural de Labayen, avecindada en Iráizoz.
Loc. rec.: Labayen-Alcoz. Fecha: 26 de julio de 1917. Clas.: amorosa".

V

Goi - zi - an je - ki nin - tzen ar - gi - ro bai - ño len i - tu -
rri - ra joan gi - ra den pe - ga - rra ar - tu - rik la la la la
la i - tu - rri - ra joan gi -
ra - den pe - ga - rra ar - tu - rik.

Goizian jeki nintzen argiro baño len,
iturrira joan giraden pegarra arturik.
la, la, la, la, la...
iturrira joan giraden pegarra arturik.

Aita J. A. Donostia: *Euskel Eres Sorta* kantutegia, 174 zenbakia, Naparroan, Sunbillan jasoa.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 513 zenbakian, 717 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: Josefa Arretxea. Loc. rec.: Sumbilla. Fecha: 24 de julio de 1917. Clas.: amorosa".

VI

Goi - zi - an goiz jei - ki - rik ar - gi - a ga-be - rik i - tu - rri - ra - gan

nin - tzen pe - ga - rra ar - tu - rik. La la la la ...
i - tu - rri - ra - gan nin - tzen pe - ga - rra ar - tu - rik.

Goiadian goiz jeikirik argia gaberik,
iturrira gan nintzen pegarra arturik,
lara la la la...
iturrira gan nintzen pegarra arturik.

Aita J. A. Donostia: *Euskel Eres Sorta* kantutegia, 291 zenbakia, Lapurdin, Saran jasoa.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 511 zenbakian, 712 orrialdean, argibide auekin:

"Loc. rec. Sara. Fecha: 1912. Clas.: amorosa".

VII

Goiizean goiz jaikirik argia gaberik,
iturrira joan nintzen pegarra harturik.

Jaun gazte xapeldun bat jarraiki ondotik:
heia behar nuenetz urera lagunik.

Ez, enuela behar urera lagunik:
– Ama begira dago salako leihotik.

Ezetz errana gatik jarraiki ondotik:
– Ni ere heldu nuzu zure gibeletik.

Urera ginienian biak buruz buru,
galdegin izan zaundan: – Zenbat urte itutzu?

– Hamazazpi, hemezortzi oraino ez konplitu,
zurekin ezkontzeko gaztexegi nuzu.

– Arreba, nahi duzuia nik erakutsi zuri
etxera zarenian zer erran amari?

“Urzo xuri pollit bat gabaz dabilana,
hark ura zikindurik egotu naiz, ama”.

Dakigunaz geroztik zer erran amari,
pegarra pauza eta gaitian liberti.

Aita J. A. Donostia zanaren artxibotik, Arjentinako kuaderno batetik. Bertsoak tokiz aldatuta daude, beste ordena ontan: 1, 2, 3, 4, 8, 9, 5, 6 eta 7-garrena.

VIII

The musical score consists of four staves of music in G major, 3/4 time. The lyrics are in Spanish and are repeated across the staves. The lyrics are:

Goi - ze - an goiz jei - ki - rik, ar - gi - a ga - be - rik, u -
re - ra joan nin - du-zun pe - ga -rra har - tu - rik. la ra la la ra
la la ra la
re - ra joan-nin - du - zun pe - ga -rra har - tu - rik.

Goizean goiz jeikirik, argia gaberik,
urera joan ninduzun pegarra harturik,
lara la lara la lara la lara la la,
urera joan ninduzun, pegarra harturik.

Aita Jorje Rieu: *Nafarroa-ko Euskal-Kantu zaharrak*, 1973, 64 zenbakian, 146 orrialdean. Ondotik onela dio:

“Canción recogida por el P. Donostia en Lecároz, (Baztán, AN), en mayo de 1913. La melodía es una variante de la que trae Nehor et C. Dufau en GH 1923, suplemento musical del fascículo 4. El texto adoptado, ecléctico, se basa en los siguientes: Nehor et C. Dufau, 1; KKK, pág. 88; cuaderno (manuscrito) de Fourcade (Archivo P. Donostia) y algún otro fragmento. Es de advertir que los textos son muy poco divergentes”.

Nehor eta Dufau-rekin konparatuta, aldaketa auek ditu J. Rieu: 4/1: Aita beha zagola nik erranagatik; 5/1: Urrera ginenian, biak buruz buru; 5/2: galdegia baitzerautan zonbat urte tutzu; 6/2: zurekin ezkontzeko gaztexegi nuzu; 7/1: Etxerat agertzeko nik dutan bildurra; 8/1: Neska, nahi duzuia nik erakutsi zuri; 8/2: etxerat agertzean zer erran amari.

IX

– Kattalin errotako eder galant ori,
iturrira banoaie nai bauzu etorri.

Iturrira joan eta ttantta bat gorago,
aritz baten atzean galai bat an dago.

Ferretain betetzean biak musuz musu,
orduan gal in zio: – Zenbat urte tuzu?

– Amazazpi-emezortzi ora (*sic*) eztut kunplitu,
lagunik bazinduke josta zindaizkezu
jende eben alkez eta etxekoien beldurrez.
Dakizunaz geroztik ala'isimulatzen,
ferreta utzi eta biok josta gaitzen.

Frantzisko Olarra: *Garesko euskarari buruz zerbait. Euskera XXVII*, 1982, 650 orrialdean, argibide auekin:

“Bertsook Bonaparteren agirietan daude, Gonzalez Echegaray-ren lanean 69 zenbakian. “Mariya, nora zuaz”-en familikoak dira, eta uste dugunez, Elkanon hartuak izan ziren. Ferretain “ferretaren” erabiltzen bait dute, eta ez Gares, Olatza eta Goñiko *ferretan*”.

X

A musical score for a traditional Basque song. The score consists of five staves of music in common time (indicated by '3') with a key signature of one flat. The vocal line is in soprano range. The lyrics are written below the notes. The music features various rhythmic patterns, including eighth-note pairs and sixteenth-note groups. The lyrics describe a scene of a young man and woman meeting at a festival.

Goi - ze - - an goiz jei - ki - rik, ar - gi - a ga-be -
rik, u - re - ra joan nin - du-zun, pe - ga - rra har - tu -
rik. la ra la la la la la la la la la, u -
re - ra joan nin - du-zun, pe - ga - rra har - tu - rik.

Goizean goiz jeikirik, argia gaberik,
urera joan ninduzun, pegarra harturik.

Gazte galtza xuri bat jarraiki ondotik.
- Arreba, nahi duzuia urera lagunik?

Nik, ez nuela nahi urera lagunik;
aita beha zagola salako leihotik.

Aita beha zagola nik erranagatik,
pegawai joan zerautan jaun harek besotik.

Urera ginenian, biak musuz musu,
galdegin baitzerautan: -Zoinbat urte tuzu?

- Hamasei... Hamazazpi orain ez konplitu;
zurekin ezkontzeko gazteegi nuzu.

Etxerat agertzeko nik dutan beldurra,
ez jakin nola egin amari gezurra!

– Nexka, nahi duzuia nik erakuts zuri
etxerat agertzean zer erran amari?

“Urtzo xuri pollit bat gauaz dabilana,
hark ura zikindurik, gelditu naiz, ama”.

– Dakigunaz geroztik zer erran amari,
dugun pegarra pauza, gaitezen liberti.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 511 zenbakian, 709 orrialdean, argibide auekin:

“Loc. rec.: Lecároz. Fecha: junio de 1913. Clas. amorosa”.

Laugarren bertsoaren leenengo lerroa onela idazten du: “Aita beha zagola, nik, ez, erranagatik”. Gure iritzirako, “ez” ori, alperrik ez-ezik, esan-naiaren kalterako dator, eta kendu egin degu.

XI

A musical score for 'Goi-zizian' in 2/4 time, treble clef, key of A major (two sharps). The lyrics are written below the notes. The music consists of four staves of eight measures each, ending with a repeat sign and two endings. The first ending continues the melody, while the second ending provides a rhythmic pattern of eighth-note pairs.

Goi - zi - an goiz jei - ki - rik, ar - gi - a ga - be -
rik, u - re - ra joan nin - du - zun, pe - ga - rra har - tu -
rik. tra la ra la la tra la ra la la tra la ra la la la, u -
re - ra joan nin - du - zun, pe - ga - rra har - tu - rik.

Goizian goiz jeikirik, argia gaberik,
urera joan ninduzun, pegarra harturik,

tralara lara tralara lala tralara lara lala
urera joan ninduzun, pegarra harturik.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 511 zenbakian, 713 orrialdean, argibide auekin:

"Loc. rec.: Sara. Fecha: 1937. Clas.: amorosa".

XII

The musical score consists of three staves of music in 3/8 time. The lyrics are written below each staff. The first staff starts with "Goi - ze - an jai - ki- ri - kan," followed by "ar - gi - a ga-be - rik," and ends with "i - tu -". The second staff continues with "rri - ra gan nin - tzen pe - ga - rra_ar-tu- rik." and ends with "Ga - lai gal-tza xu - ri bat". The third staff concludes with "gal-de-ka on-do - tik:" followed by "A - rre - ba, biar al - de - zu" and ends with "bi-di-an la-gu - nik?".

Goizean jaikirikan, argia gaberik,
iturrira gan nintzen pegarra arturik,
Galai galtza xuri bat galdeka ondotik:
– Arreba, biar al dezu bidian lagunik?

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 512 zenbakian, 715 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: hermana de D. J. Antº Dendarietta, natural de Maya. Loc. rec.: Erratzu. Fecha: 24 de julio de 1912. Clas.: amorosa".

XIII

The musical score consists of two staves of music in 2/4 time. The lyrics are written below each staff. The first staff starts with "Goi - ze - an jai - ki nin - tzen ar - gi - ra ba - ño -" and ends with "len,". The second staff continues with "i - tu - rri - ra joan nin - tzen pe - ga - rra bu - ru -".

an. trai rai rai rai

i - tu - rri - ra joan nin - tzen pe - ga - rra bu - ru - an.

Goizian jaiki nintzen argira baño len,
iturrira joan nintzen pegarra buruan,
trai rai rai...
iturria joan nintzen pegarra buruan.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 513 zenbakian, 716 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: la madre de Félix Taberna. Loc. rec.: Sumbilla. Fecha: 24 de julio de 1917. Clas.: amorosa".

I

*Levantándome temprano por la mañana, antes de hacerse de día,
fui a por agua, tomando la herrada.*

*Un señor joven y con sombrero se me acercó por detrás:
a ver si necesitaba compañía para ir a por agua.*

*Yo (le dije) que no deseaba compañía para ir a por agua,
que el padre estaba mirando dede la ventana de la sala.*

*Por más que le dije que el padre estaba mirando y que no,
me llevó la herrada, tomándomela del brazo.*

*Cuando llegamos al agua no estábamos sedientos.
Me preguntó: - ¿Cuántos años tienes?*

*- Dieciséis... Diecisiete sin cumplir aún:
para casarme contigo soy demasiado joven.*

– ¡El miedo que yo tengo para volver a casa!
No sé cómo inventar una mentira para mi madre.

– Hermana, ¿quieres que yo te enseñe a ti
qué decir a la madre al volver a casa?

“Una blanca y bonita paloma, que vuela de noche,
ha ensuciado el agua y he tenido que esperar, madre”.

Desde que sabemos qué decir a la madre,
dejemos la herrada en tierra y divirtámonos.

“Ipiñeburu leku altuen...”

I

Ipiñeburu leku altuen
Undurrugaren buruen,
ikazkiñagaz ezkontzen danak
ez dau zentzunik buruen.

Atzo goxean prebentau eta
gaur naroazu basora,
leku txarrean eineko egurrik
aterazoten bidera.

Arezpe baten ezarri eta
negarra *far-far* altzora,
abadearen lapikotxoa
etorri jatan gogora.

Abadearen lapikotxoa
txikerra baño gozoa,
ikazgiñaren lapikotoa
aundie baiña gogorra.

Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduma, Billaroko Eulojio Gorostiagak jaso
eta 1932 urtean bialdua, oar onekin: “Zeanurin agoz dabillena. Angoitiatar Jo-
nek esanda iyakituba”.

Aitzol-en bilduman onela irakurtzen da leenengo bertsoaren bigarren lerroa:
Undurragan buruan. Eta bigarren bertsoaren leenengo lerroa onelaxe: *Atzo go-
xoan prebentauta*.

Azkueren iztegiak dionez, *prebentau* itz orrek *velar los casados* esan nai du.

II

Ipiñaburu leku altuan
Undurragaren buruan,
ikezkiñagaz ezkontzen danak
ez dau zentzunik buruan.

Atzo goizean pretenditu ta
banoiazu gaur basora,
boto zarreko egur egiñak
aterazoten bidera

Arizpe baten ezarri nintzan,
negarra *fla-fla* altzora,
abadearen lapikotxoa
etorri jatan gogora.

Abadiaren lapikotxoa
txikia baiña gozoa,
ikezkiñaren lapikotoa
andia baiña arroa.

Jose Ariztimuño Aitzol zanaren bilduma, Barinagako Jose Maria Arriaga Zuazok Zeanurin jaso eta 1936 urtean bialdua, *Aitita Malutakoren abestiak* izeneko sortan.

Bigarren bertsoaren irugarren lerroan agertzen dan *boto itz* orren esan-naia onela ematen du Azkuek bere iztegian: "*lugar escogido en una era para amontonar la pila de leña y hacer carbón*".

III

I - pi - na - bu - ru le - ku al - tu - an Un - du - fra - ga - ren bu - ru -
an, i - kaz - ki - ña - gaz ez - kon - tzen da - nak ez - tau zen - tzu - nik bu - ru -
an. A - ba - de - a - ren la - pi - ko - txo - a txi - ki - a bai - a go - zo -
a, i - kaz - gi - ña - ren la - pi - ko - to - a an - di - a bai - a a - rro - a.

Ipiñaburu leku altuan
Undurragaren buruan,
ikazkiñagaz ezkontzen danak
eztau zentzunik buruan.

Abadearen lapikotxoa
txikia baia gozoa,
ikazgiñaren lapikotoa
andia baia arroa.

R. M. Azkueren esku-idatzietatik. Bai doiñua ere. Ez det uste iñun argitara eman zituanik. Aurretik oar auek egiten ditu:

“El proverbio abadearen lapikoa txikia baiña gozoa, citado por Moguel en su Perú Abarca, pág. 122, lo cantan en Zeanuri (B) añadiendo una curiosa segunda parte y con la siguiente melodía, más popularizada que popular”.

Eta atzetik, gaztelerazko itzulpena eman ondoren:

“Ipiñaburu y Urandurraga son dos barrios de Ceanuri, (Arratia, en B)”.

IV

Ipiñaburu leku altuan
Undurragaren buruan,
ikazkinagaz ezkontzen danak
ez dau zentzunik buruan.

Atzo goizean prebentaduta
gaur naroazu basora,
leku txarreko egur eginak
aterazoten botora.

Harezpetxo baten jezarri nintzan,
negarra fra-fra altzora,
abadearen lapikotxua
etorri jatan gogora.

Abadearen lapikotxua
txikia baina gozua,
ikazginaren lapikotua
handia baina harrua.

Idaz-Mintz, Literatur Atalen sorta 12, 17 orrialdean, Zeanuriko Elisabete Mendiangoitiari jasoa. Biltzailleak: Garbiñe Angoitia, Bego Egilior eta Izaskun Sagarna.

I

*Ipiñaburu está en paraje alto, encima de Undurraga;
la que se casa con un carbonero no tiene juicio en la cabeza.*

*Ayer por la mañana nos velamos y hoy me lleva al bosque,
a sacar las leñas hechas en mal sitio.*

*Me senté al pie de un roble y el llanto se me caía al regazo:
el pucherito del cura me vino a la memoria.*

*El pucherito del cura (era) pequeño pero sabroso;
el pucherazo del carbonero es grande pero desabrido.*

"Gure ortuban sagarra loran..."

I

Gure ortuban sagarra loran
Donianeko eldurik;
aren azpian uso bi dantzan
ederrik eta galantik.

Soñeko eder bat eingo neuskio
urrez ta barraz beterik.
- Eskerrik asko, galant galanta,
eztot nik gona bearrik.

Eskribau zarrak iru alaba,
irurak sedaz jantzirik,
iruretatik ederrenari
banentso palabraturik.

Zazpi arkako utxea daukat
neuk estrenatu bagarik,
zortzigarrena gorderik daukat
urrez ta barraz beterik.

Gorka Knör: *Arabako kanta zaharretaz zerbait*, Zeruko Argia, 1974, Abuztuaren 5-ean.

Kanta au nundik jaso zuan adierazteko, onela dio:

"Nere anaia Hendrikek, duela zenbait hillabete, fotokopia batzuk emon zizkidan, oraindik berari nork emon zion ez dakitala. Dena den, fotokopia horietan Arabako hamazazpi kanta zahar agertzen ziren. Haietatik hamairu Azkueren kantutegian ziren. Ez ordea gaiñontzeakoak".

Ondoren kanta oiek agertzen ditu. Onako au bigarrena da, eta oar au eransten dio: "Gure ortuban, amodiozko kanta, Legutiano".

Eskriban zarrak idazten du Gorka Knör adiskideak. *Eskribau zarrak* bear dualakoan, ala jarri degu guk.

Irugarren bertsoaren irugarren lerroan *galai galanta* beariko luke, bearbada.

II

Gure ortuan sagarra loran,
Donianeko eldurik;
aren azpian uso bi dantzam
ederrik eta galantik.

R. M. Azkuen esku-idazkietatik; Araban, Legutianon jasoa, baiña argitara eman gabea.

I

*En nuestro huerto el manzano (está) en flor,
madurará para San Juan;
bajo él danzan dos palomas
hermosa y elegantemente.*

*El escribano viejo (tiene) tres hijas,
las tres vestidas de seda;
si a la más hermosa de las tres
la tuviera apalabrada...*

*Le haría un hermoso vestido
lleno de oro y de barras.
– Muchas gracias, apuesto galán,
no necesito ninguna falda.*

*Poseo un arca de siete cajones
que aún no he estrenado;
el octavo lo tengo guardado
lleno de oro y de barras.*

"Izar ederrak argi egiten dau..."

I

I - zar e - de - rrak ar - gi eg - i - ten dau - ze - ru al - tu - an
ba - ka - - rrik, ez - ta ba - ka - rrik, la - gu - nak
di - tu, jaun ze - ru - ko - ak e - mo - nik.

Izar ederrak argi egiten dau
zeru altuan bakarrik;
ezta bakarrik, lagunak ditu
Jaun Zerukoak emonik.

Gaurko amarretan ilgo naz eta
erdu neure entierrura,
gorputz santu au enterraduta
igongo dozu korura.

Zazpi aingeru aldean ditu,
zortzigarrena gaixorik;
zazpi mediku ekarri deutsez
India-Madriletatik.

Andixeek bera yatsiko zara
Birjina Amaren ortura,
.....
.....

Artu kabeliña bat eskura,
larrosatxu bat mosura,
mundu guztiak esan eztaian
neure lutua dozula.

Aingerutxoak esaten dabe
Salbean Abe Maria,
gero guztiok gozadu daigun
zeru altuan gloria.
Amen, Abe Maria.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco*, 849 zenbakian, 988 orrialdean, Bizaia, Gabikako Bibiana Gerrika-Etxebarriari jasoa.

Seigarren bertsoaren azken lerroagatik onela dio Azkuek. “*Esta codilla final altera algún tanto el ritmo de la pieza*”. Eta ori nola kantatu bear dan adierazteko, doiñua berriż ipintzen du, eranskin ori duala.

Kanta oni buruzko azterketa: Luis M. Mujika: *Euskal lirika tradizionala (I)*, Donostia 1985, 163 orrialdean.

II

I - zar e - de - rrak ar - gie - gi - ten dau ze - ru al - tu - an ba - ka -
rrik. Ez - ta ba - ka - rrik, la gu - nak di - tu, Jaun ze - ru - ko - ak e - mo - nik.

Izar ederrak argi egiten dau
zeru altuan bakarrik.
Ezta bakarrik, lagunak ditu,
Jaun Zerukoak emonik.

Zazpi aingeru aldean ditu,
zortzigarrena gaixorik;
zazpi mediku ekarri deutsez
India-Madriletatatik.

Arek igarri, arek igarri
nundik dagoan gaixorik:
- Amore-minak badituz onek
errai artean sarturik.

- Guzurra diño mediku onek.
Nik eztot amore-miñik.
.....
.....

Gaur arratsean ilgo naz eta
etorri gorpu-ondora,
erosario zuri eder bat
esku artean dozula.

Neu enterretan naroenean
igongo dozu korura,
andixeek bera salto egingo'zu
Birjina Amaren ortura.

Larrosea ta krabeliñea
artungo dozuz eskura,
jente guztiak esan daiela
neure lutua dozula.

Aingerutxoak esaten dabe
Salbean Abe Maria,
gero guztiok gozatu daigun
zeru altuan gloria.
Amen Abe Maria.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegia, 850 zenbakia, 990 orrialdea, Noren aotik jaso zuan adierazteko onela dio: "Lo aprendí en Amorebieta (B), ¿de Lucía Estankona?"

Bere Euskalerriaren Yakintza-n ere argitaratu zuan Azkuek kanta au, IV tomoan, 187 orrialdean. Baiña emaleak nor izan ziran esateko onela dio: "De Bibiana Echevarría, de Gabika (B), y de X. de Aramayona".

J. Lakarra, K. Biguri eta B. Urgell: *Euskal Baladak*, II tomoan, 167 orrialdean.

Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Baladak / Antología* (Bilbo, 1995), 50 orrialdean.

Azkueren kantutegiaren 849 zenbakitik artua duala esaten du, Gabikako Bibiana Gerrikaetxebarriaren aotik jasotako aldaera. Baiña ez da orrela: 850 zenbakitik artzen du, Amorebietako Luzia Estankonak emandako aldaera alegría, Azkuek izen onen ondoren galde-ikurra jartzen badu ere, oso seguru ez dagoala adieraztearen.

Aldaketak: 3/4: desendraiñetan (*sic!*) sarturik; 4/3: amoreminak badaukadaz be; 4/4: desendrainetan sarturik; 5/2: etorri bedi gorputa; 5/4: eskuartean/errezetara dozula.

III

Zeru altuan agertutene da
ixer eder bat bakarrik;
bakarrik ezta, bakarriz ezta,
lagunak daukoz albotik.

Zazpi aingeru alboan daukoz,
zortzigarrena gexorik,
zazpi mediku ekarri utsiez
bakotxa bere lekutik.

Zortzigarrenak ekarri utsie
Indie Madriletan;
axek igerri, axek igerri
nondi dagoan gexorik.

- Amore-minek dozuz, txikitxo,
entrañetara sarturik.
- Mediku jauna, guzurra diño,
nik ez dot amore-minik,
amore-minek badodaz bere
ez entrañetan sarturik.

Bier goxeko ilgo naz eta
etorri bedi loture,
erosario zuri eder bat
errezzatuten dozule.

Ni elexara sartu nedinean
igongo dozu korure,
korutik bera salto egingo'zu
Birjiña Amaren orture,

Artuko dozu, artuko dozu
larrosatxo bat eskure,
larrosatxo bat eskure eta
kabelinea mosure,
mundu donegak pentsau eztaien
neure lutue dozule.

Birjiña Ama Erromara da,
erromerie luzean,
kontuok estu artuko ditu
andikan datorrenean.

Bere ortuko lora ederrak
nora joan ete direan.
– Gorderik dagoz, Birjiña Ama,
Jesukristoren aurrean.

Bilboko *Euzkadi* egunkaria, 1931-VI-12, aurretik oar au duala: “*Erri-yakin-tza edo folk-lore, G-tar E-k batuak*”.

Guk or goien idatzi ditugun bertsoen ondoren, beste zenbait bertso datozen *Euzkadi* egunkari ortan. Baiña oiek “*Abe, Maria, graziaz betea...*” asten dan kantarenak dira, eta geroago eskeiniko dizkiogu irakurleari.

Oar batzuk egin bearrean gaude. Leenengo bertsoaren bigarren lerroa oneila dago *Euzkadi* egunkarian: *ixen eder bat bakarrik*. Dendarik ez da *ixer eder bat bakarrik* bear duala.

Irugarren bertsoaren irugarren eta laugarren lerroak onela daude *Euzkadi* ortan: *Axek igerri eta Nondi dagoan Gexorik*.

Laugarren bertsoaren bigarren lerroan, *entrañetan sarturik* dio *Euzkadi*-k. *Entrañetara sarturik* idatzi degu, orrela bear dualakoan.

Seigarren bertsoan, berriz, *egongo* esaten da. *Igongo* ezarri degu.

Zazpigarren bertsoaren leenengo lau lerroak beste onela ditu *Euzkadi* egunkariak: *Artuko dozu / Larrosatxo bat / Eskure; / Eta jabilenea / Mosure*.

Zortzigarren bertsoaren bigarren lerroa: *luzea*. Dendarik ez da *luzean* bear duala. Eta laugarren lerroan *datorrenean*. Guk *andikan datorrenean* idatzi degu, ala bear dualakoan.

* * *

Bertso auek ere badaude Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bilduman, *Akio 1932* estalkiarekin, Bizkaiko Billaroko Eulojio Gorostiagak bialduta. Bera de-gu, beraz, *G'tar E'k* firmarekin kanta au *Euzkadi* egunkarira bialdu zuana.

Aldaketa txiki auek ditu kanta zaar onek *Aitzol*-en bilduman: 1/4: lagunek dituz albotik; 2/1: Zazpi aingeru alboan dituz; 4/1: Amore-mina dozu, txikitxo; 5/4: errezetan dozule; 7/5: mundu deungeak pentsau eztaien.

Aldaera ontan etzaio *Abe, Maria, graziaz betea* asten dan beste kanta ori eransten.

Eta bukaeran onako oar au: "Zeanuri'ko Ipiñaburu auzonian lenago abes-tutun zan. Etxezarraga'tar Joseba'k esanda iyekituba".

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell-ek ere argitara eman zuten kanta au, *Euzkadi* egunkaristik artuta, beren *Euskal Baladak* bilduman, II tomoan, 169 orrialdean.

IV

Izar ederrak argi egiten dau
zeru altuan bakarrik;
ez dau bakarrik, lagunak ditu
Jaun Zerukoak emonik.

Biar goizian ilgo naiz eta
etorri nire gorpura,
gorputz santua doadenian
igongo daube korura.

Zazpi aingeru alboan ditu,
zortzigarrena gaxorik;
zazpi mediku ekarri dautsez
Indegi Madrilletatik.

Andixeek bera, andixeek bera
Ama Mariaren ortura,
larrosatxue eskura eta
krabeliñea musura,
mundu zoruak esan ez dautsen
nere lutoa dezula.

Mediku jaunak ez deutso igarri,
atian sartu bakarrik;
zortzigarrena ekarri dautse
gorengo Madrilletatik.

Birjiña Ama Erromara da
erromerie luzean,
kontuak estu artuko ditu
andikan datorrenean,

Axek igarri, axek igarri,
atian sartu bakarrik:
- Aingerutxo, aingerutxo,
amore-miñe dozu zuk.

bere ortuko lora ederrak
nora joan ete direan.
- Gorderik dagoz, Birjiña Ama,
Jesukristoren aurrean.

- Mediku jaunak gezurre diño,
amore-miñak ez dudaz nik;
amore-miñak badudaz ere
entreñe artian sarturik.

Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bilduma; 1935, *Errikoi eusko olerkiak* izenpean Ataungo Jokin Dorronsorok Gasteizko apaizgaitegitik bialdua, onako oar au erantsita:

“Abesti au zatika osatu det. Lendabizikoak Yurre’n jasoak dira; azkenekoak Zeanuri’n”.

Eta aldaera ontan ere, bertso auen jarraian eta etenik gabe, *Abe, Maria, graziaz betea* asten dan kanta.

Irugarren bertsoaren laugarren lerroa onela du Jokin Dorronsorok: *goren-gorengo Madrilletatik*. Seigarrenaren bigarren lerroan, *etorri nere gorputza zion*. Zortzigarrenaren bigarrenean: *erromerie luzea*. Eta bertso beraren laugarrenean: *datorranean*. Andikan ori gure eraskiña da.

V

– Izer bat dago, bakarrik dago.
– Ez dao bakarrik, lagunek ditu,
zazpi aingeru aldean ditu,
zortzigarrena geixorik.

Zazpi mediku ekarri deutsez,
bakotxa bere lekutik;
zortzigarrena ekarri barriz
Indie Madrilletatik.

Axek igirri, axek igirri:
– Dama, berorrek amore-minek.
– Amore-minek badodaz baña
ez entrañetan sarturik.

Biyer goxeko ilgo naz eta
etorri bedi entierrure.
Korutik bera yatsiko nabe
Maria Birjiñen orture.

Aintxe artuko’zu
larrosatxoa mosure,
mundu deungeak esan ez daien
neure lutua dozule.

Manuel Lekuona apaiz jauna zanaren bilduman, eskuz idatzitako orritxo batean. Ez du esaten papertxo ori nundikan duan.

Irugarren bertsoaren bigarren lerroan, *Ama* irakurtzen da. Dudarik ez da *Dama* bear duala. Bostgarren bertsoaren leenengo lerroaren puntu oiek Lekuonaren orritxoan utsune bat dagoala esan nai dute.

VI

Iretargiak argi egiten dau
zeru altuan bakarrik,
zazpi aingeru atzian ditu,
zortzigarrenna makalik.

Zazpi mediku ekarri dautsez
bakotxa bere erritik,
zazpirak bere ez dautse igerri
zer dauan geixo orrerri.

Zortzigarrenna ekarri dautse
Indie-Madrilletatik,
zortzigarrenak igerri dautso
atean sartu ein barik.

– Ni gaur arratsean ilgo naz eta
etorri nire gorpura,
nire gorpura zatozenian
igongo dozu korura.

Andixik bera bajeko zara
Birjiña Amaren ortura,
an artuko'zuz, an artuko'zuz
zazpi larrosa eskura.

Zazpi larrosa eskura eta
zortzigarrenna mosura,
Zeruko Jaunak pentsau ez daian
nire lutua dozula.

Adolfo Arejita: *Iretargiak argi egiten dau...*, Idatz eta mintz aldizkarian, bostgarren senbakian. Ondoren argibide au:

"Baladatxo hau (holan deitu ahal bagineio), Joan Andoni Uriarte, Derioko O. H.-O. Irakasle Eskolako ikasleak jaso dau Labayru Ikastegiko "Mikel Zarrate" Iker Mintegirako. Bizkaiko Fruiz (Fruniz) herritxoan hartu eutsan Katalina Sagasti andreari (60 urte). Bere amagandik ikasi ei eban honek, hau ere fruiztarra izanik. Ama hori Busturin, Gernikan eta Arrietan serbitzen egona zan, baiña kantatxu hau non ikasi ebanaren zidurrik ez daukagu".

VII

I - zer e - der bat ar - gi - tu ja - ku ze - ru al - tu - en ba - ka - rrik,
ez da ba - ka - rrik, la - gu - nak di - tu Jaun ze - ru - ko - ak e - ma - nik.

Izar eder bat argitu jaku
zeru altuen bakarrik.
Ez da bakarrik, lagunak ditu
Jaun zerukoak emanik.

Zazpi aingeru aldamenian,
zortzigarrena gaisorik,
zazpi mediku ekarri neuntsan
bakotxa bere lekutik,
zortzigarrena ekarri neutsan
Indixe Madrilletatik.

Aixek igerri, aixek igerri
nundik daroien gaisorik.
– Amore minak badituz onek
bai entrainetan sarturik.

– Mediku jaunak guzurre dino,
ez dot nik amore minik,
amore minak baditut bere
ez entrainetan sarturik.

Gaur arratsian ilgo naz eta
etorriko zarie gaubelara,
guztiok erosario zuri
eder bat errebetara.

Bier goizien naroienien
eleizara enterretara,
andixik gora igongo dozu
Birjina Amaren korura,
andixik bera salto eingozu
Birjina Amaren ortura.

Antxe artukozu larrosatxua eskura
eta kabelinia mosura,
mundu guztiekin esan ez daten
neure lutua dozula.

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Baladak / Antologia* (Bilbo, 1995), 52 orrialdean, argibide auekin:

“Iturria: Labayru Ikastegiko MZIM artxixboa. Lekukoa: Julia Uriarte, 75 urte, Zornotzakoa. Biltzailea: Mari Carmen Uriguen. Biltze-data: 1987ko maiatza”.

Oarau egiten du 7/4 lerroarentzat: “Lekukoak zeure dino, baina zentzuak neure eskatzen dau”.

VIII

Zeru altuan urten iten dau
izer eder bat bakarrik;
bakarrik eztau, lagunek deituz
Jaun Zerukoak emonik.

Zazpi aingeru ondoan deituz,
zortzigarrena geisorik,
zazpi mediku ekarri’otsiez
bakotxa bere lekutik.

Zortzigarrena ekarri’otsie
Indie-Madrileta,
arexek bere igerri dotso
zetatik dauen geisorik.

– Mediku jauna, guzurre dino,
nik eztot amore minik,
amore minek badoraz bere
ez entrainetan sarturik.

Bier goizean ilgo naz eta
etorri naure gorpure,
erosario zuri eder bat
zuk errezetan dozule.

Andixe gora, andixe gora
Jesus gurian korure,
Jesus gurean korure eta
Ama Birjinean orture.

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antología* (Bilbao, 1995), 52 orrialdean, argibide auekin:

"Iturria: Labayru Ikastegiko MZIM artxiboa. Lekukoa: Esperanza Aretxaga, 51 urte, Zeberiokoa. Biltzaileak: Nekane Garaizabal, Mertxe Uriarte eta Maite Urkijo. Biltze-data: 1985eko urria".

II

*Una hermosa estrella resplandece solitaria en el alto cielo.
No está sola, tiene compañeras, dadas por el Señor del cielo.*

*Tiene a su lado a siete ángeles; y al octavo, enfermo,
siete médicos le han traído de la India y de Madrid.*

Aquél le ha adivinado de qué está enfermo:

– Tiene amores de amor dentro de sus entrañas.

– Dice mentira este médico. Yo no tengo mal de amor.

*Esta noche moriré y venid a mi entierro,
con un rosario blanco y hermoso entre las manos.*

*Cuando me lleven a enterrar, subirás al coro;
de allí saltarás al huerto de la Virgen Madre.*

*Una rosa y un clavel tomarás en tu mano,
para que la gente diga que llevas luto por mí.(1)*

*Los angelitos dicen en la salve Ave, María,
para que luego gocemos todos de la gloria en el alto cielo.*

(1) Creo más adecuado el texto de otras versiones, que se traduce: "para que no diga la gente que llevas luto por mí".

“Maitiak biloa holli...”

I

Musical notation for the song "Maitiak biloa holli..." in 3/4 time with a key signature of one sharp. The lyrics are written below the notes.

Mai - ti - ak bil - ho - a ho - lli e - ta ko - lo - ri - a go -
tri Es - ku - ko la - rri - a txu - ri zi - lar fi - na u - du -
ri e - ta be - ra txar - ma - ga - rri best 'o - ro - ren ga - ñe - ti.

Maitiak biloa holli
eta koloria gorri,
eskuko larria xuri, zilar fina uduri,
eta bera xarmagarri best'ororen gañeti.

– Etxetto bat badizut nik
jaoregi baten parerik;
hartan barnen egonen zira zilar kaideran jarririk,
ihurk ezpeiteizu erranen nahi eztuzun elerik.

Nik badutut mila ardi
bortian artzañeki:
Kataluñañan ehun mando bere zilar kargeki;
hurak oro badutuketzu, jiten bazira eneki.

– Baduzia mila ardi
bortian artzañeki?

Kataluñan ehun mando zilar dihárureki?
Hurak oro ukenik ere, eniz jinen zureki.

– Maitenaren etxeokoak,
kexu umen ziradeie;
alabaene emaztetako sobera umen zaizie.
Ez emazte, bai amore, sofritu behar duke.

Senartzako emozie
Frantziako errege;
Frantzian ezpada ere, EspaÑakoa bedere;
bada errege, enperadore, puntsela ja eztuke.

M. Charles Bordes: *La Musique populaire des basques idazlanean, La Tradition au Pays Basque liburuan* (1899), 335 orrialdean. Aurretik onela dio:

"En septembre 1890, à la fête de La Chapelle, petit quartier de Barcus, par une nuit de pluie diluvienne, dans une auberge enfumée, je recueillis ce thème admirable de la bouche d'un grande garçon mélancolique nommé Notary".

Aita Jorje Rieu: *Flor de canciones populares vascas* (Ekin, Buenos Aires, 1948), 62 orrialdean.

II

Nik ba - di-tut mor-tu - e-tan ar-di-ak ar-tzan - o-re - kin, Ka-ta-lo-
ni-an e-un man-do zi-lar bu-lun - ba-re - kin, i - tsa - so-an a-mar on - tzi eu-ren
ma-ri-ne-le - kin; al ba-du - zu-e e-mai-e - zu-e Fran-tzi-a - ko-a E-fre-
ge; Fran-tzi-a - ko-a ez-pa - da e-re Es-pai-ñia - ko-a be-de - ren.

Nik baditut mortuetan
ardiak artzanorekin,
Katalonian eun mando
zilar bulunbarekin,
itsasoan amar ontzi
euren marinelekin;
ala badezue emaiezue
Frantziako Errege;
Frantziakoa ezpada ere
Españaikoa bederen.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegia, 871 zenbakian, 1010 orrialdean. Naparroan, Urrotzen. Jose Antonio Arrietari jasoa.

III

Nik ba - di - tut mor - tu - e - tan ar - di - ak ar - tzai - na - re -
kin; i - tsa - su - an a - mar on - tzi be - ren ma - ri - ñe - le -
kin; Ka-ta-lau - ni - an a - mar man - do zil-lar mo - ne - da - re - kin.

Nik baditut mortuetan
ardiak artzainarekin,
itzasuan amar ontzi
beren mariñelein,
Katalaunian amar mando
zillar monedarekin.

- Zure amak omen dio
ni pobria naizela;
zakoñotxo bat artu eta
juango nauzu eskera,
orduantxe bai esango dute
ni pobria naizela.

- Ela, ela, etxekuak,
asarre omen zaudete;
zuen alaba nere'mazte
sobera iduritzen zaitzue:
ez emazte, bai amore,
ortxen sofri zazue.

Zure alabak biarko du
Frantziako errege,
Frantziakua ezpaldin bada
Españaikoa bedere,
Españaikua ezin bada
zerbait enperadore.

Gure Herria aldizkarian, 1933 urtean, 5-garren zenbakian, Suplemento Musical deritzaionean, aita J. A. Donostia bialdua, argibide auekin:

"Quelques-uns des lecteurs de Gure Herria connaissent sans doute cette belle mélodie (un peu savante, peut-être), que j'ai recueillie au commencement de mes recherches folkloriques. Elle me fut donné (musique et paroles) par un maçon, nommé Bolaños, originaire d'Aranaz (Navarre) et demeurant à Lecaroz"

A noter: "Ela, ela" se dit au Pays Basque français quand un frappe ou que l'on entre dans une maison".

Doiñu au bera: J. A. Donostia: *Obras Completas*, IV, 1985, 467 orrialdean, Ejemplos musicales.

Aita Jorje Rieu: *Flor de canciones populares vascas* (Ekin, Buenos Aires, 1948). 160 orrialdean.

Aita Jorje Rieu: *Nafarroa-ko euskal-lantu zaharrak*, 1973, 75 orrialdean.

I

*Mi amada tiene el pelo rubio
sonrosado el color,
la piel de las manos blanca como la plata fina;
y ella es más encantadora que todas las demás.*

*- Yo tengo una casita
equiparable a un palacio;
en ella te sentarás en una silla de plata,
y nadie te dirá palabra que no deseas.*

*Yo tengo mil ovejas
en el puerto, con sus pastores:
en Cataluña cien mulos con cargas de plata;
todo ello será para ti, si te vienes conmigo.*

*- ¿Tienes mil ovejas
en el puerto, con sus pastores?
¿En Cataluña cien mulos con monedas de plata?
Aun haciéndome dueña de todo, no me iré contigo.*

*- Los de casa de mi amada,
dicen que estás enfadados:
vuestra hija os parece demasiado para que sea mi esposa.
No siendo esposa, sino amante, habrá de sufrir.*

*Dadle como esposo
el rey de Francia;
si no es el de Francia, al menos el de España;
ni con rey ni con emperador será ya doncella.*

"Mus Urrutia leihotik..."

I

Mus Urrutia leihotik, ni aldiz kanpoti.
Bihotza erdiratu zeitan so ehti bateki,
uduri ziren haren begiek izar zirela zeluti.

– Ene xarmagarria, huillan duzu eliza;
zonbait aldiz jinen zira harat meza entzutera?
Begiz keiña eginen dugu, ezin mintzatzen bagira.

Españolako bidia, ala bide luzia!
Gibelialat so gin eta hasperena ardura;
maitettoaz orit eta nigarra begiala.

Hortzak xuri, begiak beltz, ene maitia, zeren ez?
Mundu orok diozie ni nizala traidore;
orai arren erradazu hala nizan, bai al' ez.

Aristiriko ekiak zerena dizu erdia,
zure eta ene amodioa plañi duzu mundia,
mundu ororen ixilik maite izan behar gia.

Francisque Michel: *Le Pays Basque*, Paris, 1857, 428 orrialdean. Oar batean onela dio:

"Comparez ce couplet avec le seconde du Voyage à l'ermitage de Saint-Joseph..." .

Alegia, Xorittua, nurat hua kantaren bigarren bertsoarekin. Onela dio bertso onek:

San Josefen ermita desertian gora da.
España lat juaiteko han da gure pausada.
Gibelerat so' gin eta hasperenak ardura.

(*La ermita de San José está en alto, en un desierto.
Para ir a España por allí es nuestro camino.
Al volver la vista atrás, (brotaban) con frecuencia los suspiros.*)

I

*El señor de Urrutia desde la ventana, yo desde fuera.
Me partió el corazón con una dulce mirada;
sus ojos parecían que eran estrellas del cielo.*

– Encantadora mía, tienes cerca la iglesia.
¿Cuántas veces irás a ella a oír misa?
Nos haremos una señal con los ojos, si no podemos hablarnos.

*El camino a España ¡qué camino tan largo!
Al volver la vista atrás (salta) con frecuencia un suspiro;
al recordar a la amada, acude el llanto a los ojos.*

*Dientes blancos, ojos negros, amada, ¿por qué no?
Todo el mundo dice que yo soy traidor.
Dime ahora, por favor, si lo soy, sí o no.*

*El sol del atardecer tiene mucho relente.
De tu amor y el mío se lamenta todo el mundo.
Hemos de amarnos a escondidas de todo el mundo.*

“Orai hasten niz kantatzen...”

I

Eskoliertsa gaztea



Orai hasten niz kantatzen,
suiet hoien deklaratzen,

bi presunen amodiuaz munduia duzu mintzatzen, (*bis*)
hoier kantiak emana gatik ez dira hanbat lotsatzen.

Irisarriko herrian,
abenduaren erdian,
eskolier bat eritu dela fama da jenden artean,
bere errientak senda liro biak diren lekuian.

Gaitzak hartu zienian
jarri izan zen ohian;
mandatariak ekarri zuen barbera presa handian,
errientari plazer eiteko, bere lanzeta eskuian.

Errient horrek ederki
nola mintzatzen baitaki,
jaun barberari galdegin dio eri ote den bortizki:
– Hiltzera utzi gabetarik behar gitzaizko jarraiki.

– Etxeko alaba, zu ere
aire handian zirade;
pluma eta ankria eskuian ungi paratzen zirade,
eskribatzen ikastera etzitela izan herabe.

Fortuna on bat izan duzu Jaun Zerukoak emanik,
zeren igorri baiterautzu errientea kitorik;
mundu guzia kurriturik etzindukeien hoberik,
ez eta ere karaktera ederragoa duienik.

Etxeko alaba noblea,
begi ederren jabea,
errientari egiozu bazkal ondoan kafea,
hak ere zuri einen dautzu kanberan lekzionaia.

Eskolier gaztea,
emazu otoi guardia,
jaun errientak ixur ez dezan zure altzora ankria,
begira zazu tonatzetik zure taulier xuria.

Iskribatzen luzaz hartzeak
berotzen du odola;
zenbait aldittoz jalgi zite aire hartzera leihora,
enseia zaite egitera errientaren gogora.

Zaia gorri bat politik
Donostiako aldetik,
eskolierak soinean du moda berrian josirik;
jaun errientak emanen dako oraino ederxagorik.

Frantsesa ere jaun errientak erakutsiren derautzu,
attenzione emozu ikasi nahi baduzu;
zonbait hitzetan mintzo direla norbaitek ditu aditu,
batak *que si*, bertzeak *que no*, direla libertitu.

Emazte alargun eztia,
nun duzu adimendua?

Hola konsentitzen duzuia zure alaba maitea?
Zu horren laxo izaiteaz estonatzen da mundia.

Munduiak dio goraki,
ez da mintzo segereki,
zure alaba dihuru truku eman duzula segurki;
anitz denbora gabetarik izanen duzu urriki.

Etxeko andrea, so eizu,
atenzione emazu:
zu begira faltaz malurrik gertatzen balinbazautzu,
Jaungoikoaren aitzinean kondu eman behar duzu.

Zonbat aldiz zuk bazindakizu bertzer kontseilu emaiten,
gisa hortan zabilzanez espantu frango egiten;
orai hari da zure alabaz mundua irri egiten,
ikasi behar zinduke zuk ere ixil egoiten.

Flakatu zaitzu buruia,
ttipitu ixpirituia,
debozionalean zirenean iduri duzu sainduia,
bainan bildur naiz ez ziraden bertz bat baino hobea.

Zeruetako Jinko jauna, zuri nuzu gomendatzen,
neure behar ordu oroz zu gana laster egiten;
humilki eta bihotz xahuz otoitz derautzut egiten,
zure ministroek ikas dezaten etsenplu honen emaiten.

Gure Herria aldizkaria, 1971, uztail-iraila, *Eskoliersa gaztea* izeneko idazlanean, Gure Herria firmarekin. Ondoren, onako argibide auek:

Cette chanson mordante et savoureuse est très ancienne; les dix-sept couplets reproduits ci-dessus, avec une orthographe rajeunie, ont été fidèlement transcrits d'un cahier manuscrit d'une jolie écriture où un amateur qui ne nous a malheureusement pas laissé son nom a réuni, probablement dans la seconde moitié du 18e siècle et dans tous les cas avant la Grande Révolution, beaucoup de nos chansons populaires auxquelles il a mêlé quelques chansons françaises de son époque.

On rencontre dans ce recueil, qui est probablement le doyen de nos chansonniers, quelques chansons bien connues dont certains couplets n'ont guère subi de modification, ce qui est très remarquable après tant d'années de transmission purement oral. La chanson Eskoliersa gaztea est du nombre; elle dut avoir un

gros succès et une large diffusion et nous venons de constater qu'à Jatxou on en connaît encore quatre ou cinq couplets".

Ondoren, sail onen bertsoren batzuk nun arkitu ditezken esaten du:

Vinson-ek, bere *Le folklore du Pays basque* liburuan, 1883, 2, 3, 4, 7, 8 eta 10-garren bertsoen frantzes itzulpena ematen du.

Aita Donostiak eta Azkuek bertso auetako batzuk argitaratu zituzten. Argitaraldi oietazurren orrialdeetan itzegingo degu.

Apat-Etxebarnek (Aingeru Irigarai jauna zanak, alegia) bertso guziak eman zituan argitara *Diario de Navarra* egunkarian, 1975-V-2-an, *Amodiozko bertsu zaharrak* izenburuarekin. Bai Egan aldizkarian ere, 1975-ean. Bietan *Gure Herria-n* bezela idazten ditu bertsoak.

II

Zaia gorri ederrik
Donostiako aldetik
eskoliersa batek omen du
moda berrian yosirik,
moda berrian yosirik eta
jaun errientak eginik.

Eskoliersa gaztia,
begi ederren yabia,
jaun errientari presta zozu
bazkal onduan kafia,
gero harek emanen daitzu
ganberan letziona.

Eskoliersa gaztia,
otoi, emazu guardia,
jaun errientak ixur ez dezan
zure altzora ankria,
tonaturik geldi ez dadien
zure dabantail xuria.

Eskoliersa eritu,
Jainkoak duela laudatu,
mandataria barbera gana
segeretuan joan duzu:
berehala jin dadiela eta
behar duela sangratu.

Aita Jose Antonio Donostiararen paperetatik, *Cuaderno de Argentina* izeneko batetik.

III

Sa - ia go - rri - tik po - lli - tik Do - nos - ti - a - ko al - de -
tik. Es - ko - li - er - sak e - kar - tzen du mo - da be - rri - an yo - si -



Saia gorritik politik
Donostia aldetik,
eskoliersak ekartzen du
moda berrian yosirik,
moda berrian yosirik eta
jaun errientak egunik.

Aita Jose Antonio Donostia: *Euskel Eres Sorta* (Donostia, 1921), 83 zenbakian, Saran jasoa.

P. Donostia: *Cancionero vasco, II*, Donostia, 1994, 376 zenbakian, 513 orrialdean, argibide auekin:

"Loc. rec.: Sara. Fecha: 1913. Clas.: festiva-satírica".

IV

Musical notation for the fourth section of the song, featuring a treble clef, a key signature of one flat, and a common time signature. The lyrics are written below the notes.

Za - ia go - rri po - li - tik Do - nos - ti -
a - ko al - de - tik, es - ko - lier - sa gaz -
te - o - rrek ba - du bat mo - da be - rri - an jo - si -
rik. Mo - da be - rri - an jo - si - rik e - ta
jaun e - rri - en - tak e - ma - nik.

Zaia gorri politik
Donostiako aldetik
eskoliertsa gazte horrek badu bat
moda berrian josirik,
moda berrian josirik eta
jaun errientak emanik.

Aita Jose Antonio Donostia: *Euskel Eres Sorta*, Donostia, 1921, 112 zenbakian, Saran jasoa.

V

Es - ko - li - er - sa gaz - ti - a, o - toi, e - ma - zu guar - di -
a. jaun e - rri - en - tak an - dri -
a, to - na - tu -rik gel-diez - de - din zu - re da - ban - tail xu - ri - a.

Eskoliersa gaztia,
otoi, emazu guardia,
jaun errientak
. ankria,
tonaturik geldi ez dedin
zure dabantail xuria.

Aita Jose Antonio Donostia: *Euskel Eres Sorta*, Donostia, 1921, 115 zenbakian, Senperen jasoa. Irugarren eta laugarren lerroen utsune oiek aita Donostiak ere olaxe ditu.

Laugarren lerroan *andria* idazten du aita Donostiak. Dendarik ez da *ankria* bear duala eta orrela ezarri degu.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 377 zenbakian, 515 orrialdean, argibide auekin:

“Loc. rec. Sara: 8 de febrero de 1917. Clas.: festiva - satírica”.

Lau bertso eskeintzen ditu, baiña beste aldaeretan ere daudenak.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 377 zenbakian, 516 orrialdean, argibide auekin:

"Loc. rec.: Senpere. Fecha: junio de 1914. Clas.: festiva-satírica".

VI

Es-ko - li - er - sa gaz - ti - a, be - gi e - de - rren
ja - bi - a, jaun e-rrien - ta - ri pres - ta za - ko - zu baz - kal on-
du - an ka - fi - a, ge - ro a - rek
e- ma - nen di - rau - tzu gan - ba - ran le - zi - o - ni - a.

Eskoliersa gatzia,
begi ederren jibia,
jaun errientari presta zakozu
bazkal onduan kafia,
gero arek emanen dirautzu
ganbaran lezionia.

Aita Jose Antonio Donostia: *Euskel Eres Sorta*, Donostia, 1921, 167 zenbakian, Arantzan jasoa.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 376 zenbakian, 514 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: Bolaños, albañil, natural de Aranaz, avecindado en Lecároz. Loc. rec.: Lecároz. Fecha: 25 de febrero de 1912. Clas.: festiva-satírica".

VII

Do - ni - ba - ne - ko i - ri - a er - di er - di - an zu - bi -
a. Jaun e - rri - en - tak i - ten o - men du a - ren gai - ni - an guar - di -
a i - a - naz i - ku - si - ren du - en Ka - ta - lin be - gi zu - ri - a.

Donibaneko hiriak
erdi-erdian zubia.
Jaun errientak iten omen du
haren gainian guardia,
ianaz ikusiren duen
Katalin begi zuria.

Aita Jose Antonio Donostia: *Euskel Eres Sorta*, Donostia, 1921, 117 zenbakian, Azkainen bildua.

Gure Herria aldizkarian, 1931-n, *Supplément Musicale* izenekoan, esaten duanez, Lakarra andreari jaso zion doiñu ori.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 375 zenbakian, 511 orrialdean, argibide auekin:

"Inform. Mme. Lakarra. Loc. rec.: Azkaine. Fecha: junio de 1914. Clas.: festiva-satírica.

Ref. G. H. 1931. 1. "Melodía recogida en Azkaine de Mme. Lakarra, cuya deliciosa voz y estilo daban singular encanto a sus canciones".

VIII

The musical score consists of six staves of music in common time (indicated by '2') and G major (indicated by a 'G' with a sharp). The lyrics are in Basque and are as follows:

Do - ni - ba - ne Zi - bu - ruk
er - di er - di - an zu - bi - a.
Jaun e - rri - en - tak ha - ren gai - ni - an
e - gi - ten bai - tu guar - di - a,
i - a non - dik i - ku - si - ren du - en
mai - te - ño - a - ren be - gi - a.

Donibane Ziburuk
erdi erdian zubia.
Jaun errientak haren gainian
egiten baitu guardia,
ia nondik ikusiren duen
maiteñoaren begia.

Dendari gazte polita,
Getariako partetik,
Getariako partetik eta
moda berrian jauntzirik;
jaun errientak emanen derautzu
hoi baño pollitagorik.

Dendari gazte propia,
etzaitezela ganbia.
Jaun errientari emokezu
bazkal onduan kafia;
harrek gero emanen derautzu
ganbaran letzonia.

P. Donostia, *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 376 zenbakian, 512 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: Dominique Lakarra, 66 años. Loc. rec.: Azkaine. Fecha: 20 de octubre de 1923. Clas.: festiva-satírica".

Gure Herria aldizkaria, 1931, *Suplément Musicale* izenekoan, aurretik itz auek dituala:

"En voici une autre version qui comporte des variantes".

IX

Saia gorri politik
Donostiako aldetik;
eskoliersa gazte horrek badu
bat moda berrian josirik,
moda berrian josirik eta
jaun errientak emanik.

Eskoliersa gaztia,
otoi emazu guardia,
jaun errientak ixur ez dezan
zure gainerat enkria,
tonaturik geldi ez dadien
zure arropa xuria.

Aita Jose Antonio Donostiaren paperetatik, makinaz idatzitako orri batetik.

X

The image shows three staves of musical notation. The top staff begins with a treble clef, a sharp sign indicating G major, and a '2' over a '4' indicating 2/4 time. It consists of six measures, each starting with a quarter note. The middle staff begins with a treble clef and a sharp sign, also in 2/4 time. It has seven measures, with the first measure starting with a quarter note and the second with a eighth note. The bottom staff begins with a treble clef and a sharp sign, also in 2/4 time. It has eight measures, with the first measure starting with a quarter note and the second with a eighth note.

Donostiako aldetik
zaia gorri politik,
zaia gorri politik eta
moda berrila josirik,
moda berrila josirik eta
jaun errientak eginik.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 5 zenbakian, 59 orrialdean, Baigorriko moja baten aotik jasoa.

XI

Donibane Ziburuk
erdi erdian zubia;
jaun errientak haren gainean
egiten baitu guardia:
eian nundik ikusiren duen
maiteñoaren begia.

Eskoliertsu gaztia,
begi ederren jabia,
jaun errientari presta ezozu
bazkal ondoan kafia:
gero harek emanen dautzu
ganbaran letziona.

Zaia gorri ederrik
Donostiako aldetik,
eskoliertsu batek omen du
moda berrian josirik,
moda berrian josirik eta
jaun errientak eginik.

Eskoliertsu gaztia,
otoi emazu guardia,
jaun errientak ixur ez dezan
zure altzorat ankria,
tonaturik geldi ez dadin
zure debantail xuria.

Eskoliertsu eritu,
Jainkoak duela laudatu:
mandataria barbera gana
segeretuan joan duzu,
berehala jin dadiela eta
behar duela xangratu.

* * *

Dudan egon gera kanta au erromantze edo baladatzat artu eta liburu ontan sartuko ote genduan. Jenero ortatik saieskatzen ari dala ematen baitu. Azkenean, zalantza luze baten ondoren, berari ere sarrera ematea erabaki degu. Besterik ez bada, saieskatze edo aldatze orren berri emango digu.

I

*Empiezo ahora a cantar
declarando ciertos temas;
los amores de dos personas han dado que hablar al mundo;
aunque les dediquemos canciones, ellos no se arredran.*

*En el pueblo de Irisarri,
a mitades de diciembre,
que una estudiante ha enfermado es fama entre la gente,
su maestro le podría curar allí donde ellos residen.*

*Cuando contrajo la enfermedad,
se acostó en la cama;
un mensajero hizo venir al barbero con gran prisa,
para gusto del maestro, con la lanceta en la mano.*

*Ese maestro sabe cómo hablar con elegancia;
al señor barbero le ha preguntado si está muy grave.
– Debemos atenderle sin dejar que se muera.*

*– Hija de la casa, también tú
tienes muchas ínfulas;
con pluma y tintero en la mano te preparas muy bien:
aprender a escribir no te ha de dar vergüenza.*

*Has tenido una gran suerte otorgada por el Señor del cielo,
porque te ha enviado de balde un maestro;
aun recorriendo todo el mundo no lo encontrarías mejor,
ni tampoco uno que tuviera mejor carácter.*

*– Noble hija de la casa,
dueña de bellos ojos,
al maestro hazle café después de comer;
él te dará a ti clase en la habitación.*

*Joven estudiante,
sé por favor vigilante,
para que el señor maestro no derrame tinta en tu regazo;
cuida que no se ensucie tu blanco delantal.*

*El escribir durante mucho tiempo
calienta la sangre:
a ratos sal a tomar el aire a la ventana,
produra hacer el gusto del maestro.*

*Una hermosa saya roja,
(traída) de la parte de San Sebastián,
tiene la estudiante en el cuerpo, cosida a la nueva moda;
el señor maestro le regalará una más hermosa todavía.*

*El señor maestro te enseñará hasta francés;
pon atención, si quieres aprenderlo;
que dicen algunas palabras lo ha oído alguno:
el uno que sí y el otro que no, se han divertido.*

*Dulce mujer viuda,
¿dónde tenéis el entendimiento?
¿Tal le consientes a tu querida hija?
De que tú seas tan descuidada se extraña la gente.*

*La gente dice en alta voz,
pues no habla en secreto,
que seguramente has entregado a tu hija a cambio de dinero;
antes de mucho tiempo te arrepentirás (de ello).*

*Señora de la casa, mira,
presta atención:
si por falta de vigilancia tuya ocurre alguna desgracia,
tendrás que dar cuenta delante de Dios.*

*Cuántas veces has sabido tú dar consejo a los demás,
haciendo mil aspavientos en tanto andabas así;
el mundo se está ahora riendo de tu hija,
también tú deberías aprender a estar callada.*

*Se te ha aligerado la cabeza
y disminuido el espíritu;
cuando te das a tus devociones pareces una santa,
pero me temo que no eres mejor que ningún otro.*

*Dios, Señor de los cielos, a ti me encomiendo;
en todas mis necesidades acudo a ti;
con corazón humilde y rendido te ruego
que tus ministros aprendan a dar buenos ejemplos.*

"Pazkoetan den alegerena..."

I

The musical score consists of four staves of music in 3/4 time, featuring a treble clef and a key signature of one flat. The lyrics are written below each staff. The first staff starts with "Paz-ko - e - tan". The second staff continues with "den a - le - ge - re-na Paz - ko-a Mai - a - tze - ko - a," followed by a repeat sign. The third staff continues with "Paz-ko - a Mai - a - tze - ko-a zan - da jai - ki nin - tzan - nean goi - ze - an." The fourth staff concludes with "Jai - ki nin - tza - ne-an goi - zean e - ta pa - se - a - tze - ko - ka - le - an, pa - se - a - tze - ko - ka - lean e - ta e - gu - ne - an da ga - be - an."

Pazkoetan den alegerena Pazkoa maiatzekoa,
Pazkoa maiatzekoa zan da jaiki nintzanean goizean.

Jaiki nintzanean goizean eta paseatzeko kalean,
paseatzeko kalean eta egunean da gabean.

Egunean da gabean eta izarra argi donean,(1)
izarra argi donean eta laztantxuaren aurrean.

Gure laztantxua kalean dabil aideak konbidatutzen,
egun bat edo geiago atalondoan sartutzen.
Beste arenbeste edo geiago eskaleretan igotzen.

Gure laztanaren eztaietan guk jan genduen usoa,
beste guztiak konplitu eta laztanandako egoa.

Ark neri gainu, nik ari gainu, alkar genduen penatzen,
alkar genduen penatzen eta arima ere lainatzen.(2)

Sekularean gerta eztailarik(3) Meza berrian ematen,
Meza berrian ematen eta Epistolaren kantatzen,
Epistolaren kantatzen etaurre-kalizea goratzen.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 885 zenbakian, 1027 orrialdean, Naparroan, Urdiainen, Maria Ondarrari jasoa.

Bere *Euskalerriaren Yakintza*-n era eman zuan Azkuek argitara aldaera au, IV tomoan.

Beste argitalpen bat: J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1984), II tomoan, 52 orrialdean.

II

The musical score consists of four staves of music in common time (indicated by '3') and a key signature of one flat (indicated by a 'B' with a sharp sign). The lyrics are written below each staff:

- Staff 1: Ga-ra-garr-i-le-an e-gu-na be-ro goi-ze-an in-tza de-ne-an
- Staff 2: goi-ze-an in-tza de-ne-an e-ta os-kar-bii-zar itz-a - le-an.
- Staff 3: Ne-re laz-ta-na-ren ez-tai-e-tan ne-ro-nek yan nuen u-so-a,
- Staff 4: ne-ro-nek yan nuen u-so-a e-ta ne-re laz-ta-nak e-go-a.

Garagarrilean eguna bero
goizean intza denean,
goizean intza denean eta
eguna klaro denean.

Nere laztana kalean dabil
aide audiak konplitzen,
aide audiak konplitzen eta
konbitearen emaiten.

Egun bat lagun ikus nituen
eztai-etxean sartutzen,
beste orrenbeste ta bi geiago
eskaleretan igotzen.

Nere laztanaren eztaietan
neronek yan nun usoa,
neronek yan nun usoa eta
nere laztanak egoa.

Nere laztana mai-goienean,
ni barrenean egoiten;
ark neri ginu, nik ari ginu,
alkar genuen penatzen.

Alkar genuen penatzen eta
animearen lainatzen,
estudiante Bailarangoa
asi zitzaigun ubartzen.

Estuadiante Bailarangoa,
noiz eman bear dok mezea?
Ire mezearen diruarekin
egin bear diat lobea.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco*, 837 zenbakian, 972 orrialdean, Naparroan, Burundan, Olaztiko Josefa Inazia Pozuetari jasoa.

Azkuek adierazten duanez, azken lerroan azaltzen dan *loba* edo *lobea* itzak sotana esan nai omen du.

Baita ere, doiñurik gabe, *Euskalerrikaren Yakintza-n*, IV tomoan.

III

Pazkuetan dan alegrerena
Pazkua Maiatzekua
Pazkua Maiatzekua zan da
Jagi nintzan goizean
Pasiatzeko kalean eta
Izarra klaro donian
Izarra klaro donian eta
Laztantxuaren aurrean
Gure laztana kalean dabil
Aidiak gonbiatutzen

Neroni ere gonbiaturik nago
Eztaiotara juaten
Egun bat gizon edo geiago
Atal-entraran sartutzen
Beste orrenbeste edo geiago
Eskaleretan iotzen
Gure laztanan eztai(4) oietan
Usua guk jan genduan
Beste guztiak kunplitu eta
Laztanandako egua

Gure laztana mai goienian
Ni barrenian esaten
zuk ari gainu, arek neri gainu,
alkar genduben penatzen
eta arimea ere lainatzen,(5)
sekula ere gerta ezta

meza berria ematen eta
epistolia ere kantatzen,
epistolia kantatzen eta
urre kalizia goratzen,
estudiante barbailaskua
asi ze-zitzaigun kargu artzen.

Jose Maria Satrustegi: *Romance del amante relegado, en la literatura popular vasca. Fontes linguae vasconum* aldizkarian, irugarren zenbakian, 1969 urtean. Urdiaingo Sabas Agirreri 1965 urtean jaso omen da. Ondoren oar au egiten du:

“He respetado la grafía, ya que esta comunicación me fue facilitada por escrito”.

Guk ere bere ortan utzi degu. Eta beste oar au ere bai:

“...la familia Aguirre lo sabe (el romance) por María Ondarra, la ciega que proporcionó datos a Azcue”.

IV

Urtian den alegerena
Pazkua Maiatzekua;
Pazkua Maiatzekua zan da
jaiki nintzaren goizian,
jaiki nintzaren goizian eta
pasiatzeko kalian,
pasiatzeko kalian eta
egunian edo gaubian,
egunian edo gaubian eta
izarra argi donian.
Neure laztana kalian dabil
aidiak gonbiatzen,
neu're gonbiaturik nago
eztaietara juaten.
Egun bat gizon ikus nituben

etxi artan sartutzen,
beste orrenbeste beste bi geio
eskileretan iyotzen.
Nere laztanan eztaietan
nik jan nuben usua,
nik jan nuben usua eta
arek jan zuben egua.
Neure laztana mai goienian,
ni barrenian esaten (eseriten?),
arek niri gainu, nik ari gainu,
alkar genduben penatzen.
Estudiante barbailasku bat
asi zitzaigun igartzen,
in seculorum eztaitela joan
meza berririk emaiten.

Jose Maria Satrustegi: *Romance del amante relegado, en la literatura popular vasca. Fontes linguae vasconum*, irugarren zenbakian, 1969-an. Urdiaingo Juana Maria Zufiaurreri jaso omen zion kanta au, 1966 urtean.

Juana Maria Zufiaurrek bere amarengandik ikasia omen zuan. Lenengo emanaldi batean, kantaren asiera beste onela esan omen zuan:

Urtiak il bi ditu alegererik
maiatz apirila loraz beterik...

Baiña ori beste kanta zaar edo erromantze baten asiera da.

Lukas Zufiaurre, Juana Maria orren anaiak, beste iñun ageri ez diran lerro auek eman omen zituan:

Goguak baretz, baretz, baretz da
biotzak ez du laguntzen.

Beste argitalpen bat, Satrustegiri artuta: J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1984), bigarren tomoan, 53 orrialdean.

V

Jose Maria Satrustegik azterketa luze eta jakingarria egiten du kanta oni buruz 1969 urteko *Fontes linguae vasconum* aldizkari ortan. Ortaz gaiñera, berak iturri oietatik bildutako testuekin, eta Azkuerenak ere kontuan artuta, kanta berritu eta osatu egiten du. Liburu ontako beste kanta askorekin ere gauza bera egin zitekean, ortara jarri ez bagera ere. Baiña emen lan ori egiñik dagoan ezkero, agertzea on izango da:

Pazkuetan dan alegerena
Pazkua Maiatzekua.
Pazkua Maiatzekua zan da
jaiki nintzaren goizian.
Jaiki nintzaren goizian eta
pasiatzeko kalian.
Pasiatzeko kalian eta
egunian edo gaubian.
Egunian da gaubian eta
izarra argi donian.
Izarra argi donian eta
laztantxuaren aurrian.
Neure laztana kalian dabil
aide aundiak konplitzen.

Aide aundiak konplitzen eta
konbitearen emaiten.
Neroni ere konbiaturik nago
eztai ortara juaten.
Egun bat lagun ikus nituben(5)
atal ondoan sartutzen.
Beste orrenbeste edo geiago
eskaleretan iyotzen.
Nere laztanan eztai oietan
guk jan genduben usoa.
Beste guziak kunplitu eta
laztanandako egoa.
Nere laztana mai goienian
ni barrenian egoiten.

Goguak baretz, baretz, baretz da(6)
biotzak ez du laguntzen.
Ark neri gainu, nik ari gainu.(7)
Alkar genduben penatzen.
Alkar genduben penatzen eta
arimea re lainatzen.(8)
Estudiante barbailasku bat(9)
asi zitzaigun igartzen.(10)
Asi zitzaigun ubartzen eta(11)
asi zitzaigun kargu artzen.

"In seculorum" gerta eztaillela
meza berria ematen.
Meza berria ematen eta
Epistolaren kantatzen.
Epistolia kantatzen eta
urre kalizia goratzen.
Estudiante barbailaskua,
noiz eman bear dok mezea?
Ire mezearen diruarekin
egin bear diat lobea...

Eta gaiaren laburpena onela ematen du:

"Se trata de tema amoroso y describe las cuitas del amante relegado, que asiste en calidad de invitado al banquete de boda de su amada. Equivale a la confesión pública de un viejo amor, que no pudo pasar desapercibido a la perspicacia de un estudiante asistente al acto. Contra él se desatan, al fin, las iras del amante contrariado".

I

(Traducción de R. M. Azkue)

*La más alegre de las Pascuas es la Pascua de mayo.
Pascua de mayo era cuando yo me levanté a la mañana.*

*Cuando me levanté a la mañana y para pasear en la calle,
para pasear en la calle y de día y de noche.*

*De día y de noche, cuando la estrella está clara,
cuando la estrella está clara y delante de la amada.*

*Nuestra amadita anda en la calle convidando a los parientes,
un ciento o más metiéndolos en el portal.
otros tantos o más subiéndolos en las escaleras.*

*En las bodas de nuestra amadita comimos paloma.
después de cumplir con los demás, para mí amada el ala.*

*Aquella me guiñaba, yo la guiñaba, mutuamente nos apenábamos.
nos apenábamos mutuamente y dañábamos también el alma.*

*Lo que jamás suceda, dando Misa nueva,
dando Misa nueva y cantando la Epístola,
cantando la Epístola y levantando el cáliz de oro.*

(1) *Contracción de dagonean.* (Azkueren oarra.)

(2) *De damnum viene el castellano daño; de éste (descomponiendo ñ en in y permutando d en l), lainu en la barranca de Navarra, de donde lainatzen, dañando.* (Id.)

(3) *Veo en mis borradores la palabra eztailan, que no hace sentido, tal vez errata mía de eztailarik.* (Id.)

(4) *Satrustegik eztia idazten du, bearbada Sabas Agirreren esku-idatzian ala dagoalako. Guk, ala bear dualakoan, eztai ezarri degu.*

(5) *Egun bat gizon; chun bat lagun (unas cien personas).* (Satrustegiren oarra.)

(6) *Goguak baretz, baretz...: ...baietz, baietz.* (Id.)

(7) *Gainu: imintziyo (gesto).* (Id.)

(8) *Lainatu: lañotu, ilundu (nublar)* (Id.)

(9) *Barbailasko: nahasi (inquieto, bullanguero).* (Id.)

(10) *Igartzen: konturatzten (darse cuenta).* (Id.)

(11) *Ugartzen: ohartzen (hacerse cargo, darse cuenta).* (Id.)

“Perretxikotan nenbilenean...”

I

Pe - rre - txi- ko- tan nen- bi - le - ne - an Men - di - o - la - ko ba - so -
an, da - ma gaz- te bat aur- ki - tu ne- ban go - roz - ti ba- ten on- do -
an. La - ra - la la - ra - la - ra la - ra - la.

Perretxikotan nenbilenean
Mendlako basoan,
dama gazte bat arkitu neban
gorosti baten ondoan.
Larara laralara lala la.

Zoroa nintzan, eroa nintzan,
yarri nintzakon alboan,
amantaltxoa zabaldu eta
artu nenduan altzoan.
Larara laralara lala la.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 75 zenbakian, 131 orrialdean. Ez du esaten noren aotik jaso zuan. Baiña beraren esku-idazkietan agertu da izen ori: Pio Arandia, Ibarruri.

II

Pe - rre - txi - ko - tan nen - bi - le - ne - an Men - di - o - la - ko ba - so -
an da - ma gaz - te bat aur - ki - tu ne - ban a - reiz - txu ba - ten on - do - an.

Perretxikotan nebilean
Mendiolako basoan,
dama gazte bat arkitu neban
areiztxu baten ondoan.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 75 bis zenbakian, 132 orrialdean, Bizkaian, Etxanoko Dominika Uriarteri jasoa.

Azkueren esku-idazkietan ere agertu da kanta au, Dominika Uriarte orri jasoa. Baiña bigarren bertsoa ere badakar, eta leenengoa bi aldaketarekin:

Perretxikotan qenbilenean
Mendiolako basoan,
dama gazte bat topadu neban
arezti baten ondoan.

Zoroa nintzan, eroa nintzan,
jarri natzakon alboan,
amantaltxoa zabaldu eta
artu nenduan altzoan.

III

Perretxikotan nebilenian
Mendiolako basoan,
dama gazte bat topatu neban
iñerra baten ondoan.
Gaztia nintzan, zoroa nintzan,
jarri nintzakon ondoan,
amentaltxoa zabaldurikan
artu ninduan altzoan.

Jose Ariztimuño Aitzol zanaren bilduman, Billaroko Eulojo Gorostiagak 1932 urtean bialdua, onako oar onekin: “Zeanuriko Altzusta auzonean Errauz-kindar Barbareri entzunda. Lenago abestuten zan”.

IV

Perretxikotan nebillenian
Sasiolako basuan, (*bis*)
dama gazte bat billatu neban
kiñerra baten onduan,
txikiya nintzan, aundiya nintzan,
artu ninduen altzuan.

Egan aldzikarian, 1966 urtean, 138 orrialdean, N. A. F.-k –Nikolas Altzola zanak, ziur asko– izenpetzen duan *Ixurtzako ezpatadantzarien bertsoak* izeneko idazlanean. Ixurtzako Markos Gederiaga Ganboari jasota.

V

Perretxikotan nebillanean
Mendiolako basoan,
dama gazte bat aurkitu neban
areitzxo baten ondoan.
Zoratu nintzan, erotu nintzan,
yarri nintzakon alboan,
amantaltxoa zabaldu eta
artu neban altzoan.

A. Zubikarai: *Zornotza'n* izeneko idazlanean, *Agur* astekarian, 122 zenbakian, 1974-ko otsailaren 2-an.

VI

Perretxikotan nenbillenean
Mendiolako basoan,
dama gazte bat billatu neban
iñarra baten ondoan.

Gaztea nintzen, zoroa nintzen,
eldu nintzakon ondora,
amantaltxoa zabaldurikan
artu ninduan altzora.

Manuel Lekuona: *Idaz-lan guztiak, I, Aozko literatura*, 1978, 486 orrialdean. Zeanurin jasoa dala esaten du.

VII

Perretxikotan nebilenean
Mendiolako basoan
dama gazte bat aurkitu neban
elorri baten alboan.

Gaztea nintzan, zoroa nintzan
jarri nintzakon alboan,
amentaltxoa zabaldu eta
hartu ninduen altzoan.

Itaundu neuntsan: Nongoa zara,
damatxo bihotzekoa?
– Jakizu ni naiz pobreen ama
Birjina Arantzazukoa.

Uiak bere txantxarrak janda
ez dabe osagilerik,
ohitura zaharrak galdu ziran da
hobenak lotu bagarik.

Gaztea nintzan, zoroa nintzan
itaundu neuntsan men-menik:
– Zergatik zagoz, ama galanta,
hain triste bakar-bakarrik?

Xabier Amuriza: *Bizkaiko Bertsogintza, I, Izengabeak*, Bilbo, 1995, 192 orrialdean, argibide auekin:

"Franziska Agirrezabala - Zeanuri. *Doñu zaharren inguruan*. U. E. U. Jose Ramon Arbek eta beste hamarrek".

I

*Andando buscando setas en el bosque de Mendiola,
encontré a una joven dama junto a un acebo.*

*Era yo tonto, era yo loco, me puse a su lado,
(ella) extendió su delantal y me recibió en su regazo.*

“Trinidadeak ditu...”

I

Tri - ni - da - deak di - tu - i - ru al - da - re
i - ru al - da - re e - ta zaz - pi - lan - pa - re.

Trinidadeak ditu iru aldare,
iru aldare eta zazpi lanpare.

Iru aldare eta zazpi lanpare,
aiek iru erriak eginikan daure.

Trinidadea baitu Trinidadea,
eskuti saltatu da gabilarea.

Eskuti saltatu da gabilarea,
egotxo nabarrean zeraman kartea,
urrez eskribiturik gainean letrea.

– Andra Santa Marina, goiko aitzekoa.
– Zer dezu, nere aizpa Erkuraingoa?

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco kantutegian*, 898 zenbakian, 1044 orrialdean, Urdiaingo Maria Ondarrari jasoa.

Bigarren bertsoaren leenengo lerroa onela idazten du Azkuek: *Iru aldareetan zazpi lanpare*. Gure iritzirako, or goien jarri degun bezela bear du, aurreko lerroaren errepikapena baita.

Bostgarren bertsoan bi ermita aitatzent dira: Santa Marina, Urbasan dago, mendiaren iparraldeko ertzean, Iturmendiko sailletan, Sakana guzia andik ikusten dala. Erkurain edo Erkuden, berriz, Altsasuko partean dago, Etxegarateko bidean, kamio-ertzean.

II

The musical score consists of four staves of music in common time (indicated by '3') and a key signature of one sharp (F#). The lyrics are written below each staff, alternating between Spanish and Basque words. The first staff starts with 'U - ri - ko jai - a bai - ta Lau - ren don - e - a'. The second staff continues with 'Gu - re ba - ratz - an gin - da el - tza - ka ta min - a,'. The third staff begins with 'es - ku - tik itz - ur - i zait ga - bi - na - re - a,'. The fourth staff starts with 'gu - re ka - le - an dau - de i - ru mu - txur - di - na;'. The fifth staff begins with 'e - go - txo na - barr - e - an da - ra - ma kar -'. The sixth staff starts with 'i - ru - rak al - kar - tu - rik A - ran - tza - zun'. The seventh staff begins with 'te - a urr - ez - ko itz - ez - ko - a du gain - al - de - a. ¡Aupa!'. The eighth staff ends with 'di - ra San - tu Lau - ren - ek be - mai - e sen - ar - gai din - a.'

Trinidadea eta Kopo Kristoak (*sic*)
eldu dirade Pazkua maiatzekoak.

Trinidadea ditu iru aldare,
iru aldare eta zazpi lanpare.

Trinidadea bai Trinidadea,
eskutik boladu zait gabinarea.

Egotxo nabarrean derama kartea,
urrez eskribiturik gainean letrea.

Gure baratzan ginda, ondu ezta ta mina,
gure kalean daude iru dama linda.

Irurak iru dira, irurak emen dira,
irurak alkarturik Arantzazun dira.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 905 zenbakian, 1053 orrialdean, Naparroan, Olaztiko Jose Inazia Pozuetari jasoa.

Doiñuari beste letra bat eransten dio Azkuek, bertsoen ondoren onela esanez:

“Después de unas cuantas inepcias en que a Santu Lauren piden un buen duai (¿será novio?) que sea untziko mariñela pillatuan dabillena “marinero de buque que anda en pillato” (será en calidad de piloto) y de añadir pillatuan dabillena da Beltzuntzako jauna “el que anda en pilato es el señor de Belzunza” (sic), termina así:

Gure ganbaran kutxa, kutxa bera utsa;
asko senartzat baino obe kutxa utsa.

Doiñuarekin dijoan letra etzan erriaren aotik orrela aterako. Azkueren eskuorria oribiliko zan itzak aldatzen.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1984), II tomoan.

I

(R. M. Azkueren itzulpena)

*La Trinidad tiene tres altares,
en los tres altares siete lámparas.*

*En los tres altares siete lámparas,
aquellas están hechas por los tres pueblos.*

*La Trinidad apresar (sic) la Trinidad,
de la mano ha saltado el gavilán.*

*De la mano ha saltado el gavilán,
en la policroma alita llevaba carta,
su letra encima (estaba) escrita de oro.*

*Señora Santa Marina, la de la peña de arriba...
– ¿Qué se te ofrece, hermana mía, la de Ercurain?*

Ipuia̯k

(Cuentos y leyendas)

Ipui, kontu edo leiendaren baten berri ematen diguten euskal erromantzeak ere badira, naiz eta talde ugaria ez osatu. Zenbait aldiz izkuntza askotan ageri dan gaia erabiltzen dute. Mundu osoaren ondarea dira, beraz.

Existen romances vascos que nos transmiten algún cuento o leyenda, aunque no lleguen a constituir un grupo numeroso. A veces se trata de un tema que se repite en otros muchos idiomas. Son, pues, patrimonio universal.

“Banbruxaneko nausiak...”

I

Banbruxaneko nausiak
arrosa ta klabedin!
Etxearen beiratzeko
emazte xarmanta badin.

– Norat zohazi, gizona?
Arrosa ta klabedin!
Oihanerat banoazu
aizkora eta kordekin.

– Urrun da, urrun, oihana,
arrosa ta klabedin,
eguerditan bazkaiteko
nola behar duzu egin?

– Eguerditan bazkaltzeko,
arrosa ta klabedin,
ene emazte xarmanta
jinen zaut zarearekin.

Basaburuko oihana,
arrosa ta klabedin,
zein eder, aizkora-kolpe
eta xori-kantuekin!

Eliza-dorre gainetik,
arrosa ta klabedin,
oihaneraino orenak
heldu dirade *tin-tin-tin.*

Hamar, hameka, hamabi,
arrosa ta klabedin,
apetitua jina da
baina zarea ez da jin.

Hauxe da ixtorioa,
arrosa ta klabedin,
laurden, erdiek jo dute,
ez da ageri Kattalin.

Oren batak ere jo du,
arrosa ta klabedin,
Banbruxaneko nausia
ez daoke gosearekin.

Egur-pilotak utzirik,
arrosa ta klabedin,
etxe-alde itzuli da
aizkora eta kordekin.

Etxean sartzearekin,
arrosa ta klabedin,
Kattalin atxemaiten
auzoko mutilarekin.

Buruz buru jaten zuten,
arrosa ta klabedin,
dafail xuria eman
jaki eta arno finekin.

Debruak zeramaztela,
arrosa ta klabedin:

– Hau ase eta ni gose,
zer zautzu hortaz, Kattalin?

– Ah, Ximun –dio andreak,
arrosa ta klabedin–,
nik joana uste zintudan
bazkari-zarearekin.

Hasarre beltzak harturik,
arrosa ta klabedin,
Banbruxaneko nausiak
nola ihardets ez jakin.

Akuluaaz berehala,
arrosa ta klabedin,
aldizka zanpatu ditu
mutila eta Kattalin.

Oraiko huntan hargatik,
arrosa ta klabedin,
behi bazterketaria
akuluak zentzatu din.

– Ai, ei, ai! –zion andreak,
arrosa ta klabedin:

Ez egin egin adarrik
akulu-gider horrekin.

Zonbat emazte munduan,
arrosa ta klabedin,
beren jaun giza-gaizoak
tratatzen tuzte berdin.

Jauna kanpoan delarik,
arrosa ta klabedin,
esne-gain guzia jaten
bi mila atseginekin.

Gero jauna afaitean,
arrosa ta klabedin,
“gatuak in du” erranik,
hor konpon gezurrarekin.

Kanta au A. Apat-Etxebarne (Aingeru Irigaray) zanak argitaratu zuan, *Diario de Navarra* egunkarian, 1975-V-25-ean, bertsoen ondotik oar au egiñez: “J. H. deitu batek 1897 urtean egina”.

Itxura danez, kanta au ez da erriaren aotik jasoa, gizon eskolaturen batek idatzia baizik. Baiña bai dotore eta erriaren senaz asmatua.

I

*El señor de Banbruxane,
rosa y clavel,
para guardar la casa
tiene una encantadora esposa.*

– ¿A dónde vas, hombre?
¡Rosa y clavel!
– Voy al bosque
con hacha y cuerdas.

- *Lejos está, lejos, el bosque,
rosa y clavel;
para comer al mediodía
¿cómo te las arreglarás?*

- *Para comer al mediodía,
rosa y clavel,
mi encantadora esposa
vendrá con la cesta.*

*El bosque de Basaburu,
rosa y clavel,
¡qué hermoso, con los golpes de hacha
y los cantos de los pájaros!*

*Desde lo alto de la torre de la iglesia,
rosa y clavel,
hasta el bosque las horas
van llegando: tin-tin-tin.*

*Las diez, las once, las doce,
rosa y clavel;
el apetito ya es venido,
pero la cesta no.*

*Ésta es la historia,
rosa y clavel;
que el cuarto y la media van sonando
pero no aparece Katalin.*

*También ha sonado la una,
rosa y clavel.
El señor de Banbruxane
no aguanta más el hambre.*

*Dejando las pilas de leña,
rosa y clavel,
se vuelve hacia casa
con el hacha y las cuerdas.*

*Al entrar en casa,
rosa y clavel,
encuentra a Katalin
con el criado de la vecindad.*

*Comían el uno frente al otro,
rosa y clavel,
con el blanco mantel lleno
de delicadas viandas y vinos.*

*Que el diablo se los lleve,
rosa y clavel.
- Éste harto y yo de hambre,
¿qué te parece, Katalin?*

*- ¡Ah, Simón -le dice la esposa,
rosa y clavel-.
Yo creía que habías ido
con la cesta de la comida.*

*Llevado de ciega cólera,
rosa y clavel,
el señor de Banbruxane
no sabe cómo responder.*

*Con la aguijada, en seguida,
rosa y clavel,
ha zurrado por turno
al criado y a Katalin.*

*- ¡Ay, ay, ay! -dice la esposa
rosa y clavel-.
No me machaque
con el palo de esa aguijada.*

*¡Cuántas esposas en el mundo,
rosa y clavel,
a sus pobres maridos
les tratan de la misma manera!*

*Mientras el marido está fuera,
rosa y clavel,
se comen la nata de la leche
relamiéndose de gusto.*

*Luego, cuando el marido cena,
rosa y clavel,
diciendo “el gato lo ha hecho”
lo arreglan todo con una mentira.*

*En este caso, sin embargo,
rosa y clavel,
a la vaca rebelde
la agujada le ha hecho entrar en razón.*

"Goizean Parisen..."

I

Goi-ze-an Pa-ri-sen, ga-be-an Pa-ri-sen Au da
Pa-ri-si-ko ka-le-en lu-ze-a! Goi-ze-an Pa-ri-sen, ga-be-an
Pa-ri-sen au-da Pa-ri-si-ko ka-le-en lu-ze-a! Au-xe ka-le au pa-sa-ta
ba-neu-ko, a-tze-ko man-do go-ri-ay neu-re-a. Au-xe ka-le au pa-sa-ta
ba-neu-ko, a-tze-ko man-do go-ri-ay neu-re-a.

Goizean Parisen, gabean Parisen,
au da Parisko kaleen luzea!
Auxe kale au pasata baneuko,
atzeko mando gorri au neurea.

Izerdi patsetan, alboka osketan,
zazpi legoa bete dan kalea.
Zazpi legoak eginda baneukaz,
arrati etsera mando-jaubea.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco kantutegia*, 841 zenbakian, 977 orrialdean, Bizkaian, Bediako Juan Martin Ibarretxeri jasoa.

Argibide luze auek ematen ditu Azkuek kanta oni buruz, bere kantutegi orren itzaurrean:

“Uno de ellos –de los tañedores de albogue–, arratiano que sepreciaba de sus pulmones, apostó con un vecino a que recorría, montado, la calle más larga de París sin dejar de tañer un solo momento. El objeto material de la apuesta consistía en un mulo, según unos, blanco: mando zuria; según otros, rojo: mando gorria; en opinión de otros, gris: mando urdina. De esta última opinión es el hoy castellano del fuerte de Arraiz, último albokari consultado por mí. Salieron de Arratia mis hombres, transpusieron colinas, montañas y cordilleras; recorrieron llanuras en que se perdía la vista, vadearon arroyos y ríos y llegaron por fin a París. Inquirieron a su manera cuál era la calle más larga, la rue Vaugirard de la época; montaron ambos en sendos mulos, y el artista, que era el precedente, rellenó sus pulmones de quel aire de París que a tantos embriaga y empezó una sonata (no sé si también descendiente de la Breña); y la repetía y la volvía a repetir y a repetir y a repetir; y tanto la repitió que, habiendo empezado a sonar sus primeras notas por la mañana, las últimas sonaban sin interrupción a la noche, según la letra misma del cuento...”

...De la segunda estrofa sólo han llegado a mí, bien terminantes, estas palabras: zazpi legoa luze dan kalea, “calle que tiene de largo siete leguas”. No vale la pena de citaros las que he puesto por vía de remiendo. Añade el pueblo que al final de la calle, viendo el antagonista que el tañedor había de ganarle el macho que montaba, se le adelantó, le cubrió el cuerno por donde salía el aire y el sonido; y el albokari, sofocado, desinflados sus mofletes, perdió su color de grana y cayó de la cabalgadura sin fuerzas, sin vida...”.

II

Goizean Parisen, gabean Parisen,
Parisko kaleen luzea.
Auxe kale au pasata baneuko
atzeko mando au neurea.

R. M. Azkueren esku-idazkietatik. Ez det uste iñun argitaratu zuanik.

Doiñua ere badu, baiña oso illun idatzita. Irakurri ezin. Ez degu onera aldatzerik izan.

Doiñuaren aurretik itz auek: “Albokaria....., arnasea..... barik Parisko kaleak igaro...”. Puntuz idatzitakoak, Azkueren letra ezin ulertu izan ditugun uneak dira. Aurrerantzean ere berdin egingo degu.

Doiñuaren ondotik beste bi bertso eta beste zenbait argibide:

"Atso zarra, zarra, zarra,
. . . . gauean negarrez,
eratsi naizu, eratsi naizu
Jaungoikoaren amorez.

Atso zar bik alkarri
gona barriak ekarri;
batak eun ta amar urte ta
besteak eun ta amabi.

Albokariari Parisko kalean alboka zerratu eutsan ta ito egin zan.

*Domingo Berrio (barrio de San Antonio) Amorebieta, conoce estos Meisterrin-
geri. Atxurlari, mendigo una vieja del mismo barrio cantadora y con-
tadora".*

I

*A la mañana en París, a la noche en París,
¡qué largura la de las calles de París!
Si hubiera pasado esta calle,
este mulo rojo de atrás sería mío.*

*Bañado en sudor, con los sones del alboque,
una calle que mide siete leguas .
Si hubiera hecho las siete leguas,
a (mi) casa de Arrate dueño de un mulo.*

“Guti gostarik bildurik...”

I

Bolanjera edo andre okina

Guti gostarik bildurik, sosak baditu okinak:
baditu, aitortu daizkit, ez du lotsarik kokinak.

- Diru hoik nundik ditutzu, anderetan xarmantena?
- Meraren moltsa joritik, usu heldu baita hunat.

Soldado ergelak ere jin dira labe huntara,
bainan gerlariak baino nahiago dut jaun mera.

Jaunxkilek ele pollitez nahi ninduten xoratu;
ele pollitek ez daudet bihotza nehoz hunkitu.

Fraile bat ere jin zautan lili buketa eskuan,
bainan lorez asetzeko ez nintzan sortu munduan.

- Ni, anderea, ez nuzu ez jaun mera, ez soldado,
ez jaunton, ez eta fraile, bainan xoilki okin bero.
- Erran duzu “okin bero”; zer diozu hitz orrekin?
- Anderea, jitez nuzu jende amorosen okin...
- Ez dut nehoiz egun arte hitz bitxi hori entzuna:
nola ofizio hortan daramazu zure lana?

– Lagun har banindezazu, artoski orra nezake
zure labore maitea, segur kontent baitzintazke.

Gauaz ere hor nindaike beti zure zerbitzuko,
labe haga esku-pean behar ordutz labatzeko.

– Zuk bederen badakizu ozarki adi-erazten
ene bertute flakotik zer duzun igurikatzen.

Halere nahiago dut ene betiko jaun mera,
ixil-ixila baitaki nola ni diruz ohora.

Horra nola bolanjertsa asetzen zaikun ohorez,
okasturik nitzaio kolpez itzuli bizkarrez!

Piarres Lafitte: *Amodiozko kantak Lapurdin, Baxenabarren eta Ziberoan, Bilintx (1831-1876) liburuan*, Donostia, 1976.

Kanta au, Lafitte jauna zanak oar batean esaten duanez, XIX mendearren bukaera aldeko kahier edo kuaderno batetik artua du.

Aurretik, berriz, adierazpen au egiten du: "...Halere, ez baita hemen umerik, etxenplu gisa, ogi-egile andere baten kontrako bertsu batzu irakurrik dauzkitzuet, barkamendu galdeginez heien ozarkeria gatik".

I

*Reunidos a poco coste tiene dineros la panadera;
los tiene, me lo ha confesado, no tiene vergüenza la muy atrevida.*

– ¿De dónde tienes esos dineros, la más encantadora de las mujeres?
– De la abultada bolsa del alcalde, pues viene a menudo por acá.

*Los infelices soldados también vienen a este horno,
pero más que a los guerreros prefiero yo al señor alcalde.*

*Los señoritos me querían encantar con palabras bonitas;
las palabras bonitas no me commueven el corazón.*

*También me vino un fraile con un ramo de flores en la mano;
pero no vine al mundo para contentarme con flores.*

- Yo, señora, no soy ni señor alcalde, ni soldado, ni señorito, ni siquiera fraile, sino solamente un ardiente panadero.
- Has dicho “ardiente panadero”. ¿Quéquieres decir con esa palabra?
- Señora, soy por temperamento panadero de las amantes.
- No había oído nunca, hasta hoy, esa rara expresión.
¿Cómo llevas tu trabajo en ese oficio?
- Si me tomaras como compañero, con gran arte amasaría vuestro amado quehacer; seguro que os contentaría.

Aun de noche estaría siempre a vuestro servicio,
con un palo de horno en la mano para enhornar cuando haga falta.

- Tú, por lo menos, sabes explicar atrevidamente
qué es lo que esperas de mi flaca virtud.

Así y todo, prefiero a mi señor alcalde de siempre,
pues sabe cómo honrarme a mí calladamente con dinero.

He ahí cómo se hincha de honor la panadera;
disgustado, le he dado de golpe la espalda.

"Ote da mundu huntan..."

I

Ote da mundu huntan deus ere gai denik
judu erratiari konpara daitenik?

Nik ez dut uste baden nehon miserablerik
haren zortiari hurbil daitekenik.

Egun batez pasatzian hiri baten aldetik,
buryes batzu zitzaizkon jarraiki ondotik;
zioten ez zutela ikusi gizonik
harek bezain bizarra luzia zuenik.

Ikusi zutenian beren presentzian,
zenbait estrañer zela jarri ziren dudan:
arropa forma bat soinian, zela adin haundian,
langile bat bezala taulierra aitzinian.

Erran ere zioten: – Egun on, nausia!
Desiratzen ginuke zure mintzatzia,
satisfa dezagun gure desirkondia,
bai eta ere akorda hemen dringatzia.

– Aitortzen derautziet malur bat dudala,
etzitezuela duda, egia bera da:
euri edo denbora hun, beti kurri nabila,
nehon ez naite geldi, juan behar aitzina!

– Ostatuan sar zaite gurekin, gizona,
edatera emanen daizugu arnua:
errezibi dezaguzu gure ofreimena,
borondate hunian egiten daizuguna.

- Ostatuian sar nindaite ziekin gogotik,
bai eta ere edan zien arno hunetik;
ni ezin jar naiteke... edanen (dut) xutik,
tormentek hartzen naute geldituz geroztik.
 - Aitortzen deraizugu kurios girela,
zure adinaren berri jakin nahi ginukela;
ehun urte baituzula iduritzen zaigula,
edo zure bisaia tronpos da bertzela.
 - Ene hezurrak dira arras zahartiak,
bai eta ere urtez anitz kargatiak;
emezortzi ehun urte baitut pasatiak,
hetaz izan zizte oi segurtatiak.
 - Zu ote zira bada gizon famatia,
mundu guzia baita ongi estonatia?
Satisfa dezaguzu gure izpiritua,
heia zu zarenez Judu erratia.
 - Izraelgo hirian izan niz deitua.
Jerusaleme famos hirian sortua;
satisfa bedi beraz zien izpiritua,
jaunak, ni nuzie, bai, Judu erratua.
- Munduia pasatu dut bosgarren aldian,
orai berdin abantxu seigarrenian;
bakotxak hiltzen dira nor bere aldian,
eta ni ezin hilez nabila mundian.
- Europan ikusi dut heriotze anitz,
mihiz esplikatzia posible balitz;
espreski horietan ibili izan niz,
nola edo zerbait ere giseten hil nahiz.
- Pasatu izan nintzan hiri herriean,
kausitzen ahal nituen gerla guzietan,
etsenplu hartu izan aisa horriean
eriuak ez duela indarrik ni baitan.
- Leihorra pasaturik, egin itsasua're,
geldituren ninduela agian hark ere;
nik samur nahi eta ginen adiskide,
enetako berdin du edozein bide.

Nik ez dut zorrik iten batere etxetan,
ez eta hartzekorik nehon bazterretan;
beti bost sos sobera baditut sakeletan,
euri edo denbora hun toki guzietan.

– Entzuten ginituen munduian erranak,
aments batzu zirela haren arrazoinak;
ongi ikusten tugu zure trabailuak,
bai eta ere sinesten direla egiak.

Zure ospe haundiak estonatzen gaitu,
gure izpirituan dudatzen baigitu;
dudarik gabe duzu ongi merezitu,
Jaunak zituenian zu hola punitu.

– Neure gaizki haundia, erranen egia:
gaizki tratatu nuen nik Jesus maitia;
izan behar bidian urrikalmendia,
zerbitxatu izan nuen krudelitatis.

Jesus jiten zelarik Jerusalemetik,
kurutze saindu hartaz ongi kargaturik,
galdegin izan zerautan umiliaturik,
heian plazer nuienez bortan pausaturik.

Nik, buruia nahasia eta errebelia,
ezetz erran nakon, seurki, berehalia:
“Habil hortik aitzina, habil, kriminela!”,
Haren han pausatziaz afrontu nuiela.

Jesusek erran zerautan ordian berian:
“Mila urtez bederen ibiliko hiz mundian,
deskansian izanen hiz ororen burian,
pena guzietarik libro azken juiamendian”.

Partitu izan nintzan ordian berian,
pena, xangrin, dolore guzien erdian;
geroztik beti kurri nabila mundian,
deskansurikan ez da ene gorputzian.

Denborain presentzian, adios konpaña!
Erremesiatzen dut zien kuraiyia;
juan behar niz aitzina, oi hau doloria!
Bestela enetzat tormenta haundia.

Jose Maria Satrustegi: *Judu erratuaren kantiak, Gure Herria*, 1966, agorrila.

Kantu kanta kantore bilduma, Baiona, 1967. Onek Satrustegik bezela ditu bertso guziak, uskeri bat edo beste izan ezik.

Gero esango degunez, kantu au beste zenbait tokitan ere arkitu degu. Satrustegirena da, ordea, agerraldirik osoena. Orregatik, danen aurrean ezarri degu, zaarrena ez bada ere.

Berak bertsoak nundik artu dituan adierazi bearrez, onela dio J. M. Satrustegi jaunak:

“Ogei ta lau bertsuko *Judu Erratuaren* eskual kantu bat badugu. Eskuz idatzia da eta lauetan ogei urteko Luzaidar batek bere gazte denboran kopiatia”.

Bere idazlanaren bukaeran, berriz, onela esaten du:

“Gaiñekoletako bidean bada Luzaiden bazter etxe bat: Otxinenia. Behin baino gehiagotan jarri gira sukaldean iñoz ez genituen gauzen markatzen! Beste anitzen artean, *Judu Erratuaren* kantu auek zor dizkiogu Josefa Espondaburu, Otxinesari. Ala aitortzen dugu eskerrak emanez”.

Bertsoen aurretik argibide jakingarriak ematen ditu:

“Aipatuak dira Euskal-herrian *Judu Erratuaren* kantiak. Gogoan dut lauetan ogei urtez goiti joana zen emazte baten errana: “Bizi dena gerta laike *Judu Erratuaren* noizbait ikusten; ehun urtetarik behin egiten omen du agerraldi bat”. Egia ta fedia bezala zuen ori sinesten.

Jesu-Kristoren denboratik heldu izan behar zaio Juduari bere nahi-ta-ezpadako ibil-beharra. Kalbario bidean Jaunak egin galdia bortizki errefusatzeak ekarri zakon, erromes gisa, ezin-hilezko bizi luze bat bidez-bide errestan uzttea”.

Ondoren, kanta onen argitalpen batzuk aitatzentzu ditu. Lan ori bereala egingo degu guk ere. Oietako bat, Nehon eta Dufau-k *Gure Herria* aldizkarian. 1926 urtean, argitaratu zutena da. Onek oso gauza berezia du. Frantzesez ere badirala gai ontaz bertsoak esaten du, eta oietxek ere eskeintzen ditu. Ain zuzen, ogei ta bertso dira, Satrustegik dituan bezela. Eta bertsoz bertso gai berdintsuak erabiltzen dira bi izkuntzetan.

Frantzes bertsoak, *Gure Herria* aldizkarian daudenez, aurrerago eskeiñiko dizkiogu irakurleari. Beraren gain geldi dedilla, beraz, nork nori kopiatu dion erabakitzea: euskerak frantzesari ala frantzesak euskerari. Satrustegik ere, frantzes eta euskal bertsoak konparatuz, gogotik saiatzen da auzi ori garbitu nairik. Nik, beintzat, itxura geiago artzen diot frantzesetik euskerara itzuli izana.

* * *

Bere *Luzaireko kantiak* izeneko liburuan ere (*Auspoa* 65, 1967) argitara eman zituan Jose Maria Satrustegik ogei ta lau bertso auek, aurretik argibide jakingarriak emanez:

"Aspaldikoak dira Euskalerrian "Judu Erratuaren" kantiak. Bere denbora guzian munduz ibili zela ta, bizi dena gerta laikela berriz ere aren ikusten, aditzen genien xaharreri. Lengo mendean agoz ago zebiltzen gure artean kantu auek.. Eta ez eskuaraz bakarrik; frantsez eta español, aleman, ingles eta italianoz ere ezagutua zen suyet au".

Ondoren:

"Ageri da eskuarazko bertsuen egileak frantses paperra zuen begien aintzinean; punduz pundu gai berdina dute biak eta lerrokada berean emanak dira bertsuak. Gañera, eskuaraz erdizka bakarrik adierazten diren punduak, argi ta garbi ekartzen ditu besteak. Izenak, batez ere, nahasiak dira eskual kopian.

Alare, bai batek nola besteak gorago dute beren iturburua. Europa erdi aldeko kutsua badute. Bigarren bertsuan aipatzen diren "buryes" oiek nortsu zazteken jakiteko aski dugu frantses paperra eskuan artzea:

"Des bourgeois de la villa / de Bruxelles, en Brabant".

Gañera, eskual bertsutan arnoa eskeintzen dakoten bezala, garagar arnoz mintzo da erdaraz: *"D'un pot de bière fraîche"*. Europa erdi aldeko edaria.

Judu erratuak izen frango ukana ditu bere bizi luzean: "Abasuerus", "Ahasverus", "Isaac Laquedem". Eta Xubero aldean "Judiferran" erraiten dakote.

Nola nahi dela, kantutan den judua ez da gizon bat, xaharrek uste duten bezala. Israelgo herria du kantuak bere lerrotan, Bere lurrik ukamen eztuen erria bezala jotzen zuten lengo jendeak. Eta orai berean ere badira sineste ori dutenak. Azken juizioa etorriko omen da juduak errialde baten jabe izaiten dielarik..."

Jose Maria Satrustegi jaunak berriro erabili zuan judu erratuaren gai au *Fontes linguae vasconum* aldizkarian, 1975 urtean, berak Luzaiden jaso zituan bertsoak eskeiñiz eta adierazpen jakingarri asko emanez.

J. Lakarra. K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1984), II tomoan, 116 orrialdean.

Luis M. Mujika: *Euskal lirika tradizionala (I)*, Donostia, 1985, 121 orrialdean: kanta onen euskal testua eta beste izkuntzetako konparatzen ditu azterketa jakingarri bat egiñez.

II

Je - sus hel-du ze - la - rik Kal - ba - ri - o - ra, Ku - ru-tze-az biz -
 ka - tra on - gi kar - ga - tu - a, gal - de - gin i - zan zau - tan, hu - mi - li - a - tu -
 a, ei - an u - tzi - ren nu - en bor - than pau - sa - tu - a.

Jesus heldu zelarik Kalbariora,
 kurutzeaz bizkarra ongi kargatua,
 galdegin izan zautan, humiliatua,
 eian utziren nuen bortan pausatua.

Nik izatu nuen hain bihotz krudela,
 ezetz erran bainion, ezetz berehala:
 “Aparta hadi hortik, gaixto kriminela,
 hi bortan pausatzia afruntu dudala!”

Ez da munduan gizonik, ez alimalerik,
 judu herratua bezain malurus dagonik;
 ez nuke uste deus baden ere gai denik
 haren zorte tristian konpara daitenik!

Pasatzen nintzelarik hiri batetarik,
 bi *burjes* zitzaizkidan jarraiki ondotik,
 ziotela etzutela ikusi gizonik,
 oi ni bezein luzeko bizarre duenik!

- Sar zaite ostatura gurekin, gizona,
 izanen duzu edatera arno gorri ona;
 zurekin pasa ginitzazke gau eta eguna,
 bai eta ere konpli desira duzuna.

– Sar ere banaiteke ostatura zuekin,
edan ere badezaket zuen arno onetik;
jarriko ez naiz, bainan egonen naiz xutik...
T tormentek hartzen naute, oi, jarriz geroztik!

– Erranen duzu, gizona, kurios girela,
zure adinaren berri jakin nahi dugula;
ehun urte baditutzula iduritzen zaikula...
edo zure bizarre tronpakor da bertzela...

– Ene hezurrak dire arras gogortuak,
eta denborak orainon ez akabatuak;
hemezortzi ehun urte baitut pasatuak,
hortaz izan zaitezte, oi, seguratuak.

Izatu naiz herrietan, bai hiri orotan,
gerta ahal daitezken gerla guzietan;
etsenpluak aise'tut hartu nik heietan,
herioak ez duela indarrik ni baitan.

Mundua pasatu dut bortzgarren aldian,
hiltzen ere badire zoin beren aldian;
eta ni ezin hilez ibilki munduan!...
Azken juiamenduan... zeruko lorian!

Judu Herratuaren kantuak, Mélodie de Nehor et Dufau, Gure Herria aldizkarian, 1926, argibide onekin:

"Telle est, en basque, la Complainte fameuse du Juif-Errant. Nouz avons été heureux de l'exhumer, à Sare, telle qu'elle se chantait beaucoup chez nous, il y a quelque 60 ans".

Satrustegi jaunak, esan degunez, ogei ta lau bertso eskeintzen ditu. Onek, berriz, amar bakarrik, bertsoak beste ordena batean eratuta eta aldaketa askorekin.

III

O-te da mun-du hun-tan deu-se-re gai de-nik Ju-du e-rra-tu-

a - ri kon - pa - ra dai - te - nik? Ez, ez da mun - du hun - tan zi - o - ten gi - zo -
nik ho - rrek be - zain bi - za - rra lu - ze - a du - e - nik.

Ote da mundu huntan deus ere gai denik
judu erratuari konpara daitenik?
Ez, ez da mundu huntan zioten gizonik,
horrek bezain bizarre luzea duenik.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco*, 428 zenbakian, 536 orrialdean, Ba-xenabarren, Orabarreko J. B. Pagadoyri jasoa.

IV

O - te da mun - du on - tan deus e - re gai de - nik ju - di - o e - rra - tu -
a - ri kon - pa - ra - tzen de - nik. Bat - re gel - di - tu ga - be mun - du - ti - kan da -
bil, lan - gi - le bat be - za - la tau - lie - rra ar - tu - rik.

Ote da mundu ontan deus ere gai denik
udio erratuari konparatzen denik?
Batre gelditu gabe mundutikan dabil,
langile bat bezala taulierra arturik.

Jesukristo yin zelaik kalbariotik,
gurutzea soiñean arras akiturik,
galde egin zerautan umiliaturik,
ur-txorta bat nezola, bortan pausaturik.

O, ni gizon kruela eta errebelatik!
Errespuesta eman nion ezetz bereala;
orduan erran nion: gizon kriminela,
ura an pausatzeaz afrontu niela.

Jesusek erran zidan bereala orduan:
"Mila bat urte seurik biziko aiz munduan;
oiek pasatu eta azken yuiamenduan
niaurek sartuko yaut zeruko glorian".

Pasatu nintzelarik iri batetarik
bi burges zitzauzkidan jarraiki ondotik.
Etzutela, zioten, ikusi gizonik,
nere bizarre bezain luzea zuenik.

– Jar zite ostattuan gurekin, gizona,
edaten main dizugu ardo gorri ona.
Zurekin pasa litezke gau eta eguna,
bai eta ere kunpli deseо duguna.

– Yar ere banindaike zuekin gogotik,
bai eta edan ere zuen arno onetik.
Enaikaе yarri, baina edanen dut txutik,
atormentatua naiz yarriaz geroztik.

– Erraiten dauzugu, gizon, kurios eztela,
zure adinaren berri yakin naiez gaudela.
Eun bat urte seurik gaude baituzula,
edo zure bisaia trufos da bertzela.

– Emezortzi eun urte ditut pasatuak,
oietan geldi zizte, o, segurtatuak.
Nere ezurrak dire arras gogortuak,
eta denborak oraino ez akabatuak.

Egon naiz irietan, erri oroetan,
aurkitzen al ditudan gerra guzietan;
etsia arturik nago bein eta bietan,
erioak eztuela balio ni baitan.

Legorra korritu eta man dut itsasoa ere,
geldituko nabela agian ak bedere;
nik asarre nai eta ororekin adiskide,
neretako berdin da, o!, edozein bide,

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 428 zenbakian, bigarren lekuau, 537 orrialdean, Naparroan, Mezkiritzko Graziosa Errearen aotik jasoa.

Bi tokitan aldatu egin degu, orrela bear dualakoan, Azkuek eskeintzen duan testua.

Sail ontako amargarren bertsoan –Satrustegiren 14-garrenean–, irugarren lerroan, *etxea arturik nago* idazten du Azkuek. Dadarik ez da *etsia arturik nago* esango zuala emaleak. Guk orrela idatzi degu.

Eta Azkueren seigarren bertsoan, laugarren lerroan, onela esaten du Azkuek: “bai eta bere bete atsegin duguna”. Baiña orrialdearen barrenean opar bat egiten du, onela esanez: “*Kunpli deseo duguna, dijo Graciana*”. Guk ere onela idatzi degu.

Bere *Euskalerriaren Yakintza*-n ere, IV tomoan, argitara eman zuan Azkuek kanta au, baiña aldi ontan doiñurik erantsi gabe eta beste zenbait aldaketa-rekin.

V

O - te da mun - du hun - tan ni be - za - la de -
nik, nik be - zen bat do - lo - re su - fri - tzen du - e -
nik? So - ta - na ba - dut bai - na ez - tut or - de - na -
rik, gu - zi - ak su - fri - tzen di - tut Jin - ko - a - ren ga - tik.



Ote da mundu huntan ni bezala denik.
nik bezenbat dolore sufritzen duenik?
Sotana badut baina eztut ordenarik,
guziak sufritzen ditut Jinkoarengatik.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 429 zenbakian, 540 orrialdean, Hazparneko ospitalean amona bati jasoa.

VI

Je - sus ze - la - rik ji - ten Gal - ba - ri - o -
tik, be - re ku - ru - tzi - ez on - gi kar - ga - tu -
rik, e - erran u - kan zai - tan u - mi - li - a - tu -
rik pla - zer nin-dua - nez u - tzi bor - tan pau-sa - tu - rik.

Jesus zelarik jiten Galbariotik,
bere kurutziez ongi kargaturik,
erran ukан zaitan umiliaturik
plazer ninduanez utzi bortan pausaturik.

Oi, ei, eta eniza gizon krudela?
Ezetz erran neion, ken ledin berhala,
ezetz erran neion, ken ledin berhala,
aren bortan ukenez afrontu niala.

R. M. Azkueren esku-idazkietatik. Ziur asko, argitara eman gabe. Ez du esaten noren aotik eta nun bildu zuan.

VII

Jesus heldu zelarik kalbariora,
kurutzeaz bizkarra ongi kargatua,
galdegin izan zautan, umiliatua,
eian utziko nuen bortan pausatzera.

Nik erakutsi nuen hain bihotz kru dela,
ezetz erran bainion, ezetz berehala:
“Aparts adi hortik, gaixto kriminela,
hi bortan pausatzea afruntu dudala!”

Ez da nehus gizonik, ez alimalerik,
judu herratuari kunpara daitenik;
ez dut uste deus baden munduan bizirik,
ni bezala herrestan malurus dagonik.

Pasatzen nintzalarik hiri batetarik,
bi burjes zitztaizkidan jarraiki ondotik,
erranez ez zutela ikusi gizonik,
oi, nik bezain luzeko bizarra duenik.

– Sar zaite ostatura gurekin, gizona,
gurekin edateko arno gorri ona...
Pasa zaitzu pausatzen gau eta eguna,
guk kunplituko dugu desira duzuna.

– Sar ere banaiteke etxe an gogotik,
zuekin edateko arno on gorritik.
Jarriko ez naiz, bainan egonen naiz xutik,
tormantek hartzen naute, oi, jarriz geroztik.

– Jauna, erranen duzu kurios girela,
zure adinen berri galdetzen dugula:
ehun urte ditutzu eginak gisala,
edo zure bizarra tronpos da bertzela.

– Ene hezurak dire arras gogortuak,
eta ene denborak ez akabatuak...
Bi mila urte hurbil baitut pasatuak,
hortan izan zaitezte, oi, seguratuak.

Izan naiz herriean, bai hiri orotan,
gerta ahal ditaizken gerla guzietan.
Izigarriko froga egin dut heietan:
herio beltzak ez du indarrik ni baitan.

Mundua pasatu dut bortzgarren aldian,
guziek hiltzen dire zoin bere orduan;
eta ni ezin hilez ibilki munduan,
azken juiamendua eterri artean.

Errepikan izeneko kanta-bilduman, Baiona, 1944. Alegia, Satrustegik eskeintzen dituan 20, 21, 1, 2, 6, 7, 8, 9, 14 eta 12-garren bertsoak, orden ontan eta itzak oso aldatuta.

Bertso oiek berak eskeintzen dizkigu, bilduma ontan bigarren lekuaren jarri degun aldaerak. Baiña aldaketa asko ditu *Errepikan* izeneko bilduma orrek eta osorik agertu bear zala pentsatu degu.

Aita Onaindia: *Milla euskal olerki eder*, Larrea, Amorebieta, 1954.

Herria astekaria, 1963-XI-14, aurretik onela esanez: "Galde egin dauzkuten Judu herratuaren kantuak. Asko izan dira. Huna guk eskupean ditugun bakkarak. Norbaitek balu bertzerik, igor ditzagula".

VIII

The musical score consists of four staves of music in common time, treble clef, and G major (two sharps). The lyrics are written below each staff. The first staff contains the first two lines of the song. The second staff continues with 'be - re gu - ru - tzi - az on - gi kar - ga - tu - rik.' The third staff continues with 'Gal - de - tu i - zan zau - tan hu - mi - li - a - tu - rik,' followed by a single note. The fourth staff concludes the melody with 'i - an u - tzi - ko nu - en a - ti an pau - sa - tu - rik.'

Je - sus hor hel - du da Gal - ba - ri - o - tik
be - re gu - ru - tzi - az on - gi kar - ga - tu - rik. Gal -
de - tu i - zan zau - tan hu - mi - li - a - tu - rik, i -
an u - tzi - ko nu - en a - ti an pau - sa - tu - rik.

Jesus hor heldu da Galbariotik,
bere gurutziaz ongi kargaturik.
Galdetu izan zautan humiliaturik
ian utziko nuen atian pausaturik.

- Nik, gizon gaiztua eta kriminela,
ezetz erran nion hari berala:
– Hua hortik aintzina, kriminel gaiztua,
hi hor ikustiaz afronta nuela.
- Jauna, zato gurekin ostatu huntara;
emanen derautzugu arno kolpe bana;
arno kolpe bana ta konpañia ona,
eta harekilan konpañia ona.
- Pasatzen nintzelarik hiri batetarik,
jaun batzuek jarraiki izan zaizkit ondotik:
Munduan, zioten, etzela gizonik
nik bezin haundia bizarre zuenik.
- Jaunak, etorri nindake zuekin ostaturat,
bai eta ere edanen zuen arno onetikan.
Ez naiz promis yartzia, egonen naiz xutik,
geldituz geroztik tormentatua naiz.

Nere hezurrak dire arras zahartuak,
eta urtiak ez akabatuak:
hemezortzi ehun urte baditut pasatuak,
eta urtiak ez akabatuak.

Milla urte huntan biziko haiz munduan,
zeruko gloria izanen duk azken yuyamenduan.

.....
.....

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 617 zenbakian, 843 orrialdean, argibide auekin:

“Infor.: Ganex Iriart, 54 años, nagusi del caserío “Mutillaine” (Sara). Loc. rec.: Sara. Fecha: 13 de octubre de 1922. Clas.: narrativa”.

IX

Ote da munduan deus ere gai denik
judu herratuari konpara daitenik?
Ez dut uste baden munduan gizonik,
horrek bezain bilua luzia duenik.

Ikusi izan da Beljikako herrian,
Bruselako hirian, karrikaren gainian,
bere bizarrek barnian,
zikin bildurrez lurrazen gainian.

- Gizon xahar maitia, hementxet pauza zaite,
..... edateko mement bat jar zaite.
- Bai, bai, nuke maite, gogotik jar nindaike,
jarriz geroztik tormentek hartzen naute.

Iñaki Beobidek Bidarrain magnetofonoz bildua. Puntuz idatzi ditugun utsune oiek, ulertu ezin izan ditugun itzak beteko luteke.

X

Satrustegik *Gure Herria* aldizkarian agertu zuan *Judu erratuaren kantiak* idazlanaren ondotik, L. Dassance zanak beste argibide batzuk ematen zituan.

Xanbra Santa-Garaztar kantari zanaren kaier batean, judu erratuaren amar bertso arkitu omen zituan. Bestetan ere badaude bertso oiek, baiña emen oso aldatuta. Bi bakarrik agertu zituan Dassance jaunak. Baiña beraren paperetan guziak arkitu ditugu. Onako auek dira:

Ote deia mündian ihur ere gaitz dünik
jüdi herratü bati konpara daitenik?
Eztit uste baden miseriarik
jüdi herratü hari konpara daitenik.

Pasatzen nintzalarik hiri bat gainti,
bilua judazazeitan jerreiki ondotik;
zioten etzütela ikusi gizonik,
nik bezain bizarrea lüzia zianik.

- Sar zite barnera gureki, gizona,
edatera ükenen düzü ardu gorri huna,
edatera ükenen düzü ardu gorri huna,
bai eta konplitüren zure deseña.
- Jin zinte gogoti ziekin, gizona,
edan ere banioka zien ardu gorri huna;
sartzen baniz ere egonen niz xüti,
turmentiek hartzen naie jarri gerozti.
- Erraiten dereiziet kürios girela,
zure adinaren jakin nahian girela,
ehün urte badüzüla üdüri zaikula,
edo zure figura hanitx tronpus da.
- Ene hezürrak dira arras zahartiak,
eta urtiak aldiz ez akabatiakü
hamazortzi ehün urte badit pasatiak,
honez segürta zite, ene adiskidiak.

Jesús zuelarik Kalbariualat,
bere kürütziaz ontsa kargatia,
ümiliatürik erran zaiten ütz nezan pausatzera,
kürütziaren pian inerik zela.

Ai, ei, eniza otean ni gizon krüdela?
Ez et'erran neion ken ledin berala,
ez et'erran neion ken ledin berala,
afruntü zeitadala haren han ükeitia.

Jesüsek eman zeitan errepostü berala:
“Nik pausatüren nük plazer düdan bezala.
Hik bi mila urte egaranen dük ebilten mündian,
gero irus hizate eternitatian”.

Izan nüzü bortietan hanitx lekütan,
kausitzen ahal nian gerla güzietan,
bena aisa dit nik etsenplü haietan,
heriuak eztiala parterik, oi, nitan.

Bigarren bertsoaren bigarren lerroa eta zortzigarrenaren laugarrena ez ditugu ondo ulertzen. Gure idazkeran okerrik izan diteke, beraz.

XI

Je - sus jus - ten da _____ Kal - ba - ri - o - tik
be - re ku - ru - tze - az on - gi kar - ga - tu - rik. Gal -
de_e-gin i - zan ze - rau - tan u - mi - li - a - tu - rik ____ e -
ne pla-zer nu - ye - nez a - te - an pau- sa - tu - rik.

Jesus justen da Kalbariotik
bere kurutzeaz ongi kargaturik.
Galde egin zerautan umiliaturik
ene plazer nuyenez atean pausaturik.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 619 zenbakian, 846 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: criado de Iribarren, natural de Hazparne. Loc. rec.: Elizondo. Fecha: 18 de mayo de 1913. Clas.: narrativa".

XII

Ba - dei - a deus mün - du - an hain sus - pre - ni - ga - tri - rik hain mi - se -



Badeia deus mündüan
hain süsprengarririk,
hain miseria handirik?
Juif errant miserablia
denbora beti penatürik,
bera dela kausa da
hola türmentatürik:
mündüan eztü pausürik.

Egün batez bere heltiin
Dofinera joaitiin,
Vieneko herri-kantiin
mendiik ikusi ziraniin,
mintzatü nahiz juan ziradiin,
hura bezain bizartsürik
etzién ikusi mündiin,
estonatürik ziradiin.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegia, 386 zenbakian, 483 orrialdean, Zuberoko Barkoxen bildua. Emalearen izena ez omen zuan idatzi.

Ondoren onako argibide auek ematen ditu:

“Émulo de Goethe, Schiller, Hamerding y otros poetas de alto vuelo, este nuestro poeta gorrión (algún menestral de Barkoxe, en Zuberoa) canta también las penas de Ahasverus, el judío errante, el cual, por haber insultado a Jesucristo, que cargaba con su cruz, vióse impelido a errar siempre sin descanso. De esta leyenda, que parece originaria de Constantinopla hacia el siglo IV, hay dos versiones: una oriental, según la cual el judío errante fue portero de Poncio Pilato; otra occidental, que le supone zapatero de Jerusalén”.

Emen, naiz eta gai bera izan, beste bertso-mota bat erabiltzen da. Orregatik beste kanta bat da, dudarik gabe. Orregatik, aurrekoarengandik berezita bear-ko luke, berez. Baiña ez dute orrela egin orain arte kanta ontaz mintzatu diranak: Azkue, Dassance, Satrustegi... Ala, guk ere alkarren segidan jarri ditugu bi kanta auek.

XIII

Badeia deüs ere mündin
hain süsprengarririk,
hain miseria handirik?
Jüdiferran miserablia
denbora beti penatürrik,
bera dela kausa düzü
hola tormentatürrik,
mündian eztü pausürrik.

Behin batez bere heltin
Dofinerat(1) juaitin,
Bieneko(2) hiri kantin,
jaun haren mintzatü nahin
hara juran ginandin
hura üdüri gizon bizartsürik
etziela ikusi mündin,
estonatü ziradin.

Erran zeren: – *Bonjour*, metra,
graziak gorde *izazü*,
mintzatü nahiz *züntüküegü*,
memento bat zurekilan
igaran nahi *ginikezü*,
otoi, erran *izagüzü*
nuntik jiten *ziradian*,
plazer eginen *deiküzü*.

– Jente hunak, parkamentü,
ene penak handi dütüzü,
mündian parerik eztüzü;
beti, beti banabilazü,
nahiz beste mündilat heltü,
Jinko Jaunak badakizü
nik zer dudan merexitü...
Orai hora dela konplitü.

Oi gizon penatia,
gaizki konposatia,
ezagün estranjer zela;
aintzinian tabliera,
oskiegilek bezala,
beti, beti badabila
pausürrik gabe mündian.
Oi punizione garratza!

Herria astekarian, 1963-XI-21-an, L. Dassance zanak bialduta.

L. Dassance jaunak lerro luzeagotan eratzen ditu bertso auek. Baiña guk jarri ditugun bezela bear dutela uste degu, puntu batzuk lerroaren barruan galdua geldi ez ditezen.

Gure Herria aldizkarian, 1966, agorrila, Xanbra Santa-Garaztar kantaria zanaren kaier batetik kopiatua. Baiña bigarren bertsoa beste onela:

Behin batez bere heltin
Dofinerat joaitin
Bieneko hiri kantin,
mündik ikusi ziranin,

mintzatü nahiz juan ziradin,
hura bezaiñ bizartsürik
etziela ikusi mündin,
estonatürik ziradin.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1984), II tomoan, 115 orrialdean.

XIV

Badeia deus mündian
hain süsprengarrik
hain miseria handirik,
juif errant miserablia
denbora beti penatürik,
bera dela kausa da
hola tormentatürik:
mündian eztü pausürik.

Gizon haren abitia
gaizki konpositia;
ezagün estranjer dela.
Tablier txar bat aintzinian
oskiegilek bezala.
Beti ere badabila,
pausatü gabe sekülan:
oi pünizione garratza!

Bai, ai, *Isak Lakere*
düzü ene izena,
Jerusalemen sortia,
herri hanitx aipatia,
Jesus Jaunak haitatia;
eta ni, hango semia,
beti malurus nizana,
mündian paregabia.

Jose Maria Satrustegi: *El cantar de “El Judío Errante”*, *Fontes linguae vasconum*, 1975. Aurretik onela dio:

“Para terminar este trabajo, daremos las versión inédita del archivo folklórico del P. Donostia, que ha tenido la atención de enviarme el P. Jorge de Riezu”.

Eta bertsoen ondoren:

“Oido a Bedekarratz, 19 set. 1927. Atharratze-Sorholüze”.

Aita Donostiak bertso auek nun jaso zituan, alegia.

(1) Dauphiné. (*Dassance jaunaren oarra*)

(2) Ville de Vienne. (*Id.*)

XV

Ba-de - ia deus mun-di - an hain sus - pre-ni-garri - rik, hain mi - se-ri-a han-di-
rik Jif e - rrant mi - se-rabli - a den - bo-ra be - ti pe-na-tu - rik be-ra
de-la kau-sa da ho-la tor-men-ta-tü - rik mün-di - an ez-tü pau-sü - rik.

Badeia deüs mündian
hain süspreningarrik,
hain miseria handirik?
Jüif Errant miserablia,
denbora beti penatürik,
bera dela kausa da
hola turmentatürik,
mündian eztü pausürik.

Gizon haren abitia,
gaizki konpositia:
ezagün estranjer dela.
Tablier txar bat aitzinian,
oski-egilek bezala.
Beti ere badabilala,
pausatü gabe sekulan:
oi pünitione garratza!

- Bai, Isaak Lakeden
düzü ene izena:
Jerüsalemen sortia.
herri hanitx aipatia,
Jesús Jaunak haitatia.
Eta ni, hango semia,
beti malerus nizana,
mündian paregabia!

- Gizon zahar hunesta,
sar tzite ostatiala,
guri plazer egitera.
Ardu dügüno botillan,
ükernen düzü edatera;
hura akaba eta
dateke berritzia,
plazer badüzü zuk hala.

- Hartüren dit edatera
bi kolpü zuekila.
Oi, parka nabastaria.
Ikusirik borondatia,
zier nula arrafusa?
Ezin jartzen niz ziekila,
hau da düdan doloria
edo konfüsionia.

- Erragüzü adina,
desir günüké jakitia,
plazer badüzü zük hala.
Hanitz zahar zirela
üdüri zünüké minala.
Ehün urte badüzüla,
hori düda gabe da,
hura pürü gutiena.

- Handi dizüt adina:
hama-zortzi ehün eta
iganarik hamar eta biga.
Urtek jenatzen naiela,
hori düda gabe da.
Handi dira ene penak

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 618 zenbakian, 844 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: Bedekarrats, carpintero de Atharratze-Sorholüze. Loc. rec.: Atharratze. Fecha: 19 de setiembre de 1927. Clas.: narrativa".

Frantzes bertsoak

Ona emen kanta onen frantzes bertsoak, ogei ta lau guzira, Nehor eta Dufau jaunak *Gure Herria* aldizkarian (1926) eta J. M. Satrustegi jaunak *Fontes linguae vasconum* aldizkarian dakarzkiten bezela:

*Est il rien, sur la terre,
Qui soit plus surprenant
que la grande misère
Du pauvre Juif errant?
Que son sort malheureux
Parait triste et fâcheux!*

*Des bourgeois de la ville
De Bruxelles, en Brabant,
D'une façon civile
L'accostent en passant.
Jamais ils n'avaient vu
Un homme aussi barbu!*

Son habit, tout difforme
Et très mal arrangé,
Fit croire que cet homme
Etais fort étranger,
Portant, comme ouvrier,
Un simple tablier.

On lui dit: "Bonjour, maître;
De grâce, accordez-nous
La satisfaction d'être
Un moment avec vous.
Ne nous refusez pas,
Ralentissez vos pas".

- Messieurs, je vous proteste
Que j'ai bien de malheur:
Jamais je ne m'arrête,
Ni ici, ni ailleurs:
Par beau ou mauvais temps,
.je marche incessamment.

– Entrez dans cette auberge,
Vénérable vieillard,
D'un pot de bière fraîche
Vous prenez votre parte.
Nous vous régalerons
Le mieux que nous pourrons.

– J'accepterai de boire
Deux coups avec vous,
Mais je ne puis m'asseoir;
Je dois rester debout...
Je suis, en vérité,
Confus de vos bontés.

– De connaître votre âge
Nous serions curieux;
A voir votre visage,
Vous paraîsez fort vieux;
Vous avez bien cent ans,
Vous montrez tout autant.

– La vieillesse me gêne:
J'ai bien dix-huit cents ans;
Chose sûre et certaine,
Je passe encore douze ans;
J'avais douze ans passés,
Quand Jésus-Christ est né!

– N'êtes-vous point cet homme
De qui l'on parle tant,
Que l'écriture nomme
Isaac, Juif errant?
De grâce, dites-nous
Si c'est sûrement vous?

– Isaac Laquedem
Pour nom me fut donné;
né à Jérusalem,
ville bien renommée.
Oui, c'est moi, mes enfants,
qui suis le Juif errant.

Juste Ciel, que ma ronde
Est pénible pour moi!
Je fais le tour du monde
Pour la cinquième fois!
Chacun meurt à son tour,
Et, moi, je vis toujours.

Je traverse les mers,
Les rivières, les ruisseaux,
Les forêts, les déserts,
Les montagnes, les coteaux,
Les plaines, les vallons;
Tous chemins me sont bons.

J'ai vu dedans l'Europe,
Ainsi que dans l'Asie,
Des batailles et des chocs
Qui coûtaient bien des vies:
Je les ai traversés
Sans y être blessé.

J'ai vu dans l'Amérique,
C'est une vérité,
Ainsi que dans l'Afrique,
Grande mortalité:
La mort ne me peut rien,
Je m'en aperçois bien.

Je n'ai point de ressource
En maison ni en bien;
J'ai cinq sous dans ma bourse,
Voilà tout mon moyen;
En tous lieux, en tout temps,
J'en ai toujours autant.

– Nous pensions comme un songe
Le récit de vos maux;
Nous traitions de mensonge
Tous vos plus grands travaux;
Aujourd'hui nous voyons
Que nous nous méprions.

Vous étiez donc coupable
De quelque grande péché,
Pour que Dieu tout aimable
Vous eût tant affligé?
Dites-nous l'occasion
De cette punition.

– C'est ma cruelle audace
Qui fait tout mon malheur;
Si mon crime s'efface,
J'aurait bien du bonheur.
J'ai traité mon Sauveur
Avec trop de rigueur.

Sur le mont du Calvaire
Jésus portait sa croix:
Il me dit, débonnaire,
Passant devant chez moi:
"Veux-tu bien, mon ami,
Que je repose ici?"

*Moi, brutal et rebelle,
Je lui dis sans raison:
“Ote-toi, criminel,
De devant ma maison;
Avance et marche donc,
car tu me fais affront”.*

*Jésus, la bonté même,
Me dit en soupirant:
“Tu marcheras toi-même,
Pendant plus de mille ans;
Le dernier jugement
finira ton tourment”.*

*De chez moi, à l'heure même,
Je sortis bien chagrin;
Avec douleur extrême,
Je me mis en chemin.
Dès ce jour-là, je suis
En marche jour et nuit.*

*Messieurs, le temps me presse;
Adieu la compagnie!
Grâce à vos politesses;
Je vous en remercie.
Je suis bien tourmenté
Quand je suis arrêté.*

Euskal bertsoen itzulpena, J. M. Satrustegi jaunak egiten duanez:

¿Habrá nada en este mundo que merezca compararse al Judío Errante? No creo que haya en ninguna parte un desventurado cuyo destino se le asemeje.

Un día, al pasar por las afueras de una ciudad, le siguieron detrás algunos ciudadanos. Decían no haber visto ningún hombre que tuviera la barba tan grande.

Cuando lo vieron en su presencia les vino la duda de que pudiera tratarse de un extranjero. Vestido de mala traza, y edad avanzada, llevaba delantal como un trabajador.

Le dijeron incluso: “¡Buenos días, jefe! Desearíamos conversar con V.; vamos a satisfacer nuestra curiosidad así como a ponernos de acuerdo para brindar”.

– Os confieso que pesa sobre mí una desgracia; no lo dudéis, es verdad. Siempre voy caminando, lo mismo con lluvia que con el buen tiempo. Debo seguir adelante, no puedo detenerme en ninguna parte.

– Entra, hombre, con nosotros en la posada; te daremos a beber vino. Acepta nuestra invitación, que la hacemos de buena gana.

– Gustoso podré entrar con vosotros en la taberna y tomar también de vuestro buen vino. No puedo sentarme, beberé de pie; me quedo atormentado cada vez que me detengo.

– Confesamos que sentimos curiosidad: quisiéramos conocer tu edad. Nos da la impresión de que tienes ya cien años o, de lo contrario, resulta engañoso tu rostro.

– Mis huesos están ya completamente viejos, así como también muy cargados de años; he sobrevivido dieciocho siglos, de ello podéis estar seguros.

– ¿Serás entonces tú el hombre famoso que trae intrigado a todo el mundo? Vamos a satisfacer nuestra curiosidad (preguntándote) si eres tú el Judío errante.

– Llamado en la ciudad (?) de Israel, naci en la famosa ciudad de Jerusalén; quede pues satisfecha vuestra curiosidad: en efecto, señores, yo soy el Judío errante.

He recorrido el mundo cinco veces y estoy a punto de culminar la sexta; son muchos los que mueren en su día y yo ando por el mundo sin poder morir.

He visto en Europa mucha mortandad, si fuera dado explicarlo de palabra, donde he andado precisamente tratando de morir de cualquier forma.

Atravesaba ciudades enfermas, por todos los lugares donde podía encontrar guerras, y llegué a la conclusión en ellas de que la muerte no podía conmigo.

Dejando la tierra firme me adentré también en el mar, por si al menos él me podía detener. Yo buscaba riña y éramos amigos. Para mí da lo mismo cualquier camino.

No contraigo ninguna deuda en las casas y tampoco me quedan a deber en parte alguna. Siempre llego cinco céntimos de sobra en los bolsillos, llueva o haga bueno, en todos los sitios.

– Oíamos las cosas que se decían por el mundo, como si fueran un sueño sus razonamientos. Comprendemos bien tus penalidades y creemos que son ciertas.

Nos maravilla tu gran fama y nos sugiere una duda en nuestra alma; sin duda, tendrás bien merecido que el Señor te haya castigado de ese modo.

– Mi gran crimen, a decir verdad, es que traté mal al buen Jesús; en lugar de compadecerme, hice uso de la crueldad.

Al venir Jesús de Jerusalén, bien cargado con aquella santa cruz, me pidió con humildad si le dejaría descansar en la puerta.

Yo, sin claridad de ideas y rebelde, le negué por supuesto al instante: "¡Vete de ahí hacia adelante, vete, criminal!" Que me ofendía su descanso en aquel lugar.

Jesús me dijo en el mismo instante: "Mil años, por lo menos, vas a andar por el mundo, tendrás descanso después de todo, libre de cargos en el último juicio".

Inmediatamente me puse en camino, con pena, remordimiento y todos los pesares. Desde entonces voy siempre andando por el mundo; no hay descanso en mi cuerpo.

En vista de que me apremia el tiempo, ¡adiós, compañía! Agradezco vuestro gesto. Tengo que seguir adelante, ¡oh qué dolor éste! De lo contrario (será) para mí un gran tormento.

“Peru gurea Londresen...”

I

Pe - ru gu - re - a Lon - dres - en zin - gu - lun la - trak e - kar - ten hu - ray an -
di - kan e - to - rri ar - te guz - ti - ok dan - tza - gi - te - zen. Ai o - ri e - gi -
a zin - gu - lun zan - gu - lun Ma - ri - a.

R. M. Azkuek, bere *Cancionero popular vasco* bilduman, 887 zenbakian, 1032 orrialdean, doiñuaren ondotik, eta Elgoibarko Toribio Iriondoren aotik jaso zuala esan ondoren, onela dio:

“Es un cuento muy extendido en el país. Aquí cantan un trozo, otro allí. Por fin, oyendo a unos y a otros, he podido reconstituirlo de esta forma.

Sólo en Gabika lo oí casi entero.

“Había un médico que tenía relaciones ilícitas con una señora. Ésta, por consejo de aquél, se fingía a veces enferma y para curarla era enviado su marido en busca de hierbas medicinales a Vitoria, Pamplona... y una vez hasta Londres.

El criadito de la casa puso sus sospechas en conocimiento del amo, el cual pidióle su ayuda para enterarse del caso, prometiéndole por ello hacerle dueño del más grande de sus mulos”.

*Es de advertir que para cada personaje del cuento hay su correspondiente estrofa:
La mujer canta:*

Peru gurea Londresen
zingulun-larrak ekarten;
hura (y) andikan etorri arte
guztiok dantza gitezzen.

Ai, ori egia!
Zingulun zangulun, Maria.

*Nuestro Pedro en Londres
a traer hierbas ¿medicinales?,
hasta que aquél de allí venga
dancemos todos.
¡Ay, ésa la verdad!
Zingulun-zangulun, Maria.*

El intruso dice:

Kaponak daude erretzen,
oilaskoak mutiltzen;
eztin ark asko orai pentsatzen
onela gerala dantzatzen.

Ira-jira-bira!
Aztan-zingulun, Maria!

*Los capones están asándose,
los pollitos desplumándose;
no piensa aquél mucho
que así estamos danzando.
¡Ira-gira-vira!
Aztan zingulun Maria.*

El criadito alega:

Ugazaba topau neban
Santo Tobeko zubian,
neugaz atzera ekarri neban
sardin-sestotxo barrian.

Ai, ori egia!
Daigun inguru, Maria.

*Al amo lo encontré
en el puente de Santo Tobé(?);
conmigo le traje atrás (metido)
en nuevo cestito de sardinas.
¡Ay, ésa la verdad!
Demos una vuelta, María.*

Otra versión pone en boca del criado estas palabras:

Nagusia Bitorian
plazako ostattu berrian,
osoro larrugorrian
sartu zait saski erdian.
Ira-jira.bira!
Orain duk ire aldia.

El amo en Vitoria,
en la nueva posada de la plaza,
enteramente desnudo
se me ha metido en el cesto.
¡Ira-gira-vira!
Ahora es tu tiempo.

Al decir el muchacho estas palabras, dio un puntapié al cesto. Salió de él su amo y empezó a cantar:

Neure multiltxo txikia,
ik esan uen egia:
medikuarekin dantzatzen zala
nere emazte Maria.
Ai, ori egia!
Iretzat mando zuria.

*Muchachito mío chiquitín,
tú dijiste la verdad:
que con el músico bailaba
mi consorte María.
¡Ay, ésa la verdad!
Para ti el mulo blanco.*

Otra versión pone estas palabras en labios del marido:

Nere multiltxo txoria,
ik erran datak egia:
dantzan arrapatuko dudala
nere andre María.
Ira-jira-bira!
Iretzat mando aundia.

*Muchachito mío pajarillo,
tú me has dicho la verdad:
que he de coger danzando
a mi esposa María.
¡Ira-gira-vira!
Para ti el mulo grande.*

"Habrá notado el lector que hay variedad de dialectos en estas estrofas. La primera, segunda y quinta son guipuzkoanas con un ligero bizkainismo en ekartzen de la primera estrofa: la tercera es totalmente bizkaina; la cuarta y sexta tienen toques nabarros".

Lleenengo bertsoaren bigarren lerroan oar au egiten du Azkuek:

"En dos o más pueblos dicen sendabedarrak o sendabelarrak, según el dialecto, "hierbas medicinales".

Azkueren esku-idazkietan,leenengo eta bostgarren bertsoak agertu dira, Elgoibarren bildua dirala esanez. Toribio Iriondori jasotako doiñua da. Baiña bostgarren bertsoaren irugarren lerroan onela irakurtzen da: "prailearekin dantzatzen zala".

* * *

Joseba Lakarra: *Peru gurea: textos, edición y notas*, Jesus Antonio Cid-en *Peru gurea y sus paralelos románicos* lanaren eraskiña, *Anuario del Seminario "Julio de Urquijo"*, XIX, 2, 1985, Apéndice esaten dion zatian.

Lan ortan, Azkueren esku-idazkietan kanta zaar onen lau bertso arkitu dituala esaten digu Lakarrak. Eta beste bertso au ere ba omen du Azkueren esku-idatzi orrek:

Senarra daukat Londresen
sendabelarrak ekartzen,
eztit hark asko pentsatzen
honela gerala dantzatzen.

*Ira jira bira,
azten zingulun, Maria.*

Bere lanaren beste toki batean emengo irugarren bertsoa dakar Lakarrak, eta bai beste bi bertso auek ere:

Ugazaba jauna Londresen da
zingun belarra ekarten,
hura Londrestik etorri arte
alegeratu gaitezen.
Horixe dok ba(i) egia!
Daigun inguru, Maria.

Ai morroitxo txoria!
Hik esan didak egia,
dantzan.
.
. . . atzeko mando zuria.

Aurretik argibide auek ematen ditu Lakarrak:

"...sin datos sobre geografía e informante. Recogida por Resurrección María Azkue, inédita en Cantos-Apéndice, p- 25. No nos es posible determinar con precisión la posible procedencia (Eibar, Elgoibar?) por concurrir formas (neugaz, naben, dok y berrian, jura, didak) incompatibles en principio".

* * *

Luis M. Mujikak, bere *Euskal lirika tradizionala (I)* liburuan, Donostia 1985, 107 orrialdean, erromantze au sakonki aztertzen du, kanta onen gaia beste izkuntzetan nola agertzen dan konparatuz.

II

Lon - dres - en dot neuk se - na - rra zi - rin be - da - rrak e - kar - ten.
Be - ra an - dik dan ar - te - an gu e - men dan - tza gai - te - zen Ai au
e - gi - al dai - gun ji - ra bi Ma - ri - a.

Londresen dot neuk senarra
zirin-bedarrak ekarten.
bera andik dan artean
gu emen dantza gaitezen.

Oi au egia!
Daigun jira bi, Maria.

Neure oilanda nabarra,
txikarra baina zabala,
zetan oa i auzora,
etxeán oilarra donala?

Oi au egia!
Daigun jira bi, Maria.

Kapoiak dagoz erreten,
oilaskotxuak multitzen,
orrek ondo erre artean
gu emen dantza gaitezen.

Oi au egia!
Daigun jira bi, Maria.

Neuk ugazaba nekusan
Izurdiako zubian.
Ori zestorik urten artean
gu emen dantza gaitezan.

Oi au egia!
Daigun jira bi, Maria.

Neure multixtu txoria,
ik esan eustan egia:
gaur gabean dantzauko zala
nire emazte Maria.

Oi au egia!
Iretzat mando zuria.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco*, 855 zenbakian, 995 orrialdean, Bizkaian, Gabikan, Maria Josefa Ispizuari jasoa.

Baita ere doiñurik gabe bere *Euskalerriaren Yakintza-n*, IV tomoan.

Aita Santi Onaindia: *Milla euskal olerki eder*, 53 zenbakian, Azkueren aldaera au kopiatzen du, zenbait lerro aldatu edo konponduta.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1984), II tomoan, 148 orrialdean.

J. Lakarra, leen aitatutako idazlanean.

Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Baladak, Antologia* (Bilbo, 1995), 47 orrialdean.

III

The musical score consists of three staves of music in common time (indicated by '2'). The first staff begins with a treble clef, the second with an alto clef, and the third with a bass clef. The lyrics are written below each staff, corresponding to the notes. The lyrics are:

Na-gu- si jau - na Lon - dres - en zin - gu-lun be - la - trak bil -
tzen, yu - ra an - dik e - to - rri ar - te gu bi - ok dan - tza gi - te -
zen Oi ai e - gi - a! uz - tar in - gu-lun Ma - ri - a.

Nagusi jauna Londresen
zingulun belarrak biltzen,
yura andik etorri arte
gu biok dantza gitezen.

Oi, ai egia!
Uztar ingulun, Maria.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco*, 864 zenbakian, 1004 orrialdean, arribide onekin: "Lo aprendí en Oyarzun (G), no sé de quién".

J. Lakarra, leen aitatutako lanean.

IV

Se - na - rra de - gu Lon - dres - en sen - da be - la - rrak e - kar - tzen,
ez - tu ark as - ko pen - tsat - zten gu no - la ge - ra - den dan - tza - zten Ai, oi
e - gi - a! Uz - ta tun - ku - lu Ma - ri - a.

Senarra degu Londresen
senda-belarrak ekartzen;
eztu ark asko pentsatzen
gu nola geraden dantzatzen.

Ai, oi, egia!
Uzta ttunkulu, Maria!

Nere mutiko txoria,
ik esan uan egia:
Perutxorekin Maria
dantzatzen zala zolia.

Ai, oi, egia!
Iretzat zaldi gorria.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco*, 894 zenbakian, 1039 orrialdean, Orioko Josefa Trekuri jasoa.

Bigarren bertsoaren laugarren lerroan, zolia itzarengatik onela dio oar batean: "No descifro bien la palabra original en el borrador". Ez al da zalia izango?

J. Lakarra, leen aitatutako lanean.

Jorge de Riezu: *Flor de canciones populares vascas* bilduman (Buenos Aires, 1948), 75 zenbakian, 290 orrialdean. Eta bertsoen beste aldaera berri bat egiten du, Azkuek an eta emen bildutakoekin.

V

Gu-re oi - lo - txo na - ba - rra, kur-ku-ru - bil e - ta xa - ba -
la, oi - la - rra_e-txe-an de - ne - an zer - tan goa-ten da lan - da -
ra. Ai oi e - gi - a, as-tan drin- gu - lun Ma - ri - a.

Gure oilotxo nabarra,
kurkurubil eta xabala,
oilarra etxeán denean
zertan goaten da landara?

Ai, oi, egia,
astan dringulun Maria.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 844 zenbakian, 983 orrialdean; Naparroan, Imotzko Oskotzen jasoa, Justa Goldarazenaren aotik.

J. Lakarra, leen aitatutako idazlanean.

VI

Peru gurea Londresen
zingun bedarrak batuten;
jira bira, Maria,
ein daigun inguru aldia.

R. M. Azkueren esku-idazkietatik, Bizkaian, Igorretako Josefa Astarloaren aotik jasoa.

VII

A - ma gu - re - a Lon - dres - en zin- gu-lun be - da- rrak e - kar -
tzen, u - ra an dan bi - tar - te - an guz - ti - ok dan - tza gai - te - zen.

Ama gurea Londresen
zingulun bedarrak ekartzen,
ura an dan bitartean
guztiok dantza gaitezen.

R. M. Azkueren esku-idazkietatik, argibide auek dituala:

“Canción humorística de Altzola (Elgoibar, G.): Iriondo. Aunque por su música constituye número aparte, este número es variante de Peru Gurea”.

VIII

Apeza dugu Londresen
senda-bellarra ekartzen,
horrek ezpazuen pentsatzen
gu nola ginengin dantzatzen.
Oi, ai egia!
Singulu gabe Maria.

Kaponak daude erretzen,
oilaskoak prijitzten,
horrek ezpazuen pentsatzen
gu nola ginengin dantzatzen.
Oi, ai egia!
Singulu gabe Maria.

J. Lakarra, len aitatutako lanean. Aurretik onela dio:

“Erro (Navarra), sin datos sobre el informante. Recogida por Resurrección María de Azkue e inédita en Cantos, p. 56”.

Eta óndotik:

“1. ms. degu, 15. En el ms. aparece oi, ai penetan, bizi naiz mundu onetan antes del estribillo, pero parece que no corresponde a esta canción, sino que es un error de Azkue o de su informante. 10. ms. eginen”.

IX

Bilboko *Euzkadi* egunkarian ere agertu zan kanta au, bere aurreko ipuiaren batera, 1932-ko maiatzaren 4-an, *ETE*-k izenpetuta, *Amama'ren ipuña* izenburuarekin eta *Garate'tar J. M.'ari* eskeiñita. Onela dio:

"Lentxubago baten idazten zeban "Aberri-Eguna"-ko gorularitxubak gomutarozo eutzuzala antzīnako gorulak; eta gomuta bixi-bixija dozula zeure amama, ama ta iru arrebeak irutten eta zeu arek irunitakua intxauskitutenean zeban bittartian, amama onak esaten eutzubezan ipuñak, eta abestuten eutzubezan abestijak; eta abestijetatik bat esaten zeban. Gomutetan ete zara, ipuñetatik bat ondoren duan au ete-zan?

Bein bixi ziran Peru, Marixe ta Anton morroia. Peru, karramaterua zan, eta London'era bere karramatu orraz juan-etorrijak egitten euzan.

(Peru ori, ipuñak itxuria daukon lez, euzkotarra bazan eta Euzkadi'n bixi ba'zan, zelan juaten ete zan London'era karramatuagaz? Gero euzkotarrak "atrasauak" garala esango dabe, ta antxiña, gaur be egitten eztana egitten eban gure Peru'k, Euzkadi'tik London'era osterea karramatuan.

Marixe, andra nagi ta ondo-zale bat zan, eta Peru etxian zen guztijan beti gexo eguala-ta, batian oian eta bestian sutonduban, arpegi larri bategaz egon ei-zan. Peru gixa juak alegiñik asko egitten eban bere emazte matte-mattia osatzeko, ta dana alperrik. Baña, Peru bere karramatu orregaz Londres'eruntz urtetan eban eran, gure Marixe'k deitzen eutsen auzoko guztijeri ta jan eta edan eta dantzan jarduten eban Peru etorren arte, barriro be gexo itxuria artzeko. Peru on-onak amaiaka gauza ekarten eutsozan bera osatzeko Londres'tik, eta euren artian "zirkun-bedarrak". (Zertzuk bedar ete-dira oneik?)

Anton morroi on eta zintzo-zintzua zan, eta ez eutson ondo ereizten Marixe'k Peru'ri egitten eutsona, ta egun baten edesten eutson bere ugazabari berak aldeten ebanian etxian jazoten zan guzti-guztja. Peru'k, gizajo andijk, ez eutson siñisterik be emon lenenguan: baña morroi orrek ainbeste bidar baiez-tu eutsonian, bere begijekaz ikustia gura ixan eban, eta esan eutsona egija ba'zan, kortan eukon mandonik ederreña berari, morroiari, beretzat emongo eutsola agindu eutson, eta gertau ziran, alkar attuta, Marixe'ri siñistu-erazotia ba'jiala London'era.

Marixe oian eguna, sarritan lez, agur egin eutson Peru'k, eta bere karramatu orregaz urten zan... baña ixilik barriro etxeratzeko. Sartu eban morroia otzara-rape baten bere ugazaba. (Peru txikija edo otzara andija biarko zan orratziño.)

Peru'k urten ebanerako, Marixe jagi oetik, eta, bestetan lez, dettu eutsen auzoko adiskidie, ta danak batu ziranian dantzatubaz abestu eban:

– Peru guria Londres'en
zirkun-bedarrak ekarten.
A andik dan artian
danok dantzatu gatzezen.

Ai, oi, au egija:
Peru guria Londres'en.

Eta auzoko guztijak berak lez dantzatubaz abestu eben:

– Peru dogula Londres'en
zirkun-bedarrak ekarten.
A andik dan artian
danok jolastu gatzezen.

Ai, oi, au egija:
daigun inguru Marixe.

Eta orduban morroiak abestu eban:

– Neure ugezabandra Marija,
otzarapian daukot nausija,
ak andik urteten daunian
berotukotzu gerrija.

Ai, oi, au egija:
otzarapien nausija.

Eta orduban Peruk, egija zala ikusirik, abestu eban otzarapetik urtenda:

– Neure morroi txorija,
ik esan eustan egija:
dantzan ikusiko nebala
neure emazte Marija.

Ai, oi, au egija:
eutzat kortako mando zurija.

Eztakit Peru'k Marixe'ri gerririk berotu ba-eutson edo ez, baña amattu ei-ziran ordutixetik zirkun-bedar ekartio, gexuok amattu zirialako.

Eta alan ba'zan
sartu dattela kalabazan,
eta urten dattela
Bitorija'ko plazan".

Leenengo bertsoari oar au eransten zaio: "Itz-neurtu onen eresija politta da, neure eretxiz beintza".

Guk, berriz, gure iritzi bat agertu nai genduke. Bein baiño geiagotan *London* irakurtzen da bertso auetan. *ETE* dalako orren zuzenketa bat izango da. Amamak, dudarik gabe, *Londres* esango zuan.

J. Lakarra: leen aitatutako lanean.

Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antología* (Bilbo, 1995), 48 orrialdean.

X

Senarra degu Londres'en
zingun-bedarrak ekartzen;
auraxe andik etorri arte
guztiok dantza gaitezen!

Hoi, hau egia,
daigun inguru, Maria!

Kapoetxuak erretzen,
ollaskotxuak multiltzen,
aisumoisu gertau artian (*sic*)
guztiok dantza gaitezen!

Hoi, hau egia,
daigun inguru, Maria!

Mandu txiki nabarra,
txikia baño zabala,
ak eruaten kanpora
etxian ollarra donala.

Hoi, hau egia,
daigun inguru, Maria!

Ugazaba degu Londres'en
zingun-bedarra ekartzen;
zestuan dugunak urten artian
guztiok dantza gaitezen!

Hoi, hau egia,
daigun inguru, Maria!

Nere semetxo zurie,
ik esan didak egie:
ikusiko nebala dantzan
nere emazte Marie.
Hoi, hau egie,
iretzat mando andie!

Donostian, Joakin Yrizar jaunaren liburutegian azaldutako esku-idatzi batetik.

Lapitzez idatzitako itz auek irakurtzen dira orri ortan: "*Autógrafo de Don Domingo de Iribar*".

Au izango da, bearbada, gure eskura iritxi diranetan beintzat, kanta onen aldaerarik zaarrena.

XI

Aranzazu illerokoak argitaratu zuan ipui edo kanta au 1964-ko azaroan, *Euskalerriko ipuiñak*, Peru Londresen izenburuarekin eta *Ibarrola-tar Teri, mag- netofoiz artua* dala adierazirik. Onela dio:

“Peru, Marixe ta kriaua bizi zirian alkarregaz, baiña Marixe noznai egoten zan gaixorik. Sarritan eukiten eban min, batian lepoko miña, bestian alboko miña eta bestian ankako edo nungo edo angoa sarri. Baiña joaten zan Peru Londresa sillun-bedarrak ekarten, ze Marixeri arek mesede andia egiten eutsen.

Ta egun batian esan eutsan kriauak Peruri ze:

- Ai, Peru, zu andik zarian arte eztakizu asko emen zelako erromeriak egoten dirian. Marixek janketa andiak emoten ditu amen, auzoko lagun guztiak ekarrita. Arek erabilten ditue pozak eta kantak!
- Zer diñostazu, kriaua?
- Bai, bai, bai, egia da gero ori!
- Onako, onako konturik! Ba egun baten egingo deutsat Marixeri agur ta joan baniz lez, alde biar dot bistatik. Baña or egongo naz atostetxuan ia emen zer jazoten dan.

Da esan da izan. Egin eutsan Marixeri agur ta an geratu zan. Da Marixek beti lantxerik ekarri zitun auzokuok, ta baita janketok eta erromeriok be bazirian an. Zer zan ango ijuixa ta zaratia! Bai, ondo zaparradak ataraten zituen!

Peru guria Londresen
sillun-bedarrak ekarten,
Peru guria andik dan artian
guztiak olgau gaitezan.

Ta orixe kantiori amaituta batera, urten eban Peruk. Ta baita berak be kantau:

Neure kriaau txorixe,
zeuk esan zeunstan egixe:
arratsian ikusiko nebala
dantzan neure emazte Marixe.

Ai, oi, ai egixe,
zeuretzat kortan dauen zaldun xurixe...”.

Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: Mendebaldeko Euskal Balandak / Antologia (Bilbo, 1995), 49 orrialdean.

XII

Nagusiya dugu Londresen
senda-belarraren biltzen;
arek eztaki gu nola gabiltzen
ta guazen, dantza gaitezen.

Ai, oi, egiya!
Uxtan ringulun, Mariya.

Manuel Lekuona: *Idaz-lan guztiak, I, Aozko literatura*, 1978, 485 orrialdean,
Oiarzunen jasoa.

J. Lakarra, leen aitatuako lanean.

XIII

"Hara ba, ziren Peru ta Marixe, da euken ba morroie, "Txorixe", beti ohi dan moduan. Da "Txorixe" ba... zala ohi dana... Marixeri zertotze'zan beti, ba... maltzurre ta tranposa da zera (zala). Da Peru etxin egonien (Marixe) gaixorik egoten ei zan beti, miñez da gaixorik ta "ai hau gerrixé" ta "ai eztakit zer!".

Ba Peru juten ei zan Londresa karromatua zirkun-bedarrak ekarten Marixantzat da etorten ei zan bedarrokin da (Marixe) ohien sartute eoten ei zan miñez.

Baiña Peru han zan artien, batzen ei zittuzen auzoetako jentie, ta sakristaue be'hantzen ei zan, da danakin etxien, egozanik gauzaik onenak morroiai atara ein, eta eitte 'ben, da danak kantetan ei jeben alkarrei obatute:

Peru guria Londresen
zirkun-bedarrak ekarten,
handik dan artian
guztiok dantzatu gaitezen.

*Ai, oi, hau egixe,
Peru guria Londresen.*

Morroiek, haixe ez ei jakon ondo ereizten, esaten be' ez ei zan atrebitzen Peruri, baña halakoan baten ba esa'otsen:

– Peru, Peru! Zu etxien zauzen artien miñez da... haurtxe, zerok eitte'ttuz, baña zu kanpuen zarienien, ba... hauxe ta hauxe eitten dau: batu zer guztijok ta tortilla haundi bat eiñdde, ba auzuetaiko guztijok batu ta hauxe da.

- Tire, ez eidek esan holakoik!
- Bai, bai, bai, hori egixe da.

- Neure emaztiegaitti hori esan? Gero, ia etxeti bialtzen hauen aurreti nik!
- Ez ba, egixe da ba.

- Hori egixe badok ikusiko joagu. Hori egixe badok hitzeko izengo dok kordan dauenik mandoik onena, mando zurixe -ei zan onena-; bañe gezurre badok urten bio'k.

- Bai ba.

Asmau eben ba, bueno. Peruk urtengo'bala Londresa baleioiala lez da suan onduan, han subil ostien, zarapien, geldittuko zala barruen sartute, da gero ba Marixori ikusiko'bela.

Peru sartu ei zan han eta morroi hori zarian ganien ei jegoen, ta ekarri erein ei jeutson (Marixek) habixetako arrautzok eta urdaiazpikuok eta danok; ekarri ta ein ddabe, ta batu diez danak. Da batu zienien ba harek ostabe kantau'ban:

Pe - ru gu - ri - a Lon - dres - en zir - kun be - da - rrak e - kar - ten
 ua han - dik dan ar - ti - an guz - ti - ok dan - tza - tu gai - te - zen.
 Ai oi hau e - gi - je Pe - ru gu - ri - a Lon - dres - en.

Peru guria Londresen
zirkun-bedarrak ekarten,
handik dan artian
guztiok dantzatu gaitezen.

*Ai, oi, hau egixe,
Peru guria Londresen.*

Honetan, morroiek abestu ei jeban:

Neure ugezaba andra Marixe,
otzarapian daukagu nausixe,
harek handik urten deijenian
berotuko deutzu gerrixe.

*Ai, oi, hau egixe,
otzarapian nausixe.*

Da bestiek politto ei jegozan, ta salto eitten ei jeben oindiño. Hontan Peruk zarapetik esan ei jeban:

Neure morroi "Txorixe",
hik esan heustan egixe,
dantzan ikusiko nebala
neure emazte Marixe.

*Ai, oi, hau egixe,
hiretzat kortako mando zurixe.*

Ba, zarapetik urten, hartu subil ostien egur bat, ta astil-astil, garbittu ei jotsen, ta handik aurrera mantsua ta otzana ez ei zan izen iñor be' Marixe baño".

J. Lakarra, leen aitatutako lanean, aurretik argibide auek ematen dituala:

"Marquina (Vizcaya), cantada por Garbine Foruria de 76 años. Dijo haberla aprendido de su abuela, a quien se la hacían repetir por gustarles mucho. Recogida por Koldo Biguri, Jesús Antonio Cid y Joseba Andoni Lakarra el 22-IX-1981 (encuesta MGM-81, cinta 1) y publicada en Euskal Baladak, t. II, p. 149-151.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1984), bigarren tomoan, 149 orrialdean. Naiz eta argitalpen ori aurreko baiño zaartxeagoa izan, beroni kopiatiu diogu, prosazko zatia obeto artuta dagoalakoan.

XIV

"Hori da ipuiñ bat zelan andrie zan juergistie da krixaduaz ebillen, da geixo papela eiñ, da Londresa bieldu gixona bedarren bille ta bera han zan artien erromerixe eitten eban lagunekiñ.

Peru guria Londresen
zirkun-bedarrak ekarten,
ha handik dan artian
guztiok olgatu gaitzezen.

*Ai, hau egixe,
Peru gurie Londresen.*

Esa'otsen (andereak) lortzen ba'ban gixona bere albotik kentzie, atzien eukan mando zurixe erregalauko eutse(la).

Gixonak, Londresa joiala ta krixedue ipiñi eban egixe esateko ta zaiñddu eban ta tope'ban erromerixe etxien ta krixeduak kontau eiñ'tsen gizonai andrie zelan ebillen. Da gero, hori egixe bada erregalau engo'tsela zaldu zurixe.

Gixona otzarapien dauke, Londresa juan barik, eta ataaten dau (kriaduak) han juergie dauen artien eta orduntxe kantetan dau gixonak:

Nere kriadu txorixe,
zuk esan zeustan egixe,
dantzan ikusiko nebala
neure emazte Marixe.

*Ai, hau egixe,
zutzeko atzeko mando zurixe”.*

J. Lakarra: leen aitatutako lanean, aurretik argibide auek emanet:

“A. 3.- Marquina (Vizcaya), cantada por Laurentzi Foruria de 68 años y su hermano Txomin de 70, ambos primos de Garbine (v. versión A. 2). Dicen haberlo aprendido también de su abuela. Grabada por Koldo Biguri, Jesús Antonio Cid y Joseba Andoni Lakarra el 22-IX-1981 (encuesta MGM-81, cinta 1)”.

XV

Peru guria Londonen
sania bedarrak ekartzen,
ha datorren artian
guztiak olga gaitian,
guztiok olga gaitian.

– Nere morroi argija,
zuk esan zidan egija,
ni Londonera joaten nitxanian
olgatzten zala Marija.
O, ai, egija!
Zuretzat mando zurija.

J. Lakarra: leen aitatutako lanean, aurreko argibide onekin:

“A. 5.- Ondárroa, Vizcaya, cantada por Juan José Azpíri de 49 años. Recogida por José María Argoitia, Gabriel Fraile y Jon Joaristi el 19-IX-1981 (encuesta MG M-81, cinta 2)”.

XVI

Nagusi jauna degu Londresen
txindu-belarrak ekartzen,
hura han dan bitartean
guziok dantza gaitezen.

*Ai, hau egia,
altxa pololo, Maria.*

– Nere emazte Maria,
zuk esan zidazun egia,
gaur gabian altzatuko zala
nere andre Maria.

*Ai, hau egia,
altxa pololo, Maria.*

– Nere ollanda txamarra,
txikia baña apala,
zertan juan ziñen auzora
etxian euki ollarra?

Ai, hau egia,
altxa pololo, Maria.

J. Lakarra: leen aitatutako lanean, aurretik argibide au emanez:

"Motrico (Guipúzcoa), cantada por Garbine Andonegui de 47 años. Recogida por José María Argoitia y Koldo Biguri el 19-IX-1981 (encuesta MGM-81, cinta 1)".

Ondotik, berriz, beste oar batzuen artean, au ere adierazten du: irugarren bertsoaren laugarren lerroan, *euki* esan bearrean, *eukiz* bearko lukela bearbada.

XVII

"Esantzion morroieri:

- Gaur arratsaldian biak merienda egin behar dugu.
- Eta morroia heldu zen menditik itxera. Arrapatu zuen nausia. Esantzion:
- Nora zuaz?

Esantzion morroiak:

- Goazen, goazen itxera.

Nagusiak esantzion:

- Erritan emango ditt.

Esantzion morroiak:

- Ez. Sartu zestuan eta egon sukalde zarrian.

Esantzion itxekoandriak:

- O! Etorri zara? Ona merienda. Biño lemizi esan behar dugu bertso bana.

Itxekoandriak esantzuen:

– Nagusi jauna bialdu dut
Bilbau zarrera
bilindrontxuaren billa.
Jaun zerukuak
zure ta nere aurrrera
azaldu ez daiela.

Morroiak esantzen:

– Nagusi jauna billatu nuen
San Antongo zubian;
sukalde zarrian
hortxen dago
zardiña zestu berrian”.

J. Lakarra: leen aitatutako lanean. Aurretik argibide auek ematen ditu:

“Oyarzun (Guipúzcoa), recogida por “M-B de A” (Nicolás Alzola) a Sabadiña Ribera Aramburu en Irún el 26-VII-1959. Según el recolector “la relatora residía en esa fecha en Irún pero nació en el caserío Audele de Oyarzun, colindante con el barrio irunés de Katia” y manifestó haberlo aprendido de su madre. Publicada por “M-B de A” en el Boletín de la RSBAP XXVI - (1970), pp. 497-8 y reed. por el mismo en La gran enciclopedia vasca (Bilbao, 1974) t. II, p. 63 y por Joxe María Etxebarria Euskal dialektologiarako testo eta ariketak (Vitoria 1983), p. 195”.

XVIII

Au hau egije
ene zungulu Marije.

Nire senarra Londresen
zungulu-bedar ekarten
handi etxera eterri arte
guztiok jantzan egiten.

Oilaskotxuek prijitzent
kapoatxuek moskiltzen
harek prijitzent diran artean
guztiok jantzan egiten.

Nik ugazaba topatu neban
bide barriko Zubijen
handik etxera ekarri neban
sardine zesto barrenen.

Nire oilanda nabarra
txikia baina zabala.
Zetan habil era horretan?
Etxean dona senarra.

Nire krijuedu zolijek
esan jaustazak egijek
gaur arratsean jantzan eingo jok
nire emazte Marijek.

Ene krijuedu zolije,
hik esan daustak egije
egije esan daustakalako
hiretzat mando gorrije.

Xabier Amuriza: *Bizkaiko Bertsogintza I, Izengabeak*, Bilbo, 1995, (Deunoro Sardui sorta), 190 orrialdean.

XIX

Fraide txar batek jakin zuen
etxekandre bat gaizki zela
haren senarra hor ez baitzen,
kyrie, kyrie,
haren senarra hor ez baitzen
a la mezon,
kyrie eleison.

– Agur, madama, hunat jinik
ikasi dut eri zarela,
bai eta ganbaran bakarrik,
kyrie, kyrie,
bai eta ganbaran bakarrik,
a la mezon,
kyrie eleison.

– Senarra dizut Montpellierren
ene sendatzeko urketa,
ez baitzaut sekulan itzultzen,
kyrie, kyrie,
ez baitzaut sekulan itzultzen,
a la mezon,
kyrie eleison.

– Ez baduzu jauna zurekin,
oi andere maitagarria,
nik artatuko zaitut berdin,
kyrie, kyrie,
nik artatuko zaitut berdin,
a la mezon,
kyrie eleison.

Gaizo senarra Montelliertik
heldu zen arrunt leherrina
sendagailuak ekarririk,
kyrie, kyrie,
sendagailuak ekarririk,
a la mezon,
kyrie eleison.

Haren beha zagon bidean
etxeko mutil azkarrena.
– Zer da berri gure herrian?
Kyrie, kyrie,
zer da berri gure herrian?
A la mezon,
kyrie eleison.

– Etxekandrea gau guziez
fraide batekin ohatzen da
zuretzat otoitzak eginez,
kyrie, kyrie,
zuretzat otoitzak eginez,
a la mezon,
kyrie eleison.

– Harritzen naiz, ez dut sinesten
fraideak sendatu duela,
hor nintzalarik eri baitzen,
kyrie, kyrie,
hor nintzalarik eri baitzen,
a la mezon,
kyrie eleison.

– Beraz, etxekoien ixilik
ikusiko duzu ganbara
saski handi hunen barnetik,
kyrie, kyrie,
saski handi hunen barnetik,
a la mezon
kyrie eleison.

Nausia sartu zen saskian
bere mutilak ekar lezan.
Ereman zuen bizkarrian,
kyrie, kyrie,
ereman zuen bizkarrian,
a la mezon,
kyrie eleison.

- Xixto huntan dautzut ekartzen
xoriño bat ixil-ixila,
hasten balin bada kantatzen,
kyrie, kyrie,
hasten balin bada kantatzen,
a la mezon,
kyrie eleison.

Emaztea ohean zagon
fraidearekilan etzana,
xoria kantuz hasi zakon,
kyrie, kyrie,
xoria kantuz hasi zakon,
a la mezon,
kyrie eleison.

Hortan, saskitik ateratuz,
nausiak makil ukaldika
fraide ta andrea zanpatuz,
kyrie, kyrie,
fraide ta andrea zanpatuz,
a la mezon,
kyrie eleison.

Nor da nausi etxe batean?
Iduri du senarra dela
izanikan ere saskian,
kyrie, kyrie,
izanikan ere saskian,
a la mezon,
kyrie eleison.

Piarres Duny Petre: *Maiatz aldzikarian*, irugarren zenbakian, 60 orrialdean.
Bere gazte denboran lapurtar bi emakumeei entzun omen zien.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1984), II tomoan,
151 orrialdean.

XX

The musical score consists of four staves of music. The first staff starts with 'Ku - ku bat' and ends with 'nun o-rai-no_ez'. The second staff starts with 'pai - tu' and ends with 'ba - da'. The third staff starts with 'kan - ta - tzen.' and ends with 'hu - ra as-ten'. The fourth staff starts with 'kan - ta - tzen Ky - ri - e;' and ends with 'ba - da kan - ta - tzen a la mai - son, Ky - ri - e e - le - i - son.'

Kuku bat badut kaiola batean
nun oraino ezpaitu kantatzen.
Hura hasten bada kantatzen,
kyrie, kyrie,
hura hasten bada kantatzen,
a la maison,
kyrie eleison.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 523 zenbakian, 706 orrialdean, Baigorriko Pierre Dibarrarteri jasoa.

XXI

The musical score consists of three staves of music. The first staff starts with a treble clef, a key signature of one flat, and a 2/4 time signature. The lyrics are: "Se-na-ra di - zit pon-poi e - ta e-ne sen-da - tze - ko u - ren xer - ka." The second staff continues with the same key signature and time signature, with lyrics: "Se - ku - lan ez - pa - le - di yin Ky - ri - e Ky - ri -". The third staff concludes the section with the same key signature and time signature, with lyrics: "e a la mai - son Ky - ri - e_e - lei - son."

Senarra dizit ponpoi eta
ene sendatzeko uren xerka.
Sekulan ezpaledi jin,
kyrie, kyrie,
ala maison,
kyrie eleison.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 523 zenbakian, 707 orrialdean, argibide onekin:

"En Azpilkueta del Baztán (AN) cantó la joven Micaela una variante de esta canción, que seguramente procede del otro lado del Pirineo".

XXII

Oilar bat badut neure sistruetan
ez baitu oraino kantatzen.
Hasten denean kantatzen
kyrie, kyrie,
hasten denean kantatzen,
kyrie eleison.

Senarra dizit Paben eta
ene sendatzeko uren xerka.
Sekula ezpaladi jin
à la maison, à la maison,
sekula ezpaladi jin
kyrie eleison.

J. Lakarra; leen aitatutako lanean, aurretik onela diola:

“Isturiz (Baja Navarra), sin datos sobre el informante. Recogida por Resurrección María de Azkue, inédita en Cantos, p. 60”.

* * * ^

Lan luze eta sakona egiña du kanta oni buruz Jesus Antonio Cid jaunak, *Peru gurea y sus paralelos románicos* izenburuarekin: *Anuario del Seminario “Julio de Urquijo”, XIX, 2, 1985, 289* orrialdean.

Kantaren alderdi guziak aztertzen ditu. Gure kanta batekin oso gutxitan edo bein ere egin ez dan bezelako ikerketa degu, dudarik gabe. Ari-ari dala, ondorio ontara irixten da:

“La comparación de los cuentos transcritos con los textos vascos permite asegurar sin lugar a dudas que Peru gurea pertenece al mismo cuento-tipo. Que, en cualquier caso, se trataba de un cuento era ya posible deducirlo de los textos impresos por Azkue. Es cierto que el gran folklorista vasco minimizó la importancia de la parte en prosa, que da muy abreviada, sólo en traducción castellana, y únicamente en una de (CPV, 887) de las cinco versiones o fragmentos que incluye en su Cancionero... El carácter de cuento es reconocido de modo más claro por otros colectores menos condicionados por una orientación musical predominante. Así, el relato en prosa se recoge, en euskera y completo, en la versión publicada por un corresponsal del diario Euzkadi (7-V-1932), y más fragmentariamente en un texto de Oyarzun publicado por N. Alzola.”

En fin, en las versiones grabadas en Marquina a Garbine Foruria y, de forma separada, a sus primos Lorenzo y Txomin Foruria, pudimos comprobar que para los recitadores las estrofas no tienen sentido si no van precedidas del relato en prosa, y que explicaciones narradas se intercalan también incluso en medio de las partes cantadas...”

Ipuia izanik, ez genduke noski liburu ontan sartu bear. Baiña Duny Petre jaunak eskeintzen digun aldáeran, gertaera guzia bertsotan adierazten da.

Orregatik onela dio Jesus Antonio Cid jaunak:

"Lo más sorprendente que ofrece la tradición vasca en relación con el cuento-tipo Der alte Hildebran consiste, sin embargo, en una transofrmación de muy distinto género... Me refiero a la refundición, documentada en Labort y ambas Navarras, de un relato básicamente en prosa en una composición enteramente versificada. Es decir, esta vez sí, en una balada versificada".

Alegia, ipui bat zana kontapoesia ere biurtu dala.

XIX

*Un mal fraile se enteró
de que la señora de una casa estaba enferma,,
y de que su marido andaba por ahí.*

*Kyrie, kyrie,
y de que su marido andaba por ahí,
a la mezon,
kyrie eleizon.*

*- Hola, señora. Viniendo para aquí
me he enterado de que estáis enferma
y sola en la habitación.*

*- Tengo al marido en Montpellier,
en busca de agua que me cure,
pero no acaba nunca de volver.*

*- Si no tienes a tu esposo contigo,
oh amable señora,
yo te cuidaré.*

*El pobre marido desde Montpellier
vino fatigado en extremo
trayendo las medecinas.*

*Le estaba esperando en el camino
el criado más vigoroso de la casa.
- ¿Qué noticias hay en nuestro pueblo?*

- Que la señora de la casa todas las noches
se acuesta con un fraile,
rezando por ti.
- Me extraña, no creo
que un fraile le haya curado,
pues cuando yo estaba ahí ella se encontraba enferma.
- Por eso, sin que los de casa se enteren,
verás tú la habitación
desde dentro de este gran cesto.
- El amo se metió en el cesto
para que su criado lo trajera.
Lo llevó al hombro.*
- En este cesto te traigo
un pajarillo muy silencioso,
que si empieza a cantar...
- La esposa estaba en la cama
acostado con el fraile;
le empezó a cantar el pájaro.*
- En esto, saliendo del cesto,
el amo a palos
calentó al fraile y a la señora.*
- ¿Quién es el que manda en una casa?
Parece ser que el marido
aunque se halle dentro de un cesto.*

"Ura ixuririk sorginen bidean..."

I

A musical score for a traditional Basque song. The score consists of four staves of music with lyrics written below them. The music is in common time, with a key signature of one flat. The lyrics are in Basque, with some words in Spanish. The vocal part starts with a melodic line, followed by a section where the melody is sustained over a harmonic background, and then continues with another melodic line.

U - ra i - xu - ri -rik sor - gi - nen - bi- de -
an, Do - hai - na - bil - du dut Baz - ko a -rra -tse - an: Gau -
az Ma - yi nu - zu - e - gu - naz o - rei - na, e - txe - ko za -
ku - trek xer - ka - tzen nu - te - na.

Nexkak:

- Ura ixuririk sorginen bidean,
dohaina bildu dut Bazko aratsean;
gauaz Mayi nuzu, egunaz oreina,
etxeko xakurrek xerkatzen nautena.

Amak:

– Jakes, nun tuk horak, eztiat senditzen.

Jakesek:

– Oihanpean kurri oreina xerkatzen.

Amak:

– Jakes, dei zakurrak, salba zak arreba!

Jakesek:

– Ama, nola sinets Mayi daitekela?

Jakes zakurreri hasi da xixtuka.

Oreina hil dute kolpez ausikika.

Jakesek kanitaz eman du pusketan:

– Aseko ahal da Mayi gurekilan.

Nexkak:

– Afal, afal, Jakes, ni nuk hor lehena,
ene haragiaz beterik dupina!

Ama sala zolan nigarra begin,
punala sartu du bere bihotzean.

Piarres Lafitte: *Atlantika-Pirene-etako sinheste zaharrak, Gure Herria aldizkarian*, 1965, uztaila.

Txomin Peillen: *Oreina eta gizoreina Literaturgintzan eta edergintzan, Iker 2*, Piarres Lafitte-ren omenaldian, 529 orrialdean.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1984), II tomoan, 173 orrialdean.

Kanta oni buruzko azterketa: Luis M. Mujika: *Euskal lirika tradizionala (I)*, Donostia 1985, 143 orrialdean; eta (II), 298 orrialdean.

Baita ere: Jon Joaristi: *La balada vasca de la muchacha ciervo*, Anuario del Seminario Julio de Urquijo, 1987, 917 orrialdean.

I

La muchacha:

*Derramando agua en el camino de las brujas,
he conseguido el don la noche de Pascua;
de noche soy Mayi, de día una cierva,
a la que persiguen los perros de la casa.*

La madre:

- Jakes, ¿dónde están los perros? No los siento.

Jakes:

- Corriendo en el bosque tras la cierva.

La madre:

- ¡Jakes, llámalos, salva a tu hermana!

Jakes:

- Madre, ¿cómo puedo creer que sea Mayi?

Jakes ha empezado a silbar a los perros.

Han matado a la cierva a golpes y a mordiscos.

Jakes la ha troceado con el cuchillo.

- Que se sacie Mayi con nosotros.

La muchacha:

- Cena, cena, Jakes, yo soy ahí la primera.

De mi carne está lleno el caldero.

*La madre llora en el fondo de la sala,
ha clavado un puñal en su corazón.*

Beranduko erromantzeak

(Romances tardíos)

Ez dakigu erromantze bakoitza noiztsu moldatua dan. Ala ere, batzuek zaar-itxura duten bezeala, besteak berri samarrak dirala ematen dute. Are geiago: zenbaitek zalantzhan jartzen gaituzte erromantzeak ote diran. Jenero onen illunabarrean jarritakoak dirala dudarik ez da. Oietako asko eskeiñi ditezke, baiña bakar batzuk bakarrik bildu ditugu oraingo sail ontan.

Desconocemos la fecha de composición de los romances. Sin embargo, así como algunos ofrecen un claro sabor a viejos, otros parecen bastante nuevos. Incluso nos crean serias dudas acerca de si se trata de auténticos romances. Es evidente que surgieron en el crepúsculo de este género. Podríamos aportar muchos cantares de este tipo; pero baste con unos cuantos.

“Alejotxo, jantzi ttuzu...”

I

A - le - - jo-txo jan - tzi ttu-zu pan - ta - loi be - rri - ak zer
e - san - go o - te di - zu Al - tsas uko erri - ak.

– Alejotxo, jantzi ttuzu
pantaloi berriak.
Zer esango ote dizu
Altsasuko erriak?

Altsatsuko neskatxok,
euren kutrillokiñ,
enamoratu dira
frantzes mutillokiñ.

Frantzes mutillok duaz
zubi berrin bera,
baita neskatxatzok ere
akonpañatzen.

Mutillok aurrera ta
neskatxok atzera.
– Adios, Alejotxo,
etorriko al zera?

Etxera juan eta
Kataliñek amari:
– Alejotxoren miñez
iltzera nua ni.

– Ixilik egon akit,
nere alabia;
etorriko yakun, bai,
Alejotxo guria.

Andik etortzen baden
il dala berria,
ipiñiko jitxanau
argia eta ogia.

Arantzazuko artxibotik, *Romances euskéricos de Aránzazu* izenburua duan kuaderno batetik.

Aita Gandiagak 1975-eko *Euskera* aldizkarian argitaratu zuan, *Hiru errmantze eta gorazarre bat* izeneko idazlan batean.

Arantzazuko artxiboan doiñurik ez du kanta onek. Gandiagaren idazlanean bai, ordea, berak eta aita Pello Maria Zabalak sortua. Orixea da guk emen eskeintzen deguna.

Gandiagak, kanta au noizkoa dan somatu nairik, onela dio: "Historia menderatzen duenak nik baino egokiago jarriko luke bere garaian. Ez ote da Fernando VII.ren garaiko eta zehatzago Frantziako Luis XVIII.k harako "Cien mil hijos de San Luis" Fernando erregeren alde bialdu zituen orduko? Erregeren alde zeuden nafarrak pozik bilduko ziren liberalen mendetik haur askatzera zetoztenekin".

Ditekena da, noski. Baiña burnibidea egitera ere frantzes-mordoa etorri zaun. Irakurleak jakingo duanez, ordukoak dira Xenpelarrek frantzesen aurka jarri zituan bertsoak. Eta, Errenerteri aldean bezela, Altsasun ere ibiliko ziran, eta garai beretsuan, ziur asko. Ordukoa ere izan diteke, beraz, kanta au.

Azken bertsoan, Alejotxo iltzen bada, argia eta ogia ipiñiko dizkiotela esaten da. Illen alde elizan egiten zan eskeintza, alegia. Gandiagak diona, beraz: "Eta han biziko zitzaien Alejotxo etxeko hilekin batean eta etxeengandik gertuan".

I

– Alejito, has vestido pantalones nuevos.

¿Qué te dirá el pueblo de Alsasua?

Las chicas de Alsasua, con sus remiendos en el sobaco,
se han enamorado de los chicos franceses.

Los chicos franceses marchan por el puente nuevo abajo;
y también las chicas, acompañándoles.

Los chicos siguen para adelante y las chicas toman para atrás.

– Adiós, Alejito. ¿Volverás?

Al entrar en casa, Catalina a su madre:

– Con la añoranza de Alejito yo me voy a morir.

– Estate callada, hija mía;
volverá, sí, nuestro Alejito.

Si de allí llega la noticia de que ha muerto,
le ofreceremos luz y pan.

“Antonia Agustina da neure izena...”

I

Antonia Agustina
da neure izena,
munduben paregabia
izandu naizena.

Errege serbitu dot
zortzi urti ontan,
Arjelen onduan ta
Buenos Airesetan.

Jauna, barkatu neuri
neure pekatua,
monja sartzera dijua
neure estadua.

J. M. Satrustegui: *Versión vasca de “La doncella guerrera”*, Boletín de Amigos del País aldizkarian, 1967 urtean, 323 orrialdean.

Azterketa luzea egiten du Satrustegik kanta oni buruz: gai au beste izkunza eta lurralte askotako kantetan ere erabilia izan dala; euskerazko kantatik besteetara zer aldaketa dauden, eta abar eta abar.

Argibide jakingarri batzuk ere baditu, kanta au berak noren aotik bildu zuan adierazteko:

“Era al principio de la primavera de 1966. Mi comunicante acababa de cumplir sus ochenta y cinco. Previo una breve explicación en prosa, me cantó dos estrofas, que dijo eran las finales de una canción que sabía su difunta madre. La versión procede de Urdiáin (Navarra) y el nombre de mi comunicante es Lucas Zufiaurre, Más tarde recordó otra estrofa.

He aquí el texto literal vasco:

“Neskitx bat soldadu sartu emen zan eta ezin zain ezagutu neskitxa zan edo mutilla. Ofizieliek esan zain: “Orain ikusiko diau” Ba emen zan liyo-soro aundi

bat eta agindu zain, sobre, soro baztarretik liyoan pasatzia: “*Emakumia baldin bada ez dik liiyorik zapalduko!*”. *Bai konturatu re! Beste guziak baztarretik eta ura erdiz t’erdiz...*

“*Eztuk emakumia!!*” esan zuten orduan.

Gero, etxera etorri zenian, bertsu auek kantatu emen zituen”.

Ondoren, guk or goien eazarri ditugun bertsoak eskaintzen ditu Satrustegik.

II

J. M. Satrustegi: *Romance vasco de la doncella guerrera*, *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian, X, 1972.

Gai bera berriz eta zeatzago erabiltzen du. Lukas Zufiaurreri jasotako bertsoak agertu ondoren, aren arreba Juana Marik emandako beste bi bertso ezartzen ditu. Onek bere amari ikasiak omen ziran. Onela dira:

Zortzi urte honetan
det errege serbitu,
neronek nahi nuen eta
hantxe dut serbitu.

Iñungo kapitanak
ez nau ni ezagutu,
soldau garbatxo batek
nau ni ezagutu.

III

Ne - raut e - ma - ku - mi - a pro - bin - tzi - a - ni - a
le - tra - rik es - ko - la - rik ba - te - re ga - bi - a.

Neraut emakumia
probintziania,
letrarik eskolarik
batere gabia.

Rejimentu bi izan ditut
amar urte onetan
Anjele Ondasetan
Buenosairasetan.

Batetikan iru balazo,
bestetik enfermo,
Jaunaren abixuak
oiek dira klaro.

Moja sartzera noia
komentu batera,
Jesusaren esposa
betiko izatera.

Oraintxen da denbora
izena muratzeko,
Agustina Antonia
naizela esateko.

Ario, ama neuria,
probintziania,
ongi lastimatzen naiz
zu despeditzia.

Aranzazu aldizkarian, 1969, ilbeltza.

Aurretik oar auek egiten ditu aita Luis Villasantek:

"El culto y diligente investigador de la literatura vasca popular, que es D. José María Satrústegui, nos dio el año pasado lo que él llama "versión vasca de la doncella guerrera" ("Boletín de Amigos del País", 1967, 323 ss.) Tema que, como él mismo indica, viene a ser patrimonio de la literatura universal..."

El P. Victoriano Gandiaga, por su parte, sin tener noticia de la versión del Sr. Satrústegui, ha recogido en Araoz (Oñate) otra versión del mismo tema, en parte coincidente, y en parte distinta de la recogida en Urdiáin. La comunicante ha sido la señora Leona Ugarte,... La Sra. Leona tiene 75 años. También ella dice que este canto lo cantaba su madre. Sus propios hijos no recordaban habérselo oído nunca, hasta que lo cantó al P. Gaudiaga.

Transcribimos la letra tal y como la ha recogido el citado Padre. La doncella guerrera de este canto insiste en su condición de guipuzcoana (probintziania). ¿Tendrá algo que ver con la monja alférez? Pero aquella se llamaba Catalina y ésta Agustina Antonia. Un detalle del arcaísmo del texto es la declinación del nombre de Jesús como si fuera nombre común (Jesusarena), detalle confirmado por otros documentos de la zona, de relativa antiguedad.

La versión de Araoz, más extensa y completa que la de Urdiain, recibe, no obstante, de ésta una aclaración inesperada: los nombres extraños de la segunda estrofa se identifican sin duda con los que ha recogido Satrústegui:

Arjelen onduan ta
Buenos Airesetan

(cerca de Argel y en Buenos Aires)".

Aita Gaudiaga, euskeraz eta Euskera aldizkarian, 1974-an, berdintsu mintzatzen da:

“Jose Maria Satrustegi jaun azkarra, “Boletín de Amigos del País” deritzaion aldizkarian, “versión vasca de la doncella guerrera” deitzen duen erromantzea eman zuen 1967-gn. urtean. Satrustegi jaunarekin ez nekiala, urte hartan bertan bildu nuen nik Neska soldau deritzaion hau. Gure herriak ere kantatu izan duen literatura unibersaleko gai baten testigutza damaigu. Satrustegi jaunak Nafarroako Urdiainen bildu zuen. Nik Araozén, Leona Ugarterengandik. Amari entzuna zuela esan zidan. Haren seme-alabak ez bide zioten entzun arik eta neuri kantatu zidan arte, Neska soldadu au giputz zela dio kantuak. Monja Alferezarekin ba ote du zer ikusirik? Baiña haurra Katalina zen -dio Villasantek-, eta hau Agustina Antonia. Jesus izena izen arront bezela jokatua ageri da erromantze hontan. Bigarren ahapaldiko 3-gn. eta 4-gn. bertsoetako

Anjele Ondasetan
Buenosairasetan.

Satrustegi jaunak bildutakoaren argitara hauxe da:

Arjelen onduan ta
Buenos Airesetan”.

IV

The musical score consists of three staves of music in common time, G major, with a key signature of one sharp. The first staff begins with a dotted half note followed by eighth notes. The second staff starts with a quarter note. The third staff begins with a half note. The lyrics are written below the music, corresponding to the notes. The lyrics are in Spanish and describe a scene of a young man and woman meeting at a festival.

1)Gaz - ti - ak kan - tu - an ta za - rrak e - ra - gu - si - an, o - ri da pa - sa - tzen da -
na ber-din mun-du gu - zi - an. 2)E-txe-tik ur-ten ne ban Ma - ri - a - tze - ko illi - an
a - ma - sei - ur - te - re - kin, neu - re txo - ra - me - ni - an.

Gaztiak kantuan ta
zarrak eragusian,
ori da pasatzen dana
bardin mundu guzian.

Etxetik urten neban
Mariatzeko illian,
amasei urterekin,
neure txoramenian.

Soldadu sartu nintzan
Agorraren bostian,
kabo ero sarjento
izateko ustian.

Ni lako fortunia
notu arrapatu? (1)
Amaika illabeteko
sarjento nonbratu.

Urte bete baiño len
nintzan teniente,
rejimentutikan be
nintzala ausente.

Rejimentu bi izan ditut
amar urte onetan:
Anjel de Ondasetan
Buenas Airasetan.

Nerau emakumia
ofizialia,
letrarik eskolarik
batere gabia.

Agustin Antonio
izan da neure izena.
Ori aitu dezutenok
ezta neure izena.

Oraintxe da denboria
izena muratzeko,
Agustina Antonia
naizela esateko.

Batetik lau balazo,
bestetik enfermo,
Jaunaren abixuak
oixeak ditut klaro.

Moja sartzera noa
komentu batera,
Jesusaren esposa
betiko izatera.

Amar urtian errege
serbitu detalako,
dotia gertu daukat
moja sartutzeko.

Adios, ama neuria
probintziania,
ongi lastimatzezn naiz
zu despeditzia.

Baiña oraindik ere
bizi naizen artian
gogoan izango zaitut
neure biotzian.

Beste aldaera au ere *Aranzazu* aldizkarian agertu zan, 1969-ko uztaillean. Aurretik oar auek egiten ditu aita Gaudiagak:

“Errebista ontan eta Ilbeltzko alean azaldu zan “Neska soldauaren” kantu jakingarri au. Orduan Leona Ugarte genuan kantari. Aren saioa ikusi ondoren, Arantzazu-ra Albitxuri-ra gazterik ezkondu zan Maria Barrena, Araoz-ko alabak, aiek baiño bertso geiago ta beste boz batean gogoratzen zituala esan zidian. Maria Barrena au ez da aurrenoko aldiz agertzen errebista ontan. Gogorramen argikoa da ta kantu zalea, dituan 77 urteak arren. Numbaitetik zera ere jakin det: gazte zanean eta Otalan bizi zan garaian, “aitzeko eperra” deitzen ziotela Maiñatarra. Bertsoak korrika bota zizkidan, baiña bozik etzidan bere-

alakoan kizkurtu. "Lenao ederki kantaitten neban nik ori baiña orain ezin dot ondo, eta kitto. Neure denporan kantaitzia izan bazan, ederki kantauko neban bai! Boza oso lastimosua deuka kantu onek". Azkenean, ala ere, askatu zuen eztarria eta or dituzute bertso eta doiñu.

1974 urteko *Euskera* aldizkarian berdintsu esaten du aita Gandiagak.

J. Lakarra, K. Biguri eta B. Urgell: *Euskal Baladak*, II tomoan, 143 orrialdean.

IV

*Los jóvenes cantando y los viejos charlando,
eso es lo que pasa en todo el mundo.*

*Salí de casa en el mes de mayo,
con dieciséis años, casquivana de mí.*

*Me alisté soldado el 5 de setiembre,
con la esperanza de llegar a cabo o sargento.*

*¿Quién ha tenido una suerte como la mía?
Para el undécimo mes me habían nombrado sargento.*

*Antes de un año era teniente,
aun estando ausente del regimiento.*

*Yo he tenido dos regimientos en estos diez años:
el de Anjel de Ondaseta y el de Buenos Aires.*

*Yo, mujer, oficial,
sin saber nada de letras y de escuela.*

*Agustín Antonio ha sido mi nombre.
Los que lo oís (sabed) que no es mi nombre.*

*Ahora es el momento de cambiar de nombre,
de decir que soy Agustina Antonia.*

*Por un lado cuatro balazos, por otro enferma,
son claros avisos del Señor.*

*Voy a meterme monja en un convento,
para ser por siempre esposa de Jesús.*

*Como he servido al rey durante diez años,
tengo preparada la dote para entrar monja.*

*Adiós madre mía, provinciana (guipuzcoana),
mucho me apena el despedirme de ti.*

*Pero todavía, mientras viva,
te tendré en el recuerdo y en el corazón.*

(1) notu: nork du. (Aita Gandiaren oarra)

“Soldadu sartu nintzan...”

I

Sol - da - du sar - tu nin-tzan zor - tzi bat ur-te - ko, e - re - ge ser - bi -
du ta txi - ki - tin pa - ri - an pai - ña a! li - bre i - za - te - ko.

Soldadu sartu nintzan
zortzi bat urteko,
Errege serbitu-ta,
trikitin parian baiña,
ai, libre izateko.

Erregek ez dau biar
gizon ezkondurik,
baizikan mutil libre
trikitin parian baiña,
ai, libre libretxorik.

Mutillak biar eta
mutillik egon ez,
Errege sillan dago,
trikitin parian baiña,
ai, jarrita negarrez.

Neskak ba-daudet baiña
ez dute balio,
Erregeri begitik
trikitin parian baiña,
ai, negarra dario.

Bergaran nindoieila
brigariarekin,
enamoratu nintzan,
trikitin parian baiña,
ai, damatxo batekin.

– Etxe zuriko dama
ikusten badezu,
gorantziak eiola
trikitin parian baiña,
ai, esango diozu.

Nor eroi eman dizun
galdetzen badizu,
Felis de Aranburu
trikitin parian baiña,
ai, esango diozu.

Felis de Aranburu
ain gizon trebia,
Bergaran billatu dau
trikitin parian baiña,
ai, beretzat andria.

Kanta au Aranzazu illerokoan agertu zan, 1968 urteko uztailaren zenbakian. Aurretik argibide auek ematen ditu L. V.-ek, aita Luis Villasantek ziur aski:

"He aquí un romance que tiene todas las trazas de original y arcaico. Lo ha recogido el P. Victoriano Gandiaga en Araoz (Oñate), de labios de Timotea Guridi, que ya anteriormente apareció en las páginas de nuestra revista; y lo completó con ayuda de alguna otra persona del mismo barrio de Araoz (María Josefa Zumalde). Ambas lo cantan con una tonada original e inédita, que resplandece por su bella simplicidad.

Al leerlo, cree uno evocar aquellos tiempos de los Austrias, cuando España se desangraba en las guerras de Italia, Países Bajos, Francia, Cataluña, Portugal, etc. El ejército real se hallaba exhausto de hombres y de dinero. No había gente ni recursos "para tantos empeños", como machaconamente repite Felipe IV en sus cartas a la Venerable María Jesús de Ágreda.

Lo reproducimos tal y como lo ha recogido el P. Gaudiaga, con sus enigmas y misterios. Los críticos juzgarán de su valor, originalidad, antigüedad y detalles lingüísticos".

Zazpigarren bertsoaren leenengo lerroan Nor eroi irakurtzen da. Eroi itz ori ez dakigu zer izango dan. Baiña Nor idatzi bearrean, Nork bearko luke, gure iritzirako beintzat.

* * *

Aita Biktoriano Gaudiagak ere argitara eman zuan kanta au, *Lau errromantze* izeneko idazlanean, *Euskera aldizkarian*, 1974 urtean, aurretik onela esanez:

"1967. Timotea Guridi jaso nion. Maria Josefa Zumaldek lagundu zidan hemen ematen dudan bestetan osatzen. Bertso berriak ez dirana bistan dago. "Austriatarren garaia gogoratzan digula iduri du -dio aita Villasantek-. Italian, Pais Bajuetan, Frantzian, Kataluña, Portugalen eta abar, España gerratan odol-ustutzen ari zen garaia. Erregeren ejerzitua gizonez eta diruz agortua arkitzen zen hein haurra. Etxezen ez gizonik ez sostengurik "hainbat eginkizunetarako", Felipe IV garrenak Agredako Jesusen Maria beneragarriari behin eta berriz esaten zion bezala.

Errege hitza izen bereizi bezala jokatua ageri da".

I

*Me alisté como soldado para ocho años,
para ser libre, después de servir al rey.*

*El rey no necesita de hombres casados,
sino de muchachos libres, muy libres.*

*Necesita de muchachos y no los hay,
el rey está sentado en su trono y llorando.*

*Hay muchachas, pero no valen,
el rey derrama lágrimas por sus ojos.*

*Estando en Bergara con la brigada,
me enamoré de una damita.*

*– Si ves a la dama de la casa blanca,
le dirás que le envío saludos.*

*Si te pregunta quién te los ha dado,
le dirás que Félix de Aramburu.*

*Félix de Aranburu, un hombre tan cabal,
en Bergara ha encontrado una esposa para sí.*

"Oi mirakulu guziz sineste nekea..."

I

Oi, hau da mi - ra - kü - llü es - to - na - ga - tri - al
a - ri - ma jüs - to ho - rren mün-dil' a - ger - tzi - a
He - ben - tik ju - nik ze - la ba - zi - zün ur - thi - a;
e - gün be - triz e - gin dü hu - na ü - tzül - tzi - a.

Oi, hau da miraküllü estonagarria!
Arima jüsto horren mündil'agertzia.
Hebentik junik zela bazizün urtia;
egün berriz egin dü huna ützültzia.

Ama zizün elizan urteburüzale,
ahizparik gaztena etxiri so'gile.
Harek, ez ustez ihur bazela etxian,
bere ahizpa hila ikusten dizü han.

Hilak erraiten deio: – Bizi'ag'ixilik;
ez deñat deüs eginen; ez egin nigarrik.
Ni hire ahizpa nün, mündü huntia jinik,
zerbeit sokorri nahiz orai hire ganik.

– Eta zer plazer düzü, ahizpa maitia?
Pürgatorioan deia zure izatia?
Zure hantik libratzeko banü poteria,
segur egin nirozü en'ahal güzia.

– Au, behar hitzait joan gañek'elizala,
eta ama igorri Santa Barbarara,
Maidalenara eta hantik Sarrantzera:
promesik, oil!, ez egin ahalaz seküla.

Gure Herria aldizkaria, 1928 III-IV, argibide onekin:

“Le P. Mendiondo m'a donné cette mélodie et ces couplets, à Tardets, le 21 Août 1922. J'ai encore un autre variante musicale de cet air, mais elle diffère très peu de celle que je mets ici. Quant aux couplets je n'en ai que cinq. Il y en aura encore peut-être. Il serait à souhaiter qu'on puisse les compléter. P. Donostia”.

P. Donostia: *Cancionero Vasco*, III, 864 zenbakian, 1189 orrialdean, argibide auekin:

“Infor.: P. Mendiondo, de Betharram. Loc. rec.: Atharratze. Fecha: 21 de agosto de 1922.

II

Oi mirakulu guziz sineste nekea,
arima gaixo baten berriz itzultzea;
mundutik joana zela bazuen urtea,
urte buruz egin du berriz itzultzea.

Ama zuten elizan urte-buruzale,
ahizparik gaztena etxeari soeile;
hunek ez zuen uste bazela nehore,
boz bat hor entzuten du, berak uste gabe.

Boz hura entzun eta so'iten du gainean,
ustez hauzoko haurrak zituen etxean...
Bere ahizpa hila ikusiz bet-betan,
harriturik, oihuka hasten da orduan.

Hilak ordu berean: -Oi, ago ixilik!
Ez daunat deus eginen, ez egin nigarrik!"
Ni hire ahizpa nun, lur gainerat jinik,
zerbait laguntza nahiz orai hire ganik.

– Zer nahi duzu, beraz, ahizpa maitea?
Purgatoriotan da zure izatea?
Zu handik libratzeko banu bertutea,
egin nezake segur en'ahal guzia.

– Joan behar dun, joan, gure elizara,
eta handikan gero Santa Barbarara,
ta ororen buruan Santa Madalenara...
Boturikan ez egin arinki sekula!

Kanta au *Kantu kanta kantore* liburuan (Baiona 1967) arkitu degu. Ez du esaten nundik jasoa dan.

III

The image shows four staves of musical notation. Each staff begins with a G clef. The first three staves are in 6/8 time, indicated by a '6' over an '8'. The fourth staff begins with a '4' over a '4', indicating 4/4 time. The music consists primarily of eighth notes and sixteenth-note patterns. There are several fermatas (dots above notes) and grace notes. The notation is typical of traditional folk music notation.

Kanta onen beste doiñu bat eskeintzen du emen Aita Donostiak, bere *Cancionero Vasco* ortan, irugarren tomoan, 864 zenbakian, 1190 orrialdean, baiña letrarik gabe eta argibide auekin:

"Infor.: P. Mendiondo, de Betharram. Loc. rec.: Atharratze. Fecha: 21 de agosto de 1933".

II

*¡Oh milagro difícil ciertamente de creer:
que una pobre alma haya vuelto de nuevo!
Ya era un año que se había ido del mundo,
al cabo del año ha vuelto de nuevo.*

*La madre estaba en la iglesia celebrando el aniversario,
la hermana más joven se había quedado a cuidar la casa;
ésta no creía que hubiera nadie,
cuando inopinadamente ha oído una voz.*

*Al oír esa voz miró para arriba,
pensando que los niños de la vecindad habían entrado en casa.
Al ver de repente a su hermana muerta,
asombrada, comienza a dar gritos.*

*La muerta en el mismo momento: - Oh, calla.
No te haré nada; no llores.
Yo soy tu hermana, que ha venido a la tierra,
deseando ahora de tí una ayuda.*

*- ¿Qué es, pues, lo que quieres, hermana querida?
¿Es que estás en el purgatorio?
Si yo tuviera poder para librarte de allí,
haría ciertamente todo lo que estuviera en mi mano.*

*- Has de ir a nuestra iglesia,
y después de allí a Santa Bárbara,
y al final de todo a Santa Magdalena...
Nunca hagas ligeramente ninguna promesa.*

Erliejiozkoak

(Romances religiosos)

Era batera edo bestera, erlijioa iturri oparoa eta emankorra izan da izkuntza guzien literaturetan. Bai gurean ere. Ala, ugalmen orrek erlijio-gai onen barruan beste sail batzuk asma arazi dizkigu: Eguberri, Pasioa, Ama Birjiña, Kristau-fedea eta santuak. Ori egiñik, eremu ontako nundik-nora-koak garbiago eskeintzen ditugulakoan gaude.

De una manera u otra, el tema religioso ha sido manantial caudaloso en las literaturas de todos los idiomas. También entre nosotros. Tal abundancia nos ha aconsejado subdividir este apartado en otros varios: Navidad, Pasión, Virgen María, fe cristiana y santoral. Opinamos que, haciéndolo así, será más fácil orientarse en este terreno.

Eguberria

(Navidad)

"Abe, Maria, graziaz betea..."

I

Bertso Berriak Nazimentuaren ganian, edo obeto esateko Mariaren alabantzak, zein dan Abemariya

Kanta aurrekoa

*Pekatuaren mantxa bagarik
agertu ziñan mundura,
demoniño arruari
burua zapaldutera.*

– Abe, Mariya, graziyaz betia,
Jauna da zugaz, andria;
andra guztien artian bere
zu zara berinkatia.

Nazareteko tenpluan dago
donzella eder bat jarririk,
izena bere Mariya dauko
graziyaz adornaturik.

Atiak eta leiuak bere
barrutik daukoz itxirik,
gizon-bildurrez zarratu ditu,
danak burdinaz josirik.

– Dontzella ederra, ez bildurtu,
eztator emen gizonik,
angeru San Gabriel dator
gizonen forman yantzirik.

Jesusen Ama izaterako
badezu borondaterik?
Zeru altutik zugana nator
Jaungoikoak bialdurik.

– Ondo etorriya izan zaitiala
angeru beneragarriya,
sinistuten dot nik sigurrian
dana zeruko barriya.

Jesusen Ama izaterako
duntasunik eztago nigan,
egin bedi zuk gura dozuna
nigaz gaur mundu onetan.

Egun zoragarri onetan,
berba onen ondorian,
Jesus deritxan seme eder bat
artu eban sabelian.

Andra Mariya izarrak legez
argi egiten asi zan,
Jesusen eta gure Ama
instante atan egin zan.

Lau milla urte aurreragotik
munduan itxaroten zana,
ona emen zuzen kunpriturik
profeta santuen esana.

Andre garbi (y) au geure Amatzat
ezagutu ebenian,
infernutarrak dardar-ikera
ulle tiraka asi ziran.

Santa Mariya Jaungoikuaren
Amatzat eskojidua,
zeure erreguz jaritx'iguzu
zeruetako erreñua.

Emen gagoz gu pekatariyok
zure itxaropenian,
lagun zakiguz orain ta beti
geure eriotzako orduan.

Len zirianak ere fiñaurik,
orreraz ostian
Leon de Elkoro-k aumentau ditu,
tristiak kontsolau daitian.

Amalau bertso auek eta beren *kanta aurrekoa*, moldiztegi-izenik gabeko bertso-paperetan zabaldu ziran. Paper oietako bat Loiolako Aita Jose Inazio Aranaren bilduman arkitu genduan.

Irakurleak urrengo orrialdeetan ikusiko duanez, bertso auetako batzuk eta “Abe, Mariya” graziaz bete...” asten dan eta urrena datorren kantaren bertsoak berdiñak dira. Beraz, paperaren buruan *Bertso Berriak* esaten bada ere, kanta au erromantze bat degu.

Azken bertsoak ematen du argi: leen ziran bertsoak bukaturik, Leon de Elkoro izeneko batek beste bertso batzuk erantsi eta osatutako sailla dala, alegia.

Baiña Leon Elkoro orrek erantsitakoak eta leen ziranak nola alkarrengan-dik berezi? Gauza segurua ez bada ere, azken bost bertsoak Elkoro orrenak izango dira.

Bertsolari ori Leon Elkoro Alegria zeritzan, Otxandion 1843-an jaioa eta bertan 1919-an illa. Aren bizitzaren argibideak eta bildu aal izan ditugun bertsoak, *Auspooa*-ren 142 zenbakian plazaratu genituan.

Besteak beste, paper ori argitaratzearekin mesede ederra egin zigun Leon Elkoro orrek, kanta onen gaur arte ezagutzen degun agerraldirik zaarrena eman baitzigun.

II

– Abe, Maria, graziaz betea,
Jauna da zugaz, andrea,
andra guztien artean bere
zu zara bedeinkatea.

Nazareteko tenploan dago(1)
dontzella eder bat jarririk,
izena bere Maria dauko,
graziaz adornaturik.

Ate-leioak (2)
barrutik daukoz itxirik,
dontzella ederrari sartu eztakion
iñondik bere gizonik.

– Dontzella ederra, ez, ez bildurtu,
ona eztator gizonik,
aingeru San Gabriel dator
gizonen forma yantzirik,
Jesusen Ama izaterako
badozu borondaterik?

- Borondatea badot nik baña
eztot merezimenturik.
- Merezimentuek dozuelako
zagoz zu eskojidurik.(3)

Bilboko *Euzkadi* egunkarian, 1931-VI-12-an. Aurretik onela esaten da:
"Erri-yakintza edo folk-lore G'tar E'k batuak". Leen ere esan degunez, Eulogio
Gorostiaga zan biltzaile ori.

Erromantze au, "Izar ederrak argi egiten dau..." asten dan erromantzearen
ondotik dator *Euzkadi* ortan.

Kanta onek badu zer ikusirik, Gernika aldean Eguberri aurretik kantatzen
diran *Mari Jesiak* izeneko kantekin.

Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bilduman, "Akio, 1932" sobre
edo estalkian ere azaldu da erromantze au, Eulogio Gorostiagak bialdua, Sorne
Etxebarriaren aotik jasota. Aldaketa auek ditu: 3/3: neska ederrari sartu ezta-
kion; 5/3: merezimentuek dituelako.

Aitzol zanaren bilduma ortan bertan, Ataungo Jokin Dorronsorok 1935 ur-
tean jaso eta bialdutako bertsoetan, erromantze au ere azaldu da, aldaketa
auekin: 1/4: zu zara bedeinkatua; 3/2: barrutik dauzkez itxirik; 4/5: Jesusen
Ama izateko.

Emen ere, erromantze au "Izar ederrak argi egiten dau..." asten danaren on-
dotik dator.

Dorronsoro jaunak oar au egiten du: "Abesti au zatika osatu det. Lendabizi-
koak Iurren jasoak dira, azkenekoak Zeanurin".

III

A - be Ma - ri - a gra - zi-az be-te-a Jau-na da zu-gaz, an - dre-
a, an-dra guz - ti-en ar - te-an be - re za - ra zu be-dein-ka - tu -
a, an-dra guz-ti-en ar-te-an be-re za-ra zu be-dein-ka - tu - a.

Abe, Maria, graziaz betea,
Jauna da zugaz, Andrea,
andra guztien artean bere
zara zu bedeinkatua.

Nazareteko tenploan dago
dontzeilla eder bat jarririk,
izena bere Maria dauko
graziaz adornaturik.

Doiñu eta bertso auek Azkueren esku-idazkietatik artuak ditugu. Ez degu us-te iñun argitaratu zituanik. Berak nun eta noren aotik jasoak zituan esateko, onela dio: “Canción religiosa de Otxandiano y Ubidea (B): Quintana P. Abásolo”.

Bigarren bertsoaren aurretik lerro auek ditu, beretzat idatziak noski, baiña guretzat oso jakingarriak diranak:

“Aquí transcribo literalmente las canciones populares tal como llegaron a mis oídos. Si algún día fuesen publicadas, se purificaría el lenguaje; en tal caso, estos tres números figurarían al lado de Agur, María, núm. ... de esta colección. Valga lo que valiere esta melodía, en la cual podrá alguien notar dejos de la Mar-sellesa y del orfeónico Ume eder bat, ahí va la segunda estrofa con que suele cantarse, estrofa que se oye en más de un villancico popular”.

IV

Ave, Maria, graziaz betia,
Jauna da zugaz, Andria,
andra guztien artian bere
zara zeu bedeinkatia.

Nazareteko tenpluan dago
dontzeila eder bat jarririk,
ixena bere Maria dauko
graziaz adornaturik.

Atiak eta zerrajak bere barrutik daukadaz itxirik.
– Ez ikaratu, dontzeila ederra, hemen ez dago gizonik.

Aingeru San Gabriel dator gizonan forman jantzirik.
– Jaungoikoaren Ama ixateko badozu borondaterik?

– Borondatia bai daukat baina ez daukat merezimenturik.
– Merezimentu daukazulako zaukadaz eskojidurik.

– Aingeru ona, zeuk zer dakazu zerutik enbajadia?
– Humildadia, karidadia, Jaunaren borondatia.

*Sancta Maria, gratia plena,
Dominus tecum, benedicta tu,
Birjina Amaren sabel santuan
Salbadoria da sortu.*

Humildadiak edegiten dauzeru altuko atia, karidadiak emoten dau osasuna ta bakia.

Humildadia ta karidadia zara zeu, Birjina garbia, Jaungoikoaren mirabetik Jesusen Ama egin zarana.

Xabier Amuriza: *Bizkaiko bertsogintza, Izengabeak, I*, Bilbo, 1995, 263 orrialdean, argibide onekin: "Bermeoko Gabon-kanta, Zer, 1984, Uztaila-Gabonila, 77 zenbakia".

I

*Sin mancha de pecado vististe al mundo,
a aplastar la cabeza al soberbio demonio.*

*Ave, María, llena de gracia, el Señor está contigo, Señora,
entre todas las mujeres eres tú bendita.*

*En el templo de Nazaret una hermosa doncella está sentada,
María tiene por nombre, adornado de gracia.*

*Las puertas y las ventanas las tiene cerradas por dentro,
por miedo a los hombres las ha cerrado, armadas todas de hierros.*

– *Hermosa doncella, no temas, no viene aquí ningún hombre;
viene el ángel San Gabriel en forma de hombre.*

- ¿Querías ser madre de Jesús?
Del alto cielo vengo a ti, enviado por Dios.

- Seas bienvenido, ángel venerable;
creo yo con certeza que es una noticia del cielo.

Para ser madre de Jesús no hay en mí dignidad;
cúmplase hoy en mí en este mundo lo que tu deseas.

En este maravilloso día, después de estas palabras,
recibió en su seno a un hermoso hijo que se llama Jesús.

La Señora María empezó a resplandecer como las estrellas,
en aquel instante se hizo madre de Jesús y nuestra.

Lo que desde cuatro mil años antes se esperaba en el mundo:
he aquí fielmente cumplidos los vaticinios de los santos profetas.

Cuando reconocieron a esta pura Señora como Madre nuestra,
los demonios, temblorosos, empezaron a tirarse de los pelos.

Santa María, escogida para Madre de Dios,
consíguenos por tus ruegos el reino de los cielos.

Aquí estamos nosotros, pecadores, esperando en ti;
ayúdanos ahora y siempre, en la hora de nuestra muerte.

Una vez terminadas las (estrofas) que antes había, a continuación de ellas
León de Elcoro las ha aumentado, para consuelo de los tristes.

(1) Euzkadi-n: Nazaretgo.

(2) Euzkadi-n utsune bat dago emen, nola bete ez dakiguna.

(3) Euzkadi-n: eskojiduturik.

"Illargi argixa..."

I

Illargi argixa,
nun zerade, Marixa,
zeruko izar ederra,
mariñelaren gixa?

Gaur dala jaixua jaixo,
gaur dala jaixotzia,
Semia egin dabela
Birjiña dontzaillia.

Beste andra guztiak
oi daue doloria;
ark etzun dolorerik
zelan zan Birjiña.

Otzari negarrez dago
jaio dan infantia;
amak esaten dio:
– Ixi, neure Semia.

Billozik bazagoz bere
etzara zu pobria;
zeruak josirik dago
zuretzat erropia.

Zeruan erropia ta
munduan azotia;
zu izango zara
mundu onen Jabia".

Arantzazuko bertso-bilduman azaldu da kanta au, 120 orrialdean, eskuz idatzia eta atzetik "Arrateko zelaiko" asten dan kantaren zenbait bertso dituela. Ez da esaten nundik jasoa dan.

I

*Clara luna, ¿dónde estás, María,
hermosa estrella del cielo, guía de los marineros?*

*Que hoy es nacido, que hoy es el nacimiento,
que ha dado luz a un Hijo la Virgen doncella.*

*Todas las demás mujeres sufren dolores;
pero ella no los tuvo, porque era la Virgen.*

*Llorando está de frío el infante que ha nacido
la madre le dice: "Calla, hijo mío".*

*Aunque estás desnudo, tú no eres pobre;
cosida está por el cielo la ropa para ti.*

*En el cielo ropa y en el mundo azotes.
Tú serás el dueño de este mundo.*

"Nora zoazen erran daztazu..."

I

Allegretto

No - ra zo - az-en e-rran daz - ta - zu, An-dre de-na Ma-ri - a. Ni ba - no -
ai - e Be - le - ne - ra, Be - le - ne - ko i - ri - ra, Be - le -
ne - ko i - ri - ra e - ta se - ro - ren os - pi - ta - le - ra.

– Nora zoazen erran daztazu,
Andre Dena Maria.
– Ni banoiae Belenera,
Beleneko irira,
Beleneko irira eta
seroren ospitalera.

.....
gori aitu zuenean,
Josefe jaunak
nigarrari eman zue.
Gortxen goiti artzainak dira,
goazen gu ere arara.

Altzina kamina zazie...

Arara bidea luze dago,
erortzeko peligro da,

.....
.....
Ospitalekoak galde ziguten:
– Zek nongoak zerate?

.....
.....
.....

.....
.....
Ama Birjina erditzen sarri
borda idiki batean,
borda idiki batean eta
idi-ganbela batean.

Amak Semea maiolatzen du
arri otzaren gainean,
idiak atsez berotzen eta
mandoak ostiko emaiten;
idia benedikatu eta
mandoa madarikatu.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco*, 873 zenbakian, 1011 orrialdean; Naparroan, Aezkoako Abaurregaino Filomena Legazken aotik jasoa.

R. M. Azkue: *Aezkera edo Petiriberro-ingurueta mintzaera, Euskera*, 1927, 179 orrialdean.

Azkuek ez ditu guk ainbeste lerro puntuz idazten. Baiña jarri bearrak ziran, gure iritzirako beintzat, bertsoak puntuz osa ditezen.

Seigarren bertsoan, "idia benedikatu eta mandoa madarikatu" esaten da. Ori bera dio, orain urte batzuk Logroñoko Mansilla de la Sierra errian Domingo Medel eta Agustín Rocandiorenen aotik jaso nuan erdal errromantze batek:

Y allá juntito a Belén,
contra el reino de Judea,
está la Virgen parida
y alumbrándole una estrella.
Pasó por allí José,
le dijo de esta manera:
"¿Qué haces ahí, Virgen parida?
¿Qué haces ahí, Virgen doncella?".
Y en viendo al Niño Dios,
humilde en tanta pobreza,
sin saber en qué envolverlo
sino en una poca hierba,

y la mula se la come
y la vaca se la lleva,
maldiciere (y) a la mula
y a la vaca bendijera.
Con el aliento'e la mula
el Niño de Dios se hiela,
con el aliento'e la vaca
el Niño de Dios consuela.
¡Si el Niño de Dios naciese
en medio la primavera
cuando la rosa y la flor,
y no cuando el mundo hiela!

I

(Traducción de R. M. Azkue)

- Decidme a dónde vais,
Señora Santa María.
- Yo voy a Belén,
al poblado de Belén,
al poblado de Belén y
al hospital de las monjas.

Caminad adelante.

.....
*Los del hospital me preguntaron:
¿Vosotros de dónde sois?*

.....
*Cuando oyó esto
el señor San José,
se echó a llorar.
Ahí arriba hay pastores,
vámonos también nosotros allá.*

.....
*Es largo el camino para allá,
hay peligro de caerse.*

.....
.....
*Pariendo en seguida la Madre Virgen
en una borda abierta,
en una borda abierta y
sobre el pesebre de bueyes.*

*La Madre envuelve al Hijo en pañales
sobre piedra fría,
el buey le calienta con el aliento
y el mulo dando coces;
el buey recibía bendiciones,
maldiciones el mulo.*

“Utzi mendian ardiak eta...”

I

Utzi mendian ardiak eta
artzain bat dator or bera.
Zer ete diño, zer ete dakar
ordu onetan kalera?

– Artzain ona, ze berri dakazu
ordu onetan errira?
Kontu eukizu ikusten bazattu
alkate jaunak kalian.

– Ez alkateren, ez mundukoren
batere eztot bildurrik,
mundu guztiya alegratzeko
barri onak dakakaz nik.

Neuk ikusi dot ixarra baño
seintxu bat ederragua,
amabost urteko dontzella batek
bere besuan darua.

Iдиа dauko oetzako ta
almuedatzako edurra,
idi batekin ta asto batekin
berotzen dabe Jesusa.

– Jose, jo ixu soñua eta
daigun guztiyok dantzatu,
jaio da Jesus Belenen eta
orra guztiyak kontentu.

Kanta au *Euzkadi* egunkarian agertu zan, 1932-ko abenduaren 10-ean, bertsoen atzetik argibide auek emanez:

“Uarra.- Neurtitz billa-billaka onexek idoro dodaz. Obeto: Paulogorran’dar Tomase atso zar-zarrak neurtitz oneik kantau daustaz. Berak diñuanez, zarretan be zarrak dira, gazttxutan ikasiyak dauzalako. Tomase alargunak 85 urte dauz. Atzo goxekuak ezta, beraz. *Beti-bal*”.

Urrena *Ardi-narruz jantzirik* asten dan kanta eskeintzen du; eta ondoren beste argibide auek ematen ditu:

“Uarra.- Lenguak legetxe, neurtitz oneik be, Paulogorran’dar Tomase’k neurre arreba dan Jasone’ri abestu dautsoz. Bere amari entzunak ei dira. Atso zar on orrek amaikatxu bertso badakiz. *Beti-bal*”.

I

*Dejando las ovejas en el monte, un pastor viene bajando.
¿Qué es lo que dice, qué es lo que trae en esta hora al pueblo?*

*– Pastor bueno, ¿qué noticias traes en esta hora al pueblo?
Ten cuidado no te vea el señor alcalde en el pueblo.*

*– Yo no tengo ningún miedo del alcalde ni del mundo;
traigo buenas noticias para alegrar al mundo entero.*

*Yo he visto a un Niño más hermoso que las estrellas:
una doncella de quince años lo tenía en sus brazos.*

*Tiene al buey por colchón y a la nieve por almohada;
entre un buey y un asno calientan a Jesús.*

*Toca música, José, y dancemos todos;
ha nacido Jesús en Belén y todos estamos contentos.*

“Ardi-narruz jantzirik...”

I

Ardi-narruz jantzirik,
otsez gosez illik,
artzain baten bixitza
igaroten dot nik.
Guazen erririk erri
mundua aratutzen,
jaio dala Belenen
Jesus zabaldutene.

– Kañabera orrekin
zagozan gixona,
Jaungoikuak dixula
zeuri egun ona.
Sentidu baldin badezu
sentidu zaratarik,
edo entzun badezu
aingeruen kantarik?

– Bart gaberdian legez
emendik igaro zan
gixon gazte eder bat,
egoz jantziya zan.
Aren kanta ederrak
pozez zoraturik,
gau guztiya emon dot
arraian bat artu barik.

– Etzan, arrantzalia,
gu lez gorputzduna
bart emen igaro zan
gazte egaduna.
A zan espiritu puru,
abixuz doiana
iparrian dagozan
erregiakana.

– Neu be juango nintzake
Jaun ori ikustera,
bart lupilña eder batzuk
banitzuz atera.
Erropa zarra soñian
da eskuak utsian,
zelan sartu nitzake
jaun baten etxian?

– Neuk be ardi-narrubak
nituzan soñian,
baña antxe egon naz
bart gau guztiyan;
juan zaktyoz eta
esan egiyozu:
“Arrantzale pobre bat
ementxe natortzu”.

– Arrantzale pobria,
neuk biyotza nai dot,
urria ez zidarra
ezetako eztot.
Zeure bixita ori
askozaz geiago
estimaten dizut
erregienba baño.

Bilboko *Euzkadi* egunkarian agertu zan kanta au, 1932-ko abenduaren 10-ean, ondoren argibide auek zituala:

"Uarra.- Lenguak legetxe(1), neuritz oneik be, Paulogorran'dar Tomase'k neure arreba dan Jasone'ri abestu dautsoz. Bere amari entzunak ei dira. Atso zar on orrek amaikatxu bertso badakiz. *Beti-bat.*"

Leengo kanta ori, bakarra da eta, "Utzi mendiyan ardiyak eta..." itzakin asten dana da. Sail onen aurrekoia, beraz.

II

Allegretto

Ka - ña - be - ra o - rre - kin za - goz - an gi - zo -
na, Jaun - goi - ko - ak di - zu - la zu - ri e - gun o -
na. A - di - tu al - de - zu i - xer - en za - ra - ta - rik e -
do ze - ru - e - ta - ko ain - ge - ru kan - ta - rik? O - rain pa - re ga -
be - a Je - sus gu - re mai - te - a gaur zeu - re yai - o - tze - a ze -

Allegro

le - bra - tu - tze - ra.

Ain-ge-ru-ak kan - ta,

ar - tzai o-nak

dan - tzan, guz - ti - ok a - la - ban - tza zu - ri zor di - zu - gu.

As - to - ak a, i - di - ak mu, a - tse - gi - nik as - ko

ba - de - gu.

Ar - tu ma - ki - lak e - ta jan - tzi a - bar - kak,

ar - tzai - ak joan

di - ra - de Je - su - sen bi - la.

Ai ze a - le - gri - a dan

dan - tzan jen - de gu - zi - a!

Sal - to bri - nko e - gi - nik da - nak joan di - ra.

Kañabera orrekin
zagozan gizona,
Jaungoikoak dizula
zuri egun ona.
Aditu al dezu
ixerren zaratarik,
edo zeruetako
aingeru-kantarik?

Orain pare gabea,
Jesus gure maitea,
gaur zeure jaiotzea
zelebratutzera.

Aingeruak kanta,
artzain onak dantzan,
guztiok alabantza
zuri zor dizugu.

Astoak a, idiak mu,
atseginik asko badegu.

Artu makilak eta
jantzi abarkak,
artzaiaik joan dirade
Jesusen bila.

Ai zer alegria dan
dantzan jende guzia!
Salto brinko eginik
danak joan dira.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 963 zenbakian, 116 orrialdean, Ondarroan jasoa. Baiña ez du esaten noren aotik.

III

The musical score consists of four staves of music in G major, common time. The lyrics are written below each staff. The first staff starts with 'An-dra kux-ku - rre - ne - an,' followed by 'aitz ba - ten gai - ne - an' and 'gi -'. The second staff continues with 'zon bat a - rrان - tzu - an i - txas baz-te - rre - an.' and 'Au zan'. The third staff follows with 'es - pi - ri - tu pu - ru a - bi - su zeu - ga - na' and 'i -'. The fourth staff concludes with 'pa - rre - tik da - to - zan e - rre - ge - a - ka - na.'

Andra kuxkurrenean,
aitz baten ganean,
gizon bat arrantzuan
itxas bazterrean.
Au zan espiritu puru
abisu zeugana,
iparretik datozañ
erregeakana.

- Kañabera orregaz
zagozan gizona,
Jaungoikoak deizula
zuri egun ona:
sentidu baldin bozu
zuk emen zaratarik,
edo entzun zeruko
aingeru-kantarik?

- Bart gaberdia legez
emen igaro zan
gizon gazte eder bat,
egoz jantzia zan.
A zan espiritu puru
abisuz joana,
iparretik etozan
erregeakana.

Doiñu eta iru bertso auek R. M. Azkueren esku-idazkietan azaldu dira. Ez degu uste iñun argitaratu zituanik. Lekeitio jaso omen zituan berak, baiña noren izenik ez du esaten. Irakurlea oartuko zanez, 1/5-8 eta 3/5-8 lerroak berdintsuak dira.

I

*Vestido de piel de oveja, muerto de frío y de hambre,
la vida de pastor llevo yo.*

*Vayamos de pueblo en pueblo recorriendo el mundo,
anunciando que Jesús ha nacido en Belén.*

– *Hombre que estás con esa caña,
que Dios te dé buen día.*

*¿Has sentido algún ruido
o has oído cantos de ángeles?*

– *Ayer, a eso de la medianoche,
(pasó) un hombre joven y bello, vestido de alas.
Embriagado de gozo por aquellos hermosos cánticos,
he pasado toda la noche sin pescar un solo pez.*

– *No era, pescador, de carne y hueso como nosotros
aquel joven con alas que pasó anoche por aquí.
Era un espíritu puro, que iba a dar el aviso
a los reyes que moran en el norte.*

– *También yo iría a ver a ese Señor,
si ayer hubiera pescado unas hermosas lubinas.
Con mala ropa en el cuerpo y las manos vacías,
¿cómo puedo entrar en casa de un señor?*

– *También yo cubría mi cuerpo con pieles de oveja,
pero allí he pasado toda la noche:
vete y dile:
“Aquí viene un pobre pescador”.*

– *Pobre pescador, yo quiero el corazón;
el oro y la plata no los tengo en nada.
Tu visita mucho más
estimo que la de los reyes.*

Jesukristoren Pasioa

(*Pasión de Nuestro Señor*)

Atal ontan bildu ditugun kantak, edo kanta-pus-kak, obeto esateko, ez dute alkarrekin antz edo lotura aundirik. Baiña Jesusen Pasioaz mintzatzen dira, eta geienak mandatari bat agertzen digutela: sarritan San Juan, Jesus Kalbariora dijoala Ama Birjiñari adierazten diona. Pasioari buruzko poema luzeren bat izango ote zan garai batean? Poema edo dana-dalako ori kantatu ez-ezik ez ote zan antzeztu ere egingo? Gure barruan sortu diran galdera auei ez gera erantzunik ematen ausartzen.

Los cantares o, mejor dicho, los fragmentos de cantares que hemos reunido en este apartado no guardan entre sí gran relación o semejanza. Pero nos hablan de la Pasión del Señor, presentándonos la mayoría de las veces un mensajero: San Juan, generalmente, que anuncia a la Virgen que Jesús va camino del Calvario. ¿Formarían parte, en algún tiempo, de algún poema acerca de la Pasión? Y en vez de un poema recitado, ¿no se trataría de una pieza representada? Son preguntas para las que no tenemos contestación.

“Lagunak lagun kanta dezagun...”

I

Gau-bijilitako Kalbario-puxkak

Lagunak lagun kanta dezagun
Kristoren eriotzia,
gurutze santu altuan dago (il zan)
Aita Eternoaren Semia;
aren oñian baju-bajuan
beraren Ama Santia,
beraren Ama Santiarekin
Maria Magdalenia.
Jesukristo gurutzian,
Amandria oñetan,
Maria Magdalena
aren aldean.
Jaiotzen danak eriotzia
gauza eskusa gabia, etc.

* * *

– Bart amets egin dot
juduak martirizatzen ebiltzala
ene Semia.
– Egi-egia da, Ama neria,
Ama deskonsoladia:
juduak martirizatzen dabilz
zure Semia.
– Ai nere Seme bakar besterik gabia!
Nere Semia palta dot eta
ikusi dezute, jendiak?
– Atzo goizian neban ikusi
Jerusalengo kalian,
Ostirala Santuko
induljentzia goizian,
ondo negargarria zioan
Ziriñeoko kalian...

* * *

– Semiak dituzuen andrak,
lagun egidazute negar egiten...

* * *

Ark ura eskatu zuenian,
arentzat edariya
zer izango ote zan?
Gelarriakin beazun miña
biñagriakin nastuta.

* * *

Goien dago Aita Zerukoa;
Birjiñari etorri zaio
mandataria,
San Juan beria.

* * *

Egunian iru aldiz ori konsideratzen daben pekataria, ez sutan erreko da, ez uretan itoko da, ez bideko lagun txarrakin juntauko da. Biarren-biarren dagon orduan (eriotz-orduan) Aita Eternoaren alde eskubitik ateako da. (Orain iru Pater Noster.)

* * *

Maria Josefa Ollakindea Arrieta, 94 urte, bista galdua, jaiotzez zegamarra. Amazazpi urtekin Arrolara (Arantzazura) neskame etorria. Baserria: Albitxuri-zarra; bestea: Albitxuri-zabal.

“Kateiakin-eta erromesak etortzen nik ez det ikusi izan, baño ikusitakoai entzunda nago”.

* * *

Bertsoak, eta orain arteko prosa-lerroak ere bai, Arantzazuko bildumatik artuak ditugu.

Or aitatzen diran baserriak, Arantzazu aldekoak dira.

Azken oarra, erromesak kateekin-eta etortzen ziraneko ori, Maria Josefa orren itzak izango dira eta balio aundiko argibidea da. Orrelaxe etorriko ziran garai bateko erromesak, oïñutsik eta kateak arrastaka, auek edo auen antzeko kantak aoan zituztela. Erromes oietako bat, San Inazio.

Guruzbide biotz-unkigarria izango zan ura, salbatu diran puskak ain ederrak diranean.

Arantzazuko bilduma ortan, izenburua or goien ezarri degun bezela dago: *Gau-bijilitako Kalbario-puxkak*.

Kanta au nola jaso zan adieraziz, onela esaten zigun Aita Luis Villasantek 1965-VIII-13-ko eskutitz batean:

“Erromantze ori artzera iru teologu gazte joan giñan, artean meza eman gabe geundela: Salvador Mitxelena, Aita Agirretxe eta ni; Salvador Mitxelena zebillen oso bero gauza oekin, eta ura izandu zan gero erromantzea libruan kopiatu zuena... Nik ere ezagutu nuen, ba, emakume ura, eta erromantze-zatiok bere aotik biltzen ibilli nintzan, baiña laguntzaille bezela”.

II

The musical notation is in G major, common time. The lyrics are in Basque, written below the notes. The first staff starts with 'A - ma' and ends with 'gan-be -'. The second staff starts with 'ra' and ends with 'ar - gi -'. The music features various note values including eighth and sixteenth notes, and rests.



Ama Birjina zegoenean
ganbera ilun batean,
ilunik ere argitzen zuen
Andrea zegoen lekuan.
Yaun San Gabriel xarri zitzoen
belauriko aurrean,
izu audiak artu zuen
gura antxe ikusi zuenean.
– Ez izutu, ez, Maria,
ni naiz mandataria.
– Mandataria nondik, nondik?
– Zeruko koroetarik,
zeruko koroetarik eta
Errege Aitarengandik.
– Mandataria, zer dakarrazu
berze munduko berrik?
– Berriak berri eta berriak
guziz tristerik.
Gure Jesus omen dago
guzia lantzaztaturik,
guzia lantzaztaturik eta
irur iltzez xosirik.
– Oi, ene Seme onetsia,
oi zer dugun merezia!
Obenik eta kulparik gabe
oi zure llagen itsusia!
– Ama Andrea, zaude ixilik,
ez egin, otoi, nigarrik;
gaurko ene odol isuriez
eztaukazula konturik.
Egarri naiz bai egarri,
biotzean du ageri.
Judeo krudel traidore oiek
eman ziraten edari,
edaria dolorea,
ozpinarekin gedarrea,
ark erretzen zuen
ene biotza,

altzairu urrak(?) bezala.
Amen, amen dela Jesus
guzien Salbazalea;
zure izenean erranen dugu
gogo onez Abe Maria,
baita Pater noster ere
Jauna dakigun balia,
Jauna dakigun balia eta
berze munduan gloria.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 813 zenbakian, 935 orrialdean: Naparroako Aezkoan, Aburregaineko Filomena Legazi jasoa.

R. M. Azkue: *Aezkera edo Petiriberro-ingurueta mintzaera, Euskera*, 1927, 179 orrialdean.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1984), II tomoan, 185 orrialdean.

III

Errentore egiazkoa dago gugatik
kurutze baten enklabaturik,
bere soin preziosoak gañeraz biurturik,
Kalbario santuan dago amarraturik;
judegu traidoreak ez eukoен bakerik.
– Birjiña Soberanak urten deila laster etxetik.
– Nik nora urten neike, San Juan, etxetik?
Nik nora paseu neike bide luzia?
Bide liziarekin aldatz goria?
O, neure Seme dultzien, iñori gatxik egin gabia!
Zer egin dozu zuk pekatu grabia,
kurutze ortan artzeko eriotzia?
– Betor ixilik, arren, Ama Andria.
Bartko gabian neure koroia izarra zan,
neure penaren aundiaz eskatu neban edaten,
oi miñaren beaztuna, beaztunaren kedarria!
Jesus, orren miña!

Orazio au iru bider esaten dabenak ez dau ikusiko inpernurik, izango pena-rik, ilten dan orduan izango dau Paraíso Santuan parte, amen, Jesus.

Bertso-lerro auek, eta ondorengo otoitza ere bai, Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bilduman agertu dira, *Poesías populares*, 1936 mordoan, *Atitá Malutakoren Abestiak* izeneko saillean; Markinako Barinagako Jose Maria Arriaga Zuazok Ibarrangeluan jasoa.

IV

Jesus esanda asten naiz printzipioa,
alima zaitez, jente umanoa.
Errezio errezioa urea,
erresuzitatu zan Pazkoa goizean.
Kriadorearekin, Salbadorearekin,
artzaz bear degu primero konfesatu,
ez da zer konfesioan eskusatu;
animea dañatzen da,
korputze dornitu,
baña Salbadorea
an enzerratzen da.

– Nun ziñen bada,
Andre konsueloz betea,
juduak preso zuenen
zure Semea?
Barka bizat, Ama Andrea,
norberak jasoko du
bere gurutzea,
norberak berea,
nik ere nerea;
emen artu bear degu
kristauen fedea
ta kristandadea,
induljentzia osteil goizean.
Jesukristo gure Jauna zegon gurutzean,
bere Ama Santisima gurutze ondoan,
Maria Magdalena alde batetik,
Maria Marta bestetik,
eguzkia lutoz jantzirik,
illargia odolez izarditurik,
amalau milla aingeru lurrean
auspez jarririk,

zeruko izarrak
lurrera jetxirik
negar zerien bada.
Au gauean edo egunean
esaten dona,
zeruan Birjiñan alden.
Nere gurutze santue,
gaizki maltratue,
iguzu gure animaz kontue,
izan ez dedin kondenatue.

Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanren bilduman, *Kanta errikoyak* 1935 mordoan, Ataungo Joakin Dorronsorok jasoa eta oar onekin bialdua:

“Agustiña Goikoetxeari orain 70 urte entzuna, onek 80 urte zituanian”.

V

Ama Birjiña dago
etxeaa erretiatuik,
eztakila bere Seme
Jaun Dibinoan berriik.
San Juan Ebanjelistek
oiu ein dio atetik:
– Ama Berjiñe,
laxter egizu etxetik;
zure Semia or deamate
kalian azotatuik.
– Ai, au berriin berri tristii!
Nundik noake nere Semiingana?
Nuntez Galbarioko mendiik,
aldapa luze,
bidea laur.
O nere Seme iñor gabe,
zeruen eta lurreen kreadorii.

Aita Jose Antonio Donostia: *Euskal-erriko otoitzak itzaldian, Egan aldizkarian*, 1956, bigarren zenbakian.

I

*Cantemos ayudándonos, compañeros,
la muerte de Cristo;
en la santa y alta cruz pende (murió)
el Hijo del Eterno Padre;
a sus pies, humildemente,
su Santa Madre,
con su Santa Madre,
María Magdalena.*

*Jesucristo en la cruz,
y su madre a los pies,
María Magdalena
a su lado.
El que nace la muerte
no la puede excusar.*

- Ayer noche he soñado
que los judíos estaban martirizando
a mi Hijo.
- Es verdad, Madre mía,
Madre desconsolada:
los judíos están martirizando
a vuestro Hijo.
- ¡Ah mi Hijo único, sin igual!
Me falta mi Hijo y
¿lo habéis visto vosotros?
- Ayer por la mañana lo vi
por la calle de Jerusalén,
del Viernes Santo en la mañana de indulgencias,
marchaba bien digno de lástima
por la calle del Cirineo.
- Mujeres que tenéis hijos,
ayudadme a llorar.

*Cuando él pidió agua,
la bebida para él
¿cuál sería?
Agria hiel con hollín
mezclada con vinagre.*

*En lo alto está el Padre Celestial;
A la Virgen le ha venido
un mensajero:
su San Juan.*

II

(R. M. Azkueren itzulpena)

*Cuando estaba la Virgen Madre
en un oscuro aposento,
aun en la obscuridad brillaba
el lugar en que la Señora estaba.
El señor San Gabriel se le puso
de rodillas delante;
se apoderó de Ella gran espanto
cuando vio a aquél allí.
– No temáis, no, María,
yo soy embajador.
– ¿Embajador de dónde, de dónde?
– De los coros del cielo,
de los coros del cielo
y del Padre Rey.
– Embajador, ¿qué traéis
noticias del otro mundo?
– Noticias nuevas y noticias
muy tristes:
dicen que nuestro Jesús está
todo atravesado de lanza,
todo atravesado de lanza y
cosido con tres clavos.
– ¡Oh mi bendito Hijo,
oh qué habremos merecido!
Sin culpa ni yerro
¡oh qué atroces son vuestras llagas!
– Señora Madre, callad,
por Dios no lloréis;
de la efusión de sangre de hoy
no hagáis cuenta.
– Tengo sed, sed tengo,
aparece esto en el corazón.*

*Esos crueles traidores judíos
me dieron de beber;
la pócima fue el dolor,
hollín con vinagre,
aquellos abrasaba
mi corazón
como el acero...
Amén, sea amén. Jesús,
Salvador de todos,
en vuestro nombre diremos
con devoción el Ave María
y también el Pater noster,
para que el Señor nos valga,
para que nos valga el Señor y
(tengamos) gloria en el otro mundo.*

"Aiek lotan daudenak..."

I

Aiek lotan daudenak
arren adiazu,
gaurko misterioak
kantatzera goaz gu.

– Etorri nai badezu,
andrea, gurekin,
kontenplatuko gera
iru Mariakin.

Eta iru Mariak
aurrera dijoaz,
ikustera Maisua
bere sepulturan.

Aingeru eder-eder bat
zuri jantzirikan,
zeruko edertasunez
oso beterikan.

Goazen, bada, goazen, bada,
bai, aleluiara,
esatera Pedrori
pasajia dana.

Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduman, Ataungo Jokin Dorrondonorok 1935 urtean nunbait ere jaso eta bialdua. Bertsoen ondoren oarau:

"Pazko egunean Kalbarioak egiten dituzten bitartean abestu oi dute Uarte-Arakil'en".

I

*Aquellos que están dormidos escúchenme, por favor:
los misterios de este día vamos a cantar nosotros.*

*- Si queréis venir, señora, con nosotros,
los contemplaremos con las tres Marías.*

*Y las tres Marías van para adelante.
a ver al Maestro en su sepulcro.*

*Un ángel hermosísimo, vestido de blanco,
todo lleno de las hermosuras del cielo.*

*Vamos, pues, vamos, pues, sí, al aleluya,
a decirle a Pedro todo lo que ha pasado.*

“Amabost pausuz konponitzen da...”

I

A - ma - bost pau - suz kon - po - ni - tzen da Gal - ba -
ri - o - ko bi - de - a, a - ren
neu - rri - ak ar - tu di - tu_en_a da Je - sus gu - re mai - te - a.

Amabost pausuz konponitzen da
Galbarioko bidea,
aren neurriak artu dituena
da Jesus gure maitea.

Pausu sainduak ongi kontatzen
mundu gonetan lenena
Ama Birjina asi izan zen
ilez geroztik Seme ona.

Dudarik gabe egia dela
nai duzu klaridadea?
Ama Birjina Agredakoak
emanen dizu fedea.

Alabatua izan dadiela
Kristoren eriotzea,
bedinkatue izan dadiela
aren Amaren sortzea.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 729 zenbakian, 848 orrialdean; Naparroako Imotzen, Oskotzeko Justa Goldarazenari jasoa.

II

Pausu santuak ongi kontatzen
mundu onetan lenena
Ama Birjiña izan zen
illezkerozitik Seme ona.

Dudarik gabe egia dela
nai duzu klaridadea:
Ama Birjiña Agredakoak
emanen dizu fedea.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 843 zenbakian, 983 orrialdean; Gipuzkoan, Arruako Juan Krutz Iriondori jasoa.

Doiñuarekin datorrena bertso berri batzuen letra da, ez erromantze edo balada batena; eta gaiñera beste neurri bateko bertsoa. Orregatik, aldi ontan ez degu doiñu ori onera aldatzen.

I

*De quince pasos se compone el camino del Calvario;
quien lo ha medido es nuestro amado Jesús.*

*La primera en este mundo en contar bien los santos pasos,
la Virgen Madre lo comenzó, después de morir su buen Hijo.*

*¿Deseas claridad (para ver) que es verdad sin duda ninguna?
La Madre Virgen de Ágreda te concederá fe.*

*Que sea alabada la muerte de Cristo;
que sea bendita la Concepción de su madre.*

“Birjina Arantzazukoa...”

I

Bir - ji - na_A-ran - tza - zu - ko - a; Se - me-a e - gin du - zu,
Se - me - a e - gin du - zu e - ta Se - me - a dau - ka - zu,
Se - me pre - zi - o - so ga - ren joil! A - ma ze - ra zu,
ze - ru - a - re - kin lu - rra zau - re - ak di - tu - zu.

- Birjina Arantzazukoa,
Semea egin duzu,
Semea egin duzu eta
Semea daukazu,
Seme prezioso garen
o!, Ama zera zu:
zeruarekin lurra
zaureak dituzu.

- Goiek zaureak tuzularik
bulux gorrian zu,
tori nere mantua,
estal egin zazu,
Jesusek nai eztuela beztimenturik
eta ere gutiago fantasiarik,
zeruetara fan bear dugu,
Birjina Maria.

– Zertara zeruetara,
Birjina Maria?
– Ene Senea an dago eta
garen ikusitzera.
Eztugu ezagutuko,
Birjina Maria.

– Ezagutuko dugu, bai,
Madalenea,
gurutzea soinegian dauka,
gurutze berdea,
gurutze berdearekin,
oi!, yake oria.

– Orai guraxe badateke
oi!, nere Semea.
– Gontarik eztiakezut,
Birjina Maria.
Gontan pasatu bear
dut pasionea,
pasionarekin eriotza,
eriotzarekin mundu guzia.

Amen amen dela Jesus
guzien salbazalea,
zure izenean erranen dugu
gogo onez Abe Maria,
baita Pater noster ere
Jauna dakigun balia
eta bertze munduan gloria.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 831 zenbakian, 963 orrialdean; Naparroan, Abaurregaineko Filomena Legaz andreari jasoa.

R. M. Azkue: Azkera edo *Petiriberro-ingurueta mintzaera, Euskera*, 1927, 179 orrialdean.

Baita ere doiñurik gabe bere *Euskalerriaren Yakintza-n*, IV tomoan, bi tokitan: 99 eta 180 orrialdean.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia, 1984), II liburu, 189 orrialdean.

I

(*Traducción de R. M. Azkue*)

*Virgen de Aránzazu,
habéis dado a luz un Hijo,
le habéis dado a luz
y tenéis un Hijo,
de aquel precioso Hijo
¡oh! sois Madre Vos:
con el cielo la tierra
son vuestros.*

*Siendo vuestras las alturas,
Vos desnudo,
tomad mi manto,
cubridle;
que Jesús no quiere vestiduras
y menos aún fantasías,
tenemos que ir a los cielos,
Virgen María.*

– *¿A qué a los cielos,
Virgen María?*
– *Mi Hijo está allí y
a verle a Él.*
– *No le reconoceremos,
Virgen María.*

– *Le reconoceremos, sí,
Magdalena;
tiene a cuestas la cruz,
la cruz verde;
con la cruz verde
¡oh! túnica amarilla.*

*Ahora aquél puede ser
¡oh! mi Hijo.*
– *De esto no puedo conocerle,
Virgen María.*
– *En esto debo pasar
la Pasión;
con la Pasión, la muerte;
con la muerte, todo el mundo.*

*Amén, que sea Jesús, amén,
el Salvador de todos,
en vuestro nombre diremos
afectuosamente el "Ave María",
también el "Pater Noster",
para que el Señor nos valga
y (nos dé) en el otro mundo la gloria.*

“Zer esaten didazu, Madalenea?”

I

The musical score consists of four staves of music in common time (indicated by '2' over a '4') and a key signature of one flat. The first three staves begin with a treble clef, while the fourth staff begins with a bass clef. The lyrics are written below each staff, corresponding to the musical notes.

Staff 1: Zer e - sa - ten di - da - zu, Ma - da - le - ne -
Staff 2: a? Biz - tu - rik dau - ka - gu - la Zu - re se - me -
Staff 3: a ta ba - do - a - la A - sen - tsi -
Staff 4: o goi - ze - an ze - ru - e - ta - ra.

- Zer esaten didazu,
Madalenea?
- Bizturik daukagula
zure Semea,
ta badoala
Asentsio-goizean
zeruetara.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco*, 800 zenbakian, 907 orrialdean; Bizkaian, Nabarnizko Dominga Aboitiz andreari jasoa. Ondoren onela dio:

"Una variante de esta lindísima canción aprendí en el santuario de San Miguel de Excelsis, de labios de María Aldasoro, de Arbizu, en septiembre de 1912. Su melodía, aunque linda, no es tan distinguida como la precedente".

Azkueren esku-idazkietan ere agertu da kanta au, Dominga Aboitiz orri jasota; baiña beste bi bertsorekin, eta leenengo ori ere aldatuta:

– Zer esaten didazu,
Madalenea?

– Erresuzitatu da
zure Semea,
glorietara,
Asentzio-goizean
zeruetara.

– Balle triste onetan
zer da pasatu?

– Gure Salbadoreoa
dabe preso artu,
ostegunean;
kruelki sartu dabe
Anasenean.

– Anas, Erodes eta
Kaifasegana,
andik eraman zuten
Pilatosgana,
emon zezala,
sententzia kruel bat
emon zezala.

II

¿Zer e - sa - ten di - da - zu, Ma - da - le - ne - a?
 Re - su - zi - ta - tu de - la ber - o - tren se - me - a.
 ¡Ai au go - zo - a! ai au go - zo - a! Paz -
 ko e - gu - na da ta glo - ri - o - so - a.

– Zer esaten didazu, Madalenea?
– Resuzitatu dela berorren Semea.
Ai au gozoa! Ai au gozoa!
Pazko-eguna da ta gloriosoa.

Aingeru arendako zeruan leioak,
gu ere emen gaude arako yaioak;
geuk au gogoz nai baldin badegu,
esperantza aundian bizi bear degu.

Zeruko jardinaren lore eder artean,
antxe eseriko gera egunen batean.
Ai au gozoa! Ai au gozoa!
Pazko-eguna da ta gloriosoa.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 801 zenbakian, 906 orrialdean.

Kantutegi ortan ez du Azkuek esaten noren askotik jaso dituan doiñu eta bertso auek. Baiña bere esku-idazkietan ere azaldu dira eta goien onela irakurtzen da:

“*María Aldasoro, Arbizu. Martina Lanz, Lakuntza. Tomada en San Miguel, 13-X-1912*”.

Kanta onen bertsoak eta itzulpena eman ondoren, onela dio Azkuek:

“*Con la misma melodía cantó la María Aldasoro alguna que otra escena de la Pasión, la conducción del Señor de casa de Pilatos a la de Caifás (sic) y luego a la de Herodes, etc., que parecen no encajar entre las estrofas transcritas*”.

Baiña Azkueren esku-idazkietan ikusten danez, bertso oiek Nabarnizko Domingo Aboitizen aotik jaso zituala ematen du.

I

- *¿Qué me dices, Magdalena?*
- *Que ha resucitado vuestro Hijo,*
a la gloria,
en la mañana de la Ascensión (sube) a los cielos.

- *En este triste valle ¿qué ha sucedido?*
- *A nuestro Salvador lo han apresado,*
el jueves,
cruelmente lo han metido en casa de Anás.

*A casa de Anás, Herodes y Caifás,
de allí lo llevaron a casa de Pilatos,
para que le diera
una cruel sentencia, para que le diera.*

II

*– ¿Que me dices, Magdalena?
– Que ha resucitado vuestro Hijo.
¡Ay qué dulzura! ¡Ay qué dulzura!
Es el glorioso día de Pascua.*

*Para aquel ángel (hay) ventanas en el cielo.
Aquí estamos también nosotros, nacidos para él.
Si esto lo deseamos con firmeza,
debemos vivir con gran esperanza.*

*Entre las hermosas flores del jardín del cielo,
allí nos sentaremos algún día.
¡Ay qué dulzura! ¡Ay qué dulzura!
Es el glorioso día de Pascua.*

“Miserere, miserere...”

I

Allegro non troppo

Mi - se - re - re, mi - se - re - re, Jaun - a fan da
Sal - ba - do - re; Sal - ba - do - re Sal - ba -
do - re, ne - re_a - ri - ma o - - toi zu - re.

Miserere, miserere,
Jauna fan da Salbadore;
Salbadore, Salbadore,
ene anima, otoi, zure;
ene anima, otoi, zure,
bai orai ta beti ere.

Ortzegun Santu arratsean
triste zindaude biotzean,
triste zindaude biotzean
apostoluen konpainian,

apostoluen konpainian eta
oin-esku ederren garbitzean,
oin-esku ederren garbitzean eta
oin-esku ederren txukatzean.

Jesus fan tzen baratzera
an odolez izertzera,
an odolez izertzera eta
.....
sokaz zuten arrastatu,
artaz etziren kontentatu;
buruan zuten koronatu,
artaz etziren kontentatu:
oin-esku ederrak itzeztatu,
artaz etziren kontentatu,
... biotza lantaztatu.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 860 zenbakian, 1000 orrialdean; Naparroako Aezkoan, Filomena Legazi jasoa. Bertsoen ondoan oarau egiten du:

"Termina la candida cantilena con Amen amen dela Jesus de los romances Ama Birjina, núm. 8 y Nora zoazen erran daztazu, núm. 66".

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia 1984), II tomoan, 201 orrialdean.

R. M. Azkue: *Aezkera edo Petiriberro-ingurueta mintzaera, Euskeria*, 1927, 179 orrialdean. Baiña itzak beste onela:

Miserere, miserere,
Jauna fan da Salbadore.
Salbadore, Salbadore,
ene anima jotoi! zure;
ene anima jotoi! zure,
bai orai ta beti ere.

Ortzegun Saindu-arratsean
triste zindaude baratzean,
triste zindaude baratzean eta
apostolu maitén artean,
apostolu maitén artean eta
oin-esku ederren garbitzean.

Jesus fan zen baratzera
an odolez izertzera,
an odolez izertzera eta
etsai artean erortzera.
Sokez zute arrastatu,
artaz etzire kontentatu;
buruan zute koronatu,
artaz etzire kontentatu;
oin-esku ederrak itzeztatu,
artaz etzire kontentatu,
biotza zute lantzaztatu...

Amen, amen dela, Jesus,
guzien salbatzalea.

I

(Traducción de R. M. Azkue)

*Miserere, miserere,
Señor, se fue la Ascención,
Ascensión, Ascensión,
mi alma es vuestra,
mi alma es vuestra
ahora y siempre.*

*La noche del jueves santo
estabais triste de corazón,
triste de corazón estabais
en compañía de los apóstoles,
en compañía de los apóstoles y
al lavarles pies y manos;
al lavarles pies y manos y
al enjugárselos.*

*Jesús se fue al huerto
a sudar allí sangre,
a sudar allí sangre y
.....
le arrastraron con sogas,
con ello no se contentaron,
le coronaron en la cabeza,
con ello no se contentaron,
le clavaron pies y manos,
con ello no se contentaron,
... lanceáronle el corazón.*

"Nere lagunak, lagun zakidaz..."

I

Andante mosso

Neu-re la - gun- ak, la - gun za - ki - daz San-ta_I - sa - bel - go lu - rre -
ra. Bart gau- ber - di - an jai - o - ko sein - a gaur be - laun - i - ko ja - rri
da. Mi - ra - ri o - ri es - kri - bi - tze - ko be - a - rra do - gun pa - pe -
ra, tin - te - ru - a ta plu - me - a be - re ze - ru - tik e - to - rri - ko da.

Nere lagunak, lagun zakidaz
Santa Isabelgo lurrera,
bart gauberdian jaioko seina
gaur belauniko jarri da.

Mirari ori eskribitzeko
bearra dogun papera,
tinterua ta plumea bere
zerutik etorriko da.

Kalbarioko pausua da(la)
pausu (txit) dolorosoa,
Jesukristo (gaur) il dala eta
triste dagola mundua.

Kalbarioko pausua da(la)
pausu (txit) dolorosoa,
Jesukristo (gaur) biztu dala ta
alegre dala mundua.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 867 zenbakian, 1007 orrialdean; Gipuzkoan, Gatzagako Teresa Pagoagari jasoa.

Doiñua eta leenengo bi bertsoen itzulpena eskeiñi ondoren, onela dio Azkuek:

“A las dos estrofas que figuran con la melodía, seguían otras dos que no sé si guardan relación con ellas. Las publico por si pudieran servir de base para nuevas pesquisas del poema original”.

Urrena, irugarren eta laugarren bertsoen itzulpena emandakoan, onela esaten du:

“Sin esas la, txit y gaur que se han introducido y puesto entre paréntesis, los versos estos resultan cortos”.

I

(Traducción de R. M. Azkue)

Amigos míos, acompañadme a tierras de Santa Isabel. El niño que nació anoche, hoy se ha puesto de rodillas.

El papel, tintero y también la pluma que necesitamos para escribir ese milagro, vendrán del cielo.

(Que) el paso del Calvario es paso (muy) doloroso, que Jesucristo (hoy) ha muerto y está el mundo triste.

El paso del Calvario es paso doloroso, que Jesucristo ha resucitado y está el mundo alegre.

"Or goien Belenen..."

I

Or goien Belenen
lau legua Galbariora.
Billatu ninuen andre bat.
Esan zien: "Ikusi ozo Jesus?"
– Bai, andrea.
Gurutze bat lepoan
eta kate bat arrastaka.
San Juan eta Maalena
zituen konpañian.
Lau agrabiste, (?)
iru figure,
atera zion lanza,(1)
eman zion koroa,
eman zion lanzada
bere kostado sagradotik.
Kamina ezaun, kamina ezaun,
gu lenago joango gera,
orazio santua esanez,
au urte guzikoi ostieletan esaten duenak
ateatzen du animea Purgatoriok.
Beti bee bekaturik.
Beti bee bekatutik.

Zeruuun izar,
lurren belar,
itxasoan ari
ain ee pekatu baditu,
izan lituke guztiak bekattuk.

Au esaten eztuena,
au dakiena esaten ezpadu,
señalatu izanen da,
azken juizioko eguniin
Josepetako zelaiin.

Aita Jose Antonio Donostia: *Euskal-Erriko otoitzak* idazlanean, *Egan* aldizkarian, 1956 urteko bigarren zenbakian. Aurretik onela esaten du:

“Andre Juana Engrazia Adot otsegiaarrak otoitz au eman zidan, orain amar urte. Berak bere amari ikasia: bere ama, otsagabiarra ere, orain berrogei ta amar urte il zala, irurogei ta lau urtekin”.

Ondoren onela dio:

“Olako otoitzak edo, obe, sasi otoitzak, beste errietan ere arkitzen dira. Liburu bat nere eskuetara orain urte asko eldu zan. Bere izena: *Tesoro de milagros y oraciones de la SS. Cruz de Caravaca, de gran virtud y eficacia para curar toda clase de dolencias así del cuerpo como del alma como también un sin número de prácticas para librarse de hechizos y encantamientos con bendiciones y exorcismos. Oración de Ntro. Señor Jesucristo.*

Erromantze batean ara zer irakurtzen dan:

*Jesucristo se ha perdido,
la Virgen le va a buscar,
de huerto en huerto,
de rosar en rosar...*

Amaia ara nolakua dan:

Quien esta oración dirá / todos los viernes del año / sacará un alma de pena / y la suya de pecado. / Será feliz mientras viva / y de toda mala infestación guardado. / Quien la sabe y no la dice / quien la oye y no la aprende / el día del juicio / verá lo que pasa en él. / Amén Jesús. / Tres Credos a Cristo Crucificado y una Salve.

Bi otoitz auek, eskuarazkoa ta gaztelakoa era bateko dira, agerian dago. Prantzian, Espanian, Inglaterran ere... arkitzen dira otoitz edo erromantze batzuek: Pater Noster, Ave Maria eta Credo asten diranak”.

II

Or goien Belene,
lau legoara Kalbarioa,
billatu nuen andre bat.
Galdetu nion:

– Ikusi dezu Jesukristo?
– Bai, ikusi det,
lepoan gurutze bat
katearekiñ arrastaka zuela
bere konpañian:
an ikusi nitun iru figura,
iru doblezko zapi batean.
Eman diote koroa,
eman diote iltzea,
eman diote lantzara
bere kostadu santuan.
Leenago edo geroago
orazio au esanez
juango gera Belena.
Orazio au egunean beiñ,
ostiraletan iru bider esaten duanak,
aterako du purgatoriotik
anima bat,
berea pekatutik.
Zeruan izarrak aña,
lurrean belarrak aña
pekatu egin baditu ere
denak barkatuak izango dira.
Au aitzen duanak
ikasten ez badu,
ez dakienari erakuste ez badio,
señale izango du Josepetako zelaian.

Xabier Azurmendi Agirre: *Atzoko Zegama*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1997. Ondotik onela dio: "Josepa Azurmendi, 1980-9-2an jasoa".

Eta oar batean:

"Otoitz hauek Tentario Kontzilioaren aurretik sortuak dirudite, salbazioa ekintza hutsetan finkatzen baitute. Gainera Erdi Aroko usain fin bat darie".

* * *

Erdal erromantze baten itzulpenak ditugu testu auek. Neurririk gabe-eta orregatik egongo dira. Erdal erromantze ori, Errioxako Mansilla de la Sierra errian jaso genduan orain urte batzuk, Domingo Medel eta Agustín Rocandio-ren aotik. Onela dio:

*Allá juntito a Belán,
siete pasos al Calvario,
me encontré (y) a una mujer
toda vestida de blanco.
Preguntéle, preguntéle
que si ha visto al Soberano.
– Sí le he visto, no le he visto,
por esta calle ha pasado.
San Juan y la Magdalena
lo llevaban de la mano,
con una cruz en los hombros
y una cadena arrastrando".
– Caminemos, Virgen pura,
caminemos al Calvario,
que por pronto que lleguemos
ya le habrán crucificado.
Ya le crucifican pies,
ya le crucifican manos,
ya le tiran la lanzada
a su divino costado.
Y la sangre que caía
caía al cálix sagrado,
y el hombre que lo bebiese
será bienaventurado,
y en este mundo es el rey
y en el otro el coronado.
Y el que esta oración dijese
todos los viernes del año
sacase un alma de pena
y la suya de pecado.*

*El que lo oye y no lo dice
a Nuestro Señor maldice;
el que lo oye y no lo aprende
a Nuestro Señor ofende.*

(1) Amonak esaten zuen: *oiala*. (Aita Donostiaren oarra)

"Gurutze santuaren bai misterioa..."

I

Gurutze santuaren
bai misteriua.
Ongi akusa bedi
jende umanua.

Goian tenploan(1) dago
Amandre Santa Ana,
iru arrosa eder
eskuan dauzkana.

Iru eskuan eta
bai zazpi buruan;
amabi klabelinatxo
korona santuan.

Ara lore eder ok
nundikan dituzu?
Jesukristoren ortu
santutik ditugu.

Jesukristo zeruan
mezaren ematen,
San Pedro apostolua
mezaren laguntzen.

Maria Santisima
mezaren entzuten,
Maria Magdalena
aren akonpañatzen.

Amaika milla aingeru
koruban kantatzen,
beste ainbeste ta geiago
musikaren jotzen.

– Josepe, ikusi dezu,
bai, nere Semia?
– Eztudala ikusi,
Birjiña Maria.

Kalia gora bera,
bai, zure Semia,
soñean daramala
gurutze beria.

– Ekatzu gurutze ori,
bai, nere Semia.
– Eztizut bada emanen,
Birjiña Maria.

Gurutze ortan pasa
bear det nik eriotzia,
eriotziarekin
pasiyo luzia.(2)

Arbola santu ori
pixka bat bajatu,
guk ere nai genduke
gloriya gozatu.

Kanta au akabatzen da,
jendiak, barkatu;
obeki dakienak
aurrera segitu.

Kristo zerura dua
gizon bat bakarrik,
gizon bat bakarrik eta
besuak zabalik.

Kristalian argia
bezela pasatu,
aur egin da gero ere
birjiña gelditu.

– Uso zuri ederra,
zeruan zer berri?
– Zeruan berri onak
orain eta beti.

Zeruan nor lijuake(3)
zeruan bolatu,
aingeruak baletzazke
eguak prestatu.

Eguak prestatu lezazke
argizarizkuak.
Urtu ere balezazke
egoa senduak.

Kristo nork ikusi du,
bai, gorputz utsean?
Resuzitatu izan zan
Pazkua goizean.(4)

– Zer esaten didazu, Magdalena?
Zer esaten didazu, Magdalena?
– Resuzitatu dela
berorren Semia.

– Ai, au gozua!
Pazko eguna da
ta gloriosua.
Aleluia, aleluia,
que ha resucitado
nuestro Redentor.

Aita Jose Antonio Donostia: *Apuntes de Folklore vasco / Dos canciones del día de Pascua de Resurrección*, Revista internacional de estudios vascos, 1925, 529 orrialdean. Aurretik onako argibide au ematen du:

“En el pueblecillo de Arbizu (Barranca de Navarra) existía la costumbre similar de recorrer las calles del pueblo a las dos de la mañana(5) cantando el día de Pascua de Resurrección las siguientes estrofas”.

Eta bertsoen atzetik beste argibide au:

"El lector habrá observado que esta composición parece dividida en dos partes: el cantor termina su cometido con la estrofa XIII. "Kanta au akabatzen da": que se habla en ella no sólo de la Resurrección sino también de la Pasión del Señor y que hay alusiones al Nacimiento del Señor, al encuentro de la calle de la Amargura y a la Ascensión. A pesar de ello, como más arriba digo, estas estrofas se cantan el día de Pascua de Resurrección. Muy difícil me parece decir si la composición poética en su forma original tuvo la que yo presento o si no será tal vez un fragmento de una especie de Vida de Ntro. Señor."

No conozco publicada ninguna versión de estas letras. Solamente he visto una así:

Ene Jaungoikoa,
zerua ze barri?
Zeruan barri onak
orain eta beti.

Estrofa que se canta en Zeánuri en las tareas agrícolas(6) y que parece desprendida de la composición que yo publico.

Los dos últimos versos en castellano ¿serán indicio de una traducción, o algo añadido por la persona que dio la letra, recuerdo de alguna otra composición?

La música correspondiente a la letra que he recogido apareció en mis Conferencias(7) y luego reproducida en el Cancionero Vasco(8)".

Azken bi bertsoak beste erromantze batia dagozkio: "Zer esaten didazu, Madalenea" asten danari, alegría.

J. A. Donostia: *La canción popular religiosa y artística en sus diversas manifestaciones, Obras Completas, IV, Donostia, 1985, 189 orrialdean, argibide auekin:*

"Fue leída en el IV Congreso Nacional de Música Sagrada, celebrado en Vitoria del 19 al 22 de Noviembre de 1928. Intervino el P. Donostia el día 20. Viene su conferencia en la Crónica del Congreso, 1930, p. 248-267".

* * *

Bertso auen doiñua, Arbizun jasoa, bere *Euskel Eres Sorta* liburuan eman zuan Aita Donostiak, 243 zenbakian.

Baita ere: J. A. Donostia: *Obras Completas, IV, 1985, 458 orrialdean, Ejemplos musicales.*

Kris - to ze - ru - ra du - a gi - zon bat ba - ka - rrik, gi - zon bat ba - ka - rrik e -
ta be - su - ak za - ba - lik. Kris - to ze - ru - ra du - a gi - zon bat ba - ka -
rrik gi - zon bat ba - ka - rrik e - ta be - su - ak za - ba - lik.

Crónica del IV Congreso Nacional de Música Sagrada liburuan Aita Donostiarren itzaldi bat bada. Ontan kanta edo erromantze au berriz argitaratzen da, aldaketa bakarrarekin: 20/4: Seme beorrena.

Irakurlea oartuko zanez, sail ontako zenbait bertso eta “Arrateko zelaiko...” asten dan kantaren beste zenbait bertso berdiñak dira.

Kanta onen jasoaldirik osoena Aita Donostiarrena da, eta bai zaarrenetako bat ere. Orregatik jarri degu beste guzien aurretik.

Beste argitalpen bat: P. Donostia, *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 704 zenbakian, 975 orrialdean, argibide auekin:

“Loc. rec.: Arbizu. Fecha: setiembre de 1914. Clas.: religiosa. Ref.: Salen el día de Pascua por el pueblo las chicas, entonando esta canción. Antes a las dos de la mañana, ahora a las cuatro”.

II

Andante mosso

Ku - ru - tze San - tu - a - ren bai mis - te - ri - o - a, bai mis - te - ri - o -
a, on - do - a - ri de - za - gun jen - de u - ma - no - a Goi - an ten - plo - an
da - go a - man - dre San - ta_A - na, A - man - dre San - ta_A - na i - ru li - li a -



Kurutze santuaren
bai misterioa,
bai misterioa,
ondo ari dezagun,
jende umanoa.
Goian tenploan dago
amandre Santa Ana,
amandre Santa Ana,
iru lili arrosa
eskuan tuela;
iru eskuan eta
bai zazpi buruan,
bai zazpi buruan,
amabi krabelina
korona santuan.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco*, 854 zenbakian, 995 orrialdean; Nafarroa, Burundako Olaztin, Frantziska Bengoetxearen aotik jasoa.

III

Goi - an ten - plo - an da - go a - man - dre san - ta_A - na, i - ru li - li a - rro -
sa es - ku - an dauz - ka - la. I - ru es - ku - an e - ta bai zaz - pi
bu - ru - an, ai - ek non - di - kan no - ra ark ar - tu zi - tu - an.

Goian tenploan dago amandre Santa Ana,
iru lili arrosa eskuan dauzkala.

Iru eskuan eta bai zazpi buruan,
aiek nondikan nora ark ote zituan?

.....
Maria Santisimen eskutik zituan.

– San Juan, ekusi dezu, ai nere Semea?
– Ez dut bada (y) ekusi, ez, Ama (y) andrea.

– Kalea gora die berorren Semea,
soiñean deramala kurutze berea.

– Gurutze ori ekarzu, ai nere Semea.
– Eztiot, bada, emanen, ez, Ama (y) andrea.

Onekin pasa bear det nik eriotzea,
eriotzearekin pasio luzea.

San Pedro apostolua mezaren emaiten,
Maria Santísima mezaren entzuten.

Amaika milla aingeru koruan kantatzen,
beste ainbeste ta geiago musikari jotzen.

Kantau akabatzen da, jenteak, parkatu;
obeki dakienak aurrera segitu.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 754 zenbakian, 868 orrialdean: Naparroan, Larraunen, Baraibarko Josefa Orejaren aotik jasoa.

Baita ere, doiñurik gabe, *Euskalerraren Yakintza-n*, IV tomoan.

IV

Goi-an ten-plu-an da-go A-man-dre san-ta_A-na, i-ru li-li-a la-

"Gurutze santuaren bai misterioa..."

rro - sa es - ku - an tu - e - la; i - ru es - ku - an e - ta bai zaz - pi bu - ru -
an, a - ma - bi mi - la_ain - ge - ru ko - roi - a san - tu - an. —

Goian tenpluan dago Amandre Santa Ana,
iru lilia larrosa eskuan tuela.

Iru eskuan eta bai zazpi buruan,
amabi mila aingeru koroia santuan.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco*, 755 zenbakian, 869 orrialdean, Nalparroan, Bakaikoako Juana Bazterrikari jasoa.

V

Moderato

Ka - le - a go - ra - be - ra da - kust nik se - me -
a soin - e - an de - ra - ma - la gu - ru - tze
be - re - a, Kar - tzu gu - ru - tze o - ri
bai ne - re se - me - a. Ez - ti - zut ba - da_e -
ma - nen jo A - ma ne - re - a!

Kalea gora bera dakust nik Semea,
soinean deramala kurutze berea.

- Kartzu gurutze ori, bai, nere Semea.
- Eztizut bada emanen, o, Ama nerea.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 769 zenbakian, 879 orrialdean; Naparroan, Arbizuko Maria Aldasorori jasoa.

Azkuek *dakust* itzaren ondoan dei bat egiten du; oar bat egin nai duala, alegia. Baiña oarrik ez da gero iñun ageri. Ziur aski, *dakust* ez baita beste aldaeretan esaten, eta errikoia ere ez dan ezkerro, itz ori beste baten truke jarria duala esan naiko zuan.

VI

Ain - ge - ru zu - ri_e - der bat za - pa - ta ga - be - rik za - pa - ta ga - be - rik
 al - datz - a go - ra do - a ats - e - den ga - be - rik ats - e - den ga - be - rik
 Al - datz - a i - ga - ro ta ze - lai lan - da ba - ten ze - lai lan - da ba - ten
 Bir - ji - na ta Se - me - a ats - e - ten ze - go - den ats - e - ten ze - go - den.

Aingeru zuri eder bat zapata gaberik,
aldatza gora doa atseden gaberik.

Aldatza igaro ta zelai landa baten
Birjina ta Semea atseten zegoden.

- Birjina umildea, or zer darabiltzu?
- Jesusen bila nabil, ikusi badezu.

– Jesus erakuskuzit bai gorputz utsean,
gurutze berde mortal bat sorbalda gainean.

– Indazu, ene Semea, gurutze ori neri.

– Ezin eman leioke gurutze au inori.

Emen izan bear det nik gaur bai eriotzea,
salbatua izan dedin bai mundu tristea,
bai kristiandadea.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 811 zenbakian, 931 orrialdean; Gipuzkoan, Segurako Juliana Izagirreri jasoa.

Baita ere doiñurik gabe bere *Euskalerriaren yakintza-n*, IV tomoan

VII

Uso zuri eder bat
oinetan ortozik (*sic*)
aldatzean gora doa
egoak zabalik.

Aldatzen goieneko
zelai eder baten
Birjinea topau neban
atseden egiten.

– Kristoren Birjinea,
or zer egiten dozu?
– Kristo billatzen nabil
ikusi badozu.

Kristo zeruan dago
mezea esaten,
aingeru San Gabriel
mezea erazoten.

Zeruko angeruak
orgañua yoten,
amabi apostoluak
mezea entzuten.

Jesusen jardineko
lorearen argia!
Bera ta Santa Klara
dontzella garbia.

Amaren erraietan
zenduan grazia,
munduan ibilteko
ejenplu andia.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 910 zenbakian, 1059 orrialdean: Bizkaian, Lekeitioko Krisostoma Bengoetxearen aotik jasoa.

Baita ere doiñurik gabe bere *Euskalerriaren Yakintza-n*, IV tomoan.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak* (Donostia 1984), II tomoan, 191 orrialdean.

VIII

Gurutze santubaren
bai misterioa,
ongi erakus beza
jende umanoa.

Jesukristo zeruben
mezaren ematen,
San Pedro apostoluba
mezaren laguntzen.

Goien tenpluen dago
Amandre Santa Ana,
iru lili-arrosa
eskuan dazkana.

Amaika milla aingeru
koruban kantatzen,
beste ainbeste ta geiago
musikaren jotzen.

Iru eskuen eta
bai zazpi buruben,
amabi klabeliñatxo
korona santuben.

– Josepe, ikusi duzu,
bai, nere Semia?
– Ez dut bada ikusi,
Birjiña Maria.

– Aran-lore eder oik
nundikan dituzu?
– Jesukristoren ortu
santutik ditugu.

– Ekatzu gurutze ori,
bai, nere Semia.
– Ez dizut bada emanen,
Birjiña Maria,
nik emen pasa bier dut
Pasio luzia.

Arbola santu ori
pixka bat bajatu,
guk ere nai ginduke
gloria gozatu.

Kanta au akabatzen da,
jendiak barkatu,
obeki dakienak
aurrera segitu.

Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduman, *Colamus carmina nostra* paper-zorroan, Oñatiako agustinoetako Pernando Urkiak bialdua. Bertsoen aurretik oar au egiten da:

"Piztadera-Pazko goizean, kalerik kale, Arbizu'ko (Naparroa) neskak abestutzen dituzten bertsoak.

Bakaikoa ta Andueza'tar Barbara (g. b.) ta Bakaikoa ta Andueza'tar Juana Mikaelari artutakoak.

Arbizu'n, Sakana'ko Ibarra. Naparroa".

IX

Gurutze santuaren
bai misterioa
kantatutzera noa,
jende umanoa.

Goien tenploan dago
Amandre Santa Ana,
iru lili-larrosa
eskuan dauzkala.

Iru eskuan eta
bai zazpi buruan,
amabi klabelintxo
korona santuan.

- Nundik izan dituzte
larrosa eder oiek?
- Jesukristoren ortutik
izan dituzte oiek.

Jesukristo bera dago
mezea ematen,
San Pedro apostolua
mezea laguntzen.

Maria Santisima
meza ura entzuten,
Maria Magdalena-ta
aiek konpañatzen.

Amar milloi aingeru
koruan kantatzen,
beste ainbeste ziran
musika jotzen.

- Josepe, ikusi dezu,
ai, nere Semea?
- Ez det bada ikusi,
lengusu nerea.

-
-
soñean daramala
gurutze berdea.

- Ekatzu gurutze ori,
ai, nere Semea.
- Ez dizut bada emango,
Birjiña Maria.

Emen pasa bear det
nik eriotzea,
eriotzearekin
Pasio luzea.

Kanta au bukatzera,
jenteak, barkatu,
obetogo dakienak
aurrera segitu.

Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduman, *Lazcano paper-zorroan*, 1934 urtean Eulojio Gorrotxategik jaso eta bialdua, oar onekin:

“67 urteko Arakama’tar Maria Josefa Zegama’ko andreari artua”.

Bigarren bertsoaren irugarren lerroa ez da ongi ulertzen; *irubin larrosa* dio-la ematen du. Beste aldaeretan dagoan bezela idatzi degu.

X

Gurutze santuaren
bai misterioa,
ongi akusa deri
jende umanoa.

Goian tenpluan dago
Amandre Santa Ana,
iru arrosa eder
eskuan dauzkana.

Iru eskuan eta
bai zazpi buruan,
amabi krabeliñatxo
korona santuan.

Kristo zerura doa,
gizon bat berekin,
gizon bat bakarrik ta
besuak zabalik.

Jesukristo zeruan
mezaren ematen,
Maria Santisima
mezaren entzuten.

San Pedro apostolua
mezari laguntzen,
Maria Magdalena
ari akonpañatzen.

Kristo nork ikusi du,
bai, korputz utsean?
Resuzitatu izan zan
Pazkoa-goizean.

– Zer esaten didazu,
Magdalenea?
– Resuzitatu dute
beroren Semea.
Ai au gauzia!
Pazko egunean da ta
gloriosua.

Asentziuak eta
bai Kope Kristoak,
eldu dira Pazkoak
bai Maiatzekoak.

Kanta au akabatzen da,
jendiek, barkatu,
obeki dakienak
aurrera segitu.

Larratzetako zelaian
guziok glorian,
andik eraio zuan
Kristok gurutzea,
andikan gora dago
zerura bidea.

Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduman, *Kanta errikoyak – 1935'ngo udan Dorronsorok bialduak* izeneko mordoan. Bertsoen ondoren, onako oar au:

“Lakuntza’tar Ermenejildo’ri entzuna; abesti au abestutzen da Pazkoa egunean goizeko 1’ean”.

Zortzigarren bertsoa “Zer esaten didazu” asten dan erromantzearena da. Bertso-mota ere oso ezberdiña du.

XI

Jesukristo zegoen mezaren ematen,
San Pedro apostolue mezaren laguntzen. (*bis*)

Maria Santisima meza ura entzuten,
Maria Magdalena ura akonpañatzen. (*bis*)

Amar milla aingeru koruan kantatzen,
beste ainbeste ta geigo musikea jotzen. (*bis*)

– Josepe, ikusi dezu, ai, nere Semea?
– Ez det bada ikusi, Birjiña Amandrea. (*bis*)

Kalean gora gora oraintxe dijoa,
soñean daramala gurutze berdea. (*bis*)

– Gurutze ori ekatzu, ai, nere Semea.
– Ez dizut ba emango, Birjiña Amandrea. (*bis*)

Emen pasa bear det nik eriotzea,
eriotzearekin Pasio luzea. (*bis*)

Or goien tenploan dago Amandre Santa Ana,
iru lirio larrosa eskuan daukala. (*bis*)

Iru eskuan eta bai zazpi buruan,
amabi krabeliñatxo korona dantuan. (*bis*)

- Lora santu oriek norgandik ziñuzten?
- Jesukriston ortutik nituen. (*bis*)

Jose Ariztimuño Aitzol zanaren bilduman azaldua, onela deritzan mordoa: *Kanta errikoyak 1935'ngo udan Dorronsoro'k bilduak*. Bertsoen ondoren, oarau egiten da: *Aita Gabrielek bildua*.

XII

Aldatza gora-bera
zelai landa baten
Jesukristo eguan
mezia ematen.

Milla ta bat aingeru
mezia entzuten,
amabi apostoluak
organue joten.

Organuen soñue
zabaldu zanien,
Jesusen tormentuak
andiiek zirien.

Izarra San Bixente,
eguzkia Kristo,
zeure bentura ona
zeruetan dago.

Zeruko aingeruek
euken disputie:
zeñek kantauko et'eban
Jesusen kantia.

*Cantan de repique
San Salvador,
la Virgen Marísimma
purísima flor.*

Gernikako Julio Bareño jauna zanak nimbait ere jaso eta guri bialdua.

XIII

Jesus maitie dago
mezia emoten,
Ama Maria barriz
mezie entzuten,
amabi apostoluak
mezie erazoten,

amaike mille aingeruek
koruen kantatzen,
Aita San Prantziskue
organue yoten.

Arantzazuko bertso-bilduman, 119 orrialdean, eskuz idatzita, oar onekin:
Variante de Bermeo, Isabel Bazterrechea, 75 urte.

XIV

Ama Birjiña Arantzazuko
lore eder ori,
graziak ematera
zugana nator ni.
Nik ez det desiatzen
munduko gauzarik,
zeruko lore ederrak
gozatzea baizik.
Ama Birjiña dago
Semea egiñik;
or etorriko zaigu
Jesus bizietara.
Orra nun datorren
Jesus guria,
eskuan dakarrela
bere istoria,
mezia emateko
bere kalizia.
Aita San Pedro dago
mezia ematen,
Aita San Inaziyo
mezia laguntzen,
Maria Santisima
mezia entzuten,
amabi apostolu
koruan kantatzen,
amaika milla aingeru
organua jotzen.

Aldaera au Azpeiti eta Zestoa bitarteko Lasao baillaran jaso genduan, Ola-berri baserrian, 1957-VII-23-an, Zelestina Peñagarikanoren aotik.

XV



6/8 time signature. The lyrics are: Go - yen ten - plo - an da - go a - man - dre San - ta_A- na,
i - ru li - ri - o_a- rro - sa es - ku-en dauz - ke-la.

Goien tenploan dago
Amandre Santa Ana,
iru lirio arrosa
eskuen dauzkela.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 526 zenbakian, 736 orrialdean, argibide auekin:

"Loc. rec.: Iribas. Fecha: v. 1920. Clas.: religiosa. Trans.: P. Modesto de Le-cumberri".

XVI



3/4 time signature. The lyrics are: Go - yen ten - plo - an da - go a - man - dre San - ta_A -
na, i - ru bi - di a - rro-sa... es - ku - an dau - ka - la.

Goien tenploan dago
amandre Santa Ana,
iru bidi arrosa
eskuan daukala.

P. Donostia, *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 526 zenbakian, 737 orrialdean, argibide auekin:

"Loc. rec.: Zizurkil. Fecha: marzo de 1921. Clas.: religiosa. Trans.: P. Modesto de Lecumberri".

XVII

Nere aingeru guardakoa,
goarda zazu nere anima,
orain goardatu,
gero presentatu
gloriko etxeán
Jesusen aurrean.

San Migel, San Gabriel,
lotara noa, loak narama;
nik iru aingeru
topa'itzeala:
bi burukotik,
bat oñetatik.

- San Juan, ikusi bazu
nere Semea?
- Bai, izeba amandrea;
mendik gora daramea,
bere oiñ-eskuak loturik.

Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bilduman, *Kanta errikoyak* 1935 mordoan, Joakin Dorronsorok jaso eta bialdua, oar auekin:

"Au gauen edo egunen iru bider esaten donak ez dola ikusiko inpernurik.
Jose Antonio Barandiarani orain 75 urte entzuna".

Irakurlea oartuko zanez, au ez da bearbada kanta bat, otoitz bat baizik. Bai-ña irugarren bertso edo zati orrek badu zer ikusirik, orain azaltzen ari geran kanta onekin; Jesus ikusi ote duan galdera orrekin; eta baiezko erantzunarekin: Kalbarioko bidean ikusi duala, alegia.

XVIII

Jesus esanda lotara noie,
aingeru guarda lagun artunde;
ezin lei artu lagun obarik.

Badakit zelan etzuten nazen,
ez dakit nola jagiko nazen.

Aita Eternue, lotara noie,
izan bediz nigez iru aingeru;
bi burkopien da bat oñetan.

– San Juan, ikusi dozu
nire Semie?
– Bai, andrie, ortxe darioie
Kalbarioko bidien,
gurutzez pekaturik,
burue zauriturik,
eskuek eta oiñek
untzez josirik.

Au egunien iru bider esaten dabenak,
ez ditu ikusiko inpernuko penak.

Gernikako Julio Bareño jauna zanak jaso eta bialdua, oar onekin:
“Jose Uriguén’ek, orain berrogetamar urtetik gora, bere erri Aulestia’n ikasi
eban”.

Ta goien, izenburutzat, onela dio:
“Oerakuan-eta esateko”.

Aurrekoarengatik esan degunez, au ez da kanta bat izango, otoitz bat bai-
zik; eta irugarren bertso edo zatiak esaten duanak lotura pixka bat badu orain
eskeintzen ari geran kantarekin.

I

*El misterio de la Santa Cruz,
Que el género humano se acuse debidamente.*

*Arriba, en el templo, está la señora Santa Ana,
con tres hermosas rosas en la mano.*

*Tres en la mano y siete en la cabeza;
doce clavelinas en la santa corona.*

*¿De dónde tienes esas hermosas flores?
Las tenemos del santo huerto de Jesucristo.*

*Jesucristo (está) en el cielo diciendo la misa,
el apóstol San Pedro se la ayuda.*

*María Santísima oyendo la misa,
María Magdalena le acompaña.*

*Once mil ángeles cantando en el coro,
otros tantos y más tocando música.*

– *José, ¿has visto a mi Hijo?*
– *No le he visto, Virgen María.*

*Tu Hijo (iba), sí, calle arriba o abajo,
llevando al hombro su cruz.*

– *Traéme, sí, esa cruz, Hijo mío.*
– *Pues no te la daré, Virgen María.*

*En esa cruz he de sufrir yo la muerte;
y con la muerte, la larga pasión.*

*Ese santo árbol bájalo un poco;
también nosotros quisiéramos gozar de la gloria.*

*Este cantar se termina; perdonad, oyentes;
el que lo sepa mejor que prosiga.*

*Cristo sube al cielo, un hombre solo;
un hombre solo y con los brazos abiertos.*

*Pasando como la luz por el cristal,
después de dar a luz un hijo queda virgen.*

– *Blanca y hermosa paloma, ¿qué noticias en el cielo?*
– *En el cielo buenas noticias ahora y siempre.*

– *¡Quién pudiera ir al cielo volando!
Si el ángel me prestara las alas...*

– *Te prestaría alas de cera,
que podría derretirlas el fuerte viento sur.*

*¿Quién ha visto a Cristo corporalmente?
Resucitó en la mañana de Pascua.*

– *¿Qué me dices Magdalena?
¿Qué me dices, Magdalena?
– Que ha resucitado vuestro Hijo.*

, Ah, qué dulzura!
Es el día glorioso de Pascua.
Aleluya, aleluya,
que ha resucitado
nuestro redentor.

(1) En otra versión elizan. (Aita Donostiaren oarra).

(2) Bertso ontan *eriotziya*, *eriotzarekin* eta *luziya* idazten du Aita Donostiak.

(3) Aita Donostiak onela du lerro au: *Zeruan nork lijuake*.

(4) Aita Donostiak onela ditu bertso ontako puntuak: *utsian, goizean*.

(5) Así me lo comunicó D. Antonio Aldasoro, Párroco de Arano, en carta de 7 de abril de 1919.

(6) Cfr.: *Anuario de la Sociedad Eusko Folklore*, t. IV, pág. 119. (Aita Donostiaren oarra)

(7) *De Música Popular Vasca. Dos conferencias con ilustraciones en color y ejemplos musicales*, págs. 42, nº 20, pág. 25 de los ejemplos musicales. (Id.)

(8) *Cancionero Vasco, I volumen*, nº 243, pág. 118. (Id.)

"Urteak il bi ditu alegerarik..."

I

Urteak il bi ditu
alegerarik:
maiatzta ta apirila
loraz beterik.

Maiatzaren lenena
Santa Pilipe,
andik irugarrena
Santa Kurutze.

Asentsioak eta
Gorputz Kristiak,
eldu dire Pazkoak
maiatzekoak.

Asentsio eguna
señalaturik,
Kristo zerura dijoa
besoak zabalik.

- Uso zuri ederra,
zeruan zer berri?
- Zeruan berri onak
orain eta beti.

- Zerutik zer dakazu
señelaturik?
- Olibera-adartxoa
Birjineak emanik.

- Erramu urrun da ta
igarri ezpaledi...
- Eztala igartuten
zeruko lorarik,
zeruko lorarik eta
Birjineak emanik.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 898 zenbakian, 1045 orrialdean; Naparroan, Bakaikoako Juana Bazterrikaren aotik jasoa. Ondoren onako oar au egiten du:

“Se cantaba en la plaza todos los días de fiesta comprendidos entre el de la Ascensión y San Juan... Al terminar el canto palmoteaba la gente, prorrumpía en irritzis y se iba a casa”.

Sail ontako 5, 6 eta 7-garren bertsoak “Arrateko zelaiko bai floridadia” asten dan kantarenak dira.

Zazpigarren bertsoaren azken lerroak beste onela idazten ditu Azkuek:

Ezta igartuten
zeruko lorarik eta
Birjineak emanik.

Or goien idatzi degun bezela bear duala uste degu, lerro bat errepikatuz, alegia.

II

Urteak il bi ditu
alegerarik,
Maietz Apiribilla
loraz beterik.

Maiatzaren lenengo
Santu Philipe,
andik irugarrena
Santa Kurutze.

Zortzigarrena degu
San Migel ere,
Azentzioak ere
eldu dirade.

Azentzio eguna
señalaturik,
Kristo zerura dijoa
besoak zabalik.

Azentzioak eta
Gorputz Kristiak,
eldu dirade Pazku
Maiatzkuak.

Jose Maria Satrustegi apaiz jaunak Naparroan, Urdiaingo Sabas Agirreren aotik jasoa eta *Príncipe de Viana* aldizkarian (1968, V) argitara emana.

III

Ur - ti - ak il bi di - tu a - le - gre - rik: Ma -
ya - tza_A - pi - ri - la, lo - raz be - te - rik.

Urtiak il bi ditu
alegrerik:
Maiatza, apirila,
loraz beterik

Asentziuak eta
Korpuz Kristiak,
eldu dirade Pazkuak
Maiatzkuak.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 1019 zenbakian, 1405 orrialdean, argibide auekin:

"Loc. rec.: Bakaikoa. Fecha: v. 1920. Trans.: P. Modesto de Lecumberri".

I

*El año tiene dos meses alegres:
mayo y abril, llenos de flores.*

*El primero de mayo es San Felipe;
de allí al tercero, la Santa Cruz.*

*La Ascensión y el Corpus Christi;
llegan las Pascuas de mayo.*

*El día de la Ascensión es señalado:
Cristo sube al cielo con los brazos extendidos.*

- *Blanca y hermosa paloma, ¿qué noticias en el cielo?*
- *En el cielo buenas noticias ahora y siempre.*

- *¿Del cielo qué es lo que traes, señaladamente?*
- *Una ramita de olivo, dada por la Virgen.*

- *(El día de) Ramos está lejos y si no se marchitara...*
- *No se marchitan las flores del cielo,
las flores del cielo y dadas por la Virgen.*

Kristau fedea

(Fe cristiana)

"Orriak aidez aidez..."

I

N.:

– Orriak aidez aidez,
ifartxu dulzia,
landa-mintz ederrian
doian errekiak.

Antxe topatu neban
Birjiña Maria,
orraztuten zebala
buruko ulia.

Ez zan a ulia, ez,
ezpada urria,
ulondo bakotxeko
zerixon perlia.

A.:

– Urreratu zakidaz,
arima maitea;
benetan maitatzen dot
nik zure pedea.

Eskintza orregaitik
zeuk, neure alabia,
artu izango dozu
zeruko koroia.

N.:

– Nun dago, Amandrea,
zeroren Semea,
zeruti jetsiriko
gure mesedea?

Berak argitu daidan
neure arimia,
ikusi daian gero
zeruko bidia.

A.:

– Or goiko munatxuan,
oñak ortotsian,
keriz emoten deutsan
ganeko arantzian.

An dago bada neure
arantz-larrosia,
zuri ta gorria da
neure amoria.

Begiyak ditu beltzak,
urrezko ulia,
aoa txit ederra
ta zoragarria.

A maite ez dabenak
bere biotzean,
zer maitatu deike
damurik bagean?

Bere ondoren dabiltzaz
zeruko aingeruak,
ibarrak apaindutene
lora usaintsuak.

Txoriak bere pozez
soñua alegrian
kantau daroakez
guztiak batian.

Irri-barrez diardutso
landako loriak,
jantzirik bere ondran
soñeko barriak.

Lurreko abereak
bere mesedean
jaio ta arrazkero
dagoz ardurean.

Zeubekgaitik bakarrik
zeruti lurrera
jatsi da nire Jesus
gizon izatera.

A gaitik, neure alaba,
kanta daigun kanta,
Berari emoteko
betiko alabantza.

N.:
– Agur, Jesus laztana,
Jainko ta gizona,
Zu beti izango zara
gure zoriona.

Zeureak gara guztiz
gorputz eta ariman,
izango gara bere
bitzitza guztian.

Izan gaitezen Zugaz
Aitaren etxeian,
Espiritu Dontsuaz
Jainkotasunean.

Erromantze au *Euskal-Erria* aldizkarian agertu zan, 1888-an, XVIII tomoan, 498 orrialdean.

Kanta au alkarrizketa bat da. Nork zer dion adierazteko, “N.” eta “A.” izkiak idazten dira bertsoen ertzean; *Neska eta Ama Birjiña*, alegia.

* * *

R. M. Azkuek, bere *La Música popular bascongada / Conferencia en el Centro Vasco de Bilbao / impresa en Bilbao en 1901* itzaldian kanta au ere agertzen du, aldaketa bakarra-rekin: 16/4: gizon egitera.

Itzaldi ori *Euskal-Erria* aldizkarian ere agertu zan, 1903 urtean.

Doiñua ere badu, Azkuek erantsitako acompañamiento eta guzi:

Ondoren oar batzuk egiten ditu. Doiñuari buruz onela dio:

“La melodía que sigue es o por lo menos era popular en el valle de Léniz, hacia Mondragón”.

Eskintza orregaitik dion lerroari buruz, bostgarren bertsoaren leenengo le-roagatik alegia, onela esaten du: "Por este verso puede deducirse que originalmente precedió alguna otra estrofa en que se hacia esta oferta". Eta ala da, izan ere, kanta zaar onen beste aldaera batzuetan ikusten danez.

Eta azkenik: "Tengo entendido que esta letra debe de tener algún retoque de un sacerdote durangués". Gure iritzia ere orixe da: eskuren bat ibili dala kanta onen itzak eta abar aldatzen.

Bere *Cancionero popular vasco* kantutegian ere, 882 zenbakian, 1023 orrialdean, bertso eta doiñu auek agertzen ditu Azkuek. Doiñua, Bilboko itzaldian eskeiñi zuan ura bera da, baiña emen *acompañamiento*-rik gabe. Oni kopiatzen diogu:

Allegro moderato

12

2

O - rri- ak ai - rez ai - re i - far-txo dul - tze - a i - far-txo
A - gur Je - sus laz - ta - na, Jain - ko ta gi - zo - na, Jain - ko ta
dul - tze - a, lan - da - mintz e - de - re - an do - an e - re - ke - a, do - an e - re - ke - a.
gi - zo - na, zu be - ti - i - zan - go za - ra gu - re zo - ri - o - na, gu - re zo - ri - o - na.
An - txe to - pa - du ne - ban Bir - ji - na
Zeu - re - ak ga - ra guz - tiz gor - putz e - .
Ma - ri - a, Bir - ji - na Ma - ri - a, o - rraz - tu - ten ze - ba - la
ta - a - ri - man, gor - putz e - ta - a - ri - man, i - zan - go ga - ra be - ti
bu - ru - ko u - le - a, bu - ru - ko u - le - a.
bi - zi - tza guz - ti - an, bi - zi - tza guz - ti - an.

Ondoren argibide auek ematen ditu:

"Después de haber publicado esta lindísima canción en la ocasión referida -Bilboko 1901-eko itzaldian-, tomé acerca de ella, en la anteiglesia de Zaldúa

(Zaldibar), una versión, casi la misma, de labios de una anciana del lugar, versión que se me ha traspapelado. No recuerdo en qué me fundaba para decir en la citada conferencia: "la melodía que sigue es o por lo menos era popular en el valle de Leniz, hacia Mondragón". Tengo, sí, una vaga reminiscencia de haber aprendido la melodía de labios de don José María Orue, de Durango...".

Bere Euskalerriaren Yakintza-n ere, IV tomoan, argitaratu zuan Azkuek kanta au, doiñurik gabe ordea, onela esanez: "...lo aprendí en el valle de Léniz, sin tomar el nombre de la colaboradora".

Juan Karlos Guerra jauna zanak ere badakar kanta au, bere *Los cantares antiguos del euskera liburuan*, San Sebastián, 1924, 189 orrialdean, aldaketa auekin³

4/2: benetan maitetan dot; 5/4: zeruko gloria; 8/2: oñak ortotsiak; 11/3: zer maitatu eleike; 12/3: ibarrak apainketan; 13/3: kantari daroakez.

Kanta onen beste argitalpen bi: J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Balladak* (Donostia, 1984), II tomoan, 202 orrialdean.

Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balladak / Antología* (Bilbo, 1995), 92 orrialdean.

II

The musical score consists of three staves of music in G major, 8/8 time signature. The melody is primarily in eighth notes. The lyrics are written below each staff. The first staff starts with 'E - do - iak ai - rez ai - re, i - far-txu dul-tze-a, e - do - iak ai - rez ai -'. The second staff continues with 're, i - far-txu dul - tze - a, lan - da mintz e - de - rre - an do - an e -'. The third staff concludes with 'rre - ke - an lan - da mintz e - de - rre - an do - an e - rre - ke - a.'

Edoiak airez aire, ifartxu dultzea,
landa mintza ederrean doan errekeea

R. M. Azkueren esku-idazkietan agertu da kanta au. Ondoren onela esaten du:

"Además de la variante ya citada Nun dago Amandrea, que puede servir de modelo, hay por lo menos otras dos, las de Orio y Murélaga, que se reducen en pureza a la versión transcrita. En Orio cantan con esta melodía la vida de Santa Clara. He aquí dos estrofas:

Jesusen jardineko loraren argia,
amaren erraietan zenduan grazia.

Birjina Santa Klara dontzella garbia
munduan emateko ejenplu andia".

Nun dago, Amandrea ori leenengo aldaeraren seigarren bertsoa da. Orioko eta Murelaga`ko variante edo aldaera oiek doiñuarenak izango dira.

Ondoren, onela jarraitzen du Azkuek:

"Como dijo el autor de la conferencia "La música popular bascongada", pág. 7, el asunto propio de esta canción es un diálogo entre la Virgen Santísima y una doncella. En la nota segunda de la misma página advertía el autor "por este verso puede deducirse que originariamente precedió alguna otra estrofa en que se hacia oferta". He tenido la fortuna de dar con esta estrofa y oferta. Las aprendí en Murélaga:

Beutso, Amandrea, neuk ule zintea,
kanea bosteun dukat Madrilen kostea.

Sin duda el edoiak airez aire o odoiak airez aire es más exacto que el orriak airez aire de dicha conferencia.

Con la misma melodía se cantan en algunos pueblos de Bizkaya estos versos que parecen como una descripción de algún cuadro de Fra Angelico:

Aldatzak pasatuta zelai eder baten,
Jesukristo zegoan mezea esaten,
San Pedro ta San Paulo ari erazoten.

Aita San Frantziskua txilintxuak joten,
amabi apostolu organua joten,
milla ta bat aingeru mezea entzuten".

III

Eun - te - gi - e - tan dau - kat mi - e - sa - te - le - a, ¿Nor i - zan - go e - te - dan a - ren - tzat eu - le - a? E - rre - ge Don Fe - li - pen
 a - la - ba lin - de - a, E - rre - ge Don Fe - li - pen
 a - la - ba lin - de - a ¿Nor i - zan - go e - te - dan a - ren - tza - ko yos - le - a?
 An - dra Ma - da - le - ne - a a - pos - to - la - de - a.

Eunegietan daukat
 miesa telea,
 nor izango ete dan
 arentzat eulea?

Errege Don Felipen
 alaba lindea,
 Errege Don Felipen
 alaba lindea.

Nor izango ete dan
 arentzako yoslea?
 Andra Madalenea
 apostoladea.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 835 zenbakian, 970 orrialdean: Bizkaian, Izpazterreko Maria Juana Urteagari jasoa.

Bertsoen ondotik oar au egiten du: "Parece ser un trozo del mismo romance Orriak airez aire, o de Nun dago Amandrea...".

IV

Ber - ge - lok ai - dez ai - dez i - par - txo dul-tzi - a,
ber - ge-lok ai - dez ai - dez i - par - txo dul-tzi - a.

Bergelok aidez aidez
ipartxo dultzia,
bergelok aidez aidez
ipartxo dultzia.

Landa min ederretan
doien errekiak,
antxen billatu neban
Birjiña Ama Andria.

Orrazketan zeguan
buruko illia;
etzan ura illia,
ezpazan urria.

Ille ondo bakoitzeko
bai perla paria,
illia lotutzeko
falta dau dintzia.

- Birjiña Ama Andria,
beutso ule-zintzia,
kania lareun dukat
Madrillen kostia.

Bergelok aidez aidez
ipartxo dultzia,
bergelok aidez aidez
ipartxo dultzia.

Arantzazuko bertso-bilduman, 122 orrialdean. Noren aotik edo nondik jasoan dan ez du esaten.

Oar batean onela adierazten da: "*Bergela: abanico hecho de hojas verdes*".

Aita Biktoriano Gandiagak argitaratu zuan kanta au, bere *Hiru erromantze eta gorazarre bat* idazlanean, *Euskera* aldizkarian, XX, 1975.

V

Neskak:

Ostuak airez aire
dabiltzen onduan,
pil-pil dijoan errekin
uren bazterrian,

usai gozozko larre
xabal baten pian,
antxen ikusi nuen
zegola itzalian

Jesus Aurraren Ama,
Amatxo maitia,
orraxtatzen ai zala
buruko ilia,
ziñez etzala ilia
baizikan urria,
bada ile bakoitzetik
zeroian argia.

Mariak:

Atoz, urbildu zaitez,
arima maitia,
benetan maitatzen det
nik zure fedia;
eskeintzatxo bat egin,
neska txit garbia,
t'irikiko dizut nik
zeruko ataria.

Neskak:

Amatxo, nun daukazu
zuk zure Semia,
zerutik eterri dan
gure mesedia?
Berak sutu dezala
bere su bixia,
biotzak ikas dezan
zeruko bidia.

Mariak:

Or goiko muñotxoan,
toki egokian,
lore polit batzuen
arrosa tartian,
or daukat lotan lotan
nik nere Semia,
biotzeko kutuna,
biotzain bizia.
Begiak ditu beltzak,
urrezko iliak,
aoa txit ederra,
txuria aurpegia;

maite ez duenak ori
al duen guztia,
zer maitatu lezake
bere biotzian?
Bere ondotik dabiltz
zeruko aingeruak,
t'estaltzen dute lore
usai gozozkoaz.

Agur egin zioten
soroko loriak,
jantzirik ikusteko
soñeko berriak.
Pinpilinpauxak ere,
elur ain txuriak,
arontz-onontz dabilta
lorien tartian.
Zuregatik bakarrik
zerutik lurrera
jetxi da nere Jesus
gizon egitera.
Orain, ba, nere maite,
atoz ikustera,
ta biok apa bana
guaz ematera.

Neskak Jesusen aurrian:

Nere Nini txikia
maitez maitatua,
usai gozozko lore
zabal-zabaldua,
begiratu zadazu,
Nini maitatua,
arrosa bezelaxe
or ezkutatua.

Zuk begitxo oiekin,
nere Ninitxua,
begiratzen banauzu
nitaz oroitua,
nere biotza azkar
maitez ain sutua,
utziko duzu dana
zureganatua.

Atoz, xulufrin gorri,
zerutik jetxia,
atoz, maitezko lore,
Jaungoiko txikia;
atoz biotzetara,
begiko ninia,
ikutu biotza ta
artzazu guztia.

Atoz, Nini maitea,
ementxen naukazu,
zere besotxoetan
estutu nazazu;
nere amets gozoa
izango zera Zu,
besarkatu gaitezen
betiko ni ta Zu.

Begi-Beltx

Aldaera au *Zeruko Argia* aldizkarian agertu zan, 1929 urteko azaroan.

Irakurlea oartuko zanez, *Begi-Beltx* dalako orrek kanta edo erromantze zaarra artu eta aldaketak eta eranskiñak nun-nai eta nolanai sartu dizkio. Lan ori gogo eta ilusio aundiz egingo zuan noski. Ala ere, puskarik ederrenak kanta zaarrarenak dira, dudarik gabe.

VI

Orbelok aidez aidez,
ipartxo dultzia,
landamin ederretik
doian errekea!...
Aintxe topatu neban
Birjiña Maria,
egoala orraztuten
buruko ulea.
A etzan ulea, ez,
ezpazan urea,

ulondo bakotxetik
erion perlea.
– Beutso, Birjiña Andra,
ulera zintea,
Durangon kostata dago
eun duket kanea.
Kosta bedin berreun be
baña betor obea,
imini beaiako
ul'orri zintea.

Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduman, *Akio*, 1932 zorroan, Billaroko Eulojio Gorostiagak jaso eta bialdua. Bertsoen ondoren oar au:

"Zeanuri'ko Goikouria'tar Jone'k esanda. Lenago, gabonetan abestutzen zan".

VII

Zeruban aingeruak
dabille gerria,
nok kantauko ete daun
Birjiñan kantia.

San Migel aingerubak
boz alegeriaz,
arexek kantauko dau
Birkiñan kantia.

Orriyak aidez aidez
ipartxu dultzia,
landamitz ederretik
doian errekia.

Antxe topatu neban
Birkiña Maria,
orraztuten ebala
buruko ulia.

Etzan a ulia, ez,
ezpada urria,
ulondo bakotxetik
zerlyon perlia.

– Nor ixango ete da
orrixen eulia?
– Mariya Madalena
apostoladia.

– Nor ixango ete da
orrixen joslia?
– Errege Don Pillipen
alaba lindia.

Arratetik gorako
zelai eder baten
zeguan Jesukristo
mezia emoten.

San Pedro ta San Paulo
mezia erazoten,
Aita San Prantxiskua
orgaňua joten.

Amabi apostoluak
koruan kantatzen,
mille ta bat aingeru
mezia entzuten.

Aldaera au *Euzkadi* egunkarian agertu zan, 1933-V-12-an, *Mañariko-k* oarnekin bialduta:

“Or-emen, atso artian baturiko bertso zatitxu batzuk ona emen”.

Zazpigarren bertsoan errege Don Pillipe izendatzen da. Espaiňian, izen ortako azken erregea Felipe V izan zan, 1700 urtean erregetza artua eta 1746-an illa. Beranduena, beraz, errege orren denboran sortuko zan, bearbada, kanta au.

Zortzigarren bertsoaren irugarren lerroa *zeruan Jesukristo* idazten du *Euzkadi-k*. Guk uste, *zeguan Jesukristo* bear du, eta orrela jarri degu.

Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antologia* (Bilbao, 1995), 95 orrialdean.

VIII

Odaijek aidez aidez
ipartxu dulzia,
landamin ederretan
doian errekia...

Antxe topadu neban
Birjine Amandria,
.....
orraztuten ulia.

Etzan a ulia,
ezpazan urria;
ule-ondo bakotxian
erijon perlia.

- Betso, Amandria,
ulerako zintia,
kana bosteun duket
Madrilen kostia.

- Eskerrik asko, dama,
damatxu gaztia;
neuk dauket irezien sedia,
bilbien urria.

- Nor ixango da
arentzat eulia?
- Maria Madalena
apostoladria.

Aldaera au *Anuario de Eusko Folklore* aldizkarian agertu zan, 1921-ean, Eugenio de Larrañagak bialduta.

Manuel Lekuona apaiz jauna zanaren paperetan ere azaldu da kanta au, es-kuz idatzitako orritxo batean. Baiña nundik edo noren aotik jasoa dan ez du esaten.

Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antología* (Bilbo, 1995) 96 orrialdean.

IX

Or - be - lak ai - rez ai - re pi - per - txo dul - tzi - a
Lan - da - min - go zu - bi - tik doi - an e - rre - ki - a.

Orbelak airez airez / pipertxo dulzia,
Landamingo zubitik / doian errebia.

Antxe topadu neban / Birjina Andria,
ebala orr aztutene / buruko ulia.

Etzala ulia ze / ezpazan urria,
ulondo bakotxeko / erinoz perlia.

Imini biar yako / uleorri zintia,
eun duket kosta dala / Madrilen kania.

Kosta bedi berreun be / bai betor obia.
Nor ixango ete da / orrexen eulia?
Maria Madalena / apostuladia.

Nor izango ete da / orren yoskillia?
Errege don Felipen / alaba lindia.

Orriak aidez aide, Jainko-giroko balada-kantu bat, Idatz eta mintz aldizkarian, 9 zenbakian, 26 orrialdean. Idazlanaren egillearen izenik ez du, baiña Adolfo Arejita dala dudarik ez dago. Aurretik onela dio:

“Hona dakargun eredua be Durangaldean jasoa da izatez, Abadiñon. Bainan aspalditik bizi dan arratiar andra bategandik. Bizenta Urrutxurtu da lekuaren izena, Zeanurikoa jaiotzaz eta berbetaz. Abadiñora aldatu zan bizi ten. Lehenengo bilketa 1982ko abenduan egin jakon, 72 urte zituala. Gerorago, barriro grabatu jako 1983an. Lehenengoa, Karmen Oteiza neskatileak egin eutsan, eta bigarrena Itziar Gallastegik”.

Aldaera au beste liburu ontan ere agertua da: Adolfo Arejita, Ibone Etxebarría, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Baladak / Antología /Bilbo, 1995*, 94 orrialdean, argibide auekin:

“Iturria: Labayru Ikastegiko MZIM artxiboa. Lekukoa: Bizenta Urrutxurtu, 72 urte, Zeanurin jaio eta Abadiñon bizi. Biltzaileak: Itziar Gallastegik lehenengo eta Karmen Oteizak geroago. Biltze-data: 1982 eta 1983”.

I

Muchacha:

– *Las hojas (que van) por el aire, el dulce céfiro,
el arroyo que se desliza por el hermoso prado.*

*Allí me encontré con la Virgen María,
que estaba peinando sus cabellos.*

*Aquello no eran cabellos, no, sino oro;
por cada hebra de pelo se deslizaba una perla.*

(– *Tenga, Señora, una cinta para el pelo,
que me ha costado en Madrid cien ducados la vara.*)

Virgen María:

– *Acercate, querida alma;
amo yo de veras tu fe.*

*Por ese ofrecimiento, tú, hija mía,
recibirás la corona del cielo.*

Muchacha:

*- ¿Dónde está, Señora, vuestro Hijo,
nuestra salvación bajada del cielo?*

*Ilumine él mi alma,
para que vea después el camino del cielo.*

Virgen María:

*En la colina de ahí arriba, con los pies descalzos,
en el espino de lo alto, que le da sombra,*

*allí está mi rosa de espinas;
blanco y colorado es mi amor.*

*Negros tiene los ojos, de oro el pelo,
la boca muy hermosa y cautivadora.*

*Quien a él no le ame de corazón,
¿qué puede amar sin que le pese?*

*Tras él van los ángeles del cielo,
las olorosas flores que adornan los valles.*

*Los pájaros gorjean con gozo y alegría,
se afanan cantando todos a una.*

*Sonríen las flores del campo,
vistiendo en su honor nuevas galas.*

*Los animales de la tierra, en su honor,
viven con recato desde que ha nacido.*

*Sólo por vosotros, del cielo a la tierra
ha bajado mi Jesús, a hacerse hombre.*

*Por eso, hija mía, cantemos un cántico,
para tributarle a él alabanza para siempre.*

Muchacha:

– *Salve, Jesús amado, Dios y hombre;
vos seréis siempre nuestra felicidad.*

*Somos tuyos en cuerpo y alma;
lo seremos por toda nuestra vida.*

*Seamos contigo en la casa del Padre,
con el Espíritu Santo, en la divinidad.*

"Birjinearen gaba da eta..."

I

The musical score consists of four staves of music. The first staff starts with a treble clef, a key signature of one sharp, and a common time signature. It ends with a change to a 2/4 time signature. The lyrics for this section are: Bir - ji - ne - a-ren ga - ba da gaur da, e - sai-gun. The second staff begins with a common time signature and ends with a 3/4 time signature. The lyrics are: be - re kan - tu - a, nik kan-tau - ko dot kan-te - a—— bai - a. The third staff begins with a common time signature and ends with a 3/4 time signature. The lyrics are: go - goz e - ran-tzun, jen - te - a; nik kan-tau - ko. The fourth staff begins with a common time signature and ends with a 3/4 time signature. The lyrics are: dot kan-te - a bai - a go - goz e - ran-tzun, jen - te - a.——

Birjinearen gaba da gaur da
esaigun bere kantea,
nik kantauko dot kantea baia
gogoz erantzun, jentea.

Jaiotan danak eriotzea
da gauza eskusa bagea,
ni neran bere jaio nintzan da
zor daukat eriotzea.

Eriotzeari gauza bategaz
oi natxako neu kontentu:
aberatsari diruakaitik
ezin leiola parkatu.

Aberats orrek diruak ditu,
pobreak umildadea,
umildadeak edegiko du
zeru altuan atea.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 739 zenbakian, 856 orrialdean; Bizkaian, Mendatako Juliana Aurrekoetxearen aotik jasoa. Bertsoen ondoren oar au:

“Se cantaban estas lindas y candorosas coplas los sábados, y se atribuía a ellas el valor de un rosario”.

Leendabiziko bertsoan *kantua* idazten du Azkuek; baiña errepikapenean *kantea*, eta onela bear duala ez da zer dudarik egin, urengo puntuak jentea dan ezkero.

Laugarren bertsoan *edegiko itu* eta *ateak* idazten du Azkuek: *edegiko du* eta *atea* jarri degu, leen esandako arrazoiarengatik.

II

Allegro non troppo

Bir-ji-ne-a - ren ga-ba da e - ta de - za - gun be -
re kan - te - a, nik e - san - go dot kan - te - a, bai -
a on - do e - ran - tzun, jen - te - a.

Birjinearen gaba da eta
dezagun bere kantea,
nik esango dot kantea baia
ondo erantzun, jentea.

Jaioten danak eriotzea dau
gauza eskusa bagea,
ni nerau bere jaio nintzan da
zor dot nik eriotzea.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 738 zenbakian, 856 orrialdean; Bizkaian, Murelagako Maria Martina Maruriren aotik jasoa.

III

Ama Birjiña-eguna da ta
kanta dezagun kantia,
nik kantauko dot kantia baña
ongi erantzun, jentia.

Arantzazura bidia luze,
gañera aldatz goria,
arri labratuz eginda dago
Paradisura bidia.

Arri labraua ona da baña
galtzairu piña obia,
urre gorriaz eginda dago
Paradisuan sillia.

Silla artantxe jarrita dago
Birjiña Ama Andria,
bera bezela gura zeukian
Birjiñak bere Semia.

Sabel garbian eduki zuen
bederatzi illabetian,
bederatzi illak igaro eta
jaio zan Gabon-gabian.

Mundu guztia salbatu zuen
Natibilitate-goizian,
mundu guztia salbatu zuen
Natibilitate- goizian.

Izar eder bat argitu zan da
abantau nintzan bidian,
bere argitan juan izan nitzan
Arantzazura bidian.

Ama Andria ta bere Semia
topau nituzan bidian,
kontseju onak eman zizkiden
Ama-Semien artian.

On da umilde izan nedilla
munduan naizen artian,
gero ez nebala damu izango
emendik nijoanian.

Odola franko ixuri zuten
oñutsetan da lurrian:
– Ene Semia, eutsi zapatak,
jantzi ei dazuz soñian.

– Ama Andria, largatu begi
onela noien artian,
nik eriotza artu bear det
Kalbarioko mendian.

Kalbarioko mendian eta
kurutze kruzel batian,
nik eriotza artu biar det
kurutze kruzel batian.

Anuario de Eusko-Folklore, 1933, 69 orrialdean, Bizkaian, Elantxoben, Manuel Lekuona apaiz jaunak jasoa.

Manuel Lekuona: *Olerki baserritarra* idazlanean, *Argia'ren egutegia*, 1933 urtekarian, 81 orrialdean.

Manuel Lekuona: *Literatura oral euskérica*, San Sebastián, 1965.

Manuel Lekuona: *Idaz-lan guztiak*, I, 1978, 289 orrialdean.

Aldaketak: 4/3: Bera bezela gura leukiden; 12/4: kurutze gogor batian.

Manuel Lekuonaren bilduman ere agertu da kanta au, eskuz idatzita eta Elantxobetik Antonio Amutxastegik bialduta.

Aldaketak: 2/3: arri labrauz eginda dago; 4/3: bera bezela gura zeukiden; 6/2 eta 6/4: Natubitate goizian; 12/2 eta 12/4: kurutze krubel batian.

IV

Birjiña Amaren eguna da ta
desagun aren kantia,
nik esango det kantia baña
ongi erantzun, jentia.

Jaiotzen danak eriotzia
duda eskusa gabia,
ni nerau ere jaio nintzan da
zor det nik eriotzia.

Eriotziari gauza batekin
ongi natzaio kontentu:
aberatsari diruagatik
ez oi diote parkatu

Aberats orrek diruak ditu,
pobriak umildadia,
umildadiak irikitzen du
zeru altuan atia.

Zeru altuan atia eta
Paradisuan salia,
arri ebagiz eginik dago
aruntzañoko bidia.

Arri ebagiz bidia eta
zillar labraduz atia,
zillar labraduz atia eta
urre gorriz du giltzia.

Urre-silloian jarrirrik dago
Birjina gure Amandrea,
Ark alaxe du merezitutzen,
nork du alako Semea?

Bederatzi illian ibilli zuan
sabel santian Semea,
bederatzi illak kunplitu eta
jaio zan Gabon-gabian.

Jaio zan Gabon-gabian eta
mezatxo biren erdian,
mundu guztia salbatu zuan
Natubitate-goizian.

Ark ori ala egin ez balu
gu norako ote giñian?
Erdiok oraiñ, bestiok gero
kondenatuko giñian.

Arantzazuko bertso-bilduman, 123 orrialdean, eskuz idatzita, Oñatiko Uri-barrin, Azkarraga baserrian, Martina Inzaren aotik jasoa.

V

Birjiñaren gaba da gaur ta
desagun bere kantia,
nik esango dot kantie baien
ondo erantzun, jentie.

Jaioak zor dau eriotzie,
gauza eskusa gabie,
ni nerau bere jaio nintzen da
zor daukat eriotzie.

Eriotziari gauza bategaz
oi natxako ni kontentu:
aberatsari diruekaitik
ezin leiola parkatu.

Aberats orrek diruek ditu,
pobriek umildadie,
umildadiek edegeiten dau
zeru altuen atie.

Zein larrosa ta zein krabeliñe
dago zeruen salie,
larros-orriek samurrek die,
kontuz ibilli, jentie.

Arantzazuko bertso-bilduman, 125 orrialdean, eskuz idatzita, oar onekin:
"Cantado por Sor María de los Ángeles Martitegui, de 84 años, Guernica, Agosto de 1936".

VI

Birjiña Amaren eguna da ta
dezagun aren kantia,
nik esango det kantia bañan
ongi erantzun jentia.

Jaiotzen danak eriotzia
gauza eskusagabia,
nik neuk ere jaio nintzan da
zor det nik eriotzia.

Eriotza ori gauza batekiñ
geldigten zaigu kontentu:
aberatsa izanagatik
eleikiola barkatu.

Aberats orrek izanak ditu,
pobriak umildadia.
Umildadiak irikitzen du
zeru altuan atia.
bai eta ere superbidadeak
inpernua ta leizia.

Arri labraduz eginda dago
zeru alture bidie,
arantza beltzez eginde dago
inpernureko bidie.

Briedure piñez eginde dago
zeru altuen atie,
burdiñe goriz eginde dago
inpernureko atie.

Zein larrosa ta zein krabeliñe
dago zeruen salie,
larros-orriek samurrek die,
kontuz ibilli, jentie.

Arri ebagiz egiña dago
Paradisora bidia,
arri ebagiz bidia eta
kaltzairu fiñez atia,
kaltzairu fiñez atia eta
zillar zurizko giltzia.

Urre gorrizko silloian dago
Birjiña Ama andria,
zure Semeak aintzen du eta
merezi dezu, Maria.

Eztago munduan amarik
alako semea duenik,
ezta ez dago semerik ere
alako ama duenik.

Ollarrak jo du munduan eta
aingeru onak zeruan,
ala gerta dakikegula
gere eriotzako orduan.

Xabier Azurmendi Agirre: *Atzoko Zegama*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1997. Aurretik oar au egiten du:

“Gure amak gauetan artazuitzen da ai giñen garaian kantatzen ziun kanta polita”.

Lerro guziak alkarren jarraian eratzen ditu Azurmendi adiskidea zanak. Guk launaka, eta bi alditan seinaka, banatu ditugu, aldaera au besteen antze-ra agertzeko.

Laugarren bertsoan *superbidadea* idazten du Azurmendik. Guk, berriz, *superbidadeak*, beraren aurreko *irikitzen du* aditzarekin uztartu bear da eta.

III

*Es el día de la Virgen y cantemos el cantar;
yo cantaré el cantar, pero vosotros, amigos, responded bien.*

*El camino a Aránzazu es largo, además cuesta arriba;
de piedras sillares está hecho el camino al Paraíso.*

*La piedra labrada es buena, pero mejor el fino acero,
de oro fino está hecha en el Paraíso la silla.*

*En aquella silla está sentada Nuestra Señora,
la Virgen deseaba que como ella (estuviera) su Hijo.*

*Lo llevó en su vientre durante nueve meses,
al cabo de los nueve meses nació en la Nochebuena.*

*A todo el mundo salvó en la mañana de Navidad,
a todo el mundo salvó en la mañana de Navidad.*

*Una estrella envió su luz y avancé en mi camino;
a su luz caminé por el camino de Aránzazu.*

*A la Virgen y a su Hijo me los encontré en el camino;
buenos consejos me dieron entre la Madre y el Hijo.*

*Que fuera bueno y humilde mientras viva en el mundo;
que no me pesaría luego, cuando marchara de aquí.*

*Mucha sangre derramaron, descalzos, en la tierra:
- Hijo mío, ten zapatos, cálzatelos.*

*- Señora Madre, déjeme mientras voy así;
yo he de padecer la muerte en el monte del Calvario.*

*En el monte del Calvario y en una cruel cruz;
yo he de padecer la muerte en una cruel cruz.*

IV

*Es el día de la Virgen y entonemos el cantar;
yo entonaré el cantar, pero contestad bien, amigos.*

*El que nace no podrá evitar la muerte;
también yo nací y soy deudor de la muerte.*

*Con la muerte en una cosa estoy contento;
que al rico por dinero no le perdona.*

*El rico tiene dineros, el pobre humildad;
la humildad abre la puerta del alto cielo*

*En el alto cielo la puerta y en el Paraíso la sala,
con piedras labradas está hecho el camino que lleva hasta allá.*

*Con piedras labradas la puerta y con plata labrada la puerta,
con plata labrada la puerta y tiene de oro la llave.*

*En un sillón de oro está sentada la Virgen, Nuestra Señora.
Ella así lo mereció; ¿quién tuvo un hijo semejante?*

*Durante nueve meses llevó en su santo vientre al Hijo,
al cabo de los nueve meses nació en la Nochebuena.*

*Nació en la Nochebuena y entre dos misas;
salvó a todo el mundo en la mañana de Navidad.*

*Si él no lo hubiera hecho así, ¿a dónde iríamos a parar nosotros?
La mitad ahora, y los demás después, nos hubiéramos condenado.*

“Iturri eder, iturri zuri...”

I

Iturri eder, iturri zuri,
iturri ur gozo duna,
Birkiñiaren uso politak
ortxe urez ase dira.

Birkiñiaren usoak
ederrak eta politak,
urre gorrizko pikotxuakaz
goiko menditik jatxiak.

Sortzez garbiko Ama samurrik
usuak pillatu ditu,
bere altzuan samur artuta
zeruan sartuko ditu.

Usotxu orrek, Birkin laztana,
dirade zure alabak,
liriyoaren antz ederrian
lurrian azi diranak.

Zeru goietan aingeruak,
mundu-baratzan loriak,
aingeru eta loriak,
Amatxu, danak zeuriak.

Kanta au Bilboko *Euzkadi* egunkarian agertu zan, 1933-VII-6-an, *Mañari-ko-k* bialduta. Bertsoen ondoren oar au egiten du:

"Bertso oneik, Ozerin'dar Markelin andereak abestu daustaz"

I

*Fuente hermosa, fuente clara, fuente de dulce agua;
las bellas palomas de la Virgen ahí se han saciado de agua.*

*Las palomas de la Virgen (son) hermosas y bellas,
con picos de oro y bajadas de la alta montaña.*

*La tierna Madre, concebida sin mancha, ha reunido a las palomas;
recogiéndolas dulcemente en su regazo, las llevará al cielo.*

*Esas palomitas, Virgen querida, son tus hijas;
las cuales han crecido en la tierra asemejándose en belleza a los lirios.*

*En los altos cielos los ángeles y en el huerto del mundo las flores;
ángeles y flores, Madre, tuyos son todos.*

“Kristinau onak bear leuke...”

I

Allegro moderato

Kris - ti - nau on - ak be - ar leu - ke
jai - an jai - an pen - tsa - du as - te guz - ti - an
zein - bat bi - der ein e - te - da - ben pe - ka - tu.

Kristinau onak bear leuke yaian-yaian pentsadu
aste guztian zeinbat bider ein ete dabent pekatu.

Kristinau on bat ilten danean egiten dabe bi parte,
gorputza eroan elizara ta lurraz estaldutent dabe.

Arima ona badoia eta nora dan iñok eztaki,
Paradisuko atean dago isilik eta tristerik.

Kristo gure Jaunak urteten deutso, dana piedadez beterik:
— Arima ona, zeuk zer dakazu zeure munduko gauzarik?

- Umildadea, karidadea; Jaunak eztakat besterik.
- Orretxek biok dakazan orrek eztau besteren bearrik.
- Aingerutxuak, artu egizu arima on au eskutik, eroan eizu Paradisura beste guztien aurretik.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 774 zenbakian, 885 orrialdean; Bizkaian, Murelagako Maria Martina Maruriri jasoa.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak*, (Donostia, 1984), II tomo-an, 190 orrialdean.

* * *

Beñat Detchepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburuko *Kristau hona* olerkia onela asten da: "Munduan den gizon orok behar luke pentsatu...". Baidu, beraz, zer ikusirik kanta onen asierarekin, eta baditeke batak besteari artua izatea ere. Baiña errezagoa da, guk uste, Detcheparek erriarena ezagutzea, beste aldera baiño. Ala, arek erriaren aotik artua balitz, kanta au oso zaarra degula esan bearko genduke.

II

Kris - tau on - ak be - ar lu - ke yai - an
 yai - an pen - tsa - tu as - te guz - ti - an zein - bat
 bi - der e - gi - ten du - en be - ka - tu.

Kristau onak bear luke yaian-yaian pentsatu
 aste guzian zenbat bider egiten duen bekatu.

Bekatuak konfesatu, barkazioa eskatu,

.....

Kristau on bat il-orduan egiten da bi parte,

.....
– Anima ona, zer dakazu beste munduko beririk?
– Umildadea, karidadea, Jauna, nik eztet besterik.

.....
– Oriek biak baldin baituzu ezta besteren bearrik,

.....
Aingerutxoak, ar zazute anima on au eskuti,
Paradisuan yarri zazute beste guzien aurreti.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 773 zenbakian, 884 orrialdean; Naparroan, Olaztiko Josefa Gaztanbideri jasoa.

Ondoren onela dio:

“La segunda mitad de las estrofas 2^a, 3^a y 5^a es añadidura del folklorista, pues la cantora no recordaba esos trozos. Algun pasaje obscuro de este poema se explica por su gemelo Kristinau onak”.

Euskalerriaren Yakintza-n, IV tomoan ere argitaratu zuan Azkuek kanta au, baiña doiñurik gabe.

III

Moderato

Kris - ti - on bat - ek be - ar bai - lu - ke i - gan-de_e -
gun - e - an pen - tsa - tu as - te guz - ti - an zen - bat
al - diz e - gi - ten dui - en be - ka - tu.

Kristi on batek bear bailuke
igande egunean pentsatu
aste guztian zenbat aldiz
egiten duien bekatu.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 775 zenbakian, 886 orrialdean: Naparroakko Aezkoan, Abaurrepeko Zelestina Bidondori jasoa.

R. M. Azkue: *Aezkera edo Petiriberro-ingurueta mintzaera, Euskera*, 1927, 179 orrialdean, aldaketa onekin: 1/2: igandeetan pentsatu.

* * *

Kristi on batek iltzen danean
egiten da parte bi,
aren aide adiskideak
aren onen zatitzen ari;
obeki egin lezakete
mezatan eman balezate.

Korputz gura bera bakarrik,
gero lurrez estali;
arima gaixoa yoaiten duzu
beltzik eta tristerik,
gure Yinkoa elkitzen zaio
kolera aundi bat arturik.

R. M. Azkue: *Euskalerriaren Yakintza*, IV tomoan (Madrid, 1947). 104 orrialdean. Ondoren onela dio:

"Enseñada por Celestina Bidondo en Abaurrea Baja (Aezkoa). Su melodía, publicada por mí en Aezkerea, núm. 10, parece música de algún salmo de la Iglesia, sexto tono, alterado a la moda de Francia".

Bi bertso auek ere Zelestina Bidondoren aotik jasoak, beraz. Baiña bertso auek ez dute zer ikusirik bere kantutegian ematen duanarekin. Doiñuari bakarrik dagokiona izango da, beraz, *enseñada* itz ori. Eta bi bertso auek baditeke Azkuek berak moldatuak izatea; edo ikutuak beintzat.

IV

Kristi on batek bear luke
igandean pentsatu
aste kartan zenbat aldiz
egin duen bekatu.

Kristi on bat iltzen denean
egiten da parte bi,
korputz kura enzerratu
eta lurrez estali.

Arima gaixoa tristerik doaie,
nora doaien eztaki;
Paradisuko atarian dago
tristerik eta bakarrik.

Gure Jauna atera zaio
piedadez beterik:
– Arima gaixoa, zer dakarrazu
zuaureka mundutik?

- Umildadea, karidadea, nik eztakarrat besterik.
- Umildadea, karidadea, eztuzu beste bearrik.

- Aingeru onak, ar ezazie arima gaixo au eskutik, Paradisuen para ezazie beste guzien gainetik, beste guzien gainetik eta eskuietako aldetik.

Aingeru onak kantatzen dizie
Salbe ta Abe Maria,
guk guziok bear dugula
Paradisuan gloria,
orain Ama Birjiñaren alabantzatan
erran zagun Abe Maria.

R. M. Azkue: *Euskalerriaren Yakintza*, IV tomoan (Madrid, 1947), 104 orrialdean; Naparroan, Otxagiko Fernando Rekalde eta Frantziska Kurtxagaren aotrik jasoa.

V

Kristau ona iltzen danean egiten da parte bi, gorputza dijoa sepulturara lurre duala estalki.

Anima bua, bua,
nora dijuan ez daki;
Paradisoko atetan dago
bakarrik eta tristerik.

Jesukristo ateratzen zaio piedadez beterik:
– Anima ona, zuk zer dakartzu zure munduko gauzarik?

– Umildadea, karidadea, ez daukat, Jauna, besterik.
– Oiek bik dakartzun orrek ez dauke besterik biarrik.

– Aingeru onak artu zazue anima on au eskutik,
jarri zazue beste guztien gañetik
da Magdalenaren albotik.

Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduman, 1934 paper-zorroan, Ataungo Joakin Dorronsorok "Motrikoko gazte bati" jasoa.

VI

Kristau ona iltzen danean
egiten da parte bi,
gorputza sepulturara ta
lurrez dute estali.

Anima ona badijoaa ta
nora dijoan eztaki,
Paradisuko atetan dago
bildurrez eta tristerik.

Jesus irten da piedadekin:
– Anima ona, zer dakartzu mundu
orretatik?
– Umildadea, karidadea,
Jauna, ez daukat besterik.

– Umildadeak irikitzen du
zeru altuko atea,
soberbi gaiztoz beterik daude
inpernuako leitzeak.

Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduman, Kanta errikoyak 1935'ngo udan mordoan, Ataungo Joakin Dorronsorok bertako Maria Josefa Barandiaranen aotik jasoa.

VII

Kristiñau on bat iltzen danien
egiten dabe bi parte:
gorputzez lurrez estaldu eta
arimie paradisure.

Paradisuko atien dago
bakarrik eta tristerik,
Redentoriek urteten deutso
piedadez beterik.

– Kristiñau ona, zuk zer dakazu
mundu ontako gauzarik?
– Umildadie, karidadie,
eztakat, Jauna, besterik.

Orrexek biok dakarrezanak
eztau bierko besterik;
ia, aingeruek, erduze ona,
artu egizue eskutik.

Eruen eizue Paradisure
Birjiña Amaren aurretik,
Birjiña Amaren aurretik eta
santu guzien albotik.

Arantzazuko bilduman, 126 orrialdean, oar onekin:

"Cantado por Sor María de los Ángeles Martítegui, Guernica, Agosto de 1936".

VIII

Kristi on batek bear luke
igandian pentsatu
aste artan zonbat aldiz
egin duen bekatu,
bekatuak konfesatu eta
parkazione galdu.
Kristi on bat iltzen denian
egiten da parte fi (bi):
korpuz kura enzerratu eta
lurrarekin estali,
arima gaxoa tristerik doaie,
nora doaien eztaki.
Arima gaxoa Paradisoko atarian
tristerik eta bakarrik;

gure Jauna atera zaio
piedadez beterik:
– Arima gaxoa, zer ekarrazu
zeurekila mundutik?
– Umildadea, karitatea,
nik eztut bertzerik ekarri.
– Umildadea, karitatea,
eztuzu bertze bearrik.
Aingeru onek ar dezazie
arima gaxua eskutik,
Paradisuan eser dezazie
bertze guzien aurretik,
bertze guzien aurretik eta
eskuietako aldetik.

Kau erraten duenak urteko ortzilare guziz irur aldiz, ez suan erre eta ez
urian ito; Paradisuan baduke parte, ifernuan ez batere.

Jose Antonio Donostia: *Euskal-erriko otoitzak*, Egan aldizkarian, 1956'ko bi-
garren zenbakian. Ondoren onela dio:

“Andre Juana Engrazia Adot otsagiarrak otoitz au eman zidan, orain amar
urte. Berak bere amari ikasi: bere ama, otsagabiarra ere, orain berrogei ta
amar urte il zala, irurogei ta lau urterekin”.

IX

Kris - tau o-nak be-ar lu-ke ian-de e- gu-ne_an pen-sa - tu, as-te
gu - zi - an zen-bat al - diz ei- ten du - en be-ka - tu.

Kristau onak bear luke
iande egunean pensatu
aste guzian zenbat aldiz
eiten duen bekatu.

Pekatuak konfesatu eta
barkamendua eskatu,
barkamendua eskatu eta
urrikimendu guardatu.

Kristau on bat iltzen denean egiten da parte bi:
gorputz ura enterratu eta gero lurrez estali.

Arima gaixoa parabisuko atarira bakarriks ixilik eta tristarik nora doaien eztaki.

Gure Jauna ateretzen zaio piedadez beterik:
– Arima gaixoa, zer dakardazu zeurekilan mundutik?

– Umildadea, karidadea, nik ez dakart besterik.
– Aingerutxoak, ar dezazie arima gaixoa eskuistik; Parabisuan para zazie beste guzien aurretik.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 701 zenbakian, 971 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: Juan Simón Goñi. Loc. rec.: Oroz-Betelu. Clas.: religiosa. Trans.: P. Victoriano de Larraínzar, del Colegio de Lecároz".

I

El buen cristiano debe en cada fiesta examinar cuántas veces ha cometido pecado durante la semana.

Cuando el buen cristiano muere, se divide en dos partes: el cuerpo lo llevan a la iglesia y lo cubren de tierra.

El alma buena marcha y nadie sabe a dónde; está a la puerta del paraíso silenciosa y triste.

*Cristo, nuestro Señor, le sale lleno de piedad.
– Alma buena, ¿tú qué cosa nos traes de tu mundo?*

*– La humildad, la caridad; no tengo, Señor, otra cosa.
– Aquél que tiene éas dos no necesita de más.*

*Angelitos, tomad a esta buen alma de la mano,
llevadla al paraíso por delante de todas.*

“Mundua despeditu dudala...”

I

Allegro moderato

Mun- du - a des- pe- di- tu du - da - la o - rain- ik ez- ta Cre- do
bi, des- di-txa - tu- a e- to- rri zai- o a - tal- on - do- ra Pe- dro - ri, u- mil- da -
de - an u - mil- da - de - an sar- tu- ko_o - te - zen bar- ne - an.

Mundua despeditu dudala
orainik ez da *credo* bi,
desditxatua etorri zaio
atalondora Pedrori,
umildadean, umildadean
sartuko ote zen barnean.

Kristok Pedrori ots egin zion:
– Norekin ago orrela?
– Anima gaixo'at emen eldu da
barnera bear duela.
– Ezta lekurik, ezta lekurik,
doaiela infernura ortik.

Anima gaixoa nigarrez zegoan:
– Zorigaiztoko mundua!
– Ori orrela zinakiela
galdu zinuen zerua?
– Ai ez orainik, ai ez orainik,
esperantza dut Amarenganik.

Kristok, Amari begiratuta,
ikusi zuelarik tristezan,
berealaxe mudatu izan zen
geiago pena etzezan.
Ai hora umea, ai hora umea,
Birjina Amaren Semea!

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 861 zenbakian, 1002
orrialdean: Naparroan, Baztango Iruritan, Eusebio Santxotenari jasoa.

II

Andante mosso

Pe-dro ño-re-kin a-ri aiz o - rre la? Yauna, e men a-ri ma
 e-rru-ki di at gai - xoau. ñO-dol be rozgarbi-tu
 bat da ze-ru-ra nai lu-ke-a - la. Ez - ta
 ba-tek o-rain sa - mur-tzen ez-al - au? A - ma
 le-ku-rik, ez - ta le-ku-rik, do - ai - e - la in-per-nu - ra or - tik. Gai - xo -
 ne-o - la e - gin al ba - litz, zu - re nai - a ne - gi - ke itz - ez itz. Men - di
 ak ne - gar e - gi - ten zu - en zo - ri gaiz-toz-ko mun - du - an e - txe - a - ga - tik e - txe -
 ar - tan ni zu - tuk be - za - la mai - te - rik au be - lau - ni - ko o - pal - ar - te - an la - gun
 koen - ga - tik gal - du zue - la - ko ze - ru - a "Ai ez o - rai - nik, ai ez
 maiz i - zan ña ez - al - dek on - ets - i - ko? On - en bi - zi - tza zer - o -
 o - rainik i - txa - roperdu Ama - ren - ga - nik". Se - me
 trek i - kus ba - de - za - zu galdu be - ti - ko.

- Pedro, norekin ari aiz orrela?
 - Yauna, emen arima bat da
 barrura nai lukeala.
 - Ezta lekurik, ezta lekurik,
 doaiela inpernura ortik.

Gaixoak negar egiten zuen:
 - Zorigaiztozko mundua!
 Etxeagatik, etxekoengatik
 galdu zuelako zerua,
 - Ai ez orainik, ai ez orainik,
 esperantza dut Amarenganik.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 886 zenbakian, 1029 orrialdean. Noren aotik jaso zuan adierazteko, onela dio:

"*Esta hermosísima canción la aprendí en el hospital de Lezaka (AN), de labios de la asilada Josefa Antonia Pikabea*".

Doiñu eta bertso auek badakarzki Azkuek bere kantutegi orren itzaurrean ere. Eta ondoren onela dio:

“...di entre mis muchos borradores con la tercera variante, procedente de Etxalar. El desenlace, según esta versión, es muy otro”.

Eta segiran urrengo bertso au;

– Pedro, ingernu guztia dator,
Judas dutelaik aurrena.
Pedro, ireki ziok atea,
sar dadiela barrena.
Merezi gabe, merezi gabe,
Ama egin zitzaion jabe.

Azkuek danak alkarren segiran idazten ditu bertso onen itzak, prosa balitz bezela, alegia. Guk bertso-itxuran eratu nai izan degu.

Ondoren, doiñuari buruz onela dio Azkuek:

“La música de esta versión es inferior a la ejecutada, aunque también distinguida. La publicaré, Dios mediante, en el Cancionero”.

Baiña ez degu uste ala egin zuanik.

Bere *Euskalerriaren Yakintza-n* ere agertu zituan Azkuek bi bertso auek; baiña doiñurik gabe.

III

Moderato

Kris-tok Pe-dro-ri gal-de_e_ gin zi-on ¿nor-e_- kin zau-de o-rré - la?
 A-ni-me gai-xo bat da-go e-men, ba-rre-na
 be-ar du-e-la. Ez-ta le-ku-rik,
 ez-ta le-ku-rik, bi-jo-a_in-fer-nu-ra or-tik.

Piú mosso

meno mosso

Kristok Pedrori galde egia zion:

- Norekin zaude orrela?
- Anime gaixo bat dago emen, barrena bear duela.
- Ezta lekurik, ezta lekurik, bijoa infernura ortik.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco kantutegian*, 886 zenbakian, 1031 orrialdean. Berak Orixe zanaren aotik jaso omen zuan:

"N. Ormaechea aprendió en Uitzi (Larraun, AN) esta linda variante, que contiene sólo un trozo del poema".

IV

Quasi lento

Tris-te - ak ne-gar e-gi-ten zu - en zo-ri gaiztozkomundu-an,

Piú mosso e - txe-a- ga-tik, e - txe-ko_en-ga-tik, gal-du zu-e-la ze - ru - a;

meno mosso baino_ezo-raindik, baino_ez o raindik, es_perantza-dut Bir-ji-ne_arengan - dik. Se-me-ak

I. tempo

A - ma - ri be - gi - ra - tu - ta, Am' - o - ri be - rriz tris - te zen

be - re - a - la - xe gel - di-tu_i-zan zan, be - rriz pe - na - tu e - tze - zan.

ai hu-ra u-me-a, ai hu-ra u-me-a, Bir-ji - na A-ma-ren se - me - a!

Tristeak negar egiten zuen:

– Zori gaiztozko mundua!
Etxeagatik, etxeokoengatik
galdu zuela zerua;
baino ez oraindik, baino ez oraindik,
esperantza dut Birjinearengandik.

Semeak Amari begiratuta,
Am'ori berriz triste zan,
berealaxe gelditu izan zan
berriz penatu etzezan.
Ai hora umea, ai hora umea,
Birjina Amaren semea!

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 899 zenbakian, 1047 orrialdean; Naparroan, Larraungo Baraibarren, Juana Argiñarenaren aotik ja-soa.

Leenengo bertsoaren bigarren lerroa onela idazten du Azkuek: *zori gaiztozko munduan*. Baiña dudarik ez da punturako *mundua* bear duala.

Bigarren bertsoaren bigarren lerroa, berriz, *Am'ori berriz triste zen* idazten du. Baiña *triste zan* bukatu bear du punturako.

V

Ogei ta amairu bertsot dirade,
Kristok ainbeste urte dituena.
– Jauna, anima bat etorri zaigu,
emen sartu nai duena.
– Ez da lekurik, ez da lekurik,
dijuala inpernura ortik.

Tristeak negar egiten zuan:
“Zori gaiztoko mundue!”,
artu zebanian etsia
galdu zebala zerua.
– Ez oraindikan, ez oraindikan,
esperantza Amagandikan.

– Jauna, inpernu guzie dator,
Judas duela aurrena.
– Pedro, ate oriek irikitzatzu,
sartu dedilla barrena.
Merezi gabe, merezi gabe,
Ama egin zitzaion jabe.

Pedrok galdetu zion Judasi:
– Judas, nora oa orrela?
Ik nai ukean anima ura
orain sartu dek zerura.
Oa etxera, oa etxera
agilandoa artzera.

Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduman, kanpoko azalean *Kanta errikoiaik 1935'ngo udan Dorronsorok bilduak* dion zorroan.

Bertsoen ondoren oar au:

“Maria Prantziska Goikoetxea’k, bere aitek 88 urte zituanian, bein bakarrik entzun da ikasitakoa. Maria Prantziskak 66 urte ditu orain”.

Leenengo lerroan *ogei ta iru* irakurtzen da Dorronsorok bialdutako ortsan. Baiña dudarik ez da *ogei ta amairu* bear duala.

VI

Kris - tok Pe - dro - ri gal-de-tzen di - o: No-re-kin zau - de iz - ke -
tan? Jau-na, a - ni - ma bat e - men da - go sar-tu nai du - e - la ze - ru - an.
Ez-ta le-ku - rik, ez-ta le-ku - rik: doa-la in-fer - no-ra or-tik-(an).____

Kristok Pedrori galdetzen dio:

- Norekin ago izketan?
- Jauna, arima bat emen dago sartu nai duela barnean.
- Ez da lekurik, ez da lekurik, doala infernura ortik.

Gaixo arek nigar egiten du:

- Mundu madarikatua!
- Ori jakin ta, gizagaixua, nola duzu galdu zerua?
- Ai, ez orainik, ai, ez orainik, esperantza dut Amaganik.

Kristok Amari begiratu ta

ikusirkik tristezián,
berealaxe urrikaldú zen
geiagorik pena etzezan,
Ai ura umia, ai ura umia,
Ama Birjiñaren Semia!

- Pedro, infernu guzia dator,

Judas dutela aurrena.
Ireki ziozu ate ori,
sar dadiela barrenera.
Merexi gabe, merexi gabe,
Ama bera egin zen jabe.

Jorge de Riezu: *Nafarroa-ko euskal-kantu zaharrak*, 1973, 211 orrialdean, argibide auekin:

"Canción recogida en Alsasua, por el P. Modesto de Lecumberri el año 1918.

Para la adopción de texto, ecléctico, se han tenido a la vista, además de las estrofas del P. Modesto, las de un cuaderno de Arrigaray y las que trae Azkue, en las páginas 1002, 1029 y 1047 y en la Introducción, págs. 22-24, de su Cancionero Popular Vasco".

* * *

Kristok Pedrori galdetzen dio:
– Norekin zaude izketan?
– Jauna, anima bat emen dago
sartu nai duela zeruan.
– Ezta lekurik, ezta lekurik;
doala infernura ortik(an),

P. Donostia, *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 705 zenbakian, 976 orrialdean, argibide auekin:

"Loc. rec.: Alsasua. Fecha: 1918. Clas.: religiosa. Trans.: P. Modesto de Lecumberri".

Aurreko aldaera, beraz, eta doiñua ere berbera. Ondoren beste argibide auek ematen dira:

"Ref.: Canción recogida por el P. Modesto de Lecumberri con una estrofa. Está desprendida de un texto más amplio, en que se describe una graciosa escena a las puertas del cielo, entre un alma, San Pedro, Jesucristo y la Virgen María. Entre los papeles del P. Donostia hallamos un texto de seis estrofas, procedente del vascólogo "Arrigaray" (P. Celestino de Caparoso), que aquí trasladamos:

Mundua despeditu duela
ezta oraiñik Kredo bi,
desditxatua yoan zetzaion
atalondora Pedrori,
umildadean, umildadean,
sartuko ote zen atian.

Yoan ta Pedrok galdetu zion,
ongi bear zen moduan,
ia Yaunaren serbizioan
bizitu izan zen munduan.
Aturditurik, aturditurik,
etzakelarik zer esan.

Kristok Pedrori galdegia zion:
– Norekin zaude orrela?
– Yauna, anima bat da emen
barrenera bear duela.
– Ezta lekurik, ezta lekurik;
biyoa infernura ortik.

Tristeak negar egiten zuen
zorigaitzozko moduan,
etsia artu zuenean
galdu zuela zerua.
– Ai ez oraindik, ez oraindik,
esperantza det Amangandik.

Begiratuta ikusi zuenian
bere Amaren tristezia,
begirik ere altxatu etzion
geiago pena etzezan.
Ai, ura umia, ai, ura umia,
Ama Birjiñaren Semia!

– Yauna, infernu guzia dator
Yudas duela aurrena:
– Idiki ziok atea orri
sar daiela barrenera.
Merezi gabe, merezi gabe,
Ama egin zaio yabe".

VII

Musical score for "Mundua despeditu dudala..." in 3/8 time, treble clef. The lyrics are:

Mun - du - ba des-pe - di - tu du - e - la ez da o - rai - nik Kre - do
bi, des - di - txa - tu - a yo-an zi - tzai - on a - tal - on - do - ra Pe - dro -
ri, hu-mil- da - de - an, hu-mil- da - de - an, sar-tu-ko_o - te zen a - ti - an.

Munduba despeditu duela
ez da orainik Kredo bi,
desditxatua yoan zitzaison
atalondora Pedrori,
imildadean, umildadean,
sartuko ote zen atian.

P. Donostia, *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 706 zentbakian, 978 orrialdean, argibide auekin:

"Loc. rec.: Yantzi. Fecha: mayo de 1913. Clas. religiosa".

I

(Traducción de R. M. Azkue)

*No hace aún dos credos que me he despedido del mundo.
El desdichado se ha presentado a Pedro junto a la puerta,
pidiendo humildemente la entrada.*

*Cristo llamó a Pedro (y le dijo): - ¿Con quién estás así (ocupado)?
- Una pobre alma viene aquí (diciendo) que tiene que entrar.
- No hay lugar, no hay lugar, que se vaya de ahí al infierno.*

La pobre alma lloraba (diciendo); – ¡Desdichado mundo!

– ¿Sabiendo eso perdisteis el cielo?

– Ay no todavía, ay no todavía, tengo esperanza en la Madre.

Cristo, mirando a la Madre, viéndola triste,

mudó de parecer inmediatamente para que no se afigiera más.

¡Oh qué Niño aquél, oh qué Niño aquél, el Hijo de la Virgen Madre!

V

*Son treinta y tres estrofas,
tantas como años tiene Cristo.*

*– Señor, un alma nos ha venido,
que desea entrar aquí.*

*– No hay sitio, no hay sitio,
que se vaya de ahí al infierno.*

La triste lloraba:

*“¡Malhadado mundo!”,
cuando se llegó a convencer
de que había perdido el cielo.*

*– No todavía, no todavía,
(queda) esperanza de parte de la Madre.*

*– Señor, todo el infierno viene
con Judas a la cabeza.*

*– Pedro, abre esas puertas,
que entre (el alma) adentro.
Sin merecerlo, sin merecerlo,
la Madre la tomó a su cargo.*

Pedro le preguntó a Judas:

– Judas, ¿a dónde vas de esa manera?

El alma que tú querías

acaba de entrar al cielo.

*Vete a casa, vete a casa
a recibir el aguinaldo.*

"Nere Ama Birjiña Kontzeziñokoa..."

I

Nere Ama Birjiña
Kontzeziñokua,
mudatu egidazu
neroni gogua.
*Tra-lara-lara-la-le-lo
tra-lara-lara-la-le-lo
tra-lara-lara-la-la-la
la-la-la-la-le-la.*

Ilgo naizenik ere
akordatu gabe,
ofenditu izan zaitut
neuk sarritan ere.
Tra-lara-lara-la...

Ai zer gauza ona dan
umilde izatia!
Ama Birjiñaren
deboto izatia!
Tra-lara-lara-la...

Ama Birjiñia det
neuk adixkidia;
beraren Seme ona
guztioen jaubia.
Tra-lara-lara-la...

Desiertura nua
an gura det bizi,
munduko kontentuak
biar deguz utzi.
Tra-lara-lara-la...

Munduko kontentuak
denbora gutxiko;
zeruetan gloria
eternidadeko.
Tra-lara-lara-la...

Zeruko jardiñeko
loraen artian
egon biarko degu
egunen batian.
Tra-lara-lara-la...

Noiz izango ete da
egun ditxosua,
nere Ama Birjina
Kontzeziñokua!
Tra-lara-lara-la...

Anuario de Eusko-Folklore, 1933, 67 orrialdean, Manuel Lekuona apaiz jau-na zanak Elantxoben jaso eta *Gabon-kantak* izeneko mordo batean argitaratu-tako kanta.

Elantxobeko Antonio Amutxastegiri zor zion erromantze au Lekuonak, onen paperetan agertu baita arek bialdutako papera, eskuz idatzita.

Manuel Lekuona: *Idaz-lan guztiak, I, Aozko literatura*, 1978, 472 orrialdean.

II

Allegretto

De - sier - tu - ra no - a, an gu - ra dot bi -
 zi, mun - du - ko kon - ten - tu - ai gu - ra dot - set i -
 txi. Mun - du - ko kon - ten - tu - a den - po - ra gu - txi -
 ko, ze - ru - e - tan glo - ri - a e - ter - ni - da - de - ko.

Desiertura noa,
an gura dot bizi,
munduko kontentua
gura dotset itxi.

Zeruko jardineko
loraren artean
egon bearko dozu
egunen batean.

Munduko kontentua
denpora gutxiko,
zeruetan gloria
eternidadeko.

Egun zorioneko
ditxetan jasoa,
zeu zara Ama Birjina
Kontzeziñoa.

R., M. Azkuek Aramaioko Olaetan jasoa, Engrazia Lazkanoren aotik. Baiña argitaratu gabe utzi zuan. Beraren esku-idazkietan arkitu degu.

III

Andante mosso

De-sier-tu-ra no-a, an-gu-ra dot neuk bi-zzi,
mun-du-ko kon-ten-tu-ai gu-ra deut-set i-tsi.

Mun-du-ko kon-ten-tu-a den-po-ra gi-tsi-ko,

ze-ru-ko glo-riak di-ra e-ter-ni-da-de-ko.

R. M. Azkuek Bizkaian, Gabikako Dominga Aboitiz andrearen aotik jasoa. Au ere etzuan argitara eman. Beraren esku-idazkietan azaldu da.

Doiñu onekin ere aurreko lau bertsoak eskeintzen ditu, batere aldaketarik gabe. Orregatik, ez ditugu berriro idazten.

Baiña ondoren komentario jakingarri au egiten du:

"¡A Nuestra Señora en el misterio de su Inmaculada Concepción! ¡Manes de Huys! Tú, que en tu celebrada obra Les foules del Lourdes llegaste a sostener que el diablo, rabioso del espléndido culto que se le tributa a orillas del Massa-vieille, quiso vengarse inspirando a los artistas los trazos de aquella a tu gusto charra Basílica, ¿qué dirías si supieras vascuence y oyeras estos esperpentos? Indudablemente, así como, en lo religioso, a la Providencia se opone una Antiprovidencia y a la Iglesia una Antiglesia, así, en lo artístico, al Parnaso y a las Musas se oponen tenaz y universalmente un Antiparnaso y unas Antimusas. ¡Que ellas se entretengan en inspirar necedades! Es su oficio. ¡Pero que uno tenga que recogerlas!"

Barka dezaigula Azkue jaunak; baiña gu ez gera iritzi ortakoak. Gogorregi mintzatu dala derizkiogu. Eriaren bertsoak ez dute olako isekarik merezi. Are geiago: Azkuek letra berria asmatu zuan berak an edo emen jasotako zenbait doiñurentzat. Baiña erriarenak baiño ziztriñagoak eta aulagoak, gure iritzirako

beintzat. Antiparnasoa eta Antimusak nun ziran, beraz? Dana dala, itz oiek gauza asko argitzen dizkigute: arek erriaren bertso geiago zergatik etzituan jaso, alegia. Doiñuen billa eta eske ibili zan ura, eta aien letra, bertsoa alegia, gutxi estimatzen zuan. Ez al dira, bada, biak, doiñua eta letra, bata bestea bezin maitagarriak?

IV

O nere Ama Birjiña
Kontzeziñokua,
mudatu egidazu
nik daukodan gogua.

Desiertora noia,
an gura dot bizi,
munduko kontentuari
gura neuskiyo utzi.

Munduko kontentua
denpora gutxiko,
eta gero zerua
eternidadeko.

Zeruko jardiñeko
lora ederren artian,
egongo ete gara gu
egunen batian?

Ai, ai, noz ixango ete da
egun zoriyoneko ori?
Ai, ai, noz izango ete da
egun ditxoso ori?

Euzkadi egunkarian, 1933-VII-22-ko alean, *Mañariko-k* jaso eta bialdua. Bertsoen ondotik onela dio:

“Bertso bi oneik, Ayartzagoena’tar Alexe neskatilla zintzuak abestu daustaz. Bere amama zanari entzunikuak ei dira. Beraz, zarrak ixtan biar”.

I

*Virgen de la Concepción, Madre mía,
truécame el corazón.*

*Sin que se me pase por la cabeza que he de morir.
te he ofendido yo frecuentemente.*

*¡Oh qué cosa tan buena es ser humilde!
¡Ser devoto de la Virgen!*

*La Virgen está a mi favor.
Su buen Hijo (es) dueño de todo.*

*Me voy al desierto, allí deseo vivir;
los placeres del mundo debemos abandonarlos.*

*Los placeres del mundo duran poco tiempo;
la gloria en los cielos es eterna.*

*Entre las flores del jardín del cielo
viviremos algún día.*

*¿Cuándo será ese feliz día,
Virgen de la Concepción, Madre mía?*

“Zidar labraduz egiñik dago...”

I

Zidar labraduz egiñik dago
zeru altura bidia,
karidadiak edegitten dau
zeru altuko atia.

Gure Jaun onak emoten beusku
goiko zelattik eskuba,
gora ta gora igoko dogu
emonik Berai eskuba.

Arima onak zero goietan
ak bai dauko kontentua!
Begiratubaz antxe ikusten dau
Birkiña Ama altsua.

Bere arpegijak argi eingo'tso
eguzkijaren moduan,
begiratu be ezingo dautso
berak nai daben moduan.

Arima ona auspaztuko da
Birkiña Amaren altzuan,
andik aurrera an egoteko
beti-betiko zeruan.

*Euzkadi egunkaria, 1933-V-31; Mañariko-k jaso eta oar onekin bialdua:
“Bertso oneik be, andera zar batek abestu daustaz”.*

I

*De plata labrada está hecho el camino al alto cielo;
la caridad abre la puerta del alto cielo.*

*Si Nuestro Señor nos alarga la mano desde la alta región,
subiremos cada vez más altos asidos a su mano.*

“Zidar labraduz egiñik dago...”

*¡Qué contento tiene el alma buena en los altos cielos!
Mira y ve allí a la Virgen, valiosa intercesora.*

*La cara de ésta brillará como un sol;
(el alma) no le podrá mirar como ella quisiera.*

*El alma buena se postrará ante la Virgen,
para de allí adelante morar eternamente en el cielo.*

Ama Birjiñaren santutegiak

(Santuarios Marianos)

Arantzazuko erromantze zaarrak

Arantzazuko kanta edo erromantze zaar auek irakurtzen asi eta laster, naaste aundia dagoala ikusiko du irakurleak. Bertsoak, alegia, eta bertsolerroak ere berdin, toki jakiñik ez dute, eta ara eta onera dantza egiten dute. Oztopo aundia izan da ori guretzat. Taldeka bildu aal izateko oso lan zailla, alegia. Zenbat kanta diran ere ez baitakigu. Eta asieran kanta edo poema bakarra izan ote zan ere pentsa diteke. Orrela balitz, andik eta emendik bildu diran puskak zugaitz beraren adarrak izango lirake. Ala, bi lan-mota egin ditugu aldi ontan. Batetik, aldaera guziak bata bestearen jarrain jarri; eta ori orain urrena agertuko degu. Orren ondoren, berriz, Aranzazu aldizkarian, 1969-ko epaillean eta apirillean, azaldutako bi idazlan eskeiñiko ditugu. Oiek, aldaera oietatik testu zaarra berriztatu nairik idatzi genituan bi artikulu dira, bata *Aguztuaren amabostgarren* eta bestea *Arantzazura egin dut promes* izenburuekin.

Advertirá el lector, al poco de iniciar la lectura de estos viejos cantares o romances de Aránzazu, que existe en ellos una gran confusión. Las estrofas e incluso los versos no tienen puesto fijo y danzan de un lado a otro. Ello ha sido una gran dificultad a la hora de agruparlos. Ni siquiera sabemos cuántos son los cantares. Hasta se podría llegar a pensar que en un principio constituyeron un único cantar o poema, y que los fragmentos aquí y allí recopilados son ramas desgajadas de un mismo tronco. Por tal razón, hemos optado por realizar dos labores en este caso. Por un lado, ofrecemos, una detrás de otra, todas las variantes conocidas. Y, por otro, presentamos a continuación dos trabajos que publicamos en la revista Aranzazu en marzo y abril de 1969; dos artículos, con el título de Aguztuaren amabostgarren (el 15 de agosto) y Arantzazura egin dut promes (He hecho la promesa de peregrinar a Aránzazu), en los que intentábamos restaurar el texto primitivo, a base de las variantes existentes.

I

Andante moderato assai

A - ran - tza zu - ra e - gin dut pro - mes, e - do gau e - do e - gun -
 Iz - ar e - der bat a - te - ra - tzen du ur - te - an e - gun bat - e -
 ez, e - do gau e - do e - gun - ez e - ta oin - uts - e - an ta do - lo -
 an, ur - te - an e - gun bat - e - an e - ta hu - ra San Ju - an goiz - e -
 rez. A - ren ar - gi - tan ni jo - an nin - tzan A - ran - tza - zu - ra us - te -
 an. A - ma Bir - ji - na ta_a - ren se - me - a o - pa ni - tu - an bi - de - an.

Stesso tempo

A - ran - tza zu - ra e - gin dut pro - mes, e - do gau e - do e - gun -
 ez, e - do gau e - do e - gun - ez e - ta oin - uts - e - an ta do - lo -



Arantzazura egin dut promes
ero gau ero egunez,
ero gau ero egunez eta
oinutsean ta dolorez.

Izar eder bat ateratzen da
urtean egun batean,
urtean egun batean eta
ura San Juan-goizean.

Aren argitan ni joan nintzan
Arantzazura ustean,
Ama Birjina ta aren Semea
opa nituan bidean.

Kontseju on bat eman ziraden
Ama-Semeen artean:
on ta umilla ni izateko
munduan nintzan artean.

- Ai artzaitxoa, artzaitxoa,
nere esan bat egizu,
nere esan bat egizu eta
nerea izanen zera zu.

Ermitatxo bat egin bear degu
deritzola Arantzazu,
iru lata ta lau bost tellatxo
asko izanen al ditu.

Denborarekin ura izanen da
ermita kuriosoa,
ermita kuriosoarekin
komentu poderosoa.

Asko amaren bai seme maitek
an izanen du ostattu,
an izanen du ostattu eta
urre-kaliza goratu.

Itxeak bana binaka dira
Arantzazura-bidean,
itxea itxe señalea da
arbola eder bat aurrean.

Arbola eder bat aurrean eta
mats beltza beste aldean,
mats beltza beste aldean eta
iturri otz bat aurrean.

Iturri atan bataiatu zen
Kristo Erredentorea,
Kristo Erredentorearekin
guztien Salbadorea.

Jende guztia miran zegoan
usoa nora zijoan,
ego txuriak an busti eta
Parabisura dijoa.

Ama Birjina Arantzazukoak
eguteren ttu laioak,
batetik itzal darionako
bestera aldatzekoak.

Ama Birjina Arantzazukoak
urre gorriz du koroa,
urre gorriz du koroa eta
India-sedaz bueloa.

Ai, berak iruin ta berak aundu
beraren donarioa,

.....
.....

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 820 zenbakian, 946 orrialdean.

Baita ere doiñurik gabe bere *Euskalerriaren yakintza-n*, IV tomoan.

J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgell: *Euskal Baladak*, II tomoan, 186 orrialdean.

Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Bala-dak / Antología* (Bilbo, 1995) 66 orrialdean.

Bi doiñu eskeintzen ditu Azkuek bere kantutegiaren zenbaki ortan. Leenengoaaren ondoren onela dio:

“Esta lindísima canción se canta mucho en los pueblecitos del valle de Arakil (AN), al pie de San Miguel de Excelsis, junto a cuyo santuario llegó por primera vez a mis oídos. ¡Cuán agradablemente suenan, después de oídas repetidas veces, las peregrinas cadencias de la variante! Ésta la cantó María Aldasoro, de Arbizu (AN)”.

Bigarren doiñuaren ondoren, berriz, onela esaten du Azkuek:

“Quince estrofas (la última incompleta) pudo darme no sé cuál de las dos colaboradoras: si la de Lakuntza o la de Arbizu”.

Azkuek oar batzuk egiten dizkio bertsoen letrari: 2/1: Ateratzen du dijo la de Arbizu; 5/4: Variante:

Ai artzaitxua, artzaitxua,
nere esan bat egidazu,
ait'ori ere arotza da-ta
datorrela esan zaiozu.

13/2: Por leioak. 14/4: Seda-indiaz (que no hace sentido) dice el original. El bueloa será beloa; 15/1: Por eundu o euna egin “Tejer”.

II

Andante



I - zar e - de - rrak ar - gi ei - ten dau ze - ru al - tu - an ba - ka - rrrik;



e - ta ez - ta - kit jai - o dan ber - tan a - la da - to - rren ze - ru - tik.

Izar ederrak argi eiten dau
zeru altuan bakarrik;
eta eztakit jaio dan bertan
ala datorren zerutik.

Beraren argitan joan nintzan ni
Arantzazura goizean,
Birjina (y) Ama eta Semea
topau nituzan bidean.

Kontseju on bat emon eustien
Ama Semien artean:
on da umila izan nendila
munduan nintzan artean,
eurak lagunduko eustiela
mundutik niñoanean.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 851 zenbakian, 991 orrialdean, Araban, Aramaioko Bizenta Pujanari jasoa.

Moldiztegi-oker bat zuzendu degu. Bigarren bertsoaren bigarren lerroa one-
la idatzita dago: *Arantzura goizean*.

Bere Euskalerriaren Yakintza-n ere agertu zuan Azkuek kanta au, IV tomo-
an.

III

I- zar e - der bat a - te - ri zai - gun oi San Ju - an goi - ze -
an a - ren ar - gi - tan jo - an gi - na - den A - ran - tza - tzu - ra bi - de -
an Bir - ji - na A - ma ta be - re se - me - a to - pa ni - tu - en bi - de -
an kon - se - ju on bat e - man zi - da - ten A - ma Se - me - en ar - te - an.

Izar eder bat ateri zaigu
oi San Juan goizean,
aren argitan joan ginaden
Arantzazura bidean.

Birjina Ama ta bere Semea
topa nituan bidean,
konseju on bat eman ziraten
Ama Semeen artean.

Bizi litekeala munduan
ai ura umildadean,
berak jakinen zuela gero
zer egin azken finean.

Aldaera au Azkueren esku-idazkietatik kopiatu degu. Berak Bera-Bidasoa-ko Mariano Altzuguren aotik jaso zuan, baiña argitara eman gabe utzi.

IV

A - ran-tza-zu-ra e-gin det pro - mes e - do gau e-do_e - gu-nez, e -
do gau e-do_e - gu - nez o - ñu - tse - tan e - ta do-lo - rez.

Arantzazura egin det promes
edo gau edo egunez,
edo gau edo egunez eta
oñutsetan da dolorez.

.....
goazan Arantzazura,
Santa Luziaren argi ederrak
argi egiten digula.
.....
gau on Jaungoikoak digula.

Izar eder bat ateratzen da
urtean egun batean,
urtean egun batean eta
ura San Juan goizean.

Arren argitan ni joan nintzan
Arantzazuko bidean,
Birjiña Ama ta bere Jesus
topau nituan bidean.

Kontseju on bat eman ziraden
Ama-Semeon artean:
ona ta umilla izan nendilla
munduan nintzan artean,
berak jakiñen zuala gero
zer egin al zezakean.

- Artzai ontxua, artzai ontxua,
nere esan bat egizu:
aita zurea arotza da ta
ermitatxo bat egidazu.

Nik zaituko ditut zure ardiak
Santa Triako aitzean,
Santa Triako aitzean eta
belartxo garbi batean,
belartxo garbi batean eta
elorri ondotxo batean.

Elorri orri para izkiozu
bi pilaretxo aldean,
bi pilaretxo aldean eta
iru latatxo gañean.

Iru latatxo, zazpi tellatxu,
deritzala Arantzazu,
denborarekin au izanen da
ermita kuriosoa,
ermita kuriosoa eta
konbentu poderosoa.

Asko amaren seme maitetxok
an izango du ostattu,
an izango du ostattu eta
bai kaliza goratu.

Birjiña Ama Arantzazukok
eguzki aldera leioak,
bata itzaltzen dakionean
beste aldera dijoa.

Birjiña Ama Arantzazukok
úrre gorriaz koroa,
urre gorriaz koroa eta
zillar zuriaz lepoa,
zillar zuriaz lepoa eta
seda dindillaz beloa.

Zazpi donzellak josi omen dute
Birjiña Amaren beloa,
zazpi donzellak ederrak ziran,
belua ederragua.

Birjiña Amaren madal santutik
iturri eder bat dijua,
egunean beiñ an ure edanda
uso zuria dijua

Ai, ura ezta uso zurie,
aingeru guardakua.
Berak kontuan artu gaitzala
anima gorputzekoa.

Zori onean jaiorik dago
arren jabonaduria,
arren jabonaduria eta
Maria Magdalenea.

Superbo gaiztoz beterik dago
inpernuko lezea,
umildadeak idikitzen du
zeruetako atea.

Arantzazuko bilduma, 37-38 orrialdeak, Naparroan, Etxarri-Aranatzko Josefa Auzmendiri jasoa.

Kopiatzaillearen utsegite batzuk zuzendu ditugu. Onela zegoan Arantzazuko bilduma ortan: 6/2: nere esan bat egin zu; 6/3: aita zurea arotza da; 6/4: ermitatxo bat egin dazu; 17/4: zeruko atea.

Eta zapigarraren bertsoa, irugarren lerrotik aurrera, onela zegoan:

Santa Triako aitzean
ta belartxo garbian,
belartxo garbi batean
ta elorri ondotxo batean.

Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antología* (Bilbao, 1995), 65 orrialdean.

V

A - ran - tza - zu - ra e-gin det pro - mes o-ñu-tse - tan da do-lo - rez, o-ñu-tse-
tan da do - lo - rez e - ta e - do gau e - ta e - gu - nez.

Arantzazura egin det promes
oñutsetan da dolorez,
oñutsetan da dolorez eta
edo gau eta egunez.

Bertso au Arantzazuko bertso bildumatik artua degu. Ondoren, onako oarau egiten da:

“Melodía enviada por un seminarista de Echarri-Aranaz, a quien se la cantó su abuela, anciana de más de 70 años, que acostumbraba visitar anualmente el Santuario a pie desde su pueblo. Año de 1944. Dicha anciana conservaba la letra de este romance –vid. pág. 38 y sig.– en un cuadro antiguo de la Virgen de Aránzazu, colgado en su habitación”.

38-garren orrialdea esaten du, baiña 37-garrena esan bearko luke.

VI

Andante mosso

Bir - ji - na_A-ma- ren bez- pe- ra da ta go - az - en A-ran-tza-zu - ra, San-ta
Lu - zi - ren be - gi e - de- rrak ar - gi e - gi - ten di - gu - la.



Birjina Amaren bezpera da ta
goazen Arantzazura,
Santa Luziren begi ederrak
argi egiten digula.

Arantzazura bidea luze,
ara orduko kantsatu,
Birjina Ama ta bere Semea
bidean ditut opatu.

Kontseju on bat eman zidaten
Ama-Semeen artean,
ona ta umila izan nendila
munduan naizen artean.

Ai artzaitxoa, ai artzaitxoa,
nere (y) esan bat egizu:
aitori ere zurgiña dezu,
onera bidal ezazu.

Ermita oni emaizkiozu
apeotxu bi aldera,
apeotxu bi aldera eta
zazpi teilatxo gainera.

Denpórarekin izanen baita
ermita kuriosoa,
ermita kuriosoa eta
komentu poderosoa.

Zure ardiek ongi dabiltze
Santa Triako aitzean,
belartxo goxo batean eta
iturri baten aldean.

Iturri artan jabonatzen da
Birjina Amaren beloa,
berak iruiña, berak egoa
Birjina Amaren beloa.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegia, 829 zenbakia, 961 orrialdea; Naparroan, Etxarri-Larraungo Juliana Etxarriri jasoa.

Baita ere doiñurik gabe bere *Euskalerrrian Yakintza-n*, IV tomoan, bi tokitan: 137 eta 179 orrialdeetan.

Aldaketak: 2/2: ara orduko nekatu; 4/3: aitorri ere zurgiña da ta.

VII

Bir - ji - na_A-ma-ren bez-pe-ra da ta go-az - en A-ran-tza-zu -
ra, A-ran - tza - zu - ra bi - de - a lu - ze a - ra or - du - ko il - un -
a. San-ta Lu - zi - ren be - gi e - de - rrak ar - gi e - gin - en di - gu - la.

Birjina Amaren bezpera da ta
goazen Arantzazura,
Arantzazura bidea luze,
ara orduko iluna,
Santa Luziaren begi ederrak
argi egiten digula.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegia, 830 zenbakian, 962 orrialdean; Naparroan, Larraungo Baraibarren, Juana Argiñarenaren aotik jasoa.

VIII

Birjiña Amaren bezpera da ta
goazen Arantzazura,
Santa Luzian begi ederrak
argi egiten digula.

Izar eder bat ateratzen du
urtian egun batian,
urtian egun batian eta
ura San Juan goizian.

Arren argian ni juan nintzan
Arantzazura bidian,
Birjiña Ama ta bere Semia
topa nituen bidian.

Konseju on bat eman ziraden
Ama-Semien artian:
on eta umil bizi nendilla
munduan nintzan artian,
gero berek jakingo zula
zer egin al zezakian.

Etxiak banan biñaka dira
Arantzazura bidian,
etxe ura zer señalia dan
iturri eder bat aurrian.

– Au artzaitzoa, au artzaitxoa,
neri esan bat irazu:
ait'ori ere arotza da ta
onera bial dezazu.

Ermitatxo bat egin biar degu
deritzola Arantzazu,
iru lata ta iru zotalatxo
asko izango al ditu.

Denborarekin au izanen da
ermita kuriosoa,
ermita kuriosoa eta
komentu poderosoa.

Asko amaren, bai, seme maitek
an izango du ostattu,
an izango du ostattu eta
baita kaliza goratu.

Arantzazuko Ama Birjiña,
bekadorien Ama zu,
bekatutikan alde egiteko
argitasun bat dirazu.

Nere Ama Birjiña,
ongillea ona.
emango al dirazu
komeni zaidana.

Jose Artiztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduman, Kanta errikoyak 1935'ngo udan Dorronsorok bilduak zorroan. Bertsoen ondoren onela dio: "Lakuntza'tar Ermenejilda'ri entzuna".

IX

I - zar e - der bat ar - gi - tu za-la San-ta A - na-txo goi - zi - an, be-re ar -
gi - tan joan nin - tza - za - la zaz - pi le - gua bi - di - an.

Izar eder bat argitu zala
Santa Anatxo goizian,
bere argitan joan nintzala
zazpi legua bidian.

Zazpi legua bidian eta
Arantzazura nijoian,
Birjiña eta Semia bere
ara joiazan orduan.

Konseju on bat eman ostian
Ama-Semien artian:
fiña ta umilla izan nadilla
munduan naizen artian.

Gero eztuala damu izango
zeruko aingeru artian,
.....
.....

Errodrigotxo Baltzeteriko,
Birjiña-billatzalia,
sapatu-arratsalde batian juan zan
mendira auntzaren billa.

Bai eta billatu eban
arantzan Ama Birjiña:
- Pastoretxua, ardizaintxua,
atoz onera, entzun izu.

Zeure aita arotza da ta
esan biarko deutsez
egin deidela ermitatxu bat
deritzona Arantzazu.

Iru lata ta zazpi tellatxu,
arek askoko dituzu,
eta geiago biar badira
bertan agertuko iatzu.

Amaren ume asko pobrek pe
an artuko dau ostattu,
amaren seme asko jakinak
an kalizia altzatu.

Adios eta orain banua
Arantzazura neu fraile,
abitu baltza soñian eta
oñak ortotsik lurraldi.

San Frantziskoren kordoetxu bat
gerrikan iru doblian,
San Agustinen liburutxu bat
eskutxu bian erdian.

– Oñatiarrak, Oñatikuak,
oin ni olan penatzen naizu,
Santo Domingo Oñatik bera
bi bidar edatsi naizu.

Eta berriz edasten nai baizu
damua goguan izango deizu
.....
.....

Oñatiarrak, Oñatikuak,
ditxarik asko badezu,
Santo Domingo Kaltzadakua
zeure lurrian daukazu.

Ama Birjiña Arantzazukoa,
arantzen gañeko loria zera zu;
arantzen gañeko loria zera baña
leku oberik badezu.

Birjiñetatik ederrena da
Birjiña Arantzazukoa,
bai eta bere ederra dala
Birjiña Arratekoa.

Zazpi donzellak eginda dauko
bere buruko belua,

.....
.....

Arantzazuko bilduman, 55 orrialdean, Oñatiko Manuela Zubia jasoa.

Kopiatzailaren utsegite batzuk zuzendu ditugu: 2/1 zazpi leguan bidian eta: 7/4: deritzon Arantzazu; 13/2: damia goguana izango deizu.

X

Andante mosso

I - zar e - der bat a - te - ra - tzen da ur - te - an e - gun ba - te -
an, ur - te - an e - gun ba - te - an e - ta u - ra San Ju - an goi - ze - an a - ren ar -
gi - tan jo - an gi - na - den A - ran - tza - tzu - ra bi - de - an Bir - ji - na_A -
o - nak e - man ziz - ki - dan A - ma Se - me - en ar - te - an o - na ta_u -

ma ta be - re Se - me-a to-pa-tu di - tut bi-de - an kon-se-ju
 mi-la i - zan na di - la mun - du-an
 nai - zen ar - te - an ge - ro be - rak ja - ki - nen du -
 e - la zer e - gin az - ken fi - ne - an.

Izar eder bat ateratzen du
 urtean egun batean,
 urtean egun batean eta
 ura San Juan goizean.

Aren argitan joan ginaden
 Arantzazura bidean,
 Birjina Ama ta bere Semea
 topatu ditut bidean.

Konseju onak eman zizkidan
 Ama Semeen artean:
 ona ta umila izan nadila
 munduan naizen artean,
 gero berak jakinen duela
 zer egin azken finean.

Kanta au R. M. Azkueren esku-idazkietan arkitu degu. Berak Naparroako eta Ezkurra erriko Sor Maria Antonia Zestaoren aotik jasoa zuan.

XI

Izar eder bat ateratzen da
 urtian egun batian,
 urtian egun batian eta
 ura San Juan goizian.

Arren argyan ni juan nintzen
 Arantzazura bidian,
 konseju on bat eman ziraden
 Ama-Semien artian.

Ona ta umil izan nendilla
 munduban nintzen artian,
 gero berak jakiñen zubela
 zer egin al zezakian.

Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduman, *Poesías populares* - 1933 mordoa, *Colamus carmina nostra* zorroan.

Noren aotik jasoa dan adierazteko, onela esaten du: "Bakaikoa ta Andueza'tar Barbara'ri artutako bertsoak, Arbizu'n". Eta jasotzaillea nor dan, onela: "Urkia'tar Pernando, *canónigo regular de Letrán, Oñati*'n".

XII

The musical score consists of four staves of music in G major, common time. The lyrics are written below each staff in Spanish and Basque. The lyrics are:

I - zar e - der bat a - te - ra - tzen da ur - ti - an e - gun ba - ti -
an; ur - ti - an e - gun ba - ti - an e - ta u - ra San Ju - an goi - ze -
an. A - ren ar - gi - an jo - an gi - ña - den A - ran - tza - zu - ra bi - di -
an. Bir - ji - ña_A - ma ta be - re Se - mi - a to - pa - tu di - tut bi - di - an.

Izar eder bat ateratzen da
urtian egun batian,
urtian egun batian eta
ura San Juan goizean.

Aren argian joan giñaden
Arantzazura bidian,
Birjiña Ama ta bere Semia
topatu ditut bidian.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 596 zenbakian, 817 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: una religiosa de Ezkurra, en el Hospital de Lesaka. Loc. rec.: Lesaka. Fecha: 13 de mayo de 1913. Clas.: religiosa".

XIII

I - zar e - der bat a - te - ra - tzen da ur - ti - an e - gun ba - ti - an; ur - ti -
an e - gun ba - ti - an e - ta u - ra San Ju - an goi - ze - an.

Izar eder bat ateratzen da
urtian egun batian,
urtian egun batian eta
ura San Juan goizean.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 596 zenbakian, 817 orrialdean, argibide auekin:

"Loc. rec.: Bacaicoa. Fecha: v. 1920. Clas.: religiosa. Trans.: P. Modesto de Le-cumberri".

XIV

E - gu - na za - la, e - gu - na za - la bart i - rar - gi - a za - ne - an,
e - gu - ne - ra - ko yo - an nin - tzan ni zaz - pi le - gu - a bi - de - an,
zaz - pi le - gu - a bi - de - an e - ta neu - re mai - te - an ka - le - an.

Eguna zala, eguna zala,
bart irargia zanean,
egunerako yoan nintzan ni
zazpi legua bidean,
zazpi legua bidean eta
neure maitean kalean.

Neure maiteak bota egin eustan
lantzea bentanarean.
Orain il bere banozu eta
enterrau bere haikezu,
Maria Madalenean aurrean eta
Jesukristoren oinean.

Iru letratxu bearko ditu
sepultureak gainean,
neure maiteak irakurteko
Madrildik datorrenean.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 398 zenbakian, 498 orrialdean, Bizkaian, Ajangizko Maria Juana Altzibar andrearen aotik jasoa.

Asiera bakarrik du kanta zaar onek Arantzazuko erromantze zaarrekin zer ikusirik duana.

XV

The musical score consists of four staves of music in common time, G major. The lyrics are written below each staff:

Staff 1: E - gu - na za - la, e - gu - na za - la

Staff 2: bart i - rar - gi - a za - ne - an, _____

Staff 3: e - gu - ne - ra - ko a - lle - gau nin - tzan

Staff 4: zaz - pi le - gu - a bi - de - an. _____

Eguna zala, eguna zala,
bart irargia zanean,
egunerako allegau nintzan
zazpi legua bidean.

Agoztuaren amaboskarren
Andra Maria goizean,
Birjinearen debotatxu bat
joan zan erromerian.

Oinak ortozik, zapata barik,
abitu baltza soinean,
San Agustinen liburutxu bat
eskutxu bien artean.

Birjina Ama ta Semea bere
bidean topau nituan,
emo'ustien konseju on bat
Ama-Semeen artean.

Izan nendila ona ta garbi
munduan nintzan artean,
enebala, ez, damu izango
mundurik ninoanean.

Kanta zaar au R. M. Azkueren esku-idatzietan azaldu da. Berak Amorebietan
jaso zuan, Luziana Estankonaren aotik. Baiña ez det uste iñun argitaratu zuanik.

XVI

Egune zala ta egune zala
bart idargile zanien,
egunerako allegeu nintzen
zazpi legua bidien.

Zazpi legua iginde bere
Arantzazure niñoen,
Birjiñe ta bere Semie
topeu nittuzen bidien.

Emon eustien kontseju on bat
Ama-Semien artien:
izan nendille on da umilde
munduen nintzen artien.

Enenduela gero damuko
zeruko tribunalien,
zeruko tribunalien eta
Jaungoikuaren aurrien.

Aldaera au *Anuario de la Sociedad de Eusko-Folklore*, 1921 urtekarian argitaratu zan, 69 orrialdean, Eugenio de Larrañagak bialduta.

Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antología* /Bilbo, 1995), 61 orrialdean.

XVII

Egune zala, egune zala,
bart gaberdie zanean,
egunerako egin nituzen
zazpi legua bidean.

Zazpi legua bidean eta
Arantzazura ninoian,
Birjinea ta bere Semea
topau nituzen bidean.

Emon eustien konseju on bat
Ama-Semeen artean:
izan nadilla ona ta umilde
munduan nazen artean,
gero ez dodala damu izango
zeruko tribunalean.

Beste aldaera au *Anuario de Eusko-Folklore*, 1924 urtekarian argitaratu zan, Eulojio Gorostiagak Zeanurin jaso eta bialduta.

XVIII

Egune zala, egune zala
bart gauberdie zanean,
egunerako allegau giñan
zazpi legua bidean.

– Errodrigotxu Baltzategiko,
erdu ona ta entzuizu,
aita zuria arotza da ta
arren esan bat eidezu:

Birjiñea ta bere Semea
topa ginduzen bidean,
emaoskuen konseju on bat
Ama-Semien artean:
ondo umil de ona izeteko
munduen garean artean.

Egin deiela ermitatxo bat
deritxona Arantzazu,
iru latatxo, zazpi tellatxo
nunbaisten askoko ditu.

Juan giñean Arantzazure
baña beti bidean,
pastoretxo bat topau genduen
arbola baten gañean.

Amaika amaren seme on askok
an izengo du ostatu,
San Frantziskoren semeak bere
antxe kalize altzadu.

Oñatiarrak, oñatiarrak,
gaxkiro penatzen nozu,
Aite San Migel Oñatikora
birriten eroan nozu.

Aldaera au Arantzazuko bilduman azaldu da, 25 orrialdean, eskuz idatzita
eta oar onekin: “*Villaro - Eugenia Langara, 69 años*”.

Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antologia* (Bilbo, 1995), 60 orrialdean.

XIX

Egune zala, egune zala
bart idergie zanien,
egunerako allegeu nintzan
zazpi legua bidien.

Oinetan bere ortozik eta
abitu baltza soinien,
San Frantziskoren sinboloa
gerrien iru doblien.

Zazpi legua bidien eta
Arantzazure nindoien,
Birjiña Ama ta beren semie
nituzen topeu bidien.

– Oñetikara Oñetikorra,
zelan penatzen nozu?
Zeuen Samigel Oñetikora
birriten banerakazu,
irugarrenez banerakazu
gogoan izengo nozu.

Erolitetu Altzeturiko,
Amaren seme maitie,
Amaren seme maiterik asko
Birjina bilatzale.
Zeuek ezenkien bera nor zan da
Birjina Andrie topau zenduen
arantzan zeuri begire.

Izan zaitezala on da umilde
munduan zinen artien,
ondo gordia izengo zara
zeruko tribunalien.

Pastore santu, erdu ona ta entzizu!
Zure aita arotza da ta
egin daiela ermitatxu bat
deritxodun Arantzazun.

Arotz maisuak asi ziraden
materiela bilatzen,
esan oi dabe ez dala posible
ermitatxuau an eiten.

Iru lata ta zazpi teilletxu
ganien askoko ditu.
Amaren seme San Frantziskokok
an izengo dau ostatu.

Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendabaldetako Euskal Balandak / Antologia* (Bilbo, 1995), 61 orrialdean, argibide auekin:

"Iturria: Labayru Ikastegiko MZIM artxiboa. Lekukoa: Julia Uriarte, 75 urte,
San Antoniokoa (Zornotza). Biltzailea: Mari Carmen Uriguene. Biltze-data:
1987ko maiatza".

XX

Mundu onetan gura dabenak
zeruko lorak ikusi,
Arantzazuko mendixa gora
bear dau bidea ikasi.

Errodrigotxo Baltzategiko,
Birjiña-billatzalllea,
auntzaren billa juan ziñian
Arantzazuko mendira.

Birjiña Ama billatu zeben
arantzan zeuri begira,
laister ta ariñ etorri ziñan
enbajadiaz errira.

Errodrigotxo Baltzategiko,
neure esan bat eidazu,
aita zurea arotza da ta
itten bat eman eiozu.

Egin deidala ermitatxo bat
deritxona Arantzazu,
iru latatxo, zazpi tellatxo,
oietxek askoko ditu.

Ama maitien seme on askok
an izango dau ostatu,
an izango dau ostatu eta
sarri kaliza altxatu.

Juan Carlos Guerra: *Los cantares antiguos del euskera* (San Sebastián, 1924) liburuan, 182 orrialdean.

XXI

Mundu onetan gura dabenak
zeruko lorak ikusi,
Arantzazuko mendixa gora
bear du bidea ikasi.

Errodrigotxo Baltzategiko,
Birjiña-billatzallea,
auntzaren billa juan ziñian
Arantzazuko mendira.

Birjiña Ama billatu zeben
arantzan zeuri begira,
laister da ariñ etorri ziñan
enbajadiaz errira.

Oñatiarrak juan ziraden
prozesiuaz mendira,
.....
.....

– Oñatiarrak, Oñatikuak,
zelan penatzen nazuten,
zeuen San Miguel Oñatikora
bi aldiz eratxi nazute.

Irugarrenez banaramazute
goguan bearko dezute,
.....
.....

Errodrigotxo Baltzategiko,
neure esan bat eidazu,
aita zurea arotza da ta
iten bat eman eiozu.

Egin deidala ermitatxo bat
deritzona Arantzazu,
iru latatxo, zazpi tellatxo,
oietxek askoko ditu.

Ama maitien seme on askok
an izango du ostattu,
an izango du ostattu eta
sarri kaliza altxatu.

Beste aldaera au ere Arantzazuko bilduman azaldu da, eskuz idatzita eta bi tokitan: 27 orrialdean eta libreta batean. Au, itxura danez, kanpotik etorria da, eta bera izango degu zaarrena; eta beraren kopia 27-garren orrialdeko beste ori.

Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antología* (Bilbo, 1995), 70 orrialdean.

XXII

Mun - du o - ne - tan gu - ra da - be - nak ze - ru -
 ko lo - rak i - ku - si, A - ran - tza - zu - ko men - di - xok
 go - ra bi - ar dau bi - di - a_i - ka - si.

Mundu onetan gura dabenak
 zeruko lorak ikusi,
 Arantzazuko mendixok gora
 biar dau bidia ikasi.

Errodrigotxo Baltzategiko,
 Birjiña-billatzailia,
 auntzaren billa joan ziñan zu
 Arantzazuko mendira.

- Oñatiarrak, Oñatikuak,
 ai zelan penatzen nazun!
 Zeuen San Miel Oñatikora
 birritan eratsi nazu,
 irugarrenian banaramazu
 goguan izango dezu.

Eurreriotxo Baltzategiko,
 neure esan bat eidazu,
 aita zuria arotza da ta
 esan biarko diozu.

Ermitatxo bat egin deidala
 deritzala Arantzazu,
 iru latatxo, zazpi tellatxo,
 oiek askoko dituzu.

Ama onaren semerik askok
 an izango dau ostatsu,
 an izango dau ostatsu eta
 bai sarri kaliza altzatu.

Arantzazuko bilduman azaldua da beste aldaera au ere, 26 orrialdean eta
 eskuz idatzita, oar onekin: “*Maria de Azcoitia, Goronaeta, Korueta*”.

Seigarren bertsoa onela idatzita zegoan:

Ama onaren semerik asko
 an izango dau ostatsu
 eta bai sarri kaliza altzatu.

XXIII

Errodillotxu juan zanian
ardiyakana mendira,
Birjiña Ama antxe zeguan
arantzan berai begira.

Errodillotxu laster juan zan
bai Oñatiko kalera,
ango sazerdotiai
zer zan kontu emotera.

Oñatiarrak laster juan ziran
prozesiñuaz mendira,

– Oñatiarrak, Oñatikuak,
ai zelan penatzen nozu!
Aite San Migel Oñatikora
birritan eruan nozu,
irugarrenian banaruazu
goguan izango dozu.

– Errodillotxu Aloxategiko,
arren esan bat eidazu,
aite zeuria arotza da ta
esan biarko deutsazu.

Egin deidala konbentutxu bat
deritxona Arantzazu,
iru tellatxu, zappi latatxu,
eurak askoko ditu.

Amaika amaren semiak bere
an izango dau ostattu,
San Frantziskoren semiak bere
bai kalizia altxatu.

Txoragarrizko berri gozoa
biyotz pozkidagarriya,
lasterka nator kontatutzera,
aittu bertatik egiya.

Baltzategiko Rodrigo artzaia,
Antxo Txapel deitzen dana,
Aloña mendi tontorrian
zan goiz-goiztikan juana.

An bat-batian agertu zaio
arantza zorrotz gaiñian
zeruetako Ama Birjiña
Jesus dabela besoan.

Aldaera au ere Arantzazuko bilduman arkitu degu, 23 eta 24 orrialdeetan,
eskuz idatzita. Ez da esaten noren aotik jasoa dan.

Azkeneko iru bertsoak aldaera ontan bakarrik azaldu dira, eta ez dakigu
eraskiñen bat ez ote diran.

XXIV

E - rro - dri - go - txo Bal - tza - te - gi - ko, ne - re e - san bat

ei - da - zu: ai - ta zu - re - a a - ro-tza da ta
e - tor-tze - ko e - sa - io - zu, er - mi - ta - txo bat
e - gin de - za - dan de - ri - txo - na A - ran - tza - zu,
i - ru la - ta - txo, zaz - pi te - lla - txo, o - ie - tsek as - ko -
ko di - tu, o - ie - tsek as - ko - ko di - tu.
A - ma o - na - ren se - me - rik as - kok an i -zan - go du
os - ta - tu, an i -zan - go du os - ta - tu e - ta bai sa - rri
ka - li - za _ al - txa - tu, bai sa - rri ka - li - za _ al - txa - tu.

Errodrigotxo Baltzategiko,
nere esan bat eidazu:
aita zurea arotza da ta
etortzeko esaiozu,
etortzeko esaiozu,

ermitatxo bat egin dezadan
deritxona Arantzazu,
iru latatxo, zazpi tellatxo,
oietxek askoko ditu,
oietxek askoko ditu.

Ama onaren semerik askok
 an izango du ostattu,
 an izango du ostattu eta
 bai sarri kaliza altxatu,
 bai sarri kaliza altxatu.

Aldaea au ere Arantzazuko bilduman azaldua, 25 orrialdean, eskuz idatzi-ta. Ez da esaten noren aotik jasoa dan.

XXV

Andantino

3

3

3

3

tu - ba - la e - sai - zu, i - ru la - ta ta zaz - pi te - lle as - ko_i -
 tu - ba - la e - sai - zu.
 Zen - bait a - ma - ren bai se -
 me mai - tek i - zan - go lu - ke os - ta - tu, i - zan - go lu - ke os - ta -
 tu e - ta ka - li - za u - ra al - txa - tu. Zen - bait a - ma - ren bai se -
 me mai - tek i - zan - go lu - ke os - ta - tu, i - zan - go lu - ke os - ta -
 tu e - ta ka - li - za u - ra al - txa - tu.

Ai artzatxoa, ai artzatxoa,
 nere esan bat egizu:
 aita ori ere arotza dezu,
 ermitatxo bat indazu.

Iru lata ta zazpi telle
 asko itubala esaizu,
 iru lata ta zazpi telle
 asko itubala esaizu.

Zenbait amaren bai seme maitek
 izango luke ostattu,
 izango luke ostattu eta
 kaliza ura altxatu.

Beste aldaera au ere Arantzazuko bilduman azaldua da, 42 orrialdean, es-kuz idatzita; baiña noren aotik jasoá dan ez da esaten.

XXVI

– Erradillatxo, nora zoaiezu?
Onaxe erdu ta entzuizu:
aita zeurea arotza da ta
arren egidazu mandatu.

Egin daidela ermitaxue
deritxona Arantzazu,
iru lata ta zazpi tellatxo,
arrek naikoko ei daituz.

Amaki orren semerik asko
an izango ostatuz,
San Frantziskoren semerik askok
baita kaliza goradu.

Beste aldaera au ere Arantzazuko bilduman azaldu da, 49 orrialdean, makinaz idatzita, oar onekin: “*De Francisca de Larrauri, natural de Yainko, caserío Beitia, en Arrieta*”.

Aurretik beste bertso au du:

Geure Ama Birjiña
Arantzazukoari
kanta bear nezkio
ainbat bertso berri,
grazia eman balit
artako neuri,
aditzen emateko
mundu guztiari.

Eta ondoren oar au: “*Asegura Dña. Francisca que estas últimas estrofas oyó ella a un vendedor de bertso berriak en Arrieta, y las ha visto ella misma impresas en papel de verso berriak*”.

Argibide onek ez du noski zer ikusirik aurreko errromantzearekin. Bai, ordea, ondorengo bertso orrekin. Bertso ori, paperetan sarritan argitaratu dan sail baten aurrena da.

XXVII

– Errodillotxu Aloxategiko
arren esan bat eidazu,
aita zeurea arotza da ta
esan biarko deutsazu:

Egin deidala konbentutxu bat
deritxona Arantzazu,
iru tellatxu, zazpi latatxu,
eurak askoko ditu.

Amaika amaren semiak bere
an izango dau ostatu,
San Frantziskoren semiak bere
bai kalizia altxatu.

Arantzazuko bildumatik artua degu aldaera au ere, esku-idazki batetik. Ez da esaten noren aotik jasoa dan.

XXVIII

- Rodrigo Balzategiko
nere esan bat eidazu,
ermitatxo bat egin dezala
deritxala Arantzazu.

Iru latatxo, zazpi tellatxo,
orrexek asko dituzu,
ama onen semerik askok
an artuko du ostatu.

Arantzazuko bildumatik aldaera au ere, 24 orrialdetik. Eskuz idatzita dago. oar onekin: "Oñate, Cayetana, demandadera del Convento de Santa Ana".

XXIX

- Errodrigotxo Galtzategiko,
erdu ona ta entzuizu:
aita zurea arotza da ta
datorrela esaiozu.

Ermitatxo bat egin beogu
deretxana Arantzazu,
iru lata ta zazpi tellatxo
zerbaiten askoko ditu.

Errebañuen billa zoazela
topau zindun Birjinea,
Errodrigotxo Galtzategiko
erdu ona ta entzuizu.

Eusko-Folklore, Materiales y Cuestionarios, Vitoria, julio de 1925 urtekaria,
oar onekin: "Recogido en 1925 por D. Eulogio de Gorostiaga, de Ceánuri".

Baita Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduman, Akio, 1932 zo
rroan, Billaroko Eulojo Gorostiagak bialduta, oar onekin: "Angoitia'tar Esta
nislaok esanda iyekituak. Arratian ezagunak dira".

Aldaketak: 2/4: zerbaiztean askoko ditu; 3/1: Errebañuen billa zabizela; 3/2: topau zinduen Birjinea.

XXX

Rodrigo deritxona
pastoretxu bat zan,
zapatu egun baten
auntzetan juan zan,
antxe topatu eben
Birjiña arantzan:
- Aita zeuria arotza da ta
mandatu egin iozu,
egin deidala ermitatxu bat
deritxona Arantzazu,
zazpi tella ta iru latatxu
urrian naiku izango ditu,
San Frantziskoren seme on askok
an izango dabe ostatu.
Nere Ama Birjiña
Arantzazukoa,
zein izango ete da
neure komentua?

Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bilduma, 1935 urtean Gipuzkoan, Plazentzian, *Kardaberaztarrak* izeneko apaizgai-taldeak jaso eta bialdua.

Irakurlea oartuko zanez, erromantze zaarren eta bertso-paperen puskak alkarri erantsita daude aldaera ontan.

XXXI

Artzai ontxoa, artzai ontxoa,
nere esan bat egizu:
zure aita arotza da ta
ermitatxo bat egizu.

Nik zainduko ditut zure ardiak
San Adriango aitzean,
San Adriango aitzean eta
belartxo garbi batean.

Elorri orri para leioke
bi pillaretxo alboan,
bi pillaretxo alboan eta
iru latatxo gañian.

Arantzazuko bilduma, 24 orrialdean, eskuz idatzita. Alboan erri-izen bat: Segura. An jaso izan dala esan naiko du, baiña noren aotik ez da adierazten.

XXXII

Goazen ortikan gora
menditxo oriek gora,
menditxo oriek gora,
Birjiña Amaren etxera,
Birjiña Amaren etxera,
pekatuak konfesatzena,
pekatuak konfesatuta
garbiro gelditzen gera.

Ederki jarri zinaden
elorriaren ganean,
Gipuzkoako lurrean,
Araba aldean,
.....
.....
.....
.....

Iru lata ta zazpi tellatxo,
aietzek asko ditu,
asko amaren seme maitek
an izango du ostattu,
denborarekin an izango da
deritziona Arantzazu.

Jose Ariztimuño Aitzol zanaren bildua, *Kanta errikoyak 1935'ngo udan Dorrorsorok bilduak* izeneko mordoan.

Bertsoen ondoren onela esaten da: "Orain 70 urteko Goikoetxea'tar Agustiñari entzuna".

XXXIII

Errodrigotxu, Errodrigotxu,
ona erdu ta entzuizu:
aita zeuria arotza da ta
egin deitela mandatu,
iru latatxu, zazpi tellatxu,
ori guzia naiko ditu.

Arantzazuko bilduma, 52 orrialdean, eskuz idatzia, onako oar au alboan duala: "*Oido a Juan de Arteabaso, natural de Bedia, Vizcaya, de 74 años. Año 1935*".

XXXIV

Oñatiarrak, oñatiarrak,
erdu ona ta entzuizu:
Santo Domingo Oñatikora
birritan eretxi nozu,
irugarrenian eresten bozu
gogoan izango dozu.

..... artzaintxua,
egin egizu mandatu:
aita zeuria arotza da ta
ermitatxu bat egizu,
ermitatxu bat egizu eta
deritxona Arantzazu.

Iru lata ta zazpi tellatxu
... baten askoko ditu,
amaika amaren seme onek bai
izango dau an ostatu,
ostatu eta ostatu,
kaliza bere altzadu,
San Frantziskoren kordoe ederrak
garriyan iru doblian.

Gernikako Sebero Altube zanaren paperetan, lapitzez idatzitako orritxo batean.
Bigarren bertsoaren bostgarren lerroarean *eta itza guk erantsia da.*

XXXV

Rodrigo Baltzategiko,
nere esan bat egidazu:
ermitatxo bat egin dezazu
deritxala Arantzazu.

Iru latatxo, zazpi tellatxo,
orrexek askoko dituzu,
ara onen semerik askok
an artuko du ostatu.

Puska au Arantzazuko bildumatik artua degu. Ondoren itz auek irakurtzen dira: “*Oñate, Cayetana, mandadera del convento de Santa...*”.

XXXVI

Jesus esanda asitzen gera
emanaz printzipioa,
bide batean billatu nuben
aingeru guardakoa,
aingeru guardakoa.

Nik berriz ere billatuko det
bide luzean banoa,
bide luzean banoa eta
bide onetik banoa,
bide onetik banoa.

Nik ura zer zan ez nerekien,
larga nijoan pijoia,
nik berriz ere billatuko det
bide luzean banoa,
bide luzean banoa.

Usotxu txuri ego nabar bat
.....
egoren bata busti bagerik
bestea zigari doa,
ordu ontantzen emango diot
anima gorputzakoa,
arren eraman bear dedala
bera dijuan lekura,
bera dijuan lekura eta
Birjiña Amaren etxera.

Birjiña Amaren magaletatik
iturri dulze bat doa,
Jesus, au ura dulze ta presko
Amaren magalekoa,
Amaren magalekoa.

Iru donzella josten ai dira
Birjiña Amaren beloa,
donzellak ere ederrak baño
beloa ederragoa,
beloa ederragoa.

Jose Artiztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduma, Ataungo Jokin Dorronsorok bialdua. Alboan argibide au du: "Josepa Dorronsorori entzun diot abesti au. Dorronsoro'tar Jokin".

XXXVII

Andante

Bi - de - ba - te - an to - pa - tu nu - en Ain - ge - ru guar - da - ko -

a, nik hu - ra zer zan e - ne - ki - an ta lar - ga - tu ni - on zi - jo - an.

Bide batean topatu nuen
aingeru guardakoa,
nik ura zer zan enekian ta
largatu nion zijoan.

Nik berriz ere billatuko det
bide luzean banoa,
bide luzean banoa eta
bide onetik banoa.

Ordu artantxe emango diot
anima gorputzarena,
bera dijoan lekura eta
Birjiña Amaren etxera.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegia, 735 zenbakia, 854 orrialdea; Gipuzkoan, Segurako Juliana Izagirreri jasoa.

XXXVIII

Bir - ji - ñe - ta-tik e-de-re - na da Bir-ji-ñe_A- ran-tza - zu-ku - e, a-lan be-
re ta e- de - rra - go da Bir-ji - ñe Be - go - ña - ku - e.

Birjiñetatik ederrena da
Birjiñe Arantzazukue,
alan bere ta ederrago da
Birjiñe Begoñakue.

Adiskidetan dozuz senide
Birjiñe Natxitukue,
aldatzak bera bertantxe dago
Birjiñe Talaiakue.

Birjiñaren magal santatik (santutik?)
iturri kadena due, (iturri kanala due?)
goixien-goixien uso zuri bat
antxe freskadu ei due.

Arantzazuko bilduman, 50 orrialdean, eskuz idatzita, oar onekin: “Arteaga, Agosto, 1935. Cantado por Victoria Martina Naverán Oñaederra, de 69 años, de Gautéguiz de Arteaga, Vizcaya”.

Irugarren bertsoan idatzi ditugun kako edo paréntesis arteko itz oiek, Arantzazuko bilduman ere alaxe daude.

XXXIX

Armallatan altuban dago
Birjiña Begoñakua,
alaberetan altubaguan
Birjiña Arratekua;
Birjiña orreitan ederrena da
Birjiña Arantzazukoa,

zazpi donzellak josten diote
bere buruko belua,
donzellak ere ederrak dira
baña Bera ederragua.

Juan Carlos Guerra: *Los cantares antiguos del euskera, San Sebastián 1924*
liburuan, 182 orrialdean.

XL

Armalletan altuban dago
Birjiña Begoñakua,
ala beretan altuagoan
Birjiña (y) Arratekua;
Birjiña orretan ederrena da
Birjiña Arantzazukua,
zazpi donzeillak josten diote
bere buruko belua,
donzeillak ere ederrak ziran,
belua ederragua.

Aita A. Lizarralde: *Andra-Mari de Vizcaya* liburuan, 89 orrialdean, oar batean.

XLI

Andantino

A - goz - tu - a - ren a - ma - bost - ga - rren Je - sus Ma - ri - a goi - zi -
an, Bir - ji - ña_A - ma - ren de - bo - ta - txo bat A - ran - tza - zu - ra zi - jo - an.

Agozuaren amabostgarren
Jesus Maria goizian,
Birjiña Amaren debotatxo bat
Arantzazura zijoian.

Oñetan ere zapata gabe,
abitu beltza soñian,
San Frantziskoren kordoetxo bat
gerrikan iru doblian.

San Agustiñen liburutxo bat
eskutxo bixin erdixan,
pausua baratz botatzen zeban
Urtiagako gañian.

Ala bere ta baratzagua
San Eliasen parian,
aingeru batek irten ziozkan
San Eliasen parian.

Salbetarako elduko zala
Kurtzepizio gañian,
Kurtzepizio gañian eta
Birjiña Amaren etxian.

Erregu eder egin ziozkan
Birjiña Amari aurrian,
Birjiña Amari aurrian eta
Santiagori oñian.

Moro-erriko katibu danak
libra zezala aidian,
moro-erritik banator eta
neu ez naiz moro-umia.

Bein bide baten billatu neban
aingerutxo bat bidian,
berriz ta ere billatuko dot
bide artatik banua.

Arantzazuko bilduman, eskuz idatzita, oar onekin: "...orain beste bat, Aita Arrueri lenago kantatu niona, itz batzuek geitura, amona zarrak dion bezela".
Baiña ez dakigu nor zan, ez amona ori eta ez itz oiek idatzi zituana ere.

XLII

A - goz - tu - a - ren a - ma - bost - ga - rren Je - sus
 Ma - ri - a goi - zi - an, Bir - ji - ña_A - ma - ren de - bo -
 ta - txo bat A - ran - tza - zu - ra zi - jo - an.

Agoztauren amabostgarren
Jesus Maria goizian,
Birjiña Amaren debotatxo bat
Arantzazura zijoan.

Oñetan ere zapata gabe,
abitu beltza soiñian,
San Frantziskoren kordonetxo bat
gerrixan iru doblian.

San Agustiñen liburutxo bat
eskutxo bixen erdian,
pausua baratz botatzen zeban
Urtiagako gañian.

Izar ederrak urten zioten
San Eliasen parian,
Salbetarako elduko zala
Kurtzepizio gañian.

Kurtzepizio gaiñian eta
Birjiña Amaren etxian,
.....
.....

Bein bide baten billatu neban
angerutxo bat bidian,
berriz da ere billatuko det
bide artatik banua.

Arantzazuko bilduman, 21 eta 22 orrialdeetan. Ez du esaten noren aotik ja-soa dan.

Laugarren bertsoaren leenengo lerroan *ederra* irakurtzen da. Guk, berri, *ederrak* idatzi degu, ala bear dualakoan.

Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antologia* (Bilbo, 1995), 63 orrialdean.

XLIII

Andantino

A - guz - tu - ba - ren a - ma - bost - ga - rren Je - sus

Ma - ri - ya goi - zi - an, Bir - ji - ñi - a - ren de - bo -

ta - txo bat A - ran - tza - zu - re zi - joi - an.

Aguztubaren amabostgarren
Jesus Mariya goizian,
Birjiñiaren debotatxo bat
Arantzazure zijuán.

Oñetan bere ortozik eta
abitu baltza soñian,
San Frantziskoren kordaiatxu bat
gerrian iru doblian.

San Agustiñen liburutxo bat
eskutxo biyen erdiyan,
pausua baratz botatzen eban
Urtiagako gaiñian.

– Preguntatxo bat egin biar deutzut
aingerutxoen legian:
Salbetarako elduko ete naz
Birjiña Amaren etxian?

Bai eta elduko zara
Kruzifiziku gaiñian,

.....

Arantzazuko bilduman, 23 orrialdean, eskuz idatzita. Ez da esaten noren aotik jasoa dan.

XLIV

Andante mosso

A- gos- tu- a- ren a - ma- bos- ka- tren an- dra Ma- ri- a goi- ze - an,
Bir- ji- ne- a- ren de- bo- ta- txu bat zi- joi- an e- rro- me- ri - an. —

Agoztuaren amaboskarren
Andre Maria goizian,
Birjinearen debotatxu bat
zijoian erromerian.

Oinak ortozik, zapata bage,
abitu baltza soinean,
San Frantziskoren kordoetxu bat
gerrian iru doblean,
San Agustinen liburutxu bat
eskutxu bien artean.

Birjinea ta Semea bere
topau nituan bidean,
konseju on bat emon leidela
Ama Semean artean.

On da umila izan nendila
munduan nintzan artean,
enebala, ez, damu izango
mundurik niñoiamean.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 806 zenbakian, 924 orrialdean; Bizkaian, Gabikako Dominga Aboitizen aotik jasoa.

Baita ere bere *Euskalerriaren Yakintza-n*, IV tomoan, baiña doiñurik gabe.

XLV

A - gos - tu - a - ren a - ma - bos - ka - rren an - dra Ma - ri - a goi - ze - an, —
 Bir - ji - ne - a - ren de - bo - ta - txu bat e - rro - me - ri - an zi - jo - an, —

Agoztuaren amaboskarren
 Andra Maria goizean,
 Birjinearen debotatxu bat
 erromerian zioan.

Oinetan bere ortozik eta
 abitu baltza soinean,
 San Frantziskoren kordoi ederra
 iru doblean gerrian.

– Pastoretxua, pastoretxua,
 au gauz au entzun egizu:
 aita zeurea arotza da ta
 esan bearko dautsazu
 komendutxu bat ein biakostala
 deritziona Arantzazu.

Zazpi lata ta iru teillatxu
 nonbaiten asko balitu,
 aita askoren amaren semek
 emen bear du ostatu.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 806 zenbakian, 925 orrialdean; Bizkaian, Ibarruriko Eusebio Altamirari jasoa.

Baita ere bere Euskalerriaren *Yakintza-n*, IV tomoan, doiñurik gabe bada ere.

Azken lau lerroak ez ditu Azkuek bere kantutegi ortan ematen. Beraren esku-idazkietatik artu ditugu.

Irugarren bertsoaren bostgarren lerroan irakurtzen dan *ein biakostala* ori *egin bearko dostala-ren* laburpena dala adierazten du Azkuek oar batean.

XLVI

A - gus - tu - a - ren a - ma - bos - ka - rren an - dra Ma - ri - a goi - ze - an, —
 Oin or - toz - e - an za - pa - ta ga - be a - bi - tu bel - tza soi - ne - an, —
 Bir - ji - na A - ma - ren de - bo - ta - txo bat A - ran - tza - zu - ra zi - jo - an, —
 San Fran - tzis - ko - ren kor - do - e - txo bat ge - rri - an i - ru do - ble - an, —

Aguztuaren amaboskarren
Andra Maria goizean,
Birjina Amaren debotatxo bat
Arantzazura zijoan.

Oin ortozean zapata gabe,
abitu beltza soinean,
San Frantziskoren kordoetxo bat
gerrian iru doblean.

San Frantziskoren liburutxo bat
eskutxo bien erdian,
pausua baratz botatzen zeban
Urteagako gainean.

Urteagako gainean eta
San Eliasen parean,
Salbetarako elduko ete zan
Kurtzepizio-gainean.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 807 zenbakian, 925 orrialdean: Gipuzkoan, Oñatiako Uribarri auzoan, Gabriela Agirrebengoaren aotik jasoa.

Laugarren bertsoaren bigarren lerroagatik onela adierazten du Azkue jau-nak oar batean: “*Si no me es infiel la memoria, llaman por allí Sandelli a este paraje de San Elías.*

XLVII

A - goz - tu - a-ren a - ma-bos - te - ko Je-sus Ma - ri - a goi - ze - an, A - ma Bir-
O - ñe - tan e - re za - pa - ta ga - be, a - bi - tu bel - tza so - ñe - an, pau - so - a
ji - ñen de - bo - ta - txu - a A - ran - tza - zu - ra zi - jo - an.
ga - rratz bo - ta - tzen zu - an A - lo - ña men - di ga - ñe - an.

Agoztuaren amabosteko
Jesus Maria goizean,
Ama Birjiñen debotatxua
Arantzazura zijoan.

Oñetan ere zapata gabe,
abitu beltza soñean,
pausoa garratz botatzen zuan
Aloña mendi gañean.

Arantzazuko bilduman, eskuz idatzitako orri berezi batean, oar onekin: “*Maria Azurmendi, Cegama, Agosto de 1956*”.

XLVIII

Abuztuaren amabostgarren
Andra Marie goizean
Birjinearen debotatxu bat
joan zan erromerian.

Oinak ortozik zapata barik
abitu baltzez jantzirik,
onek guztiok alda batera
Natibilitate goizean.

Arratsaldian joan ein nintzen
ardian bila mendira,
Bijinatxu bat topau nenduan
arantzan neuri begira.

– Derrodigotxu, Derrodigotxu,
erdu ona da entzu'zu!
Aita zuria arotza da ta
arren egizu mandatu.

Egin daiela ermitatxu bat
deritxotsena Arantzazu.
Iru lata ta zazpi teilatxu
arrek asko izengo'itu.

Amaika amaren semeok bere
an izango dau ostatu,
San Frantziskoren semeok bere
kalisfatuari (?) debotu.

Inpernurako bideak dagoz
arantza baltzez eginik,
zeru altura bideak dagoz
arri labraduz eginik.

Arri labraduz eginik eta
erdian aldazgorea,
mundu onetan ondo egin
dauanentzat
ez dago bide luzea.

Urre bietan sartute dago
atetxu orren giltzea,
zeruko salearen erdian dago
Birjina koronadea.
Salbe batekin enkomendatu
arren iru abemaria.

Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Baldafak / Antología* (Bilbo, 1995), 62 orrialdean, onako argibide auek eransten dizkiotela:

“Iturria: Labayru Ikastegiko MZIM artxiboa. Lekukoa: Joana Agirre, 65 urte, Bedian jaio eta Labean bizi. Biltzailea: Belen Gerrikagoitia. Biltze-data: 1983ko urtarrilean”.

XLIX

Andante mosso

I-a di-ra - de i-ru-ro-gei ur - te - ni ar-tzain sar -
 tu nin-tza - la - e-gu-no be - re ez-tot nik i - zan -
 otz - az on - en - bat min ta_a - la.

Ia dirade irurogei urte
 sartu nintzala pastore,
 eguno bere eztot nik izan
 otzaz onenbat portune.

Mendi onerik Illarmendira
 irureun bat pastore,
 Jaun Zerukoak gorde nau, eze
 ilgo nintzan neu bere.

Pastore santu benturosoak,
 geldi zakiguz gaur emen,
 geldi zakiguz, kanta dezagun
 zer igaro dan Belenen.

Kortesiakin gelditzearen,
 ze ezin nengoke luzaro,
 ganaduakin mendi altuan
 gau txarra pasauta nago.

Oi au gaba ta iñetasia!
 Oi au gabaren larria!
 Ordu erdirik tardatu bage
 il zan ganadu guztia.

Ama Birjiña Santisimea,
 gure berri zeuk dakizu:
 ordu erdiko bizi izaterik
 seguru iñoz eztogu.

Zazpi oin luze, iru oin zabal,
 kajo bat adornatua,
 antxe sartuta jartzen gaituez,
 orra munduko pagua.

Errodillatxu, Errodillatxu,
 Birjiña billau-zalea,
 aita zeurea arotza da ta
 egin daiala esaizu.

Zazpi tella ta iru latatxu
 urrean askoko dituz,
 egin daiala ermitatxu bat
 deritxona Arantzazu.

Oñatiarrak, oñatiarrak,
 ez bada gaur dirautsut:
 zeuen San Miguel Oñatikora
 birritan eratsi nozu,
 irugarrenez erasten banazu
 kontuan edukiko'tsut.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 634 zenbakian, 762 orrialdean; Bizkaian, Lekeitioko Krisostoma Bengoetxeari jasoa.

Bi zati ditu aldaera onek, alkarrerkin zer ikusi gutxi dutenak.

Bigarren bertsoaren bigarren lerroan onako oar au egiten du Azkuek: *Pudiera en el segundo verso decirse il dire por pastore, no sólo por extirpar el barbarismo, sino aun para que el cuarto verso tenga sentido*".

Bere *Euskalerriaren Yakintza-n* ere argitaratu zuan Azkuek kanta au, doiñurik gabe bada ere.

L

Ama Birjiña eguna da-ta
kanta dezagun kantia;
nik kantauko dot kantia baña
ondo erantzun, jentia.

Arantzazu'ra bidia luze,
gañera aldatz-goria;
arri labrauez eginda dago
Paradisura bidia.

Arri labraua ona da, baña
galtzairu piña obia;
urre gorriaz eginda dago
Paradisuan sillia.

Silla artantxe jarrita dago
Birjiña Ama Andria...
Bera bezela gura zeukian
Birjiñak bere Semia.

Sabel garbijan eduki zuen
bederatzi illabetian;
bederatzi illak igaro-eta
jaio zan Gabon-gabian.

Mundu guztija salbatu zuen
Natubitate-goizian;
mundu guztia salbatu zuen
Natubitate-goizian...

Izar eder bat argitu zan-da,
abantau nintzan bidian;
aren argittan juan izan nintzan
Arantzazu'ra bidian.

Ama Andria ta bere Semia
topau nituzan bidian;
kontseju onak emon zizkiden
Ama-Semien artian.

On da umilde izan nedilla
munduan naizen artian:
gero ez nebala damu izango
emendik nijoanian...

Odola pranko ixuri zuten
oñutsetan da lurrian...
– Ene Semia, eutsi zapatak;
jantzi eidazuz soñian.

– Ama Andria, largatu begi
onela noian artian;
Nik erijotza artu biar det
Kalbario'ko mendijan.

Kalbario'ko mendian eta
kurutze krudel batian;
nik erijotza artu biar dot
kurutze krudel batian.

Anuario de Euzko-Folklore, 1933, 69 orrialdean, Don Manuel Lekuona zanak bialdutako kanta-mordo batean.

Aitatzerik merezi duan aldaketarik gabe, beste bi argitalpen:

Manuel Lekuona: *Aozko literatura, Idazlan guztiak*, Tolosa, 1978, 555 orrialdean. Ez du esaten nun eta noren aotik jasoa duan.

Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antología* (Bilbo, 1995), 68 orrialdean.

LI

Birjina Amaren eguna da-ta
goazen Arantzazure,
Arantzazura bidea luze
ara orduko kantsatu,
Birjina Ama ta bere Semia
bidean ditut upatu.

– Ai artzaitxo! Ai artzaitxo!
Neri esan bat egizu,
aite eori zurgine dezu
onera biali dezazu.

Ermite oni para deiola
apiotxo bi aldian,
apiotxo bi aldian eta
zazpi teiletxo gainean.

Zenbait amaren seme maite
izanen de emen ostatu,
baita ere kaliza goratu.

Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antología* (Bilbo, 1995), 70 orrialdean, argibide auekin:

“Iturria: Aranzazu, 1957. Lekukoa: Frantziska Lizarraga, Etxarri Larrauneko. Biltzailea: Aztiri”.

LII

A - ran - tza - zu - ra bi - di - a lu - ze;
a - runtz bi - di - an ne - ka - tu.

Arantzazura bidia luze,
aruntz bidian nekatu.

P. Donostia: *Cancionero Vasco, I*, Donostia, 1994, 145 zenbakian, 212 orrialdean, argibide auekin:

"Loc. rec. Idiazabal. Fecha: V.1920. Trans. P. Modesto de Lecumberri".

LIII

Bir - ji - ña_A - ma - ren bez - pe - ra da ta go - a -
zen A - ran - tza - zu - ra; San - ta Lu - zia - ren be - gi e -
de - rrak ar - gi e - gi - ten di - gu - la.

Birjiña Amaren bezpera da ta
goazen Arantzazura,
Santa Luziaren begi ederrak
argi egiten digula.

P. Donostia, *Cancionero Vasco, I*, Donostia, 1994, 323 zenbakian, 445 orrialdean, argibide auekin:

"Loc. rec. Cia. Fecha: 1921. Clas. religiosa. Tras.: P. Modesto de Lecumberri".

LIV

Adios orain, dama gaztia,
Arantzazura arteko,
antxen ongo naiz besoak zabalik
zatozenian artzeko.

Ama Birjiña Arantzazuko
askoren debota maitia,
aretxek estimatzen dau
erromerian joatia.

Arantzazura erromerian
nai dozunian etorri,
amoriozko begi ederrak
erakutsiaz alkarri.

Planponan bera banua eta
zer gura dozun esaizu.
Zinta eder bat biali ezazu
borondaterik badezu.

Urdina bera zelosa da ta
berdiak esperantzia,
gorri ederrak siñifikatzen
biotz kariñoz betia.

Au da, jentia, kanta bat
daukona bakarrik falta bat:
bertso gutxitxo daduzka onek,
geitu bear zaio pare bat.

Arantzazura nijuanian
ez neban besterik goguan:
nola juan da nola etorri
kristau fidelen moduan.

Aldaera au Arantzazuko bildumatik artua degu. Goronaeta, Koruetako Maria Azkoitiaren aotik jasoa da.

LV

Arantzazure joan bear dogu
gabez edo egunez,
etxeckoandareari eskatu deutsat,
etxeckoandreak agindu ez,
Birjiña Ama onen borondatea bada
bitartekorik bear ez.

Kanta-puska au Arantzazuko bildumatik artua degu. Arratian jasoa omen da.

"Aguztuaren amabostgarren..."

El romance de la romería del cautivo

(Arantzazu aldizkarian 1969-ko martxoan argitaratutako idazlana.)

Siendo Aránzazu el santuario mariano hacia el que mayor devoción ha sentido el País Vasco, no puede estrañarnos que sea asimismo el que más veces ha sido cantado por nuestra poesía popular.

En este año mariano de Aránzazu nos proponemos presentar al lector algunas de estas composiciones populares, de las más antiguas precisamente, acompañadas de algún comentario que facilite su comprensión. Sea éste el homenaje que, en la ocasión presente, tributemos a Nuestra Señora.

El gran renombre alcanzado, sobre todo en nuestros días, por el bersolarismo puede hacernos creer, erróneamente, que éste ha sido la fuente única y exclusiva de nuestra poesía popular.

Pero la verdad es que existen en vascuence una porción de composiciones que tienen otra técnica y otro espíritu, composiciones de aire arcaico sobre temas muy diversos, recogidas por nuestros primeros folkloristas en toda la geografía de nuestro país.

Este género ha dejado ya de vivir en nuestro pueblo. Lo que de aquí en adelante pueda encontrarse será muy poco. En todos los años que llevo recopilando poesía popular, no he podido apuntar de labios del pueblo sino la variante de una sola composición de éstas, y ésa estaba ya recogida y publicada anteriormente.(1)

Llevo, en cambio, adelante un trabajo que urge ya terminarlo: el de hacer un corpus con todas las versiones halladas hasta el presente y que yacen dispersas, unas veces publicadas y otras inéditas. Puedo adelantar que el material es más abundante de lo que generalmente se cree.

El nombre que más frecuentemente se ha dado a este género es el de romance. Tiene, en efecto, rasgos muy semejantes a los del romancero castellano. Así le denominaremos también nosotros.

Podría preguntarse si el bersolarismo y el romancero coexistieron primariamente, para luego morir el uno y continuar el otro viviendo lleno de fuerza. En es-

te caso, hubieran sido como dos compañeros que hicieran juntos un largo camino, hasta que uno de ellos desfalleciera, en tanto el otro proseguía su ruta con brios renovados.

También pudo ser que primero existiera uno solamente, el romancero, y que éste sucumbiera al advenimiento del otro, del bersolarismo. En este caso, se trataría de un relevo.

Son problemas para cuya solución no contamos, por el momento al menos, con datos suficientes.

He encontrado ocho versiones diferentes del romance que quiero ofrecer hoy al lector, versiones que se encuentran en el Cancionero de Azcue y en la Colección de poesía popular vasca existente en la Biblioteca de Aránzazu y recopilada en buena parte, según creo, por el P. Lizarralde.

Las procedencias, no siempre anotadas, nos dan los siguientes pueblos: Oñate, Cegama, Gabica e Ibarruri.

En la versión más completa, que se halla en la Colección de Aránzazu, encuentro esta nota: "...orain beste bat, Aita Arrue'ri lenago kantatu niona, itz batzuk geituta, amona xarrak dion bezela" (...ahora otra –canción–, que se la canté antes al P. Arrue, con la adición de algunas palabras, tal y como la canta la anciana abuela).

No sabemos quién es el autor de la nota ni a qué anciana se refiera. Ni siquiera se apunta la procedencia del romance.

De las ocho versiones manejadasescojo en cada caso la variante que me parece más auténtica, en orden a devolver, en lo posible, al romance su forma primitiva:

Aguzuaren amabostgarren
Andra Maria goizian,
Birjiña Amaren debotatxo bat
ziojan erromerian.

Oñetan ere zapata gabe,
abitu beltza soñian,
San Frantziskoren kordoetxo bat
gerrian iru doblian.

San Agustiñen liburutxo bat
eskutxo biyen erdian,
pausua baratz botatzen eban
San Eliasen parian.

*El día quince de agosto,
en la mañana de la Virgen,
una devota de la Virgen Madre
iba en romería.*

*Sin zapatos en los pies,
con un hábito negro en el cuerpo,
un cordón de San Francisco
en la cintura en tres dobleces.*

*Un libro de San Agustín
entre sus dos manos,
pausadamente caminaba
por el alto de Urtiaga.*

Ala bere ta baratzagua
San Eliasen parian,
aingeru batek irten ziozkan
San Eliasen parian.

– Preguntatxo bat egin biar deutzut
aingerutxoen legian:
Salbetarako elduko ete naz
Kurtzepizio gañian?

– Salbetarako elduko zera
Kurtzepizio gañian,
Kurtzepizio gañian eta
Birjiña Amaren etxian.

Erregu eder egin ziozkan
Birjiña Amari aurrian,
Birjiña Amari aurrian eta
Santiagori oñian.

Moro-erriko katibu danak
libra zezala aidian,
“moro-erritik banator ere
neu ez nai moro-umia”.

Pero más pausadamente aún
al par de San Elías,
un ángel se le apareció
al par de San Elías.

– Una pregunta he de hacerte
a la manera de los ángeles:
¿Llegaré para la Salve
al alto de Kurtzepizio?

– Llegarás para la Salve
al alto de Kurtzepizio,
al alto de Kurtzepizio y
a la casa de la Virgen.

Hizo hermosas peticiones
a la Virgen, ante ella;
a la Virgen, ante ella y
a Santiago a sus plantas.

Que a todos los cautivos de la morería
los librara por el aire,
“aunque venga de la morería
no soy yo hija de moro”.

Se trata, pues, del regreso de un cautivo a su tierra y de su romería en acción de gracias al santuario mariano. Esto podría ser un primer dato, aunque muy impreciso ciertamente, para quien pretendiera fijar la fecha de la composición.

(1) Gracias a Dios, estas afirmaciones estaban bastante equívocadas. Posteriormente se han recogido, sobre todo en Vizcaya, por el seminario María de Goiri y por el grupo Labayru, bastantes romances.

“Arantzazura egin dut promes...”

El romance de los romeros de Aránzazu

(Arantzazu aldizkarian 1969-ko apirillean argitaratuko idazlana)

Hemos encontrado treinta y un versiones, todas ellas fragmentarias, del romance que hoy ofrecemos al lector. Esto ha constituido para nosotros una gran dificultad en el trabajo de agruparlas, ordenarlas y seleccionar en cada caso los versos o estrofas que nos parecían más auténticos, con el fin de restaurarlo.

No pretendemos que el resultado obtenido sea el texto exacto del romance primitivo; pero sí creemos que da una idea más aproximada de lo que pudo ser éste.

Tampoco presumimos de que esta restauración sea la mejor o la única que pueda hacerse. Otro cualquiera que acometiese el mismo trabajo obtendría resultados distintos, aunque no creo que se separaría mucho del nuestro.

He de confesar que ninguna de las treinta y un versiones manejadas ha sido recogida por mí. Debo agradecérselas a folkloristas anteriores y que son en este caso: Azkue, con su gran Cancionero; el P. Lizarralde y otros Padres de Aránzazu, con la Colección de poesía popular existente en la Biblioteca del Santuario; el presbítero D., José de Ariztimuño *Aitzol*, con su recopilación de poesía popular, en los envíos de D. Joaquín Dorronsoro, Eulogio de Gorostiaga y el grupo de seminaristas de Vitoria *Kardaberaztarrak*; los Anuarios de *Eusko-Folklore* de 1921, 1924 y 1925; Juan Carlos de Guerra en su libro *Los Cantares Antiguos del Euskera*; D. Severo de Altube en sus papeles manuscritos...

Los puntos de procedencia, no siempre señalados, son los siguientes: en Navarra, Echarri-Aranaz, Baraibar y Arbizu; en Guipúzcoa, Oñate, Segura, Placencia de las Armas y Ataun; en Vizcaya, Ceánuri, Villaro, Goronaeta, Bedia, y Arteaga; y en Álava, Aramayona.

Tanto esta múltiple procedencia, como el alto número de versiones recogidas, nos hablan bien claro de la gran área de difusión de este romance.

Encontrará el lector que en nuestra restauración los dialectos se mezclan; navarro, vizcaino y guipuzcoano. Es que, para mayor fidelidad, hemos conservado en cada estrofa el que tenía en su versión original.

En las notas del final encontrará el lector las variantes de mayor interés.(1)

Podríamos formularnos varios interrogantes: ¿El romance primitivo sería más extenso? ¿Llegaría a merecer, en caso afirmativo, el título de poema? ¿Se trata de un solo romance o de varios? ¿No acaba el romance tras la estrofa sexta de nuestra restauración? ¿Las últimas estrofas, las que van desde la decimoséptima hasta el final, guardan entre sí suficiente unidad?

Son preguntas para las que, a mi entender, dado lo fragmentario de las versiones, no hay respuestas adecuadas; y que, por lo mismo, nos hacen lamentar con más pena lo tardío de la fecha en que, sobre todo a este lado del Bidasoa, comenzaron los esfuerzos por salvar nuestra poesía popular.

Arantzazura egin dut promes
ero gau ero egunez,
ero gau ero egunez eta
oiñutsetan ta dolorez.

Birjiña Amaren bezpera da ta
goazen Arantzazura,
Santa Luziren begi ederrak
argi egiten digula.

Izar eder bat ateratzen da
urtean egun batean,
urtean egun batean eta
ura San Juan goizean.

Aren argitan ni juan nintzan
Arantzazura ustean,
Birjiña Ama ta aren Semea
topa nituan bidean.

Kontseju on bat eman zidaten
Ama-Semeen artean:
ona ta umilla izan nendilla
munduan nintzan artean.

Gero ez dodala damu izango
zeruko tribunalean,
zeruko tribunalean eta
Jaungoikoaren aurrean.

*He hecho promesa de ir a Aránzazu
de noche o de día,
de noche o de día y
descalzo y sufriendo.*

*Es víspera de la Virgen y
vayamos a Aránzazu,
mientras los bellos ojos de Santa Lucía
nos van iluminando.*

*Una hermosa estrella sale
una vez al año,
una vez al año y
ésa en la mañana de San Juan.*

*A su luz marché
con ánimo de llegar a Aránzazu,
a la Virgen y a su Hijo
me los encontré en el camino.*

*Me dieron un buen consejo
entre la Madre y el Hijo:
que fuera bueno y humilde
mientras viviera en el mundo.*

*Que no me pesaría luego
en el tribunal del cielo,
en el tribunal del cielo y
delante de Dios.*

Errodrigotxo Baltzategi'ko
Birjiña-billatzallia,
sapatu egun batean joan zan
mendira ardijen billa.

Errodrigotxu juan zanian
ardijkana mendira,
Birjiña Ama billatu zeben
arantzan berai begira.

– Ai artzaitxo, ai artzaitxo,
nere esan bat egizu,
nere esan bat egizu eta
nerea izanen zera zu.

Aita zurea arotza da ta
esan bearko diozu
ermitatxo bat egin deidala
deritzona Arantzazu.

Iru latatxo, zazpi tellatxo,
oietxek askoko ditu,
eta geiago bear badira
bertan agertuko jatzu.

Denborarekin ura izango da
ermita kuriosoa,
ermita kuriosoa eta
komentu poderosoa.

Ama onaren semerik askok
an izango du ostattu,
an izango du ostattu eta
sarri kaliza altxatu.

Nik zaituko ditut zure ardiak
Santa Tria'ko aitzean,
Santa Tria'ko aitzean eta
belartxo goxo batean.

Errodrigotxo laster juan zan
enbajadiaz errira,
oñatiarrak laster juan ziran
prozesiñuaz mendira.

Rodrigo de Balzategui,
el que encontró a la Virgen,
fue en un día de sábado
al monte en busca de las ovejas.

Cuando Rodrigo fue
al monte a por las ovejas,
encontró a la Virgen
mirándole desde un espino.

– Ay pastorcito, ay pastorcito,
hazme este recado,
hazme este recado y
tú serás mío.

Tu padre es carpintero y
le deberás decir
que me haga una pequeña ermita
que se llame Aránzazu.

Tres latas, siete tejas,
con eso bastará,
y si hace falta más
aquí mismo lo encontrará.

Con el tiempo llegará a ser
una curiosa ermita,
una curiosa ermita y
un convento poderoso.

Muchos hijos de buena madre
encontrarán allí posada,
encontrarán allí posada y
alzarán con frecuencia el cáliz.

Yo cuidaré de tus ovejas
en la Peña de Santa Tría,
en la Peña de Santa Tría y
en una dulce hierba.

Pronto marchó Rodrigo
con su embajada al pueblo,
pronto marcharon los oñatiarras
en procesión al monte.

– Oñatiarrak, Oñatikuak,
ai zelan penatzen nozun!
Aita San Migel Oñatikora
birritan eroan nozu,
irugarrenez banaroazu
gomuten eukiko dozu.

Itxeak bana binaka dira
Arantzazura bidean,
itxea itxe señalea da
arbola eder bat aurrean.

Arbola eder bat aurrean eta
mats beltza beste aldean,
mats beltza beste aldean eta
iturri otz bat aurrean.

Iturri atan bataiatu zan
Kristo Erredentorea,
Kristo Erredentorea eta
guztien Salbadorea.

Birjiña Ama Arantzazukoak
eguzki aldera leioak,
batetik itzal darioneko
bestera aldatzekoak.

Birjiña Ama Arantzazu'koak
urre gorriaz koroa,
urre gorriaz koroa eta
zillar zuriaz lepoa,
zillar zuriaz lepoa eta
seda-indiaz beloa.

Zazpi dontzellak josten diote
Birjiña Amari beloa,
dontzellak ere ederrak baño
beloa ederragoa.

Birjiña Amaren magal santutik
iturri eder bat dijoxa,
Jesus, ai ura dulze ta presko
Amaren magalekoa!

– Oñatiarras, los de Oñate,
¡cuánto me afligís!
Al Padre San Miguel de Oñate
dos veces me habéis llevado:
si me lleváis por tercer vez
os acordaréis de ello.

Las casas están solas o de dos en dos
en el camino de Aránzazu,
y como señal de casa
un hermoso árbol delante.

Un hermoso árbol delante y
una parra negra al otro lado,
una parra negra al otro lado y
una fuente fría delante.

En aquella fuente se bautizó
Cristo el Redentor,
Cristo el Redentor y
el Salvador de todos.

La Virgen de Aránzazu
tiene hacia el oriente las ventanas,
para que cuando una quede en sombra,
se cambie a la otra.

La Virgen de Aránzazu
(tiene) la corona de rojo oro,
(tiene) la corona de rojo oro y
el cuello de blanca plata,
el cuello de blanca plata y
el velo de seda de las Indias.

Siete doncellas le cosen
a la Virgen el velo,
las doncellas son hermosas pero
lo es más el velo.

Del regazo santo de la Virgen
maná una hermosa fuente,
¡Jesús, qué agua tan dulce y fresca
la del regazo de la Madre!

Egunean bein an ura edanda
uso zurie dijoa,
ai ura ezta uso zurie,
aingeru guardakoa!

Jende guztia miran zegoan
usoa nora zijoan,
ego txuriak an busti eta
Parabisura dijoa.

*Después de beber allí una vez al día
vuela una blanca paloma.*

*¡Ay, que no es una blanca paloma
sino el ángel de la guarda!*

*Toda la gente miraba
a dónde volaría la paloma;
mojó allí las blancas alas y
voló al Paraíso.*

(1) Estimamos innecesarias aquí estas notas, pues acabamos de ofrecer completas las distintas variantes.

“Arrateko zelaiko...”

I

Arrateko zelaiko
bai floridadea,
andixeak gora dago
zerura bidea.

Zerura nua ni ta
nork nai du etorri?
Orain etorri jataz
iru mandatari.

Aldatza igaro ta
zelai landa baten
Birjiña ta Semia
atsegina artutzen.

Atzo etorri jataz
iru mandatari:
uso zuri eder bat,
aingeru polit bi.

Lirio berdez jantzirik
dago Arraten altaria,
aintxen kantatzen dabe
ederki Salbia.

– Uso zuri ederra,
zeruan ze berri?
– Zeruan berri onak
orain eta beti.

Zerura gura neuke
zerura boladu,
aingeruak balidakez
eguak prestadu.

– Zer da dakazu bada
zeruko gauzarik?
– Olibi-adartxo bat
Birjiñak emanik.

Eguak balitzkez
argizarizkuak,
urtuko lituzkela
eguzki klaruak.

– Birjiñak emanik ta
noizko izentaturik?
– Erramu-eguneko
bai señalaturik.

Bai eta ausi bere
ipartxo senduak,
bai eta ausi bere
ipartxo senduak.

– Erramu urrin da ta
igar ezpaledi,
ori igartzen bada
beste bat ekarri.

- Zeruan asko dagoz
olibi-adarrik,
olibi-adarrik eta
lilio-lorarik.

Lilio-lorarik eta
santu ta santarik,
ez dala igartuko
zeruko gauzarik.

Aita San Pedro dago
zeruan giltzadi,
ai, Jaunak egin banindu
giltzaren jabedi!

Atiak ereteko
aita neuriari,
lenengo aitari ta
urrengo amari.

Andik eta aurrera
mundu guztiari,
andik eta aurrera
mundu guztiari.

Polikarpo Larrañaga apaiz jauna zanaren *Arrate* izeneko itzaldian. Itzaldi ori *Euskal-Esnalea*-k argitaratu zuan, *Itzaldiak, Laugarren sala* izeneko liburuan (Donostia, 1926).

Sail ontako 15, 16 eta 17-garren bertsoak zer ikusirik badute beste kanta zaar onekin:

Gure Jaun onak egin banindu
zeruetako giltzari,
azken orduan jakingo nuke
artia zeiñi iriki.

Lenengo aitari, gero amari,
gero anai-arrebari,
azken orduan sekretotxuan
nere maite kuttunari.

* * *

Arantzazuko bertso-bilduman, eskuz idatzitako orri batean, sail ontako leenengo sei bertsoak arkitu ditugu. Ez da esaten bertso oiek noren aotik jasoak diran. Baiña, seguru aski, Polikarpo Larrañagaren itzalditik kopiatuak izango dira, letra bakar bat aldatu gabe daude eta.

Baita ere zazpigarrenetik azkeneraiñoko guziak, batere aldaketarik gabe, aurretik “Illargi argixa” asten dan kantaren bertsoak dirala.

Aldaera onen beste argitalpen bat: Adolfo Arejita: “*Arrateko zelaiko bai floridadea*” *Birjina Amandreari balada, Idaz eta mintz aldizkarian*, 21 zenbakian, 1991, 35 orrialdean.

Baita ere Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Kaladak / Antologia* (Bilbo, 1995) 71 orrialdean.

II

Arrateko zelaiko
bai lorategie,
andixi gora igota
zerura bidie.

Aldatza pasadu te
zelai eder baten,
an dago Jesukristo
mezea esaten.

San Pedro ta San Pablo
mezea erazoten,
Aita San Prantxisko
orgañue joten.

Amabi apostoluek
koruen kantatzen,
mille ta bost aingeru
zeruan kantatzen.

Aldaera au ere Polikarpo Larrañaga apaiz jauna zanaren *Arrate* izeneko itzalditik artua degu. Esan degunez, itzaldi ori *Euskal-Esnalea-k* argitaratu zuan, *Itzaldiak, Laugarren salsa* izeneko liburu batean (Donostia, 1926).

Larrañaga jaunak oar jakingarri au egiten du aldi ontan: "Araba'ko Billarreal'en eta Gernika'n arkitu nuban olerki au".

Adolfo Arejita: "*Arrateko zelaiko bai floridadea*" *Birjina Amandareari balada, Idaz eta mintz aldizkarian*, 21 zenbakian, 1991, 35 orrialdean.

III

Birjiña Arrateko
Birjiña Maria,
zuri ta enkarnada
zerura bidea.

Bertso edo kopla bakar au ere Polikarpo Larrañagaren itzalditik artua degu. Aurretik argibide au ematen du:

"Orain abestuko deguna, Angiozar'en jaio ta Mendigoitia baserriyan bizi dan emazte zarrak abestu ziran. Bere amonari ikasi zion, eta orain laroiei urte asko abestutzen oi zan bere erriyan. Orain entzungo dezute, Aita Donosti'k ereskidetu ta Eibar'ko neskatzak abestuta".

IV

Arrateko zelaiko
bai floridadea,
andixeek gora dago
zerura bidea.

Nere Ama Birjiña
Kontzeziñokua,
arren, mobitu zazu
neronen gogua.

Zeruko jardin eder
loraren artian,
egon bearko degu
egunen batian.

Noiz etorriko ote da
egun eder ori?
Bai, etorriko iaku
orduren batian.

Au ere Polikarpo Larrañaga zanaren *Arrate* itzalditik. Aurretik argibide au ematen du: "Uurrengo au laroiei urteko Partxuaneko Tomesen autik entzuna da. Piano-laguntza Aita Donostik jarri diyo abestiyari".

Adolfo Arejita: "*Arrateko zelaiko bai floridadea*" *Birjina Amandreari balada, Idaz eta mintz aldizkarian*, 21 zenbakian, 1991, 35 orrialdean.

V

A - rra - te - ko ze - lai - ko bai pro - bi - da - ri - a,
 an - di - kan go - ra da - go ze - ru - ra bi - de - a.
 Ai ne - re jen - te o - nak, ze - ru - ra no - a ni,
 A - tzo e - to - rri zaiz - kit i - ru man - da - ta - ri,
 i - a nok gu - ra du - an ne - re - kin e - to - rri.
 u - so zu - ri e - der bat, ain - ge - ru laz - tan bi.
 U - so zu - ri e - de - ra ze - ru - an zer be - rri?
 Ne - re - tzat zer da - kar - zu ze - ru - ko gau - za - rik?
 Ze - ru - an be - rri o - nak o - rain e - ta be - ti.
 O - li - bo a - dar - txo bat Bir - ji - nak e - ma - nik.

Arrate'ko zelaiko
bai probidaria,
andikan gora dago
zerura bidea.

Ai, nere jende onak,
zerura noa ni,
ia nok gura duan
nerekin etorri.

Atzo etorri zaizkit
iru mandatari:
uso zuri eder bat,
aingeru laztan bi.

– Uso zuri ederra,
zeruan zer berri?
– Zeruan berri onak
orain eta beti.

– Neretzat zer dakartzu
zeruko gauzarik?
– Olibo-adartxo bat
Birjinak emanik.

– Erramu laster da ta
igartuko ezpalitz!...
– Ezta bada igartuko
zeruko gauzarik.

– Igartzen bada ere
berriz emango dit;
zeruan franko dago
olibo-adarrik.

R. M. Azkueren esku-idazkietatik. Berak Getarian jaso zuan kanta au; baina ez det uste iñun argitaratu zuanik. Ondoren oar au egiten du:

"Con un calderón al final, puesto sobre una nota alta, constituiría esta pieza un buen número del programa de zortzikitos pirotécnicos con que años atrás se ha embaucado a nuestro público. Este diálogo tan lindo entre una paloma bajada del cielo y un devoto figura en algún otro número, no sé en cuál, de esta colección... Seguramente otra fue la melodía inicial de este poemita".

Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antología* (Bilbo, 1995), 74 orrialdean.

VI

Andante mosso



A - tzo e - to - rri da - taz i - ru man - da - ta - ri. U - so zu - ri e - der
¿Ni - re - tzat zer da - ka - zu ze - ru - ko gau - za - rik? O - li - bo a - dar - txo
I - gar - tu ba - lei be - re ba - rriz da - kar - ket nik. Ze - ru - an as - ko di -

Atzo etorri iataz
iru mandatari:
uso zuri eder bat
ta aingeru eder bi.

– Uso zuri ederra,
zeruan ze barri?
– Zeruan barri onak
orain eta beti.

– Niretzat zer dakazu
zeruko gauzarik?
– Olibo-adartxo bat
Birjinak emonik.

– Erramu laster da ta
igartu ezpaledi...
– Ezta bada igartuko
zeruko gauzarik.

Igartu balei bere
barriz dakarket nik,
zeruan asko dira
olibo-adarrik.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 826 zenbakian, 957 orrialdean, Araban, Aramaioko Bizenta Pujanari jasoa.

Baita ere beraren *Euskalerraren Yakintza-n* (Madrid, 1947), IV tomoan, 177 orrialdean; baiña doiñurik gabe.

VII

Santa Kruz Bizkargiko
kindarra lorea,
andixek gora dago
zerura bidea.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 892 zenbakian, 1038 orrialdean: Bizkaian, Berrizko Juan María Laspitari jasoa.

VIII

Arrateko zelaiko
bai floridadia,
andixek gora dago
zerura bidia.

Aldatza igarota
zelai landa baten,
Birjiña ta Semia
an dira arkitzen.

Gura neuke emendik
zerurontz goratu,
orretarako, bada,
Ama, zain gaitzazu.

Juan Karlos Guerra: *Los cantares antiguos del euskera*, Donostia, 1924, 183 orrialdean.

IX

The musical notation consists of two staves. The top staff is in 5/4 time with a treble clef. The lyrics for this staff are:
A - rra - te - ko ze - lai - ko bai flo - ri - da - di - a, an -
di - xik go - ra da - go ze - ru - ko bi - di - a..

Arrateko zelaiko
bai floridadia,
andixik gora dago
zeruko bidia.

Zerura gura neuke
zeura boladu,
aingeruak baleistez
eguak prestadu.

Eguak baliradez
argizarizkuak,
urtuko litukiela
eguzki beruak,
bai eta ausi ere
ipartxo senduak.

Puntuan etorri iat
iru mandatari:
uso zuri eder bat,
aingeru polit bi.

- Uso zuri polita,
zeruan ze barri?
- Zeruan barri onak
orain eta beti.

– Aingerua, zer dakartzu
zeruko gauzarik?
– Olibe-adartxo bat
Birjiñak emanik.

– Erramu-eguneko
igertu ezpaledi!
– Au igerketan bada
beste bat ekarri.

Zeruan asko daude
lilixo-lorarik,
lilixo-lorarik eta
lilixo berderik.

Arraten altaria
erramuz beterik,
antxe kantatzen dute
salbia ederki,
neu bere araxe nua
ikasi al banegi.

Arantzazuko bertso-bilduman, Aita Iturberen amak 1935 urtean kantatua.
Adolfo Arejita: "Arrateko zelaiko bai floridadea" *Birjina Amandareari balada, Idaz eta mintz aldizkarian*, 21 zenbakian, 1991, 33 orrialdean.

X

A - ra - te - ko ze - lai - ko bai plo - ri - da - di - e, an -
txe kan - te - tan da - be e - der - to sal - bi - e.

Arrateko zelaiko
bai ploridadie,
antxe kantetan dabe
ederto salbie.

Lirio-loraz dago
Arraten aldarie,
andixek gora dago
zeruko bidie.

Jesus, bada, jentie,
zerura noa ni,
ia ba nok nai daben
neurekin etorri.

Atzo izan ditudez
iru mandatari,
eguen goxien bere
uso zuri eder bi.

– Usoa, zer dakazu
zeruko gauzarik?
– Olibo-adartxo bat
Birjiñak emanik.

– Ori erreten bada
beste bat ekarri,
Birjiñak asko dauko
olibo-adarrik,
olibo-adarrik eta
lora zuri ederrik.

Arantzazuko kanta-bilduman; Gernikan, 1936-ko abuztuan, sor Maria de los Angeles Martitegik, laroiei ta lau urterekin kantatua.

Adolfo Arejita: "Arrateko zelaiko bai floridadeara" Birjina Amandreari balada, Idaz eta mintz aldiak, 21 zenbakian, 1991, 32 orrialdean.

A - rra - te - ko ze - lai - ko bai plo - ri - da - di - e, an -
txe kan - te - tan da - be e - der - to sal - bi - e.

XI

Bir - ji - ña (y) _A - rra - te - ko, ze - ru - ko glo - ri - a, zu - riz da
en - kar - na - da, gra - zi - az be - ti - a. gra - zi - az be - ti - a.

Birjiña (y) Arrateko,
zeruko gloria,
zuriz da enkarnada,
graziaz betia.

(Y) Arrateko zelaiko
bai floridadia,
andixen gora dago
zerura bidia.

Zerura gura neuke
zerura bolaru,
aingeruak balidare
eguak prestaru.

Eguak balirade
argizarizkuak,
urtuko lituzkela
eguzki beruak,
bai eta ausi ere
ipartxo senduak.

- Aingerua, zer dakatzu
zeruko gauzarik?
- Oliba-adartxo bat
Birjiñak emanik,
Erramu-eguneko
bai señalaturik.

Arraten aldaria
erramuz jantzirik,
lirixo gorriko eta
lirixo berderik.

Arantzazuko kanta-bildumako esku-idazki batetik; Goronaetako Ugaztegi baserriko Maria Azkoitiaren aotik jasoa.

Adolfo Arejita: “*Arrateko zelaiko bai floridadea*” *Birjina Amandreari balada, Idaz eta mintz aldizkarian*, 21 zenbakian, 1991, 34 orrialdean.

Adolfo Arejita, Ibone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Balandak / Antologia* (Bilbo, 1995), 73 orrialdean.

XII

Arrateko zelaiko
bai floridadea,
andixeek gora dago
zerura bidea.

Aldatza igaro ta
zelai landa baten,
Birjiña ta Semia
atsegin artutzen.

Antxen kantatzen daue
Salbia ederki,
neu bere joango nintzake
ikastiagatik.

Bere Seme Jauna dago
mezaren ematen,
Maria Santisima
meza adoratzen.

San Pedro ta San Paulo
meza erazoten,
milla ta bat aingeru
koruan kantatzen,
San Miel aingerua
organua joten.

Gabian Salbia ta
goizian mezia,
Birjiña Arrateko
zeruko gloria.

Lirio berdez jantzirik
dago (Arraten) aldaria,
aintxen kantatzen dabe
ederki Salbia.

Zerura gura neuke
zerura boladu,
aingeruak balidakez
eguak prestadu.

Eguak balitzkez
argizarizkuak,
urtuko lituzkela
eguzki klaruak.

Bai eta ausi bere
ipartxo senduak,
bai eta ausi bere
ipartxo senduak.

Arantzazuko kanta-bildumaren esku-idazki batetik.

XIII

Arrateko zelaiko
bai floridadea;
andixek gora dago
zerura bidea.

Aldatza igarota
zelai landa baten,
Birjiña ta Semia
dira an arkitzen.

Gura neuke emendik
zerurontz goratu,
orretarako, bada,
Ama, Ama, zain gaitzatzuz,
Arrateko bai floridadea,
andixek gora gora bidea.

Eibarko Juan San Martin adiskideak bialdua, oar onekin:

"Juanito Gisasolak, eibartarra, musika ta guzti nere adiskide bati eman
zion. Orain irurogei bat urte idatzia izan bear da".

Orain ogei ta bost bat urte izango dira, argibide ori idatzi zala.

XIV

A - rra - te - ko ze - lai - ko bai flo - ri - da - de -
a: an - di - xek go - ra da - go ze - ru - ko bi - de -
a. Ne - re A - ma Bir - ji - ña Kon - tze - zi - ño - ku - a, a -



rren, mo - bi - tu za - zu ne - ro - nen go - gu - a.

Arrateko zelaiko
bai floridadea:
andixek gora dago
zeruko bidea.
Nere Ama Birjiña
Kontzeziñokua,
arren, mobitu zazu
neronen gogua.


P. Donostia: *Cancionero Vasco, I*, 179 zenbakian, Donostia, 1994, 263 orrialdean, argibide auekin:

"Infor. D. Policarpo Larrañaga. Loc. rec.: Eibar. Fecha: 12 de octubre de 1919. Clas.: religiosa".

XV



A -rra - te - ko ze - lai - ko bai flo - ri - da - de - a:



an - di - xek go - ra da - go ze - ru - ra bi - de - a.

Arrateko zelaiko
bai floridadea:
andixek gora dago
zerura bidea.

P. Donostia: *Cancionero vasco, I*, 180 zenbakian, Donostia, 1994, 264 orrialdean, argibide auekin:

"Infor.: D. Policarpo Larrañaga. Loc. rec.: Eibar. Fecha: 12 de octubre de 1919. Clas.: religiosa".

XVI

Al - da - tze i - ga - ra ta ze - - lai lan -
da ba - ten, Se - mi - a ta Bir - ji - na
a - tze - gin ar - tu - - tzen.

Aldatze igaro ta
zelai landa baten,
Semia ta Birjina
atsegin artutzen.

P. Donostia: *Cancionero vasco, I*, 181, Donostia, 1994, zenbakian, 265 orrialdean, argibide auekin:

“Infor. D. Policarpo Larrañaga. Loc. rec.: Eibar. Fecha: 12 de octubre de 1919. Clas.: religiosa”.

XVII

Aita Iñazio Ormaetxebarria: *Sobre el poema viejo de Arrate idazlana, Eibar aldizkaria*, 1963, VIII-IX. Besteak beste, onela esaten du:

“...Sin meterme demasiado al detalle en la confrontación crítica de las variantes, presento la siguiente recomposición del conjunto:

Birjiña Arrateko, / zeruko lorea,
zuri ta enkarnada, / graziaz betea.

Arrateko zelaiko / bai floridadea!
Antxe kantetan dabe / ederki Salbea.

Lirio loraz dago / Arraten altarea,
andixek gora dua / zeruko bidea.

Zerura gura neuke / zerura boladu,
aingeruak baleidakez / eguak prestadu...

Queda advertido ya que hay muchas variantes; por ejemplo:

Arrateko zelaiko / bai floridadea!
Andixeek gora dago / zerura bidea, etc.

El peregrino, partiendo de Azitain, llega a la campa de Arrate, y una visión maravillosa se extiende a su vista. El cono aislado de Arrate está rodeado de un estupendo anfiteatro de montañas: montes in circuitu ejus. Arrate no es camino para ningún otro punto. De aquí, si continuamos nuestra ascensión, sólo hacia el cielo nos es dado avanzar. Pero ya no podemos continuar apoyándonos en el suelo como hasta ahora. Ahora hay que cambiar de procedimiento: hay que comenzar a volar. Y Arrate nos puede servir de trampolín para emprender nuestro vuelo. Y el peregrino pide alas a los ángeles.

Y en este punto se observa una interpolación erudita que alude al vuelo mitológico de Ícaro, desde el laberinto de Creta, interpolación que ni métricamente, ni siquiera lingüísticamente encaja bien con el resto, pues se trata, no de guipuzcoanismos corrientes, admitidos a veces aun en poemas vizcaínos, sino de flexiones verbales guipuzcoanas, que no pueden reducirse fácilmente a supuestas formas vizcaínas primitivas, por lo que parecen haberse introducido en fecha relativamente tardía, como tales flexiones guipuzcoanas, en contraste con las demás flexiones típicamente vizcaínas del poema. El hecho es que según la versión que me dio alguna “amona” de Mondragón, el poema en algunas partes se canta ahora de este modo:

Eguak balirade / argizarizkuak,
urtuko lituzkela / eguzki beruak,
bai eta ausi ere / ipartxo senduak.

Aparte de la asimetría de esta estrofa con “estrambote”, única en todo el poema, y de los descarados guipuzcoanismos flexionales, debo observar que la comunicante mondragoitarrা no debía de conocer el vocablo “ipartxo”, diminutivo de “ipar”, pues lo substituía por un absurdo “epertxo” o “perdiz”, mientras en otras versiones tengo el auténtico “ipartxo” o “cierzo”.

Lo que sigue del poema pertenece de nuevo a un área lingüísticamente vizcaína. El peregrino, una vez en Arrate, se desenvuelve en ambiente saturado de visiones de cielo:

Puntuau izan ditut / iru mandatari:
uso zuri eder bat, / aingeru polit bi.

- Uso zuri ederra, / zeruan ze barri?
- Zeruan barri onak / orain eta beti.

¿Quién no conoce estos versos que se repiten también en las canciones cuneras y en los apóstrofes cariñosos a la "amona mantagorri"?

- Usoa, zer dakarzu / zeruko gauzarik?
- Olibo-adartxo bat / Birjiñak emonik.
- Erramu-egunerako / igar ezpaledi.
- Au igarretan bada / beste bat ekarri.
- Zeruan asko dagoz / olibo-adarrik,
olibo-adarrik eta / lirio-lorarik...

El Santuario de la Inmaculada se encuentra ya aquí, al terminar la cuesta. Y el Santuario es un pedazo de cielo. Y en el cielo del Santuario hay Misa. Y la Misa aquí parece ser una función que celebra el mismo Jesucristo, en campo abierto, en medio de las montañas, asistido de los ángeles, de los apóstoles, de San Francisco, que hace de organista. Se ve que la reciente visión de aquel escenario de montañas, grabada todavía en la retina, se sobrepone, dentro del Santuario, a la visión del sacrificio eucarístico. Y ¿cómo aparece San Francisco, fungiendo de celeste organista? ¿Acaso será un fraile franciscano el que celebra la Misa, o es un recuerdo que trae el peregrino, de Aránzazu, de Elgóibar o de Isasi?

Después de esta visión extraña de la liturgia del cielo, confundida -en perspectiva apocalíptica- con la del Santuario de Arrate, donde, en vez de los veinticuatro ancianos y de los citaredos del vidente de Patmos, aparecen los apóstoles, los ángeles y San Francisco, termina así el poema:

Arraten altarea / erramuz jantzirik,
lirio zuririk eta / lirio gorririk.
Antxe kantatzen dabe / Salbea ederki,
neu bere araxe nua / ikasi al banegi.
Gabean Salbea ta / goizean mezea,
Birjiña Arrateko / zeruko lorea.

Aránzazu y Arrate fueron dos de los más famosos Santuarios marianos del país. Y Arrate lo fue seguramente por su carácter concepcionista. El pueblo vasco, lleno de santo entusiasmo por el privilegio mariano, multiplicaba sus romerías a Arrate. Y así como en Aránzazu era imprescindible que los romeros confesaran y comulgaran, en Arrate se citan como funciones características la Misa y la Salve...".

Kanta oni buruz beste idazlan bat: Juan San Martín: *Arrateko kanta zaharrak, Hoja del lunes de San Sebastián, 1977-IX-2.*

XVIII

Arrateko zelaiko
bai floridadea,
handixek gora dago
zerura bidea.

Aldatza igaro ta
zelai landa baten,
Birjina ta Semia
atsegin hartutzen.

Lirio berdez jantzirk
dago Arraten altaria,
haintxen kantatzen dabe
ederki Salbia.

Zerura gura neuke
zerura boladu,
aingeruak balidakez
heguak prestatu.

Heguak balirade
argizarizkuak,
urtuko lituzkela
eguzki beruak.

Bai eta hausi bere
ipartxo senduak,
bai eta hausi bere
ipartxo senduak.

– Zerura noa ni ta
nork nahi du etorri?
Orain etorri jataz
hiru mandatari.

Atzo etorri jataz
hiru mandatari:
uso zuri eder bat,
aingeru polit bi.

– Uso zuri ederra,
zeruan ze berri?
– Zeruan berri onak
orain eta beti.

– Zer dakazu bada
zeruko gauzarik?
– Olibo adartxo bat
Birjinak emanik.

– Birjinak emanik ta
noizko izentaurik?
– Erramu egunerako
bai seinalaturik.

– Erramu urrin da ta
igar ez baledi!
– Hori igartzen bada
beste bat ekarri.

Zeruan asko dagoz
olibo adarrik,
olibo adarrik eta
lirio lorarik.

Lirio lorarik eta
santu ta santarik,
ez dala igartuko
zeruko gauzarik.

Aita San Pedro dago
zeruan giltzari,
ai, Jaunak egin banindu
giltzaren jabe ni!

Atiak ereiteko
aita neuriari,
lehenengo aitari ta
hurrengo amari.

Handik eta aurrera
mundu guziari,
handik eta aurrera
mundu guziari.

Arrateko zelaiko
bai floridadea,
handixek gora dago
zerura bidea.

Nere Ama Birjina
Kontzezinokua,
arren mobitu zazu
neronen gogua.

Zeruko jardin eder
loraren artian,
egon beharko degu
egunen batian.

Xabier Amuriza: *Bizkaiko bertsogintza, I, Izengabeak*, Bilbo, 1995, 269
orrialdean, argibide onekin: "Eibar aldizkaria, 1984ko abuztua-iraila, 264 zen-
bakia, 8 or."

I

*¡Qué floración la del campo de Arrate!
De allí para arriba está el camino al cielo.*

*Al subir la cuesta y (llegar) a un campo,
(estaban) la Virgen y el Hijo recreándose.*

*De lirio verdes está vestido el altar en Arrate;
bien cantan allí la salve.*

*Al cielo, al cielo desearía yo volar,
si los ángeles me prestaran las alas.*

*Si tuviera alas de cera,
me las derretiría el claro sol.*

*También me las rompería el fuerte cierzo,
también me las rompería el fuerte cierzo.*

*Yo voy al cielo y ¿quién quiere venir?
Ahora han llegado tres mensajeros.*

*Ayer llegaron tres mensajeros:
una blanca y hermosa paloma y dos bellos ángeles.*

- Blanca y hermosa paloma, ¿qué noticias en el cielo?
- En el cielo buenas noticias ahora y siempre.

¿Qué cosa nos traes, pues, del cielo?

- Una ramita de olivo, dada por la Virgen.

– Dada por la Virgen y ¿para cuándo reservada?

- Para el día de Ramos señalada.

– Ramos está lejos y si se marchitara...

- Si ésa se marchita, se trae otra.

*En el cielo hay muchas ramas de olivo;
ramas de olivo y flores de lirio.*

*Flores de lirio y santos y santas:
no se marchitará ninguna cosa del cielo.*

*El padre San Pedro es el llavero (portero) del cielo.
¡Ah, si el Señor me hiciera dueño de la llave!*

*Para abrirlle (la puerta) a mi padre;
primero al padre y después a la madre.*

*De allí adelante a todo el mundo,
de allí adelante a todo el mundo.*

Santuak

(Santoral)

"Goazen San Juanera..."

I

Goa-zen San Ju - an - e - ra gaur a - ra - tse - an, e - to - rri - ko ge -
ra - la bi - ar goi - ze - an. Goa-zen San Ju - an - e - ra ber - du - ra - ta -
ra, ber - du - ra - ta - ra e - ta an e - goi - te - ra.

Goazen San Juanera gaur arratsean,
etorriko gerala biar goizean.

Goazen San Joanera berduratara,
berduratara eta an egoitera.

Egungo egun onek San Juan diruri,
ezta San Juan, baia ala lonbra bedi.

San Juango iturriaren ondo-ondotik,
zazpi iturri urre-kañoetatik.

Zortzigarreña ere metal zurietatik

.....

Lenbiziko eskuak ta gero musua,
San Juanen iturriko uraren freskua!

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 839 zenbakian, 975 orrialdean, Urdiainen, Maria Martina Goikoetxearen aotik jasoa.

Ondoren onela dio Azkuek: “*¡Qué lindas fueron todas las canciones de la cieguecita de Urdiain, María Martina!*”.

Juan San Martinek ere argitaratu zuan kanta au bere *Donibane kantak* idazlanean, *Hoja del Lunes de San Sebastián* periodikoan, 1976-VI-21-ean, Azkueren kantutegitik artuta.

II

Egun bai, egun onek San Juan diruri,
ez da San Juan, baia ala alunbra bedi.
Guazen San Juanera gaur arratsian,
etorriko gerala biar goizian.

Guazen San Juanera berduratara,
berduratara ta an egotera.
Juan nintzan Fraintziara, etorri Maiatzian,
zalditxo urdiñian, astuaren gainian.

San Juango iturriaren ondotik.
zazpi iturriurre-kainuetatik,
zortzigarreña metal zurietatik,
zortzigarreña metal zurietatik.

San Juan iturrian dago ura berde,
amurraitzo freskuak antxen dirade;
lemizko eskua eta gero musua,
San Juan iturriaren freskua!

Jesukristoren lengusuba da
Aita San Juan Bautista,
aingeruan dantzan dabiltza,
dabiltza, baia dabiltza,
San Juanen pozian dabiltza!

Andra mutur maketsa,
aingeruak dantzan dabiltza,
dabiltza, baia dabiltza,
San Juanen pozian dabiltza.

San Juan garagarrillian,
denbora galantian!
Maizik eta garik
ez dagonian etxian.

Jose Maria Satrustegi: *Principe de Viana* aldizkarian, 1968, Garagarrilla, *San Juanen kantaita* izenburuarekin; Urdiaingo Luzia Zufiaurreri 1966-an jasoa, aurretik onela esanez:

“Urteko egunik ederrena izaten omen zen Euskalerrian San Juan eguna. Iruzkia saltoka ateratzen zela diote. Nik ez dut ikusi. Oitura asko dira egun ortan. Urdiainen kantu polit au kantatzen zuten neska-mutillak eskutik artu-ta, bezperan”.

Goiz-Argi aldizkarian ere agertu zan aldaera au, 490 zenbakian, 1980-VI-28-an, Otamotz izenordearekin firmatzen duan batek bialduta.

III

Go-a-zen Sai Ju-an - e - ra, Sai Ju-an - kan-ta - tze-ra,
neu e-zin jo - an nin - dai - ke ain be-re u - rri - ne - ra.

Goazen Sai Juanera,
Sai Juan kantatzera,
neu ezin joan nindaike
ain bere urrinera.

Katea luze dauko
ak ene biotzera;
noz etorriko ete da
kate au libratzera?

Donianek urteoro
bere egunez goizean
señale ederra dakarsku:
izarra bularrean,

Izarra dogu Batista,
eguzkia Jesukristo,
.....
.....

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 838 zenbakian, 973 orrialdean. Legutianoko Ana María Arraitzen aotik jasoa.

Ondoren, onela dio Azkuek: “En la cuarta estrofa añadía la cantora a veces: zein eterri ete da mundura lenengoko y otras Izarra eterri da fedean fede Kristo, que parecen ser palabras para salir del paso. Su significación: “Quién habrá venido el primero al mundo” y “la estrella ha venido en la fe fe (sic) Cristo”.

Egia esateko, oso zalantzán egon gera kanta au emen jarriko ote genduan. Ez baitu Azkuek eta Satrustegik Urdiainen bildu zuten aurreko beste kanta orrekin zer ikusi zundirik.

II

*Hoy sí; este día de hoy parece San Juan;
no es San Juan, pero así se llene de luz.
Vamos a San Juan esta tarde,
que vendremos mañana por la mañana.*

*Vamos a San Juan a por ramos verdes,
a por ramos verdes y a estarnos allí.
Marché a Francia, volví en mayo,
en un caballo azul, jinete en un burro.*

*De junto a la fuente de San Juan,
siete chorros manan de caños de oro,
y el octavo de metal blanco,
y el octavo de metal blanco.*

*En la fuente de San Juan brota agua verde,
Allí están las frescas truchas;
primero (limpiámos) la mano y luego la cara.
¡Qué frescor el de la fuente de San Juan!*

*Primo de Jesucristo es
San Juan Bautista, nuestro padre;
los ángeles danzan
danzan y danzan,
con la alegría de San Juan danzan.*

*Señora de jeta torcida,
los ángeles danzan,
danzan y danzan,
animados con la alegría de San Juan.*

*San Juan en el mes de junio,
en hermoso tiempo,
cuando ni maíz ni trigo
quedá en casa.*

“San Pedro zeruko altuko...”

I

San Pedro zeru altuko
giltzaren jibia,
San Pedro geurea ta
'Zangitu' geuria.

Migel de Fernandiz zen
Urdiaingo semia,
artxek estrenatu dau
San Pedro geuria.

Artxek estrenatu ta
auzuak lagundu,
ermita seinale bat
basuan daukagu.

Urdiaingo Andre Maria
guzitan seinale,
antxe koronatu zen
Naparruako errege.

San Pedro ere,
geuria San Pedro ta
Zangitu geure.

Altsasun diran zurak
geuriak ditugu,
Mary'turrotxen sukaldian
mugarria daukagu.

Urdiaingo Andre Maria
guzitan seinale,
bribilejiuak antxe
gordetzen dirade.

Zazpi giltzaren azpiyen
ala ere daude,
aietikan bi're
geuriak dirade.

San Pedro giltzakin ta
liburuarekin,
komunikatzen zaion
Jesukristorekin,
Jesukristorekin ta
bere Amarekin.

San Pedro zeru altuko
giltzaren jibia,
goizian meza ta
arratsian salbia.

Jose Maria Satrustegi: *Diario de Navarra*, 1967-VI-22. Aurretik oar auek egiten ditu:

"Altsasuarrak diotenez, San Pedroko baso-eliza berena da. Urdindarrak, berriz, ezetz. Aiek esaten dute txokolatetan jana dutela urdindarrek; auek, berriz, mugak ikustea aski dela santua nungoan dagoan jakiteko. Auzo errien istiluak.

Asarre au dela ta kantu zaharrak ba dira Urdiain'en. Ona emen guk bildu ditugunak".

II

Migel de Fernandiz zen Urdiaingo semia. (<i>bis</i>)	korona daitekela San Pedro ere. (<i>bis</i>)
Artxek estrenatu dau San Pedro geuria. (<i>bis</i>)	Geuria San Pedro ta geuria "Zangitu", (<i>bis</i>)
Artxek estrenatu ta auzuak lagundu, (<i>bis</i>)	Altsasun diren zurak geuriak ditugu. (<i>bis</i>)
ermita seinale bat basuan daukagu. (<i>bis</i>)	Mari Itorrotxen sukaldian mugarria daukagu, (<i>bis</i>)
Urdiaingo Andre Maria guzitan seinale, (<i>bis</i>)	ura ere geure Urdiaineek eginda daukagu. (<i>bis</i>)
bibilejiuak antxen gordetzen dirade. (<i>bis</i>)	San Pedro giltzakin ta liburuarekin, (<i>bis</i>)
Zazpi giltzaren azpiyen ala ere daude, (<i>bis</i>)	komunikatzen zaio Jesukristorekin; (<i>bis</i>)
aietikan bi're geuriak dirade. (<i>bis</i>)	Jesukristorekin ta bere Amarekin. (<i>bis</i>)
Antxe koronatu zan Naparruako errege (<i>bis</i>)	San Pedro zeru altuko giltzaren jabia, (<i>bis</i>)
goizian mezia ta arratsian salbia. (<i>bis</i>)	

Jose Maria Satrustegi: *Urdiain'go San Pedro'ren kantaita, Egan aldizkarian, 1969, 1-3.* Aurretik argibide auek ematen ditu:

"Urdiain'ek ba du beko basoan elizatxo bat ixtillu frango sortu duena. Atal aurreko arri marratuak dionez, an goratua izan zen Naparroko lenbiziko erregea. Gaur dagon eran Altsasu eta Urdiain'go lurrik artzen ditu zorigaiztoko aterpe orrek; erdi erditik dijoakio muga. Hori bai, aldarea Urdiain'goan duela.

Aspaldiko epai-erabaki baten bidez Altsasuarra garagarrillaren 29'an egi-ten dute beren San Pedro festa, eta Urdiandarrak San Pedro ondoko lehen igandean. Ortako da emen esaera zaharra: "Urdiain'go San Pedro eta mundu guziko San Pedro".

Eztabaidea au dela ta mutur joka asko ezagutu omen dira bi herrien artean. Urdiandarrak diote, Altsasuarra ostua dutela lurralte hura guzia. Besteak berriz esaten diete ez ostu, ez; Urdiain'ek saldu eta txokolate (beste batzuk aguardiente) asean jana dutela.

Altsasuerri surik audiiena San Pedroren kantuak ematen zien. Urdiain'go neska mutil guziak eskutik arturik pausuka zabiltzen eran kantatu oi zuten".

Eta bertsoen ondoren onela dio:

"Auetako bertsu bakoitza errepikatu egiten zen. Beraz, binakako bertsuak ziren. Esan beharrik ez da zoin luze izaten zen kantua.

Iru edo lauengandik artu ahal izan ditugu. Osoena Juana Maria Zufiaurre eta batez ere Celestina Lizarragak zekiten. Guk emen ekartzen duguna Celestina Lizarragak esandako eran da. Alare, konturatzentz gera pundi askotan alda-ketak ba direla. Batez ere bertsu puntak eskaxak dira. Nola nehi dela, aspaldi-ko denboretako bezala jaso egin ditugu".

III

Ur-din-go An-dra-Ma-ri-a gu-zí-tan se-ñá-le, bri-bi-li ji-oak an-txe
gor-de-tzen di-ra-de zaz-pi gil-tzen ar-te-an dau-de a - la e - re
ai-e-ta - ti-kan bi-da geu-re-ak di-ra-de, San Pe-dro ze-rual-tu-ko



gil-tza-ren ya-be-a goi-ze-an me-ze-a ta a-rra-tse-an sal-de-a.

Urdingo Andra Maria
guzitan señale,
bribilejioak antxe
gordetzen dirade,
zazpi giltzen artean
daude ala ere,
aietatikan bida
geureak dirade,
San Pedro zero altuko
giltzaren yabea,
goizean mezea ta
arratsean saldea.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 907 zenbakian, 1056 orrialdean, Urdiaingo Maria Martina Goikoetxearen aotik jasoa.

Bere ortan utzi badegu ere, azken itzak *salbea* bear duala dudarik ez da. Satrustegik dakarren bezela, alegia. Gaizki esango zioten Azkueri, edo berak oker entzun.

IV

San Pe-dro, ze - ru - al - tu - ko gil - tza - ren yau - be - a:
 zeu - re - a txa - lo - pe - a, neu - re - a sa - re -
 a. Go - ra, go - ra Pe - dro Juan.

San Pedro zero altuko
giltzaren yaubea:
zeurea txalopea,
neurea sarea.
Gora, gora, Pedro, Juan.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco*, 891 zenbakian, 1038 orrialdean. Lekeition, Krisostoma Bengoetxearen aotik jasoa.

Lekeitioko kanta onen asiera eta Urdiaingo kantaren bertso bat oso antzekoak dira. Lekeitiotik, ordea, bertso bakarra degu eta ezin esan beste berdinatasunik bai ote zuten.

II

*Miguel de Fernández era hijo de Urdiain,
él inauguró nuestra ermita de San Pedro.*

*Él la inauguró y la vecindad le ayudó,
una ermita señalada tenemos en el bosque.*

*La Virgen María, de Urdiain, es entre todas destacada,
allí se guardan los privilegios.*

*Así y todo están bajo siete llaves,
dos de ellas son nuestras.*

*Allí fue coronado el (primer) rey de Navarra,
también San Pedro podría ser coronado.*

*Nuestro es San Pedro y nuestro “Zanguitu”.
Las maderas que hay en Alsasua son nuestras.*

*En la cocina de Mari Itorrotx tenemos el mojón,
que también él lo hizo por nuestro Urdiain.*

*San Pedro, con las llaves y el libro,
se comunica con Jesucristo,
con Jesucristo y con su madre.*

*San Pedro, dueño de la llave del alto cielo;
por la mañana la misa y por la tarde la salve.*

"Maria Magdalena bere egunean..."

I

The musical notation is in 2/4 time with a key signature of one sharp. The melody consists of two staves. The first staff begins with a quarter note followed by eighth notes. The second staff begins with a half note followed by eighth notes. Measure numbers 3 and 6 are indicated above the staves. The lyrics are written below the notes.

Ma - ri - a Mag - da - le na be - re e - gu - ne -
an Se - da mo - rez jan - tzi - a be - re so - ñe - an.

Maria Magdalena
bere egunean,
seda morez jantzia
bere sonean.

Juan zan elizara
zaldi urdinean,
jarri zan belauniko
pulpitu-pean.

San Juan Ebanjelistak
meza ura ematen,
Kristo bera zeguen
meza arri laguntzen.

Ama Santisima berriz
meza ura entzuten,
eta amabi apostoluak
koruan kantatzen.

Batzubek etxera eta
bestiak maira,
eta Maria Magdalena
mairen azpira.

– Maria Magdalena,
zer dezu orrela?
– Jauna, nere pekatuak
jarri naute onela.

– Barkatzen dizut bada
onari bezela,
onari bezela eta
zu santa zerala.

Aingerutxuak, artu zazute
anima on au eskutik,
eta eraman paraisora
beste guzien ganetik.

Aita Jose Antonio Donostiak jaso eta Baionako *Gure Herria* aldizkarian argitaratua 1937-an, bigarren zenbakian, *Suplemento Musical* izenekoan. Bertsoen ondoren oarau egiten da:

“Texte recueilli à Rentería de Paquita Iragui. La musique m'a été communiquée par l'abbé Juan Bautista Olaizola. (Juillet 1936)”.

Baita ere: P. Donostia, *Cancionero Vasco, II*, Donostia, 1994, 768 zenbakian, 1055 orrialdean, argibide auekin:

“Infor.: D. Juan Bautista Olaizola, sacerdote. Loc. rec.: Rentería. Fecha: julio de 1936. Clas.: narrativa.

Ref.: “Texto recogido en Rentería, por Paquita Iragui. La música me fue comunicada por el sacerdote D. Juan Bautista Olaizola”.

I

*Maria Magdalena, en su día,
vestido su cuerpo de seda morada.*

*Fue a la iglesia en un caballo azul,
se puso de rodillas debajo del púlpito.*

*San Juan Evangelista celebraba aquella misa,
el mismo Cristo estaba ayudándola.*

*La Madre Santísima, en cambio, oía aquella misa,
y los doce apóstoles cantaban en el coro.*

*Algunos (se fueron) a casa y otros a la mesa,
y María Magdalena a debajo de la mesa.*

*- María Magdalena, ¿qué haces de esa manera?
- Señor, mis pecados me han puesto así.*

*- Pues te los perdono como a buena,
como a buena y santa que eres.*

*- Angelitos, tomad a esta alma buena de la mano,
y llevadla al paraíso por delante de todas las otras.*

"Bieta Santa Klara..."

I

Bieta Santa Klara,
euskeraz Argia,
zeu zara zeruetan
dontzella garbia.

Amaren sabeletik
zenduan grazia,
munduan izateko
ejenplu bizia.

Alkargana baturik
ari-koskortxuak,
erreza oi zenduzan
erosariuak.

Palma eder bategaz
Erramu-goizean
agertu izan ziñan
Asis'ko kalean.

Aita San Prantziskua
padriño arturik,
esposa izan ziñan
ait-amen ixillik.

Amazazpi urtegaz
monja sartu ziñan,
monja sartuta bere
Klara izan ziñan.

Ogi bakar bategaz
monjak janaritu;
ogi bakar bategaz
erdia gelditu.

Eskuetan dakazun
gauzaren andia!
Kustorio batean
Jesusa bizia.

Konbentuko atean
zinduten ikusi:
ikusi eta bertan
moruak igesi.

– Uso txuri ederra,
zeruan zer barri?
– Zeruan barri onak
orain eta beti.

II

Bieta Santa Klara,
euskeraz Argija,
zeu zara zerubetan
dontzella garbija.

Amaren entrañetan
zenduan grazija,
munduan ipinteko
exenplu andija.

Zure aurtasuneko
denbora guzija
izan zan erreguzko
exenplu bizija.

Alkargana baturik
arri koskortxuak,
kontatu oi zenduzan
erosarijuak.

Amazazpi urtera
allegatu gabe,
Jesusen tesoruen
egin ziñan jabe.

Palma eder bategaz
Erremu goxian
agertu ixtan ziñan
Asis'ko kalian.

Amazortzi urtetan
moja sartu ziñan,
moja sartuta bere
Klara izan ziñan.

Aita San Prantziskua
padrino arturik,
esposa izan ziñan
ait'amen ixilik.

Berrogetamar moja
ditu janaritu
ogi bakar bategaz,
erdia gelditu.

Eskuan daruazun
gauzaren andija:
kustorijo batian
Jesusa bizija.

Zu ikusirikan
moruak igesi;
Sakramento Santua
zizuten ikusi.

– Uso zuri ederra,
zeruan zer berri?
– Zeruan berri onak
orain eta beti.

Ontzijaren punteko
bandera gorrija
zu zera, Santa Klara
dontzella garbija.

Mojen erregaluak
intxaurrak oi dira;
aijek ere guztijak
bai piñak balira...

Manuel Lekuona: *Idaz-lan guztiak, I, Aozko literatura*, 1978, 469 orrialdean.

II

(Traducción de don Manuel Lecuona)

*Beata Santa Clara, en euskera Argia,
vos sois en los cielos doncella pura.*

*En las entrañas de la madre tuviste gracia(1)
para poner en el mundo gran ejemplo.*

*Todo el tiempo de tu niñez
fue vivo ejemplo de oración.*

*Reuniendo pedrezuelas
solías contar los rosarios.*

*Aun antes de llegar a los diecisiete años,
te hiciste dueña de los tesoros de Jesús.*

*Con una hermosa palma la mañana de Ramos
te apareciste en la calle de Asís.*

*A los dieciocho años entraste monja;
aun después de entrar monja fuiste Clara.*

*Tomando por padrino al Padre San Francisco,
te desposaste sin saberlo tu padre ni tu madre.*

*A cincuenta monjas dio de comer
con un sólo pan; (y) sobró la mitad.*

*¡Qué gran cosa llevas en la mano!
En una custodia a Jesús vivo.*

*Al verte, los moros (se fueron) huyendo;
te vieron el Santo Sacramento.*

– Hermosa paloma blanca, ¿qué nuevas (hay) en el cielo?
– En el cielo buenas nuevas ahora y siempre.

*Roja bandera de la punta del barco
eres tú, Santa Clara, casta doncella.*

*Los regalos de las monjas sueles ser nueces;
y aun ellas si todas fueran buenas...*

(1) "Fuiste destinada". (Nota de M. Lecuona)

“Jesus esanda abietzen naiz...”

I

Jesus esanda abietzen naiz
ematen printzipiua,
San Ignazio Loiolakua
kapitan balerosua.

Orain zeretzat ipiñi debe
izen egiazkua,
izen egiazkua eta
Kristoren biotzekua.

Egun batian zinjuazela
morallaren gañian,
nun balazuaz eman zizuen
zure gidalla ederrian.

Zauriarekin etorri ziñan
zeure Loiola torrera,
zeure Loiola torrera eta
zeure aita eta amaren etxera.

Egun batian zionzala
zere Loiola torrean,
pensamentuak onak etorri
zure aragi dulzean.

Pensamentuak jarri eta
tentaziuak aurrian,
fuertemente bota zinduzen,
ausi bidrigaduria.

Egun batian zinjuazela
Parisko ziudadean,
pariseuak sartu zinduzen
kartzela illun batian.

¿Ignazio pena zer zan?
Bere astotxo gosia,
zerren ark erabiltzen zion
bere libru-kargia ta soñeko kapia.

– Ignazio, jaiki, jaiki,
guazen gere bidean.
– Andria, nola jaiki al ninde
onen burnien artean.

– Ignazio, jaiki, jaiki,
guazen gere bidean.
– Andria nola jaiki nindeke
onen burnien artean?
– Burniak argizaiak dira
or zauren artean.

– Ignazio, anima zaitez,
ase da zure gosia:
bere pesebrian sobratuta dauka
garagarra ta babia.

Tolosako Isaak Lopez-Mendizabal jauna zanak bialdua. Esku-idazki bat da, XVIII mendeko letra duana, gure iritzirako beintzat.

Azken bertsoaren bigarren lerroan, *zur*e dion ortan, *bere* edo *beraren* esan beariko lukela derizkiogu, astoarengatik ari da eta.

I

*Diciendo Jesús voy a dar comienzo;
San Ignacio de Loyola (fue) capitán valeroso.*

*Ahora te han aplicado a ti un nombre de verdad,
un nombre de verdad y según el corazón de Cristo.*

*Yendo cierto día por encima de la muralla,
he ahí que te hieren de un balazo en tu hermosa pierna.*

*Viniste con la herida a tu torre de Loyola.
a tu torre de Loyola y a casa de tu padre y tu madre.*

*Estando cierto día en tu torre de Loyola,
buenos pensamientos vinieron a tu dulce carne.*

*Vinieron los pensamientos y las tentaciones (se te pusieron) delante,
te combatieron con fuerza, quedó rota la vidriera.*

*Yendo cierto día por la ciudad de París,
los pariseos te encerraron en una oscura cárcel.*

*¿Cuál era la pena de Ignacio? Su hambriento asno,
porque él le llevaba su carga de libros y la capa de su cuerpo.*

– *Ignacio, levántate, levántate. Sigamos nuestro camino.*
– *Señora, ¿cómo me levantaré de entre estos hierros?*

– *Ignacio, levántate, levántate, sigamos nuestro camino.*
– *Señora, ¿cómo me levantaré de entre estos hierros?*
– *Los hierros son de cera mientras estés ahí.*

– *Ignacio, ánimate; se ha saciado su hambre:
en su pesebre han quedado de sobra cebada y habas.*

“Loiolan jaio izan zan seme noblia...”

I

Loiolan jaio izan zan seme noblea,
bekatari askoren konbertidorea;
orra Jabier zure anaiea,
erakusten digula zerura bidea.

Ziudade noble Panplonakoa,
an eritua izan zan gure santua,
balaz eritu eta iraila ausirik,
morallatik jatxi zan guztia galdurik.

Andikan Loiolara pasatua izan zan,
goinengo kapillan kuratua izan zan;
mediku barberuak desauziaturik,
mundu triste onetzaz ondo bildurturik.

San Pedro apostolua zerutik jetxirik,
Inazio libratzeko peligro artatik.
Ai zer medikua zan! Gizon ditxosua!
San Pedrok eldu dio Inaziori pulsua.

R. M. Azkueren esku-idazkietan azaldu da kanta au. Iñun argitaratu gabea dala uste degu. Doiñuaren gaiñean Azkoitia itza ageri da. Erri ortan jasoa dala adierazi naiko du. Baiña ez du emalearen izenik esaten.

Doiñu ori ez degu onera aldatzerik izan, oso illun idatzita dago eta.

Bigarren bertsoaren irugarren lerroan *iraila* irakurtzen degu. Baiña *gidaila* bearko luke agian.

I

*En Loyola nació un noble hijo,
convertidor de muchos pecadores;
he ahí a Javier, vuestro hermano,
que nos enseña el camino del cielo.*

*Noble ciudad la de Pamplona,
allí fue herido nuestro santo,
herido de bala y fracturada la pierna,
cayó de la muralla muy perdido.*

*De allí fue llevado a Loyola,
en la capilla de arriba fue atendido;
deshauciado de los médicos barberos,
lleno de temor hacia este triste mundo.*

*El apóstol San Pedro bajó del cielo
para librar a Ignacio de aquel peligro.
¡Oh qué médico! ¡Hombre dichoso!
San Pedro le ha tomado a Ignacio el pulso.*

Erromantze-puskak

(*Fragmentos*)

Erromantze-puskak

I

Musical score for "Erromantze-puskak" in 3/8 time, key of G major. The score consists of eight staves of music with lyrics in Spanish. The lyrics are as follows:

Bein ba - tez bi - lla - tu nu - en da - - - - ma
 gaz - te e - der bat ne - ga - rrez
 bi - de ba - te - an ba - kar ba - ka - - - trik
 e - ta a - si nin - tzai - on gal - dez: Zer de -
 zu, ne - re mai - te po - li - - - ta, e - san
 za - da - zu fa - bo - rez, mal - ko diz - ki - zun o - ri - ek
 di - - - ra a - mo - rez a - la do - lo - rez.

Bein batez billatu nuen dama
gazte eder bat negarrez,
bide batean bakar-bakarrik,
eta asi nintzaion galdez.

– Zer dezu, nere maite polita?
Esan zadazu faborez:
malko dizkizun oriek dira
amorez ala dolerez?

Kanta au Azkueren esku-idazkietan azaldu da. Ez degu uste iñun argitaratu zuanik. Berak Irunen jaso omen zuan, baiña emalearen izenik etzuan idatzi.

II

Andante con moto

Bart - ko frai - le - a - ren soi - nu - joi - tze - a
on - gi gus - ta - tu zait, a - ma ne - re - a.
Bal - din nai ba - de - zu ne - re - kin pa - ke - a,
e - ka - rri bear - ko de - zu bart - ko frai - le - a.

– Bartko frailearen soinu jotzea
ongi gustatu zait, ama nerea.
Baldin nai badezu nerekinko pakea,
ekarri beariko dezu bartko frailea.

Kanta au Azkueren esku-idazkietatik artua da. Ez degu uste iñun argitaratu zuanik. Naparroan bildu zuan berak, Larraungo Madotz errian, Luisa Goñiren aotik. Ondoren onela dio:

“Posible es que esta canción provenga de la canción bizkaina Leisibatxua. de ella ofrece no sólo la melodía sino hasta la letra”.

Azken esaldi onen leenengo itza ez degu ulertzen Azkueren esku-idazkian.

III

Gu-re bor-tan nor-bait ba-da Ja-un Bi-ka-ri-a o-te da?
 Ja-un bi-ka-ri-a, ja-un bi-ka-ri-a, ja-un bi-ka-ri-a o-te da?
 Ja-un bi-ka-ri-a bal-din ba-da doa-ie-la me-meza_e-mai-te-ra.

Gure bortan norbait bada,
 Jaun Bikaria ote da?
 Jaun bikaria, jaun bikaria,
 jaun bikaria ote da?
 Jaun bikaria baldin bada
 doaiela meza emaitera.

Kanta au ere Azkueren esku-idazkietan agertu da, eta argitara atera gabe gelditu zala uste degu. Berak Naparroan jaso zuan, Elizondon, Leontzio Iturreralderen aotik.

IV

Andante con moto

Gu-re or-tu-an sa-ga-rra lo-ran Do-ni-a-ne-ko el-du-rrik a-ren
 az-pi-an u-so bi-dan-tzan e-de-trrik e-ta ga-lan-tik.

Azkueren esku-idazkietan azaldutakoa kanta au ere, eta iñun argitaratu gabea, oker ez bagaude beintzat. Berak Araban bildu zuan, Legutianon. Baiña emalearen izenik ez du ematen.

Legutianon *Donianeko* ala *San Juanetako* esan ote zioten?

V

Allegretto

I - ru e - rre-gen e - gu - na da ta de - za - gun be - re kan - te -
U - dan otz e - ta ne - gu - an e - pel i - tu - rri na - tu - ra - le -
a an de - za - gun be - re kan - te - a e - ta on - gi e - ran - tzun, jen - te - a.
i - tu - rri_o - rre - tan zan ba - te - a - tu Kris - to e - rre - den - to - re - a.

Iru Erregen eguna da ta
dezagun bere kantea,
dezagun bere kantea eta
ongi erantzun, jentea.

Udan otz eta neguan epel
iturri naturalean,
iturri orretan zan bateatu
Kristo Erredentorea.

Azkueren esku-idazkietan azaldutakoa kanta au ere, eta argitara eman gabea. Berak Bizkaian bildu zuan, Arratian, Zeanuri errian, Paula Bilbaoren aotik.

VI

Andante con moto

Jaun ka - pi - tai - na in - da - zu li - zen - tzi - a e -
Nik ez - ti - at ez per - mi - si - o - ne - rik hi -
txe - ra joai - te - ko ba - nu - ke gu - ti - zi - a e - ne a - hai -
ri e - mai - te - ko kon - be - ni ze - rau - ta - nik e - rrak: ba - du -

der a - di - os e - rrai - te - a kon - be - ni ba - zai - zu
ka hik deu - se-ren es - ka-sik? on - tsa jan zak e - ta

e - ne_e - txe - ra uz - te - a.
i - za - nen duk e - da - ri.

– Jaun kapitaina, indazu lizentzia:
etxera joaiteko banuke gutizia,
ene ahaider adios erraitea,
konbeni bazaizu ene etxera uztea.

– Nik eztiat, ez, permisionerik,
hiri emaiteko konbeni zerautanik.
Errak: baduka hik deuseren eskasik?
Ontsa jan zak eta izanen duk edari.

Azkueren esku-idazkietatik artua da kanta au ere, eta argitara eman gabea, uste degunez beintzat. Berak Baxenabarren jaso zuan, Donazaharren. Baiña emalearen izenik ez du esaten.

VII

– Jauna, epe; Jauna, epe,
dagidan penitentzia,
pekatuak konfesatute
alda dezadan bizia.

– Egun da sekulan eztet ukatu
nik nere Amaren esanik;
aingeru onak, jaso zazute
pekataria lurretik.

Beste kanta au ere Azkueren esku-idazkietatik artu degu. Argitaratu gabe gelditu zala uste degu. Berak Naparroan jaso zuan, Larraungo Baraibarren, Juana Argiñarenaren aotik.

Bertso geiago izango ziran, noski. Bi auetatik, leenengoa pekatari batek esaten du. Bigarrena, berriz, Jesukristok, pekatari ori zeruan artuz, Ama Birjiñaren bitartekotzari esker.

VIII

Beleren, bai, Beleren,
Jaio da jesus Nazaren,
Nazareneko gurea,
Gauon gauaren luzea.
Ikusi nuen San Jose
astotxu baten txalmatzen,
astotxu baten txalmatzen eta
Birjina (y) Ama apaintzen.

Azkueren esku-idazkietatik kanta au ere, eta argitara eman gabea, uste de-gunez beintzat.

IX

I - ru E - re - ge o - rien - te - tik
Gas- par, Mel - txor ta Bal - ta - sar o - iek i -
ru - rak o - men ze - ki - ten Tri- ni- da - de - a no - la zan.

Iru errege orientetik
Gaspar, Meltxor ta Baltasar,
oiek irurak omen zekiten
Trinidaddea nola zan.

Kanta au Azkueren esku-idazkietan azaldu da, eta ez degu uste iñun argitaratu zanik. Berak Tolosako Baleriano Mokoroa zanari jasoa da. Jaun au Aita Justo Mari Mokoroa zanaren aita zan.

X

Ain-ge-ru-txo bat e-to-rrí zi-tzaitzun, ez o-toi Ma-ri-a dur-di-tu, ze-rú-ko
 Je-su-sen A-ma i-zai-te-ko ez-tut me-re-zi-men-tu-rik, Ai-ta-e-ter-
 man-da-ta-ri-a naiz ta on-do_a-di-tu be-ar nai-zu, on-do a-di-
 no-ak zu za-duz-ki be-re-tzat es-ko-ji-tu-rik, ar-tu-ko dut
 tu, on-do a-di-tu: Je-sus-en a-ma bear de-zu. di-en mun-du-
 nik zu-re frui-tu-a sal-ba da
 a, i-zan-en da be-dei-ka-tu-a.

Aingerutxu bat etorri zitzaitzun:
 - Ez, otoi, Maria durditu;
 zeruko mandataria naiz ta
 ondo aditu bear naizu,
 ondo aditu, ondo aditu:
 Jesusen Ama bear dezu.

- Jesusen Ama izaiteko
 eztut merezimenturik.
 - Aita Eternoak zu zaduzki
 beretzat eskojiturik.
 - Artuko dut nik zure fruitua
 salba dadien mundua,
 izanen da bedeinkatua.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 723 zenbakian, 843
 orrialdean: Baztanen, Lekarotzen, Frantziska Mendibururen aotik jasoa.

XI

Ü-har-te-yau-re-gi-a-bi-ur-en-ar-te-A-di-o-Ka-ta-li-na-e-ta-Ma-ri-a

an, kan - tho - re hoi - en su - jet - a han du as - pal - di -
na, ni o - rai ba - no - a - zu Es - pai - ni - an bar -

an. Bil - ho - a fri - ja - tü - rik xa - pel - a bü - rü -
na. Ni o - rai ba - no - a - zu Es - pai - ni - an bar -

an: ha - ren pa- re - rik ez - ta bes - te bat mün - dü - an.
na, ez - pei - niz ü - tzü - li - ren se - gür - ki be - ra - la.

Üharte yauregia
bi uren artean,
kantore hoien sújeta
han du aspaldian.
Biloa frijatürük
xapela bürüan,
haren parerik ezta
beste bat mündüan.

Adio, Katalina
eta Mariana,
ni orai banoazü
Espanian barna.
Ni orai banoazü
Espanian barna,
ezpeiniz ützüliren
segürki berala.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegian, 903 zenbakian, 1051 orrialdean. Ondoren oar auek ematen ditu:

"Lo aprendí en Atharratze (Zuberoa).

El palacio de Uharte está, parece, junto a Mauleón".

XII

Odeiak ülün ziren juan den gaüan,
halere juan nintzan ene bidajian;
maitiaz arrankontrü egin, berbera etxian,
zer plazer hartu nian ene bihotzian!

Bertso au Agustín Chaho zanak (1810-1858) osatu eta Telesforo Monzón zanak bereganatu zuan bildumatik ditugu. Orain urte-mordoa aztertu gen-

duan bilduma ori; baita katalogo-moduko bat egin ere. Liburu au prestatzera-koan ez degu berriz ikusterik izan. Baiña sail batzuen leenengo bertsoak leen kopiatuta genituan. Oietako bat auxe, ondotik bi oar auek eransten genizkiola: “amabi bertso” eta “*romance, señales de transición*”.

XIII

Kantatzera nuazü zumbait bertsoren,
ezpeitüt deklaratzen nurentzat diren;
ez eta gütiago hal'eztenik erranen,
amurekatik nihork gaizki har ez nezan.

Bertso au ere A. Chaho zanaren bildumatik degu, or goien esan bezela kopiatuta eta oar auek erantsiak: “*amalau bertso*”, “*amoríos, romance o transición*”. Baiña, bertso ortatik juzka ditekenez, amodiozko bertsoren batzuk gelago dirudite, erromantze zaar bat baiño.

XIV

Agorrilaren erdian,
Anderedena Marian,
dispüta bat izan umen da Gabadiko herrian,
lili txarmant bat eraman date lau jendarmen artian.

Bertso au ere A. Chaho zanaren bildumatik, oar auek erantsita: “sei bertso” eta “*tipo romance, transición*”.

XV

Etxabarre herria Muntaña undoko,
okasione bada kantore egiteko;
süjet bat baginizün saxe ezinago,
bertütiak maneatü hari espatero.

Alargüntsa nizala hirur urte badü,
tristüra handi bat düt geroz presentatü...

Bertso ta erdi auek ere A. Chaho zanaren bildumatik, oar auekin: “zortzi bertso” eta “*romance o transición*”.

Erdi Aroko kantak

(Cantares de la Edad Media)

Erdi Aroko zenbait euskal testu eskeintzen dizkigute gure istorilari zaarrak. Gure izkuntzaren leenengoetako idazkiak diran ezkerro, mesede bikiña egin ziguten, naiz eta ulertu-errezzak ez diran. Oietako batzuek, ez danak noski, baiña bai kantak diranak, liburu ontan bear zuten. Irakurleak orrela konparatu aal izango ditu Erdi Aroko pusketa aiek, folklorezaleak andik zenbait gizalditara erriaren aotik jaso eta erromantze izena eman zieten beste kanta zaar auekin.

Nuestros viejos historiadores nos legaron varios textos vascos de la Edad Media, primeras muestras de nuestra lengua, con lo que nos hicieron un favor inestimable, a pesar de que no sean fáciles de entender. Era preciso incluir en este libro algunos de ellos, no todos desde luego, sino únicamente los cantares. Así podrá el lector comparar aquellos fragmentos medievales con estos otros viejos cantares que los folkoristas recogieron de boca del pueblo varias generaciones más tarde, dándoles el nombre de romances.

(1321)

Beotibarko kantak

I

Mila urte igarota
ura bere bidean.
Gipuzkoarrok sartu dira
Gazteluko etxean,
Nafarrokin batu dira
Beotibarren pelean.

Kanta au toki askotan agertua da. Oietako bat: Esteban de Garibay-k, bere *Compendio Histórial-en* (libro 26, cap. 15). Aurretik onela dio:

“Esta victoria, que entre los guipuzcoanos fue muy celebrada, pasó el dicho día diecinueve de Septiembre (año de 1321), y refiérese haber sido tantos los muertos que parece cosa increíble, y hasta ahora se conservan cantares antiguos hechos en memoria suya, no sólo en la lengua castellana, cuyo comienzo es de esta forma: “De Amasa sale Gil López / de Oñaz y de Larrrea, / al encuentro de franceses / para lidiar en pelea”, mas también en la natural de la misma tierra...”.

Kanta eskeiñi ondoren, itzulpena ematen du:

“...cuya significación es decir que aun pasados los mil años, va la agua su camino, y que los guipuzcoanos habían entrado en la casa de Gaztelu, y en pelea se habían topado con los navarros en Beotibar”.

Kanta onek, leen esan degun bezela toki askotan agertua izanik, aldaketa batzuk baditu batetik bestera. Oien berri idazle auek ematen dute: Juan Carlos Guerra: *Los Cantares antiguos del euskera, San Sebastián, 1924; Luis Mikel Chelena: Textos arcaicos vascos, Madrid, 1964.*

II

Beotibarko zelaiak
len illunak gaur alaiak!
Beotibarko arkaitzetañ
frantzesak gure oñetan.

Arro asko sartu ziran,
umil asko irten ziran,
Oñaz, agintari aundia,
zuretzat gure bizia!

– Nora zuaz, Oñaz jauna,
frantzes jende arengana?
Edur maluta ugaria,
ugariago etsaia.

Jun dira emendik betiko,
ez dira iñoz etorriko,
beti euskaldun mendiak
ez besterentzat gaziak.

Larrean emaztetxuak
begian negar malkuak:
– Atoz lenbailen etxera,
bestela oso galdu zera.

– Aurrera, mutil maitiak,
etxera dollorkumiak,
ill emen edo garaitu
– Oñaz jaunak esaten du.

Zein gelditzen da atzian
Oñaz ikusita aurrian?
Zu zera nere nagusi,
zurekin il edo bizi.

Juan Carlos Guerra: *Los Cantares antiguos del euskera*, San Sebastián, 1924, 66 orrialdean, aurretik argibide auek emanez:

“Pero las canciones de Beotibar verdaderamente populares se conservaron en la alta Guipúzcoa por tradición oral y por un viejo manuscrito que el vascófilo don Claudio de Otaegui (1836-1890) tuvo ocasión de copiar en su juventud, facilitando luego su copia al respetable jurisconsulto don Pedro Nolasco de Sagredo. Recuerda este señor, a cuya buena amistad y profundo saber debo tantas enseñanzas, que Otaegui relataba cómo en su niñez había aprendido él las canciones de Beotibar, por cantarlas los chicos en su pueblo, y luego un sacerdote le había enseñado un manuscrito antiquísimo y oscuro de puro viejo, que contenía las siguientes estrofas”.

Bertsoen ondoren, itzulpena ematen du:

“Praderas las de Beotibar
antaño lúgubres, hoy placenteras;
en los peñascales de Beotibar
los franceses (sucumben) a nuestros pies.

Muy arrogantes entraron,
muy humillados salieron,
Oñaz, gran capitán,
para tí (son) nuestras vidas.

– ¿A dónde vas, señor Oñaz,
donde esa gente francesa?
Si abundante (es) el copo de nieve,
más abundante (en guerreros) el enemigo.

En Larrea la mujercita,
con lágrimas en los ojos (exclama):
– Ven cuanto antes a casa,
que de otro modo estás completamente perdido.

- Adelante, muchachos queridos,
a casa los hijos de villanos (cobardes),
morir aquí o vencer
-El señor Olaz lo dice.

¿Quién queda a retaguardia
a Oñaz viendo adelante?
Tú eres mi jefe,
contigo (quiero) morir o vivir.

Marcharon de aquí por siempre,
no vendrán (ya) jamás;
siempre los montes de los euskos,
amargos para otros que no ellos.

Ondoren onela esaten du:

"Estas siete estrofas bellísimas, en versos octosílabos, son de antiguedad innegable; pero posteriores seguramente a la facienda de Beotibar, al menos en la forma en que han llegado a nosotros. Basta compararlas con las coplas de Gómez González en los cantares de Mondragón (un siglo posteriores al episodio tolosano)...".

Gure iritzirako, kanta au ez da oso zaarra. Aurrerago, berriz, onela dio Guerra jaunak:

"Desconoció esta poesía José Manterola al publicar en 1878 los *Cantos Históricos de los Bascos*. Ignorábala también Araquistain en 1866 al incluir en sus *Tradiciones Vasco-Cántabras* la titulada Beotibarko zelaya, que es la sexta. Pero las insertó el año 1882 en su novela *El Basojaun de Etumeta*, adicionadas, o mejor dicho glosadas, con otras seis estrofas, que, a mi juicio, son posteriores y notoriamente inferiores, y que acusan (salvo, tal vez, la primera que tiene cierto dejo popular, un origen eruditio)".

Urrena, sei bertso oiek eskeintzen ditu. Baiña nabarmena da berriak dirala, eta ez derizkiogu emen jarri bearrok diranik.

(1388-1401) **Urruxolako kanta**

Gaiza zenduan Lenizanok
Urruxolako lekayoa,
sendo zenduan odol ori
biurtu jaku gazayoa.

Urruxolako burrukaren kanta,

Juan Carlos Guerra: *Los Cantares antiguos del euskera*, San Sebastián, 1924, argibide jakigarri asko emanez.

Guerra jaunaren iturria: "Juan Pérez de Lazarraga, Señor de la torre de La-re-a, en la Hermandad de Barrundia, en el capítulo 12 de la Relación genealógica de su linaje de Elazarraga..."

Burruka ori, Guerraren iritziz, 1388-tik 1401-era bitartean gertatu omen zan.

Guerra jaunak argibide auek ematen ditu aurretik, Lazarragari kopiaturaz:

"Llegado pues el día en que había de ser la sangrienta y dura determinación del caso, ninguna de las partes lo puso en descuido, sino que con alegres y animosos rostros llegaron al puesto tan en uno que no se pudo conocer primitiva. Y, sin dar lugar a tan largos y prolijos razonamientos, se resolvieron de manera que, sobre muchas muertes y descalabros, fueron los lenizanos desbaratados y vencidos, y quedaron los de Oñate vencedores, aunque a mucha costa de Pedro de Garibay, su caudillo, que de una herida que entre otras le dieron en la escaramuza, murió dende a pocos días, sin que de él quedase hijo sucesor en la casa Garibay. Pero sentía tan poco el daño de sus heridas del gozo y contento que llevaba de haber vencido a sus contrarios, que se dice de él que venía cantando aquél leloa viejo que aún al presente dura..."

Luis Michelena: *Textos arcaicos vascos*, Madrid, 1964, 69 orrialdean.

Iñaki Zumaldeker ere ematen du kanta onen berri, bere *Historia de Oñate liburu*, San Sebastián, 1957, 207 orrialdean.

Onek, Guerrak eskeintzen duan testua eman ondoren, bestek nola idatzi duten aztertzen du, azkenean bere iritziz nola bearko zuan esateko:

Gayça cenduan leinztarroc
Urruxolako lecayoa,
sendo cenduan odolori
biurtu jaçu gaçatoa.

Guerrak dionez, kanta ori, XVII-ko esku-idatzietan, beste onela agertzen omen da:

Lenizano soberbioa
Urruxolako lekaixoa
edukiagatik biotz braboa
oztu jatzu odol sendoa.

(1443) **Aramaioko kanta**

Izarragatik gora elzian joxala,
jaun Peru Abendañoko zexola:
“Oñetako lur au jabilt ikara,
gorputzeko lau aragiok bezala.

Oi aldi oneri al banegi enpara!
Berriz enendorke Aramaio kontrara.
Mendiola il deustak Gaxto Apala.
bere laguntzat beste asko ditubala.

Juan Carlos Guerra: *Los Cantares antiguos del euskera, San Sebastián, 1924.* Burruka ori 1443 urtean gertatu omen zan. Guerrak onela dio:

"Corrian los días turbulentos del reinado de don Juan II de Castilla, en los que, según frase de Garibay, "por la poca fuerza y autoridad de la justicia real hubo en estos reinos muchas guerras y divisiones y grandísimos daños, y el fuego de Castilla saltaba al instante a estas tierras del Ebro a la mar en sus parcialidades de Oñaz y Gamboa", cuando Gómez González de Butrón, Comendador de Mora de la Orden de Santiago, Señor de las casas de Butrón y Muxica y el caballero de más poder que hubo en Vizcaya en sus tiempos, levantó el año 1443 sus parentes de ambos solares y arremetió a los gamboinos, quemándoles los cadalsos y fortalezas de Zugasti, Lezama, Fica, Belendiz, Meñaca y San Martín de Arteaga, la torre de Olariaga y otras muchas casas de la comarca de Meñaca; prendió a Sancho Ortiz de Zamudio, le encerró en Butrón y, en lugar de rescate, le casó con una hija bastarda suya, para traerle así a su voz y bando. En represalia de estas quemas, Pedro de Abendaño, Ballestero mayor del Rey, Señor y pariente mayor de la casa de Urquiza y Abendaño y de la villa de Villareal de Alava, juntó a los de su parcialidad, quemó los palacios que poseía Butrón en Abadiano y Ochandiano, entró en Aramayona y allí quemó otras veinte casas, inclusa la torre de Mendiola, y robó cuanto hubo a mano. Ausente a la sazón de su casa-torre Juanes de Mendiola, acudió al apellido de los vecinos del valle, que empuñaron las armas y pusieron en precipitada fuga al Señor de Abendaño, matándole en la retirada cinco hombres. Uno de ellos era un arrogante y forzudo arratiano, que gritaba jactanciosamente: Ba alda, ba alda, y a quien Mendiola contestó: Bada emen bere i lako bat al da, a la vez que le arrojaba una lanza, de cuyo golpe le tendió muerto. Y otro se llamaba Gaxto Apala, doble mote, que denota su perversidad e hipocresía. Pedro de Abendaño y el Prestamero de Vizcaya Ochoa Sánchez de Guinea, cargados del robo hecho, se escaparon por el escarpado y riscoso sendero de Arratondo; y este pasaje apuradísimo del prepotente magnate dio margen al siguiente cantar".

Ondoren bertsoak ematen ditu, eta urrena itzulpena:

De Izarraga arriba trepando iba
el señor Pedro de Abendaño que decía:
"Bajo mis pies, la tierra ándame temblando
y mi cuerpo en sus cuatro extremos lo mismo.
¡Oh si este flanco pudiera superar!
De nuevo no vintiera de Aramayona al embate.
Mendiola, me has matado a Gaxto Apala,
por sus compañeros a otros muchos teniéndolos.

Luis Michelena: *Textos arcaicos vascos, Madrid, 1964, 79 orrialdean.* Onek, oi duan bezela, testuaren azterketa zeatza egiten du.

(1448) Mondragoiko kanta

Juan Carlos Guerra: *Los Cantares antiguos del euskera, San Sebastián, 1924,* argibide jakingarri asko emanez.

Mondragoiko oñaztarren kanta:

Gal didila Unzueta ta Bergara,
Zaldibarrek bere partea debala,
Aramaio, suak erre azala,
ta sumi Ja(..)la Gurayarra;
zeren zeuren jauna ez zenean anpara.

Ganboatarren kanta:

– Eskerrik asko emaiten deusat
Andra Santa Maiñ(ari);
bera axeeizat sartu eta
esera bidaldo nau ni.

Oñatiko ganboarren kanta:

Gomez andia zanarren,
an zan Presebal bere,
bai Joanikote bere,
Madalenaan an ei danza
viola tronpeta bage.

Mondragoiko ganboarren kanta:

Gomizek asko lagunik
zabal arabaarrik,
giputz ondo ederrik,
bizkaitar urduri gogorrik,
ez diazo bakarrik,
ze an daz Presebalik
Juanikotegaz lagundurik,
txibulu ospe bagerik,
ez urrun Maloguenik.

Argi izarrak urten dau
zeruan goyan ostanzean,
bergararrak asi dira
traioe baten asmazean,
euroen artean dioela:
“erre dezagun Mundragoe,
lasterrean sar gaitezan”.
Kantoeko zarzaikeran
aen bizarrak ikara zirean,
armakaz ezer egin legez legez

Ganboarrak su emaitean
asi dira ta onegaz
urten daude berealan
oñeztar barrunangoak,
zeiñ erre ez zitezan.
Gomiz Gonzalez bertan zan,
beragaz Presebalen kaltean,
Joanikok eta beste askok
eudela parte bertan.

Oin arrok zi(tu)jan luma,
Ozaetako jaun gazteak
laster baten igaro zan
uraz alde bestea(n).
Ama bereak esaeusan:
– Semea, zer dok orrelan?
– Zaurietan kuradu eta,
ama, nagozu oera.

– Egun bein ur jarruta
Ganboar seme lasterra,
ara bere lasterrago
Abendañuje Motela.
– Eskerrik asko emaiten deusat
Andra Santa Maiñ(ari);
bera axeeizat sartu eta
esera bidaldo nau ni.

Kanta au Ibarguen-Cachupin-en kronikan gorde da. Berari buruz jakintsu askok itzegin dute. Guk Luis Mitxelenari jarraitu diogu: *Textos arcaicos vascos*, Madrid, 1964, 81 orrialdetik aurrera.

Kantaren itz batzuei etzaie esan-nai garbirik sumatzen. Itz oietaz luze mintzo dira bertso auek aztertu dituztenak. Eta, oi danez, emen ere “zenbat buru, ainbat aburu”. Baiña arazo ori alde batera utzita ere, kantaren mamiaz neke askorik gabe jabetuko da irakurlea.

Gertaera latz oiek nola izan ziran Juan Karlos Guerra jaunak kontatzen du, bere *Los cantares antiguos del euskera*, San Sebastián, 1924, liburuan, 14 orrialdeana

Gozaba, pues, tranquilamente don Pedro de Abendaño el valle de Aramayona el año 1448, cuando ocurrió en Mondragón una pelea entre los dos bandos mondragoneses, que eran los Báñez y los Gurayas; y, habiendo éstos últimos pedido socorro a Gómez González de Butrón, vio llegado el momento de volar en su ayuda y a la vez contando con la de ellos recobrar Aramayona. Animado con estos proyectos, reunió hasta quinientos hombres armados y, acompañado de Juanicote, su hijo, y Presebal, su sobrino, entró en Mondragón el martes 11 de Junio, día de San Bernabé. Vinieron sobre él don Pero Vélez de Guebara, don Iñigo, su hermano, con Abendaño Motela y otros arratiacos, pasados dos mil quinientos hombres, “pelearon mucho fuerte” y hubo muchos muertos y heridos por ambas partes. El jueves 13 siguiente llegaron en ayuda de don Pedro Vélez sus aliados los señores de Olaso, Balda, Zarauz, Achega, Iraeta, Pedro de Abendaño y Martín Ruiz de Arteaga, “con todo el poder de los gamboanos”; pero a todos hizo frente el valeroso y fuerte señor de Butrón y, tras un asedio de diez días, cuando se convencieron que no podían apoderarse de la villa por fuerza de armas, le pegaron fuego el día 23, víspera de San Juan. Ardió por los cuatro costados el pueblo, y Gómez González, que vio tomados por el enemigo todos los caminos del lado de Aramayona, determinó salir hacia Vergara, mandando por delante a Lope de Unzueta y los de Zaldíbar, a fin de que le esperasen junto a la ferrería del arrabal, “para se barrear allí ca esperaba socorro de Juan López de Lazcano e de los de Vergara”. Acertó a dar el señor de Unzueta con un mozo que preguntaba por Gómez González y, al contestarle a ver que le quería y manifestar el chico que le traía carta de Martín Ruiz de Gamboa, su yerno, repuso Unzueta: “Dámela, que yo soy”. Tomó así la carta, leyóla, y, viendo que en ella le prevenía que saliera en la vanguardia, por donde Gamboa estaba emboscado con su gente y le dejaría paso franco, acudió a dicho paso y se puso en salvo con todos los suyos. Cuando llegó momentos después Gómez González con el resto de sus fuerzas, fue acometido por tres partes y, en desesperada y desigual lucha, sucumbió, en unión de su hijo Juan González y su sobrino Presebal. Poco trabajo costaría a sus enemigos el rematar al desgraciado Juanicote, que “estaba ferido mucho mal”, tanto que su padre, apeándose del caballo, se lo había cedido para que viera de escaparse; pero, en cambio, Presebal vendió cara su vida, matando antes al mayordomo de don Pero Vélez y a otro de su séquito. Murieron también allí Sancho López de Ugarte, hijo de don Gonzalo de Ugarte, Señor de la casa de Ugarte en Vizcaya, y otras muchas gentes porque, según afirma Garibay, de sola Vergara fueron sesenta los muertos “ahora y después de las heridas recibidas en esta batalla civil, la mayor que ha habido en estas tierras entre estas dos parcialidades”. Ocurrió tan cruenta hecatombe en el arrabal de la Magdalena, junto a la ermita de esta advocación y su ferrería contigua, que radicaban a la orilla derecha del río, cerca del puente que hoy día conserva el nombre de Maala. A la orilla izquierda del mismo río, o sea allende el agua, y sobre la colina de Alday, se alzaba entonces la iglesia parroquial de Santa Marina, convertida actualmente en casería de labranza, pero que conserva en sus muros exteriores evidentes señales de su antigua y sagrada condición.

Tanto los ofiacionos como los gamboinos compusieron cantares destinados a conmemorarla; los primeros para lamentar el abandono en que sus huestes habían dejado al señor de Butrón y execrar

la infidelidad de sus vasallos, entre quienes señalan nominativum a Juan Latz el gurayano, y los segundos para celebrar la muerte de su odiado enemigo Gómez González, que los libraba del temor y la opresión que su sólo nombre inspiraba en aquellas circunstancias, pues "no vivía sino en medio de los ardores y de la embriaguez de la lucha. Cuando no la había la buscaba, como si en ella consistiera para él una de las condiciones esenciales de la vida. Contribuía a mantener las que sostuvieran otros linajes, y sostenía por sí no pocas. Cada empresa suya resultaba un nuevo motivo para encender peleas o para avivar las ya encendidas".

Kanta oiek nun eta nola azaldu ziran adierazi bearrez, onela dio Guerra jaunak:

"Tuve la fortuna de encontrar estos cantares de Mondragón hace cuarenta años, en unos cuadernos ordenados por el cronista Juan Francisco de Hita en el siglo XVII y catalogados bajo su nombre en la sección de manuscritos de la Biblioteca Nacional, en unión de otros varios que forman el infolio señalado con la signatura Z-32, con el título Linajes de Vizcaya, Guipúzcoa y Álava. Se los mostré después a mi buen amigo don José de Manterola, quien los leyó con entusiasmo y los publicó (no sin erratas) en su revista Euskal-erria el año 1883 (página 406 del tomo IX). Desde luego sospeché que los cuadernos procedían del País Vasco, y el averiguar su origen ha sido para mí en todo este tiempo una de tantas aspiraciones nunca satisfechas en mis investigaciones, hasta que ahora, cuando menos pensaba en ello, veo plenamente confirmada aquella sospecha y colmada mi curiosidad en el informe que don Luis de Lezama Leguizamón ha emitido, con tan profundo sentido crítico, acerca de la "Crónica de Ibargüen", donde demuestra cumplidamente que dichos cuadernos formaron parte de la mencionada Crónica y corresponden a los cuadernos 19, 158 y 159, que precisamente faltan en la misma...".

Esan bezela, Mitxelenaren testua eskeiñi degu or goien. Baiña jaun onek ez du erabateko itzulpenik egiten, lerroak banaka aztertu baizik. Guerrak jaunak bai, baiña berak agertzen duan testua ez da berdiña. Orregatik gerok ausartuko gera kanta au gaztelerara aldatzen:

*Que se pierdan Unzueta y Vergara,
que también a Zaldíbar le toque (su) parte.
Aramayona, que te quemé el fuego
y consuma al gurayano,
porque no amparasteis a vuestro señor.*

*Aunque (allí) estaba el gran Gómez,
también se hallaba allí Presebal,
y también Juanicote.
Allí, en la Magdalena, yacen,
sin (toque de) violas y trompetas.*

*Gómez (llevaba) muchos hombres:
anchos alaveses,
guipuzcoanos bien hermosos,
vizcaínos inquietos y duros.
No yace solo,
pues allí yace muerto Presebal,
acompañado de Juanicote,
sin honra de pífanos,
no lejos de la Magdalena.*

*Una clara estrella brilla
en lo alto del cielo,
los vergareses comienzan
a urdir una traición,
diciendo entre sí:*

*-Quememos a Mondragón
para que entremos (allí) rápidamente.
Pero a la entrada del cantón
sus barbas temblaban
como quienes nada podían hacer con las armas.*

*Los gamboínos a dar fuego
han comenzado, y con esto
salen inmediatamente
los oñacinos del interior,
para no quemarse.
Gómez González allí estaba.
Mientras con él, en perjuicio de Presebal,
Juanicote y otros muchos
recibían allí su parte.*

*Sus orgullosos pies los movía como plumas
el señor joven de Ozaeta;
en una carrera pasó
al otro lado del agua (río).
Su madre le dijo:
- Hijo, ¿qué te sucede?
- Cúrame las heridas y,
madre, me voy a la cama.
Únicamente hoy es perseguido de cerca(1)
el veloz hijo de gamboínos;
pero más veloz (es aún) Abendaño, el tartamudo.*

*Muchas gracias le doy
a la señora Santa Marina,
..... y(2)
a casa me ha enviado a mí.*

(1) Lerro au eta urrena oso ulergaitzak dira, eta oso dudazko itzulpena da eskeintzen deguna.

(2) Lerro au ezin itzuli.

Kanta onen aldaera bat, Guerrak Pedro Sáenz del Puerto jaunaren paperezatik artua:

Gomez andia izan arren
an zan, Presebal bere,
bai Juanikoti bere;
Madalenaan ein dantza
biola, tronpeta bage.

Gómez, a pesar de ser grande,
allí estaba, también Presebal
y también Juanicote
hacen danza en la Magdalena
sin viola ni trompeta.

Baiña, gure iritzirako dantza dion ortan datza bearko du seguru asko.

(1450) **Olasoko kanta**

Berba orren berba gazia
berba orri naz ez dakiola balia
dardoak eginarren bere aldia
Olaso da ene egoteko aldia.

Juan Carlos Guerra: *Los Cantares antiguos del euskera*, San Sebastián, 1924, argibide jakingarri asko emanet. Esteban de Garibay istolariari eskerrak gorde omen da kanta au. Gertakizuna 1450 urtekoa omen da, eta onela kontatzen du, Esteban Garibay istolariaren *Ilustraciones genealógicas*-tik artuta:

“Antes de la batalla de Mondragón, estando las cosas en alguna quietud entre Oñacinos y Gamboinos, había concertado Gómez González de casar a la dicha su hija doña Juana con Martín Ruiz de Gamboa. Señor de Olaso, arriba nombrado, pero como se halló en ella Martín Ruiz, quiso impedir el matrimonio de doña Elvira con el gran sentimiento de la muerte de su marido. Con todo esto pareció a algunos deudos de su casa que no se debía dejar de efectuar, y sobre todo estuvo tan constante la hija que no se pudo excusar, y refiérese en los cantares antiguos del Vasquenze, que dijo ella a su Madre...”.

Kanta eman ondoren, onela jarraitzen du:

“Quieren decir estos cuatro versos en castellano: Esa palabra cuán salada palabra es. Esa palabra no quiere tener valor. Porque puesto que el Dardo haya hecho su vez, Olaso es el banco para que

esté yo, etc. Salado se ha de entender aquí por salado desabridamente, respondiendo a la Madre que la muerte del Padre no había de ser bastante para impedir que ella dejase de ser Señora de Ola-so. Vista la voluntad de su hija y de algunos deudos, la Madre y Juan Alonso, su hermano, consintieron en ello, y enviaronla acompañada de dichos Lope de Unzueta, señor de Unzueta, y de Fortún Sánchez de Villela, Señor de Villela, y del Señor Zaldivar y del Bachiller Arana, y de otra gente com-petente a tal acto. Y salieron todos con ella en 15 de Enero de 1450 y la boda se celebró en Olaño el Domingo siguiente, 18 del mismo mes, con mucha solemnidad y fiestas, y gran concurso de Oñaci-nos, y muy mayor de Gamboynos, por ser de su bando el Novio".

Mitxelenak, bere *Textos arcaicos vascos* (Madrid, 1964) liburuan, kanta onen testua eta istoria-argibideak berdin ematen ditu. Baiña kantaren biga-rren lerroan, Guerrak *naz* idazten duan bezela, berak *nay* ipintzen du.

Sandailliko kanta

Ala Zalagarda Zalagarda malo,
 Zalagarda gaito Oñaztarra oondako.
 Arda zuri, arda Madrigalgoa,
 arda zuria Mendozagana doa,
 alabaña Sandailli gogoa,
 Zalagarda Sandaillira doa.

Eta ondoren beste bertso auek:

Sandailliak ateak ditu txitxarrez,
 nola txitxarrez da ala zendalez;
 Hermandadea arean doa negarrez,
 Anso Garziak gaztelu ori emun ez,
 ezen ugin da estikitxa esan ez.

Laskau arroen igesetako lasterra,
 Laskau arrok ostatuan onela:
 Gabez ere urtunik ao bela,
 argi izarrok ditugula kandela,
 ostatuan gera, dixo, iguk emenda.

*Ala Zalagarda, Zalagarda malo,
 Zalagarda malo para esos oñacinos,
 vino blanco, vino de Madrigal,
 el vino blanco va donde Mendoza;
 empero las garas para San Elías,
 Zalagarda va a San Elías (llevándolo).*

*San Elías tiene las puertas (llena) de chicharrones,
 así de chicharrones como de piras de leña (ardiendo),*

*la Hermandad allí va llorando,
Sancho García no da ese castillo,
pues le repugna y no dice palabra suave.*

*La carrera del soberbio Lazcano para huídas,
Lazcano el soberbio en la posada (habló) de este modo:
“De noche también saliendo éstas enseguida,
las claras estrellas sirviéndonos de vela,
en la posada estamos, dice, danos provisiones”.*

Juan Carlos Guerra: Los Cantares antiguos del euskera, San Sebastián, 1924, or goien ezarri degun itzulpena egiñez.

Guerra jaunak doctor Puerto-ren esku-idatzkietatik artua omen zuan. Baita argibide jakingarri auek ere:

“Solíanse acoger los lacayos de todo el Bascuence a Oñate a Sancho García de Garibay, y éstos, en el puerto de San Adrián, pidieron a un arriero de Hernani, que se decía Juan Zaar, que les hiciese cortesía (esto es que les diese para beber). Y como no les daba, le quitaron de su dinero; y después se quejó al corregidor y a toda la Provincia; los cuales enviaron al Merino Mayor con mucha gente a Oñate. Y algunos avisaron a Sancho García y sus lacayos; los cuales huyeron a la cueva de San Elías, y allí los cercaron. Esta cueva tiene una puerta casi media legua, y por allí les proveían de lo necesario sus amigos, con un criado que se llamaba Zalagarda, y se compuso entonces este verso”.

Kanta onen leenengo bertsoa eman ondoren, onela jarraitzen du:

“Este Mendoza era el merino mayor; y el vino que para él iba cogieron en el camino y se lo llevaron a los cercados de San Elías. Toda la Hermandad los tuvo cercados algunos días, y al cabo, como no se querían rendir, ataparon la puerta de torreznos de tocinos gordos y los asaron, pensando que con aquella manteca y grasa los abrasaran, pero bien seguros estaban. Al fin les dejaron, y entonces se compuso este cantar”.

Urrengo, kanta onen bigarren eta irugarren bertsoa eskeintzen ditu.

Luis Mitxelenak ere itzegiten du kanta ontaz, bere *Textos arcaicos vascos* (Madrid, 1964), liburuan, 92 orrialdean.

Bere iturriak zein izan diran onela adierazten du:

“Estos fragmentos, procedentes de los apuntamientos inéditos del doctor Puerto de Oñate, según copia de Floranes, están impresos en Isasti, Apéndice, p. 56 (B. f. 769), ed. Ispizua, p. 242 s. El texto ha sufrido toda suerte de corrupciones: cf. Guerra, p. 24 ss., Gorostiaga, p. 66 ss., Zumalde, p. 74 ss.

Floranes no deja de poner sobre aviso al lector: “Es muy menuda, muy equívoca y a veces imperceptible la letra del Doctor Puerto. Los más enterados de la dicción bascongada podrán penetrarle su concepto y entender aquellas teminaciones que aquí se hayan errado”.

Ala, Mitxelenak onela eskeintzen du bertsot auen testua:

Ala Zalagarda
Zalagarda mala
Zalagarda gaisto
Oñaztarra oondaco.

Arda zuri, arda Madrigalgoa,
arda zuria Mendoza gana doa,
alabaña Sandayli gogoa,
Zalagarda Sandaylira doa.

Sanda iliac atrac ditu zizarrez
nola zizarrez da ala zendalez
Hermandadea arcandoa negarrez
Anso Garcia é gasteluori emunez
ec envinda estiquicha esan ez.

Lascavarroen y esataco lastorra
Lascavarro costatuan onela
gavaz ere urtunica ovela
argui izarrocc ditugula candela
ostatuan guera diro igu emenda.

Testu oni buruz azterketa luzea egin ondoren, onela bukatzen du:

"En resumen, propondriamos el texto siguiente, con lagunas, para los vv. 9-18, conservando s por z ante consonante:

Sandiliac ateac ditu zirarrez,
nola zirarrez da ala zendalez,
Hermandadea arean doa negarrez,
Anso Garciac gasteluori emun ez,
..... esan ez (esanez?).

Lascauarroen iesetaco lasterra!
Lascauarroc ostatuan onela:
Gauaz... urtenic.....
Argui içarroc ditugula candela,
Ostatuan".

(1464)

Martin Bañez Artazubiaga-ren il-eresia

Oñetako lur au jabilikara,
lau aragiyok berau bezala,
Martin Bañez Ibarretan il dala...
Artuko dot esku batean gezia,
bestean suzi iratx egurra,
erreko dot Aramaio guztia.

Juan Carlos Guerra: *Los Cantares antiguos del euskera, San Sebastián, 1924*, argibide jakingarri asko emanez. Guerrak Esteban de Garibay-ren liburuetatik artua omen du.

Beste argibide askoren artean, auxe ere ematen du:

“Casado Martín Báñez en 1450 con doña Sancha Ochoa de Ozeta y Marzana y cofrade terciario de la Orden de la Trinidad desde el siguiente año 1451, llevaba una vida pacífica, si nos atenemos a lo que de sus libros de cuentas resulta. Su viuda (escribe Garibay) hizo gran llanto, muy usado en este siglo, por la desgraciada muerte de Martín Báñez, su marido, y soledad suya y de sus hijos, y cantó muchas endechas, que en vascuence se llaman eresiyac, y entre ellas se conservan hoy día algunas en memoria de las gentes, en especial éstas...”

Gertakizun au 1464 urtekoa omen da.

Eta aurreko kanta ori agertzen du.

Itzulpena onela egiten du:

“Su significación es: “que la tierra de los pies le temblaba, y de la misma manera las carnes de sus quattro quartos, porque Martín Báñez era muerto en Ibarreta: había de tomar en la una mano el dardo, y en la otra acha de palo encendida, y había de quemar a toda Aramayona”.

Luis Mitxelenak kanta ontaz itzegiten du bere *Textos arcaicos vascos* (Madrid, 1964) liburuan, baiña testua beste onela emanez:

Oñetaco lurrau jabilt icara,
Lau araguiooc vere an verala,
Martin Bañes Ybarretan il dala,
Artuco dot escu batean guecia,
bestean çuci yraxegua,
erreco dot Aramayo guztia.

Juan Gorostiaga: *Antología de Poesía Popular Vasca, San Sebastián, 1955*, 111 orrialdean. Argitalpen au Mitxelenarena baiño leenagokoa da. Baiña testua berdintsu ematen du.

Emilia Lasturren il-eresia

Juan Carlos Guerra: *Los Cantares antiguos del euskera, San Sebastián, 1924* liburuan, onela dio:

“El insigne cronista Esteban de Garibay, en el título V del libro II de sus Memorias, al tratar de la descendencia femenina de los Oros en Mondragón, y de los de Lastur en Deva y de otras familias, refiere cómo “doña Emilia de Lastur, habiendo fallecido moza de parto, su marido Pedro García de Oro se entendió que quería casar con doña Marina de Arrazola, a quien de antes estaba aficionado. Hizo mucho sentimiento dello una hermana de doña Emilia, y, venida de Deva a Mondragón, cantó las endechas siguientes en cierto dia de sus honras, cosa muy usada en este siglo:”

Zer ete da andra erdiaen zauria?
Sagar erreeta eta arda gorria,
alabaia kontrario da Milia,
azpian lur otza, gañean arria.

Lasturrera bear dozu, Milia,
aita jaunak eresten dau elia,
ama andreak apainketan obia,
ara bear dozu, andra Milia!

Jausi da zerurean arria,
aurkitu dau Lasturren torre barria,
edegi dio almeneeari erdia,
Lasturrera bear dozu, Milia.

Arren, ene andra Milia Lasturko,
Peru Garziak egin deusku laburto,
egin dau Andra Marina Lasturko,
ezkon bekio, bere idea dauko.

El sentido de estos versos es que ella, hablando con su hermana doña Emilia, recién fallecida, llamada Milia en esta lengua, da a entender no haber sido bien tratada del marido, y que estaba ya debajo de la tierra fría, teniendo encima su losa, y era menester que la llevasen a Lastur, pues su padre baxaba gran hato de ganado para sus funerarias, y su madre aderezaba la sepultura; de donde se sigue que los padres eran vivos cuando falleció ella moza. Dize más en los últimos versos, exclamando mucho su muerte, que del cielo había caído una piedra y había acertado a dar en la torre nueva de Lastur, y había quitado la mitad a las almenas, y había menester yr ella a Lastur y otras razones haciendo sentimiento del casamiento que se entendía quería hacer con la dicha doña Marina de Arrazola.

A estas cosas respondió doña Sancha Ortiz, arriba nombrada, hermana de Pedro García de Oro, los versos siguientes:

Ez dauko Peru Garziak bearrik,
ain gatx andia apukadua gatik,
zeruetako mandatua izanik,
andrari ok ala kunpli jasorik.

Gizon txipi sotil baten andra zan,
atearte zabalean oi zan,
giltza-porra andiaen jabe zan,
onra andi asko kunplidu jazan.

Quieren decir que Pedro García de Oro no tuvo culpa en lo que ella le oponía, sino que fue mandamiento del cielo, y que con mucha grandeza había sido ella sustentada y había sido ella mujer de

un hombre pequeño y bien hecho, y así se refiere díl haber sido de estatura pequeña, pero de rostro hermoso y bien proporcionado en sus miembros. Dize más, que solía ella vivir en portal ancho, significándolo por casa grande, y que había sido señora de grande esquero de llaves, por significar por ellas su mucha riqueza y sustentada en mucha honra por el marido.

Hay otras coplas sobre los mismos, que también las quiero poner aquí, cantadas por la dicha hermana de doña Emilia.

Arren ene andra Milia Lasturko,
mandatariak egin deust gaxtoto.

Zerurean jausi da abea,
jo dau Lasturko torre gorea,
eroan ditu ango jauna eta andrea,
bata leen, gero bestea,
bialdu dogu zeruetara kartera,
arren diguela geure andrea.

Mondragoeri artu deusat gorroto,
gipuz andra ok artu ditu gaxtoto;
Iturrioz kalean andra María Baldako,
Arte kalean andre Otxanda Gabiolako,
erribalean andra Milia Lasturko.

Hablando con la dicha doña Emilia quieren decir que el mensajero no lo había hecho bien y que del cielo había caído un poste, y dado en la torre de Lastur, y se había llevado, por decir muerto, al señor y señora de esta casa, al uno primero y a la otra después, y habían enviado una carta al cielo para que la diesen a esta señora. Dize más, que estaba indignada contra Mondragón, porque había tomado mal a las mujeres de Guipúzcoa, de las cuales nombra tres. En la calle de Iturrioz a doña María de Balda, mujer de Rodrigo Ibáñez de Avendaño, de quienes se tornará a tratar en adelante. En la calle de Medio nombra a doña Ochanda de Gabiola, la cual fue mujer de Ochoa Báñez de Artazubiaga, vecino de Mondragón, como queda visto atrás. Después nombra a la dicha doña Emilia de Lastur en el arrabal de abajo de esta villa. Son endechas de mujeres, que por conservación de esta vejez las he querido referir aquí”.

Ondoren onela dio Guerra jaunak:

“No sabemos con exactitud la fecha de esta composición fúnebre, pero data indudablemente de la primera mitad del siglo XV, porque el año 1429 falleció doña Ochanda de Gabiola, mencionada en la última estrofa y madre que fue de Martín Báñez de Artazubiaga, el asesinado en Ibarreta en 1464”.

Itzulpena onela egiten du Guerra jaunak:

“¿Qué requiere la herida de la mujer parida?
Manzana asada y vino tinto;
empero lo contrario es, Emilia, (lo que le dan)
debajo la fría tierra, encima la pétrea losa.

A Lastur debes ir, Emilia,
el señor padre baja el rebaño,
la señora madre adereza la sepultura;
allí debes ir, señora Emilia.

Ha caído desde el cielo una piedra,
ha encontrado en Lastur la torre nueva,
le ha abierto la mitad de la almena.
a Lastur debes ir, Emilia.

¡Por Dios, mi señora Emilia de Lastur!
Pedro García nos comete ruindad,
ha hecho señora a Marina de Arrazola,
cásela consigo (pues) tiene su rango.

– No tiene Pedro García responsabilidad
por haber sobrevenido tan grande mal,
siendo ordenación de los cielos
que a la mujer esos (destinos) así le sucedieran.

Era mujer de un hombre pequeño (pero) galán;
habituóse en ancho portalón,
era dueña de gran esquero de llaves,
muchos y grandes honores se (la) cumplieron.

– ¡Por Dios, mi señora Emilia de Lastur!
El mensajero hizome mal (el recado)

Ha caído desde el cielo un poste,
ha golpeado (con fuerza) la torre alta de Lastur,
ha llevado de ella el señor y la señora,
primero el uno, luego la otra,
hemos enviado a los cielos una carta
suplicando (nos den) nuestra señora.

A Mondragón he tomado odio
porque ha tratado mal a estas mujeres de Guipúzcoa:
en la calle de Iturrioz a la señora María de Balda,
en la calle de Medio a la señora Ochanda de Gabiola,
en el Arrabal a la señora Emilia de Lastur.

Juan Gorostiaga: *Antología de Poesía Popular Vasca*, San Sebastián, 1955, 113 orrialdean. Onek Juan Carlos Guerra jaunari kopiatzen dio.

Luis Michelena: *Textos arcaicos vascos*, Madrid, 1964. Onek, Garibay-k eta Guerrak ematen dituzten argibideak eskeiñi ondoren, testuaren azterketa egiten du.

(1471) Salinasgo kondearen kanta

Lelori lelo saray leloa
Bilbao'n katigu dago Salinas'goa;
kalea bera burua bazon daroa;
zer ete dan amoradu gudoa.

*Al cantar la canción, ¡entra canción!
En Bilbao preso se halla el de Salinas;
calle abajo lleva la cabeza gacha;
¡cuál será la guerra que así le ha reducido!*

Kanta au, bere itzulpenarekin, Juan Carlos Guerra jaunak ematen dizkigu, bere *Los cantares antiguos del euskera* (San Sebastián, 1924) liburuan, 84 orrialdean, istoriaren aldetik argibide auek emanez:

"El Conde Haro don Pedro Fernández de Velasco, Condestable del Rey Enrique IV de Castilla, fue no sólo poderoso, sino sagacísimo entre todos los grandes de su tiempo. Desterró de Vizcaya a Pedro de Abendaño, cabeza del bando gamboino, y a Juan Alonso de Muxica, jefe de los oñacinos, para apaciguar el Señorío; pero luego sustituyó al despotismo de aquéllos el suyo propio, excediéndose de su misión pacificadora "aún más de lo que el corto sufrimiento del país sabía tolerar, le puso todo en tal aprehensión de perder la anciana libertad recayendo en su dominación, que sin embargo de estar más encendidos que nunca los dos bandos de Oñaz y Gamboa, se redujeron ambos a buscar el favor del Conde de Treviño", según escribe Salazar y Castro. El mismo autor consigna que Treviño tenía antigua alianza y parentesco con las casas de Abendaño y Muxica, que reunió en el Monasterio de San Zoil en Carrión a Pedro de Abendaño y Juan Alonso de Muxica y, con su autoridad y prudencia, los redujo a deponer aquellos envejecidos odios de sus familias y unir con las del conde las armas de sus partidos para liberar sus provincias de la servidumbre que les labraba el Conde de Haro. El pacto de San Zoil tuvo por consecuencia la sangrienta batalla de Munguía, dada el 27 de abril de 1471, donde, en expresión de Alonso de Palencia, "la virtud del conde de Treviño y de los suyos prevaleció sobre la muchedumbre del Conde de Haro", siendo éste roto y deshecho con pérdida de más de mil hombres y trescientos caballos, según Zurita y Mosen Valera. Defendieron allí bravamente los vizcainos la libertad de su tierra y pudieron cantar sin jactancia:

*Ésta es Vizcaya, buen Conde de Haro,
ésta es Vizcaya, que no Belorado.*

El P. Mariana procura disculpar la derrota y escribe: "El de Treviño tenía más infantería, gente más a propósito que la caballería, por la aspereza de la tierra, que es fragosa y doblada; los naturales otrosí tenían de su parte gente valiente, y conforme a la naturaleza y calidad de los lugares, sufridora de trabajos; así los contrarios fueron desbaratados y puestos en huida con muerte de algunos, mayormente de los hidalgos y gente noble y pristón de muchos más".

Garibay, diciendo que fue vencido el de Haro por la infantería vizcaina, añade que quedaron presos el Conde de Salinas y don Luis de Velasco; y en la crónica de Ibargüen se ha conservado una canción que los vizcainos dedicaron al mencionado conde para celebrar su captura y sumisión".

Salinasgo konde ori nor zan adieraztearen, onela dio Guerrak oar batean:

"Don Diego Gómez Sarmiento, primer Conde de Salinas, según Garibay, aunque Lope García de Salazar señala otros Condes más antiguos de Salinas, incluso uno que murió en Aljubarrota y se llamó también don Diego Gómez Sarmiento. Recayó el Condado en la Casa Ducal de Hijar".

Luis Mitxelenak, beriz, bere *Textos arcaicos vascos* (Madrid, 1964) liburuan, 97 orrialdean, kanta au aztertzen du, testua onela emanez:

Lelorilelo y leloa,
Bilbao catigu dago Salinasgoa.
Calea bera burua bax(.)n daroa,
ser ete dan amoradu gexoa.

(1476) **Juan Lazkanoren kanta**

Juan de Lazcano beltzarana,
Gipuzkoa'ko kapitana,
frantzes osteak jakingo du
ura Ondarrabiyán zana

Kanta au Guerrak orrela ematen du bere *Los cantares antiguos del euskera* (San Sebastián, 1924) liburuan, 89 orrialdean, itzulpena onela egiñez:

*Juan de Lazcano, el moreno,
capitán de Guipúzcoa,
acordaránse los franceses
de que él llegó a Fuenterrabía.*

Aurretik argibide auek ematen ditu:

"Refiere el Bachiller Zaldibia que, cercada por los franceses en este año la plaza de Fuenterrabía, fue tan grande el aprieto, que los Reyes Católicos, imposibilitados a la sazón de socorrerla, la daban por perdida; pero Juan López de Lazcano, Señor de la casa de Lazcano, publicó apellido por Guipúzcoa y reunió bajo sus pendones a toda la gente de armas de la provincia, con la cual, después de escaramuzar muchas veces, les obligó a los franceses a levantar el sitio y cruzar el Bidasoa. Entonces se compuso en honor suyo el siguiente cantar..."

Luis Mitxelenak kanta au ere aztertzen du bere *Textos arcaicos vascos* (Madrid, 1964) liburuan, 99 orrialdean.

Lope Martínez de Isasti-k ere azaltzen omen du kanta au bere *Compendio historial* liburuan, azken lerroak onela emanez:

Frances hosteac jaquingo dic
Ura Ondarrabien zana.

Compendio guipuzcoano esku-idazkiak, berriz, kanta onen aldaera au ematen omen du:

Juan de Lazcano belz carana
Guipuzcoaco capitana.
Oroituco dirá Fransesac,
jaquingo duté bada,
Vra Ondirribira sana.

(1493)

Naparroako Kondestablearen kanta

Labrit eta Errege
aita-seme dirade,
Kondestable Jauna
arbitzate anaye.

Kanta au ere Juan Carlos Guerrak eskeintzen digu, bere *Los cantares antiguos del euskera* (San Sebastián, 1924) liburuan, aurretik argibide auek emanez:

Cuenta el P. Moret en sus Annales de Navarra, que el sábado 21 de Diciembre de 1493, se presentaron los reyes don Juan III y doña Catalina de Navarra, acompañados de la princesa doña Magdalena y mucha nobleza de Bearne con los principales agramonteses del Reino, a las puertas de la ciudad de Pamplona, que hallaron cerradas por orden del Condestable Conde de Lerín, a quien obedecían ciegamente los beumonteses. Sintieron el desacato y, prudentemente, se retiraron a Egües, donde hubieron de permanecer hasta ajustar las diferencias con su altivo súbdito, quien sacó las ventajas que pudo y entregó a los monarcas su capital a principios de 1494. Ya en pacífica posesión de la Corte, celebróse en su catedral la coronación solemne el domingo 10 de Enero del mencionado año, con la mayor pompa que jamás se vio, seguida de grandes fiestas y regocijos. En una de las comedias que entonces se representaron, hubo en sus intervalos varios chistes con alusiones, que más eran para agriar los ánimos que para endulzarlos, como fuera razón, y en uno de ellos se cantó esta copla vasca”.

Kanta eman ondoren, onela jarraitzen du:

“Cuya traducción coetánea dice textualmente:

*Labrit padre y rey hijo
si queréis acertarlo
al señor Condestable
tomadle por hermano.*

Si bien la versión literal de los dos primeros versos es “Labrit y el Rey son padre e hijo”, y el verbo “acertar” se sobreentiende pero no expresa”.

(1497-1511)

Diego Díaz de Haro-ren kanta

Jaun Diaoz Arokoa,
zaldotxandi Espaňakoa,
ezek ezer eziegion
egian Jaunak baroa.

*El señor Diego de Haro,
caballero de gran resonancia en España,
nada (en el mundo) podía hacerle cosa alguna
y en verdad el señor le lleva.*

Oietxek dira Juan Carlos Guerrak, bere *Los cantares antiguos del euskera* (San Sebastián, 1924) liburuan, 59 orrialdean, eskeintzen dituan testu ta itzulpena.

Juan Gorostiaga: *Antología de Poesía Popular Vasca*, San Sebastián, 1955, 107 orrialdean. Onek beste onela ematen du kanta au:

Jaun Diaz Haro'koa
zaldun andi Españi'koa!
Ezer ezer ezin egion,
egian Yaun'ak baroa.

Eta itzulpena onela:

*El señor Díaz de Haro
¡gran caballero de España!
Cuando nada nada le pudo hacer,
hízolo el Señor barón.*

Luis Mitxelenak, berriz, bere *Textos arcaicos vascos* (Madrid, 1964) liburuan, 101 orrialdean, beste onela ematen ditu:

Jaun Diaoz Arocoa,
Çald(...) andi Espaňacoa,
eçec eçer ecieguión,
eguijan Jaunac baroa.

Señor Diego de Haro, gran caballero de España. Nada pudo hacerle nada ; el Señor que le hizo (le creó) se lo lleva.

Kanta onen argibideak oso luze ematen ditu Guerra jaunak. Mitxelenak, berriz, onela dio:

"Ibargüen-Cachopín, cuaderno 75, hoy en Bilbao. Según Guerra, don Diego López de Haro falleció entre 1497 y 1511".

Eta kanta idatzi ondoren:

"...esto cantaron a la muerte de don Diego de Aro, porque queriendo saber q(ue) era lo q(ue) cantaban en las endechas de Vizcaya, le respondieron q(ue) eran alabanzas y el dijo q(ue) al uso de Vizcaya le llanteasen".

(1475) **Fernando V-ren kanta**

Gure Errege Jauna
billatu degu basoan,
goizean eizera joana,
pozkida bete osoan,
berak dituelako ikusi
batzuk ill eta besteak bizi,
portugesak amilka igesi.

*A nuestro señor el Rey
encontramos en el bosque;
tempranito fue a cazar,
le alegraba entero goce.
Porque él mismo contemplara
unos muertos y otros vivos,
los portugueses rodando
derribarse fugitivos.*

Kanta au eta beraren itzulpena Juan Carlos Guerra jaunaren *Los cantares antiguos del euskera* (San Sebastián, 1924) liburutik artuak ditugu, 88 orrialdetik. Gertaeraren berri onela ematen du:

"Más de dos mil guipuzcoanos sirvieron a los Reyes Católicos en los cercos de Toro, Zamora y Burgos, así como en las acciones militares ocurridas en aquel año. Un día, habiendo ido el Rey a caza, y no volviendo tan presto, según refiere Isasti, o, como dice Garibay, porque era partido en secreto para Valladolid, se alborotaron los guipuzcoanos temiendo alguna traición; y con el gran celo del servicio de su Rey comenzaron a preguntar de él, gritando algunos: "Daca Rey, Daca Rey", hasta que los sosegaron con persuadir que el Rey estaba vivo y libre; episodio que dio margen al cantar siguiente...".

Domenjon Gonzalez Andia-ren kanta

Sagarra eder gezatea,
gerriyan ere ezpatea,
Domenjon de Andia
Gipuzkoako erregia.

*Bella es la manzana dulce,
también la espada en cintura;
(así) Domenjón de Andía
es el rey de Guipúzcoa*

Kanta onen testua eta itzulpena orrela ematen ditu Juan Carlos Guerra jaunak, bere *Los cantares antiguos del euskera* (San Sebastián, 1924) liburuaren, 83 orrialdean, istoria aldetik argibide auek eskeiñiz:

"Bajo el título asaz modesto de Escribano Fiel de la Provincia, fue Domenjón González de Andía un diplomático sagaz y el gobernante más energético y que mayor intervención tuvo en su tiempo en el régimen autonómico de Guipúzcoa. Gestionó hábilmente la paz de 1457 y los tratados con Inglaterra sobre indemnizaciones y comercio en 1474 y 1482. Sus diversas aptitudes se reflejan gráficamente en el cantar que le dedicaron sus contemporáneos, y que a la vez acredita su popularidad".

Arkibidea
Indice

Arkibidea

Indice

Itzaurrea / Prólogo	7
Istorikoak / Romances históricos	29
Anaiai gaztigatu nion	31
Andre Emili, andre gora	33
Atarratze jauregian	38
Behin batez yoan ninduzun	61
Erramplanpan atabala joiten dute herrian	65
Etxe eder leio bage onetan	67
Gainkoak deizula egun on	83
Goizian goizik jeiki nündüzün	88
Hala bada etxe noblia	113
Haltzak eztü bihotzik	117
Hauzeko anderia	128
Hegaburu Eskiula	133
Jundane Juhane goizian	135
Jaun baroinak xedelak	148
Salinasgo konde	153
Sortu nintzan Etxauzian	155
Txori batek behin batez	158
Urteak zonbat egun tu?	160
Urtsuak zazpi leio	163
Urzo luma gris gaxua	180
Urzo luma gris xuria	193
Ürzo xuri bat jin izan zaikü	196

Izen ona / El honor	199
Agur, agur, agur, ama neuria <i>edo</i> Etorri nintzanian Frantzia kortetik	201
Brodatzen ari nintzen	233
Arrosa xuriaren artian <i>edo</i> Elorri xuriaren azpian	257
Egun batian ni banenguan	273
Andere esposa, beha zure ama nigarrez	291
Bazko eta Salbatore	294
Egun onak Jaungoikuak	298
Itzulera / El retorno	301
Kanzuriano, Kanzuriano	303
Ene, ama, otoi errazu	308
Andere ederra, gorarik zaude lehioan	313
Arrats batez Yolanda	335
Agur, etxekoak, nahi duzueia	338
Hiru soldado gazte	341
Leisibatxu zuria dozu	344
Nere seme ttipiena	359
Amodioa / El amor	367
Adios orain, dama gaztia	369
Aita konfesoria, konfesatu naizu	371
Aita San Migel Idurretako	375
Artzai nindagoenian	380
Asentsio-eguna da señalaturik	382
Atia <i>kis-kos</i> jo nion baña	385
Eguna zala, eguna zala	393
Goizean goiz jeikirik	395
Ipiñeburu leku altuen	408
Gure ortuban sagarra loran	411
Izar ederrak argi egiten dau	413
Maitiak biloa holli	422
Mus Urrutia leihotik	427
Orai hasten niz kantatzen	429
Pazkoetan den alegerena	443
Perretxikotan nenbilenean	450
Trinidadadeak ditu	454

Ipuiak / Cuentos y leyendas	457
Banbruxeneko nausiak	459
Goizean Parisen	463
Guti gostarik bildurik	466
Ote da mundu huntan	469
Peru gurea Londresen	494
Ura ixuririk sorginen bidean	519
Beranduko erromantzeak / Romances tardíos	523
Alejotxo, jantzi ttuzu	525
Antonia Agustina da neure izena	527
Soldadu sartu nintzan	534
Oi mirakulu guziz sineste nekea	537
Erlziejozkoak / Religiosos	541
Eguberria / Navidad	543
Abe, Maria, graziaz betea	545
Illargi argixa	551
Nora zoazen erran daztazu	553
Utzi mendiyan ardiak eta	556
Ardi-narruz jantzirk	558
Jesukristoren Pasioa / Pasión de Jesucristo	563
Lagunak lagun kanta dezagun	565
Aiek lotan daudenak	575
Amabost pausuz konponitzen da	577
Birjina Arantzazukoa	579
Zer esaten didazu, Madalenea?	582
Miserere, miserere	586
Nere lagunak, lagun zakidaz	589
Or goien Belenen	591
Gurutze santuaren bai misterioa	595
Urteak il bi ditu alegerarik	615
Kristau fedea / Fe cristiana	619
Orriak aidez aide	621
Birjinearen gaba da eta	635

Iturri eder, iturri zuri	642
Kristinau onak bear leuke	644
Mundua despeditu dudala	652
Nere Ama Birjiña Kontzeziñokoa	661
Zidar labraduz egiñik dago	666
Ama Birjiñaren santutegiak / Santuarios de la Virgen.	669
Arantzazuko erromantze zaarrak	
Aguztuaren amabostgarren... / <i>El romance de la romería del cautivo</i> . . .	671
Arantzazura egin dut promes... /	
<i>El romance de los romeros de Aránzazu</i>	718
Arrateko zelaiko	723
Santuak / Santoral.	741
Goazen San Juanera	743
San Pedro zeru altuko	748
Maria Magdalena bere egunean	753
Bieta Santa Klara	755
Jesus esanda abietzen naiz	758
Loiolan jaio izan zan seme noblia	760
Erromantze puskak / Fragmentos.	763
Erdi Aroko kantak / Cantares de la Edad Media	775
Beotibarko kantak	777
Urruxolako kanta	779
Aramaiko kanta	780
Mondragoiko kanta.	781
Olasoko kanta	786
Sandailliko kanta	787
Martin Bañez Artazubiaga-ren il-eresia	789
Emilia Lasturren il-eresia	790
Salinasgo kondearen kanta	794
Juan Lazkanoren kanta	795
Naparroako Kondestablearen kanta	796
Diego Dias de Haro-ren kanta	797
Fernando V-ren kanta.	798
Domenjon Gonzalez Andia-ren kanta	799



1038071

BO-9329



AUSPOA • SENDOA